

Egunean Eguneko

Ebanjelioa

2015 Urtea

Egunean Eguneko
Ebanjelioa

2015 Urtea

Meza santua
Egutegi liturgikoa eta Santuak
Eguneko ebanjelioa
Igande eta Jai egunetako hiru irakurgaiak Otoitzak

Egunean eguneko iruzkin laburrak gaztelaniaz:
Ángel Pérez Gómez, S.J.

Testu liturgikoak:
Liturgiako ohiko liburuetatik;
batzuk EABtik;
itzultzailearen ukitu batzuekin.

Mezulari

Debekatua dago, legeak jasotako salbuespenetan izan ezik, lan honen kopiarik egitea, banaketa burutzea, jendaurrean zabaltzea eta aldaketak egitea jabetza intelektualaren titularren baimenik gabe. Aipatu eskubideen urratzea jabetza intelektualaren aurkako delitutzat har daiteke (Zigor Kodea, 270 eta hurrengo artikulua). Erreproduzio Eskubideen Espainiar Elkarte (www.cedro.org) da eskubide horien babesaz arduratzen dena.

Liburua eratu eta euskaratu: Dionisio Amundarain OSB.

Argitalpen honen erantzulea: Koldo Katxo, s.j.

© Mezulari, 2014
Grupo de Comunicación Loyola
Sancho de Azpeitia kalea, 2 zenb.
48014 Bilbo
mensajero@mensajero.com
www.mensajero.com

ISBN: 978-84-271-3666-3
Lege gordailu: BI-1639-2014
Maketazioa: Rico Adrados, S.L.
Inprimategia: Gestingraf, S.A.L.

Aurkibidea

Poztu zaitetze	9
Meza Santuaren egunerokoa	11
Egutegi liturgikoa eta Santuak. Eguneko ebanjelioa eta irakurgaiak	
Urtarrila	25
Otsaila / Zezeila	77
Martxo / Epaila	121
Apirila / Jorrraila	185
Maiatza	245
Ekaina / Bagila	293
Uztaila / Garagarrila	343
Abuztua / Dagonila	387
Iraila	445
Urria / Urrila	495
Azaroa / Zemendia	541
Abendua	586
Otoitzak eta debozioak	645
Jesusen Lagundiko Egutegi Propioa	675

URTEKO LITURGIKOA 2015

B-C URTEAK

Asteak	I	A1	A2	A3	O1	O2	L
URTARRILA							
1 Egub.					1	2	3
2 Egub.	4	5	6	7	8	9	10
1 Urt.	11	12	13	14	15	16	17
2 Urt.	18	19	20	21	22	23	24
3 Urt.	25	26	27	28	29	30	31
OTSAILA							
4 Urt.	1	2	3	4	5	6	7
5 Urt.	8	9	10	11	12	13	14
6 Urt.	15	16	17	18	19	20	21
1 Gar.	22	23	24	25	26	27	28
MARTXOA							
2 Gar.	1	2	3	4	5	6	7
3 Gar.	8	9	10	11	12	13	14
4 Gar.	15	16	17	18	19	20	21
5 Gar.	22	23	24	25	26	27	28
Aste San.	29	30	31				
APIRILA							
»				I	OS1	OS2	LS
1 Pazk.	PE	6	7	8	9	10	11
2 Pazk.	12	13	14	15	16	17	18
3 Pazk.	19	20	21	22	23	24	25
4 Pazk.	26	27	28	29	30		
MAIATZA							
»						1	2
5 Pazk.	3	4	5	6	7	8	9
6 Pazk.	10	11	12	13	14	15	16
7 Pazk.	Ig.	18	19	20	21	22	23
8 Pazk.	Men	25	26	27	28	29	30
9 Urt.	31						
EKAINA							
»		1	2	3	4	5	6
10 Urt.	Cor.	8	9	10	11	12	13
11 Urt.	14	15	16	17	18	19	20
12 Urt.	21	22	23	24	25	26	27
13 Urt.	28	29	30				

Asteak	I	A1	A2	A3	O1	O2	L
UZTAILA							
»				1	2	3	4
14 Urt.	5	6	7	8	9	10	11
15 Urt.	12	13	14	15	16	17	18
16 Urt.	19	20	21	22	23	24	25
17 Urt.	26	27	28	29	30	31	
ABUZTUA							
»							1
18 Urt.	2	3	4	5	6	7	8
19 Urt.	9	10	11	12	13	14	15
20 Urt.	16	17	18	19	20	21	22
21 Urt.	23	24	25	26	27	28	29
22 Urt.	30	31					
IRAILA							
»			1	2	3	4	5
23 Urt.	6	7	8	9	10	11	12
24 Urt.	13	14	15	16	17	18	19
25 Urt.	20	21	22	23	24	25	26
26 Urt.	27	28	29	30			
URRIA							
»						1	2
27 Urt.	4	5	6	7	8	9	10
28 Urt.	11	12	13	14	15	16	17
29 Urt.	18	19	20	21	22	23	24
30 Urt.	25	26	27	28	29	30	31
AZAROA							
31 Urt.	1	2	3	4	5	6	7
32 Urt.	8	9	10	11	12	13	14
33 Urt.	15	16	17	18	19	20	21
34 Urt.	22	23	24	25	26	27	28
1 Abend	29	30					
ABENDUA C urtea							
»		1	2	3	4	5	
2 Abend	6	7	8	9	10	11	12
3 Abend	13	14	15	16	17	18	19
4 Abend	20	21	22	23	24	25	26
1 Egub.	27	28	29	30	31		

LABURDURAK: A1= astelehena • A2= asteartea • A3= asteazkena • Abend= abendualdia • Aste San.= aste santua • Cor= Corpus eguna • Egub= eguberrialdia • Gar= garizuma • HE= hausterre eguna • I= igandea • IG= Jesusen Igokundea • JB= Jesusen Bihotza • L= larunbata • Men= Mendekoste igandea • O1= osteguna • O2= ostirala • OS1= ostegun santua • OS2= ostiral santua • Pazk= pazkoaldia • Urt.= urteko

URTE LITURGIKOA 2016

C-A URTEAK

Asteak	I	A1	A2	A3	O1	O2	L	Asteak	I	A1	A2	A3	O1	O2	L
URTARRILA								UZTAILA							
1 Egub.						1	2	»						1	2
2 Egub.	3	4	5	6	7	8	9	14 Urt.	3	4	5	6	7	8	9
1 Urt.	10	11	12	13	14	15	16	15 Urt.	10	11	12	13	14	15	16
2 Urt.	17	18	19	20	21	22	23	16 Urt.	17	18	19	20	21	22	23
3 Urt.	24	25	26	27	28	29	30	17 Urt.	24	25	26	27	28	29	30
4 Urt.	31							18 Urt.	31						
OTSAILA								ABUZTUA							
4 Urt.		1	2	3	4	5	6	»		1	2	3	4	5	6
5 Urt.	7	8	9	10	11	12	13	19 Urt.	7	8	9	10	11	12	13
1 Gar.	14	15	16	17	18	19	20	20 Urt.	14	15	16	17	18	19	20
2 Gar.	21	22	23	24	25	26	27	21 Urt.	21	22	23	24	25	26	27
3 Gar.	28	29						22 Urt.	28	29	30	31			
MARTXOA								IRAILA							
»			1	2	3	4	5	»					1	2	3
4 Gar.	6	7	8	9	10	11	12	23 Urt.	4	5	6	7	8	9	10
5 Gar.	13	14	15	16	17	18	19	24 Urt.	11	12	13	14	15	16	17
Aste San.	20	21	22	23	OS1	OS2	LS	25 Urt.	18	19	20	21	22	23	24
1 Pazk.	PE	28	29	30				26 Urt.	25	26	27	28	29	30	
APIRILA								URRIA							
»						1	2	»							1
2 Pazk.	3	4	5	6	7	8	9	27 Urt.	2	3	4	5	6	7	8
3 Pazk.	10	11	12	13	14	15	16	28 Urt.	9	10	11	12	13	14	15
4 Pazk.	17	18	19	20	21	22	23	29 Urt.	16	17	18	19	20	21	22
5 Pazk.	24	25	26	27	28	29	30	30 Urt.	23	24	25	26	27	28	29
MAIATZA								ABENDUA C urtea							
6 Pazk.	1	2	3	4	5	6	7	»			1	2	3	4	5
7 Pazk.	IG	9	10	11	12	13	14	32 Urt.	6	7	8	9	10	11	12
8 Pazk.	Men	16	17	18	19	20	21	33 Urt.	13	14	15	16	17	18	19
8 Urt.	22	23	24	25	26	27	28	34 Urt.	20	21	22	23	24	25	26
9 Urt.	Cor.	30	31					1 Abend	27	28	29	30			
EKAINA								ABENDUA C urtea							
»				1	2	JB	4	»					1	2	3
10 Urt.	5	6	7	8	9	10	11	2 Abend	4	5	6	7	8	9	10
11 Urt.	12	13	14	15	16	17	18	3 Abend	11	12	13	14	15	16	17
12 Urt.	19	20	21	22	23	24	25	4 Abend	18	19	20	21	22	23	24
13 Urt.	26	27	28	29	30			1 Egub	25	26	27	28	29	30	31

LABURDURAK: A1= astelehena • A2= asteartea • A3= asteazkena • Abend= abendualdia • Aste San.= aste santua • Cor= Corpus eguna • Egub= eguberrialdia • Egub= eguberrialdia • Gar= garizuma • HE= hausterre eguna • I= igandea • IG= Jesusen Igokundea • JB= Jesusen Bihotza • L= larunbata • Men= Mendekoste igandea • O1= osteguna • O2= ostirala • OS1= ostegun santua • OS2= ostiral santua • Pazk= pazkoaldia • Urt.= urteko

POZTU ZAITEZTE!

Jainkoaren hitza berri ona bada, poztekoa izan behar da, ez al da?

Hain zuzen ere, hori esaten digu Frantzisko aita santuak bere hitzaldi eta idazkietan. Bere aita santutzaren egitarauan mezu hau helarazi nahi izan zigun: EBANJELIOAREN ALAITASUNA.

Zalantzarik gabe, gure mundu honek berri onak behar ditu, alaitasuna eta poza behar ditu. Horretarako Jesusen Berri Ona guztiz onuragarria izan daiteke. Badakigu berri on hori ez dela “merkea”, inozoa; Jesus bera ere bere bizitza arriskuan jartzeraino eraman zuelako.

Mundu hautsi, gatazkatsu hau gizakoiago bihurtzeko, **giza familia handi eta jator** bihurtzeko, bideak, ahaleginak, bitartekoak ezinbestekoak izaten dira. Elizak aukera berri bat dauka urte honetan, FAMILIAREN SINODOA ospatzen delako; arazo eta egoera berriei erantzuten asmatuko ahal dugu ebanjelioaren berri onetik eta alaitasunetik!

Gainera, aurten, 2015ean, “euskararen berri onak” ere aipa ditzakegu, EGUNEAN EGUNEKO EBANJELIOA argitaratzen dugulako jesulagunok. Hiru urtetan liturgiaren hiru zikloak Manuel de la Encina SJren ahalegin eskergagatik gozatu genituen fededun euskaldunok. Ederki argitaratu zituzten Manolak eta haren ekipo txukunak hiru liburukiak. Hemendik bihoazkie gure esker onak bihotz-bihotzez.

Urte bat pasatu da, 2014.a, jesuitek moldatutako liburutxo hori gabe. Egia esan, arrazoi batzuegatik erabat ezinezkoa gertatu zitzaigun segida ematea. Penaz, aitortu beharra dago, baina horrela izan zen. Pena horrek eraman gintuen denboraz gaiari heltzera eta, aipatu behar dut, Jesusen Lagundiko Loiola Probintzia izan zenak lagundu digula ekonomikoki liburu hau burutzen. Mezulari argitaletxeari eskerrak eskuan jarri digulako gaztelerazko liburua, Angel Pérez Gómez jesuita donostiarrak eginiko iruzkin jakingarriekin. Baina argitalpen honen inguruan Dionisio Amundarain itzultzaile zorrotz eta euskaltzale asperrezinaren lana ere funtsezkoa izan da. Uste osoa dut bera gabe ezinezko gertatuko zitzaigukeela ekimen hau aurrera eramatea. Beraz milesker irakurle guztien izenean Dionisio lagun prestuari.

Eta bukatzeko, irakurle lagunari, zuri ere eskerrak eman nahi dizkizugu, liburutxo hau zabaltzeagatik eta zure iradokizun eta sугerentziengatik. Jesusen Lagundiaren lelo edo helburu bat da MAGIS, dena hobetu daitekeela onartuz, saia gaitezen gehiago eta hobeto egiten. Kasu honetan EBANJELIOAREN ETA EUSKARAREN BERRI ONAGATIK.

Koldo KATXO SJ

Meza santuaren egunerokoa

Hasierako errituak

Apaizak (=A).— Aitaren, eta Semearen, eta Espiritu Santuaren izenean.

Herriak (=H).— Amen.

(Lehenengo era)

A.— Jesu Kristo gure Jaunaren grazia, eta Jainko Aitaren maitasuna, eta Espiritu Santuaren batasuna izan bedi zuekin.

H.— Eta zure espirituarekin.

(Bigarren era)

A.— Jaungoiko gure Aitaren eta Jesu Kristo gure Jaunaren grazia eta bakea zuekin.

H.— Eta zure espirituarekin.

Damu-otoitza

(Lehenengo era)

A.— Senideok: Aitor ditzagun geure bekatuak, misterio santuak ospatzeko gai izan gaitezen.

H.— Aitortzen diot Jainko guztiz ahaltuari, eta zuei ere bai, nire senideoi, bekatu egin dudala, gogapen, hitz eta egitez, eta eginbeharrak ez eginez; bai, bekatari naiz.

Horregatik eskatzen diot Andre Maria beti Birjinari, aingeru eta santu guztiei, eta zuei ere bai, nire senideoi, otoitz egin diezaiozuela nire alde Jainko gure Jaunari.

A.— Erruki dakigula Jainko guztiz ahaltsua,
eta, gure bekatuak barkaturik,
eraman gaitzala betiko bizitzara.

H.— Amen.

(Bigarren era)

A.— Senideok: Aitor ditzagun geure bekatuak,
misterio santuak ospatzeko gai izan gaitezen.

A.— Erruki, Jauna.

H.— Bekatu egin dugu-eta.

A.— Agertu guri, Jauna, zure bihotz ona.

H.— Eta salba gaitzazu.

A.— Erruki dakigula Jainko guztiz ahaltsua,
eta, gure bekatuak barkaturik,
eraman gaitzala betiko bizitzara.

H.— Amen.

(Hirugarren era)

A.— Senide maiteok: Bekatariekin jateko lotsarik ez zuen
Jesussek, bere Eukaristi mahaira dei egin digu.

A.— Jesus Jauna, bihotz urratuak salbatzera bidalia: Erruki,
Jauna.

H.— Erruki, Jauna.

A.— Jesus Jauna, bekatariei dei egitera etorria:
Kristo, erruki.

H.— Kristo, erruki.

A.— Jesus Jauna, gure alde otoitz egiteko,
Aitaren eskuinaldean zaituguna: Erruki, Jauna.

H.— Erruki, Jauna.

A.— Erruki dakigula Jainko guztiz ahaltsua,
eta, gure bekatuak barkaturik,
eraman gaitzala betiko bizitzara.

H.— Amen.

(Laugarren era)

Damu-otoitzerako aurreko hirugarren era hori hartu bada, segidako "Erruki" hau ez da esaten.

A.— Erruki, Jauna.

H.— Erruki, Jauna.

A.— Kristo, erruki.

H.— Kristo, erruki.

A.— Erruki, Jauna.

H.— Erruki, Jauna.

Aintza

Apaizak eta Herriak

Aintza zeruetan Jaungoikoari.

Eta bakea lurrean haren gogoko gizonei.

Hain handi eta eder zaitugulako, gora zu,
bedeinkatua zu, gorespen zuri, ahuspez agur,
eskerrak zuri, Jainko Jauna, zeruko Errege,
Jaungoiko Aita guztiahalduna.

Jauna, Seme bakar, Jesu Kristo, Jainko Jauna,
Jainkoaren Bildots, Aitaren Seme:

zuk kentzen duzu munduko bekatua,
erruki, Jauna;

zuk kentzen duzu munduko bekatua,
entzun gure deia.

Aitaren eskuin-aldean jarririk zaude zu,
erruki, Jauna.

Zu bakarrik Santua, zu bakarrik Jauna,
zu bakarrik Goi-goikoa, Jesu Kristo,
Espiritu Santuarekin Jainko Aitaren argian.
Amen.

Mezako otoitza

A.— Egin dezagun otoitz.

Otoitza bukatzean herriak:

H.— Amen.

Hitzaren liturgia

Lehenengo irakurgarria

Irakurleak lehenengo irakurgaia, guztiak eserita.

Irakurgaia bukatzean:

Irakurleak— Jaunak esana.

H.— Eskerrak zuri, Jauna.

Salmoa

Salmo-abeteslariak salmoa kantatzen du edo hots egiten, eta herriak tartetan erantzuna errepikatzen du.

Bigarren irakurgaia

Ondoren, bigarren irakurgaia, lehenengoa bezala.

Irakurleak— Jaunak esana.

H.— Eskerrak zuri, Jauna.

Ebanjelioa

Ebanjelio aurretik Aleluia edota, Garizuman, Ebanjelio aurreko kantika.

A.— Jauna zuekin.

H.— Eta zure espirituarekin.

A.— Jesu Kristoren Ebanjelioa San I. (r)en liburutik.

Ebanjelioa bukatzean:

A.— Jaunak esana.

H.— Eskerrak zuri, Jauna.

Homilia

Ondoren, homilia.

Sinesmen-aitorpena

Homilia bukatutakoan, fede-aitorpena:.

Apaizak eta Herriak

Sinesten dut Jaungoiko Aita ahalguztidun,
zeru-lurren Egilea.

Sinesten dut haren Seme bakar Jesu Kristo,
gure Jauna, Espiritu Santuaren egitez sortu
eta Andre Maria Birjinagandik jaio zena;

Pontzio Pilatoren menpean nekaldua;

gurutzean iltzatua, hila eta hobiratua izan zena; infernuetara
jatsi eta hirugarren egunean

hilen artetik piztu zena;

zeruetara igo eta Jaungoiko Aita ahalguztidunaren eskuin-
aldean jarririk dagoena;

handik biziak eta hilak epaitzera etorriko dena.

Sinesten dut Espiritu Santua,

Eliza santu katolikoa,

santuen elkartasuna,

bekatuen barkamena,

haragiaren piztuera eta betiko bizia. Amen.

Jainkoaren herriaren otoitza

Hitzaren liturgiaren ondoren eskariak.

H.— Entzun, arren, Jauna.

Eukaristiaren Liturgia

Ogi-ardoak aurkeztea

A.— Bedeinkatua Zu,

Jauna, zeru-lurren Jaungoikoa:

zure esku zabaletik hartu dugu

orain ekarri dizugun ogi hau,

lurraren indarrak eta gizonaren lanak sortua:
hauxe egingo zaigu biziaren ogi.

H.— Bedeinkatua Zu, Jauna, orain eta beti.

A.— Bedeinkatua Zu, Jauna,
zeru-lurren Jaungoikoa:
zure esku zabaletik hartu dugu
orain ekarri dizugun ardo hau,
mahats-hondoaren indarrak
eta gizakiaren lanak sortua:
hauxe egingo zaigu betiko zorionaren edari.

H.— Bedeinkatua Zu, Jauna, orain eta beti.

Opari-gaien gaineko Otoitza

A.— Senideok: egin dezagun otoitz,
guztiok batean,
Eliza osoaren oparia
Jaungoikoari eskaintzerakoan.

H.— Jainkoa goresteko eta gizona salbatzeko.

II. Eukaristi Otoitza

Prefazioa

A.— Jauna zuekin.

H.— Eta zure espirituarekin.

A.— Gora bihotzak.

H.— Jainkoagan dauzkagu.

A.— Eskerrak Jainko gure Jaunari.

H.— Egoki da eta zuzen.

A.— Egoki da, bai, eta zuzen zuri, Aita guztiz santu horri, eskerrak ematea nonahi eta beti, Jesu Kristo zure Seme maitearen bitartez. Berau da zure Hitza, beronen bidez egin dituzu diren guztiak; berau bidali diguzu salbatzaile eta erosle, Espiritu Santuaren egitez gizon egina eta Andre Mariagandik jaioa. Berak, zure nahia betetzeko eta zuretzat herri santu bat irabazteko, gurutzean besoak zabaldu zituen eta, heriotza ezereztuz, nagusi agertu piztueran. Horregatik, aingeru eta santu guztiekin, guk ere zure ospea eta aintza goersten ditugu, bihotz batez kantari:

Santu, Santu, Santua

Apaizak eta herriak
Santu, Santu, Santua
diren guztien Jainko Jauna.
Zeru-lurrak beterik dauzka zure distirak.
Hosanna, zeru goienetan!
Bedeinkatua Jaunaren izenean datorrena. Hosanna zeru goienetan!

Eukaristi otoitzaren jarraipena

A.— Santu zera, bai, Jauna, eta santutasun guztiaren iturri; santu egin itzazu, bada, ogi-ardo hauek,

zeure Espiritua isuriz,
Jesu Kristo gure Jaunaren
gorputz eta † odol guretzat egin daitezen.

Berak, saldu zutenean
eta bere gogoz gurutzera zihoala,
ogia hartu eta, eskerrak emanez,
zatitu zuen eta bere ikasleei eman zien, esanez:

**HARTZAZUE
ETA JAN GUZTIOK HONETATIK:
HAU NIRE GORPUTZA DA ETA,
ZUENTZAT EMANGO DENA.**

Afal ondoan, gauza bera:
kaliza harturik, berriz ere eskerrak emanez,
bere ikasleei eman zien, esanez:

**HARTZAZUE ETA EDAN
GUZTIOK HONETATIK:
HAU NIRE ODOLAREN KALIZA DA ETA,
ITUN BERRI ETA BETIKOAREN ODOLA,
ZUENTZAT ETA GUZTIENTZAT
BEKATUAK BARKATZEKO ISURIKO DENA.
EGIZUE HAU NIRE OROIGARRI.**

Gorapenak

A.— Hau da sinesmenaren misterioa.

H.— Hil eta piztu zarela, Jauna:

Zu berriz etorri arte,
hau dugu, hau, berri ona!

A.— Horregatik, Jauna,
zure Semearen heriotza eta piztuera gogoratuz,
biziaren ogia eta salbamenaren kaliza eskaintzen dizkizugu,
zuri eskerrak emanez,
aldarean zeure zerbitzari onartu gaituzulako.

Eta apalik eskatzen dizugu,
Kristoren gorputz-odolak hartzen ditugunok Espiritu Santuak
bat egin gaitzala.

Gogoan izan, Jauna,
mundu guztian zabaldurik dagoen zure Eliza:
eramazu maitasun osora,

I. gure Aita Santuarekin,
I. gure Artzainarekin
eta eliz zerbitzari guztiekin batean.

(Hildakoen Mezetan hau ere esan daiteke)

Gogoan izan, Jauna, (gaur) mundu honetatik zeuregana era-
man duzun I. zeure zerbitzaria.

Heriotzan zure Semearekin bat egin den hau,
piztueran ere berarekin bat izan dadila.

Gogoan izan, Jauna, pizteko itxaropenean
joan diren gure senideak eta hildako guztiak:
har itzazu zeure aurpegiaren argian.

Erruki zakizkigu, arren,
guk guztiok betiko bizia iritsi dezagun,
Jainkoaren Ama Maria dohatsuarekin,
haren senar Jose santuarekin,
apostolu santuekin
eta, gizaldi guztietan,

zure adiskide izan diren santuekin:
haiekin batean gorets zaitzagun.
Jesu Kristo zure Semearen bitartez.

Honen bitartez, honekin eta honengan,
zuri, Aita Jaungoiko ahalguztidun horri,
Espiritu Santuarekin batean,
ospe eta aintza guztia
gizaldi eta gizaldi guztietan.

H.— Amen.

Gure Aita

Jaunartzeko erritua

A.— Salbatzaileak agindu eta irakatsiari jarraituz, beldur gabe esan dezagun:

Apaizak eta herriak

Gure Aita, zeruetan zarena:
santu izan bedi zure izena;
etor bedi zure erreinua;
egin bedi zure nahia zeruan bezala lurrean ere.

Emaguzu gaur egun honetako ogia;
barkatu gure zorrak,
guk ere geure zordunei barkatzen diegunez gero, eta ez gu tentaldira eraman,
baina atera gaitzazu gaitzetik.

A.— Atera gaitzazu, Jauna, gaitz guztietatik;
emaguzu bakea geure egunotan;
zure errukiari esker bekatutik garbi bizi gaitezen

eta estualdietan sendo,
betiko zorionaren itxaropenean,
Jesu Kristo gure Salbatzailea
noiz etorriko den zain gaudela.

H.— Zeurea duzu Erregetza;
zeureak ospea eta indarra, orain eta beti.

Bakearen erritua

A.— Jesu Kristo gure Jauna,
Zuk esana da apostoluei:
Bakea uzten dizuet, nire bakea ematen:
Begira zeure Elizaren sinesmenari,
eta ez gure bekatuei;
eta zure gogoa den bezala,
emaiozu Elizari bakea, eman batasuna.
Errege bizi baitzara, gizaldi eta gizaldietan.

H.— Amen.

A.— Jaunaren bakea beti zuekin.

H.— Eta zure espirituarekin.

A.— Emaiozue bakea elkarri.

Orain, elkarri bakea ematen diogu.

Jaunartzea

Apaizak hostia sagaratua zatitu bitartean, abestu edo esaten da:

Jaungoikoaren Bildotsa:
zuk kentzen duzu munduko bekatua,
erruki, Jauna.
Jaungoikoaren Bildotsa:

zuk kentzen duzu munduko bekatua,
erruki, Jauna.

Jaungoikoaren Bildotsa:

zuk kentzen duzu munduko bekatua,
emaguzu bakea.

Apaizak hostia sagaratuia herriari erakutsiz, esaten du:

A.— Hona hemen Jaungoikoaren Bildotsa: hona munduko bekatua kentzen duena; zoriotsuak Jaunaren mahaira deituak!

H.— Jauna, ni ez naiz inor
zu nire etxean sartzeko, baina esazu hitz bat
eta sendatuko naiz.

Gure Jauna ematerakoan:

A. — Kristoren gorputza.

H.— Amen.

Gure Jauna banatu bitartean jaunartze-kantua.

Eskerrak ematea

Jaunartzea bukatutakoan, isilune bat, edota salmo edo gorespen-kanturen bat abestu.

Jaunartze ondorengo otoitza

A.— Egin dezagun otoitz.

Otoitza bukatzean:

H.— Amen.

Bukaerako erritua

Bedeinkapena

Une honetan egiten dira egin beharreko oharra. Ondoren, apaizaren bedeinkapena:

A.— Jauna zuekin.

H.— Eta zure Espirituarekin.

A.— Bedeinka zaitzatela Jaungoiko ahalguztidunak:
Aitak, eta Semeak, † eta Espiritu Santuak.

H.— Amen.

Azken agurra

A.— Zoazte Jaunaren bakean.

H.— Eskerrak Jainkoari.

Jesusen Bataioa



AITA SANTUAREN ASMOAK

Orokorra: Tradizio erlijioso desberdinetakoak direnek eta borondate oneko gizon-emakume guztiek parte har dezatela munduan bakea sustatzen.

Ebanjelizazioaren alde: Biziera sagaratuari eskainia den urte honetan, erlijioso-erlijiosek aurki dezatela Kristori jarraitzeak berekin duen poza, eta bizi daitezela zaletasun handiz pobreen zerbitzuari emanik.

URTARRILA

JAINKOAREN AMA MARIAREN FESTABURUA

Jesus izena ezartzea

Bakearen eguna

§ Zenbakiak liburutik 6,22-27.

Jauna honela mintzatu zitzaion Moisesi: «Hitz egiezu Aaroni eta haren semeei, eta esan: Honela bedeinkatuko dituzue israeldarrak: “Bedeinka zaitzala Jaunak, eta zaindu. Ager diezazula Jaunak bere aurpegi argia, eta erruki dadila zutaz. Ager diezazula Jaunak bere aurpegia, eta eman bere bakea”. Honela aipatuko dute nire izena israel-darren gainean, eta nik bedeinkatuko ditut».

[Sal 66: *Erruki bekigu Jainkoa, bedeinka gaitzala.*]

§ Paulo apostoluak Galaziarrei 4,4-7.

Senideok: Garaia bete zenean, bere Semea bidali zuen Jaungoikoak, emakumeagandik jaioa, Legepeko egina, Legepean zeudena, erostera, guk seme-alabatzakoa har genezan. Eta seme-alaba zaretelako, bere semearen Espiritua bidali du Jaungoikoak zuen bihotzera, «Abba! Aita!» deika ari dena. Beraz, gehiago ez zarete morroi-neskame, seme-alaba baizik; eta seme-alaba bazarete baita oinordeko ere, Jainkoari esker.

† Jesu Kristoren Ebanjelioa San Lukasen liburutik 2,16-21.

Aldi hartan, artzainak lasterka joan ziren, eta han aurkitu zituzten Maria eta Jose, eta haurra askan etzana. Ikusi zutenean, jakinarazi zuten, haur hartaz esan zitzaiena. Entzun zuten guztiak harriturik gelditu ziren artzainek esaten zutenarekin. Mariak, berriz, gogoan jasotzen zituen gauza hauek guztiak, bere bihotzean hausnartuz. Eta artzainak Jaungoikoari aintzaka eta goraka itzuli ziren, entzun eta ikusi zutenagatik. Haurra erdaintzeko zortziurrena bete zenean, Jesus ezarri zioten izena, sabelean sortu baino lehena-go aingeruak esan zuen izena bera.

Jauna, bedeinka gaitzazu 2015. urte-hasiera honetan. Izan go-goan nire familia, adiskideak, lagunak, ezagunak, auzokoak. Aita zara zu; *Aita* horren eskuetan uzten ditut denak. Arduratu zaitetz horrietaz; baita zure maitasuna, kontsolamendua eta laguntza hain beharrezkoak dituzten beste guztiez ere; batez ere, ez etxerik, ez janari berorik, ez hotzaren kontrako arroparik ez dutenez.

Jainkoaren eta gure Ama, erregutu ezazu zeure seme-alaba guztientzat: adin handia, gaixotasuna, ezintasun eta menpetasunen bat, gosea, langabezia, miseria, kultura- edo osasun-falta direla medio sufritzen eta penatzen duten guztientzat. Xukatu halakoen malkoak, isildu halakoen lantua, argitu halakoei ikuspegia, eman halakoei esperantza-apur bat.

Azkenik, Aita, bakea eskatu nahi dizut. Iraungo duen bakea; oinarritzat zuzentasuna, barkazioa eta adiskidetasuna dituen bakea. Gizadi banatu eta hautsi hau lasaituko duen bakea; azkenik gabeko liskar eta borroka anai-arreba arteko eta gizatasunik gabekoek suntsitu nahi duten jendea elkar besarkatzera eraman dezakeen bakea. Bakearen printzea zaren Jesus, emaguzu zeure bakea.

EGUNEROKO AZTERKETA (*Gogo Jardunetan [43] inspiratua*)

1. Argia eskatu nahi diot Jaunari, bizi dudan eguneko gorabeherak ikusteko, haren begiez eta ez neureez.
2. Eskerrak eman nahi dizkiot Jainkoari, gaur gertatu zaidan guztiagatik.
3. Begiratu bat eman nahi diot bizi izan dudan egun honi; saiatu nahi dut ikusten, nola egin zaidan Jainkoa presente eta nola erantzun didan nik haren deiei.
4. Barkazioa eskatu nahi diot Jaunari, eta damutzen naiz halako maitasunari eman didan erantzun eskasaz.
5. Eskuzabalago izateko erabakia hartzen dut, hark eskatzen didana emateko orduan.

Eguberrialdia

San Basilio Handia eta Naziantzoko San Gregorio,
gotzainak eta eliz irakasleak.

[1. Joan 2,22-28: *Bego zuengan, hasieratik entzun duzuen. Sal 97: Ikusi dute lur-muga denek gure Jainkoagandiko garaipena.*]

† Jesu Kristoren Ebanjelioa San Joanen liburutik 1,19-28.

Hau da Joanek egin zuen aitormena, juduek Jerusalemdik apaizak eta levitarrak «Nor zara zu?» galdetzeraz bidali zizkiotenean. Joanek garbi aitortu zuen: «ni ez naiz Mesias». Haiek, orduan: «Zer, bada? Elias al zara?» Eta hark: «Ez». Haiek esan zioten: «Zein zara, beraz, bidali gaituztenei erantzuna eman diezaiegun? Zer diozu zeure buruaz?» Hark, orduan: «ni, basamortuan oihuka ari denaren mintzoa naiz: “Zuzendu Jaunaren bidea”, Isaias profetak esan zuen bezala». Bidalitako haietan batzuk fariseuak ziren, eta galdetu zioten: «Zergatik bataiatzen duzu, bada, ez bazara, ez Mesias, ez Elias, ez Profeta?» Joanek, orduan: «nik urez bataiatzen dut. Zuen artean bada norbait, zuek ezagutzen ez duzuen; nire ondoren dator, ni baino lehenagotik da, eta ni ez naiz inor haren oinetakoen lokarriak askatzeko ere». Hori guztia Betanian gertatu zen, Jordan ibaiatz beste aldean; han ari baitzen Joan bataiatzen.

Jauna, Jerusalemeke agintariek galdetu zioten Joan Bataiatzaileari, ea nor zen bera, bataiatzen eta bekatuak barkatzen jarduteko, ez zelarik ez apaiz, ez profeta, ez lege-maisu. Eta erantzun zien, basamortuan hots egiten zuen ahots bat zela. Neuk ere horrelakoa naizela sentitu nahi nuke: mezulari, hots egile, zuk bidaliko pertsona. Nire biziak –erabat– honelakoa izan beharko luke: arnasa ematen duen mezulari, esperantza- eta askatasun-emaile nire inguruan bizi diren guztientzat. Eredu bizi bat izan nahi nuke, bizitzari zentzua emateko orduan, bizitza bere betera nola eraman ikusteko orduan.

Alabaina, oso urrun sentitzen naiz horretatik. Pobre eta bekatari dakusat neure burua; ikusten dut, naizena ez datorrela bat sinesten eta espero dudala esaten dudanarekin. Baina oihu degizut: «Jauna, zu zara nire ondasuna, ondasun bakarra. Blaitu nazazu zutaz, zuk nigatik, nire eskastasuna eta guzti, sentitzen duzun grina zoro horretaz, nik gaineraoak kutsa ditzadan zure grina horretaz.

[**EGUNEKOA:** 1. Joan 2,29–3,6: *Harengan dagoenak ez du bekatu egiten*. Sal 97: *Ikusi dute lur-muga denek gure Jainkoagandiko garaipena*.]

† Jesu Kristoren Ebanjelioa San Joanen liburutik 1,29-34.

Hurrengo egunean, ikusi zuen Joanek Jesus beregana etortzen, eta esan zuen: «Hona hemen Jainkoaren Bildotsa, hona munduko bekatua kentzen duena. Honentzat esan nuen nik: “nire ondoren dator / niri aurea hartu didana, / ni baino lehenagotik baitzen”. Nik ez nuen ezagutzen; baina hura Israeli ager zekion etorri nintzen ni, urez bataiatzen». Eta aitormen hau egin zuen Joanek: «Espiritua ikusi dut usoa bezala zerutik jaisten, eta haren gainean jartzen. Nik ez nuen ezagutzen; baina urez bataiatzera bidali ninduenak berak esan zidan: “Espiritua jaisten eta gainean jartzen zaiola ikusten duzuna, hura da Espiritu Santuaz bataiatzen duena”. Bai, nik ikusi dut, eta aitortu ere aitortzen dut: Hau dela Jainkoaren Semea».

[JESUITEN FESTABURUA]

§ Ben Sirak-en liburutik 51,8-15.

Orduan, zure errukiaz oroitu nintzen, Jauna,
eta zuk gure alde betidanik egindakoa:
onik ateratzen dituzula zuregan itxaroten dutenak
eta gaiztoen eskuetatik libratzen.
Lurretik neure erregua bidali nuen zueganaino
eta otoitz egin heriotzatik aske gelditzeko.
Honela egin nizun dei:
«Jauna, neure aita zaitut!
Ez baztertu ni atsekabe-aldian,
harroputzak nagusitzean, laguntzarik ez dagoenean.

Eguberrialdia

Jesusen Izen guztiz santua, *Jesusen Lagundiko Goiburua*.
Santa Genoveva, *aitorlea*.

Etengabe goretsiko zaitut,
esker onez kantatuko».
Zuk entzun egin zenuen nire otoitza,
heriotzatik salbatu
eta txarraldi honetatik atera.
Horregatik eman nahi dizkizut eskerrak,
eta zu goretsi eta bedeinkatu, Jauna.
Oraindik gazte nintzelarik,
bidaiatzen hasi aurretik,
bete-bete bilatu nuen jakinduria neure otoitzean.
Tenplu aurrean otoitz egin nuen hori lortzeko,
eta neure bizitzaren azkeneraino bilatuko dut.
Loratu zenean, hartaz poztu zen nire bihotza,
heltzen ari den mahats-mordoaz bezala.
Bide zuzenetik ibili dira nire oinak,
jakinduriaren arrastoari gaztarotik jarraituz.

[Sal 8: *Jauna, gure Jainkoa, bai miresgarria zure izena lur osoan.*]

§ Paulo apostoluak Filipoarrei 2,1-11.

Beraz, egia bada Kristok aholku ematen dizuela eta maitasunak adorez betetzen zaituztela, egia bada Espirituagan bat eginik bizi zaretela eta bihozbera eta gupidatsu zaretela, bete nazazue pozez, denok iritzi eta sentiera bereko izanez, elkar maitatuz eta ongi hartuz. Ez egin deus ere norgehiagokeriaz edota harrokeriaz, apaltasunez baizik, besteak norbera baino hobeak direla pentsatuz; ez nork bere onari bakarrik begiratzuz, baizik besteena ere bilatuz. Izan itzazue zeuen artean Kristo Jesusek izan zituen sentipen berak.

Kristo Jesusek, jainkozko izaerako izanik ez zion gogor eutsi nahi izan jainkozko bere mailari; bestela baizik, hustu egin zen bere handi izateaz eta esklabo-izaera hartu zuen, gizakien antzeko eginez.

Jesusen Izen guztiz santua, *Jesusen Lagundiko Goiburua*.
Santa Genoveva, *aitorlea*.

Gizaki huts bezala agertuz, apaldu egin zuen bere burua, heriotzaraino menpeko eginez, gurutzean hiltzeraino. Horregatik, denen gainetik goratu zuen Jainkoak eta izen guztietan bikainena eman zion, Jesusen izenaren omenez, zeruan, lurlean eta lur azpian, guztien belaunak makur daitezen eta mihi orok aitoez dezan Jesu Kristo dela Jauna, Jainko Aitaren aintzarako.

† Jesu Kristoren Ebanjelioa San Lukasen liburutik **2,21-24**.

Jaio eta zortzi egunera haurra erdaindu zutenean, Jesus izena ezarri zioten, sortu aurretik aingeruak esan bezala. Moisesen legean agindutako garbikuntza egiteko unea iritsi zitzaizenean, gurasoek Jesus Jerusalem-era eraman zuten Jaunari aurkezteko. Izan ere, hau agintzen du Jaunaren legeak: *Lehen-seme guztiak Jaunari sagaratuko zaizkio*. Jaunaren legean ezarritako oparia ere eskaini zuten: *bi usapal edo bi usakume*.

Jesuitek, modu berezian ospatzen dute gaur Jesusen Izena; hain zuzen, San Ignaziok eta haren lehen jarraitzaileek Jaunaren adiskide jotzen zuten bere burua, Jesusen lagun. Sortu zuten ordena erlijiosoaren goiburuan Jesusen izena ezarri zuten. Izen guztien gaineko izena da Jesus. Horrekin dei egin nahi dizugu, horrekin goretsi eta aintzatu nahi zaitugu. Jesus onbera, entzun guri.

Gregorianozko aspaldiko gorazarre batek zutaz dio, Jauna, zutaz oroitze hutsa etengabeko gozamenaren iturri dela; zure izena, aho-sabaiarentzat, ezta baino gozoagoa da. Ez da ezer zure presentzia isil hori bezalakorik: ez melodia ederrik, ez maitasunezko hitzik, ez pentsamendu gustukorik. Salbazioa zara bekatarientzat, eskuzabala erregutzen dizutenentzat, hurbileko zure bila dabiltenentzat, eta zer esan aurkitzen zaituztenentzat! Mihia ez da gai hori deskribatzeko, ezta olerkaria ere hori abesteko; soilik, bizi izan duenak daki nolako den zure maitasuna, Jesus. Izan zaitez, beraz, gure poza. Zuri ospea eta aintza menderen mendetan. Amen.

Eguberri ondoko 2a.Santa Genoveva Torres, *fundatzailea (Anjelikak).*Santa Elisabet Ana Seton, *ama familiakoa.*

§ Ben Siraken liburutik 24,1-4.12-16.

Jakinduriak bere burua goersten du,
 bere herriaren erdian aintzaz betetzen da.
 Goi-goikoaren batzarrean ahoa irekitzen du
 eta haren ahalmenaren aurrean aintzaz betetzen da.
 Bere herriaren erdian goratzen dute,
 eta santuen batzar osoan miresten;
 aukeratuen taldeek gorespenak ematen dizkiote
 eta bedeinkatua izango da bedeinkatuen artean.
 Orduan, guztien Egileak agindu zidan,
 sortu ninduenak etxola eraiki zidan,
 eta esan: «Bizi zaitetz Jakoben herrian,
 eta izan bedi Israel zure ondare».
 Hasieran, gizaldiak baino lehenagotik, sortu ninduen,
 eta inoiz ere ez dut amairik izango.
 Etxola santuan, haren aurrean, egin dut zerbitzu,
 eta horrela Sion mendian finkatu naiz.
 Hiri maitean eman dit atsedean
 eta Jerusalem dago nire agintaritza.
 Izen handiko herrian bota ditut sustraiak,
 Jaunaren sailean, haren ondarean.

[**Sal 147,12-13.14-15.19-20:** *Hitza haragi egin zen, eta gure artean jarri zuen bizilekua.*]

§ Paulo Apostoluak Efesoarrei 1,3-6.15-18.

Bedeinkatua izan bedi Jainkoa,
 Jesu Kristo gure Jaunaren Aita,

Eguberri ondoko 2a.

Santa Genoveva Torres, *fundatzailea (Anjelikak)*.Santa Elisabet Ana Seton, *ama familiakoa*.

Espirituaren era guztietako bedeinkapenez
zeruan Kristogan bedeinkatu gaituena.

Beregan aukeratu gintuen,
mundua sortu baino lehen,
haren aurrean, maitasunez,
santu eta errugabe izan gaitzen.

Aurrez aukeratu gintuen bere seme-alabaordeko izateko,
Jesu Kristoren bidez,
bere nahiaren onberatasunez,
bere Seme maiteagan
hain ugari eman digun graziaren aintzak
bera gorespenez bete dezan.

Jesus Jaunagan duzuen sinestearen eta fededun guztienganako duzuen maitasunaren berri jakinik, etengabe ari naiz zuengatik eskerrak ematen, neure otoitzetan zuetaz oroitzuz. Jesu Kristo gure Jaunaren Jainkoak, aintzaren Aitak, eman diezazkizuela Espirituaren jakinduria eta goi-argia, bera ezagutzeko. Argi ditzala zuen barruko begiak, jakin dezazuen zer itxarotera deitu zaituzten, zein aberatsa den fededunentzat oinordekotzan prestatua duen aintza.

† Jesu Kristoren Ebanjelioa San Joanen liburutik 1,1-18.

Hasieran bazen Hitza; eta Hitza Jainkoarekin zen; eta Jainko zen Hitza.

Hitz hau hasieran Jainkoarekin zen. Dena Hitzaren bidez egina da, eta egindakoetan ez da ezer hura gabe eginik.

Harengan zen bizia. Eta bizia gizakien argia zen. Argiak ilunpean argi egiten du; baina ilunak hura ez zuen onartu.

Agertu zen gizon bat, Jainkoak bidalia: Joan zuen izena. Aitormenerako etorria zen: argiaren aitormen egitera, haren bidez guztiak

Eguberri ondoko 2a.

Santa Genoveva Torres, *fundatzailea (Anjelikak)*.

Santa Elisabet Ana Seton, *ama familiakoa*.

sinets zezaten. Hura ez zen argia, baizik argiaren aitormen egin behar zuena.

Hitza zen, mundura etorritako gizon oro argitzen duen egiazko argia. Munduan zegoen, eta mundua haren bidez egina da; baina munduak ez zuen ezagutu. Bereetara etorri zen, eta bereek ez zuten onartu. Onartu zuten guztiei, berriz, Jainkoaren seme-alaba izateko eskubidea eman zien, haren izenean sinesten badute. Hauek ez dira odoletik sortu, ez haragiaren nahieratik, ezta gizakien nahieratik ere, Jainkoagandik baizik. Eta Hitza haragi egin zen, eta gure artean jarri zuen bizilekua eta geuk ikusi dugu haren aintza, Aitaren Seme bakarrari dagokion aintza, graziaz eta egiaz betea.

Joanek hartaz egin zuen aitormen, oihuka esanez: «Hau da, nik esan nuen hura: nire ondoren datorrena nire aurrean jarria izan da, ni baino lehenagokoa baitzen».

Eta haren betearen betetik, grazia graziaren gain hartu dugu guztiok. Legea Moisesen bidez emana izan da; grazia eta egia, berriz, Jesu Kristoren bidez etorri dira. Jainkoa ez du inork inoiz ikusi; Aitaren altzoan dagoen eta Jainkoa den Seme bakarrak eman digu haren berri.

Jainko Aita, emaguzu zeure Espiritua Jesus zure Semea hobeto eta sakonago ezagutzeko, gizon egindako zure Hitza baita hura. Argitu itzazu gure begiak, ikusteko nolako esperantza eskaintzen digun, zein ondare hain aberatsean egiten gaituen partaide. Izan ere, bere nomada-denda gure kanpalekuan ezarri nahi izan du, zugana bidean gabiltzan erromes hauen artean –batzuetan haren presentziak konturatzen ez bagara ere–.

Ez dugu izan nahi beren bihotzean txokorik eskaini ez zizuten haietako jende, harrerarik egin ez zizuten haietako; are okerrago, uko egin

Eguberri ondoko 2a.Santa Genoveva Torres, *fundatzailea (Anjelikak).*Santa Elisabet Ana Seton, *ama familiakoa.*

zizuten haietako. Zure argiak distira dagi gure begi aurrean, eta buztinezko geure argizariaugar distiratsu horretan piztu nahi izaten dugu; izan ere, beste su batzuk pizten dituen su nahi izan nahi genuke, mundua zure maitasunez sutan jartzeko. Eta zer nahi zenuke zuk, munduak su hartzea baizik!

Sar zaitez nire etxean; zikina eta traste zaharrez betea izan arren, sutondo izan nahi du zuretzat. Ez utzi, itsu edo bidea galdurik nabilen batean, zu bertatik nik kanpora botatzen; ez utzi bertan luzaroago bizitzea nik zuri ezinezkoa egiten.

Eguberriadia

San Telesforo, 8. *aita santua*.
San Joan Neumann, *gotzaina*.

[1. Joan 3,11-21: *Guk honetatik dakigu heriotzatik bizira aldatu garela: senideak maite ditugulako. Sal 99: Lurtar guztiok, egin irrintzi Jaunari.*]

† Jesu Kristoren Ebanjelioa San Joanen liburutik 1,43-51.

Aldi hartan, Jesusek Galilea aldera joan nahi zuen. Felipe aurkitu, eta esan zion: «Jarraitu niri». Felipe betsaidarra zen, Andresen eta Pedroren herrikoa. Felipek Natanael aurkitu eta esan zion: «Moisesek Legean eta Profetek aipatu zutena aurkitu dugu: Jesus, Joserren semea, nazaretarra». Natanaelek erantzun: «Nazaretetik atera ote daiteke ezer onik?» Eta Felipek: «Zatoz eta ikus». Jesusek Natanael beregana etortzen ikusi eta esan zion: «Hona hemen egiazko israeldarra, azpikeriarik gabea». Natanaelek esan zion: «Nondik ezagutzen nauzu?» Jesusek erantzun: «Felipek zuri dei egin baino lehen, pikupean zeundela, ikusi zintudan». Natanaelek erantzun: «Rabbi, Jainkoaren Semea zara zu; Israelgo Erregea zara zu». Jesusek erantzun: «Pikupean ikusi zintudala esan dizudalako sinesten al duzu? Hori baino handiagorik ikusiko duzu». Eta esan zion gainera: «Hara nik egia esan: Zerua zabalik ikusiko duzue, eta Jainkoaren aingeruak gora eta behera, Gizonaren Semearen gainean».

Zu aurkitzeko, Jauna, bila ibil behar da, zure bila. Joanek eta Andresek Bataiatzailea utzi zuten, zuri jarraitzeko. Nire oraina eten eta ni zure bila haste hutsarekin, nigana itzuli eta galdezka hasten zara. Neure bihotzeko ilusio guztiaz erantzuten dizut nik: «Non bizi zara?» Zurekin bizi nahi dut, zure bizitzan partaide izan nahi dut, zure ikasle izateko eta, ahal bada, zure adiskideenetako bat, zure hurbilenetako bat. «Zatoz eta ikusiko duzu».

Eguberridia

San Telesforo, *8. aita santua*.
San Joan Neumann, *gotzaina*.

Eta ezustekoen kate luzea hasiko da. Ikasi beharko dut, ezgaitu den pertsona horrengan aurkitzen ahal zaitudala, pobre, gaixo, preso... den horrengan. Ezin gelditu naiz hizketa goxoa gozatuz sutondoan, arriskutik urrun. Zerupera jo beharra dut. Jainkoaganako konfiantza ez beste zakutorik gabe. Ezusteko handien Jauna, ez nazatela izutu zureek.

JAUNAREN AGERKUNDEA.

Erregeen Eguna: Meltxor, Gaspar eta Baltasar.

Santa Rafaela Maria Porrás, *fundatzailea*
(*Bihotz Sakratuaren Mirabeak*)

§ Isaiasen liburutik 60,1-6.

Jaiki zaitez, argitu, Jerusalem, badator zure argia, zure gainean ageri da Jaunaren aintza. Begira, lainoak estalirik dauka lurra, eta ilunak inguraturik dauzka herriak. Zure gainean, ordea, Jauna jaikiko da, eta haren aintza agertuko zure gainean. Zure argira etorriko dira herriak, zure egusentira erregeak. Jaso itzazu begiak zeure inguruan, eta ikus: horiek guztiak elkartu dira eta zugana datoz; zure semeak urrutitik datoz, besoetan dakartzate zure alabak. Hori ikustean gainezka poztuko zara, harrituko zaizu bihotza eta zabalduko, itsasoko aberastasanak zugana etorriko baitira, eta atzerrietako ondasunak zuri ekarriko dizkizute. Gamelu-taldeek estaliko zaituzte, Madiango eta Efako dromedarioek. Sabatik datoz guztiak, urrea eta intsentsua dakartzatela, eta Jaunari gora eta gora diotela.

[Sal 71: *Ahuspez agurtuko zaituzte, Jauna, atzerri guztiek.*]

§ Paulo apostoluak Efesoarrei 3,2-6.

Senideok: Entzunik duzue, Jainkoaren grazia zuen artean zabalteko eginkizuna eman zaidala. Goi-agerpenez ezagutarazi baitzait niri Kristoren misterioa: lehengo denboretan gizakiei jakinarazi ez zitzairen misterioa, orain Espirituaren bitartez haren apostolu santuei eta profetei agertua izan zaien bezala: alegia, Jesu Kristorengan ondare berean kide direla atzerritarrak ere, berri onaren bidez: gorputz beraren atal eta agintzari beraren oinorde-kide.

† Jesu Kristoren Ebanjelioa San Mateoren liburutik 2,1-12.

Herodes erregearen egunetan jaio zen Jesus Judako Betlemeden. Eta orduan Mago batzuk etorri ziren sortaldetik Jerusalemara, galdezka: «Non da jaioberri den juduen erregea? Haren izarra ikusi dugu sor-

taldean eta hemen gatoz bera gurtzera». Hori entzunik, larritu zen Herodes eta Jerusalem guztia, harekin batean. Eta apaiz nagusiak eta idazlariak bildu, eta Kristo non jaiotzekoa zen galdetu zien. Haiek erantzun: «Judako Betleemen. Horrela dauka profetak idatzirik: “Eta zu, Betleem, Judako bazter hori, ez zara inolaz ere, Judako herri nagusietan txikiena, zugandik aterako baita agintari bat, eta nire herri Israelen artzain izango da”». Orduan Herodesek Mago haiei isilka dei egin zien, izarra noiz agertu zitzaien jakiteko ahal bezain ondo; eta Betleemera bidali zituen, esanez: «Zoazte, eta jakin arduraz haurraren berri, eta, aurkituko duzuenean, esadazue niri, neuk ere joanda gurtu dezadan». Haiek, erregeri entzun ondoren, joan ziren. Eta bat-batean, sortaldean ikusitako izarra aurretik jarri zitzaien, haurra zegoen lekuaren gainean gelditu arte. Izarra ikusitakoan, berealdiko poza hartu zuten. Eta, etxean sarturik, haurra aurkitu zuten, Maria bere amarekin; eta, ahuspezz jarriarik, gurtu zuten. Eta, beren kutzak irekita, erregaliak eman zituzkien: urrea, intsentsua eta mirra. Eta Herodesengana ez itzultzeko al-bistea ametsetan harturik, beste bide batetik joan ziren beren lurraldera.


Magoak bezala, Jesus Haurra makurtu eta isilik gurtu nahi dut. Haur txiki hau, Mariaren besoetan, ene Sortzaile eta Salbatzaile aitortzen dut, Jainkoa ahalguztiduna eta jaioberri ahula aldi berean. Hartarainoko kontraesan hau ezin kabitu nire kaskoan; beraz, nagoen begiak itxi eta mutu beraren aurrean.

Haur eta adineko, maite dugun jendeari erregalu bat opari egiteko eguna dugu gaur. Ai, Jauna, jarrera hau bera izango banu urteko egun guztietan; ai nire kezka izango balitz gainerakoak poztaraztea edota partekatzea besteekin naizena eta dudana. Ez neure ditudan gauzeta-tik emanez bakarrik, baizik ni neu emanez. Jakinik, nolana ere, gutxiago dela ematen dudana, zugandik eta besteengandik hartua baino.

JAUNAREN AGERKUNDEA.**Erregeen Eguna: Meltxor, Gaspar eta Baltasar.**

Santa Rafaela Maria Porras, *fundatzailea*
(*Bihotz Sakratuaren Mirabeak*)

Elizak, Epifania egunean, salbazioa orokorra dela ospatzen du, Jainko haurrak ekarritako salbazioa jende guztiagana iristen dela. Ekialdeko jakintsu hauek gizadi osoa ordezkatzeko dute. Kristau-elkarteak ez dadila bil-bil egin bere baitan, trikua bezala; hots egin dezala zure Erreinuaren Berri Ona mundu osoarentzat. Eta, gutxienik, erlijio desberdinetako fededunok errespetatu dezagula elkar, parte har dezagula munduan bake handiagoa eta zuzentasuna eragiten.

**JAUNAREN
AGERKUNDEA
Erregeen Eguna**

[1. Joan 3,22–4,6: *Azter ezazue Jainkoagandik ote diren es-
piritu horiek. Sal 2: Atzerriak emango dizkizut nik ondare.*]

† Jesu Kristoren Ebanjelioa San Mateoren liburutik 4,12-17.23-25.

Joan bahitu zutela jakin zuenean, Jesus Galileara baztertu zen. Nazaret utzirik, itsas bazterreko Kafarnaumera joan zen bizitzera, Zabulonen eta Neftaliren mugetara. Horrela bete zen Isaias profetak esana: «Zabulonen lurraldea, Neftaliren lurraldea, itsas bidea, Jordanen beste aldean, atzerritarren Galilea. Ilunpean zebilen herriak argi handi bat ikusi zuen; herio-itzalpeko lurraldean zeudenei, argi bat agertu zitzaion». Orduan hasi zen Jesus hots egiten eta esaten: «Bihotz-berri zaitezte, hurbil da-eta zeruetako erreinua». Jesus Galilea osoan barna ibili ohi zen, haien sinagogetan irakasten, erreinuko berri ona hots egiten, eta gaitz eta min guztiak sendatzen herrian. Siria guztian zabaldu zen haren izena, eta gaixoak ekartzen zizkieten, edozein gaitzek eta oinazek joak: deabrudun, epileptiko eta perlesiadun. Eta sendatu egiten zituen. Eta Galilea, Dekapolis, Jerusalem, Judea eta Jordanez beste aldetik etorritako jendetza handiek jarraitzen zioten.

Zure presentziak, Jauna, iluna eta duda-mota guztiak uxatzen ditu. Horixe sentitu bide zuten Galilea hartan, Ebanjelioa hots egiten entzuten zizutenek, jentilen ingurumenean. Argia eta grazia zerizkien, ez zure ahoari bakarrik, baita zure eskuei ere: ukitu, ferekatu, sendatu egiten baitzuten triste, gaixo, etsirik bizi zen jendea, aurpe-gira begiratu ere bai inork begiratu nahi ez zion jendea, zuk arimako eta gorputzeko osasuna eskaintzen zenion jendea. Bizi berria ematen zenien, beste begi batzuek ikusteko modua; seme-alaba bezala eta ez, inolaz ere, izaki mespretxagarri bezala; zure Aita horren begiz ikusteko modua ematen zenien. Utzi iezadazu zure erreinuan sartzen.

San Apolinar, *gotzaina*.San Teofilo, *diakonoa*.San Lorentzo Justiniano, *gotzaina*.

[1. Joan 4,7-10: *Jaungoikoa maitasuna da. Sal 71: Ahuspez agurtuko zaituzte, Jauna, atzerri guztiek.*]

† Jesu Kristoren Ebanjelioa San Markosen liburutik 6,34-44.

Aldi hartan, Jesusek jendetza handia ikusi zuen; erruki izan zituen, artzainik gabeko ardiak bezala baitziren, eta irakasten hasi zitzaien luze eta zabal.

Berandu egin baitzen, ikasleak hurbildu zitzaizkion, esanez: «Leku bazterra da hau eta oso berandu da. Bidal itzazu, inguruko baserri eta auzoetara joan eta jatekoa eros dezaten». Jesusek erantzun zien: «Emaiezue zeuk jaten». Haiek, orduan: «Berrehun denarioren ogiak erostera joango al gara, bada, hauei jaten emateko?» Jesusek esan zien: «Zenbat ogi duzue? Zoazte ikustera». Ikusi eta esan zioten: «Bost, eta bi arrain ere bai».

Orduan, jende guztia belar gainean taldeka eserarazteko agindu zien. Ehunaka eta berrogeita hamarnaka eseri ziren. Jesusek, bost ogiak eta bi arrainak hartu eta, begiak zerura jatorik, bedeinkapen-otoitza egin, ogiak zatitu eta ikasleei eman zizkien, jendeari banatzeko; bi arrainak ere jende guztiaren artean banatu zituen. Asetzeraino jan zuten denek, eta ogi eta arrainen hondarrekin hamabi saski bete bildu zituzten. Bost mila gizon ziren jan zutenak.

Mundu honetan, asko dira goseak daudenak, aseak baino gehiago. Eta Jaunak diosku, ikasleei bezala: «Eman zeuk jaten!» Ez da zertan egin mirarik. Baina aberatsok uko egiten diogu alferrik xahutzeari, pobretuen mesedetan. Eguna joan eguna etorri, zakarrontzira botatzen dugu, ez hondarrak soilik, baita erabili gabeko tonaka janari ere.

8

Osteguna
Eguena

URTARRILA
Jaunaren Agerkunde ondokoa.
San Apolinar, *gotzaina*.
San Teofilo, *diakonoa*.
San Lorentzo Justiniano, *gotzaina*.

Jauna, senda ezazu nire konfiantza-falta. Neurekin ditudan gauzetan ipintzen dut segurtasuna. Ez naiz zutaz fidatzen. Bitara jokatu ohi dut. Zuri gauza politak esan, bai, («zure eskuetan uzten dut neure bizia» eta antzekoak), baina aldi berean neure jabetza handitzen jarraitu, eta atsegin edo gustuko dudan ezeri uko egin gabe. Hona zer naizen, Jauna. Ireki nire begiak eta bihotza pobreengana, goseak, miserian, bertan behera utzirik, zuzengabekeria direnengana.

Jaunaren Agerkunde ondokoa.

San Eulogio Kordobakoa, apaiza eta martiria.

[1. Joan 4,13-18: *Elkar maite badugu, Jaungoikoa gurekin dago.*
Sal 71: *Ahusez agurtuko zaituzte, Jauna, atzerri guztiek.*]

† Jesu Kristoren Ebanjelioa San Markosen liburutik 6,45-52.

Bost mila gizonak ase ondoren, Jesusek bere ikasleak ontzian sarrarazi eta bere aurretik beste aldera, Betsaidarantz, joateko agindu zien, berak jendeari agur egin bitartean. Jendea bidali ondoren, mendira joan zen, otoitz egitera.

Ilundu zuenean, ontzia itsaso erdian zen, eta Jesus lehorrean, bakarrik. Ikasleak arraunean nekez ari zirela ikusirik, haizea kontra baitzuten, goiz aldera haiengana joan zen ur gainean oinez. haiei aurrea hartu nahian bezala. Ikasleak, ur gainean ibiltzen ikusi zutenean, mamua zelakoan, deiadarka hasi ziren; denek ikusi zuten eta erabat izutu ziren. Baina Jesus berehala mintzatu zitzaien: «Izan bihotz! Neu naiz; ez izan beldurrik!» Ontzira igo zitzaien eta haizea gelditu egin zen.

Zeharo harriturik gelditu ziren, ez baitzuten ulertu ogiekin gertatua, adimena itsu zuten eta.

Jauna, zenbat bider pentsatu izan dudan, ilunaldietan eta «haizea kontra nuenean», nitaz ahaztu egin zinela, uhinen mende utzi ninduzula.

Eta ni salbatzera hurbiltzen zarenean, mamutzat hartu izan zaitut. Hau itsutasuna nirea! Ezin antzeman izan dizut gau erdian eskua luzatu eta txalupara igo izan zarenean. Haize zakarra haize gozo bilakatzen da, eta konturutzen naiz orduan, funsgabeak zirela nire ikara eta duda. Eta entzuten dizut: «Aupa, neu naiz, ez beldur izan!» Eta iluna joan da... eta itsasoak, ama bezala, kulunka eragiten dit. Ekaitzari baretasunak kendu dio txanda. Ez da, gero, nolabaiteko baretasuna: Kristo beraren bakea da.

[1. Joan 4,19–5,4: Jainkoa maite duenak maita dezala bere senidea ere. Sal 71: Ahuspez agurtuko zaituzte, Jauna, atzerri guztiek.]

† Jesu Kristoren Ebanjelioa San Lukasen liburutik 4,14-22.

Aldi hartan, Jesus, Espirituaren indarraz, Galileara itzuli zen, eta haren izena lurralde hartan guztian zabaldu zen. Hango sinagogetan irakasten zuen, eta guztiek goresten zuten.

Jesus Nazaretera, hazi zen herrira, joan eta larunbatean sinagogan sartu zen, ohi zuenez, eta zutik jarri irakurgaia hots egiteko. Isaias profetaren liburua eman zioten eta, irekitzean, pasarte hau aurkitu zuen:

«Jaunaren Espiritua nire gainean dago,
hark gantzutu bainau,
behartsuei Berri Ona emateko.
Gatibuei askatasuna
eta itsuei ikusmena hots egitera bidali nau,
zapalduei askatasuna ematera,
Jaunaren grazia-urtea hots egitera».

Liburua bildu, laguntzaileari eman eta eseri zen. Denak sinagogan begira-begira zeuzkan. Bera honela hasi zitzaien: «Gaur bete da orain entzun duzuen Liburu Santuko hitz hau». Guztiek gorai patu egiten zuten eta harriturik zeuden Jainkoaren graziaz esaten zituenengatik.

Z eure herrira itzuli zara, Jauna, zeure herritarrengana, predikari sonatu eginik. Eta jai-eguna aukeratu duzu eta sinagoga, jendaurrean agertzeko zutaz esan zituela Isaias profetak hitz horiek, berekin du-

ten esperantza- eta erruki-mezuarekin, berekin duten askapen- eta onginahi-mezuarekin; azken batean, Jainkoaren hitz direla, zu zeu zaren bezala. Pobreez arduratzen da Jainkoa, mendekoez, presoez, elbarriez, gainerakoen biktima diren guztiez. Zuk ere horiek lehenetsi dituzu.

Oso bikaina da Jainkoaren egitasmoa, haren desioa. Baina hori ote da nire desiorik minena, sakonena, grinatsuena? Pobretasuna desagitea, zuzengabekeriari, indarkeriari, batak bestea mendean hartzeari azpia jatea? Hori ote nire bizi-egitasmoa?

JAUNAREN BATAIOA

San Higinio, 9. aita santua.

Santa Honorata, birjina.

§ Isaias Profetaren liburutik 42,1-4.6-7.

Honela mintzo da Jauna: «Hona nik eusten diodan nire zerbitzaria, atsegin zaidan nire aukeratua. Honengan ipini dut neure espiritua: berak ekarriko die zuzenbidea atzerriei. Ez da deiadarka ariko, ez du oihuka hitz egingo, ez du kaleetan entzunaraziko bere mintzoa. Kanabera pitzatua ez du hautsiko, doi-doi piztua dagoen metxa ez du itzaliko. Zuzenbidea ekarriko du; ez du etsiko, ez da hautsiko, zuzenbidea lurrean ezarri arte, uharteek itxaron duten haren legea jarri arte. Nik, Jaunak, zuzentasunez dei egin dizut, eskutik hartu zaitut; herri baten itun izateko, atzerrien argi izateko aukeratu zaitut, itsuen begiak zabal ditzazun, giltzapetuak espetxetik atera, eta kartzelako ilunpean daudenak aska ditzazun».

[Sal 28: *Bere herria bedeinkatuko du bake emanez Jaunak.*]

§ Apostoluen Eginak liburutik 10,34-38.

Egun haietan, Pedrok esan zuen: «Garbi ikusten ari naiz, Jaungoikoak ez duela bereizkeriarik egiten, baizik eta onartzen duela, haren beldur dena eta zuzen dabilena, edozein herritakoa dela ere. Berak bidali zien Israelgo seme-alabei bere hitza, eta guztiei eman zien Jauna den Jesu Kristok ekarriko zuen bakearen Berri Ona. Badakizue zer gertatu zen, Galileatik hasi eta Judea osoan, Joanek erakutsitako bataioren ondoren: Nazareteko Jesusena, alegia, Jaungoikoak Espiritu Santuaren indarrez gantzutua, eta on egiten eta deabruak hartutako guztiak sendatzen igaro zena: Jaungoikoa harekin baitzegoen.

† Jesu Kristoren Ebanjelioa San Markosen liburutik 1,7-11.

Aldi hartan, Joanek hots egiten zuen: «Nire ondoren dator, ni baino ahaltsuagoa dena, ni ez bainaiz inor, makurturik, haren oinetakoen lokarriak askatzeko ere. Nik urez bataiatu zaituztet; hark,

JAUNAREN BATAIOA

San Higinio, 9. aita santua.

Santa Honorata, birjina.

ordea, Espiritu Santuaz bataiatuko zaituzte». Egun haietan, Galileako Nazaretetik etorri zen Jesus, eta Joanek Jordan ibaian bataiatu zuen. Eta berehala, uretik ateratzean, zerua urratzen ikusi zuen, eta Espiritu Santua uso-irudian bere gainera jaisten. Eta zeruko mintzo batek esan zuen: «Zu zara nire Semea, nire Maitea; zugaran dut neure atsegina».

Bekatarien lerroan jarri zara, Jauna, bekaturik ez duzun hori. Nik, aldiz, nahiago izaten dut «errua besteen gainera» bota edota gorabeheren aitzakia bat agertu neure errua zuritzeko. «Ni ez naiz horietakoa», ausartzen naiz esatera neure baitan. Nik, ordea, mendean har nazaten uzten diet inbidiari, gorrotoari, harrokeriari, luxuari, hantusteari, kritika zorrotzari, egoismoari, eskaskeriari, gezurrari, engainuari...

Jordan ibaian bataiatu zintuen zu Joanek. Ez bekatuak barkatzeko, baizik jendaurrean agertzeko Jainkoaren asmoari diozun atxikimendua: Erreinaua eraikitzeari, gizakia askatzeko eta salbatzeko Aitak duen asmoari. Gugatik «busti» eta konprometitu zinen. Eta Aitak ezin egin bere ahotsa entzutera eman baizik: «Zu zara ene Seme maitea, ene kutuna». Eta Espiritua jaitsi zen, usoa bere habiara bezala, bere etxera bezala, Bidalia zaren hori baiesteko.

Jauna, izan nadila ni gai, neure bizitzan Jainkoaren egitasmoari eusteko, Ebanjelioa aintzat hartzeko. Nagokeen lekuan, ezkontide, aita nahiz ama, seme nahiz alaba, laiko nahiz sagaratu, langile nahiz ikasle..., neure bizitza zurea izatea gura eta nahi dut, gauza orotan eta pertsona guztietan zu maitatzera eta zerbitzatzera emana izatea gura eta nahi dut.

IRAKATS IEZADAZU ENTZUTEN

(John Veltri-k s.j. egokitua)

Irakats iezadazu entzuten, ene Jainko, hurbilago direnei...

Irakats iezadazu entzuten, ene Jainko, urrun direnei...

Irakats iezadazu entzuten, ene Jainko, ene Ama, neure buruari...

Irakats iezadazu entzuten, Espiritu Santua, zure ahotsa:
lanean eta asperraldian,
ziurtasunean eta duda-mudan,
zaratan eta isiltasunean.

Irakats iezadazu, ene Jainko, entzuten.

Urteko 1. astea.San Arcadio Mauritaniakoa, *martiria*.

[**Hebrearrei gutuna 1,1-6:** *Jainkoak bere Semearen bidez hitz egin digu. Sal 96:* *Ahuspeztu zaitezte Jainkoaren aurrean haren ain-geru guztiak.*]

† Jesu Kristoren Ebanjelioa San Markosen liburutik 1,14-20.

Joan Bataiatzailea kartzelan sartu zutenean, Jesus Galileara joan zen eta Jainkoaren Berri Ona hots egiten zuen. Esaten zuen: «Betea da garaia, eta hurbil da Jainkoaren erregetza. Bihotz-berri zaitezte eta sinetsi Berri Ona». Jesusek, Galileako itsasbazerretik igarotzean, Simon eta honen anaia Andres ikusi zituen sareak urera botatzen, arrantzaleak baitziren. Jesusek esan zien: «Zatozte nirekin, eta giza arrantzale egingo zaituztet». Haiiek berehala sareak utzi eta jarraitu zioten. Aurreraxeago, Santiago eta honen anaia Joan, Zebedeoren semeak, ikusi zituen; sareak konpontzen ari ziren beren ontzian. Ikusi bezain laster, dei egin zien Jesusek. Haiiek, beren aita Zebedeo mutilekin ontzian utzirik, Jesusen ondoren joan ziren.

Markosen ebanjelioko lehen kapituluko txatal hauetan laburbildurik dago Jesusen mezua. Batetik, bihotz-berritzera gonbidatzen gaitu, hau da, itzultzea, zuri, Jesus, arreta eskaintzera, zu zarelako Berri Ona. Zure aurpegian ageri da gu bere seme-alaba eta zure anai-arreba izatea nahi duen Jainkoaren onberatasuna eta errukia. Ezin hurbilago da gugandik Jainkoaren Erreinua, hasia da. Aski da zuri begiratzea, eta zu salbatzaile eta askatzaile aitortzea. Horrek pentsaera eta balioak aldatzea eskatuko badigu ere. Neke badugu ere geure egitea zuk duzun juzgatzeko eta jarduteko era.

Jauna, ez utzi, inolaz ere, nik zoroarena egitea. Erantzun dezadala, aintzira ondoan aukeratu zenituen ikasleena bezalako «bai» borobil batekin. Utz ditzadala neure txalupa eta sareak... eta joan nadila zurekin.

[Hebrearrei gutuna 2,5-12: *Egoki iritzi zuen salbamenaren egilea oinaze-bidez bere betera eramatea. Sal 8: Zeure eskulan guztien buru zeure Semea ipini duzu.*]

† Jesu Kristoren Ebanjelioa San Markosen liburutik 1,21-28.

Iritsi zen Jesus Kafarnaumera, eta, hurrengo larunbatean, sinagogan sartu eta irakasten hasi zen. Harriturik zeuzkan denak bere irakatsiekin, itzal handiz irakasten baitzuen, eta ez lege-maisuek bezala. Sinagoga hartan gertatu zen, hain zuzen, deabru lohiak harturik zeukan gizon bat, eta deiadarka esan zuen: «Jesus Nazaretarra! Zer dugu ikustekorik zurekin? Gu galtzeko etorri al zara? Badakit nor zaren: Jainkoaren Santua». Jesusek zorrotz agindu zion: «Zaude isilik eta atera zaitez gizon horrengandik!» Eta gizona astinduz eta orroka atera zen deabru lohia. Denak harriturik gelditu ziren, eta hau zioten elkarri galdezka: «Zer dugu hau? Hau bai dela irakatsi berria eta itzal handiz emana! Deabru lohiei ere agintzen die, eta horiek obeditu egiten diote!» Eta laster zabaldu zen haren izena bazter guztietara, Galilea osoan.

Neure bizitzan, Jauna, irakasle asko izan dut, baina oso gutxik gainditu du ahaztu gabe gelditzea. Eta oroitzen ditudanak gogoan ditut, ez eskualdatu zizkidaten ezagupenengatik, baizik barneratu zizkidaten giza balioengatik. Hori bera sentitu zuten zure entzuleek Kafarnaumeko sinagogan. Zure hitzak, Jauna, espiritu eta bizi dira; horregatik, burua jantziaz batean, bihotza dute berotzen. Bidezidorra seinalatzeaz batean, bidelagun zaitugu zu zeu geure bidean. Esan diezaiotela, bestela, deabruak hartua zuen gizon hari, bere gaitzetik libratu zenuen hari! Ez duzu aski hitz egitea, zure hitzek esperantza harrotzen dute eta gaixotasunak sendatzen.

Urteko 1. astea.

San Fulgentzio, *gotzaina*.San Juan de Ribera, *Valentziako artzapezpikua*.

[**Hebrearrei gutuna 2,14-18:** *Gauza guztietan senideen antzeko izan behar zuen, errukior izan zedin. Sal 39:* *Hemen nauzu, Jauna, zure nahia egiteko.*]

† Jesu Kristoren Ebanjelioa San Markosen liburutik 1,29-39.

Aldi hartan, Jesus sinagogatik atera eta Simonen eta Andresen etxera joan zen, Santiagorekin eta Joanekin. Simonen amaginarreba ohean zegoen, sukarrarekin, eta berehala harengatik hitz egin zioten. Ondora joan, eskutik heldu eta jaikiarazi zuen Jesusek; sukarrak utzi eta zerbitzatzan hasi zitzaian amaginarreba. Arratsaldean, eguzkia sartu zenean, gaixo eta deabrudun guztiak zekarzkioten, eta herri guztia ate aurrean bildu zen. Jesusek asko sendatu zituen era guztietako gaitzetatik, eta deabru asko uxatu zuen. Eta deabruen ez ziren uzten hitz egiten, bai baitzekiten hura nor zen. Goizean goiz, artean ilun zela, jaiki, atera eta leku bazter batera joan zen, eta otoitzean hasi han. Simon eta Simonekin zirenak haren bila atera ziren; aurkitu zutenean, esan zioten: «Denak zure bila dituzu». Eta hark: «Goazen hemendik inguruko herrietara, han ere hitz egin dezadan; horretara etorria naiz-eta». Eta, hala, Galilea guztian barna ibili ohi zen, sinagogetan hitz egiten eta deabruak uxatzen.

Jauna, Pedroren etxean sartu eta amaginarreba sendatu duzu. Eta, gero, ordu txikiak arte jardun zara arimaz eta gorputzez gaixo direnen jendetzari kasu egiten. Halaz guztiz, beharrezko atsedena hartu gabe, egunsentia baino lehen jaikia zara eta otoitzari eman diozu, leku lasai eta bakarti batean.

Ai eguneko nire lehen pentsamendua beti zuretzat izango balitz, Jauna! Zuri eskerrak emateko paper zuri bat bezala eskaintzen didazun egunagatik, nire maitasun-erantzuna hartan idazteko. Iratzar nazazu premiarik handiena duten nire anai-arrebengan zu ikusteko, eguneroko gertaeretan zu atzemateko, egunean barna zurekin solasaldi etengabea izateko. Hori egia balitz, bizi dudana ez bezalakoa izango litzateke nire bizitza.

San Paul, *ermitaua*. San Mauro, *abadea*.
San Arnaldo Janssen, *apaiza eta fundatzailea*
(*Verbo Divino konkregaziokoak*).

[**Hebrearrei gutuna 3,7-14:** *Berotu ezazue elkar egunero, «gaur» esan daitekeen artean. Sal 94:* *Entzungo ahal duzue gaur Jaunaren mintzoa: «Ez gogortu zeuen bihotza».*]

† Jesu Kristoren Ebanjelioa San Markosen liburutik 1,40-45

Aldi hartan, legenardun bat etorri zitzaion Jesusi, eta, belau-nikaturik, esan zion: «Nahi baduzu, garbi nazakezu». Jesusek, errukiturik, eskua ezarri eta ukitu zuen, esanez: «Nahi dut; geldi zaitetz garbi». Ordu berean utzi zion leprak, eta garbi gelditu zen. Jesusek bidali zuen, zorrotz esanez: «Begira gero, inori ezer esan! Baina zoaz, agertu apaizagana eta eskain ezazu zeure garbikuntzagatik Moisesek agindu zuena, ageri bat izan dezaten». Hura, ordea, atera zeneko, gertatua oihuka hots egiten hasi zen eta zabalitzen, eta harez gero Jesus ez zitekeen agerian sar herrietan, baizik eta inguruetan gelditu ohi zen leku baztertuetan. Eta, hala ere, alde guztietatik zetorkion jendea.

Ontziak gainezka egitean, likidoak alde egiten du. Jesusek sendatu duen lepradun hau ezin egon da isilik. Bizitza osoan bazterturik eta miserian bizitzera eragiten zion izurritik aske gelditu da. Isilik gordetzeko esan dio Jesusek, baina nola gorde isilik, ikusi duenean iluna galdu dela, zerua ireki zaiola, bere zauriak betiko itxi direla, bizi-berri bat hasi duela? Lepraduna izandakoa mezulari bihurtu da, Jesusen apostolu, kasik ohartu gabe. Ontziak gainezka egin diolako.

Hori al da Jainkoaren barkazioaz dudan esperientzia? Hori al da nire jarrera Jesusek nitaz egin duenaz eta egiten ari denaz kontratzean?

Urteko 1. astea.

San Martzelo 1.a, 30. aita santua, eta martiria.

[**Hebrearrei gutuna 4,1-5.11:** *Saia gaitezen atsedean horretan sartzen. Sal 77: Ez ahaztu Jainkoak eginak.*]

† Jesu Kristoren Ebanjelioa San Markosen liburutik 2,1-12

Zenbait egunen buruan itzuli zen berriro Jesus Kafarnaumera, eta etxean zegoelako hotsa zabaldu zen. Jendetza handia bildu zen, ate aurrean ere lekurik ez izateraino. Eta Jesusek hitza adierazten zien. Eta han etorri ziren lau lagun, perlesiadun bat zekarkiotela. Baina, jendetzagatik ezin baitzuten sartu, Jesus bera zegoen aldean teilatua altxatu, zulo bat egin eta eraitsi zuten perlesiaduna, etzanik zegoen esku-ohean. Jesusek, haien sinesmena ikusirik, esan zion perlesiadunari: «Seme, barkatuak dituzu zeure bekatuak!» Bazeuden han eseririk lege-maisu batzuk, eta beren baitan zioten: «Zer ari da hau biraoka? Nork barka ditzake bekatuak, Jainkoak baizik?» Haiek beren barruan zerabiltenari antzemanik, Jesusek esan zion: «Zer burutapen darabilzkizue zeuen bihotzean? Zer da errazago perlesiadunari esaten: «Barkatuak dituzu bekatuak» ala «jaiki zaitez, hartu esku-ohea eta zoaz?» Hara, bada, jakin dezazuen Gizonaren Semeak baduela lurtean bekatuak barkatzeko aginpidea –esan zion perlesiadunari–: «Zuri diotsut: jaiki zaitez, hartu esku-ohea eta zoaz etxera».

Bekatuak kalte egiten dio gizakiari. Antzinakoek hitzez hitz hartzen zuten hori eta uste zuten gaixotasuna Jainkoaren zigorra zela, egindako okerrengatik. Baina Jainkoa ez da baliatzen bere ahaltsunaz bekatariari kalte egiteko. Bekataria bera da bere burua hondatzen duena, bere jarduera gaiztoaz. Eta bere pozoiak ez du kutsatzen bera bakarrik, baizik eta gainerakoak kutsatzera ere iristen da.

Jauna, barkatu nire bekatua, osatu eta senda nazazu. Entzun dezadala zure ahotik: «Zuri mintzo natzaizu, jaiki, hartu ohatila eta zoaz etxera». Gustu handiz hartuko dut lepoan... bakean, zuk sendatu eta barkatu nauzun honek.

[**Hebrearrei gutuna 4,12-16:** *Goazen uste osoz graziaren aulkira. Sal 18: Zure hitzak, Jauna, espiritu eta bizi dira.*]

† Jesu Kristoren Ebanjelioa San Markosen liburutik 2,13-17

Aldi hartan, itsasbazterrera atera zen berriz ere Jesus, eta gizatalde osoa beregana zihoakion, eta irakasten ari zitzaion. Bidez zihoala, Alfeoren seme Lebi ikusi zuen, zerga-biltzaileen mahaiian eseria, eta esan zion: «Jarrai niri». Hark zutitu eta jarraitu zion. Jesus Lebiren etxean mahaiian zegoela, zerga-biltzaile eta bekatari asko ere mahaiian eseri ziren, Jesusekin eta haren ikasleekin; asko baitziren atzetik zihoazkionak. Fariseuek eta lege-maisuek, bekatari eta zerga-biltzaileekin jaten zuela ikustean, esan zieten haren ikasleei: «Nolatan jaten du zerga-biltzaile eta bekatariekin?» Hori aditzean, Jesusek esan zion: «Ondo daudenek ez, baino gaixo daudenek behar dute sendagilea. Ez naiz zintzoei dei egitera etorri, bekatariei baizik».

Zure ikasleetakoa izateko, ez da beharrezkoa jarduera onaren ziurtagiria. Ez zara lotsatzen, Jauna, izen txarreko jendearekin maiz izateaz. Zure ikasleen artean ez gara guztiok Natanael bezalako israeldar jator, baizik eta, hobeto esan, Alfeoren seme Lebi bezalako gara, bere lanpostu aberasgarri hartatik, batere gomendagarri ez zen hartatik, zerga-biltzaileen lanbidetik atera zenuen hura bezalako gara.

Bai kontsolagarria, Jauna, jakitea, mundu honetara ez zinela etorri zintzoen bila, ez osasundunak sendatzera! Neure burua gaixo aitortzen dut: egoismoz, handinahiz, erosotasunez, gauzak alferrik xahutzez eta beste hainbat gaitzez gaixo. Zuk, itxaropenik gabeko kontuetan aditurik hoberena zaren horrek, dei egidazu zeure ondora.

Urteko 2. astea.Santa Priska eta Santa Margarita, *birjinak*.*Kristauen Batasunaren aldeko zortziurrenaren hasiera.*

§ 1 Samuel 3,3b-10.19: *Mintza, Jauna, zure morroi hau entzuten dago.*

Egun haietan, Samuel ohera joana zen, Jaunaren kutxa zegoen jauretxean. Jaunak dei egin zion: «Samuel!» Hark erantzun: «Hona hemen ni». Lasterka Elirengana joan zen, eta esan zion: «Hona hemen ni; deitu nauzulako etorri naiz». Hark erantzun: «Ez dizut nik dei egin; zoaz berriz ohera». Eta ohera itzuli zen, lotara. Jaunak berriro dei egin zion: «Samuel!» Eta Samuelek jaiki, Elirengana joan eta esan zion: «Hona hemen ni, deitu nauzulako etorri naiz». Eta Elik erantzun: «Ez dizut nik dei egin, seme; zoaz berriz ere ohera». Samuelek ez zuen ordu arte Jauna ezagutzen, eta Jaunaren mintzoa ez zuen artean ezaguna. Hirugarren aldiz Jaunak dei egin zion Samueli. Eta Samuelek jaiki, Elirengana joan eta esan zion: «Hona hemen ni, deitu nauzulako etorri naiz». Ezagutu zuen Elik Jauna zela, haurrari dei egin ziona, eta esan zion Samueli: «Zoaz lotara, eta norbaitek dei egiten badizu, esan: “Mintza, Jauna, zure morroi hau entzuten dago”». Joan zen Samuel bere tokira, eta etzan zen. Etorri zen Jauna eta dei egin zion, besteetan bezala: «Samuel, Samuel!» Eta Samuelek erantzun: «Mintza, Jauna; zure morroi hau entzuten dago». Samuel hazten ari zen, eta harekin zegoen Jauna, eta Jaunaren hitz bakar bat ere ez zuen utzi bete gabe.

[Sal 39: *Hemen nauzu, Jauna, zure nahia egin dezadan.*]

§ Paulo Apostoluak 1. korintoarrei 6,13c-15a.17-20.

Senideok: Gorputza ez da haragikeriarentzat, Jaunarentzat baik, eta Jauna gorputzarentzat. Jauna piztu zuen Jaungoikoak, piztuko gaitu gu ere bere indarrez. Ez al dakizue, zuen gorputzak

Kristoren gorputz-atal direla? Jaunarekin elkartzen dena, espiritu bat da harekin. Ihes egizue haragikeriatik. Gizonak egin dezakeen beste edozein bekatu, gorputzetik kanpo gelditzen da; baina haragikeria egiten duenak, bere gorputzean egiten du bekatu. Edota ez al dakizue zuen gorputza Espiritu Santuaren jauretxe dela? Zuen gan bizi da bera, Jaungoikoak emanda. Ez zarete zeuen buruaren jabe, garesti erosiak baizik. Goretsi ezazue, beraz, Jaungoikoa zeuen gorputzarekin.

† Jesu Kristoren Ebanjelioa San Joanen liburutik 1,35-42.

Aldi hartan, han zegoen Joan, bere ikasleetako birekin. Eta, Jesus han zebilela ikusirik, esan zien: «Horra hor Jainkoaren Bildotsa». Bi ikasleek, hori entzunik, Jesusi jarraitu zioten. Itzuli zen Jesus haiengana eta, jarraitzen ziotela ikusirik, esan zien: «Zer zabilzate?» Eta haiek erantzun: «Rabbi –hau da: Maisu–, non bizi zara?» Jesusek erantzun: «Zatozte eta ikusiko duzue». Joan ziren, beraz, eta ikusi zuten non bizi zen, eta egun hartan harekin gelditu ziren. Arratsaldeko laurak ingurua zen. Joani entzun eta Jesusi jarraitu zioten haietako bat Andres zen, Simon Pedroren anaia. Honek Simon, bere anaia, aurkitu zuen lehenengo eta esan zion: «Mesias aurkitu dugu» –hau da: Kristo–. Eta Jesusengana eraman zuen. Jesusek, begiratu, esan zion: «Simon zara zu, Joanen semea. “Kefas” izango da zure izena», hau da: Harria.

Urteko 2. astea.

Santa Priska eta Santa Margarita, *birjinak*.

Kristauen Batasunaren aldeko zortziurrenaren hasiera.

Ebanjelioetan, jende asko dakusagu Jesusengana hurbiltzen zerbaiten bila; alabaina, gutxi, oso gutxi, Jesus beraren bila. Horregatik, zergatik jarraitzen dioten galdetu die. Gerora ikasle izango direnen erantzunak (galderak) beste maila batera darama gaia. Kontua ez da zerbait nahi izatea, baizik eta norbaitekin bizi nahi izatea da arazoa. Non bizi zara? Andresek eta Joanek Jesusekin gelditzea erabaki dute, sendo egitea haren alde. Ausardi samar jokatu dute; ordu arte beren maisu izan duten Joan Bataiatzaileaz fidatu dira.

Bikote boluntario honek bezala, zirt eta zart egiten duen jendearekin topo egiten duenean, Jesusek oso baikor erreakzionatzen du: Zatozte eta ikusi. Gelditu nirekin, nire bidea ez baita ikasten ikastordu jakintsuen bidez, orduko lege-maisuek ematen zituztenak bezalakoez, baizik eta eguneroko gauzarik arruntenetan, eguneroko jardueran ikasten da nire bidea. Biziera bat irakasten du Jesusek, munduan bizitzeko era bat, jarduera-modu bat; konbentzimendu honetan oinarritzen dena: Jainkoa Aita dela, bere seme-alabez, bereziki ahulenez eta babesik gabekoez, ardura bizia duen Aita dela. Jesusena izateko, ez da zertan sinatu agiri bat, auskalo zenbat puntu dituen; hura bezala bizitzea da kontua. Besterik gabe.

San Macario Handia, *abadea*.
Martzelu Spinola, *dohatsua, fundatzailea*
(*Jainkoaren Bihotzaren mirabeak*).*

[**Hebrearrei gutuna 5,1-10:** *Semea izanik ere, bere neke artean ikasi zuen esaneko izaten. Sal 109: Melkisedeken sailean apaiz zara zu behin betiko.*]

† Jesu Kristoren Ebanjelioa San Markosen liburutik 2,18-22.

Aldi hartan, Joanen ikasleek eta fariseuek barau-eguna zuten batean, etorri ziren batzuk eta esan zioten Jesusi: «Joaen ikasleek eta fariseuen ikasleek barau egiten dute, eta zure ikasleek zergatik ez?» Jesusek erantzun zien: «Barau egin al dezakete eztei-lagunek, senar berria berekin duten bitartean? Ez dezakete baraurik egin, senar berria berekin duten bitartean. Etorriko da senar berria kenduko dieten eguna; orduan bai, egun hartan egingo dute barau. Ez dio inork josten jantzi zahar bati oihal gordinezko adabakirik; adabakiak tira egiten baitio jantziari, oihal berriak zaharrari, eta handiago egiten da zarrastada. Ez ditu inork ardo berriz betetzen zahagi zaharrak; ardoak lehertu egiten baititu zahagiak: ardoa eta zahagiak, denak galtzen dira; horregatik, ardo berria zahagi berritan».

Jauna, zu ardo berria zara; hartzitu eta edangarri bihurtzeko, zure muztioa hartu eta beren barnean ontzeko gai dien bihotzak behar dituen ardoa zara. Mantu zahar bati ezin ezarri zaio adabaki berri bat. Horregatik, Jauna, erregutzen dizut: bihur ezazu harrizko nire bihotz hau haragizko bihotz; emadazu erregalu mantu berri bat zaharrari agur egiteko, nire bizkarraldea babestu eta zure Erreinuaren berri-tasunera begira jar nazan; behingoz libra nazan neuregan metaturik dudana txatar-pilotik.

*Joan Ogilvie, Esteban Pongrác, Meltxor Grodziecki, *apaizak*, eta Markos Krizevci, Esztergom-eko *kalonjea, santuak*; Ignazio de Azevedo, *apaiza*, eta lagunak, *dohatsuak*; Santiago Salès, *apaiza* eta Gilermo Saultemouche, *erlijiosoa, martiriak*.

San Sebastian, *martiria*.San Fruktuoso, *gotzaina* eta San Eulogio eta San Augurio, *haren diakonoak, martiriak*.

[Hebrearrei gutuna 6,10-20: *Eskainia zaigun itxaropena aingura bezain sendoa eta segurua dugu. Sal 110: Betidaino oroituko zaie Jauna bere itunaz.*]

† Jesu Kristoren Ebanjelioa San Markosen liburutik 2,23-28.

Bazihoan Jesus larunbat batean gari-soroetan barna, eta ikasleak galburuak mozten hasi ziren bidenabar. Fariseuek esan zioten: «Adizu, nolatan egiten dute larunbatean, zilegi ez dena?» Eta hark esan zien: «Ez al duzue inoiz irakurri Davidek egin zuena, bera eta bere gizonak beharraldian eta goseak gertatu ziren batean? Jainkoaren etxean sartu baitzen, Abiatar apaiz nagusi zela, eta apaizari ez beste inori jatea zilegi ez zaion eskaintzako ogiak jan zituen, eta, gainera, lagunei eman». Eta esan zien: «Gizakiarentzat egina da larunbata, eta ez gizakia larunbatarentzat. Beraz, Gizonaren Semea bada larunbataren nagusi ere».

Garbi dago, Jauna, zure ikasleek eta zuk zeuk gosea eta egarria jasan zenutela behin baino gehiagotan. Zure jarraitzaileek galburu batzuk hartu eta jatera jo bazuten, bistan da goseak amorratzen egon behar zutela.

Oso engainaturik nago, Jauna, pentsatzean «bihotzez pobre» naizela, oso soil bizi naizela, litxarrerria garestirik ez dudala eta bizitzeko ezer gutxi aski dudala. Benetan, izan ere, ez dut ezer falta. Beharrezko jotzen nituen gauza batzuk gabe gelditu izan naizen une apurretan, ahalik lasterren jo izan dut gabezia hura erremediatzera. Nolatan egon nintekeen ni gabe! Jauna, barkatu nire hipokresia eta lotsa-falta. Gutxienez, ez nadila pobre izateaz harro agertu, denetik ugari dudalarik.

[Hebrearrei gutuna 7,1-3.15-17: *Apaiz zara zu betieran, Melkisedeken sailean* Sal 109: *Melkisedeken sailean apaiz zera zu behin betiko.*]

† Jesu Kristoren Ebanjelioa San Markosen liburutik 3,1-6.

Aldi hartan, sartu zen berriro Jesus sinagogan, eta han, beso ihartua zeukan gizon bat zegoen. Begira zegozkion Jesusi, larunbatez sendatuko ote zuen, zertan salatu izateko. Jesusek gizon beso-iharrari esan zion: «Jaiki zaitez eta zatoz denon erdira». Eta han zeudenei galdera egin zien: «Larunbatez zer da zilegi, on egitea ala gaitz egitea? Bizia salbatzea ala hiltzen uztea?» Baina haiek isilik zeuden. Orduan, ingurukoei haserre begiratzuz, haien bihotzaren gogorrez mindurik, esan zion gizonari: «Luzatu beso hori». Luzatu zuen, eta bere onera etorri zitzaion besoa. Orduan fariseuek handik atera eta herodestarrerekin batzar egin zuten, Jesus rola galduko.

On egitea ez da beti on izaten adiskideak lortzeko: batzuetan haserre jartzen dituzu begi gaiztoz begiratzen dizutenak. Jauna, ondotxo dakizu zuk hori. Besoa elbarri zuen gizon honi sendatu egin zenion zuk. Eta zeure jokabide horrekin susmo txarra eragin zenien, elbarriaren zoriaz baino gehiago, arauen eta legeen arazoaz arduratzin ziren haiei.

Emadazu, Jauna, zeure goi-goiko askatasuna, on egin dezadan munduan, jendeak gaizki hartuko badit ere. Maiteago dut sufritzen duena, besteak arin baino arinago juzgatzen duena baino, ez baitzaio erreparatzen, askotan, gainerakoak jasaten ari diren zoritzarrari. Jauna, ez dezazula niri begiratu beharrik izan, aurrez juzgatua zintuzten hipokrita haiei bezala.

Urteko 2. astea.

San Bizente, *diakonoa eta martiria*.San Valero Zaragozakoa, *gotzaina*.

[Hebrearrei gutuna 7,25–8,6: *Jesu Kristok opariak behin betiko eskaini zituen, bere burua eskaintzean. Sal 39: Hemen nauzu, Jauna, zure nahia egiteko.*]

† Jesu Kristoren Ebanjelioa San Markosen liburutik 3,7-12.

Aldi hartan, Jesus itsasertzera baztertu zen ikasleekin, eta jendetza handiak jarraitu zion Galileatik. Egiten zituenak entzunik, jendetza handia bildu zen harengana Judeatik, Jerusalemdik, Idumeatik, Jordanez beste aldetik, eta Tiro eta Sidongo inguruetatik. Ikasleei esan zien, ontzi bat prest edukitzeko harentzat, jendetzak zapaldu ez zezan. Izan ere, asko sendatu zituen, eta gaitzik zuten guztiak gainera zihoazkion, bera ukitu nahian. Hura ikustean, espiritu lohiak ahuspez jartzen zitzaizkion aurrean, oihuka eginez: «Jainkoaren Semea zara zu». Baina, hark zorrotz agindu zien, ez agertzeko bera nor zen.

Zure Ebanjelioa hots egiteak Galilean izan zuen hasierako arrakasta egundokoa izan bide zen. Ebanjelariak dio, alde guztietatik zetorkizula jendea, ezarri zizuten mirarigile izenak tira eginda, dudarik gabe. Jende asko sendatzen zenuen eta, badakizu, jendeak asko gozatzen du egintza harrigarriak ikustearekin. Pilatu eta estutzen zintuzten.

Gaur ere asko gabilta zure bila, Jauna, baina ez Erreinuaren Berrri Ona entzuteko, ezta hots egite horretan zure lagun izateko. Geure probetxuari begira bilatzen zaitugu askotan: dela salatzen gaituen geure kontzientzia isiltzeko, dela entzungo didan norbait aurkitzeko, dela «salbatzeko»... Azken batean, mila arrazoi, baina bat bakarrik ez jatorra. Jauna, irakats iezadazu zu zeu bilatzen, odolkiak ordaintan bilatu gabe; irakats iezadazu zu maite izaten, zuk zeuk mukuru maite nauzulako. Aski zaitut zu bakarrik.

[**Hebrearrei gutuna 8,6-13:** *Kristo itun hobe baten bitarteko egin da.* **Sal 84:** *Onginahia eta leialtasuna elkarren bidera aterako dira.*]

† Jesu Kristoren Ebanjelioa San Markosen liburutik **3,13-19**.

Aldi hartan, Jesus mendira igo zen; nahi zituenei dei egin zien, eta harekin joan ziren. Bere lagun egin zituen hamabi, predikura bidaltzeko, eta deabruak uxatzeko ahalmena eman zien. Honela eratu zuten Hamabien taldea: Simon –Pedro izena ipini ziona–, Santiago Zebedeorena eta Joan, haren anaia –Boanerges izena ipini zien, hau da: trumoi-kume–, Andres, Felipe, Bartolome, Mateo, Tomas eta Santiago Alfeorena, Tadeo, Simon kanaandarra, eta Judas Iskariote, saldu zuena bera.

Zure garaikoentzat, Jauna, mendi altu batera igotzea, Jainkoarekin harremanetan jartzea-edo zen. Gailurrak zerua ukitzen, nonbait. Zeure jarraitzaileetako batzuk ikasle hautatu eta izendatzeko, mendi batera igo zinen, adierazteko, ez zinela lege-maisu arrunt bat, baizik eta Jainkoak berak dei egiten ziela lagun haiei zureen taldeko izatera. Zenbat neke izaten dugun hau ulertzeko! Ez zaitugula guk zu aukeratu, baizik eta zuk zeuk diguzula dei egin zeure lagunartera. Dohain bat dela, erregalu goitiar bat, nik aintzat hartzen ez dudana. Aitzitik, zenbat kezkatzen naizen zeure lagun bezala hartu nauzulako eta bes-teri eskatzen ez dizkiezun hau eta bestea... eskatzen dizkidazulako!

* * *

ESKARIA ERREGE BETIKOARI (*Gogo Jardunak 91*)

Jesu Jauna,
ez nadila sorgor izan zure deiari,
baizik adi eta arduratsu
zure nahia betetzeko.

Urteko 2. astea.

San Frantzisko Saleskoa, *gotzaina eta eliz irakaslea.*

[**Hebrearrei gutuna 9,2-3.11-14:** *Kristo bere odolaz eta behin betiko sartu zen Santutegian. Sal 46:* *Oihu alaien artean igo da Jainkoa, turuta-soinuz Jauna.*]

† Jesu Kristoren Ebanjelioa San Markosen liburutik 3,20-21.

Aldi hartan itzuli zen Jesus ikasleekin bere etxera eta, halako gizatalka bildu zitzairen, jateko ere betarik ez baitzieten ematen.

Jesusen ahaideak, hori jakitean, hura hartu eta eramatera atera ziren, burutik eginda zegoela esaten baitzuten.

Ebanjelioa ereitea, Jauna, gauza nekosoa da. Bekoz beko dago gure gizartean indarrean diren balioen aurka. Jendea engainatu egin dute, sinestaraziz, zenbat eta gehiago eduki, hainbat eta zeuago zarelara; gauzarik nagusiena norberaren ongizatea eta plazera dela, eta arrakastak egiten duela bat izen handiko eta boteretsu. Horren kontrako zerbait proposatzea aldapan gora egitea bihurtzen da; are gehiago, horren kontrakoa bizitzea proposatzen baduzu. Baina kontra jartzeta da egia. Hari beretik joz, zure familiaratekoek berek zoratu egin zinela pentsatu zuten. Eta zure ibilbidea eten egin nahi izan zuten.

Emadazu, Jauna, zeure zoro izate bedeinkatu hori: gainerakoak maite izatea, neure burua baino lehen. Har nazatela zorotzat edo ergeltzat (ez dakit zer den okerrago).

* * *

BIGARREN ASTEKO ESKARIA

(*Gogo Jardunak 104*)

Eskatu dezadan Jauna barnez ezagutzea,
nigatik egin baita hura gizon,
estuago maita dezadan eta jarraitu.

§ Jonas Profetaren liburutik 3,1-5-10.

Jaunaren hitza etorri zitzaion berriro Jonasi, eta esan zion: «Jai-ki zaitez, eta zoaz Ninive hiri handira, eta hots egin ezazu han, nik esango dizudana». Eta Jaunak agindu bezala, jaiki eta Ninivera joan zen Jonas. Ninive, hiri handia zen (hiru eguneko bidea zuen alderik alde). Jonas sartu zen hirian, eta, egun bateko bidea eginik, hots egin zuen: «Berrogei egunen buruan, Ninive xehatua izango da!» Sinetsi zioten ninivetarrek Jaungoikoari, eta barau-deia zabaldu zuten, eta denak, handi eta txiki, zakukiz jantzi ziren. Ikusi zuen Jaungoikoak ninivetarrek egin zutena, eta beren bide okerretik itzuli zirela; errukitu zitzairen, eta ez zien egin haientzat erabakia zeukan hondamendia.

[Sal 24: *Erakuts niri, Jauna, zure bideak.*]

§ Paulo Apostoluak 1. korintoarrei 7,29-31.

Senideok: Hara zer esaten dizuedan: «Bizitza laburra da. Beraz, emaztedunak, emazterik ez balute bezala bizi bitez; negarrez daudenak, negarrez ez baleude bezala; pozik daudenak, pozik ez baleude bezala; erostunak, jabe ez balira bezala, eta mundu honetaz baliatzen direnak, baliatuko ez balira bezala. Iheskorra baita mundu honetako irudia».

† Jesu Kristoren Ebanjelioa San Markosen liburutik 1,14-20.

Joan Bataiatzailea kartzelan sartu zutenean, Jesus Galileara joan zen eta Jainkoaren Berri Ona hots egiten zuen. Esaten zuen: «Betea da garaia, eta hurbil da Jainkoaren erregetza. Bihotz-berri zaitezte eta sinetsi Berri Ona». Jesusek, Galileako itsasbaterretik igarotzean, Simon eta honen anaia Andres ikusi zituen sareak urera botatzen, arrantza-leak baitziren. Jesusek esan zien: «Zatozte nirekin, eta giza arrantzale

egingo zaituztet». Haiek berehala sareak utzi eta jarraitu zioten. Aurre-raxeago, Santiago eta honen anaia Joan, Zebedeoren semeak, ikusi zitu-
tuen; sareak konpontzen ari ziren beren ontzian. Ikusi bezain laster, dei
egin zien Jesusek. Haiek, beren aita Zebedeo mutilekin ontzian utzirik,
Jesusen ondoren joan ziren.

Gauzek ez lukete izan behar Markosek kontatzen dituen be-
zain sinple. Dudarik gabe, bereak eta bost kostatuko zitzaien Pe-
drori eta Andresi beren familia eta beren bizitzako ogibidea uztea.
Gauza bera Zebedeoren bi semeei. Jesusi errotik jarraitzeak zeure
ingurukoei kontra egitea dakar. Jesusen taldeko izateak zeureei uko
egitea ekarri ohi du askotan. Atzo, gaur eta beti. Bere arazoarekin
konpromiso handiagoa hartzera deituz jarraitzen du Jesusek. Baina
batzuek ezentzunarena egiten diogu, eta eguneroko arrantzuan ja-
rraitzearekin konformatzen gara. Giza arrantzale izate hori... beste
batzuen egitekoa da. Seguru? Seguru ez dela zurea? Gauza bera
esan bide zuten lehen lau apostolu haiek ere: Zergatik nahastu nahi
gaitu korapilo honetan?

Aski soila da erantzuna: Jesusek liluraturik sentitu ziren eta
pena merezi zuela sumatu zuten mundu hau aldatzen saiatzeak bide
harrigarri eta berri bat zela medio; Jainkoak eratu eta Jesu Kristok
aditzera emandako bidea dela medio. Eta huts egin bazuten ere ez
gutxitan, azkenean haiekin –trakets, ezjakin, koldar haiekin– era-
tu zuen Jesusek lehen kristau-elkartea, eta haien zordun gara gu
guztiok. Jesusi zuk emandako «bai» edo «ez» erantzunak bere on-
dorioak ditu. Bai horixe. Zuk uste baino handiagoak. Zer erantzun
nahi diozu?

ZUK NAHI DUZUNA

(Juan Ramon Jiménez)

Zuk nahi duzuna, Jauna
izan bedi zuk nahi duzuna.

Nahi baduzu barre egin dezadan arrosa artean
egunsentiko goizeko distira inguruan,
izan bedi zuk nahi duzuna.

Nahi baduzu arantza artean odola gal dezadan
betiko gauaren hautemanezineko itzalen inguruan, izan bedi zuk
nahi duzuna.

Eskerrak, nahi baduzu begira dezadan,
eskerrak, nahi baduzu itsutu nadin,
eskerrak guztiagatik eta ezerezagatik.

Zuk nahi duzuna, Jauna
izan bedi zuk nahi duzuna.

Urteko 3. astea.

San Timoteo eta San Tito, *gotzainak*.

[Urteko meza: Hebrearrei gutuna 9,15.24-28: *Kristok, bekatuak kentzeko, behin bakarrik eman zuen bere burua opari; bigarren aldian, beraren zain daudenei agertuko zaie. Sal 97: Kanta Jaunari kantatu berri, egin baititu hainbat harrigarri. Markosen ebanjelioa 5,1-20: Atera zaitez gizon honengandik, espiritu lohi hori.]*

[San Timoteoren eta San Titoren meza:]

§ Paulo apostoluak Timoteori 2. gutuna **1,1-8.**

Nik, Paulok, Jainkoak hala nahirik, Kristo Jesusen bidez agindu zaigun bizia iragartzeko Jesu Kristoren apostolu naizen honek, zuri idazten dizut, ene seme maite Timoteo. Jainko Aitak eta Kristo Jesus gure Jaunak eman biezazkizute grazia, errukia eta bakea.

Eskerrak ematen dizkiot, arbasoen irakatsiei jarraituz, bihotz garbiz zerbitzatzen dudan Jainkoari, eta gogoan zaitut etengabe, gau eta egun, neure otoitzetan.

Zure malkoez oroitzean, zu ikusteko irrikaz nago, pozez bete nadin. Izan ere, gogoan dut zuk duzun zinezko fedea, lehenik Loide zure amonak eta Eunize zure amak izan zuten fedea bera; ziur nago zuk ere baduzula. Horregatik gogorarazten dizut, indarberri dezazula nik eskuak ezartzean Jainkoak eman zizun dohaina.

Jainkoak ez baitigu beldurri egiten gaituen espiritua eman, indarra eta maitasuna ematen eta geure buruaren jabe egiten gaituen espiritua baizik.

Ez izan, bada, gure Jauna aitortzeko lotsarik; ez lotsatu nitaz ere, harengatik kartzelan dagoen honetaz; bestela baizik, Jainkoaren indarraz fidaturik, sufri ezazu nirekin batean Berri Onaren alde.

[Sal 95: *Zabaldu Jaunaren mirariak herri guztietan.*]

Jesu Kristoren Ebanjelioa San Lukasen liburutik 10,1-9.

Aldi hartan, Jaunak beste hirurogeita hamabi aukeratu zituen, eta bere aurretik bidali binaka, bera joatekoa zen herri eta auzo guztietara. Eta esan zien: «Uzta ugaria da, baina langileak gutxi. Egin, beraz, otoitz uzta-jabeari, bidal ditzala langileak bere uztara. Zoazte; begira, arkumeak otso artera bezala bidaltzen zaituztet. Ez eraman zeuekin, ez diru-poltsarik, ez bide-zorrorik, ez oinetakorik. Eta ez gelditu bidean, inori agur egiten.

Etxe batean sartuko zaretenean, hau izan bedi zuen aurreneko hitza: “Bakea etxe honetan!” Eta han bakezko jenderik bada, haien gainean kokatuko da zuen bakea; bestela, zuengana itzuliko da. Etxe hartan berean egon zaitezte; jan ezazue eta edan daukatenetik, zor zaio-eta langileari bere saria. Ez ibili etxez etxe. Herri batean sartu eta ongi hartzen bazaituzte, jan jartzen dizuetenetik, sendatu gaixoak eta esaiezue: “Gainean duzue Jainkoaren erregetza”».

Ez nuke izan nahi, Jauna, Espirituaren kontra birao egiten dutenetakoa, baina, errezeloa dut, batzuetan ez naizela oso urrun ibiltzen hura ukatzen edota gutxiesten dutenetatik. Zu zeu ere salatu zintuzten, espiritu gaizto batek hartua zinela. Niri, hori ere ez. Neure bizitzan hain axalean bizi naiz, non ez baitut astirik neure bihotzari begiratu eta egiaztatzeko ea zu ote zaitudan biztanle edota ez ote dudan itzali Espiritua. Nire bizitzako uholde nahasmenduzkoak suntsitu egin ditu nire asmo eta konbentzimendu handiak, eta intxaur-azal huts bat bezala utzi nau ur joanaren jostailu. Hauxe dut Espirituaren kontrako neure bekatua: bota egin dudala neure bihotzetik eta ez naizela arduratzen itzul dadin.

Urteko 3. astea.

Santa Angela Merici, *fundatzailea (Urtsulinak)*.San Enrike de Ossó, *fundatzailea (Teresianak)*.

[**Hebrearrei gutuna 10,1-10:** *Hona hemen ni, Jainko, zure nahia egiteko. Sal 39:* *Hemen nauzu, Jauna, zure nahia egin dezadan.*]

† Jesu Kristoren Ebanjelioa San Markosen liburutik 3,31-35.

Aldi hartan, etorri ziren Jesusen ama eta senideak, eta, kanpoan gelditurik, deiarazi zuten. Jesusek bere inguruan eseria zeukan jendetalea, eta esan zioten: «Hor dituzu kanpoan zeure ama eta senideak, zure bila». Jesusek erantzun zuen: «Nortzuk dira nire ama eta nire senideak?» Eta, bere inguruan eseriak zeudenei begiratuz, esan zuen: «Hona nire ama eta nire senideak. Jainkoaren nahia egiten duena, hura da nire anaia, eta arreba, eta ama».

Erreinua, familia bat bezala da, zeinetan Jainkoa baita Aita, Jesus anaia nagusia eta gainerakoak anai-arreba Jesusi dagokionez eta seme-alaba Aitari dagokionez. Familia hau ez da oinarritzen odol-loturetan, baizik Espiritu Santuaren atxikimenduan; honek ematen digu Jainkoari abbá (aita) esateko aukera eta betiko aintza heredatzeko esperantza. Anai-arreba artekotasun hau elkarrekiko maitasunaz bizi da, eta elkarte osatzen du, guk Eliza deitzen dugun elkarte.

Jauna, seguru naiz, Andre Mariak bete-betean ulertu zuela esan nahi zenuena. Bera, alegia, ama dela, Jesusek beretzat eskuratu dituen guztientzat. Bere familia era miresgarrian hazi zitzaiola. Eskerrak, Jauna, Andre Maria bera eta, anai-arrebekin, mundu bat eman dizkiguzulako.

* * *

EGIN NAZAZU, JAUNA, ZUTAZ ZORIONTSU
(*San Agustin*)

Ez dut gura, ez urrearen zoriona, ez zilarrarena, ez landa-soroena, ez galtzen diren gauzena. Egin nazazu, Jauna, zutaz zoriontsu. Zu neurekin bazaitut, ez zaitut nik zu galduko, ez zuk ni galduko.

Tomas santua Aquinokoa, *apaiza eta eliz irakaslea*.
San Julian Cuencakoa, *gotzaina*.

[Hebrearrei gutuna 10,11-18: *Kristok santutasun betea ekarri die behin betiko santu egindakoei*. Sal 109: *Melkisedeken sailean apaiz zara zu behin betiko*.]

† Jesu Kristoren Ebanjelioa San Markosen liburutik 4,1-20.

Aldi hartan, Jesus berriz ere irakasten hasi zen itsasertzean. Eta hainbeste jende bildu baitzitzaion ondora, urean zegoen txalupa batera igo eta bertan eseri zen. Jende-taldea, berriz, lehorrean zegoen, itsas-bazterrean. Gauza asko irakatsi zien parabola bidez hitz eginez. Honela ari zitzairen bere irakaspenean: «Entzun! Behin batean, atera zen ereilea hazia ereitera. Ereitean, zenbait ale bide-bazterrean erori zen, eta txoriek etorri eta jan egin zuten. Beste zenbait harri artean erori zen, lur handirik ez zen lekuan, eta, axaleko lurra izanik, berehala erne zen; baina eguzkiak jo orduko, erre egin zen eta, sustrairik ez zuelako, ihartu.

Beste zenbait ale sasi artean erori zen, eta sasiak, haztean, ito egin zuten hazia eta ez zuen fruiturik eman. Gainerakoak lur onean erori ziren, eta erne, hazi eta fruitua eman zuten: bateko hogeita hamar, hirurogei nahiz ehun». Eta ohar hau egin zien Jesusek: «Entzuteko belarririk duenak, entzun beza!»

Bakarrik gelditu zirenean, Hamabiekin batean berarekin zebiltzanek parabolaren esanahiaz galdetu zioten Jesusi. Eta honek esan zien: «Zuei eman zaizue Jainkoaren erreinuaren misterioa ezagutzea; kanpokoei, ordea, dena parabola bidez ematen zaie, Liburu Santuak dioena bete dadin: ikusten dute, bai, baina ohartzen ez; entzuten dute, bai, baina ulertzen ez; horrela, ez dira Jaunagana bihurtzen eta ez zaie barkatzen».

Eta esan zien gainera: «Parabola hau ez duzuela ulertzen? Nola ulertuko dituzue, bada, beste parabola guztiak?»

Ereileak hitza ereiten du. Hitza ereitean, batzuk “bide-bazterra” bezala dira: entzun bezain laster, Satanasek etorri eta haiengan erein den hitza kendu egiten die. Beste batzuk “harri artea” bezala dira: hitza entzutean, berehala pozik hartzen dute; baina sustrairik gabeak eta iraupen gutxikoak

Urteko 3. astea.

Tomas santua Aquinokoa, *apaiza eta eliz irakaslea.*San Julian Cuencakoa, *gotzaina.*

izanik, hitza dela-eta estutasun nahiz erasoaldiren bat sortu orduko, huts egiten dute. Beste batzuk, berriz, “sasi artea” bezala dira: entzuten dute hitza, baina mundu honetako ardurak, diru-gosea eta bestelako grinak nagusitzen zaizkie eta hitza ito egiten diete, fruiturik gabe utziz. Eta hona zein diren “lur ona” bezalakoak: hitza entzun, onartu eta fruitua ematen dutenak: bateko hogeita hamar nahiz hirurogei nahiz ehun».

Bihozgabetu egiten gaitu, Jauna, jakiteak, izango dela jende aprobetxategia, hazia jango duena; jakiteak, izango dela harririk eta laharrik, hazia itoko duena. Alabaina, laborariak hazia zakuan gordetzen badu, ez badu ereiten, ez du izango inolako uztarik, ez eskasa, ez ugaria.

Ereitera noa, Jauna, zuk eskatzen didazulako. Ez dut neure esku hazia ernetzea, ez haziak fruitu ematea. Zeure lana duzu hori. Horixe da nire kontsolamendua, uzta zure esku dela, eta ez ereilearen esku. Nire dagokidana, zure ondarean, zure mahastian lan egitea da. Hau zori handia nirea!

* * *

BIZITZA ERALGI

(Luis Espinal, s.j.)

Jesu Kristo Jauna, beldur gara bizitza eralgitzeaz,
baina bizitza zuk emana dugu eralgitzeko;
ezin dugu aurreztu egoismo antzuaz.
Bizitza eralgitzea, besteentzat lan egitea da,
ordainduko ez badute ere; mesede egitea
itzuliko ez duenari; bizitza eralgitzea, porrotera ere
murgil egitea da, beharrezko bada, sasi-zuhertasunik gabe;
itsasontzia erretzea da hurkoaren onerako,
argi-zuzi gara, erretzean dugu soilik zentzurik;
orduak izanen gara, soilik, argi.

[**Hebrearrei gutuna 10,19-25:** *Sendo iraun dezagun geure itxaropena aitortzen, eta elkarren arreta izan dezagun, maitasunera elkar berotzeko. Sal 23: Hau da, Jauna, zure aurpegi bila dabiltzan taldea.*]

† Jesu Kristoren Ebanjelioa San Markosen liburutik 4,21-25.

Aldi hartan, Jesusek esan zion jendeari: «Lakaripean edo ohe azpian ipintzeko pizten ote da kriseilua? Ez ote da pizten argimutilaren gainean ipintzeko? Izan ere, ez dago ezer gordeta agertuko ez denik, ezta ezkutuan ere argitaratuko ez denik. Entzuteko belarririk duenak, entzun beza!»

Beste hau ere esan zien: «Kontu izan nola entzuten duzuen! Zuek zein neurritan entzun, neurri berean emango dizue Jainkoak, eta gehiago ere bai. Izan ere, duenari eman egingo zaio; ez duenari, ordea, duen apurra ere kendu».

Zure hitzak, Jauna, harritzekoak dira etengabe. Zertan da on nik zugan sinestea, gero neure kristau-izatea ezkututzen badut gizarte-bizitzan eta ez badut alderik ezertan besteekiko? Argimutila ohepean ezkututzen dutenetakoa naiz. Ez dut argi egiten neure etxean berean, ez baititut tratatzen neure familiakoak berak ere kristau on bezala, hau da, begirunez, maitasunez eta egiazko txeraz...

Begirunerik gabe juzgatzen eta kritikatzten dut jendea –irudikeria hutsez–. Etengabe dut irizten on nahiz gaizto. Eta harritu egiten naiz, beldurgarri, hotz, harro esaten badidate. Egin nazazu, Jauna, autokritikoxeago, neure miseriari erreparatzen badiot errazago ulertuko baititut besteak.

Urteko 3. astea.

San Lesmes, *monjea*.Santa Martina, *birjina*.

[**Hebrearrei gutuna 10,32-39:** *Nekaldi-borroka handia izan zenuen. Ez galdu, beraz, zeuen uste ona. Sal 36:* *Zintzoek salbamena Jaunagandik dute.*]

† Jesu Kristoren Ebanjelioa San Markosen liburutik 4,26-34.

Aldi hartan, Jesusek esan zion jendeari: «Jainkoaren erreinua, lurrean hazia ereiten duen gizonaren antzekoa da: gizona lo dago gauetz eta jaikitzen da goizean; hazia ernetzen da eta hazten doa, eta gizonak ez daki nola. Bere-berez ematen du lurak uzta: lehenengo lastoa, gero burua eta ondoren galburuaren beteko alea. Eta, alea prest dagoenean, igitiaia eransten zaio, helduak baitaude gariak». Beste hau ere esan zien: «Zeren antzekoa dela esango dugu zeruko erreinua? Zer parabolatan adieraziko dugu? Mostaza haziaren antzekoa da: lurtean ereiten denean, hazirik txikiena da, baina jaiotzen denean, gora doa, eta barazki guztiak baino handiago egiten da; adar handiak botatzen ditu, txoriek haren itzalpean habia egin ahal izateraino». Horrelako parabola askoz hots egiten zien hitza, haiek uler ziezaiketenean neurrian, eta parabolarik gabe ez zien hitz egiten; ikasleei, ordea, bakarrean, dena agertzen zien.

Jesusek, Ebanjelioan, egundoko jakinduria erakutsi du. Jendeari –pilulatan– betiko biziaren egia agertu ohi zion. Adibidez, gaurko bi parabola labur hauetan. Jainkoaren erreinua ezkutuan eta isilik doa hazten, hasieran ez da ageri, baina erne da lurpean, atera da ernamuina, baita lastoa ere eta, azkenean, burua. Txikia da oso mostaza hazia; halere, zuhaixka bat emango du fruitu, eta hegaztiei egonlekua eskainiko die.

Jauna, guk amets handiak ditugu amesten, zuk txikiak: haurrak, pobleak, eskolagabeak, estutuak... Jesus, lagundu iezadazu neure pentsaera eta biziera aldatzen.

[Hebrearrei gutuna 11,1-2.8-19: Jainkoak eraiki eta antolatutako herria itxaroten zuen Abrahamek. Salmoa: Lukas 1: Bedeinkatua Jauna, Israelgo Jainkoa, agertu eta bere herria askatu duena.]

† Jesu Kristoren Ebanjelioa San Markosen liburutik 4,35-40.

Egun hartan, ilunabarrean, Jesusek esan zien ikasleei: «Goazen uraz beste aldera». Eta jendea utzi eta ontzian eraman zuten, zegoen bezala. Beste ontzi batzuek ere jarraitu zioten. Haize-ekaitz handia sortu zen, eta ontzi barruraino sartzen ziren ur-palastak, ontzia ia betetzeraino. Bera, berriz, txopan, burko ganean lo zegoen. Esnarazi eta esan zioten: «Maisu, galtzera goaz, eta ez al zaizu axola?» Orduan jaikirik, agindu zion haizeari eta itsasoari esan: «Ixo! Hago geldi!» Gelditu zen haizea, eta barealdi handia sortu zen. Gero, esan zien: «Zergatik zarete horren beldurti? Ez al duzue oraindik sinetsmenik?» Eta harriturik gelditu ziren, eta elkarri ziotsaten: «Nor dugu, ordea, hau? Haizeak eta itsasoak ere obeditzen baitiote!»

Beste behin ere, Jauna, txalupa batean nauzu olatuen jostailu, eta uste dut lo zaudela zu edota ez zarela konturatu astintzen nauen ekaitzaz. Bertan behera utzi ote nauzun nago. Izuak jo nau eta ez naiz gauza arrazoitzeko, gaina hartu dit zoriak eta galdua dakusat neure burua, laguntzarik gabe.

Baina bat-batean zuk jaiki eta oihu degiozu ekaitzari: Ixo, isil hadi! Eta nire bihotza dena bake eta gozamen da. Nolatan ote naiz hain fede eskasekoa? Emadazu, Jauna, adorea eta zukanako konfiantza, haizea eta ura berak ere esaneko baitituzu.

Ondora joan zitaion Jesus,
eskutik heldu eta jaikiarazi zuen



AITA SANTUAREN ASMOAK

Orokorra: Presoek, bereziki gazteek, bizitza duin bat berregiteko aukera izan dezatela.

Ebanjelizazioaren alde: Apartatu diren ezkontideek kristau-elkartean harrera ona eta sostengua aurki ditzatela.

OTSAILA / ZEZEILA

Urteko 4. astea.Santa Brigida, *birjina*.San Pionio, *apaiza eta martiria*.

§ Deuteronomio liburutik 18,15-20.

Moisesek hitz egin zion herriari: «Jaunak, zure Jaungoikoak, ni bezalako profeta bat aterako dizu zeure artetik, zeure senideen artetik; hari entzun behar diozue. Horixe da, batzar-egunean zuk Jaunari, zeure Jaungoikoari, Horeb mendian eskatu zeniona, esanez: “Ez dut berriz Jaunaren, zure Jaungoikoaren, mintzorik entzun nahi; ez dut berriz su handi hau ikusi nahi, ez dut hil nahi”. Eta Jaunak esan zidan: “Ondo dago esan dutena. Zu bezalako profeta bat aterako diet nik beren senideen artetik; nire hitzak ezarriko dizkiot ahoan, eta nik aginduko diodana esango die. Baina nik agindu ez diodan zerbait, nire izenean, esatera ausartuko balitz edo jainko arrotzen izenean hitz egingo balu, hil egingo da profeta hura”».

[Sal 94: *Entzungo ahal duzue gaur Jaunaren mintzoa: «Ez gortu zeuen bihotza».*]

§ Paulo Apostoluak 1. korintoarrei 7,32-35.

Senideok: Zuek kezkarik gabe bititzea nahiko nuke nik. Ezkongabeak Jaunaren gauzetan du ardura, nondik Jaunari atsegin emango; emaztedunak, berriz, munduko gauzetan du ardura, nondik emazteari atsegin emango, eta bitara dago. Emakume senargabeak eta neskatxak Jaunaren gauzetan du ardura, gorputz eta arima harentzat izateko. Senardunak, berriz, munduko gauzetan du ardura, nondik senarrari atsegin emango. Zuen onerako diot hau, ez zuei sare bat jartzeko; gauza on batera bultza egin nahiz esaten dizuet, horrela eragozpenik gabe Jaunari lotu zakizkioten.

† Jesu Kristoren Ebanjelioa San Markosen liburutik 1,21-28.

Iritsi zen Jesus Kafarnaumera, eta hurrengo larunbatean sinagogan sartu eta irakasten hasi zen. Harriturik zeuzkan denak bere irakatsiekin;

Urteko 4. astea.

Santa Brigida, *birjina*.San Pionio, *apaiza eta martiria*.

itzal handiz irakasten baitzuen, eta ez lege-maisuek bezala. Sinagoga hartan gertatu zen, hain zuzen, deabru lohiak harturik zeukan gizon bat, eta deiadarka esan zuen: «Jesus Nazaretarra!, zer dugu ikustekorik zurekin? Gu galtzeko etorri al zara? Badakit nor zaren: Jainkoaren Santua». Jesusek zorrotz agindu zion: «Zaude isilik eta atera zaitez gizon horrengandik!» Eta gizona astinduz eta orroka atera zen deabru lohia. Denak harriturik gelditu ziren, eta elkarri galdezka zioten: «Zer dugu hau? Hau bai dela irakatsi berria eta itzal handiz emana! Deabru lohiei ere agintzen die, eta horiek obeditu egiten diote!» Eta laster zabaldu zen haren izena bazter guztietara, Galilea osoan.

Boterea kanpotik etorri ohi da. Aginpidea barnetik sortu ohi da. Jesusen entzuleei harrigarri gertatu zaie irakastean Jesusi nabari zaion konbentzimendua eta segurantza. Zirrara eragiten die Jesusi nabari dioten aginpideak. Hark ez du aipatzen, ez lege-maisurik, ez jakintsurik. Bere baitatik mintzo da, eta Legearen interpretatzaileena ez bezalako jarreraz. Are gehiago, aurre egin dio deabruak hartua duen bati, ordu arte hitzik egin ez duenari, Jesusen presentziak mozorroa kendu dionari. Kanpotik ez, baizik bere baitatik darion indarra agertu du Jesusek. Eta mendeen zeukan esklabotzatik askatu du gizajo hura.

Sendatuz eta askatuz batean irakasten du Jesusek, jendea preso daukaten loturak eten ditu. Jendaurreko bere ministerioaren hasieratik beretik, jendea «salbatzeari» ekin dio Jesusek.

Nik, Jauna, utz dezadala zure hitzak lilura nazan. Xarmatu nazazu, maitasunak eraginda zure oinetan eror nadin. Libra nazazu neure baitan ditudan hainbat deabrutatik; neure etxean neuk hartuak diren arren, ez ditut nabari ere. Lagundu nazazu horiek guztiak garaitu eta kanpora botatzen. Isilaraz itzazu behin betiko, ez didate uzten zure ahotsa entzuten; zure ahots horixe da ni zure egiteko aginpidea duen hitz bakarra.

Urteko 4. astea.

JAUNAREN AURKEZPENA,

Kandelen bedeinkapena eta elizbira.

Canterburyko Lorentzo santua, *gotzaina*.

§ Malakias Profetaren liburutik 3,1-4.

Honela mintzo da Jaungoiko Jauna: «Begira, hor bidaltzen dut nik neure mezularia neure aurretik bidea prestatzera. Berehala etorriko da santutegira zuek bila zabiltzaten Jauna, eta zuek irrikatzen duzuen itun-mezularia. Horra non datorren –dio diren guztien Jau-nak–. Nork jasan haren etorrera-eguna? Nor zutik egon, hura etorriko denean? Urtzailearen sua bezala izango da, lixibagilearen zurigarria bezala; zilarra eta urrea bezala garbituko ditu Leviren semeak, eta behar bezala eskainiko diote opari Jaunari. Orduan atsegina izango zaio Jaunari Judako eta Jerusalemgo oparia, lehengo urteetan bezala».

[Sal 23: *Gudari taldeen Jauna, bera da Errege ospetsua.*]

§ Hebrearrei gutunetik 2,4-18.

Familia berekoek odol eta haragi bat-bera dute, eta Jesusek ere gure odola eta haragia hartu zituen, bere heriotzaz heriotzaren nagusi den deabrua ezerezteko, eta heriotza-beldurrez bizitza guztian morroi zeudenak askatzeko. Eta bere eskua luzatu die, ez aingeruei, Abrahamen jatorriari baizik. Horregatik, gauza guztietan senideen antzeko izan behar zuen, errukior izan zedin eta Jainkoaganako gauzetan apaiz nagusi leial, herriaren bekatuak ordaintzeko. Berak, tentaldiak eta oinazeak izan zituelako, lagun diezaieke tentaldian daudenei.

† Jesu Kristoren Ebanjelioa San Lukasek liburutik 2,22-40.

Mariarentzat, Moisesen Legearen arabera, garbikundeko egunak bete zirenean, gurasoek Jerusalem-era eraman zuten Jesus, Jaunari aurkezteko –Jaunaren Legean idatzirik baitago: «Lehen semea Jaunari eskainia izango da»–, eta opari egiteko –Jaunaren Legeak agintzen duen eran: «Bi usapal edota bi usakume»–. Simeon izeneko

gizon bat bizi zen orduan Jerusalem, gizon zintzo eta jainkozalea, Israelen poza itxaroten zuena, eta Espiritu Santua berekin zuena. Espiritu Santuak adierazi zion ez zuela heriotzarik ikusiko, Jaunaren Mesias ikusi arte. Eta Espiritu Santuak eraginda jauretxera joan zen. Gurasoek Jesus eraman zutenean, Legeak agindua harekin betetzera, hartu zuen Simeonek haurra besoetan eta Jainkoa bedeinkatu zuen, esanez: «Orain utz dezakezu, Jauna, / morroi hau bakean joaten, / zeuk hitzeman bezala. / Ikusi baitute nire begiok zugandiko salbamentua, / herri guztien aurrean ipini duzuna: / Atzerritarrak argitzeko argia, / eta zure herri Israelen edergarria».

Bizitza oro, azken batean, zugandik dator, Jauna. Horregatik, israeldar jainkozaleek, hori aitortzeko, opari bat eskaini behar izaten zuten; hain zuzen, seme nagusia «libratzeko» eskaini ohi zen oparia, adiskidetzeko semea bera biktima eskaini ordez. Josek eta Mariak pobreen eskaintza egin zuten zure ordaintzat. A zer paradoxa! Jainko ahalguztiduna pobrerik pobreenetakotzat hartua! Eta Mariak, garbi-garbiak, garbitzearen erritua jasan beharra!

Betleemen, Jose eta Maria xume eta apal bizitzen ohitu ziren: Jainkoak bere Semearentzat nahi izan zuen sekretua. Israel herriaren esperantzaren ordezkari ziren agure bi hauen, Simeon eta Aneren, komentarioak nahasgarri gertatu zitzaizkien. Ez, noski, bi haiek esandakoa sinesten ez zutelako, baizik eta hautsirik ikusi zutelako Jesusen jaiotzaz Jainkok gorde nahi zuen isil-gordea. Mariak baietsirik sentitu zuen, ez zuela egingo bere bizitzan arrosa-bide bat, baizik arantzazkoa, ezpata batek zeharkatuko ziola bihotza.

Jendearen argia eta gizadiaren aintza zaren horrek, argitu ezazu nire ibilbidea mundu honetan, besarkatu ahal zaitzadan, Simeonek

Urteko 4. astea.**JAUNAREN AURKEZPENA,****Kandelen bedeinkapena eta elizbira.**Canterburyko Lorentzo santua, *gotzaina*.

bezala, egunero nigana etorriko zarenean; bereziki, nire gurasoak direla medio, erregalu eman didazun bizitza honetako azken egunean.

* * *

PRESTATZEKO OTOITZA*(Gogo Jardunak 46)*

Laguntza eskatu Jainko geure Jaunari,
nire asmo, egintza
eta eragiketa guztiak
garbi norabidetuak izan daitezen
jainkozko bere Maiestatearen
zerbitzu eta aintzara.
Emadazu, Jauna,
benetako askatasuna;
ez nazala aparta zugandik, ez ezerk, ez inork,
eta gauza orotan eta pertsona guztietan
maita eta zerbitza zaitzadala zu.

San Blas, *gotzaina eta martiria.*
San Oskar, *gotzaina.*

Santa Claudina Thévenet, *fundatzailea (Jesus-Maria).*

[Hebrearrei gutuna 12,1-4: *Joan gaitezen eroapen handiz dagokigun borrokaldira. Sal 27: Goretziko zaituzte, Jauna, zure bila dabilzanek.*]

† Jesu Kristoren Ebanjelioa San Markosen liburutik 5,21-43.

Aldi hartan, Jesus itsasoaz bestaldera itzuli zenean, jende-talde handia bildu zitzaion. Artean itsaso ondoan zegoela, sinagogako buruzagietako bat etorri zen, Jairo zeritzana; Jesus ikustean, honen oinetan ahuspezturik, arren eta arren eskatzen zion: «Alabatxoa hiltzorian dut; zatoz hari gainean eskuak ezartzera, senda dadin eta bizi». Jesus harekin abiatu zen.

Jende asko zihoakion ondoren, estutzen. Bazen han emakume bat, hamabi urte haietan odol-jarioz zegoena. Hamaika sendagileren eskuetan jasatekoak jasana zen, eta bere ondasun guztiak ere horretan emanak zituen; baina sendatu beharrean, gero eta okerrago zihoan. Jesusen berri entzunda, jende artean atzetik joan eta jantzia ukitu zion, bere artean baitzioen: «Jantzia bederen ukitzen badiot, sendatuko naiz». Une berean odol-jarioa gelditu zitzaion, eta gaitza sendatua zuela sumatu zuen bere gorputzean.

Berehala antzeman zion Jesusek halako indar bat atera zitzaiola barnetik, eta, jende artean itzulirik, galdetu zuen: «Nork ukitu dit jantzia?» Ikasleek erantzun zioten: «Hainbeste jendek estutzen zaituela ikusi, eta nork ukitu zaituen galdetzen duzu?» Baina Jesus ingurura begira zebilen, nork egin ote zion hori. Orduan, emakumeak, beldurrez dar-dar –ongi baitzekien zer gertatu zitzaion–, oinetara erori eta egia osoa aitortu zion. Baina Jesusek esan zion: «Alaba, zeure sinesmenak sendatu zaitu; zoaz bakean, eta sendatua bekizu gaitza».

Oraindik hizketan ari zela, sinagogako buruzagiaren etxetik etorri ziren, esanez: «Hil zaizu alaba. Zertako eman neke gehiago Mai-

San Blas, *gotzaina eta martiria.*San Oskar, *gotzaina.*Santa Claudina Thévenet, *fundatzailea (Jesus-Maria).*

suari?» Baina Jesusek, hitz horiek entzunik, sinagogako buruzagiari esan zion: «Ez izan beldurrik; zuk sinetsi!»

Ez zion inori ere berekin joaten utzi, Pedro, Santiago eta honen anaia Joani izan ezik.

Sinagogako buruzagiaren etxera iristean, ikusi zuen Jesusek hango istilua, jendea negarrez eta garrasika. Sartu eta esan zion: «Zer dela-eta horrenbeste istilu eta negar? Neskatzak ez dago hilda, lo dago». Haiek barre egin zioten.

Baina Jesusek denak kanpora bidali zituen eta, neskatxaren aita-amak eta berekin zituenak harturik, neska zegoen tokira sartu zen. Neskari eskutik heldu eta esan zion: «Talitha, kum» (hau da: «Neskatzak, zuri diotsut, jaiki»). Berehala zutitu eta ibiltzen hasi zen, hamabi urte bazituen eta. Jende guztia harri eta zur gelditu zen. Jesusek zorrotz agindu zion inork ere ez zezala jakin. Eta neskatxari jaten emateko esan zion.

Ebanjelioko emakumeak hamabi urte daramatza gaixo, eta Jairoren alabak bete berria du adin hori bera. Lotura bitxi hori dute biek. Bata, adinekoa, etsirik dago, Jairo ere bai. Jesusek ezin jasan du besteren mina, heriotza gainean duten emakume biena. Bere fedea sendatu du adinekoena. Gaztearena, berriz, aitaren fedea. Mirari bikoitza gauzatu du fedea. Jairo kopetilunaren eta emakume atsekabetuaren fedea da. Jesusengan behar da sinetsi, eta kasurik ez nazaretarraren lepotik barre egiten duten hiletariei eta zentzudunei. Munduak ezagutu duen indarririk handiena da Jesusekiko fedea. Aski da kristautasunaren historiari erreparatzea. Halere, dudatan ote naiz Kristoganako fedearen ahalmenaz?

* * *

3

**Asteartea
Martitzena**

OTSAILA / ZEZEILA

Urteko 4. astea.

San Blas, *gotzaina eta martiria.*

San Oskar, *gotzaina.*

Santa Claudina Thévenet, *fundatzailea (Jesus-Maria).*

HARTU, JAUNA, ETA ONARTU

(Gogo Jardunak 234)

Hartu, Jauna, eta onartu
nire askatasun guztia, nire oroimena,
nire adimena eta nire gogo osoa,
dudan eta daukadan guztia.
Zeuk eman zenidan,
zeuri, Jauna, itzultzen dizut.
Zurea da dena.
Egin erabat nahi duzuna.
Emadazu zeure maitasuna eta onginahia,
aski dut hori.

Joana Valois-koa, *erregina*.
San Joan Brito, *jesuita, martiria*.*

[Hebrearrei gutuna 12,4-7.11-15: Jainkoak maite duena zentzarazten du. Sal 102: Jaunaren maitasuna betidanik betidaino beldur diotenentzat.]

† Jesu Kristoren Ebanjelioa San Markosen liburutik 6,1-6.

Aldi hartan, Jesus bere herrira joan zen, ikasleak ondoren zituela. Hurrengo larunbatean, sinagogan irakasten hasi zen. Entzule askok, harriturik, zioen: «Nondik du honek hori guztia? Zer da eman zaion jakinduria hori? Eta honen eskuz gertatzen diren mirari horiek? Hau ez al da, ba, arotza, Mariaren semea eta Santiago, Jose, Judas eta Simonen anaia? Eta honen arrebak ere ez al dira hemen gure artean bizi?» Eta ezin zuten sinetsi harengan.

Jesusek esan zien: «Profetari edonon ematen diote ohore, bere herrian, senitar-tean eta etxean izan ezik».

Eta ezin izan zuen han miraririk egin; hala ere, gaixo bakar batzuk sendatu zituen, eskuak gainean ezarriz. Eta harriturik zegoen haien sinesgogorkeriaz. Gero, inguruko auzoetan ibili zen, irakasten.

Porrotak askoz min handiagoa ematen du etxekoan aurrean gertatzen bada. Jesusena, Nazareten, sekulakoa izan zen. Dударik gabe, Jesusen familiarteko guztiek «lotsa» jasango zuten, ikusi zutenean zein arre-ta eskasa izan zuen herriko seme ospetsuak. Zer espero dai-teke zurgin batengandik? Mahaiak egitea! Ez dadila hasi lege-mai-suarena eta sendagilearena egiten!

Hautsi, Jauna, zutaz dudan ideia zurrun hori, eta ezagut zaitza-dala hobeto egunetik egunera. Horixe da San Ignaziok gogo-jardun egileari gomendatzen dion eskaria: Jainkoak eman diezaiola Jesus barnez ezagutzea, gauza orotan hura maitatu eta zerbitzatzeko.

* San Joan Brito, *apaiza*; Rodolfo Acquaviva, *apaiza*, eta lagunak, *martiriak*.

[Hebrearrei gutuna 12,18-19.21-24: *Sion mendira hurbildu zarete, Jainko biziaren herrira. Sal 47: Gogoratzen dugu, Jainko, zure maitasuna, zeure jauretxe erdian.*]

† Jesu Kristoren Ebanjelioa San Markosen liburutik 6,7-13.

Aldi hartan, Jesus Hamabiei dei egin eta binaka bidaltzen hasi zen, espiritu gaiztoak botatzeko ahalmena ematen ziela.

Biderako ezer ere ez hartzeko agindu zien, makila besterik: ez ogirik, ez zakutorik, ezta dirurik ere gerrikoan; oinetan sandaliak eraman zitzatela, baina aldatzeko soinekorik ez.

Gero, nola jokatu esan zien: «Etxe batean sartzean, gelditu bertan herri hartatik atera arte. Eta nonbait onartzen ez bazaituztete eta entzun nahi ez, handik alde egitean, astindu zeuen oinetako hautsa, beraien kontrako seinaleztat».

Joan ziren, bada, haiek, eta Berri Ona hots egin zuten bihotz-berri zitezen. Deabru asko botatzen zuten eta gaixo asko sendatzen, olio gantzutuz.

Jesusen eskolan «lizentzia» eskuratu aurretik, «praktikak» egin beharra gertatu zaie apostoluei. «Fardeleria» arina eraman behar dute, dirurik ez, aldatzeko arroparik ez, baina bai makila eta sandaliak, batetik bestera ibili ahal izateko. Leku bati, eroso bizitzeko, atxiki gabe. Neurritsu, soil, apal, auzia Jainkoaren esku utziz. Eta ez zuten izan esperientzia txarra, dio San Markosek.

Onartzen al ditut Jesusen aholku horiek bizi naizen gizartea ebanjelizatzean? Zeinengandik nabil hurbilago, pobreengandik ala aberatsengandik? Nola erreakzionatzen dut porrot baten aurrean? Adierazten al dut gehiago fidatzen naizela Jainkoaz, neure indarrez eta baliabideez baino?

Urteko 4. astea.

San Martin Igokundekoa, San Paulo Miki eta haien lagunak, *Japonian martiri*.*

[**Hebrearrei gutuna 13,1-8:** *Jesu Kristo berbera da atzo eta gaur; berbera gizaldi eta gizaldietan. Sal 26:* *Jauna dut argi eta salbamen.*]

† Jesu Kristoren Ebanjelioa San Markosen liburutik 6,14-29

Aldi hartan, jakin zuen Herodes erregeak Jesusen berri, honen izena oso ezaguna baitzen. Batzuek zioten: «Joan Bataiatzailea piztu da hildakoen artetik; horregatik du mirariak egiteko ahalmen hori». Beste batzuek, berriz: «Elias da». Eta beste zenbaitek: «Profeta da, antzinako profetak bezalako». Iritzi hauek entzutean, Herodesek zioen: «Nik lepoa moztu nion Joan huraxe piztu da».

Izan ere, Herodesek Joan harrapatu eta kartzelan lotua zuen, Herodias zela eta. Herodesen anaia Feliperen emaztea zen Herodias, baina Herodesek bere emaztetzat hartua zuen, eta Joaneke esaten zion: «Ez zaizu zilegi zeure anaiaren emaztea edukitzea».

Horregatik, gorroto zuen Herodiasek Joan eta hil egin nahi zuen, baina ezin, Herodesek begirune baitzion Joani; gizon zuzen eta santutzat zeukan, eta babestu egiten zuen. Joanen hitzek kezkarik sortzen bazioten ere, gogoz entzuten zion.

Etorri zitzaion, ordea, Herodiasi aukerako eguna: Herodesek, bere urtebetetzean, afaria eman zien agintari, gudalburu eta Galileako handikiei. Sartu zen jantokian Herodiasen alaba eta dantzan egin zuen, eta atsegin izan zitzairen Herodesi eta mahaikideei. Orduan, erregeak esan zion neskatxari: «Eskatu nahi duzuna, eta eman-go dizut». Eta zin eginez agindu zion: «Eskatu ahala guztia emango

* Martin Igokundekoa eta Paulo Miki, *erlijiosoak*, eta lagunak, *santuak*; *dohatsuak*: Karlos Spinola eta Sebastian Kimura, *apaizak*, eta lagunak, *martiriak*.

San Martin Igokundekoa, San Paulo Miki eta haien lagunak, *Japonian martiri*.*

dizut, nire erreinuaren erdia bada ere». Atera zen neskatxa eta bere amari galdetu zion: «Zer eskatuko diot?» Amak erantzun: «Joan Bataiatzailearen burua».

Itzuli zen arin-arin erregeagana eta eskaria egin zion: «Emadazu oraintxe berean Joan Bataiatzailearen burua azpilean». Goibel jarri zen erregea, baina mahaikideen aurrean egindako zinagatik, ez zion ukatu nahi izan. Berehala, bere guardiako bat bidali zuen, Joanen burua ekartzeko aginduz. Joan zen hura kartzelara eta lepoa moztu zion, eta azpilean ekarri zuen burua; neskatxari eman zion, eta neskatxak amari.

Joanen ikasleak, hori jakitean, haren gorpua jasotzera etorri eta hilobian ehortzi zuten.

Jesusen Lagundiak Japoniako martirien oroitzapena egiten du gaur; ez ziren jesuitak bakarrik, baita beste erlijiosoetakoak ere, baita laikoak ere. Xabierko Frantzisko santuak ebanjelizatu zuen urruneko lurralde hartako kristau-elkarte txikiak jasan zituen hainbat pertsekuziotan eman zuten beren bizia. Elkarte gazte hark fede sendoa eta sakona agertu zuen; une guztietan duintasun miresgarria azaldu zuten, eta Kristok gurutzean izan zuen jarrera beraz barkatu zieten beren epaile eta borroeroei.

Eta zer esan gutaz, hain nagi baikara barkatzeko orduan, baldintzak ezartzen baitizkiogu damutu denari? Japoniar kristau hauek bezala etsenplua begi bistan dugula, ez ote genuke eskuzabalago izan behar geure barkazioa ematean?

* * *

* Martin Igokundekoa eta Paulo Miki, *erlijiosoak*, eta lagunak, *santuak*; *dohatsuak*: Karlos Spinola eta Sebastian Kimura, *apaizak*, eta lagunak, *martiriak*.

Urteko 4. astea.

San Martin Igokundekoa, San Paulo Miki eta haien lagunak, *Japonian martiri*.*

GAUZA GUZTIEN BETIKO JAUNA
(*Gogo Jardunak 98*)

Gauza guztien betiko Jauna,
neure eskaintza noa egitera,
zure mesede eta laguntzarekin,
mugagabeko zure onberatasunaren
eta zeruko gorteko
santu guztien aurrean,
nahi dudala eta opa
eta nire erabaki deliberatua dela
–soilik izan dadila zure zerbitzu eta gorespenik handiena–
zu imitatzea, jasanez
bai irain eta laido oro,
bai pobretasun oro nola erreal ala espiritual.
Nahi izango ahal du zure Maiestate guztiz santuak
ni hautatzea eta onartzea
biziera eta izaera horretan.

* Martin Igokundekoa eta Paulo Miki, *erlijiosoak*, eta lagunak, *santuak*; *dohatsuak*: Karlos Spinola eta Sebastian Kimura, *apaizak*, eta lagunak, *martiriak*.

[Hebrearrei gutuna 13,15-17.20-21: Artzain handia hildakoen artetik atera duen bakearen Jainkoak, gai egin zaitzatela on guztirako. **Sal 22:** Jauna dut artzain, ez naiz ezeren beharrean.]

† Jesu Kristoren Ebanjelioa San Markosen liburutik 6,30-34.

Aldi hartan, apostoluak Jesusengana bildu, eta egin eta irakatsi zuten guztiaren berri eman zioten. Jesusek esan zien: «Zatozte zuek bakarrik, leku baztertu batera, atsedean pixka bat hartzera». Asko baitziren zetozenak eta zihoazenak, eta jateko ere ez zieten astirik uzten. Eta itsasontzi batean leku baztertu eta baketsu batera joan ziren. Askok ikusi zituen joaten, eta ezagutu ere bai, eta oinez lasterka han bildu ziren hiri guztietatik, eta aurrea hartu zieten. Ontzitik ateratzean, Jesusek jendetza handia ikusi zuen; erruki izan zituen, artzainik gabeko ardiak bezala baitzeuden. eta luze irakasten hasi zitzairen.

Lanerako denbora, atsedenerako denbora. Bizitzan hartu beharra da, tarteka, atsedeen-txoko eta astialdi bat. Mugatua da gizakia eta indarrak berritu beharra izaten du, ahalegin luze baten segidan. Ez fidatu «oporrik ez dutela sekula hartzen» esaten dutenez, «ezinezkoa zaien haietaz, luxua omen delako». Jesusek berak ere pentsatu du ikasleek arnasa hartu beharra dutela «jarduera» apostolikoetatik itzuli direnean. Halere, larritasun-egoera batek (artzainik gabeko ardie-nak) hankaz gora bota du atsedeteko Jesusen asmoa.

Jauna, irakatsiezadazu atsedena hartzen, zure zerbitzuan hobeto jarduteko.

San Jeronimo Emiliani, *aitorlea (umezurtzen eta gazte-di utziaren zaindaria)*.

Santa Josefina Bakhita, *erlijiosa*.

§ Joben liburutik 7,1-4.6-7.

Egun haietan, honela mintzatu zen Job: «Gizonaren bizitza lur-gainean morrontza bat da; haren egunak, langile-egunak dira. Morroiak bezala itzala irrikatzen du, eta langilea bezala lan-sariaren zain dago. Hilabete latzak igaro ditut nik, gau negargarriak ematen dizkidate. Etzaten naizenean, hala diot: “Noiz jaikiko ote naiz?” Eta jaikitzen naizenean: “Noiz etorriko ote da gaua?” Goizetik gaueraino hor nabil batera eta bestera. Anezka baino arinago dira egunak, eta esperantzarik gabe akitzen dira. Oroit zaitez, nire bizia arnasa bat dela, eta nire begiek zorionik ez dutela ikusiko berriz».

[Sal 146: *Goretsazue Jauna, bihotz-urratuak sendatzen dituen.*]

§ Paulo apostoluak 1. korintoarrei 9,16-19.22-23.

Senideok: Ebanjelioa zabaltzen dudala-eta, ezin harro naiteke. Beharrezkoa baitut nik hori, eta errukarria ni, Ebanjelioa zabaltzen ez badut! Horretan nire gogoz ari banintz, hori bera izango nuke sari; baina nahi ezta egiten badut, ezarri didaten eginkizuna dut. Zer da, beraz, nire saria? Ebanjelioaren zabalkundea egitea; eta hori, berri ona hutsean zabaltzeagatik dagozkidan eskubideez baliatu gabe. Inoren menpeko ez izanik ere, guztien morroi egin naiz, guztiak irabazteko. Argalentsat argal egin naiz, argalak irabazteko; guztientzat guzti egin naiz, nolabait norbaitzuk irabazteko. Eta guztia Ebanjelioagatik egiten dut, berri on horretan neuk ere parte izan dezadan.

† Jesu Kristoren Ebanjelioa San Markosen liburutik 1,29-39.

Aldi hartan, Jesus sinagogatik atera eta Simonen eta Andresen etxera joan zen, Santiagorekin eta Joanekin. Simonen amaginarreba ohean zegoen, sukarrarekin, eta berehala harengatik hitz egin zioten. Ondora joan, eskutik heldu eta jaikiarazi zuen Jesusek, eta sukarrak

San Jeronimo Emiliani, *aitorlea*
(*umezurtzen eta gaztedi utziaren zaindaria*).
Santa Josefina Bakhita, *erlijjiosa*.

utzi zion, eta zerbitzatzen hasi zitzaion. Arratsaldean, eguzkia sartu zenean, gaixo eta deabrudun guztiak zekarzkieten, eta herri guztia ate aurrean bildu zen. Jesusek asko sendatu zituen era guztietako gaitzetatik, eta deabru asko uxatu zuen. Eta deabruak ez ziren uzten hitz egiten, bai baitzekiten hura nor zen. Goizean goiz, artean ilun zela, jaiki, atera eta leku bazter batera joan zen, eta otoitzean hasi han. Simon eta Simonekin zirenak haren bila atera ziren; aurkitu zutenean, esan zioten: «Denak zure bila dituzu». Eta hark: «Goazen hemendik inguruko herrietara, han ere hitz egin dezadan; horretara etorria naiz eta». Eta hala, Galilea guztian barna ibili ohi zen, sinagogetan hitz egiten eta deabruak uxatzen.

«Jende guztia zure bila dabil». Eta Jesus leku bazter batera joana da otoitz egitera –arteak iluna–. Bezperako lana lehergarria izana du: sinagogan irakatsi, Pedroren amaginarreba sendatu, ilunabarrean inguruan pilatu zaion jendetzari kasu egin. Indarrak berriro beharra sentitu du Jesusek, eta Aitarekin solas egitera jo du. Hor du bere bizitzaren sekretua: bere Aitarekin bihotz-elkartasuna. Hala aurkitu dute, otoitzean.

Zenbaitek dio Jainkoa mundutik absente dagoela, isilik dagoela; are gehiago, hila dela. Gezurra. Hori diotenek ez dute sekula isiltasunik egin beren bihotzean, ez dizkiote ireki ez begiak ez belarriak Jainkoaren Hitzari; hau presente dago mundu honetako gertaera, pertsona eta gorabehera guztietan. Ez dago urrun, ez mutu ez hila. Soilik, nork bere barne zentzuak zorroztea da kontua, haren urratsa sumatzeko, egintza, gertaera edo izaki bakoitzean. Hor dago Jainkoa gurekin egon nahiz, guk bera noiz aurkituko zain, gurekin harreman izateko gogoz: «Ene arima, atera zaitetz leihora, / ikusi nolako maitasunez den lehiatzen deika!» (Lope de Vega). Bai egia handia! Nirean ate joka ari zara. Eta ni zer ari naiz, irekitzera korrika joan gabe?

Urteko 5. astea.Santa Apolonia, *martiria*.San Migel Febres Cordero (Migel anaia), *erlijiooa*.

[*Hasiera liburutik 1,1-19: Jainkoak esan zuen, eta hala egin zen.*
Sal 103: Poztu bedi Jauna berak eginetan.]

† Jesu Kristoren Ebanjelioa San Markosen liburutik **6,53-56**.

Aldi hartan, Jesus eta ikasleak, itsasoa igarorik, lehorrera iritsi ziren Genesareten, eta hantxe gelditu ziren.

Ontzitik atera zireneko, batzuk, Jesus ezaguturik, inguru hartan batera eta bestera hasi ziren, eta gaixo zeudenak esku-ohetan ekartzen hasi zitzaizkion, Bera zegoen lekura. Eta Jesus joaten zen herrixka, herri eta auzoetan, gaixoak larrainetan ipintzen zizkioten, eta soineko-ertza bederen ukitzen uzteko eskatzen zioten; eta ukitzen zuten guztiak sendaturik gelditzen ziren.

Hau denbora galtzea, Jauna! Ebanjelioa irakasten jardun ordez, jendeak buruz ikas dezan arte errepikatzen ari ordez, gaixoak eta mindunak sendatzen diharduzu, mota guztietakoak. Horixe datorkit burura, ikusirik, alde batera utzi duzula predikua, hainbat jende elbarri eta nekatu arintzeko. Ez naiz jabetzen, predikurik hobena ez direla hitzak, baizik egintzak, bizitza. Hainbat jende atsekabeturi osasuna eta bizitza beteagoa ematean, ez duzu egiten Jainkoaren erreinua iritsia dela baietsi baizik. Zer hori baino oratoria hoberik! Obrak dira maitale.

* * *

HIRUGARREN ASTEKO ESKARIA

(*Gogo Jardunak 203*)

Nahi dudana eskatu, pasioko gauza bera:
 oinazea Kristo oinazetuarekin,
 hautsia Kristo hautsiarekin,
 malkoak, barne pena
 Kristok nigatik jasan zuen
 hartarainoko penaz.

[Hasiera liburutik 1,20–2,4a: Egin dezagun gizona, geure antz eta irudiko. Sal 8: Jauna, gure Jauna, bai miragarria zure izena, lurbira osoan.]

† Jesu Kristoren Ebanjelioa San Markosen liburutik 7,1-13.

Aldi hartan, bildu ziren Jesusengana fariseuak eta Jerusalemdik etorritako lege-maisu batzuk, eta ikusi zuten, ikasleetako batzuk esku zikinekin –hau da, eskuak garbitu gabe– jaten zutela. Orduan, fariseuek eta lege-maisuek galdetu zioten: «Zure ikasleek zer dela-eta ez dituzte gordetzen zaharren ohiturak, eta zergatik jaten dute esku zikinekin?» Jesusek erantzun zien: «Itxurazaleak! Ederki asko esan zuen Isaias profetak zuetaz. Idatzirik baitago: “Herri honek ezpainez goresten nau, / baina bihotza urruti dauka nigandik. / Hutsa da ematen didaten gurtza, / gizakien agindu diren irakatsiak / irakasten baitituzte”. Jainkoaren aginduak alde batera utzi, eta gizakien ohiturak gordetzen dituzue». Esan zien, gainera: «Bai, Jainkoaren agindua ezeztatzen duzue, zeuen ohiturak gordetzeagatik. Moisesek esana da: “Aintzat har itzazue aita eta ama”; eta “Aita edota ama madarikatzen duenak heriotza merezi du”. Zuek, berriz, hau esaten duzue: “Norbaitek aitari edota amari esaten badio: Nigandik izango zenukeen guztia jauretxeari eskaintzen diot”, halako horri ez diozue uzten aita-amenegatik ezer egiten. Honela, Jainkoaren hitza ezeztatzen duzue zeuen ohiturengatik. Eta honelako beste gauza asko egiten duzue».

Zenbat bider ez ote gara erori kristauak, Jauna, hemen salatzen dituzun tranpa hauetan! Neure eginbehar erlijiosoak hartu izan ditut aitzakiatzat, hurbileneko karitateari ezikusiarrena egiteko. Eginbehar moral batzuk hartu izan ditut aitzakiatzat, neure lagun hurkoari laguntza ukatzeko. Ihesbidetzat hartu izan dut erlijioa, agindu nagusiari ihes egiteko. Hainbat bider kritikatu zenituen hipokrita horiek bezalakoa naiz / gara: «horrelakorik asko egiten duzue». Sala ezazu

Urteko 5. astea.

Santa Eskolastika, *birjina*.

argiro nire iruzurra, bekatu baizik ez dena santuz janzteko nire nahikaria. Barkatu, Jauna, nire hipokresia; egizu, senti dezadala lotsa hain desleiala eta gezurtia den neure jokabideaz.

* * *

JAUNAREN DEIA

(Pedro Arrupe, s.j.)

Jauna, zure deia eta zuri jarraitzeko neure gogoia hausnartzean, konturatu naiz, zu zarela nire bizitza osoaren ideala, eta nire jokabidearen ideala zure jokabidea dela. Horregatik, nire begiak, fedearen begiak, zugana doaz, zure irudia, Ebanjelioan ageri dena bezalako zure irudia, gogo-emateko...

Jauna, zerbitza zaitzadala zureak bezalako sentimenduez, Aita eta gizon-emakumeak maite zenituen zure bihotzekoak bezalako sentimenduez. Maitasunaren eta buru-eskaintzaren... zure jarrera hori imitatu nahi dut. Erakutsiezadazu, Jauna, ikasleei, haurrei, fariseuei, bekatariei edo Pilatori eta Herodesi ematen zenien tratua. Adieraziezadazu adiskideekin izan ohi zenuen jokamoldea.

Irakatsiezadazu errukitsu izaten sufritzen dutenekin: pobre, gaixo, umezurtz, adin handiko, alargunekin. Jakin nahi nuke, nola agertzen zenituen zeure emozioak, negar ere egiteraino. Ageriezadazu nola begiratzen zenion jendeari, nola begiratu zenion Pedrori zeuri jarraitzeko dei egitean edota bere eroritik jaikiaraztean, nola begiratu zenion gazte aberatsari zuri jarraitzera ausartu ez zenean, nola begiratu zenion jendeari artzainik gabeko ardi bezala zebilenean...

Irakatsiezadazu zure portaera, gure portaera izan dadin eta, horrela, ebanjelizazio- eta salbazio-egintzan zure jarraitzaile, zure lan-kide izateko ideala gauzatu ahal dezagun. Mariari eskatu nahi diot, eratu ditzala nigan eta gu guziongan zu bezalako beste hainbat Jesus.

[**Hasiera** liburutik 2,4b-9. 15-17: *Jainko Jaunak gizona hartu eta Edengo baratzean ipini zuen. Sal 103: Ene arima, goretzazu Jauna.*]

† Jesu Kristoren Ebanjelioa San Markosen liburutik 7,14-23.

Aldi hartan, Jesusek berriro jendeari dei egin eta esan zion: «Entzun guztiok, eta adi ezazue: ez da ezer, kanpotik sartuz, gizakia zikin dezakeenik; barnetik ateratzen denak zikintzen du gizakia. Entzuteko belarririk duenak, entzun dezala». Jendea utzi eta etxean sartu zenean, ikasleek parabolaren galdera egin zioten. Eta hark erantzun: «Beraz, zuek ere ezaguerarik gabe al zaudete? Ez al duzue ulertzen, kanpotik sartzen denak ez dezakeela zikindu gizakia? Ez baita bihotzean sartzen, sabelean baizik, eta handik zabor-zulora doa». (Honela, janari guztiak garbiak direla aitortu nahi zuen). Esan zuen ere: «Barnetik ateratzen denak, horrek zikintzen du gizakia. Barnetik, gizakiaren bihotzetik, ateratzen baitira asmo txarrak: lizunkeriak, lapurretak, gaiztakeriak, maltzurkeriak, lohikeriak, bekaizkeriak, gaizki esateak, handikeriak, zorakeriak. Gaitz hauek guztiak barnetik ateratzen dira, eta hauek zikintzen dute gizakia».

Jesusek eten egin zuen tradizio erlijioso handi bat, Jainkoarekiko kultua Legeko aginduak betetzean jartzen zuena. Garbi baino garbiago diotso emakume samariarrari: espirituz eta egiaz adoratutik behar da Jainkoa, eta ez erritual hutsal eta edukirik gabekoez. Pertsonen, janarien eta gauzen garbitasuna edo ez-garbitasuna oinarritzko osasun-arau huts dira, kutsadura eta epidemiak saihesteko. Halakoak kontuan ez hartzea kaltegarri gerta zekiokkeen lagun hurkoari; horregatik aitortu zieten erlijio-izaera. Baina ekintza bat on edo gaizto izatea helburuak, asmoak gauzatzen du, ekintzarekin lortu nahi den xedeak. Jesusek gure barneari erreparatzen dio, eta ez gure itxurari.

Urteko 5. astea.

Santa Eulalia Bartzelonakoa, *birjina*.San Modesto, *martiria*.

[**Hasiera liburutik 2,18-25:** *Aurrera eraman zion gizonari emakumea.* **Sal 127:** *Dohatsu, Jaunaren beldur dena.*]

† Jesu Kristoren Ebanjelioa San Markosen liburutik 7,24-30.

Aldi hartan, Tiroko lurraldera joan zen Jesus. Etxe batean sartu zen, eta ez zuen nahi inork jakitea, baina ez zuen ezkutuan egoterik izan. Berehala, haren berri entzunik, emakume bat etorri zitzaion, alabatxo deabru lohi batek hartua zeukana, eta oinetara ahuspeztu zitzaion. Jentila zen emakumea, Feniziako siriarra sortzez, eta alabagandik deabrua haizatzeko eskatzen zion. Jesusek erantzun zion: «Utzi lehenbizi seme-alabak asetzen; ez dago ondo seme-alaben ogia hartu eta txakurrei botatzea». Baina, emakumeak erantzun zion: «Egia, Jauna; baina txakurkumeek ere jaten dituzte mahaipean umeen apurrak». Orduan Jesusek: «Zoaz, hitz horrengatik atera da eta deabrua zure alabagandik». Joan zen etxera, eta neskatxa ohean etzana aurkitu zuen; deabrua, berriz, alde egina zen.

Harrigarria gertatzen da emakume gaixo honi Jesusek hasieran eman dion tratua; guztien gainetik bere alaba sendatzea nahi du emakumeak. Ez zaio axola bere burua beheratzea, ezta txakur baten pareko egitea ere, alabaren osasuna lortze aldera. Eta Jesus hunkitu egin da umilazio honen aurrean, ama horren desio suharraren aurrean; horregatik, alaba sendatu izana ez dio leporatzen bere ahalmenari, baizik hain barnetikoa den amaren otoitzaren indarrari.

Jauna, emadazu emakume honena bezalako fedea. Harroa ez da belaunikatzen, ezta Jainkoaren aurrean ere. Ez du erregutzen, ez eskatzen. Pertsona apalak, aldiz, otoitz egiten dio bere pobretasunetik, bera den guztiarekin, laguntzen ahal dionari.

Urteko 5. astea.

San Benigno, *martiria*.San Kastor, *apaiza eta ermitaia*.

[**Hasiera liburutik 3,1-8:** *Jaungoikoa adinako izango zarete, onaren eta txarraren jakitun.* **Sal 31:** *Bai dohatsu, gaiztakeria barkatu zaiona.*]

† Jesu Kristoren Ebanjelioa San Markosen liburutik 7,31-37.

Aldi hartan, Jesus, Tiroko lurraldea utzi eta Sidondik igaro eta Dekapolisen barna Galileako itsasora etorri zen. Gorra eta hitz-motela zen gizon bat ekarri zioten, eta eskuak gainean ezartzeko eskatu. Jesusek, jende artetik bereiz harturik, behatzak belarrietan sartu zituen, eta bere listuz mihia ukitu zion. Zerura begira, intziri eginez, esan zion: «Effetá» –hau da: «Ireki zaitetz»–. Eta berehala ireki zitzaizkion belarriak, eta mihiko lotura askatu, eta hizketan hasi garbi-garbi. Inori ez esateko agindu zien Jesusek. Baina haiek orduan eta gehiago zabaltzen zuten albistea. Eta harriturik, zioten: «Ondo egiten du dena: gorrei entzunarazi eta mutuei hitz eginarazi».

Sorgorrek bakar gelditzeko joera izan ohi dute. Gainerakoei ezin entzun edota solasean ezin esku hartu dutelarik, beren baitan biltzen dira, gero eta gehiago. Ebanjelioko sorgor hau ere beste batzuek aurkeztu diote Jesusi. Ematen du, berak kontra egiten diola sendatua izateari; hain zuzen, Jesus beharturik gertatu da hatzak sartzera haren belarrietan eta listua haren mihian. Beharrezkoa izan zuen Jaunaren «ireki zaitetz» hura, azkenean helburua lortzeko.

Zenbat bider egiten diedan nik neuk sorgorrarena zure deiei! Nahiago izaten dut neure gisa bizi, zuri galdetu ere egin gabe gustukoa ote duzun! Jauna, izan dezadala norbait, zugana eramango nauena, eta atera nazazula neure gorreria neurekoitik!

[**Apostoluen Eginak liburutik 13,46-49:** *Jakizue, gu jentilengana goazela. Sal 116:* *Zoazte mundu guztira, eta hots egin Berri Ona.]*

† Jesu Kristoren Ebanjelioa San Lukasen liburutik 10,1-9.

Aldi hartan, Jaunak beste hirurogeita hamabi ikasle izendatu eta bere aurretik bidali zituen binaka, bera joatekoa zen herri eta toki guztietara. Eta esan zien: «Uzta ugaria da, baina langileak gutxi. Erregutu, bada, uzta-jabeari, bidal ditzala langileak bere uztara. «Zoazte! Bildotsak otso artera bezala bidaltzen zaituztet. «Ez eraman poltsarik, ez zakutorik, ez oinetakorik, eta ez gelditu bidean inori agur egiten. Edozein etxetan sartzen zaretela, esazue lehenbizi: “Bakea etxe honetakoei”. Han bakezalerik baldin bada, haren gain kokatuko da zuen bakea; bestela, hutsean geldituko da zuen agurra. Geldi zaitezte etxe berean, eta jan eta edan dutenetik, zor baitzaio langileari bere saria. Ez ibili etxez etxe. Herriren batean sartu eta ongi hartzen bazaituztete, jan jartzen dizuetenetik, sendatu bertako gaixoak eta esaezue: “Gainean duzue Jainkoaren erregetza”».

Kristau-bokazioen beharra dugu. Ez soilik apaiz edo bizitza sagaraturako, baita laiko ebanjelizatzailetarako ere, hitzez ez ezik, beren bizieraz eta jokaeraz ebanjeliza dezaten. Egiatzko kristauak behar ditugu, bai komentuan, monasterioan edo aldarean, bai bulegoan, lantegian, politikan eta administrazioan. Uzta ugaria da, langileak urri. Pasarte honetan ez digu eskatzen Jesusek bokazioen alde otoitz egiteko –horretarako ere eskatu arren–, baizik eta bidean jar gaitezen, irten gaitezen geure txoko barnekoietatik; geure etsenpluaz erakutsi behar du, zer den Jesusengan sinestea eta nolatan aldarazten duen horrek bizitza eta nolatan bihurtzen bizitza egiaz inbidigarri.

Urteko 6. astea.

Santa Jovita, *martiria*.San Klaudio de la Colombière, *apaiza*.

§ Lebitarrak liburutik 13,1-2.44-46.

Jauna honela mintzatu zitzaion Moisesi eta Aaroni: «Bere larruzalean inori handiturik, kozkorrik edo zuri-unerik sortzen bazaio, edo norbaiti larruan legenarrak agertzen bazaio, eraman bezate Aaron apaizarengana edo haren semeetako apaiz batengana. Legendun bat da, gizaki lohia. Buruan legenarrak joa dagoen gizaki lohia dela aitortuko du apaizak. Apaizaren aitormenez legenduntzat emana izan denak, soineko urratuak erabiliko ditu, buruko ilea nahasia eta kokotsa goiko ezpainetaraino estalia: eta “gizaki lohia!, gizaki lohia!” oihu egingo du. Legendarrak irauten dion arte, gizaki lohia izango da. Bakarrik biziko da; eta oihal-txaboletatik urruti izango du bere bizilekua».

[Sal 31: *Zu zaitut ihesleku, askatasun-pozez inguratzen nauzu.*]

§ Paulo apostoluak 1. korintoarrei 10,31–11,1.

Senideok: nahiz jan, nahiz edan, nahiz beste edozer egiten duzuelarik, egizue dena Jaungoikoaren aintzarako. Ez eman gaizpiderik, ez juduei, ez greziarrei, ez Jaungoikoaren Elizari. Nik ere neure aldetik guztiak ematen diet atsegin, ez nire onari begira, haienari baizik, guztiak salba daitezten. Izan zaitezte nire antzeko, ni Kristoren antzeko naizen bezala.

† Jesu Kristoren Ebanjelioa San Markosen liburutik 1,40-45.

Aldi hartan, legendun bat etorri zitzaion Jesusi, eta, belauniko, esan zion: «Nahi baduzu, garbi nazakezu». Jesusek, errukiturik, eskua ezarri eta ukitu zuen, esanez: «Nahi dut, geldu zaitez garbi». Orduan berean utzi zion leprak, eta garbi gelditu zen. Jesusek bidali egin zuen, zorrotz esanez: «Begira, gero, inori ezer esan! Baina zoaz, agertu apaizagana eta eskain ezazu zeure garbikuntzagatik Moisesek agindu zuena, ageri bat izan dezaten». Hura, orde, atera zeneko, gertatua oihuka hots egiten hasi zen eta zabaltzen, eta harrezkero Jesus ez zitekeen agerian sar herrietan, baizik eta inguruetan gelditu ohi zen, leku baztertuetan. Eta hala ere alde guztietatik zetorkion jendea.

Urteko 6. astea.

Santa Jovita, *martiria*.San Klaudio de la Colombière, *apaiza*.

Mendetan barna, izurri belzgarri eta baztertzaila izan da lepra. Jasaten zuena marjinatu egin ohi zuten, harreman familiarrik eta sozialik gabe utziz. Jendeak ihes egiten zuen halakoengandik. Gaur egun ere badira gaixotasun eta bizi-egoera jakin batzuk, halakoak jasateagatik jendea bazterturik uzten dutenak: hiesaren biktimak, preso ohiak, alkoholari edo drogari emanak, prostituituak ...

Ebanjelioko lepradunak urrundik eta belauniko erregutu dio Jesusi: «Nahi baduzu, garbi nazakezu». Jesusek, lehenik eta behin, bere eskuaz ukitu du hura; ondoren, sendatu. Baztertuaren izaeratik atera, gizarteratu eta sendatu egin du. Hark bezala erregutu dezaket neuk ere: «Jauna, nahi baduzu, garbi nazakezu». Baina hobe nuke, Jainkoaren aurrean «ni neu» garbi gelditzea baino lehen, neuk ere Jesusek egin zuena egitea pentsatuko banu: beren auzoan inork ikusi nahi ez dituenak gizarteratu eta borroka egin ez-parekotasunak behingoz gal daitezten: jatorriagatik eta nongoa izateagatik, osasun-egoeragatik, lan duin baten faltagatik, bizitza desbideratu batengatik sortuak diren ez-parekotasunak. «Errukia nahi dut nik, eta ez bularra jotzea».

* * *

JARRAITUKO DIZUGU, JAUNA

(San Agustin)

Jarraituko dizugu, Jauna,
baina jarraitu ahal izateko, dei egiguzu.
Zeren zu gabe, inor ez baitoa aurrera.
Zeren zu bakarrik baitzara Bidea, Egia eta Bizia.
Onartu zuk gu, bide abegikor batek onartzen duen bezala.
Arnastu zuk gu, egiak arnasten duen bezala.
Emaguzu bizia, zu bizia zara eta.

Urteko 6. astea.

San Onesimo, gotzaina eta martiria.

Santa Juliana, birjina eta martiria.

[**Hasiera liburutik 4,1-15.25:** *Kainek bere anaia Abeli eraso eta hil zuen.* **Sal 49:** *Eskain iezaiozu gorespen-oparia Jainkoari.*]

† Jesu Kristoren Ebanjelioa San Markosen liburutik 8,11-13.

Aldi hartan, agertu zitzaizkion Jesusi fariseuak, eta eztabaidan hasi ziren. Azpikeriaz, zeruko ezaugarriren bat eskatzen zioten. Jesus-ek, barrutik antsika eginez, esan zien: «Zer ari da gizaldi hau, ezau-garri eske? Hara nik egia esan: ez zaio ezaugarririk emango». Eta haiek utzirik, berriro ontzian sartu eta beste aldera joan zen.

Kainek Abel hil zuen. Fariseuek seinale bat eskatzen diote Jesusi, beragan sinesteko. Guztiek nahi izaten dugu zuritu geure sin-
nsgabetasuna edo bekatua, sasi-arrazoiez. Uko egiten diogu sin-
teari, fariseuek bezala, eta amore emateari, Kainek bezala. Bestela
jokatzeak beste biziera bat egitera behartuko gintuzke, besteen ona,
Jainkoaren eta besteen maitasuna sutuago aintzat hartuz. Zeruaren
seinalea da Jesus. Guztien anaia nagusia da Jesus. Aitzakia guztiak
gezurtatzen ditu bere bizierarekin, gaitza baztertu eta bere ahalmena
munduan handitzeko. Errua ez da Jesusena, gurea da.

MAITASUNA LORTZEKO KONTENPLAZIOA

(*Gogo Jardunak 233*)

Eskatu barnez ezagutzea
hartu ditudan horrenbeste mesede;
nik, hori guztia oso-osorik aitorturik,
gauza guztietan maitatu eta zerbitzatu
ahal dezadan beraren jainkozko Maiestatea.

Andre Mariaren Zerbitzarien *Zazpi Fundatzaile Santuak*.
Amaseako (gaur egungo Amasia, Turkian) San Teodoro,
martiria.

[**Hasiera liburutik 6,5-8; 7,1-5.10:** *Erraustu egingo dut lurretik egin dudan gizona. Sal 28:* *Bere herria bedeinkatuko du bake emanez Jaunak.*]

† Jesu Kristoren Ebanjelioa San Markosen liburutik 8,14-21.

Aldi hartan, ikasleei ahaztu zitzaien ogia hartzea, eta ontzian ez zuten bat besterik. Jesusek ohar hau egin zien: «Begira, kontuz ibili fariseuen eta Herodesen legamiarekin». Haiek eztabaidan ari ziren elkarrekin, ogirik ez zutelako. Jesusek, horri antzemanik, esan zien: «Zer ari zarete, ogirik ez duzuela-eta? Oraindik ez al zarete konturatzen eta jabetzen? Itsu al duzue oraindik bihotza? Begiak izan, eta ez al duzue ikusten? Belarriak izan, eta entzuten ez? Bost ogi bost milarentzat banatu nituenean, ez al duzue gogoan zenbat saski bildu zenuten puskaz beterik?» Haiek erantzun zioten: «Hamabi». «Eta zazpi ogi lau milarentzat banatu nituenean, zenbat saski bildu zenu- ten puskaz beterik?» Haiek erantzun zioten: «Zazpi». Eta Jesusek: «Eta, hala ere, ez al zarete konturatzen?»

Gizadia kateatzen duen sarea da munduko gaitza. Mundu ho- netako botereek —eman diezaiegun «merkatuak» edo «ekonomia globala» izena— legamia bat dute, ore sozial guztia hartitzen edo fermentatzen duena: dirua, ospea, plazera, harrokeria, gainerakoak baino handiago garella pentsatzera eta, gurea ez den beste edozein gauzaren aurrean, axolagabe jokatzera garamatzen harrokeria alegia. Hain hedatua dago sare hau, non nekez libratzen ahal gara hartatik. Jesusek diosku: «Ez duzuela ulertzen?» Arazoa ez da eguneroko ogia bakarrik, nahiz hori ere arazoa den, baizik eta mundu bat da arazoa, Ebanjelioaren aurkako balioez eraikitzen ari dena. Ez al diozu antzematen?

§ Joel Profetaren liburutik 2,12-18.

Begira zer dioen Jaun guztiz ahaltsuak: Itzul zaitezte nigana bihotz-bihotzez, barauz, negarrez eta saminez. Urra ezazue bihotza, ez soinekoak, itzul zaitezte Jaunagana, zeuen Jaungoikoagana; bihozbera eta errukitsua baita, haserretzen zaila, erruki handikoa, eta bere zemaiez damutzen dena. Nork daki ez ote den itzuliko eta damutuko, eta ez ote digun utziko oraindik bedeinkapena eta eskaintza, eta Jaunaren, gure Jainkoaren, isur oparia? Jo ezazue turuta Sionen, adierazi oihuka baraua, dei egin batzarrera; bildu herria, bedeinkatu batzarra, bildu zaharrak eta ekarri gaztetxoak eta bularreko haurrak, atera bedi senarra ezkontzagelatik, emaztea ezkontza-ohetik. Sarrera eta aldare-bitartean negar egin bezate apaizek, Jaunaren zerbitzariak, eta esan: Barka, Jauna, barka zeure herriari, ez utzi lotsaz zeure ondarea, ez dezatela menperatu jentilek, ez dezatela esan arrotzek: Non dute, bada, beren Jaungoikoa? Sor bekio Jaunari bere lurraldeaganako errukia, eta barka biezaio bere herriari.

[Sal 50: *Erruki, Jauna, bekatu egin dugu-eta.*]

§ Paulo apostoluak 2. korintoarrei 5,20–6,2.

Senideok: Gu Kristoren ordezeko bezala ari gara, Jaungoikoak gure ahoz hots egingo balizue bezala. Kristoren izenean esaten dizuegu: adiskidetu zaitezte Jaungoikoarekin. Bekaturik ezagutu ez zuen hura, Jaungoikoak gugatik bekatu bihurtu zuen, guk harekin bat eginda Jaungoikoaren salbamena iritsi dezagun. Jaungoikoaren zerbitzari garen ezkerro eskatzen dizuegu, ez dezazuela alferrik har haren grazia. Berak baitio: «Garai egokian entzuten dizut, eta salbamen-egunean laguntzen». Begira, beraz: oraintxe da garai egokia, orain salbamen-eguna.

† Jesu Kristoren Ebanjelioa San Mateoren liburutik 6,1-6.16-18.

Aldi hartan, Jesusek esan zien ikasleei: «Begira gero, zeuen egite onak gizakien aurrean egin, ikus zaitzaten! Bestela, ez duzue

HAUSTERRE EGUNA.

San Simeon, *Jerusalemgo gotzaina.*Fiesoleko Joan dohatsua (Frai Angelico), *erlijiosoa.*

zeruetan dagoen Aitaren saririk izango. Limosna ematerakoan, beraz, ez ibili aurretik turuta jotzen, itxurazaleak sinagogetan eta kaleetan ibiltzen diren bezala, jendeak goretz ditzan. Egia esan, horiek jaso dute beren saria. Zuk, ordea, limosna ematerakoan, ez beza jakin zure ezkerak, eskuinak egiten duena; zure limosna hori ezkutuan geldi dadin, eta ezkutuan ikusten duen zeure Aitak emango dizu saria. Baraurik zarenean, ez ipini aurpegia ilun, itxurazaleek bezala; aurpegia zatartu egiten baitute horrelakoek, baraurik daudela ingurukoei adierazi nahiz. Egia esan, horiek jaso dute beren saria. Zuk, ordea, baraurik zarenean, gantzutu zeure burua usain gozoz eta garbitu aurpegia; ingurukoek ez, baino ezkutuan dagoen zure Aitak ikus dezan zure baraua, eta ezkutuan ikusten duen zeure Aitak emango dizu saria».

Hiru dira, Garizumarako, Elizak gomendatzen dituen jarduerak: limosna, otoitza eta baraua. Horiek dira biderik egokienak gure bihotza prestatzeko, biziaren norabidea benetan aldatu eta Pazkoa pozik ospatzeko. Limosnak eteten du egoismoaren (dena niretzat eta niretzat bakarrik... eta nirentzat) gurpil zorua. Otoitzak gogorazten digu kreatzailea dela Jainkoa, eta ukan dezakegun eta geure bezala har dezakegun guztiaren emaile dela hura; geure segurantza, ondasun materialetan oinarritua, erlatibizatzen du otoitzak. Barauak geure premia oinarritzkoenen kontrola itzultzen digu; koloka jartzen du gauzarik inportanteena egunero jatea delakoa.

Elizak ez ditu sakratutzat eman nahi hiru jarduera hauek; soilik, hau adierazi nahi digu: Jainkoaren harreman pertsonalago bat izan gabe (horretarako bide bat da otoitza), geure biziera eraberritu gabe (horretarako bide bat da baraua), gainerakoan premiei begiratu gabe (limosna), ezin izan dela egiazkoa geure bizitza eraberritzeko asmoa. Berrogei egun hauetan ondo zaindu beharreko hiru alderdi dira, alde horietatik erasotzen baitigu etsaiak. Jarrera egokia, beraz, geure burua hornitzea da, gudua ez galtzeko.

[Deuteronomio 30,15-20: *Bedeinkapena eta madarikapena jar-tzen dizkizuet gaur aurrean. Sal 1: Bai dohatsu, Jaunagan itxarobi-dea duen gizakia.*]

† Jesu Kristoren Ebanjelioa San Lukasen liburutik 9,22-25.

Aldi hartan, Jesusek esan zien ikasleei: «Beharrezkoa da, Gizo-naren Semeak neke handiak jasatea: zaharrek, apaizburuek eta lege-maisuek gaitzetsiko dute eta hilko; baina hirugarren egunean piztuko da». Eta esan zien guztiei: «Nirekin etorri nahi duenak, uko egin bie-zaio bere buruari, har beza eguneroko bere gurutzea eta jarrai biezat. Izan ere, bere bizia salbatu nahi duenak, galduko du; baina bere bizia nigatik galtzen duenak, salbatuko. Zertako du gizakiak mundu guztia irabaztea, bere bizia galtzen eta hondatzen badu?»

Bi bideak: zorionaren bidea eta hondamendiaren bidea, on-giarena eta gaizkiarena. Hautatu beharra. Ezin ibili naiz txandaka, batean hemen eta bestean han. Aukera egin behar dugu: Jesus ala mundua. Noren zerbitzura jarriko naiz, Jauna? Zeinen alde?

Lotsa apur bat ere sentitzen dut. Jakizu. Behin baino gehiagotan esana dizut, nik zugatik dena emango nukeela, baina, ondoren, ez naiz gai izan gauzarik txikiena ere zuri eskaintzeko. Dena den, Jauna, sendo jarraitu nahi dizut; baina, lehenengo okasioan zu bertan behe-ra uzteko joera dudanez, emadazu zeure maitasuna, emadazu zeure laguntza; hori dudalarik, benetan egingo diot uko neure buruari, be-netan hartuko dut neure gurutzea, benetan jarraituko zuri noranahi.

Hausterre ondokoa.San Leon, *gotzaina*.

Fatimako Hiazinta eta Frantzisko dohatsuak.

[Isaias 58,1-9a: *Hau da nik maite dudan baraua. Sal 50: Ez duzu arbuiautuko, Jainko, bihotz damutu eta umildua.*]

† Jesu Kristoren Ebanjelioa San Mateoren liburutik 9,14-15.

Aldi hartan, Joanen ikasleak hurbildu eta esan zioten Jesusi: «Zergatik guk eta fariseuek maiz barau egiten dugu, eta zure ikasleek ez?» Jesusek erantzun zien: «Eztei-lagunek negar egin al dezakete, senar berria berekin duten bitartean? Etorriko da, senar berria kendu dieten eguna; orduan, bai, orduan egingo dute barau».

Penitentzia-jarduerak, kristautasunean, ez dira helburu, berez. Ez dugu barau egiten argalago egoteko, ezta gai izateko ere gorputzaren eskariei gaina hartzeko, ezta Jainkoaren aurrean «me-rezimenduak egin» eta haren aurrean titulu bat badugula sentitzeko. Ezta Elizak aginduk direlako ere. Penitentzia-diziplina, gure grinak hezteko da soil-soilik, beroriek izan ez daitezen gure bizitza gobernatzen dutenak. Santa Teresa Jesusenak ederki ulertu zuen hori: «Ez zaitzala ezerk larritu, ez zaitzala ezerk izutu, Jainkoa duzula ez duzu ezeren beharrik, aski duzu Jainko bakarrik». Errepika ezazu sarri-sarri eta ohartuko zara kristau-penitentiaren zentzuaz.

[Isaias 58,9b-14: *Gose denari zure ogitik ematen badiozu, zure argia ilunpean zabalduko da. Sal 85: Zure bidea erakutsiezadazu, Jauna, zure egian ibil nadin.*]

† Jesu Kristoren Ebanjelioa San Lukasen liburutik 5,27-32.

Aldi hartan, Jesusek zerga-biltzaile bat ikusi zuen, Lebi zeritzana, zerga-biltzaileen mahaian eseria, eta esan zion: «Jarrai niri». Dena utzirik, zutitu eta jarraitu zion. Bazkari handia eman zion Lebi bere etxean; baziren han mahaian haiekin zerga-biltzaile asko eta beste batzuk. Fariseuak eta haien aldeko lege-maisuak marmarrean ari ziren eta esan zieten ikasleei: «Zergatik jaten eta edaten duzue zerga-biltzaile eta bekatariekin?» Jesusek erantzun zien: «Ondo daudenek ez, baino gaixo daudenek behar dute sendagilea. Ez naiz zintzoei dei egitera etorri, bekatariei baizik, bihotz-berri daitezen».

Gauza bitxia da gurea; jakinik Jesusek sarritan hautsi zituela bere garaiko jainkozaleen arau sozio-erlijiosoak, nolatan iristen gara kristauok –denboraren denboraz–fariseuek eta lege-maisuak egiten zuten gauza bera egitera? Izan ere, gordinki kritikatzin ditugu bekataria publikoekin edo izen txarreko jendearekin tratua izaten dutenak. Gezurtaezina da Jesusen arrazoiketa; halere, on-usteko jendeak ezin onartu. Hauen arabera, Mateo ez zukeen Jesusek sekula aukeratu behar apostolu; agian, neuri ere ez zidakeen Jaunak barkatu behar hainbat aldiz. Jakina, belar gaiztoa ez da hiltzen...

Garizumako 1. astea.

San Pedro apostoluaren gotzain-aulkia.

Santa Margarita Cortona-koa, *erlijiosa*.

§ Hasiera liburutik 9,8-15.

Egun haietan, Jaungoikoak esan zien Noeri eta Noeren semeei: «Hara, ituna egiten dut nik zuekin eta geroko zuen ondorengoekin, eta zuekin izan diren bizidun guztiekin: hegaztiekin, abereekin eta lurreko piztiekin; hitz batean, kutxatik atera eta orain zuekin diren lurreko abere guztiekin. Ituna egiten dut zuekin, ez dela gehiago izango lurra hondatuko duen uholderik». Eta Jaungoikoak esan zuen gainera: «Hau da nire eta zuen artean, eta zuekin diren bizidunen artean, gizaldi guztietarako nik egiten dudan itunaren ezaugarria: nire ostadarra ipini dut hodeietan, eta hura izango da lurrarekin egin dudan itunaren ezaugarria. Hodeiak lurrera bidaltzen ditudanean, ostadarra agertuko da hodeietan, eta gogoratuko zait zuekin eta bizidun guztiekin egina dudan ituna, eta ez da izango gehiago bizidunak hondatuko dituen uholderik».

[Sal 24: *Zure bidexka guztiak grazia eta leialtasuna, Jauna, zure ituna gordetzen dutenentzat.*]

§ San Pedro Apostoluaren 1. gutunetik 3,18-22.

Senide maiteok: Kristok heriotza jasan zuen bekatuengatik behin betiko –Zintzoak, zintzo ez direnengatik–, gu Jaungoikoagana eramateko. Heriotza jasan zuen bere gorputzean, baina Espirituak bizi berria eman zion. Espiritu hau berekin zuela joan zen bere mezua hots egitera giltzapetuak zeuden espirituiei, garai batean sinesgogor izan zirenei: Jainkoak bere eroapena luzatu zuen garaian, alegia; Noe kutxa egiten ari zenean, eta gutxi batzuk –zortzi bakarrik– uretik kutxan salbatu zirenean. Orduko hura, gaur salbatzen zaituzten Bataioaren irudi da, eta salbamen hori ez da gorputzeko zikin bat garbitzea, baizik Jainkoagandik bihotz garbia iristea, Jesu Kristo gure Jaunaren piztueraren bitartez. Jesu Kristoren menpean ezarriak izan

Garizumako 1. astea.
San Pedro apostoluaren gotzain-aulkia.
 Santa Margarita Cortona-koa, *erlijiosa*.

baitira aingeruak, aginteak eta indarrak, eta orain, zerura igo ondoren, Jainkoaren eskuinaldean dago.

† Jesu Kristoren Ebanjelioa San Markosen liburutik **1,12-15**.

Aldi hartan, Espirituak basamortura eramán zuen Jesus. Berrogei egunez egon zen basamortuan, eta Satanasek tentaldian jarri zuen; basapiztien artean zegoen, eta aingeruak zituen zerbitzari.

Joan bahitu zutenean, Jesus Galileara joan zen, Jainkoaren Berri Ona hots egitera; esaten zuen: «Ordua bete da, hurbil da Jainkoaren erreinua. Bihotz-berri zaitzete eta sinetsi Berri Ona».

Zein hitz gutxikoa den Markos! Lau esaldiz deskribatu du Jesusen basamortuko esperientzia eta Galilean aurkeztu zuen mezua. Errepara iezaiezu xehetasunei. Dio, adibidez, Espirituak eramán zuela (bultza egin ziola) Jesus otoitz eta barau egitera, jendeagandik oso urrun. Neuk ere premia izaten dut, tarteka, apartatzeko alditxo batez eguneroko neure eginkizunetatik, Jainkoarekin harreman estuago eta biziagoak izateko edota berrasteko haiek hiltzen utziak baditut. Alditxo baten beharra, mozorroa kentzeko gaitzaren espirtuak eragiten dizkidan tentazioei; eguneroko nahasmendu artean, tranpa direla ere ohartu gabe bizi izan baititut. Jainkoarekin tratu lasai bat izanez, jabetuko naiz zein engainuk harrapatu bide nauen bere sarean.

Eskaiozu, beraz, Jaunari, hitz egin diezazula esanez, zurekin «so-lasaldi bat izan nahi duela» berak. Emaiozu hitzordua eta lekua. Aldi aproposa da garizuma bihotz-berritzeko eta Ebanjelioa zeure bizi-tzako oinarrizko irizpide bihurtzeko. Ez ezazu gal aukera. Ez esan zeure agenda betea duzula; aitzakia hutsa. Zeure bizi-tza zuzentzeko ordua duzu. Eskaiozu hitzordu bat Jainkoari. Zurekin egoteko zain-zain dago.

Garizumako 1. astea.

San Polikarpo, *gotzaina eta martiria*.Rafaela Ibarra dohatsua, *fundatzailea**(Aingeru Zaindaria).*

[Lebitarrak 19,1-2.11-18: *Zuzentasunez epaitu zeure lagun-hurkoa. Sal 18: Zure hitzak, Jauna, espiritu eta bizi dira.*]

† Jesu Kristoren Ebanjelioa San Mateoren liburutik 25,31-46.

Aldi hartan, Jesusek esan zien ikasleei: «Gizonaren Semea –eta aingeru guztiak harekin– bere aintza handian etorriko denean, bere jaun-aulki ospetsuan eseriko da, eta herri guztiak haren aurrean bilduko dituzte. Hark batzuk besteengandik bereiziko ditu, artzainak ardiak akerreratik bereizten dituen bezala: ardiak eskuinaldean ipiniko ditu eta akerrak ezker aldean. Orduan erregeak esango die eskuinekoei: “Zatozte, nire Aitaren bedeinkatuok; har ezazue munduaren sortzetik prestaturik dagoen erreinua. Gose bainintzen, eta jaten eman zenidaten; egarri nintzen, eta edaten eman zenidaten; arrotz nintzen, eta etxean hartu ninduzuen; biluzik nengoan, eta jantzi ninduzuen; gaixorik nintzen, eta ikustera etorri zineten; espetxean nengoan, eta bisitan etorri zineten”. Orduan zintzoek erantzunoko diote: “Jauna, noiz ikusi zintugun goseak, eta eman genizun jaten; egarri, eta edaten eman? Noiz ikusi zintugun arrotz, eta etxean hartu; biluzik, eta jantzi? Noiz ikusi zintugun gaixorik edo espetxean, eta joan ginen bisitan?” Eta erregeak erantzun eta esango die: “Benetan diotsuet: nire senide diren txiki hauetako bati egin, neuri egin zenidaten”. Orduan esango die ezkerrekoiei: “Alde nigandik, madarikatuok, deabruarentzat eta haren aingeruentzat prestaturik dagoen betiko sura. Gose bainintzen, eta ez zenidaten jaten eman; egarri, eta ez zenidaten edaten eman; arrotz, eta ez ninduzuen etxean hartu; biluzik, eta ez ninduzuen jantzi; gaixorik eta espetxean, eta ez zineten ni ikustera etorri”. Haiek erantzunoko diote: “Jauna, noiz ikusi zintugun goseak edo egarri, arrotz, biluzik, gaixorik edo espetxean, eta guk lagundu ez?” Orduan erantzunoko die: “Benetan diotsuet: txiki hauetako bati egin ez zeniotena, neuri

San Polikarpo, *gotzaina eta martiria.*Rafaela Ibarra *dohatsua, fundatzailea**(Aingeru Zaindaria).*

ez zenidaten egin». Eta hauek betiko oinazera joango dira; zintzoak, berriz, betiko bizira».

Ez zaituzte juzgatuko ospatu dituzun eukaristia-kopuruen arabera, ezta errezatu dituzun arrosarioen arabera ere, ezta aldareko sakramentuari egindako bisiten arabera ere; agertu duzun karitatearen arabera juzgatuko zaituzte: desjabetu, behartsu, gaixo, preso, etxebekin. Eman dituzun baso ur, ogitarteko, jantzi babesgarri, ospitaleko bisita, etorkinari egindako irribarre, negar dagienari eskainitako babes, premian denari eskainitako arreta eta laguntza: horiek dizkituzte kontuan hartuko. Ez dizute galdetuko fededun ala ateo zaren, kristau ala budista, buruargi ala ergel, aberats ala pobre... Zuk zein neurgailuz neurtu, hala neurtu zaitu Jainko on eta zuzenak, pobreez ardura duenak.

* * *

BANDERA BIEN SOLASA

(Gogo Jardunak 147)

Eskatu nahi diot Andre Mariari
 irits diezadala grazia bere Seme eta Jaunagandik
 bere banderapean har nazan;
 lehenik eta behin, pobretasun espiritual handiengan
 eta, jainkozko bere Maiestateari hala baderitzo
 eta hautatu eta onartu nahi banau,
 baita txikiagoa datekeen pobretasun errealean ere;
 bigarren, laidoak eta irainak jasaten,
 haietan bera gehiago imitatzeke,
 baina jasan ahal ditzadala inoren bekaturik gabe

Garizumako 1. astea.

San Polikarpo, *gotzaina eta martiria.*

Rafaela Ibarra dohatsua, *fundatzailea*

(*Aingeru Zaindaria*).

eta beraren Jainkozko Maiestatea atsekabetu gabe;

eta, horrenbestez, *Agur Maria* bat.

Eskatu nahi diot beste horrenbeste Semeari,

irits diezadan *Aitagandik*;

eta, horrenbestez, *Kristoren Arima*.

Eskatu nahi diot beste horrenbeste Aitari,

berak eman diezadan;

eta errezatu *Gure Aita*.

[Isaias 55,10-11: *Nere hitzak egingo du nik nahi nuena.* Sal 33: *Estualdi gutzitik salbatu zituen Jainkoak bere eskuz zintzoak.*]

† Jesu Kristoren Ebanjelioa San Mateoren liburutik 6,7-15.

Aldi hartan, Jesusek esan zien ikasleei: «Otoitz egiterakoan, ez ari hitz-jarioka, sinesgabeak bezala; hitzaren hitzez entzungo zaie-la uste baitute. Ez izan zuek haien antzeko, badaki-eta zuen Aitak zer behar duzuen, zuek eske hasi baino lehen. Beraz, zuek honela egingo duzue otoitz: “Gure Aita, zeruetan zarena, / santu izan bedi zure izena, / etor bedi zure erreinua, / egin bedi zure nahia, / zeruan bezala lurrian ere. Emaguzu gaur egun honetako ogia; / barkatu gure zorrak / guk ere geure zordunei / barkatzen diegun ezkeror; / eta ez gu tentaldira eraman (eroan), / baina atera gaitzazu (gagizuz) gaitzetik”. Izan ere, zuek gizakiei beren hutsegiteak barkatzen badizkiezue, zuei ere barkatuko dizkizue zeruko zeuen Aitak. Baina gizakiei barkatzen ez badiezue, zuei ere ez dizkizue barkatuko zeuen Aitak zeuen hutsegiteak».

Trapu samarra zaren hori, ez zaitezela hasi Jainkoa engainatu nahian, zeure mihi arinaz. Jainkoaren aurrean ez du balio mozorrotzeak, ez makillajeak, ez sasi-ilajeak, ez takoiak, ez itxurak. Haren aurrean ken itzazu zapata dotoreak. Ez dira ezertako. Jainkoaren aurrean biluzik zaude beti, oinutsik, babesik gabe, elbarri: zaren bezalako. Zeuk zeure burua baino hobeto ezagutzen zaitu hark. Alferrik ibiliko zara hura atzipetu nahian. Ez duzu egingo zeure buruari gezurra esatea besterik. Ez da zertan izan inor haren beldur. Izan konfiantza harengan eta ez zeugan. Jarrera horrek lagunduko dizu *Gure Aita* espirituz eta egiaz esaten. Bestela, haizeak daramatzen hitz dira izango.

Garizumako 1. astea.San Bitorino, *martiria*.Santa Valverga, *abadesa*.

[Jonas 3,1-10: *Ninivetarrak beren bide okerretik itzuli ziren. Sal 50: Ez duzu arbuiatuko, Jainko, bihotz damutu eta umildua.*]

† Jesu Kristoren Ebanjelioa San Lukasen liburutik 11,29-32.

Aldi hartan, jendea pilaka zetorrela, Jesus hasi zitzaien esaten: «Gizaldi hau gizaldi bihurria da. Ezaugarri bat eskatzen du, eta ezaugarririk ez zaio emango, Jonasena besterik. Izan ere, ninivetarrentzat Jonas ezaugarri izan zen bezala, hala izango da Gizonaren Semea gizaldi honentzat. Auzi-egunean hegoaldeko erregina gizaldi honetako gizakien aurka jaikiko da eta gaitzetsiko ditu; lurraren azken mugetatik etorri baitzen hura Salomonen jakinduria entzutera; hona hemen, berriz, Salomon baino handiagoa dena. Auzi-egunean ninivetarrak gizaldi honen aurka jaikiko dira eta gaitzetsiko dute; haiek Jonasen hitzaldiagatik bihotz-berritu baitziren; hona hemen, berriz, Jonas baino handiagoa dena».

Zorionekoa naiz. Jesu Kristoganako fedearen dohaina hartu dut. Milioika eta milioika dira Jesus ezagutzen ez dutenak. Jaunak ongina berezia izan du niretzat. Baina, eskerrak eman eta bete-bete haren asmoari atxiki ordez, atzeraka ibili ohi naiz eta aitzakia bila Jainkoaren erreinua munduan osorik ezartzeari neure burua ez emateko. Beste batzuek, nik bezalako zoririk ez dutenek, inbidiaz begiratzen didate. Beste batzuek, nire zoria izan dutenek, aurrea hartu didate. Ez ote da ordua ekiteko, iheska eta sasi-arrazoitan galdutako aldia berreskuratzeko?

Garizumako 1. astea.

San Alexandro, *gotzaina*.San Porfirio, *gotzaina*.

[Ester 14,1.3-5.12-14: *Ez dut zu beste laguntzailerik, Jauna. Sal 137: Hots egin nizunean, entzun ninduzun, Jauna.*]

† Jesu Kristoren Ebanjelioa San Mateoren liburutik 7,7-12.

Aldi hartan, Jesusek esan zien ikasleei: Eska ezazue, eta emango zaizue; bila ezazue, eta aurkituko duzue; jo atea, eta zabalduko zaizue. Eskatzen duenak, hartzen du; bilatzen duenak, aurkitzen; eta atea jotzen duenari, zabaltzen zaio. Zuetako norbaitek, semeak ogia eskatu eta, harria emango ote dio? Edota arraina eskatu eta, sugea emango ote dio? Beraz, zuek, gaiztoak izanik ere, zeuen seme-alabei gauza onak ematen baldin badakizue, zenbatez gehiago emango dizkie zeruko zuen Aitak gauza onak, berari eskatzen dizkiotenei! Egin besteei, haiek zuei egitea nahi zenuketen guztia; hori da Legea eta Profetak».

Ahozko otoitza, eskarizkoa, bigarren mailakoa dela iruditzen zait, espiritu-formazio txikiko jendearena. Agian, ordea, premia gorrrian gertatu ez naizelako izango da, zeren eguzkiak kiskaltzen edo ekaitza zorrozten denean, itzala edo portua eskatzen baitut garrasika. Ez du ezer txarrik eta beheratasunik ezinbesteko gauza batzuen falta duzula aitortzeak. Halakoak eskatzea ez da gure mugak eta pobretasuna aitortzea baizik, apaltasun- eta adorazio-egintza da. Eta Jainkoari konfiantza agertzea. Zeruko geure Aita onak ez digu ematen ez harririk, ez sugerik, jatekoa eskatzen diogunean; beraz, eska ezazu, bilatu eta dei egin.

Garizumako 1. astea.

Ama Doloretakoaren Gabriel Santua,
erlijioso pasiotarra.

[Ezekiel 18, 21-28: *Gaiztoaren heriotza nahi ote dut, bada, nik? Ez ote dut nahi, gaiztoa bide txarra utzi eta bizitzea? Sal 129: Gure erruak gogoan badituzu, Jauna, nor dagoke zutik, Jauna?.*]

† Jesu Kristoren Ebanjelioa San Mateoren liburutik 5,20-26.

Aldi hartan, Jesusek esan zien ikasleei: «Zuen zuzentasuna lege-maisuena eta fariseuena baino handiagoa ez bada, ez zarete sartuko zeruetako erreinuan. Entzuna duzue nola agindu zitzaizen antzinakoei: “Ez duzu inor hilko”, eta norbait hiltzen duena, errudun izango da auzitegian. Nik, ordea, hau diotsuet: senidea haserre hartzen duena, errudun izango da auzitegian. Bere senideari “zoroa” esaten diona, errudun izango da Batzarrean, eta “sinesgabea” esaten diona, su-leizerako errudun izango da. Beraz, zure eskaintza aldarera eramaterakoan, gogoratzen bazaizu zeure senideak baduela zerbait zure aurka, uztazu eskaintza-gaia han bertan aldare aurrean, eta zoaz lehenengo zeure senidearekin bakeak egitera; etorri, orduan, eta egin zeure eskaintza. Egitzazu bakeak lehenbailehen zeure etsaiarekin, bidean harekin zoazen bitartean, etsaiak epailearen esku utz ez zaitzan, eta epaileak ertzainaren esku, eta giltzapean sar ez zaitzaten. Hara nik egia esan: ez zara handik aterako, azken txanpona ordaindu arte».

Jesusek ebanjelioetan zerbait kritikatu bazuen, hipokresia erlijiosoan izan zen, erlijio hutsal eta erritualista, Legearen betebeharrak egintza huts bihurtzea. Zer zentzu du eguneroko eukaristiara joateak, zeure familiako edo lantegiko norbaitekin hitz egiten ez baduzu? Nolatan batera ditzakezu zeure jarduera erlijiosoak zeure bihotzean goxatzen duzun gorroto eta mendeku-nahiarekin? Nolatan har dezakezu Kristoren ikasle izena, zeurekin bizi direnak mintzeari eta builaka hartzeari uzten ez badiozu? Mundu guztia maiseatzen baduzu eta ez baduzu ikusten begia itsutzen dizun habea?

[Deuteronomio 26,16-19: *Zu izango zaitu Jaunak, zeure Jaungoikoak, bere herri santu. Sal 118: Dohatsu, Jaunaren legean dabiltzanak.*]

† Jesu Kristoren Ebanjelioa San Mateoren liburutik 5,43-48.

Aldi hartan, Jesusek esan zien ikasleei: «Entzuna duzue nola dagoen agindua: “Maita ezazu zeure lagun hurkoa, eta gorrota zeure etsaia”. Nik, ordea, hau diotsuet: maita itzazue zeuen etsaiak; egin on gorrotoa dizuetenei, eta egin otoitz erasotzen zaituztenentzat, zeruetan dagoen zuen Aitaren seme eta alaba izan zaitezten; hark gaiztoentzat eta zintzoentzat ateratzen baitu eguzkia, eta zuzenentzat eta okerrentzat egiten euria. Izan ere, maite zaituztenak maite izanik, zer sari zor zaizue? Zerga-biltzaileek ere ez al dute beste horrenbeste egiten? Eta zeuen senideak bakarrik agurtzen badituzue, zer egiten duzue zor ez duzuenik? Jentilek ere ez al dute beste horrenbeste egiten? Izan zaitezte, beraz, on-onak, zeruetako zuen Aita on-ona den bezala».

Jauna, neure etsaiak maite izateko esaten didazu eta errezatzeko bizitza nardatzen didatenentzat: niretzat mintzo zara, benetan inor maite ez dudan honentzat, familiarteko eta adiskideentzat ere otoitz egiten ez dudan honentzat. Zein gora ezartzen didazun helburua! Alabaina, arrazoi duzu. Gorrotoa, maitasunak garaitzen du soilik; indarkeria, berriz, odolkiak ordainetan emateari uko egiteak. Talioiaren legea kiribil bat da, parte hartzen dutenak hondatzen dituen, gero eta handiagoa joaten diren laidoen kateaz. Eskakizun latza da iraintzen, mespretxatzen edo sakon zauritzen zaituenaz otoitz egiteko eskatzea. Alabaina, maitasun-falta maitasunak garaitzen du. Zuk, bai, zuk posible duzu, Jauna: jende onaren eta gaiztoarentzat ateratzen duzu eguzkia eta egiten euria. Emadazu apur bat zeuretik.

«Nik, lurretik gora altxatuko
nautenean, neuregana bilduko
ditut guztiak»



AITA SANTUAREN ASMOAK

Orokorra: Ikerketa zientifikoari emanak direnak, gizakiaren on betearen zerbitzura jar daitezten.

Ebanjelizazioaren alde: Gero eta sakonkiago aitordin emakumearen lana Elizaren bizitzan.

MARTXOA / EPAILA

Garizumako 2. astea.San Rosendo, *gotzaina*.San Felix III.a, 48. *aita santua*.

§ Hasiera liburutik 22,1-2.9a.10-13.15-18.

Egun haietan, Jaungoikoak Abraham aztertu nahi izan zuen eta esan zion: «Abraham!». Abrahamek: «Hemen nauzu». Eta Jaungoikoak berari: «Har ezazu Isaak, hain maite duzun seme bakarra, eta zoaz Moria lurraldera eta eskainiezadazu erre-opari, nik esango dizudan mendi gainean». Iritsi ziren Jaungoikoak esandako lekura; Abrahamek eraiki zuen aldea eta pilatu egurra. Hartu zuen Abrahamek ezpata bere semea hiltzeko; baina Jaungoikoaren aingeruak hots egin zion zerutik: «Abraham, Abraham!» Eta Abrahamek erantzun: «Hemen nauzu». Eta aingeruak: «Ez luza eskua zeure semearen gainera; ez egin ezer. Ikusi dut Jaungoikoaren beldur zarela, ez baitidazu zeure seme bakarra ere ukatu». Abrahamek begiak jaso, eta ahari bat ikusi zuen han atzean, adarretatik sastraka artean lotua; joan zen, bada, Abraham, eta aharia hartu eta huraxe eskaini zuen erre-opari semearen orde. Berriz ere dei egin zion Jaunaren aingeruak zerutik Abrahami, esanez: «Hala, ni Jainkoa! –dio Jaunak–, horrela egin duzulako, zeure seme bakarra ukatu ez didazulako, bedeinkatuko zaitut, eta zure ondorengoak zeruko izarrak eta itsasbazerreko hondarra bezain ugari egingo ditut, eta zure ondorengoak beren etsaien hiri-ateen jabe egingo dira, eta lurreko herri guztiak bedeinkatuak izango dira zure ondorengoetan, nire esana egin duzulako».

[Sal 115: *Ibiliko naiz Jaunaren aurrean, biziaren lurrean.*]

§ Paulo apostoluak erromatarrei 8,31b-34.

Senideok: Jaungoikoa gure alde badugu, nor gure aurka? Bere Semeari berari barkatu ez zionak, baizik eta gu guztiontzat eman zue-nak, nola ez digu harekin batean guri dena emango?

Nork salatuko ditu Jaungoikoak aukeratutakoak? Jaungoikoa da zintzotzen duena. Nork gaiztotzat eman? Jesu Kristok? Hil zenak?

Garizumako 2. astea.

San Rosendo, *gotzaina*.San Felix III.a, 48. *aita santua*.

Oraindik gehiago, piztu ere zenak, Jaungoikoaren eskuin-aldean da-goenak eta gure alde otoiitzean ari denak?

† Jesu Kristoren Ebanjelioa San Markosen liburutik 9,1-9.

Aldi hartan, hartu zituen Jesusek berekin Pedro, Santiago eta Joan, eta mendi goi batera igo zen haiekin bakarrik, eta hiruren aurrean antzaldatu zen. Haren jantziak distiratsu, zuri-zuri bihurtu ziren, inongo zuritzailek zuritu ez ditzakeen bezala. Eta Elias eta Moises agertu zitzaizkien, Jesusekin hizketan. Pedro mintzatu zen orduan, eta esan zion Jesusi: «Maisu, bai ederki gaudela hemen! Hiru txabola egin ditzagun: bata zuretzat, bestea Moisesentzat eta bestea Eliasantzat». Ez zekien zer esaten zuen ere; zeharo beldurrak harturik baitzeuden. Orduan hodei bat sortu zen eta estali zituen, eta hodeitik ahots bat entzun zen: «Hau da nire Semea, nire Maitea. Entzuiozue». Eta halako batean, beren ingurura begiratu, eta ez zuten Jesus besterik ikusi berekin. Menditik behera jaisterakoan, ikusi zutenaren berri inori ez emateko agindu zien Jesusek, harik eta Gizonaren Semea hildakoen artetik piztu arte. Agindu hori gorde zuten, eta elkarri gal-detzen zioten, zer izan ote zitekeen «hildakoen artetik pizte» hura.

Jesus antzaldatu izanak begi-bistako esanahia du. Jesus da Le-gearen (Moises) eta Profeten (Elias) bilduma eta Jesus dute helburua. Jesus erdi-erdian dela ikusi eta hartu behar da Itun Zaharra. Aita-ren Seme maitea da Jesus, hari behar diogu entzun. Liburu Santuek zentzurik izango badute, Jesu Kristo argi dela irakurri behar dira. Jainkoak gizon-emakumei zuzendu dien behin betiko mezu bilakatu da Jesus. Ebanjelioa, Berri ona, ez datza soilik Jainkoa gure Aita dela aitortzean. Geure anaia dugu Jesus; harengan eta haren bidez hereda-tu dugu Jainkoaren betiko bizia.

Garizumako 2. astea.San Rosendo, *gotzaina.*San Felix III.a, *48. aita santua.*

Gure Garizuma onuragarri izango da, begiak Jesusengandik apartatzen ez baditugu, geure arreta hura hobeto ezagutzera zuzentzen badugu, baldin eta haren sentimenduak, jarrera eta balioak, haren jarduera eta biziera geure egiten ahalegintzen bagara.

Jauna, hitz egizu, adi duzu zeure zerbitzari hau. Lilura nazazu, zora nazazu, maitemindu nazazu. Hitz egidazu zeutaz, zeure asmoaz, Aitaren erreinuaz, mundu zuzenago, parekoago eta anai-arreba arteagoko batez. Egizu, sutu dadila nire bihotza, neuk ere beste batzuegan metxa piztu ahal dezadan.

*Hartu zituen
Jesusek berekin
Pedro, Santiago
eta Joan, eta
mendi goi batera
igo zen
haiekin bakarrik,
eta hiruren
aurrean antzaldatu zen.*



Garizumako 2. astea.

San Pedro Zuñigakoa, *gotzaina*.

Santa Atanasia, *aitorlea*.

[Daniel 9,4b-10: *Guk bekatu egin dugu, txarkeria egin dugu. Sal 78: Ez jardun garekin, Jauna, gure hobenen neurrira.*]

† Jesu Kristoren Ebanjelioa San Lukasen liburutik 6,36-38.

Aldi hartan, Jesusek esan zien ikasleei: «Izan zaitezte errukiorrak, zuen Aita errukiorra den bezala. Ez epaitu, eta ez zaituzte epaituko; ez gaitzetsi, eta ez zaituzte gaitzetsiko; barka ezazue, eta barkatuko zaizue; eman, eta emango zaizue: neurri zabala botako zaizue altzora, eta betea, eragina, gainezka egina. Zeuek erabiltzen duzuen neurriz izango zarete neurtuak».

Gizarte batean bizi gara, baina auzokoari konfiantzarik gabe eta urruneko bezala begiratzen diogu. Begiratu itxura bakarrik egiten diogu hurkoaren bizitzari, haren problemek zipriztinez beteko gaituzten beldurrez. Bihotza ixten dugu, hesitu, bigunegi omen garelako barre egin ez diezaguten... Ontasuna, errukia, lehen begiratuan jendeaz ondo pentsatzea, arinegi inor ez kritikatzeko edo juzgatzea, laster eta herrarik gabe barkatzea, partekatzea eta ez metatzea: horra Jaunak gaur guri eskatzen dizkigun jarrerak. Biziera horri atxikitzen animatzen gaitu, horrek gaituelako zorioneko egingo. Horrela jokaten duenak zoriona du gainezka eta zoriona du zabaltzen bere ingurunean.

Garizumako 2. astea.

San Emeterio eta San Zeledonio, *martiriak*.

[Isaias 1,10.16-20: *Ikas on egiten, bila ezazue zuzentasuna. Sal 49: Zuzen dabilenari diot Jainkoaren salbamena erakusten.*]

† Jesu Kristoren Ebanjelioa San Mateoren liburutik 23,1-12.

Aldi hartan, Jesus honela mintzatu zitzaizen gizataldeei eta ikasleei: «Lege-maisuak eta fariseuak Moisesen maisu-aulkian eseri dira. Egizue, beraz, eta bete, haiek esandako guztia; baina ez egin, haiek egiten dutenik; esan, esaten baitute, baina egin ez. Zama astun eta eramanezin ahalakoak egiten dituzte, eta besteren bizkarrean jarri; berek, ordea, hatz batez ere heldu ez. Egiten duten guztia jendeak ikusteagatik egiten dute; larrutxa zabalak erabiltzen dituzte bekokian, eta borlatxo luzeak soinekoetan. Afarietan lehenengo jarlekuak, eta sinagogetan aurreneko aulkiak nahi izaten dituzte, eta enparantzetan agurrak, eta jendeak “maisua” deitzea. Zuek, ordea, ez utzi inori “maisua” izena zuei ematen, bakarria baita zuen maisua, eta zuek guztiok elkarren senide zarete. Eta zuen artean ez eman inori “aita” izena lur gainean, bakarria baita zuen Aita: zerukoa. Ez eman zeuen buruari “zuzendari” izena, bakarria baita zuen zuzendaria: Kristo. Zuetan handiena, izan bedi zuen zerbitzari. Bere burua goratzen duena beheratua izango da, eta bere burua beheratzen duena goratua».

Zenbat jendeak dugun Elizan geure burua maisu egiten! Agindu eta debeku ugari diegu besteei predikatzen, baina geure bizitza geure gisara dugu eratzen, sinesten ez dutenak baino okerrago biziz. Beren burua maisu eta doktore, zintzo eta santu jotzen dutenen hipokresia hori, neurea izan ohi da askotan. Jesus zerbaitek atsekabetzen bazuen, beren burua jainkozale jotzen zutenen harrokeria horixe zen.

Hona zer proposatzen digun Jaunak horrelako handikeriaren kontrako erremediatzat: bihur zaitez gainerako zerbitzari apal eta har itzazu guztiak zu baino goragoko, fedeari eta koherentziari dagokienez. Ikas ezazu zerbitzari izaten, eta utziko diozu besteri irakasten jarduteari.

[Jeremias 18,18-20: Zatozte, zauritu egingo dugu. Sal 30: Salba nazazu, Jauna, zeure errukiaz.]

† Jesu Kristoren Ebanjelioa San Mateoren liburutik 20,17-28.

Aldi hartan, Jesusek, Jerusalemara igotzean, Hamabiak berekin hartu eta esan zien bidean: «Begira, bidean gora Jerusalemara goaz eta Gizonaren Semea apaizburuen eta lege-maisuen esku utziko dute: hauek heriotza-epaia eman eta atzerritarren esku utziko dute, iseka egin diezaioten, eta zigorkatu eta gurutziltza dezaten; baina hirugarren egunean piztuko da». Orduan zebedeotarren ama hurbildu zitzaion Jesusi bere semeekin eta aurrean ahuspeztu, eskabide bat egiteko. Jesusek galdetu zion: «Zer nahi duzu?» Eta hark: «Eseraraz ditzazula gure bi seme hauek, bata zeure eskuinean eta bestea zeure ezkerrean, zeure erreinuan». Eta Jesusek: «Ez dakizue zer eskatzen duzuen. Gauza al zarete, nik edango dudan kaliza edateko?» Haiek: «Bai, gauza gara!» Hark orduan: «Nire kaliza edan, bai, edango duzue; baina nire ezker-eskuin esertze hori, ez dago nire esku inori ematea; hori nire Aitak erabakitzen duen haientzat da». Beste hamarrak, hori entzutean, biziros haserre jarri ziren bi anaiekin. Jesusek, berriz, beregan bildurik, esan zien: «Badakizue, herrietako agintariek gogor hartzen dutela menpean herria, eta handikiek azpian hartzen dutela. Ez bedi izan horrela zuen artean; baizik eta zuen artean handi izan nahi duena, bego zuen zerbitzari; eta zuen artean lehenengo izan nahi duena, bego zuen menpeko. Gizonaren Semea ere ez baita etorri besteen zerbitzua hartzera, besteak zerbitzatzera baizik, eta bere bizia askoren erosten-sari ematera».

Unerik desagokienean, burruntzalia sartu du Santiagoren eta Joanen amak, eta bere bi semeentzat gomendio bat eskatu dio Jesusi Erreinurako. Jaunaren ezker-eskuinetan eser daitezen baino ez, alajai-

Garizumako 2. astea.

San Kasimiro, *aitorlea*.

na! Ezin asmatu zuen, gurutzean Jesus bien artean hartuko zuten bi lapurrei zegozkiela bi postu horiek. Beste ikasleak amaren grina horren kontra oilartu dira. Eta Jesusek –batzuk eta besteak– zentzarazi ditu; gogorarazi die, Elizan ezin jokatu izango dela gobernarien arteko gehienek jokatu ohi duten despotismoz eta jauntxokeriaz. Zoritxarrez, Jesusen hitz hauek haizearen jostailu gertatu izan dira sarritan.

GORDE IEZADAZU HAUR BIHOTZ BAT

(Léonce de Grandmaison, s.j.)

Andre Maria, Jainkoaren Ama,
gorde iezadazu haur-bihotz bat,
garbi eta gardena iturburu baten antzo.
Emadazu bihotz xume bat,
tristurarik gozatuko ez duena,
bihotz handia besteri eskaini ahal izateko,
samurra errukian,
bihotz leial eta zabala,
on egite bat ere ahaztuko ez duena,
kalte batengatik gorrotorik izango ez duena.
Emadazu bihotz mantso eta apal bat,
maiteko duena trukean eskatu gabe,
pozik noiz ezkutatuko den
jainkozko zure Semearen bihotzean,
bihotz handi eta heziezin bat
besteren inolako esker txarreatatik itxiko ez dena,
inolako axola ezagatik nekatuko ez dena,
bihotz beroa Jesu Kristoren aintzaz,
zauritua haren maitasunez,
soilik zeruan sendatuko den zauriaz.

Garizumako 2. astea.

Santa Oliva, *birjina eta martiria*.
San Joan Jose Gurutzekoa, *aitorlea*.

[Jeremias 17,5-10: *Madarikatua, bere itxaropen gizakia duena. Bedeinkatua, bere itxaropen Jauna duena. Sal 1: Bai dohatsua, Jau-nagan itxarobide duen gizakia.*]

† Jesu Kristoren Ebanjelioa San Lukasen liburutik 16,19-31.

Aldi hartan, Jesus honela mintzatu zitzairen fariseuei: «Bazen gizon aberats bat, purpuraz eta liho finez janzten zena, eta egunero bazkari ederrak egiten zituena. Lazaro izeneko eskale bat aberatsaren etxe-atarian etzanda egoten zen, zauriz josia; aberatsaren mahaitik isurtzen zenaz ase nahi izaten zuen, baina ez zion inork ematen; zakurrak berak etortzen zitzaizkion eta zauriak milikatzen zizkioten. Honetan, hil zen eskalea, eta aingeruek Abrahamen altzora eraman zuten. Hil zen aberatsa ere, eta ehortzi zuten. Hildakoen lekuan oinazetan zegoela, begiak jaso eta urrutian Abraham ikusi zuen, eta honen altzoan Lazaro, eta deiadarka esan zuen: “Aita Abraham, erruki zakizkit, eta agindu iezaiozu Lazarori bere hatz-muturra urean busti eta freska diezadala mihia, oinaze gorrian bainago sugar honetan”. Abrahamek esan zion: “Seme, oroit zaitez, zuk zeure bizitzan ondasunak hartu zenituela; Lazarok, berriz, zorigaitzak; horregatik, orain hau pozetan dago, eta zu oinazetan. Gainera, gure eta zuen artean leize handia dago, eta nahita ere ezin joan da inor hemendik zuengana; ezta hortik gugana ere, ezin etorri da inor”. Aberatsak orduan: “Arren, aita, bidal ezazu Lazaro nire aitaren etxera, bost anaia badituz eta, haiei hemengo berri ematera, haiek ere oinaze-leku honetara etor ez daitezten”. Eta Abrahamek: “Badituzte Moises eta Profetak; entzun diezaietela”. Baina aberatsak berriro: “Ez, aita Abraham; baizik eta hildakoren bat joango balitzaie, damutuko lirateke”. Abrahamek erantzun: “Moisesi eta Profetei entzuten ez badiete, ez dute sinetsiko hildako bat piztuta ere”».

Garizumako 2. astea.Santa Oliva, *birjina eta martiria.*San Joan Jose Gurutzekoa, *aitorlea.*

Fariseuak gezurtatzeko kontatu du Jesusek parabola hau; izan ere, judu ortodoxo guztiek bezala, uste zuten, Jainkoak ondasun materialez saritzen dituela zintzoak lur honetan eta pobretasuna Jainkoaren gaitzespenaren seinalea dela. Lazaro eskale bat da, aberats tzarrak begiratu ere ez dio begirutzen, beraren etxeko ate ondoan egoten bada ere. Erruki-falta honek sutan jartzen du Jesus. Eta ez, izan dituen aberastasunengatik, baizik bizi izan duen sentibera-tasun-faltagatik;ugar den labe batean kokatu du aberatsa Jesusek; Jainkoaren ustezko pobre madarikatua, berriz, zerura eraman du. Horra bizitzako balioak alderantziz jarriak. Jainkoak zuzenbidea egin, batez ere gainerakoekin ez dutenei egiten die.

* * *

ZER EGIN DUT KRISTOGATIK
(*Gogo Jardunak 53*)

Kristo gure Jauna
aurrean eta gurutzean josita iruditurik,
hizketatxo bat egin:
nola etorri den Egile izatetik gizon izatera,
eta betiko bizitzatik aldiko bizitzara,
eta horrela ene bekatuengatik hiltzera.
Beste horrenbeste neroni begira:
zer egin dudan Kristogatik,
zer egiten dudan Kristogatik,
zer egin behar dudan Kristogatik;
eta horrela, gurutzean esekita ikusiz,
pentsatu buruak ematen duen gutzia.

Garizumako 2. astea.

Santa Oliva, *birjina eta martiria*.
San Joan Jose Gurutzekoa, *aitorlea*.

«Aita Abraham,
erruki zakizkit, eta
agindu iezaiozu
Lazarori bere hatz-
muturra urean busti
eta freska diezadala
mihia, oinaze
gorrian bainago
sugar
honetan».



Garizumako 2. astea.Santa Rosa Viterbokoa, *birjina*.San Marziano, *gotzaina*.

[**Hasiera 37,3-4.12-13a-17b-28:** *Horra non datorren ameslaria; hil dezagun. Sal 104:* *Ekarri gogora Jaunak egin dituen mirariak.*]

† Jesu Kristoren Ebanjelioa San Mateoren liburutik **21,33-43.45-46.**

Aldi hartan, Jesusek esan zien apaizburu eta herriko zaharrei: «Entzun ezazue parabola hau: Bazen etxeko jaun bat; mahasti bat landatu zuen, hesiz inguratu, bertan dolare bat egin eta dorre bat eraiki, eta nekazari batzuei eman zien errentan eta bera urrutira joan zen. Mahats-garaia etorri zenean, bere morroiak bidali zituen nekazariengana, zegozkion hartzekoak jasotzera. Nekazariak, ordea, morroiei heldu, eta bata jo, bestea hil eta hirugarrenari harrika eman zioten. Berriro beste morroi batzuk bidali zituen, lehen baino gehiago; haiekin ere gauza bera egin zuten. Azkenean, bere semea bidali zien, bere baitarako esanez: “Izango diote begirune nire semeari”. Nekazariak, ordea, semea ikusi eta elkarri ziotosten: “Hori da oinordekoa; goazen eta hil dezagun, eta geuretzat izango dugu ondarea”. Heldu, mahastitik kanpora bota eta hil zuten. Mahasti-jabeak, datorrenean, zer egingo die nekazari horiei?» Erantzun zioten: «Gaizto horiei heriotza gaiztoa emango die, eta bere garaian ordainak emango dizkioten beste nekazari batzuei utziko die mahastia». Jesusek esan zien: «Ez al duzue Liburu Santuan behin ere irakurri: “Etxegileek baztertutako harrria / berori gertatu da giltzarria. / Jaunak egin du hori, / gure begien harrigarri?” Horregatik diotsuet nik: Jainkoaren erreinua zuei kenduko zaizue, eta uzta ekarraraziko dion beste herri bati emango». Apaizburuek eta fariseuek, parabola horiek entzutean, igarri zioten berentzat ari zela. Eta Jesus preso hartu nahian zebiltzan; baina beldur izan zioten herriari, profetatzat baitzeukaten.

Garizumako 2. astea.

Santa Rosa Viterbokoak, *birjina*.San Marziano, *gotzaina*.

Arrazoi osoz aplikatu ohi diegu Israel herriari eta bertako agintariei mahastiko langile hiltzaileen parabola hau; profetei tratu txarra eman baitzieten eta Jainkoaren Semea, mahasti-jabea, hil baitzuten. Eta zer deritzozu geure buruari aplikatzea? Ereinotzetan egotea goxotzat hartu dugu; uste dugu, kristau jaio garelako, sakramentua hartu eta igandekoa betetzen dugulako, ez garela fedegabe eta ateo... madarikatu horietakoak. Alabaina, fruiturik ematen ez badugu edota geuretzat gordetzen, etxea eraikitzeko balio ez duten harri horiek bezalakoak gara, errenta ordaindu nahi ez duten partaide horiek bezalakoak, erregalatu zaiona berea duela uste duena bezalakoak.

* * *

KRISTO GURUTZEKOARI

(anonimoa, XVI. m)

Ez dit eragiten, ene Jainko, zu maitatzera
hitzemana didazun zeruak,
ez dit eragiten zu iraintzeari uztera,
halako beldurra diogun infernuak.
Zeuk didazu eragiten, Jauna, zu ikusteak dit eragiten gurutzean
iltzatua eta isekatua;
zure gorputza hain zauritua ikusteak dit eragiten,
zure laidoez didate eragiten eta zure heriotzak.
Azkenik, zure maitasunak dit eragiten; halako moduan,
non zerurik ez balitz ere maiteko baitzintzuket
eta infernurik ez balitz ere zure beldur bainintzateke.
Ez duzu niri ezer zertan eman, maite zaitudalako,
zeren espero dudana espero ez banu ere,
maite zaitudan bezala maiteko baitzintzuket.

Garizumako 2. astea.

Perpetua eta Felizitas santuak, *martiriak*.

[Mikeas 7,14-15.18-20: *Itsaso azpiraino botako ditu gure bekatu guztiak. Sal 102: Errukior da Jauna eta gupidatsua.*]

† Jesu Kristoren Ebanjelioa San Lukasen liburutik 15,1-3.11-32.

Aldi hartan, zerga-biltzaileak eta bekatariak pilaka hurbildu ohi zitzaizkion Jesusi, entzutera. Eta fariseuak eta lege-maisuak marmarrean hasi ziren elkarrekin esanez: «Honek ongi hartzen ditu bekatariak, eta jan ere egiten du haiekin». Orduan Jesusek parabola hau esan zien: «Gizon batek bi seme zituen; gazteenak esan zion Aitari: “Aita, emadazu dagokidan senipartea ondasunetatik”. Eta aitak banatu zien ondarea. Handik egun batzuetara, seme gazteena, bere gauza guztiak bildurik, urrutira joan zen, eta, lasaikerian biziz, ondasun guztiak jan zituen. Zituen guztiak jan ondoren, gosete handia sortu zen lurralde hartan, eta beharra sentitzen hasi zen mutila. Orduan, herri hartako batengana joan eta haren morroi jarri zen, eta hark bere larreetara txerrizain bidali zuen. Txerriek jaten zuten ezkurrez sabelabete nahi izaten zuen, baina inork ez zion ematen. Orduan, bere baitara itzuli, eta esan zuen: “Hamaika morroi bada nire aitarenean, nahiko ogi duela, eta ni hemen goseak hiltzen. Altxatu eta banoa neure aitarengana, eta esango diot: Aita, bekatu egin dut zeruaren aurka eta zure aurka; ez dut gehiago zure seme izenik merezi; har nazazu zeure morroietako bat bezala”. Eta altxatu eta bere aitarengana abiatu zen. Oraindik urruti zegoela, ikusi zuen aitak, eta erruki izan zuen; harengana lasterka joan, besarkatu eta musuka hasi zitzaion. Semeak esan zion: “Aita, bekatu egin dut zeruaren aurka eta zure aurka; ez dut gehiago zure seme izenik merezi”. Aitak, ordea, esan zien bere morroiei: “Ekarri berehala soinekorik ederrena, eta jantz iezaiozue; ipin eraztuna eskuan, jantzi oinetakoak; ekarri zekor gizena, eta hil; jan dezagun eta jai egin: nire seme hau hila baitzegoen, eta piztu da; galdua zegoen, eta aurkitu dugu”. Eta hasi ziren jai egiten. Seme za-

harrena soroan zen eta handik etxera hurbiltzean, soinua eta dantzak entzun zituen; eta, morroi bati deiturik, zer zen hura galdetu zion. Morroiak erantzun: “Zure anaia etorri da, eta aitak zekor gizona hil du, semea onik aurkitu duelako”. Hura haserretu zen, eta ez zuen sartu nahi, eta aita atera eta sartzeko otoika hasi zitzaion. Baina semeak erantzun zion aitari: “Horrenbeste urtez zure zerbitzuan egon, zure esanik behin ere egin gabe utzi ez, eta antxume bat bakarrik ere ez didazu sekula eman lagun artean jateko, eta emagalduekin bere ondasunak janik, zure seme hori etorri denean, zekor gizona hil diozu”. Aitak orduan: “Seme, zu beti nirekin zaude, eta nirea den guztia, zeurea duzu; jai egin behar genuen eta poztu; zure anaia hau hila baitzegoen, eta piztu da; galdua zegoen, eta aurkitu dugu”».

Zein ondo errespetatzen duzun zeure seme-alaben askatasuna! Ondasunez hornitzen gaituzu eta geuk nahi bezala kudeatzen uzten diguzu. Gehienetan alferrik galtzen ditugu eta fruiturik aterarazi gabe uzten. Eta, hondamendia iritsi eta beherago joan ezin denean, atea itxi ordez, zabal-zabal diguzu irekitzen, prestatua diguzun otordura sartzeko.

Jauna, ez naiz harritzen anaia nagusiak protestatu izanaz. Seme hondatzaileak berak ez baitu beste ilusiorik, zerbitzarien azkeneko-tzat har dezazun baizik! Ez batak ez besteak ulertu dute zer aita duten, nola maite eta estimatzen dituen.

§ Irteera liburutik 20,1-17.

Egun haietan, Jaunak hitz hauek esan zituen: «Ni naiz Jauna, Egiptoko lurretik, morroi-etxetik, atera zaitudan zure Jaungoikoa. Ez duzu izango ni beste jaungoikorik. Ez hartu gezurrez ahotan Jaunaren, zeure Jaungoikoaren, izena; Jaunak ez baitu zigortu gabe utziko, haren izena gezurretan darabilkienik. Izan ezazu gogoan larunbat eguna, santutzeko. Aintzat izan aita eta ama, luzaroan bizi zaitezten, Jaunak, zeure Jaungoikoak, emango dizun lurrean. Ez duzu inor hilko. Ez duzu ezkontza-nahasterik egingo. Ez duzu lapurtuko. Ez duzu inoren aurka gezurrezko testigutzarik egingo. Ez duzu inoren etxerik, ez inoren emazterik, irrikatuko: ez morroirik, ez neskamerik, ez idirik, ez astorik, ez besterena denik ezer».

[**Sal 18:** *Zuk dauzkazu, Jauna, betiko biziaren hitzak.*]

§ Paulo apostoluak 1. korintoarrei 1,22-25.

Senideok: Juduak ezaugarri eske dabilta; greziarrak, jakinduria bila; guk, berriz, Jesu Kristo gurutziltzatua erakusten dugu, juduentzat behaztopa dena eta greziarrentzat zorakeria; baina deituentzat – judu nahiz greziar– Jaungoikoaren indar eta Jaungoikoaren jakinduria den Kristo. Jaungoikoaren zorakeria, gizakiak baino jakintsuago baita, eta Jaungoikoaren ahuleria, gizakiak baino indartsuago.

† Jesu Kristoren Ebanjelioa San Joanen liburutik 2,13-25.

Aldi hartan, juduen Pazkoa hurbil zen, eta Jesus Jerusalemera igo zen. Jauretxean idi, ardi eta uso-saltzaileak aurkitu zituen, eta diruzainak eserita. Zigor bat lokarriz egin eta jauretшетик bota zituen denak, ardi eta idiekin, diruak sakabanatuz eta mahaiak irauliz. Eta uso-saltzaileei esan zien: «Kendu horiek hortik! Ez bihurtu azoka-etxe nire Aitaren etxea». Eta idatzirik dagoenaz gogoratu ziren ikasleak: «Zure etxearekiko maiteminak erreko nau». Orduan juduek, tartetik

San Joan Jainkoarena, *fundatzailea*
(*San Joan Jainkoaren Anaiak*).
San Beremundo Iratxekoa, *abadea*.

sarturik, esan zioten: «Zer ezaugarri ematen diguzu, hori egiteko?» Eta Jesusek: «Xeha ezazue jauretze hau, eta hiru egun barru jasoko dut». Juduek erantzun zioten: «Berrogeita sei urte behar izan ziren jauretze hau egiteko, eta zuk hiru egunean jaso?» Baina Jesus bere gorputzaren jauretzeaz ari zitzaien. Hildakoen artetik berpiztu zenean, gogoratu ziren ikasleak honetaz, eta sinetsi zuten Liburu Santuak eta Jesusek esandako hitza. Pazko-jaietan Jerusalemen zegoen bitartean, askok sinetsi zuen harengan, egiten zituen ezaugarriak ikusirik. Baina Jesus ez zitzaien guztiz irekitzen, ezagutzen baitzitu denak; ez zeukan hark gizakiaren berri inork eman beharrik, bai baitzekien zer dagoen gizaki bakoitzaren barruan.

Ondotxo dakizu zuk, Jauna, zer dagoen ene bihotzean: bekaizkeria, gorrotoa, handikeria, zuzengabekeria, segurtasunik eza, ikarra, larria, goranahia edo ondo ikusia izatea... Norberak daki zein hanka duen herren! Jesusen bihotzak maitasuna du soilik eta gogoa Jainkoaren erreinuak ahalik jenderik gehiena harrapa dezan. Ezin jasan du Tenplua azoka bihurtu izana, apaizen eta lebitarren probetxurako; ezin jasan du erlijioa mamiz hustu izana, soilik herriaren nortasun-agiri bihurtzeko, soilik paganoengandik zaindu beharreko «kultura» bihurtzeko. Eztanda egin du Jesusek eta ezin jasan du sakrilegioa, erlijioaren desitxuratzea, jainkozko gauzak merkatu-gai bihurtzea.

Nire bihotzak, Jauna, jabe asko ditu eta, gehienera ere, askoren arteko bat zara zu. Neu salerosketari emana bizi naiz, beste edozein merkatari maltzur bezala. Domina nazaten utzi diet joerarik eta senik baxuenei eta lurtar egoistenei, eta hemen nauzu, batzuei eta besteei atsegin eman nahiz eta inor ase ezinik. Zuk lehenengoa eta bakarra izan beharko zenuke, baina maila askoz beheratu zaitut zerrendan, postu gehiegi kendu dizkizut. Jauna, barka iezadazu, eta lagundu nazazu estutzen eta itotzen nauten zure aurkariengandik libratzen.

Garizumako 3. astea.Santa Frantziska Erromatarra, *erlijiosa*.San Pazioano, *gotzaina*.

[2 Erregeak 5,1-15a: *Bazen legenardunik asko Israelen, baina ez zen haietako inor sendatu, Siriako Naaman besterik. Sal 41: Nire gogoa Jainko biziak egarri da, noiz noake Jainkoaren aurpegia ikustera?*]

† Jesu Kristoren Ebanjelioa San Lukasen liburutik 4,24-30.

Aldi hartan, Jesusek, Nazaretera etorri zenean, esan zion jendeari sinagogan: «Hara nik egia esan: ez da profetarik, bere herrian ondo ikusia denik. Egiaz esaten dizuet: Bazen emakume alargunik asko Eliasen egunetan, hiru urte eta sei hilabete zerua itxita egonik, lurralde guztian gosete gorria izan zenean; baina ez zitzaion haietako inori bidali Elias, Sidonen dagoen Sareptako emakume alargunari besterik. Eta bazen legenardunik asko Israelen Eliseo profetaren egunetan; baina ez zen haietako inor sendatu, Siriako Naaman besterik». Hauek entzutean, haserre biziak hartu zituen sinagogan zeuden guztiak. Eta, jaikirik, herritik kanpora atera zuten Jesus eta herria eraikita zegoen mendiko amildegira eraman, handik behera botatzeko asmotan. Hura, ordea, haien erditik igaro eta bere bidetik joan zen.

Nazareteko jendeak probetxua ateratzea espero zuen, herriko bat ospe handiko gizona zutelako. Baina Jesusek esan die, bera ez dato- rrela mirariak egitera, kutunkeriaz, adiskidetasunez edo kidetasunez. Esan die, Jainkoaren erreinuan lehentasuna duenik bada, jende pobrea dela, gaixo dagoena, atsekabetua, baztertua... eta ez ahaideak, ez fami- liarteak. Jesusek askotan errepikatu du hori. Gauza guztien gainetik Jainkoa jartzen dutenek osatzen dute Jesusen familia. Hargatik, ez du ezer harritzekorik Nazareteko jendea Jesusen kontra, baita indarkeriaz ere, jarri izanak. Baina Jesus ez da aztoratu, ez ditu madarikatu; soil- soilik, haien artetik igaro eta urrundu egin da. Ba ote hori baino zigor okerragorik? Jesus beraien bizitzatik urruntzea baino?

[Daniel 3,25.34-43: *Har gaitzazu onez, bihotz-damuz baikaude eta gogo apalez. Sal 24: Oroit zaitez zeure errukiaz, Jauna.*]

† Jesu Kristoren Ebanjelioa San Mateoren liburutik 18,21-35.

Aldi hartan, Pedrok Jesusengana hurbildu eta esan zion: «Jauna, nire senideak huts egiten badit, zenbat aldiz barkatu behar diot? Zazpi aldiz?» Jesusek erantzun zion: «Zazpi aldiz ez, baizik eta zazpitan zazpi hamar aldiz. Horregatik, zeruetako erreinua, morroiekin bere harremanak garbitu nahi izan zituen erregearen antzekoa da. Hasteko, hamar mila talentu zor zizkion bat ekarri zioten. Eta, nondik ordaindurik ez baitzuen, nagusiak agindu zuen haren emazte, seme-alaba eta zituen guztiak saltzeko, eta horrela zorrak ordaintzeko. Morroiak, nagusiaren oinetan ahuspezturik, arren eta arren esaten zion: “Emadazu epea, eta dena ordainduko dizut”. Erruki izan zuen nagusiak morroia, askatu eta barkatu zion zorra. Morroi hark, atera zenean, han topatu zuen ehun denario zor zizkion bere morroi-lagun bat; lepotik heldu eta, ito beharrez, eraso zion: “Ordainiezadazu zor didazuna”. Eta lagunak, haren oinetan ahuspezturik, arren eta arren esaten zion: “Emadazu epea eta dena ordainduko dizut”. Baina beste ezetxean zegoen; joan eta giltzapean sartu zuen, zorra ordaindu arte. Haren morroi-lagunak, gertatu zena ikusirik, biziro atsekabetu ziren, eta nagusiagana joan eta salatu egin zioten dena. Orduan, nagusiak deitu eta esan zion: “Morroi gaiztoa, zor guztia barkatu dizut, eskatu didazulako; ez al zen bidezkoa, zu ere zeure morroi-lagunaz errukitzea, ni zutaz errukitu nintzen bezala?” Eta nagusiak, haserreturik, zigortzaileen esku utzi zuen, zor guztia ordaindu arte. Zuei ere gauza bera egingo dizue zeruetako nire Aitak, elkarri bihotzez barkatzen ez badiozue».

Barkatu, barka diezazuten. Hori da bi zordunen parabolaren mezua. Pedroren galderari emandako erantzuna da. Eta Gure Aita formula da: barkatu, Aita, gure zorrak guk ere geure zordunei barkatzen diegun bezala. Barkatzea eta barkatua izatea: kristauaren bizitzako gauza da. Nekez izan gaitzke benetan kristau, proposamen hau egunero bete gabe. Eguneroko gure biziera beterik dago samurtasun-falta txikiz edo handiz, esapide zaurigarritz, deskalifikazioz, tratu lotsagarritz, mespretxuz, ahanzmenduz, gaiztakeriaz... Halako gauzez egunero barkazioa eskatu beharrean bazara, nolatan ez zara prest egongo iraintzen edo atsekabetzen zaituenari barkatzeko?

* * *

KRISTOGANAKO MAITASUNEZ

(Didier Rimaud, s.j.)

Jesus izeneko gizon honekiko maitasunez,
 Jainkoarentzat gizona, gainerakoentzat gizona:
 hemen gaituzu, geure Aita!
 Mundu honekiko maitasunez bidali duzu
 –bildotsa otso artera– zuzentasuna eraikitzera:
 hemen gaituzu, geure Aita, zure izenean elkarturik!
 Elizarekiko maitasunez, haren haragiaren haragi,
 haren herri santutua, Itunaren herria:
 hemen gaituzu, geure Aita, zure izenean elkarturik,
 zure aintzaren zerbitzari!
 Pobreenak direneko maitasunez,
 hark zorioneko deituak,
 haren gorputz mindua munduaren azkena arte:
 hemen gaituzu, geure Aita, zure izenean elkarturik,
 zure aintzaren zerbitzari, zerbitzari, alde guztietan,
 zure aintza handienerako!

Garizumako 3. astea.
Santa Aurea, *abadesa*.
San Eutimio, *gotzaina*.

[Deuteronomio 4,1.5-9: *Gorde eta bete itzazue nire aginduak. Sal 147: Jerusalem, ospa ezazu Jauna.*]

† Jesu Kristoren Ebanjelioa San Mateoren liburutik 5,17-19.

Aldi hartan, Jesusek esan zien ikasleei: «Ez uste izan, Legea edota Profetak baztertzer a etorria naizela; baztertzer a ez, baino betetzer a etorria naiz. Hara nik egia esan: Zeru-lurrek iraungo duten bitartean, ez “i” bat, ez izpi bat, ez da Legetik galduko, guztia bete arte. Beraz, agindurik txikiena baztertzen duena eta baztertzen irakasten, txikiena izango da zeruetako erreinuan; betetzen duena, berriz, eta hala irakasten, handia izango da zeruetako erreinuan».

Oso oker handia da garrantzi bera ematea agindu eta arau guztiei. Fundamentalisten jokabidea izan ohi da gauzak atzekoz aurrera hartzea, gehigarria den gauza funtsezkotzat hartzea. Jesusek argi asko utzi du bere pentsaera puntu honetaz, larunbatekoa betetzeaz eta legearen lehen aginduaz mintzatu denean. Lehena da beti lehena: Jainkoa eta lagun hurkoa maitatzea. Gainerakoa bigarren mailakoa da; ez da esan nahi bete behar ez denik.

Libra nazazu, Jauna, fariseukeria guztitik, kristau-morala itsu-itsu betetzetik, alderik txikienaz buru-belarri arduratu eta nagusienari bost axola izatetik.

Garizumako 3. astea.San Nikodemo, *aitorlea*.San Maximiliano, *martiria*.

[**Jeremias 7,23-28:** *Hona, Jaunaren, bere Jaungoikoaren, mintzoa entzun ez duen herria. Sal 94: Entzungo ahal duzue gaur Jaunaren mintzoa: «Ez gogortu zeuen bihotza».*]

† Jesu Kristoren Ebanjelioa San Lukasen liburutik **11,14-23**.

Aldi hartan, Jesus deabru bat botatzen ari zen, deabru mutua. Eta deabrua atera bezain laster, hizketan hasi zen mutua. Gizataldeak harriturik gelditu ziren; baina batzuek zioten: «Deabruen buruzagi den Beelzebulen indarrez botatzen ditu honek deabruak». Beste batzuek, azpikeriaz, zerutik datorren mirari bat eskatzen zioten. Jesusek, gogoan zer zuten ikusirik, esan zien: «Herri batean herritarrak elkarrekin borrokan badabiltza, herri hura hondatuko da, eta etxea etxearen gainera eroriko. Satanas ere bereen aurka ari bada, nola iraun dezake zutik haren erreinuak? Zuek diozuenek, Beelzebulen indarrez botatzen ditut nik deabruak. Nik Beelzebulen indarrez botatzen baditut, zuen semeek zeinen indarrez botatzen dituzte? Horrela, bada, haiek izango dituzue zeuen epaile. Baina nik deabruak Jainkoaren eskuz botatzen baditut, garbi dago iritsi dela Jainkoaren erreinua zuen artera. Gizon indartsu eta armadun batek ere bere jauregia zaintzen duenean, haren ondasunak esku onetan daude. Baina beste indartsuago batek etorri eta menperatzen badu, kenduko dizkio indar ematen zioten armak, eta haren ondasunak banatuko ditu. Nirekin ez dagoena, nire aurka dago; nirekin biltzen ez duenak, sakabanatu egiten du».

Norbaitek gauza bat ondo egiten duenean, izango da haren asmo zuzenaz duda egingo duen jenderik. Joera dugu jokabide oro interesatua dela pentsatzeko, inork ez duela onik egiten «gratis et amore», doan, sariren baten bila ibili gabe. Jesusek jendea sendatzean ordainik eskatzen ez zuelako, kilima egin behar izaten zioten eta haren mirariak sorginkeriatzat jo. Trukean ezer espero gabe on egitea, ezinezkotzat jotzen du jende egoistak. Soilik, Jainkoak bezala, egiaz maite duena, hau da, bere burua erabat eta onginahi hutsez, zinezko maitasunez, besteei eskaintzen dakiena izan daiteke kristau.

[Oseas 14,2-10: *Geure eskuz egindakoei ez diegu gehiago geure jainko esango.* Sal 80: *Ni nauzu Jauna, zeure Jainkoa: entzun nire mintzoa.*]

† Jesu Kristoren Ebanjelioa San Markosen liburutik 12,28b-34.

Aldi hartan, hurbildu zen Jesusengana lege-maisu bat, eta galdetu zion: «Zein da agindu guztietan lehenengoa?» Eta Jesusek erantzun: «Hau da lehenengoa: “Entzun, Israel: Jauna, gure Jainkoa, bakarra da. Maita ezazu Jauna, zeure Jainkoa, bihotz-bihotzez, gogo-gogoz, zeure adimen osoz eta zeure indar guztiz”. Bigarrena, berriz, hau da: “Maita ezazu zeure lagun-hurkoa, zeure burua bezala”. Ez da hauek baino agindu handiagorik». Lege-maisuak erantzun zion: «Ederki, Maisu; egia diozu, bakarra dela Jauna, eta ez dela besterik, eta hura bihotz-bihotzez, adimen osoz eta indar guztiz maitatzea, eta lagun-hurkoa nork bere burua bezala maitatzea, erre-opari eta eskaintza guztiak baino hobea dela». Zuzen erantzun zuela ikustean, esan zion Jesusek: «Ez zaude urruti Jainkoaren erreinutik». Eta handik aurrera ez zen ausartzen inor hari ezer galdetzen.

Judu-herriaren ezaugarrietako bat da pentsatzea, Jainkoari zor zaiona ez dela gorespena, begirunea eta kultua bakarrik, baizik, lehenik eta behin, maitasuna. Ez zen hain ohiturazkoa, garai hartako erlijioetan, kideei jainkoarekiko halako maitasuna eskatzea, hain erabatekoa eta hain betea. Eskuarki, beldurra eskatu ohi zen, begirunea, opariak eta eskaintzak, jainkoa norberaren aldeko izan zedin. Yahvek, aldiz, maitasuna eskatzen du, erabateko maitasuna. Jesu Kristo gure Jaunaren Aitak hartaraino maite gaitu, non guk geure iza-tearen maitasun osoaz erantzutea nahi baitu. Horixe egin zuen San Ignaziok, «Hartu, Jauna, eta onartu...» delako otoitza eratu zuenean.

Garizumako 3. astea.

Santa Matilde, *erregina*.San Inozentzio, *gotzaina*.

[Oseas 6,1-6: *Opariak ez, baino leialtasuna nahi dut nik. Sal 50: Erruki zakizkit, Jainko, zeure maitasun handiaz.*]

† Jesu Kristoren Ebanjelioa San Lukasen liburutik 18,9-14.

Aldi hartan, parabola hau esan zuen Jesusek, beren burua zintzotzat eta, besteak ezerez bezala hartuz, harroturik zebiltzan zenbaitentzat: «Bi gizon igo ziren jauretxera otoitz egitera: bata fariseua eta bestea zerga-biltzailea. Fariseuak, zutik, honela egiten zuen otoitz bere barruan: “Eskerrak ematen dizkizut, ene Jainko, besteak bezalakoa ez naizelako: lapur, oker, ezkontza-nahasle; ezta honako zerga-biltzaile hau bezalakoa ere. Astean bitan egiten dut barau, eta ditudan guztien hamarrenak ematen ditut”. Zerga-biltzailea, berriz, urruti gelditu zen, eta ez zuen begirik jaso ere nahi zerura, eta, bular joka, zioen: “Ene Jainko, erruki zakizkio bekatari honi!” Hara nik esan: Hau zintzoturik jaitsi zen bere etxera; bestea, berriz, ez. Izan ere, bere burua goratzen duena beheratua izango da, eta bere burua beheratzen duena goratua».

Parabola hau entzutean, bat-batean bekatariarekin egiten dugu bat, eta ez fariseuarekin. Baina ez diot uzten neuk ere... fariseu izateari. Izan ere, izatez, oso atsegin dut neure kristau-bizitza. Zenbat garen hurbiltzen aitorlekura eta esaten: Ez dut bekaturik, hutsegite batzuk soilik! Neure errezo egiten ari naiz fariseuaren errezoa: ez naiz lapurra, ez zuzengabea, egunero entzuten dut meza... Oso on sentitzen naiz beste horien aldean: bekatu larriak egin dituzten, ustelkeriari emanak eta gaizkile diren horien aldean. Oso harro sentitzen naiz... apala izateaz. Ez da izkirimiri bat. Agerikoa izan ohi da nire harrokeria. Barkatu, Jauna, neure burua gainerakoak baino hobetzat hartzeagatik.

Raimundo santua, Fiterokoa, *abadea (Iruñe eta Tuterako elizbarrutietan)*. Santa Luisa Marilac-ekoa, *fundatzailea Pauleko San Bizenterekin (Karitateko Ahizpak)*.

§ 2 Kronikak liburutik 36,14-16.19-23.

Egun haietan, apaiz nagusi guztiek eta herriak gaiztakeria asko egin zuten, atzerrietako zantarkeria guztien antzera, eta zikindu egin zuten Jaunak Jerusalem beretzat sagaratutako etxea. Jaunak, haien gurasoen Jaungoikoak, albisteak bidali zizkien behin eta berriz bere mezulariekin, bere herriaz eta bere bizilekuaz errukiturik. Baina haiek, Jaungoikoaren mezulariak isekatu, haren hitza gutxietsi eta haren profetak irriz hartu zituzten, eta salbabiderik ez izateraino piztu zen Jaungoikoaren haserrea bere herriaren aurka. Orduan, kaldearrek su eman zioten Jaungoikoaren etxeari, bota zituzten Jerusalemgo harresiak eta su eman jauregiei, eta haien gauza eder guztiak erabat hondatu zituzten. Ezpatari ihes egin zioten guztiak Babiloniar eraman zituzten katigu, eta han egon ziren erregearen eta haren semeen morroi, persiarrak agintzen jarri arte; horrela bete zen Jeremias profetaren ahoz esandakoa: Lurraldeak, bere larunbatlegea ordaindu arte, atsedean hartuko du hondamen-aldiko egun guztietan, hirurogeita hamar urte bete arte». Persiako errege Ziroren lehen urtean, Jeremiasen ahoz Jaunak esana bete zedin, Jaunak Persiako errege Ziroren espiritua piztu zuen eta agindu hau zabalarazi zuen Zirok, hitzez eta idatziz, bere erreinu osoan: «Hau dio Persiako errege Zirok: “Lurreko erreinu guztiak eman dizkit Jaunak, zeruetako Jaungoikoak, eta berari etxe bat eraikitzeko agindu dit Judako Jerusalem. Zuen artean haren herriko direnek izan bezate beren Jaungoikoa berekin, eta igo bitez».

[Sal 136: *Nire mingaina aho-sabaian itsatsi bedi, zutaz oroit ez banendi.*]

§ Paulo apostoluak efesoarrei 2,4-10.

Senideok: Errukian aberatsa den Jainkoak maitasun handiz maita izan gaituelako, geure hutsegiteetan hilda geundenok Kristorekin batean biziarazi gintuen –originahi hutsez salbatuak zaudete–; Kris-

MARTXOA / EPAILA**Garizumako 4.****Igandea****Domeka**

Raimundo santua, Fiterokoa, *abadea (Iruñe eta Tuterako elizbarrutietan)*. Santa Luisa Marilac-ekoa, *fundatzailea Pauleko San Bizenterekin (Karitateko Ahizpak)*.

torekin batean berpiztu gaitu, eta harekin batean zeruetan eserarazi; honela, Jesu Kristogan guretzat duen maitasunaren bidez, bere grazia-
ren aberastasun harrigarria agertu nahi izan die geroko gizaldiei. Izan ere, ongina hutsez salbatuak zaudete fedearen bidez; eta hori ez dator zuengandik; Jaungoikoaren dohaina da; ez dator egiteetatik, inor harro ez dadin. Jainkoak eginak gara, berak sortu gaitu Kristo Jesusengan, Jainkoak alde zurretik nahi izan zituen egintza honetan ibil gaitezen.

† Jesu Kristoren Ebanjelioa San Joanen liburutik 3,14-21.

Aldi hartan, Jesusek esan zion Nikodemori: «Moisesek basamortuan sugea altxatu zuen bezala, hala altxatu beharra da Gizonaren Semea; sinesten dion guztiak betiko bizia izan dezan. Hain maite izan baitu Jainkoak mundua, bere Seme bakarria eman baitio; hari sinesten dionik inor gal ez dadin, baizik eta betiko bizia izan dezan. Jainkoak ez baitu bere Semea mundua galtzera bidali; baizik eta haren bitartez mundua salba dadin. Hari sinesten dionak, ez du auzirik izango; sinesten ez dionarentzat, berriz, erabakia dago auzia, Jainkoaren Seme bakarraren izenean sinetsi ez duelako. Honetan dago auzia: etorri da argia lurrera, eta gizakiek maiteago izan dute iluna argia baino; okerrak baitziren haien egiteak. Izan ere, gaizki egiten duenak, gorroto du argia, eta ez dator argira, bere egiteek salatuko duten beldurrez. Egia betetzen duena, berriz, argira dator, haren egiteak ager daitezen, Jainkoak nahi bezala eginak baitira».

Heriotza anker eta lotsagarri baten seinalea, gurutzeta alegia, salbazio bilakatu da guretzat, betiko bizi. Jainkoaren Semea ez da etorri mundu honetara gizon-emakumeak desegitera, baizik beraien bizitzaren azkena izango litzatekeen heriotzatik guztiak libratzera. Bada bizirik heriotzaren ondoren. Orain gozaten duguna baino askoz bikainagoa. Bizia betea da hura, berekin du Jainkoaren zorion bete eta amairik gabea.

Raimundo santua, Fiterokoa, *abadea (Iruñe eta Tuterako elizbarrutietan)*. Santa Luisa Marilac-ekoa, *fundatzailea Pauleko San Bizenterekin (Karitateko Ahizpak)*.

Zure gurutzea, Jauna, tronu bat da, jaun bihurtu dituzu han heriotza eta bizitza. Ez da goi-goiko aulki bat, aingeru musikariz inguratua, bai-zik urkamendi baten egur gogorra. Baina zuk ikurrin bihurtu duzu, behin betiko askapenaren ikur. Egizu, Jauna, zu horrela ikusiz, egur horretatik zintzilik, senti dezadala neure kateak lasaitu eta hautsi egiten direla, behin betiko eten egiten direla gaitzaren eta heriotzaren boteari kateatzen nauten loturak. Zure argiak ni blai egitea nahi dut, zure maitasunaren sugarrak niri argi egitea, distira egin dezadala berpiztu batek bezala. Nire egintza onek balio izan dezatela zure izena gorestekoa eta aintzatzeko.

* * *

APARTA EZAZU NIGANDIK
(*Pedro Fabro, s.j.*)

Jauna, arren eskatzen dizut, aparta dezazula nigandik
zugandik ni eta nigandik zu
erauzten, bereizten eta urruntzen nauen oro.
Aparta ezazu nigandik zikoitz egiten nauena,
lehor egiten nauena,
zurrun, nahasi, adoregabe
egiten nauen oro,
duingabe egiten nauena
zu bisitan etortzeko,
zuk ni zentzarazteko, zuk ni maitatzeko
eta zuk ni ongi maitatzeko.
Erruki zaitetz nitaz, Jauna,
erruki zaitetz nitaz beti
eta aparta ezazu nigandik
zu ikustea, zuri entzutea,
zutaz gozatzea, zu sentitzea, zu ukitzea,
zu neurekin izatea eta zurekin gozatzea
eragozten didan guztia.

Garizumako 4. astea.

San Hilario, *gotzaina*,
Santa Kolunba, *martiria*.

[Isaias 65,17-21: *Ez da han gehiago entzungo, ez negarrik, ez garrasirik. Sal 29: Goretsiko zaitut, Jauna, onik atera nauzulako.*]

† Jesu Kristoren Ebanjelioa San Joanen liburutik 4,43-54.

Aldi hartan, Jesus Samariatik atera eta Galileara joan zen. Jesusek berak esana zen, profeta ez dela aintzat hartua izaten bere herrian. Galileara iritsi zenean, galilearrek harrera ona egin zioten, ikusiak zituztelako hark Jerusalemen jaiegunean egin zituen guztiak, berak ere jaietan izanak baitziren.

Horrela, beraz, Galileako Kanara joan zen berriro Jesus, ura ardo bihurtu zuen herrira. Bazen Kafarnaumen errege-zerbitzari bat, semea gaixorik zuena. Eta Jesus Judeatik Galileara etorri zela entzunik, harengana joan eta jaisteko eskatu zion, eta senda zie-zaiola semea, hiltzorian zegoela eta. Jesusek erantzun zion: «Mirari eta harrigarrik ikusten ez baduzue, ez duzue sinesten». Eta errege-zerbitzariak: «Zatoz, Jauna, nire haurra hil baino lehen». Jesusek orduan: «Zoaz, sendatu zaizu semea!» Sinetsi zuen gizonak Jesusek esana, eta joan zen. Eta bidean zihoala, morroiak bidera atera zitzaizkion, semea sendatu zela esanez. Eta galdetu zien, zer ordutan hasi zen hobetzen. Eta haiek erantzun: «Gaur ordu batean utzi dio sukarrak». Konturatu zen aita, ordu hartan esan ziola Jesusek «sendatu zaizu semea». Eta sinetsi zuten berak eta etxeko guztiak. Judeatik Galileara itzuli zenean egin zuen Jesusek bigarren ezaugarri hau.

Joanek, bere ebanjelioa idaztean, beraren hitzen entzule eta irakurleek Jesusengan sinesteko bultzada senti dezaten nahi du. Horregatik kontatzen ditu seinaleak, Kristogan sinestera eragiten dutenak dira. Seinale hauetako lehen biak, ardo bihurtutako ura

Garizumako 4. astea.San Hilario, *gotzaina*,
Santa Kolunba, *martiria*.

eta errege-funtzionarioaren semea sendatzea izan dira. Jesusengan sinesteak mirariak egiten ditu. Mariak ez du dudarik, beraren semeak, hasieran agertu duen gogortasuna eta guzti, ez dituela utziko ezkongaiak lotsagarri. Funtzionarioak ere sinetsi dio Jesusi; semea sendatu bada, aitak sinetsi duelako izan da. Zertan naiz ni Jesusetikiko fedean? Maria eta erregearen ofizial hau bezain sendo eta itsu?

Garizumako 4. astea.
San Patrizio, *gotzaina*.

[Ezekiel 47,1-9.12: *Ura ikusi nuen jauretxetik ateratzen, eta ur hori iritsi zitzaien guztiak salbatu egin ziren. Sal 45: Gudari-taldeen Jauna gurekin, Jakoben Jainkoa gaztelu sendo gurekin.]*

† Jesu Kristoren Ebanjelioa San Joanen liburutik 5,1-3.5-16.

Aldi hartan, juduen jaia zela-eta Jesus Jerusalemera igo zen. Bazen Jerusalemen, Ardien ate ondoan, hebreeraz Betzata zeritzan bost aterpeko uraska handi bat. Aterpe hauetan etzanik zeuden eri asko: itsu, herren eta elbarri. Bazen han hogeita hemezortzi urtez gaixorik zegoen gizon bat. Jesusek, han etzanda ikusi eta aspalditik egoera hartan zegoela jakinik, esan zion: «Nahi al duzu sendatu?» Gaixoak erantzun zion: «Jauna, ez dut inor, ura mugitzen hasten denean, uraskara sar nazakeenik; ni hara orduko, beste bat jaisten da nire aurretik». Eta Jesusek: «Jaiki zaitetz, hartu zeure esku-ohea eta zoaz oinez». Bat-batean sendaturik gelditu zen gizona, eta esku-ohea hartu eta oinez abiatu zen. Larunbata zen egun hura, eta esan zioten juduek sendatuari: «Larunbata da; ez da zilegi esku-ohea eramatea». Hark erantzun: «Sendatu nauenak esan dit: “Hartu zeure esku-ohea eta zoaz oinez”». Orduan galdegin zioten: «Nor da, “hartu esku-ohea eta zoaz oinez” esan dizuna?» Sendatuak, ordea, ez zekien nor zen, inguruko jende artean ezkutatu baitzen Jesus. Gero, Jesusek jauretxean aurkitu eta esan zion: «Begira, sendatua zaude. Ez egin bekaturik gehiago, okerragorik gerta ez dakizun». Joan zen gizon hura, eta juduei jakinarazi zien, Jesus zela sendatu zuena. Horregatik erasotzen zioten juduek Jesusi: gauza horiek larunbatez egiten zituelako.

«**J**auna, ez dut inor». Bai izugarria aitorten hau! Baina ez hain bakana gure egun hauetan: ugari baitira pertsonak, ez soilik bakarrik bizi direnak, baita bakaturik bizi direnak ere. Ugalduz doaz «etxerik

gabeak», baita beren etxean hiltzen direnak ere, inor konturatu gabe. Latza da adiskiderik eta familiarterorik ez izatea! Bizitzea edo hiltzea, inor ez duzula eskua emateko edo zugatik negar egiteko.

Bai egia handia: Jesus da inoiz huts egiten ez duen adiskidea! Gaixo kroniko honi, bakar eta bakarrik utziari, hurbildu, arretea eskaini, saneatu eta, segidan, jende artean galdu da Jesus.

Kezkatzen al naiz inor ez dutenez eta bakardade latzean bizi direnez?

* * *

ZU BAKARRIK, JESUS (*Pedro Arrupe, s.j.*)

Zu bakarrik, Jesus. Jesus, ene Jainkoa, ene salbatzailea, ene adiskidea, ene bihotzeko adiskidea, ene bihotza, ene txera: Hemen natorkizu, esateko, ene bihotzaren barnekoenetik eta ahal dudan egiazaletasun eta txerarik handienarekin, ez dela munduan tira egiten didan ezer, zu bakarrik baizik, ene Jesus. Ez ditut nahi munduko gauzak. Ez dut kontsolatu nahi sorkariekin. Guztiaz eta neure buruaz hustea nahi dut soilik, zu bakarrik maitatzeko. Zuretzat, Jauna, nire bihotz osoa, berorren sentimenduak, berorren txera guztiak, berorren samurtasun guztiak.

Oi Jauna!, ez naiz nekatuko zuri esateaz: Ez dut nahi zure maitasuna baizik, zure konfiantza baizik. Hitzematen dizut, zin egiten, Jauna, beti entzungo ditudala zure inspirazioak, beti biziko dudala zure biziera bera. Hitz egidazu sarri-sarri arimaren hondo-hondoan eta eskatu iezadazu asko eta asko; zin degizut zure bihotzagatik, beti egingo dudala zure nahia, txikiena nahiz gogorrena delarik ere. Nolatan ukatzen ahal dizut ezer, ene bihotzak kontsolamendu bakarra baitu zain egotea hitz bat zure ahotik noiz aterako, zure gustua asetzeko?

Garizumako 4. astea.

San Zirilo Jerusalemgoa, *gotzaina eta eliz irakaslea*.

[Isaias 49,8-15: *Herriaren itun zaitut zu egin, lurraldea eraiki dezazun. Sal 144: Gupidatsua da Jauna eta errukiorra.*]

† Jesu Kristoren Ebanjelioa San Joanen liburutik 5,17-30.

Aldi hartan, Jesusek esan zien juduei: «Nire Aita lanean ari da beti, eta ni ere lanean ari naiz». Horregatik zebiltzan juduak, gero eta gehiago, hura hil nahian: ez larunbata hausten zuelako bakarrik, baita Jainkoari Aita esaten ziolako ere, bere burua Jainkoarekin berdinduz. Jesusek esan zien: «Egi-egiaz diotsuet: Semeak ez dezake berez egin, bere Aita egiten ikusten duena besterik; Aitak egiten duen gauza bera egiten du Semeak. Aitak maite du Semea, eta berak egiten dituen gauza guztiak erakusten dizkio Semeari, eta hauek baino egintza handiagoak ere erakutsiko dizkio, zuen harrigarri. Aitak hilak piztu eta biziartzten dituen bezala, era berean biziartzten ditu nahi dituenak Semeak ere. Aitak ez du inor epaitzen; epaitzeko eskubide guztia Semeari eman dio, guztiak gorets dezaten Semea, Aita goresten duten bezala. Semea goresten ez duenak, hura bidali duen Aita ere ez du goresten. Egi-egiaz diotsuet: nire hitza entzuten duenak, eta ni bidali nauenari sinesten dionak, badu betiko bizia; halakoa ez dute epaitzen, heriotzatik bizi-ira igaro baita. Egi-egiaz diotsuet: Badator ordua, eta iritsia ere bada, hildakoek Jainkoaren Semearen oihua entzungo dutena, eta entzuten dutenak biziko dira. Aitak bizia bere esku duen bezala, Semeari ere eman dio bizia bere esku izatea. Eta eman dio epaitzeko eskubidea ere, Gizonaren Semea delako. Ez zaitez tala harritu honetaz; badator ordua, hilobietan daudenek haren oihua entzungo dutena eta aterako direna: ongia egin dutenak bizirako piztuko dira, eta gaizkia egin dutenak hondamendirako. Nik ez dezaket neurez ezer egin; entzun bezala epaitzen dut, eta zuzena da nire epaia; ez bainabil neure nahiaren bila, bidali ninduenaren bila baizik».

Jesusek agerian aitortu du Aitarekin bat dela bera. Diren bezala dihardute biek: Jainko bakar bezala. Ez da inolako desadostasunik. Ezin izan da. Guk ere bat izan beharko genuke Jainkoarekin, guztiz bat; izan ere, San Paulok dioen bezala, gure bizitzeak Kristo bera izan behar bailuke. Tamalez, oso urrun gabilta errealitate horretatik. Baina ez genioke uko egin behar egunen batean hori lortzeari; ez geure merezimenduz, baina bai Jainkoaren onginahia hutsez. Guztioi emango digu Kristok, hil ondoren, Jainkoagan bizitzea betiko. Zoriontsuenek, santuek, bizi izan dute jada gure artean.

* * *

ZURE ESKUETAN JARTZEN NAIZ
(*Charles de Foucauld*)

Aita, zure eskuetan jartzen naiz.
Egizu nitaz gura duzuna.
Edozer dela ere, eskerrak demazkizut.
Denerako nauzu prest.
Dena dut onartzen, horrela zure gogoia bada betetzen
nigan eta sorkari guztietan.
Ez dut opa beste ezer, Aita.
Neure bizia gomendatzen dizut,
ahal dudan maitasun osoenaz demaizut,
maite zaitudalako, zuri eman beharra sentitzen dudalako,
zure eskuetan jarri beharra neurririk gabe sentitzen dudalako,
konfiantza osoaz, Aita zaitudalako.

Garizumako 4. astea.

SAN JOSE ANDRE MARIAREN SENARRA.

Santa Quintila, martiria.

§ 2 Samuel liburutik 7,4-5a.12-14a.16.

Egun haietan, Jaungoikoaren hitza etorri zitzaion Natani: «Zoaz, eta esaiozu nire morroi Davidi: “Hau dio Jaunak: Zure egunak beteko direnean eta zure gurasoekin atsedean hartuko, ondorengo bat emango dizut, zure erraietatik aterea, eta sendotu egingo dut haren erreinua. Hark etxea eraikiko dio nire izenari, eta nik sendotuko dut haren errege-aulkia betiko. Aita izango nau hark ni, eta hura seme izango dut nik. Zure etxeak eta zure erreinuak betiko iraungo dute nire aurrean, eta zure errege-aulkiak sendo iraungo du beti”».

[Sal 88: *Jauna, zure maitasuna abestuko dut betiren beti.*]

§ Paulo apostoluak erromatarrei 4,13.16-18.22.

Senideok: Lurraren jabe izango zirelako agintzaria ez zitzaien egin Abrahami eta haren ondorengoei Legea betetzeagatik; sinesmenaren zuzentasunagatik baizik. Dena sinesmenetik dator, eta dena dohain hutsa da; horrela, agintzariak ondorengo guztientzat irauten du; ez Legetik diren ondorengoentzat bakarrik, baita Abrahamen sinesmenetik direnentzat ere; hau guztien aita baita, idatzia dagoenez: «Herri askoren aita egin zaitut». Abrahamek, hilak pizten dituen Jainkoa, eta ez direnak izatera deitzen dituen, aurkitu zuenean, sinetsi egin zion. Itxaropenean oinarriturik, sinetsi egin zuen, itxaropen guztien kontra, herri askoren aita izango zela; esan zitzaion bezala: «Hainbestekoa izango da zure ondorengoa». Hori zela-eta, sinesmena aintzat hartu zitzaion zuzentasunerako.

† Jesu Kristoren Ebanjelioa San Mateoren liburutik 1,16.18-21.24a.

Jakobek Jose sortu zuen, Mariaren senarra, eta Mariagandik jaiotzen Jesus, Kristo deritzana. Jesu Kristoren jaiotza honela gertatu zen: Jesusen ama Maria, Joserekin ezkontzeko hitzemanan zegoelarik,

elkarrekin bizi izan baino lehen, haurdun gertatu zen Espiritu Santuaren egitez. Haren senar Josek, gizon zintzoa baitzen eta ez baitzuen bere emaztea salatu nahi, isilka utzi eta joatea erabaki zuen. Baina, asmo hori gogoan zerabilela, Jainkoaren aingerua ametsetan azaldu eta esan zion: «Daviden seme Jose: ez izan beldurrik, Maria, zeure emaztea, etxean hartzeko, sabelean daraman haurra Espiritu Santuagandik baitator. Semea izango du, eta zuk “Jesus” ezarriko diozu izena, horrek salbatuko baitu bere herria bekatuetatik». Josek, lotatik esnatu zenean, Jaunaren aingeruak agindu bezala egin zuen.

Joseren laudoriorik handiena, Jesusek berak egin zuen; izan ere, zeruko bere Aita izendatzeko, haurtxoa zela lurreko bere aita izendatzeko erabili zuen izena erabili baitzuen; Joseri, guztiz onbera eta zuzen, eman zion izen familiar bera: abbá, aita. Nolakoa ote zen gizon hura, Jesusek konparazio hura egiteko!

«Joseren duda-mudak» deitu ohi direnak kontatzen ditu gaurko ebanjelioak. Adituenean esaten digute, Josek ez zuela sekula errezeleorik izan Mariaren zuzentasunaz; konfiantza-falta izan bazuen, bere gaitasun propioaz izan zuen: Jainkoaren Semearen aitaordeko izateko eginkizuna betetzeko gaitasunaz. Izan daiteke eta hobeto dator hori Joseren apaltasunarekin. Baina Joseren erreparoak erabat galdu ziren, egiaztatu zuenean Jainkoak berak hautatu zuela eginkizun hartarako, ametsetan aingeruak esan zionez.

Jose santua, oso ondo ezagutu zenuen zeure semea, laguntzailer eta ikasle izan zenuen zeure lantegian eta, geroago, arotz ofizial; emadazu orain Jesus, haren bizitza eta haren irakaspenak gero eta gehiago preziatzea, deliberatuago jarrai diezaiodan Erreinuaren bidean. Gida nazazu Maria zeure emazteagana eta bion seme Jesusengana.

[**Jakinduria 2,1a.12-22:** *Eman diezaiogun heriotza lotsagarria.*

Sal 33: *Hurbil dute Jauna bihotz-urratuek.]*

† Jesu Kristoren Ebanjelioa San Joanen liburutik **7,1-2.10.25-30.**

Aldi hartan, Jesus Galilean zebilen; ez zuen Judean ibili nahi, juduek hil egin nahi baitzuten. Juduen Etxola Jaia hurbil zen. Jesusen senideak jai hartara joan zirenean, hura ere joan zen; baina ez agerian, gordeka bezala baizik. Jerusalemдар batzuek zioten: «Ez al da hau, hil nahi dutena? Lasai asko mintzo da, bada, eta ez dio inork ezer esaten. Etsi ote dute agintariak hau dela Mesias? Guk badakigu hau nongoa den; Mesias etorriko denean, ordea, inork ez du jakingo nongoa den». Orduan, Jesusek, jauretxean irakasten ari zela, oihuka esan zuen: «Beraz, ni ezagutzen nauzue, eta nongoa naizen ere badakizue. Ni ez naiz, ordea, neurez etorri; egiazale denak bidalirik nator. eta zuek ez duzue ezagutzen hura. Nik bai, ezagutzen dut, harengandik bainaiz eta hark bidalia». Orduan, eskua bota nahian hasi zitzaizkion, baina ezin izan zion inork eskurik erantsi; ez baitzen artean iritsi haren ordua.

Jesusek alde egin izan dio beti ikusgarritasun orori, eta nahiago izan du nabarmenkeriarik gabe jardun, hantusterik gabe. Ezezagun igo da Jerusalemara. Halere, ez da falta izan beraren jarrera oker interpretatu eta bere mesiastar nortasunaz aieruka hasi zaionik. Bere buruari ez dio inportantziarik eman Jesusek. Soil-soilik, Jainkoak bidalia da bera, ez dator bere kabuz. Bere otoitz egin dezake 39. salmoa: «Hemen nauzu, Jauna, zure nahia egiteko». Horixe da Jesusen jarrera, munduan sartu denean –dio Hebrearrei gutunak–; horixe izan beharko litzateke gurea ere Jainkoaren aurrean.

Jar zaitez Jainkoaren eskuetan, gauza guztietan haren nahia betetzeko prest.

Garizumako 4. astea.

San Filemon, *martiria*.San Justiniano, *gotzaina*.

[Jeremias 11,18-20: *Hiltzera daramaten bildots eztia bezala nintzen ni. Sal 7: Jauna, ene Jainko, zugana biltzen natzaizu.*]

† Jesu Kristoren Ebanjelioa San Joanen liburutik 7,40-53.

Aldi hartan, jende arteko batzuek, Jesusen hitzak entzunik, zioten: «Hau da egiaz Profeta». Beste batzuek: «Kristo da». Beste batzuek, berriz: «Galileatik etortzekoa al da, bada, Kristo? Ez al dio Liburu Santuak Daviden jatorrikoa izango dela Mesias, eta Betleemetik, Daviden herritik, etorriko dela?» Eta eztabaida sortu zen jendearen artean Jesusengatik. Haietako batzuek bahitu nahi zuten, baina ez zion inork eskurik ganean jarri. Joan ziren jauretze-zainak apaizburuetara eta fariseuetara, eta hauek galdetu zieten: «Zergatik ez duzue ekarri?» Jauretze-zainek erantzun zieten: «Ez du egundaino inork gizon honek bezala hitz egin». Baina fariseuek erantzun zieten: «Zer? Zuek ere liluratu al zaituzte? Ba ote da inor herriko agintari edo fariseuetan horri sinetsi dionik? Baina Legea ezagutzen ez duten horiek jende madarikatua dira». Orduan, fariseu haietako batek, Nikodemok –lehen Jesusengana joan zen hark– esan zien: «Uzten al digu gure Legeak inor epaitzen, berari entzun gabe eta zer egin duen jakin gabe?» Besteek erantzun zioten: «Galilearra al zara zu ere? Aztertu eta ikusiko duzu, Galileatik ez dela profetarik ateratzen». Eta bakoitza bere etxera joan zen.

Tenpluko guardiek laudorio ikusgarria egin dute Jesusez: «Inoiz ez du inork hitz egin gizon honek bezala». Jesus preso hartu gabe itzuli dira, baina beraiek haren «preso» eginik. Baliabide oratoriori leporatzen diote guztia fariseuek, baina guardia hauei zirrara eragin die Jesusek, sinagogako entzuleei bezalaxe: aginpidez hitz egiten du –bihotzaren sakonenetik– Jainkoaz, zuzentasunaz eta biziaren zentzuaz, era arrunt desberdinez, lider militar, politiko edo erlijiosoen hitz handiak ez bezalakoez. Hitz egidazu horrela, Jauna, zurea ez beste ahotsik entzuteko gogorik izan ez dezadan.

Garizumako 5. astea.Santa Basilisa, *martiria*.Santa Erlinda, *aitorlea*.

§ Jeremias Profetaren liburutik 31,31-34.

Hau dio Jaunak: «Hara, badatoz egunak –dio Jaunak–, eta itun berria egingo dut Israel etxearekin eta Juda etxearekin. Ez da izango, haien arbasoekin egin nuena bezalakoa, Egiptotik ateratzeko eskutik hartu nituenean; hautsi egin baitzuten haiek nire ituna, ni haien Jaungoikoa izanik ere –dio Jaunak–. Hau izango da, egun haien ondoren Israel etxearekin egingo dudana ituna –dio Jaunak–. nire Legea beren barruan ezarriko diet, eta beren bihotzean idatziko; eta ni izango naiz haien Jaungoiko, eta haiek nire herri izango dira. Inork ez du, ez lagun-hurkoari, ez anaiari, erakutsi beharrik izango, esanez: “Ezagutu Jauna”. Guztiek, txiki eta handi, ezagutuko naute –dio Jaunak–; gaiztake-ria barkatuko diet, eta haien bekaturik ez dut gehiago gogoratuko».

[Sal 50: *Bihotz garbi bat, Jainko, sor ezazu niregan.*]

§ Hebrearrei gutuna 5,7-9.

Senideok: Kristok, haragizko bere bizitzaldian, heriotzatik gorde zezakeenari, deiar handiz eta negarrez, otoitzak eta eskariak egin zizkion, eta bere begiruneagatik entzun egin zion. Eta Semea izanik ere, bere neke artean ikasi zuen esaneko izaten, eta bere betera iritsirik, haren esaneko direnentzat betiko salbamen-iturri egin zen, Jainkoak apaiz nagusi izendatua, Melkisedeken sailean.

† Jesu Kristoren Ebanjelioa San Joanen liburutik 12,20-33.

Aldi hartan, jaia ospatzera igo zirenen artean, baziren greziar batzuk ere. Hauek Galileako betsaidar Felipegana hurbildu ziren, eta eskabide hau egin zioten: «Jauna, Jesus ikusi nahi genuke». Felipe Andrei esatera joan zen. Andresek eta Felipek, Jesusi esan zioten. Jesusek erantzun zien: «Iritsi da Gizonaren Semea goretzia izateko garaia. Egi-egiaz diotsuet: gari-alea lurrean erori eta hiltzen ez bada, bakar gelditzen da; baina hiltzen bada, alea ugari ematen du. Bere bizia maite duenak galdu egingo du, eta bere bizia gorroto duenak mundu honetan, betiko bizirako gorde-

Garizumako 5. astea.
Santa Basilisa, *martiria*.
Santa Erlinda, *aitorlea*.

ko du. Nire zerbitzari izan nahi duenak, jarrai biezat, eta ni naizen tokian, han izango da nire zerbitzaria ere. Nire zerbitzari egiten dena, goratu egingo du nire Aitak. Orain larri dago nire barrena, eta zer esan? Aita, atera nazazu ordu honetatik? Baina, hain zuzen, honetarako etorria naiz ni, ordu honetarako! Aita, gorets ezazu zeure izena!» Orduan mintzo bat entzun zen zerutik: «Goretsi dut, eta goretsiko berriz ere». Han zegoen jende-taldeak, hotsa entzun zuenean, trumoi-hotsa zela zioen; beste batzuek, berriz, zioten: «Aingeru bat mintzatu zaio». Jesusek, ordea, esan zien: «Nigatik ez, baino zuengatik izan da mintzo hau. Orain da munduaren auzia; orain mundu honetako nagusia kanpora haizatuko dute, eta nik, lurretik gora altxatuko nautenean, neuregana bilduko ditut guztiak». Nolako heriotzaz hil behar zuen adierazten zuen horrela.

Greziaz hauek Feliperi agertu dioten gogoia, mendetan barna milioika kristauk sentitu izan duena bera izan da: «Jesus ikusi nahi dugu». Zeinek ez luke ikusi nahi Jesus aurrez aurre, haren giza itxura eta existentzia aintzatsua bistan izanik; zeinek ez luke nahi hura bersarkatu, lehen argia ikusi genuenetik eskaini digun mugarik gabeko maitasunari erantzuteko? Haren oinetara erori, emakume bekataria bezala, haren oinak geure alaitasun-malkoez bustitzeko eta geure hileaz lehertzeko. Ez, jakina, guk asko maite izan dugulako, baizik hark azkeneraino maite izan gaituelako. Denboraren hasieratik datozen eskaria da. Askok errepikatzen dute salmogileek: «Ageriezaguzu, Jauna, zeure aurpegia; bila, zure aurpegiaren bila ibiliko naiz»... Moisesek bere aurpegia estali zuen, Sinaiko Jainkoa aurrez aurre ez ikusteko; guk, ordea, abantaila handia dugu: gutako bat izan da Jesus, beste bat gehiago, eta hiltzeko beldurrik gabe kontenpla dezakegu; aitzitik, haren aurpegiak beti-betiko argituko gaitu, eta haren argian bete-betea eta behin betikoa izango da gure zoriona.

Esazu behin eta berriz: Ikusi nahi zaitut, Jauna, ez nazazu utzi zeure aurpegiaren aintzarik gabe.

Garizumako 5. astea.San Toribio Mogrovejokoa, *gotzaina*.San Jose Oriol, *apaiza*.

[Daniel 13,1-9.15-17.19-30.33-62: *Ni, errugabe izanik, hiltzera noa.*
Sal 22: *Ibar ilunean banabil ere, ez naiz gaitz beldur; zu nirekin baitzaude.*]

† Jesu Kristoren Ebanjelioa San Joanen liburutik 8,1-11.

Aldi artan, Jesus Oliamendira joan zen. Egunsentian jauretxera agertu zen berriro, eta herri guztia etorri zitzaion; Jesus, eseri eta irakasten hasi zen.

Lege-maisu eta fariseuek ezkontza nahasten aurkitutako emakumea ekarri zioten eta, erdian ipinirik, esan zioten: «Maisu, emakume hau ezkontza nahasten aurkitu dugu, eta Moisesek horrelakoak harrika hiltzeko agindu zuen Legean. Zuk zer diozu?» Azpikeriaz esaten zioten hori, zertan salatu izateko.

Jesus, ordea, makurtu eta lurrean idazten hasi zen hatzez. Baina galdezka ari baitzitzaizkion, zutitu eta esan zien: «Zuen artean bekatuak ez duenak bota diezaiola lehenengo harria». Eta berriz ere makurtu, eta lurrean idazten jarraitu zuen. Hori entzun zutenean, zaharrenez aurrera, banaka-banaka joaten hasi ziren denak, eta Jesus bakarrik gelditu zen, emakumea aurrean zuela.

Jesusek zutiturik esan zion: «Emakume, non dira zu salatzen zintuztenak? Ez al zaitu inork gaitzetsi?» Eta emakumeak: «Inork ere ez, Jauna». Eta Jesusek: «Ezta nik ere, ez zaitut gaitzesten. Zoaz, eta hemendik aurrera ez egin bekatuak».

Munduaren argia, gauaren iluna urratu eta zeure distiraz betetzen duzun faroa, ilunarenak egin du zure aurrean. Zure ondoren dabilena ez dabil ilunpean, baizik eta itzalezineko dirdira du argi. Aldi berean zara, Jauna, egunsenti eta eguerdi, goizeko freskotasun eta arratseko distira, artizar eta ilargi, kometa eta izar. Argitu itzazu nire urratsak, estropezu egin eta eror ez nadin. Argitu ezazu nire adimena, zugan baizik pentsa ez dezadan. Egizu dirdira nire bihotzean, zu baizik opa ez dezadan. Salmogileak dioen bezala: «Zure argiak eman diezadala zure argia ikustea».

Garizumako 5. astea.

San Segundo, *martiria*.Santa Katalina Suediakoa, *abadesa*.

[Zenbakiak 21,4-9: *Sugeak hozkatu dituen guztiak, tupikizko sugeari begiratzen badiote, sendatuko dira. Sal 101: Entzun nire otoi-tza, Jauna, betor nire oihua zugana.*]

† Jesu Kristoren Ebanjelioa San Joanen liburutik 8,21-30.

Jesusek esan zien fariseuei: «Ni banoa eta nire bila ibiliko zarete; baina zeuen bekatuengatik hilko zarete. Ni noan tokira, zuek ezin zarete etorri». Juduek zioten: «Bere burua hil behar ote du? “Ni noan tokira, zuek ezin zarete etorri” esan baitu?» Eta Jesusek: «Zuek behekoak zarete; ni goikoa naiz. Zuek mundu honetakoak zarete; ni ez naiz mundu honetakoa. Horregatik esan dizuet, zeuen bekatuengatik hilko zaretela. “Ni naizena naizela” sinesten ez baduzue, zeuen bekatuengatik hilko zarete». Haiek berriz ere: «Nor zara, bada, zu?» Eta Jesusek: «Hasieratik esana dizuet. Badut, izan ere, zuetaz zer esanik asko eta zuek zertan gaitzetsi. Baina ni bidali nauena egiazalea da, eta nik hari entzuna esan diot munduari». Ez zioten igarri Aitaz ari zitzailea. Jesusek, beraz, esan zien: «Gizonaren Semea altxatuko duzuenean, orduan jakingo duzue ni naizena naizela, eta ez dudala neurez ezer egiten; baik eta Aitak irakatsi didana, hori esaten dudala. Ni bidali nauena, nirekin dago; ez nau bakarrik utzi, hari gogoko zaiona egiten baitut beti».

Ebanjelariak, pasarte honetan, «neu naiz» esapidea darabil; Jesusi esanarazi nahi balio: Bera Jainkoa dela. Horrela ulertu zuen, nonbait, jende askok, Joanek esan duenez, Jesusengan sinetsi baitzuten. Dudarik gabe, gauza asko gaitzetsi ahal luke gudan Jesusek; baina ez, berak nahiago du salbazioaz hitz egin, eta ez errietaz. Horregatik, Jauna, handitu ezazu nire fedea, zudan eta bidali zaituenagan sinets dezadan, zudan bezala, maite gaituen Aitaren onberatasuna eta errukia hots egitera bidali zaituenagan sinets dezadan, alegia. Zuk bezala, egin dezadala nik ere beti Aitak atsegin duena.

Garizumako 5. astea.

JAUNAREN GIZAKUNDEAREN ADIERAZPENA

San Dimas (*lapur ona*).

§ Isaias Profetaren liburutik 7,10-14; 8,10.

Egun haietan, Jaunak hitz egin zion Akazi: «Eska iezaiozu Jaunari, zeure Jaungoikoari, ezaugarri bat zuretzat, nahiz lurraren barrerean, nahiz zeruen goienean». Eta Akazek: «Ez diot eskatuko, ez dut tentatuko Jauna». Orduan Isaiasek: «Entzun, Daviden etxe: Gutxi al deritzozue gizonentzat aspergarri izateari? Jaungoikoarentzat ere aspergarri izan behar al duzue? Horregatik, Jaunak berak emango dizue ezaugarria. Begira, andre gaztea haurdun dago, eta semea izango du; Emmanuel ipiniko dio izena, hau da: “Jaungoikoa gurekin”».

[Sal 39: *Hemen nauzu, Jauna, zure nahia egiteko.*]

§ Hebrearrei gutunetik 10,4-10.

Zezen eta akarren odolak ezin ditu bekatuak kendu. Horregatik, Kristok, munduan sartzerakoan, dio: «Oparirik eta eskaintzarik ez zenuen nahi izan, baina gorputza eman zenidan niri; erre-oparirik eta bekatuentzakerik ez zitzaizun atsegin. Orduan, esan nuen nik, nitaz Liburuan idatzita dagoena: Hona hemen ni, Jainko, zure nahia egiteko». Lehendabizi hau esaten du: «Oparirik eta eskaintzarik, erre-oparirik eta bekatuentzakerik, ez zitzaizun atsegin izan», hauek legez eskaintzen badira ere. Gero, hau dio: «Hona hemen ni, zure nahia egiteko». Lehendabizikoa kendu eta bigarrena jartzen du. Nahi horren indarrez santu eginak gara, Jesu Kristok behin betiko egin zuen bere gorputzaren opariarengatik.

† Jesu Kristoren Ebanjelioa San Lukasen liburutik 1,26-38.

Aldi hartan, Gabriel aingerua bidali zuen Jainkoak, Nazaret dertzan Galileako herri batera, birjina batengana; Daviden etxeko Joresekin ezkontzeko hitzemaña zegoen birjina, eta Maria zuen izena.

Aingeruak, haren etxean sarturik, esan zion; «Poztu zaitez, graziaz bete hori: Jauna zurekin». Beldurtu zen Maria, hitz haiek entzutean, eta pentsatzen jarri zen, zer izan ote zitekeen halako agur hura. Aingeruak, orduan: «Ez izan beldurrik, Maria; Jainkoaren ederra aurkitu duzu. Begira, sabelean sortu eta semea izango duzu; eta “Jesus” ezarriko diozu izena. Handia izango da; Goi-goikoaren Seme deituko diote, eta Jainko Jaunak haren aita Daviden errege aulkia emango dio; Jakoberen etxean errege izango da beti, eta haren erregetzak ez du azkenik izango». Mariak orduan aingeruari: «Nola izan daiteke hori? Nik ez baitut ezagutzen gizonik». Eta aingeruak: «Espiritu Santua jaitsiko da zugana, eta Goi-goikoaren indarrak bere itzalpean hartuko zaitu; horregatik, zugandik jaioko den Santuari, Jainkoaren Seme deituko diote. Hara, zure ahaide Elisabet ere, bere zaharrean, haurdun dago, eta agorra omen zena seigarren hilabeteko dago; Jainkoarentzat ez baita ezer ezinik».

Ezustekoen Jainkoaren aurrean Maria larritu egin da. Geu ere, halaxe harritzen gara hark eskatzen diguna ezagutzean. Guretzat hark dituen desioek koloka jartzen gaituzte, larritu eta, are, ikaratu. Maria, ordea, ez da ikaratu. Aingerua bera ere harritu egin da Andre Mariak bere agurraren aurrean izan duen erreazioarekin. Nola gertatuko den galdetu dio Mariak, aingeruak esan diona gauzen berezko ordenuaren gaidikoa baita. Eta erantzuna jaso duenean, gustura onartu du; izan ere, Espirituak bere itzalaz estaliko du. Jainkoa izango da Gizakundea gauzatuko duena. Mariak «amen» esan dio Jainkoak berarentzat pentsatu eta eratu duenari. Mariaren «bai»ari esker, guztiok salbatu gara.

Niretzat ere badu Jainkoak eginkizun bat, misio bat. Neuk baka-
rrik ezagutzen dut. Ez dago idatzia inongo liburutan, ez da «zerura

Garizumako 5. astea.**JAUNAREN GIZAKUNDEAREN ADIERAZPENA**San Dimas (*lapur ona*).

igo beharrik ere» hura ezagutzeko. Eginkizun xumea da: Jainkoaren seme edo alaba batena, Kristoren anaia edo arreba batena, Jesusen jarraitzaile gogotsu batena, neure gorabeherak ezarri izan nauten lekuan: jaiotza-lekua eta familia, ezkondua, ezkongabea, lan edo lanbide hau duena, norberaren familia, baldin familia badut, aberasgarri ditudan gaitasun edo bertute hauekin, bizikide eta harremanak ditudan pertsona hauekin... Ezagutzen al dut neure misioa? Zehazki? Onartu al dut?

Garizumako 5. astea.
San Braulio, *gotzaina*.
San Kastulo, *martiria*.

[**Hasiera 17,3-9:** *Herri askoren aita egiten zaitut. Sal 104: Go-goan dut Jaunak betiko egin zuen ituna.*]

§ Jesu Kristoren Ebanjelioa San Joanen liburutik 8,51-59.

Aldi hartan, Jesusek esan zien juduei: «Egi-egiaz diotsuet: nire esana betetzen duenak, ez du ikusiko betiko heriotzarik». Eta juduek erantzun zioten: «Orain ikusten dugu garbi-garbi deabrua duzula. Abraham hil zen; profetak ere bai, eta zuk diozu: “Betiko heriotzarik ez du ikusiko nire hitza gordetzen duenak”? Gure aita Abraham baino handiago al zara, bada, zu? Abraham hil baitzen, eta baita profetak ere; nortzat duzu zeure burua?» Jesusek orduan: «Nik neure burua goratuko banu, hutsa izango litzateke nire gorapena. Baina ni goratzen nauena nire Aita da, zuek “gure Jainkoa” diozuen hura; baina zuek ez duzue ezagutzen. Nik, bai, ezagutzen dut, eta ezagutzen ez dudala esango banu, zuek bezala gezurti izango nintzateke; baina nik ezagutzen dut eta gordetzen haren hitza. Zuen aita Abraham pozez bizi zen, nire eguna ikusiko zuela eta; ikusi zuen eta alaitasunez bete zen». Juduek erantzun zioten: «Ez duzu oraindik berrogeita hamar urte, eta Abraham ikusi duzula?» Jesusek orduan: «Egi-egiaz diotsuet: Abraham sortu baino lehenagotik naiz ni». Orduan harriak hartu zituzten hari harrika emateko; baina Jesus ezkutatu eta jauretsetik atera zen.

Kasu honetan, Jesusei ez zioten egin harrika, baina haren jarraitzaileei ezin konta ahala aldiz egin izan diete Historian barna, san Estebangandik hasita. Ebanjelariak ez du ezkutatu nahi izan Jesusek iskin egin diola liskarraldiari. Ezbaia halako maila batera iristen denean, hobe alde egitea. Pertsona zuhur eta solas zale batek antzemanden du noiz gertatzen den solasaldi bat alferrikako hizketa; hain juxtu, solaskidea gai ez denean bere iritziez dudatxo bat ere izateko edota indarkeriara ere jotzeko puntuan ikusten duenean.

Kristauok bake-jende izan behar dugu. Mila bider hobea da, konbentzimendu batengatik nork bere buruan umilazioa edo dena delakoa jasatea, harengatik inor hiltzea baino. Arrazoia izan arren.

Garizumako 5. astea.

Santa Lidia, *martiria*.San Ruperto, *gotzaina*.

[Jeremias 20,10-13: *Nirekin dut Jauna, gudari indartsua. Sal 17: Neure larrialdian Jaunari nion dei egin, eta entzun ninduen.*]

† Jesu Kristoren Ebanjelioa San Joanen liburutik 10,31-42.

Juduek berriro harriak hartu zituzten Jesusi harrika emateko. Eta Jesusek esan zien: «Egintza onik asko egin dut nik zuen aurrean Aitaren ize-nean; horietako zeinengatik harrikatzen nauzue?» Haiek erantzun zioten: «Egite honengatik ez, baino biraogatik harrikatzen zaitugu: gizon izanik, zeure burua Jainko egiten duzulako». Jesusek erantzun: «Ez al dago idatzirik zuen Legean: “Nik esan nuen: Jainko zarete?” Jainkoaren hitza etorri zitzaienei “Jainko” esaten bazaie –eta Liburu Santuak ez dezake huts egin–, Aitak sagaratu eta mundura bidali duenarentzat biraoka ari dela diozue zuek, “Jainkoaren Semea” dela esan duelako? Nire Aitaren egintzak egiten ez badituzte, ez sinetsi niri; baina egiten badituzte, niri ez bada ere, sinetsi nire egintzei, jakin eta ezagutu dezazuen, Aita nigan dagoela, eta ni Aitagan». Berriz ere bahitu nahi izan zuten, baina ihes egin zien eskue-tatik. Eta berriro Jordanez beste aldera joan zen, Joaneke lehen bataiatzen zuen lekura, eta han gelditu zen. Askok bildu ziren harengana, eta esaten zuten: «Joaneke ez zuen ezaugarririk egin; hala ere, Joaneke honentzat esan zuen guztia egia zen». Eta han askok sinetsi zuen Jesusengan.

Atentziona ematen du, Jesusek ateratzen dituen argudio eta seinaleek batzuegan fedea eragiten dutela, eta beste batzuegan indarkeriara jotzeko gutxi falta izaten zaion ezeztapena. Errealitate bihurtzen da, Jesus tenpluan aurkeztean, Simeon agureak gaztigatu zuen hura: bandera eztabaidatua izango zela Jesus eta gatazka-iturri herrian.

Misterio bat da, batzuek fedea hartzea eta beste batzuek, itxuraz, ukatua izatea. Kristogan sinetsi eta gizon-emakumeen aurrean hura aitortzera deituak gara, eta aukeratuak. Jainkoaren grazia da, onginahia, baina Kristoren lekuko izatera behartzen gaitu, haren apostolu izatera gainerakoan aurrean, onartzen ez dutenak barne.

[Ezekiel 37,21-28: *Herri bat egingo ditut. Salmoa: Jeremias 31: Artzainak artaldea bezala zainduko gaitu Jaunak.*]

† Jesu Kristoren Ebanjelioa San Joanen liburutik 11,45-56.

Aldi hartan, Jesusek Lazarorekin egin zuena ikusirik, Mariaren eta Martaren etxera etorritako judu askok sinetsi zuen Jesusengan. Baina haietako batzuek fariseuengana joan eta Jesusek egin zuena esan zieten. Apaizburu eta fariseuek Batzarra bildu eta esan zuten: «Zer ari gara? Gizon honek ezaugarri asko egiten du. Horretan uzten badugu, denek sinetsiko diote, etorriko dira erromatarrak eta hondatuko dizkigute geure leku santua eta herria». Haietako batek –urte hartan apaiz nagusi zen Kaifasek– esan zien: «Zuek ez dakizue ezer; ez zarete ohartzen, hobe duzuela gizon bat herriarengatik hiltzea, herri osoa galtzea baino». Ez zuen hau bere buruz esan, baizik eta, urte hartako apaiz nagusi zenez, profeta bezala esan zuen: Jesus herriarengatik hilko zela, eta ez herriarengatik bakarrik, baita Jainkoaren seme-alaba banatuak batera biltzeko ere. Eta, egun hartan, hari bizia kentzea erabaki zuten. Horregatik, Jesus ez zen agerian ibiltzen juduen artean. Basamortu ingurura baztertu zen, Efraim deritzan herri batera, eta han gelditu ikasleekin. Juduen Pazkoa gainean zen, eta lurralde hartako asko Jerusalemera igo ziren, Pazkoa baino lehen, garbikuntzak egiteko. Jesusen bila zebiltzan eta, jauretxean zeudela, elkarri galdezka ari ziren: «Zer deritzozue? Ez ote da jaietara etorriko?» Apaizburuek eta fariseuek agindua eman zuten, baldin inork jakiten bazuen non zen, esan ziezaiera, hari eskua eransteke.

«Estatu-arrazoiak» milioika gizon-emakume asasinatu izan ditu Historian barna. Arrazoi hori bera atera du Kaifasek Kristo kondanatzeko. Jesus, beraz, biktima bat gehiago izan da, beren interesengatik

giza bizitza sakrifikatzen dutenen eskuan, arrazoirik gabeko sarras-kiak zuzenesten dituztenen eskuan.

Kristo gizon egin eta pertsona ororen duintasuna baietsi zuenetik, giza bizitza ukiezina da fededunentzat. Halaz guztiz, kristauok Jesusen izenean hil izan dugu, biraorik izugarriena gauzatuz. Kaifasena bera egin izan dugu: errugabeak sakrifikatu, «geureari eusteko». Barka iezaguzu, Jauna, halako zitalkeria hori.

* * *

NIRETZAT, KRISTO DA BIZIA

(John Henry Newman)

Ene Jesus: lagundu iezadazu zure usain gozoa zabaltzen, norahi noala; blaitu ezazu nire arima zeure espirituaz eta zeure biziaz; barnera zaitetz nire izate osoan eta jabetu zaitetz hartaz, nire bizia aurrerantzean zurearen dirdira baizik izan ez dadin.

Geldi zaitetz ene bihotzean batasunik handiengan, nirearekin harremanak izango dituzten arimek nigan zure presentzia nabari dezaten, eta, niri begiratzean, ni naizela ahaztu eta zugan baizik pentsa ez dezaten.

Geldi zaitetz nirekin. Horrela, besteentzat argi bihurtu ahal izango naiz. Argi hori, oi Jauna, zugandik da dena; haren izpietako bakar bat ere ez da nirea.

Doi-doi izango naiz zure tresna bat, arimak zuk argi ditzazun, ni bitarteko naizela. Utzidazu zu goresten atsegingarriena zaizun moduan: neure esku-argia pizturik eramanez, beste arima batzuen bidean iluna desegiteko.

Utzidazu zure hitza hots egiten hitzik gabe... Neure etsenpluaz, neure tiramen-indarrez, nire egintzen natura gaindiko eraginez, nire bihotzak zutaz sentitzen duen maitasunaren begi-bistako indarrez.

§ Isaias Profetaren liburutik 50,4-7.

Ikasi baten mingaina eman dit neure Jaunak, hitz bizkorgarria eman diezaiedan nekatuei; belarria esnatzen dit goizero, ikasiek bezala entzun dezadan. Jaunak belarria ireki dit, eta nik ez diot gogor egin; ez dut atzera egin. Bizkarra ipini diet jotzen nindutenei; masaila bizarretik tiraka ari zitzaizkidanei. Ez diet aurpegia saihestu irainei eta listuei. Neure Jauna nuen laguntzaile; horregatik ez nintzen lotsatu; horregatik ipini nuen aurpegia, harri gogor bezala, eta badakit ez naizela lotsagarri gertatuko.

[Sal 21: *Ene Jainko, ene Jainko, zergatik utzi nauzu eskutik?*]

§ Paulo apostoluak filipoarrei 2,6-11.

Kristo Jesusek, Jainkoaren izaera izanik, ez zion gogor eutsi Jainkoarekin berdin izateari; bestela baizik, bereaz hustu egin zen, morroi-izaera hartuz, eta beste edozein bezala azalduz. Eta gizon bezala agerturik, apaldu egin zuen bere burua, menpeko eginez heriotzaraino, gurutzeko heriotzaraino. Horregatik, Jainkoak goratu egin zuen, eta izen guztien gaineko izena eman zion, Jesusen izenera belaun guztiak makur daitezen, zeruan, lurpean eta lurpean, eta mingain guztiak aitortzen: Jesu Kristo, Jauna da, Aita Jainkoaren aintzarako.

† Jesu Kristo gure Jaunaren Nekaldia San Markosen liburutik 14,1–15,47.

Jesus azpikeriaz nola bahituko eta hilko zebiltzan.

[C. Bi egun barru, Pazkoa eta Ogi Hilan egunak ziren. Eta apaizburu eta lege-maisuak, Jesus azpikeriaz nola bahituko eta hilko zebiltzan. Hau zioten: S. «Ez, gero, jaiegunean, herrian nahaspilarik izan ez dadin».

Erramu IgandeaSan Konstantino, *abadea*.Santa Gladys, *erregina*.*Aurrez gantzutu du nire gorputza hilobirako.*

C. Jesus Betanian, Simon lepradunaren etxean mahaian jarrita zegoela, emakume bat etorri zen, ontzi eder batean nardo jatorrezko usain-gozodun gantzu baliotsua zekarrela. Ontzia hautsi eta buru gainera isuri zion Jesusi. Han ziren batzuek, haserre, beren barruan zioten: **S.** «Zertako galdu da alferrik horrelako usain-gozoduna? Hirurehun denarioz goitik sal zitekeen, eta behartsuei eman». **C.** Eta haserreka ari zitzaizkion emakumeari. Baina Jesusek esan zien: † «Utziozue; zergatik ez duzue bakean uzten? Ondo egina dago nirekin egin duena; behartsuak, izan ere, beti izango dituzue zeuekin, eta nahi duzuenean on egin diezaiekezue; ni, ordea, ez nauzue beti izango. Honek ahal zuena egin du; aurrez gantzutu du nire gorputza hilobirako. Egia esan, berri ona hots egingo den munduko toki guztietan gogoratuko dute honek egin duena ere, beraren gogoangarri».

Judas Iskarioteri dirua agindu zioten.

C. Judas Iskariote, Hamabietako bat, apaizburuengana joan zen, Jesus haien eskuetara eman nahiz. Poztu ziren entzutean, eta dirua agindu zioten. Judas, ordutik, Jesus haien esku jartzeko egokiera bila zebilen.

Non da nire afaltokia, ikasleekin Pazkoa jan dezadan?

Ogi Hilen lehenbiziko egunean, Pazko-bildotsa opari eskaintzen zenekoan, ikasleek esan zioten Jesusi: **S.** «Gu nora joatea nahi duzu, Pazko-afarirako gauzak prestatzera?» **C.** Jesusek ikasleetako bi bidali zituen, esanez: † «Zoazte hirira; gizon bat aterako zaizue bidera, ur-suila daramala; jarraitu hari eta, sartuko den tokian, esaiozue etxe-nagusari: “Hau dio Maisuak: non da nire afaltokia, ikasleekin Pazkoa jan dezadan?” Hark, etxe goian, gela handi bat erakutsiko dizue jarlekuekin. Presta iezaguzue hantxe afaria». **C.** Joan ziren ikasleak

eta, hirira iritsi zirenean, Jesusek esan bezala aurkitu zuten dena, eta Pazko-afaria prestatu zuten.

Zuetako batek, nirekin jaten ari den batek, salduko nau.

Ilunabarrean, Jesus Hamabiekin joan zen. Eta mahaian jaten ari zirela, esan zien: † «Benetan diotsuet, zuetako batek, nirekin jaten ari den batek, salduko nau». **C.** Haiek, atsekabeturik, galdezka hasi zitzaizkion banaka: **S.** «Nik ote?» **C.** Jesusek esan zien: † «Hamabietako batek, nirekin plater berean ogia bustitzen duen batek. Gizonaren Semea badoa, hartaz idatzirik dagoen bezala; baina zoritxarrekoa Gizonaren Semea salduko duena! Gizon horrek hobe zukeen jaio ez balitz».

Hau nire gorputza da. Hau nire odola da, itunaren odola.

C. Jaten ari zirela, Jesusek ogia hartu, bedeinkapen-otoitza egin, zatitu eta eman zien, esanez: † «Hartzazue: hau nire gorputza da». **C.** Gero, edalontzia hartu. esker-otoitza egin eta eman zien, eta guztiek edan zuten bertatik. Eta esan zien: † «Hau nire odola da, itunaren odola, guztientzat isuriko dena. Hara nik egia esan: Ez dut gehiago ardorik edango, ardo berria Jainkoaren erreinuan edango dudan eguna arte».

Oilarrak bi aldiz jo baino lehen, zuk hiru aldiz ukatuko nauzu.

C. Abestu zituzten salmoak, eta Oliamendira atera ziren. Jesusek esan zien: † «Guztiok eroriko zarete; idatzirik baitago: “Joko dut artzaina, eta sakabanatuko dira ardiak”. Baina ni piztu ondoren, aurretik joango natzaizue Galileara». **C.** Orduan Pedrok esan zion: **S.** «Guztiak erortzen badira ere, ni ez». **C.** Eta Jesusek: † «Egiaz esaten dizut: gaur, gau honetan berean, oilarrak bi aldiz jo baino lehen, zuk

Erramu IgandeaSan Konstantino, *abadea*.Santa Gladys, *erregina*.

hiru aldiz ukatuko nauzu». **C.** Pedrok oraindik: **S.** «Zurekin hil behar badut ere, ez zaitut ukatuko». **C.** Gauza bera esaten zuten guztiek.

Ikara eta larria sentitzen hasi zen.

Getsemani deritzan baratzerira iritsi ziren, eta Jesusek esan zien ikasleei: † «Zaudete hemen, ni otoitzera noan bitartean». **C.** Hartu zituen berekin Pedro, Santiago eta Joan, eta ikara eta larria sentitzen hasi zen. Eta esan zien: † «Nahigabez hiltzeko zorian nago; geldi zaitezte hemen, eta egon erne». **C.** Aurreraxeago joan eta lurreraino ahuspeztu zen eta, ahal bazen, ordu hura igaro zekiola eskatzen zuen, esanez: † «Abba! Aita! Zuk guztia dezakezu; ken nigandik kaliza hau. Baina ez dadila egin nik nahi dudana, zuk nahi duzuna baizik». **C.** Etorri zen eta lo aurkitu zituen, eta esan zion Pedrori: † «Simon, lo al zaude? Ezin egon erne ordubete? Zaudete erne eta egin otoitz, tentaldian eror ez zaitezten; gogoa bizkorra da; haragia, ordea, makala». **C.** Berririo joan eta otoitz egin zuen, hitz berak esanez. Eta, etorri zenean, lo aurkitu zituen, begiak logale baitzituzten, eta ez zekiten zer erantzun. Hirugarren aldiz etorri eta esan zien: † «Orain egizue lo eta hartu atsedan. Nahikoa da; iritsi da ordua! Gizonaren Semea bekatarien esku utziko dute. Jaiki zaitezte, goazen! Hurbil da ni salduko nauena».

Lotu ezazue eta eraman kontuz.

C. Artean hizketan ari zela, han azaldu zen Judas, Hamabietako bat, eta harekin jendetza handia, ezpatak eta makilak eskuetan ziztuztela, apaizburuek, lege-maisuek eta zaharrek bidalita. Saltzaileak ezaupide hau emana zien: **S.** «Nik musu emango diodana, hura da; lotu ezazue eta eraman kontuz». **C.** Iritsi bezain laster, harengana hurbildurik, esan zion: **S.** «Maisu!» **C.** Eta musu eman zion. Haiek, berriz, eskuak erantsi zizkieten, eta lotu zuten. Baina han zegoen ba-

tek ezpata atera, apaiz nagusiaren morroia jo eta belarria moztu zion. Jesusek esan zien: † «Lapur batengana bezala etorri zarete, ezpata eta makilekin, ni harrapatzera. Egunero zuen artean izaten ninduzuen jauretxean irakasten, eta ez ninduzuen bahitu. Baina bete bedi Liburu Santuak dioena». **C.** Orduan, Jesus bakarrik utzirik, denek ihes egin zuten. Gazte bat atzetik zihoakion, izara bat beste jantzirik ez zuela, eta eskua erantsi zioten; baina hark, izara utzi eta larrugorrian ihes egin zuen.

Zu al zara Mesias, Jainko bedeinkatuaren Semea?

Apaiz nagusiaren etxera eraman zuten Jesus, eta han bildu ziren apaizburuak, herriko zaharrak eta lege-maisuak. Pedrok, urrutitik, apaiz nagusiaren jauregi barruraino jarraitu zion, eta han eseri zen, morroiekin batean, su ondoan berotzen. Apaizburuak eta Batzar osoa Jesusen kontra gezurrezko testigantza baten bila zebiltzan, hura heriotzara eramateko, baina ez zuten aurkitzen. Asko ziren haren aurka gezurrezko testigantza egiten zutenak, baina aitormenak ez zetozen bat. Batzuek, jaikita, haren kontra aitormen hau egin zuten: **S.** «Guk entzun diogu honi esaten: “Nik xehatuko dut giza eskuz egindako jauretxe hau, eta hiru egun barru eraikiko, giza eskuz egina ez den beste bat”». **C.** Baina honetan ere ez zetozen bat haien testigantzak. Orduan apaiz nagusia erdi-erdian zutik jarri zen eta galdera hau egin zion Jesusi: **S.** «Ez al duzu ezer erantzun behar? Zer da, horiek zuretzat dioten hori?» **C.** Jesus isilik zegoen eta ez zuen ezer erantzuten. Berrito apaiz nagusiak galdetu zion: **S.** «Zu al zara Mesias, Jainko bedeinkatuaren Semea?» **C.** Jesusek erantzun: † «Neu naiz, eta ikusiko duzue Gizonaren Semea Ahalguztidunaren eskuinaldean jartzen, eta zeruko hodeien artean etortzen». **C.** Orduan apaiz nagusiak soinekoak urratu zituen, esanez: **S.** «Ba al dugu beste testiguren beharrik? Entzun duzue biraoa. Zer deritzozue?» **C.** Guztiek heriotza merezi

Erramu IgandeaSan Konstantino, *abadea*.Santa Gladys, *erregina*.

zuela erabaki zuten. Eta batzuk listua botatzen hasi zitzaizkion eta, aurpegia estaliz, masailekoak ematen zizkieten, esanez: **S.** «Egizak profetarena». **C.** Zaintzaileek ere masailekoka hartu zuten.

Ez dut ezagutzen, zuek diozuen gizon hori!

Pedro behean atarian zegoela, apaiz nagusiaren neskame bat etorri zen eta, Pedro berotzen ikusirik, begira-begira jarri eta esan zion: **S.** «Zu ere Nazaretoko Jesusekin ibiltzen zinen». **C.** Eta hark ukatu egin zuen: **S.** «Ez dakit, eta ez dut ulertzen zer diozun!» **C.** Etxe aurrera, kanpora, atera zen, eta oilarrak jo zuen. Neskameak, ikusi zuenean, esan zien, berriro ere, han zeudenei: **S.** «Hau haietakoa da». **C.** Baina hark ukatu egin zuen berriz ere. Handik berehala, han zeudenek ere hau zioten: **S.** «Inondik ere, zu horietakoa zara; galilearra zara, gainera». **C.** Baina hura madarikatzen eta zin egiten hasi zen: **S.** «Ez dut ezagutzen zuek diozuen gizon hori!» **C.** Berehala, oilarrak bigarren aldiz jo zuen. Orduan Jesusek esana gogoratu zitzaion Pedrori: «Oilarrak bi aldiz jo baino lehen, zuk hiru aldiz ukatuko nautzu». Eta kanpora atera eta negarrari eman zion.]

Nahi al duzue, juduen erregea askatzea?

Eguna argitu zuenean, apaizburuek, herriko zaharrek, lege-maisuek eta Batzar osoak antolatu zuten beren asmoa eta, lotuta harturik, Pilatoren esku utzi zuten. Pilatok galdetu zion: **S.** «Zu juduen errege al zara?» **C.** Eta Jesusek erantzun: † «Zeuk diozu». **C.** Apaizburuak salatu eta salatu ari ziren. Pilatok berriro: **S.** «Ez al duzu ezer erantzun behar? Begira zenbat salakuntza egiten duten zuretzat». **C.** Baina Jesusek ez zuen ezer erantzuten, eta Pilato harrituta zegoen. Preso bat askatu ohi zien Festaburuan, herriak eskatzen zuena. Bazegoen espetxean Barrabas izeneko bat, matxinadan heriotza bat egin zuten gaizkileekin batean. Igo zen jendea, eta ohiturazko barkamena ema-

teko eskatzen hasi ziren. Pilatok erantzun zien: **S.** «Nahi al duzue juduen erregea askatzea?» **C.** Bai baitzekien bekaitzez ekarri ziotela apaizburuek. Baina apaizburuek herria berotu zuten, Barrabas aska zezala eskatzeko. Pilatok berriro: **S.** «Eta zer egin behar dut, juduen errege esaten diozuen horrekin?» **C.** Haiek berriz ere deiadarka: **S.** «Josi gurutzean!» **C.** Baina Pilatok: **S.** «Zer oker egin du, bada?» **C.** Eta haiek deiadar handiagoz: **S.** «Josi gurutzean!» **C.** Pilatok, orduan, herriari atsegin eman nahiz, Barrabas askatu zien, eta Jesus, zigortu ondoren, haien esku utzi zuen gurutzean josteko.

Arantzaz egindako koroa ipini zioten.

Gudariak jauregi barrura –auzitegira– eraman zuten, eta han bildu zuten gudari-talde osoa; jantzi zuten estalki gorritz, eta arantzaz egindako koroa ipini zioten. Eta agurka hasi zitzaizkion: **S.** «Agur, juduen errege!» **C.** Eta kanaberaz buruan jo eta listua botatzen zioten, eta, belaunikaturik, gurtu egiten zuten. Isekak bukatutakoan, kendu zioten estalki gorria, bere soinekoak jantzi, eta gurutzean jostera eraman zuten.

Golgota deritzan lekura eraman zuten Jesus.

Handik barrena –sorotik etxe aldera– zihoan Simon izeneko zirenear bat, Alexandroren eta Ruforen aita, eta gurutzea eramatera behartu zuten. Golgota –hau da, Buru-hezurtegi– deritzan lekura eraman zuten Jesus.

Gaizkileen pareko egin zuten.

Mirraz nahasturiko ardoa eman zioten edateko; baina Jesusek ez zuen hartu. Gurutzean josi zuten, eta txotx egin zituzten haren jantziak, zer norentzat. Goizerdia zen gurutzean josi zutenean; haren

Erramu IgandeaSan Konstantino, *abadea*.Santa Gladys, *erregina*.

hoben-agirian, hau zegoen idatzia: JUDUEN ERREGEA. Harekin batean bi gaizkile josi zituzten gurutzean: bata eskuinean eta bestea ezkerrean. Horrela bete zen Liburu Santuak dioena: «Gaizkileen par-reko egin zuten».

Besteak, bai, salbatu horrek; eta bere burua ezin salbatu!

Handik igarotzen zirenek iseka egiten zioten, buruari eraginez eta esanez: **S.** «Hi!, jauretxea xehatu eta hiru egun barru berriro erakitzen huen horrek, salba ezak heure burua! Jaitsi hadi gurutzetik!» **C.** Apaizburuek ere, lege-maisuekin batean, burla egiten zioten, esanez: **S.** «Besteak, bai, salbatu horrek, eta bere burua ezin salbatu! Mesias eta Israelgo errege, noski! Jaitsi dadila orain gurutzetik, ikusi eta sinets dezagun». **C.** Harekin batean gurutzean zeudenek ere iseka egiten zioten.

Jesusek, deiadar handi bat eginez, azken arnasa eman zuen.

Eguerdian lurralde hura guztia ilunpean gelditu zen, arratsalde erdia arte. Eta arratsalde erdian Jesusek oihu handiz esan zuen: † «Eloi, Eloi, lema sabaktani». **C.** –hau da, † «Ene Jainko, ene Jainko, zergatik utzi nauzu eskutik?»–. **C.** Han zeuden batzuek, hau entzutean, zioten: **S.** «Eliasi deika ari da». **C.** Eta batek lasterka joan, belaki bat ozpinetan busti eta, kanabera-muturrean jarri eta edateko eman zion, esanez: **S.** «Utziozue; ikus dezagun, ea etortzen zaion Elias, gurutzetik jaistera». **C.** Eta Jesusek, deiadar handi bat eginez, azken arnasa eman zuen.

(Hemen, belauniko jarri eta egonalditxo bat egiten da).

Jauretxeko oihala erdibi egin zen goitik beheraino. Jesusen aurrez aurre zegoen gudari-ehuntariak, berriz, era horretan hil zela ikus-

Erramu Igandea

San Konstantino, *abadea*.Santa Gladys, *erregina*.

tean, esan zuen: **S.** «Gizon hau, benetan, Jainkoaren Semea zen». **C.** Bazeuden han, urrutitik begira, emakume batzuk ere; haien artean, Maria Magdalena, Santiago gaztearen eta Joserren ama Maria, eta Salome –Jesus Galilean ibili zenean, laguntzaile eta zerbitzari izaten zituenak–, eta beste emakume asko, harekin batean Jerusalemara igo zirenak.

Josek izaran bildu eta harkaitz bizian zulatutako hilobi batean ipini zuen.

Ilunabarrean, Prestaera Eguna, larunbat-bezpera, zelako, etorri zen Arimateako Jose –Batzarreko gizon argia, Jainkoaren erreinua itxaro zuena bera ere–, eta ausardiaz Pilatogana joan zen, Jesusen gorpua eskatzera. Harritu zen Pilato, ordurako hila zelako, eta, ehuntariari dei eginez, aspaldi hil al zen galdetu zion. Ehuntariaren erantzuna jakin zuenean, utzi zion gorpua Joseri. Honek, izara bat erosi eta, gurutzetik jaitsirik, izaran bildu zuen, harkaitz bizian zulatutako hilobi batean ipini eta, hilobiko sarreran, harri biribil bat ezarri. Maria Magdalena eta Joserren Maria begira zeuden non jartzen zuten.

Soldaduek barre dagite Jesusen kontura: arantzas koroatu dute, eta purpurazko mantuaz estali. Aupa, juduen erregea! Jendeak ikuskari, jolasaldi bihurtu du zuzengabekeria. Toleratu bakarrik ez; barez hartu dute. Gizon biluzi, babesik gabe, xehatu eta hautsi hori Betleemen jaio zen haur hura da, Jainkoak maite duen pertsonaren eredia. Begira nola utzi dugun beraren kideok.

Jendetza ez da bigundu zuzengabekeria izugarria ikustean, ez da aldatu irizpidez. Funtzioak jarraitzea nahi du, ikuskari gehiago. Gurutziltzatu!, ez dugu nahi horrelako gizonik. Baina hauxe da gure

Erramu IgandeaSan Konstantino, *abadea*.Santa Gladys, *erregina*.

erregea, errege isekatua... inork defenditzen ez duena... Ez du ezer, beren esku dute, harekin nahi eta gura dutena egiteko, iraintzeko, txantxak eta bromak egiteko...

Nahi al duzu parte hartu haren jarraitzaileen taldean? Izena eman nahi? Ala ezkutatu egin nahi duzu, koldar, jendetzaren artean, isiltzeko edo hots egiteko: Hori ez da gure erregea?

Zer egin duzu Kristogatik? Zer ari zara egiten Kristogatik? Besoak tolestu ala gaur eguneko gurutziltzatuak gurutzetik jaitsi? Beste hil dituztenak edota nire laguntzarekin hil dituztenak?

* * *

ARGI ETA BIDE
(Dietrich Bonhoeffer)

Iluna da nigan nagusi,
baina zugan argia da;
bakarrik nago,
baina zuk ez nauzu uzten;
lagunik gabe nago,
baina laguntza dut nik zugan;
larri nago,
baina bakea dut nik zugan;
atsekabeak nau dominatzen,
baina zuk pazientzia duzu zeugan;
ez ditut ulertzen zure bideak,
baina zuk ezaguna duzu niretzat bidea.

Aste Santua.

San Joan Klimako, *abadea*.Santa Irene, *martiria*.

[Isaias 42,1-7: *Ez da deiadarka ariko, ez du kaleetan entzunaraziko bere mintzoa. Sal 26: Jauna dut argi eta salbamen.*]

† Jesu Kristoren Ebanjelioa San Joanen liburutik 12,1-11.

Pazkoa baino sei egun lehenago, Betaniara etorri zen Jesus; han bizi zen Lazaro, Jesusek hilen artetik piztu zuena. Otordu bat eman zioten han; Marta zen zerbitzaria, eta Lazaro bazkaldarretako bat. Mariak, libra bat nardo jatorrezko usain-gozodun gantzua, balio handikoa, harturik, oinak gantzutu zizkion Jesusi, eta bere ile-adatsez xukatu. Eta etxe guztia usain gozoz bete zen. Ikasleetako batek, salduko zuen Judas Iskariotek, esan zuen: «Zergatik ez da saldu usain-gozodun gantzua hori hirurehun denarioan, behartsuei emateko?» (Hori esan zuen, ez behartsuen axolaz, lapurra zelako baizik, eta poltsa bere gain izanik, hara botatzen zutenetik beretzat hartzen zuelako). Eta Jesusek esan zuen: «Utzioguzue, gorde dezala gantzua hori nire hilobiratze-egunerako. Behartsuak, izan ere, beti izango dituzue zeuekin; ni, ordea, ez nauzue beti izango». Judu askok jakin zuen han zegoela, eta etorri ziren; ez Jesusengatik bakarrik, baita hildakoen artetik piztu zuen Lazaro ikusteagatik ere. Apaizburuek Lazaro ere hiltzea erabaki zuten, judu askok, hura zela eta, haiengandik alde egiten baitzuten eta Jesusengan sinesten.

Nahiago izaten dugu besteren etxean burruntzalia sartu, geurean erratza erabili baino. Pobreez oroitu, bestek firin faran gatatzen dutenean oroitzen gara. Edota inolako kontzientzia-eskrupulurik gabe eta gorputzak jasan ahal guztian bizi direnen jarrera gaitzesteko. Eta ez diogu erreparatzen geure diru-goseari, geure metatu nahi itsuari, geure jarrera egoista eta ego-zaleari, premian direnekiko geure sentiberatasun-ezari.

Judasen antzeko gara: besteren xahutzeak salatu eta geure edalontziaren barnea garbitu ez. Apostolu saltzailea eta, Mariaren anaiak bizitza berreskuratu izanaz poztu ordez, Lazarori bizitza emateaz kezkatzen diren juduak bezain hipokrita eta gaizto gara.

Aste Santua.

San Amos, *profeta*.Santa Balbina, *birjina*.

[Isaias 49,1-6: *Atzerritarren argi egiten zaitut, nire salbamena lurraren azken mugaraino irits dadin. Sal 70: Nire ahoak iragarriko du, Jauna, zure salbamena.*]

† Jesu Kristoren Ebanjelioa San Joanen liburutik 13,21-33.36-38.

Aldi hartan, Jesus ikasleekin mahaian zegoela, larritu zitzaion barrua, eta honela mintzatu zitzaian: «Egi-egiaz diotsuet: zuetako batek salduko nau». Ikasleek elkarri begiratu zioten, zeinengatik ari zen ez zekitela. Haietako bat, Jesusek hain maite zuena, Jesusen ondo-ondoan zegoen mahaian. Pedrok keinu egin zion, eta esan: «Galde iezaiozu zeinengatik ari den». Hark, Jesusen bular gainean etzanik, esan zion: «Zein da, Jauna?» Jesusek erantzun: «Ogi busti hau emango diodana, huraxe da». Eta ogia bustirik, Judasi, Simon Iskarioteren semeari, eman zion. Ogiarekin batera Satanas sartu zitzaion barrura. Orduan, Jesusek esan zion: «Egin behar duzuna, egizu berehala». Mahaian zeudenetatik inor ez zen ohartu, zer esan nahi zion horrekin. Judasek zuen diru-poltsa, eta batzuek uste izan zuten, jairako behar zena erosteko esan ziola Jesusek, edota behartsuei zerbait emateko. Judas, ogia hartu eta berehala atera zen. Gaua zen atera zenean; Jesusek esan zien: «Orain izan da goretsia gizonaren Semea, eta Jainkoa goretsia izan da harengan. (Jainkoaren aintza agertu baita harengan, Jainkoak berak agertuko du Gizonaren Semearen aintza, eta laster gainera). Ene semeok, oraintxe ez nago luzarorako zuekin. Nire bila ibiliko zarete eta, juduei esan niena, zuei esaten dizuet orain: “Ni noan tokira, zuek ezin zarete etorri”». Simon Pedrok esan zion: «Jauna, nora zoaz?» Jesusek erantzun: «Ni noan lekura, ezin zara orain nirekin etorri; gero bai, gero etorriko zara». Pedrok esan zion: «Zergatik ezin naiz orain zurekin joan? Nik neure bizia emango dut zuegatik». Jesusek erantzun: «Zeure bizia emango duzula nigatik? Egi-egiaz esaten dizut: Oilarrak jo baino lehen, hiru aldiz ukatuko nauzu».

Aste Santua.

San Amos, *profeta*.Santa Balbina, *birjina*.

Jesusek hiru atsekaberi egin behar izan zion aurre azken afa-rikoan: Judasen saldukeria, Pedroren hitz potoloak eta ikasleen baldintzarik gabeko atxikimenduaren sasi-keinuak. Batak saldu egin zuen, besteak uko egin zion eta gainerakoek utzi egin zuten. Seguru, Jaunari beren leialtasun hautsezina etengabe agertzen diotenetakoa naiz neu ere. Pedrok bezala: «Bizia emango dut zugatik». Baina aski izan zen Kaifasen zerbitzarien galdera, korrika kanpora joateko, Jesus ez zuela ezagutzen esan ondoren. Pedrok negar egin zuen, bai, baina ez zen itzuli patiora bere ukoa zuzentzeko. Ez ote dut nik gauza bera egiten egiaren orduan?

* * *

MAITASUN EGINTZA

(Xabierko Frantzisko santua, s.j.)

Oi ene Jainkoa! Maite zaitut nik;
eta ez zaitut maite salba nazazun,
edota infernuko suaz zigortzen dituzulako
maite ez zaituztenak.
Zeuk, zeuk, ene Jesus,
sutu duzu nire izate guztia gurutzean;
sufritu zenituen iltzeak, lantza,
lotsagabekeriak, milaka oinaze,
izerdia, larria eta heriotza:
eta hau guztia, nigatik eta ni bekatari honengatik.
Nolatan, beraz, ez zaitut maiteko,
oi Jesus maite-maitea?

Aste Santua.

San Amos, *profeta*.

Santa Balbina, *birjina*.

Ez, zerura eraman nazazun,
edota infernura galdu nazakezulako,
ez, sariren baten esperantzagatik;
baizik zuk maite nauzun bezala,
nik maite eta maiteko zaitudalako:
soilik, ene Erregea zarelako
eta, soilik, ene Jainkoa zarelako. Amen.

«Zuek ere elkarri oinak garbitu behar
dizkiozue»



AITA SANTUAREN ASMOAK

Orokorra: Jendeak ikas dezan kreazioa errespetatzen eta zaintzen, Jainkoaren dohain gisa.

Ebanjelizazioaren alde: Pertsegituak diren kristauek senti dezaten Jaun Berpiztuaren presentzia adore-emailea eta Eliza osoaren solidaritatea.

APIRILA / JORRAILA

Aste Santua.San Venantzio, *gotzaina*.Santa Teodora, *martiria*.

[Isaias 50,4-9: *Ez diet aurpegia saihestu irainei. Sal 68: Hain onbera baitzara, Jauna, entzun nazazu zure grazia-egunean.*]

† Jesu Kristoren Ebanjelioa San Mateoren liburutik 26,14-25.

Aldi hartan, Hamabietako batek, Judas Iskariote zeritzanak, apaiz-buruetara joan eta esan zien: «Zer emango didazue, Jesus eskura jartzten badizuet?» Haiek hogeita hamar zilar-diru agindu zioten. Judas, orduz gero, Jesus haiei eskura emateko egokiera bila zebilen. Ogi hilen lehenbiziko egunean, etorri ziren ikasleak Jesusengana, eta esan zioten: «Non prestatzea nahi duzu Pazko-afaria?» Jesusek erantzun zien: «Zoazte herri-
ra horrelakoagana, eta esan: “Hau dio Maisuak: hurbil da nire ordua; zure etxean ospatuko dut Pazkoa ikasleekin”». Jesusek esan bezala egin zuten ikasleek, eta prestatu zuten Pazko-afaria. Ilunabarrean, mahaian zegoen Jesus Hamabiekin. Eta jaten ari zirela, esan zien: «Benetan diotsuet, zue-
tako batek salduko nau». Ikasleak, atsekabeturik, galdezka hasi zitzaizkion banaka: «Ni al naiz, Jauna?» Hark erantzun: «Nirekin plater berean ogia busti duenak, horrek salduko nau. Gizonaren Semea badoa, hartaz idatzirik dagoen bezala; baina zoritxarrekoa Gizonaren Semea salduko duena! Gizon horrek hobe zukeen jaio ez balitz». Orduan, Judasek –salduko zue-
nak– galdetu zion: «Ni al naiz, Maisu?» Eta Jesusek: «Zeuk esan duzu».

Judasentzat, «auzi galdu bat» zen Jesus. Hari jarraitzeak ez zuen merezi. Ez zegoen prest Jesus bezala bizitzeko: zerupean, etxe jakinik gabe, behartsuez, gaixoez eta jende galduaz inguratutik. Jesusi –pentsatu bide zuen– oinak lurtean izatea eta errealitatearen sena falta zitzaizkion. Haren jarduerak porrota izan dezake ondorio, barregarri izatea eta heriotza; besterik ez. Beraz, jo dezadan onuraren baten bila, galdu dudan denbora erremediatzeko. Ezin diot alde egin Jesusi esku hutsik eta zoro-itxuran.

Zer?, Jesusengan sinetsi bai, baina haren bizieran ez? Azti gero, Judasena gerta dakidake.

§ Irteera liburutik 12,1-8.11-14.

Egun haietan, Jaunak esan zien Moisesi eta Aaroni Egipto aldean: «Hil hau izango duzue hilik handiena; urtearen lehenengo hila izango duzue. Esaiozue Israel herri osoari: “Hil honen hamarrean, guztiok bildots bana hartuko duzue, familia bakoitzak eta etxe bakoitzak berea. Eta bildotsa jateko familiakoak aski ez badira, deitu auzokoari eta bildu behar adina lagun; bakoitzak bere zatia jango du, guztia bukatzeraino. Bildotsa, akatsik gabea izango da, aharikoa, urtekoa, arkume nahiz antxume. Bizirik edukiko duzue hilaren hamalaua arte, eta israeldar guztiek ilunabarrean hilko dute. Odola hartu, eta igurtziko dituzue jan duzuen etxeko atearen bi zutoinak eta ate-gaina. Gau hartan, suan errea jango duzue haragia, eta ogi legamia-gabea eta barazki garratzak. Eta era honetan jango duzue: gerria lotuta, oinetakoak jantzita, makila eskuan; ahal duzuen lasterrenik jango duzue: Pazkoa baita, hau da: Jaunaren Igarotzea. Gau hartan ni Egiptoko lurraldetik igaroko naiz, eta Egipto lurraldeko lehenume guztiak hilko ditut, bai gizonetan, bai abereetan, eta Egiptoko jainkoei berena emango diet. Ala ni Jauna! Zaudeten etxeetan, odola izango da zuen ezaugarri. Odola ikustean, aurrera igaroko naiz, eta ez da zuenean herio-zigorrik izango, nik Egiptoko lurraldea jotzean. Egun hau oroigarri izango duzue eta jai handi egingo diozue Jaunari zeuen belaunaldietan; betiko jai-egun egingo duzue”».

[Sal 115: *Esker onezko kalizak Kristoren odolean elkartzen gaitu.*]

§ Paulo Apostoluak 1 korintoarrei 11,23-26.

Senideok: Jaunagandik harturik daukat nik, neuk zuei eman ditudan hau: Jesus Jaunak, saltzekoa zen gauean, ogia hartu eta, esker otaitza eginda, zatitu zuela eta esan: «Hau nire gorputza da, zuentzat ematen dena. Egizue hau nire oroigarri». Era berean, kalizarekin ere

Aste Santua.

Bideko Andre Maria.

San Frantzisko Paulakoa, *ermitaua*.

afal ondoan, hitz hauek esanez: «Kaliza hau itun berria da nire odoletan; egizue hau, edaten duzuen bakoitzean, nire oroigarri». Beraz, ogi honetatik jaten eta kaliza honetatik edaten duzuen bakoitzean, Jaunaren heriotza adierazten duzue, bera etorri arte.

† Jesu Kristoren Ebanjelioa San Joanen liburutik 13,1-15.

Pazko-jaiaren aurrean, ikusi zuen Jesusek etorria zuela mundu honetatik bere Aitagana joateko ordua, eta, munduan zeuden bereak maite izanik, azkeneraino maitatu zituen. Afaltzen ari ziren. Ordurako etsaiak buruan sartua zion Simon Iskarioteren seme Judasi Jesusi saldukeria egitea. Jesusek, jakinik Aitak gauza guztiak eskura eman zizkiola, Jainkoagandik zetorrela eta Jainkoagana zihoala, mahaitik jaiki, soingainekoa erantzi eta, eskuzapi bat harturik, gerrian lotu zuen; gero, ontzi bat urez bete, eta ikasleei oinak garbitzen hasi zitzaien, eta gerrian zuen esku-zapiatz lehortzen. Pedrogana iritsi zenean, honek esan zion: «Jauna, zuk niri oinak garbitu?» Eta Jesusek: «Zuk ez dakizu orain ni egiten ari naizena; geroago ulertuko duzu». Pedrok: «Zuk ez didazu niri behin ere oinik garbituko». Eta Jesusek: «Garbitzen ez bazaitut, ez duzu zerikusirik izango nirekin». Simon Pedrok orduan: «Jauna, ez oinak bakarrik, baita eskuak eta burua ere». Jesusek erantzun: «Garbitua hartu duenak, ez du zertan garbi oinak besterik, erabat garbi baitago. Zuek ere garbi zaudete, baina ez guztiok». Bai baitzekien zeinek salduko zuen; horregatik esan zuen: «Ez zaudete garbi guztiok». Oinak garbitu zizkienean, soingainekoa hartu, berriro mahaian eseri eta esan zien: «Ba al dakizue zer egin dizuedan? Zuek Maisu eta Jaun esaten didazue, eta ongi esana, hala naiz-eta. Maisu eta Jaun izanik, oinak garbitu badizkizuet, zuek ere elkarri oinak garbitu behar dizkizue; jarraibide eman dizuet, nik zuei egin dizuedana, zuek ere egin dezazuen».

Ez zen izan hura, ez lan-otordu bat, ez negozio- edo konpromiso-otordu bat, baizik familia-afari bat, lagun artekoa. Arrazoi osoaz esaten diogu «Azken Afaria»; izan ere, bere bizitza osoan barna Jesusek egin zuen otordu- eta afari-sail baten azkena izan zen. Hasia da Erreinua. Eta Jesusek, besteekin mahaian eseri izan den guztietan, jada presente den errealitate bezala bizi eta ospatu izan du Erreinua.

Adiskide minekin egindako otordu baten giroaz baliatu izan da Jesus, jarraitzaileek Jainkoaren hurbiltasun adiskidetsu eta errukitsua senti dezaten. Otordu horietan jende-mota honek hartu izan du parte: behartsu, bekatari, baztertu, marjinatu, mespretxatu. Otordu horiek zirela-eta «tripazain, mozkor, zerga-biltzaileen eta bekatarien adiskide» izena ezarri zioten.

Joera handia agertu izan du Jesusek, jendeari hitz egitean, Jainkoaren Erreinua jai-otorduekin konparatzeko. Erreinu horren azken garaipen handia ez da izango parada militar bat, ezta garaileen jai bat ere garaituak umilarazteko, baizik mahai bat, egundoko mahai handi bat, non eseriko baitira Abraham, Isaak, Jakob... herri guztiak, gizadi osoa.

Baina ezin eseriko da han bere anaia edo arreba maite ez duena eta gainerakoei oinak garbitzeko prest ez dagoena edota norberari garbitzen uzteko prest ez dagoena.

* * *

Aste Santua.

Bideko Andre Maria.

San Frantzisko Paulakoa, *ermitaua*.**JANARI DA NIRE GORPUTZA***(Pedro Casaldáliga)*

Nire eskuek, esku horiek eta zure eskuek / Keinu hori degigu,
partekatuz / mahaia eta zoria, haurride bezala. / Bizia zure heriotzan
dugu eta zuren bizitzan.

Bat eginik ogian ale asko, / ikasiz joanen gara izaten / Jainkoaren
Hiri batua, gizakien Hiria. / Zu janez jakinen dugu janari izaten.

Beste haien zainetako ardoak probokatzen gaitu. / Haiek ez duten
ogiak dei digu egiten / zurekin haien egunean eguneko ogi izatera.

Zu oroitzearen argian dei eginda, / Erreinurantz goaz Historia
gauzatuz, / anai-arreba arteko Eukaristia iraultzailea.

§ Isaias Profetaren liburutik 52,13–53,12.

Hara, nire zerbitzaria aurrera aterako da; handia egingo da eta goratua izango. Asko hartaz ikaraturik gelditu baziren ere –hartaraino baitzuen giza itxura galdu, eta gizona zenik ere ez baitzuen irudi–, gero harriturik geldituko dira herri asko, eta erregeak haren aurrean hitzik gabe geldituko dira, egundaino esan ez zena ikustean, eta entzun ez zena begiratzean. Nork sinetsi du guk esandakoa? Nori agertuko zaio Jaunaren besoa? Kimua bezala hazi zen haren aurrean; zuztarra lur lehorrean bezala, ederrik eta giza antzik gabe ikusi genuen eta itxura atseginik gabe, barregarri eta gizonetan azkeneko eta oinaze-gizon egina, nekeen berri dakiena, ezikusia egiten zaienetakoa, gaitzetsia eta baztertua. Gure nekeak hartu zituen hark eta gure minak eraman. Lepraduntzat geneukan, Jaungoikoak joa eta lotsarazia. Gure bekatuengatik alderik alde zulatua; gure gaiztake-riengatik txikitua. Haren gainera erori zen guri bakea ematen digun zigorra; haren zauriek sendatu gaituzte. Gu denok, ardi galduak ginen, bakoitza bere bidetik, eta Jaunak haren gainean ezarri zituen gu guztion txarkeriak. Gaizki zerabilten, baina bera makurtu egin zen, eta ez zuen ahoa ireki. Harategira daramaten arkumea bezala, ile-moztaileen aurrean ardia bezala, isilik egon zen, ahoa ireki gabe. Zuzengabeko auzitan galdu zuten. Nork hartu zuen aintzakotzat haren etorkizuna? Bizidunen lurretik kendu egin zuten; nire herriaren bekatuengatik hil zuten. Gaizkileen artean lur eman zioten, eta bekatariekin haren hilobia; nahiz eta berak bidegabekeriarik ez egin, eta haren ahotik gezurrik ez jalki. Jaunak nekeetan lehertu nahi izan zuen. Bere bizia ordain ematen badu, izango du ondorengo ugari, luzatuko zaizkio egunak, beteko da Jaunaren nahia haren bitartez. Bere oinazeen sari, ikusiko du argia eta aseko da. Jasan duenaren bidez, nire zerbitzariak zuzentasuna emango dio askori, haien hutsegiteak

Aste Santua.*San Sixto 1.a., 7. aita santua.*

bere gain hartuz. Horregatik, jendetzak emango dizkiot nik bere parte, giza taldeak izango ditu harrapakin; heriotzara eman baitzuen bere burua, eta bekatarizat hartu baitzuten. Bere gain hartu zituen askoren hutsegiteak, eta bitarteko izan zen bekatarientzat.

[Sal 30: *Aita, zure eskuetan uzten dut neure espiritua!*]

§ Hebrearrei gutunetik 4,14-16;5, 7-9.

Senideok: Jesus, Jaungoikoaren Semea, dugu zeruetan sartu zen apaiz nagusi handia; eutsi diezaiogun, beraz, sinesmen-aitormenari; gure apaiz nagusia ez baita gure ahuleriaz erruki ez daitekeen norbait, baizik gure antzera gauza guztietan aztertua, baina bekatutik garbia. Goazen, beraz, uste osoz, graziaren aulkira, errukia iritsi eta behar orduko laguntza emango digun mesedea aurki dezagun. Kristok, haragizko bere bizitzaldian, heriotzatik gorde zezakeenari, deia-dar handiz eta negarrez, otoitzak eta eskariak egin zizkion, eta bere begiruneagatik entzun egin zioten. Eta Semea izanik ere, bere neke artean ikasi zuen esaneko izaten, eta, bere betera iritsirik. haren esaneko direnentzat betiko salbamen-iturri egin zen.

† Jesu Kristo gure Jaunaren Nekaldia San Joanen liburutik 18,1–19,42.

Getsemanin, Jesus hartu eta lotu.

C. Aldi hartan, Jesus Zedrongo erreka beste aldera atera zen bere ikasleekin. Bazen han baratze bat, eta hantxe sartu zen ikasleekin. Judas saltzaileak ere bazuen leku haren berri, maiz joaten baitzen hara Jesus ikasleekin. Judas, orduan, apaizburuen eta fariseuen morroi-talde bat eta zaintzaile batzuk harturik, han sartu zen argiontzi, zuzi eta armekin. Jesusek –ondo baitzekien zer zetorkion gainera– bidera atera eta esan zien: † «Noren bila zatozte?» **C.** Eta haiek:

S. «Nazareteko Jesusen bila». **C.** Eta Jesusek: † «Ni naiz». **C.** Han zetorren, haiekin batean, Judas saltzailea ere. «Ni naiz» esan zienean, atzeraka-atzeraka lurrera erori ziren. Jesusek galdetu zien berriz ere: † «Noren bila zatozte?» **C.** Eta haiek: **S.** «Nazareteko Jesusen bila». **C.** Jesusek erantzun: † «Esan dizuet ni naizela. Nire bila bazatozte, utziezue hauei joaten». **C.** Horrela bete zen berak esandakoa: «Zuk nire ardurapean utzi zenizkidanetatik, ez dut inor galdu». Orduan, Simon Pedrok, zeraman ezpata atera eta apaiz nagusiaren morroia jo zuen, eta eskuineko belarria moztu zion. Morroi honek Malko zuen izena. Jesusek esan zion Pedrori: † «Sar ezazu ezpata zorroan. Ez al dut, bada, edan behar Aitak eman didan kaliza?»

Jesus Anasenera eraman zuten lehenengo.

C. Gudari-taldeak, haien agintariek eta juduen morroiek hartu zuten Jesus eta, loturik, Anasenera eraman zuten lehenengo; Anas hori Kaifasen aitagarreba baitzen, eta Kaifas bera urte hartako apaiz nagusia; Kaifas zen, gainera, juduei harako aholku hura eman ziena: «Hobe da gizon bakarra hiltzea herriarengatik». Simon Pedro eta beste ikasle bat Jesusen atzetik zihoazen. Beste ikasle hori apaiz nagusiaren ezaguna zen, eta Jesusekin batean apaiz nagusiaren jau-regian sartu zen; Pedro, berriz, atarian gelditu zen. Atera zen beste ikasle hori, apaiz nagusiaren ezaguna, alegia, hitz egin zion neskame-atezainari, eta Pedro barrura sarrarazi zuen. Neskame atezainak esan zion Pedrori: **S.** «Ez ote zara zu ere gizon horren ikasle?» **C.** Eta Pedrok: **S.** «Ez! Ni ez!» **C.** Morroiak eta zerbitzariak sua piztu eta berotzen ari ziren –hotz baitzen–. Pedro ere hantxe zegoen bestee-kin batean zutik, berotzen. Apaiz nagusiak, bere ikasleen eta bere irakaspenen galdera egin zion Jesusi. Eta Jesusek erantzun: † «Nik mundu guztiaren aurrean hitz egin izan dut; sinagogan eta jauretxean, judu guztiak biltzen diren lekuan irakatsi dut nik beti, eta ezkutuka

Aste Santua.*San Sixto I.a., 7. aita santua.*

ez dut ezer esan. Zergatik galdetzen didazu niri? Galde iezaiezu nire entzuleei, zer esan diedan. Berek dakite nik esandakoa». **C.** Hori esan bezain laster, han zegoen morroi batek masaileko bat eman zion, esanez: **S.** «Horrela erantzuten al diozu apaiz nagusiari?» **C.** Eta Jesussek: † «Gaizki hitz egin badut, esadazu zertan; baina ongi hitz egin badut, zergatik jotzen nauzu?» **C.** Orduan, Anasek Kaifas apaiz nagusiagana bidali zuen Jesus lotuta.

Zu ere ez al zara horren ikasleetakoa? Ez! Ni ez!

Han zegoen zutik Simon Pedro berotzen, eta esan zioten: **S.** «Ez al zara zu ere horren ikasleetakoa?» **C.** Pedrok ukatu zuen, esanez: **S.** «Ez! Ni ez!» **C.** Apaiz nagusiaren zerbitzari batek –Pedrok belarria moztu zionaren ahaide batek– esan zion: **S.** «Ez ote zaitut, bada, neuk ikusi harekin baratzean?» **C.** Pedrok berriz ere ukatu zuen, eta berehala jo zuen oilarrak.

Nire erregetza ez da mundu honetakoa.

Kaifasen etxetik auzitegira eraman zuten Jesus. Eguna argitzen hasi zuen, eta haiek ez ziren auzitegian sartu, beren burua ez kutsatzeagatik, Pazko-afaria egin ahal izateko. Atera zen Pilato haiek zeuden lekuraino, eta esan zien: **S.** «Zer salakuntza dakarzue gizon honentzat?» **C.** Eta haiek: **S.** «Gaizkile ez balitz, ez genizuke ekarriko». **C.** Eta Pilatok: **S.** «Eramazue zeuekin, eta epaitu zeuen Legez». **C.** Juduek orduan: **S.** «Guk ez dugu inor hiltzeko eskubiderik». **C.** Horrela bete zen Jesussek aldeztu aurretik esandakoa, nolako heriotzaz hilko zen, alegia. Sartu zen berriz Pilato auzitegira, Jesusi deitu eta esan zion: **S.** «Zu juduen errege al zara?» **C.** Jesussek erantzun: † «Zeure buruz galdetzen al didazu hori, ala besteren batek esan dizu niretzat?» **C.** Pilatok: **S.** «Judua ote naiz, bada, ni? Zure herritarrek eta apaizburuek ekarri zaituzte nigana; zer egin duzu?» **C.** Jesussek

orduan: † «Nire erregetza ez da mundu honetakoa. Mundu honetakoa izango balitz nire erregetza, nire zaintzaileek gogor egingo lukete, ni juduen esku geldo ez nendin. Nire erregetza, ordea, ez da hemengo». **C.** Pilatok: † «Errege zara, beraz?» **C.** Jesusek erantzun: † «Zeuk diozu: errege naiz. Horretarako jaioa naiz, eta horretarako etorria mundura: egiari aitormen egiteko. Egiarena denak entzuten du nire hitza». **C.** Pilatok orduan: **S.** «Zer da egia?» **C.** Hori esanda, berriz ere juduengana atera eta esan zien: **S.** «Nik ez diot errurik aurkitzen gizon honi. Baina ohitura da zuen artean Pazkoan gaizkile bat askatzea: Nahi al duzue juduen erregea askatzea?» **C.** Haiek, berriz, deidarka: **S.** «Ez hori, baizik Barrabas». **C.** (Barrabas hau lapurra zen).

Agur, juduen errege!

Pilatok, orduan, Jesus hartu eta zigortzeko agindu zuen. Eta gudariek arantzazko koroa egin eta buruan ezarri zioten, eta sorbaldan gainean purpurazko soingainekoa jantzi eta, erdian harturik, esaten zioten: **S.** «Agur, juduen errege!» **C.** Eta masailekoka zerabilten. Atera zen Pilato berriz, eta esan zien juduei: **S.** «Hemen dakarkizuet berriz ere gizon hau, jakin dezazuen ez diodala errurik aurkitzen». **C.** Atera zen, bada, Jesus buruan arantzazko koroa eta sorbaldan purpurazko soingainekoa zuela. Eta Pilatok esan zien: **S.** «Hemen duzue gizona». **C.** Apaizburuak eta gudamutilak, hura ikustean, deidarka hasi ziren: **S.** «Josi hori! Josi gurutzean!» **C.** Pilatok, ordea: **S.** «Hartzazue, eta josi zeuek gurutzean; nik ez diot errurik aurkitzen». **C.** Juduek, orduan: **S.** «Guk badugu Legea, eta gure Legez heriotza merezi du, Jainkoaren Seme egin baitu bere burua». **C.** Pilato, hitz horiek entzutean, gehiago beldurtu zen eta, berriz ere auzitegira sarturik, honela mintzatu zitzaion Jesusi: **S.** «Nongoa zara zu?» **C.** Baina Jesusek ez zion erantzun. Pilatok orduan: **S.** «Ez al didazu ezer erantzun nahi? Ez al dakizu, badudala nik aginpide zu askatzeko, eta

Aste Santua.*San Sixto I.a., 7. aita santua.*

aginpide zu gurutzean josteko?» **C.** Jesusek: † «Ez zenuke nire gain horrelako aginpiderik izango, goitik eman ez balitzaizu. Horregatik, ni zure esku utzi nauenak, erru handiagoa du».

Ken hori, ken! Josi gurutzean!

C. Handik aurrera, Jesus askatu nahian zebilen Pilato. Baina juduak deiadarka hasi zitzaizkion: **S.** «Hau askatzen baduzu, ez zara Zesarren adiskide. Bere burua errege egiten duena, Zesarren aurka dago». **C.** Pilatok, hitz horiek entzutean, atera zuen Jesus berriz ere, eta auzi-aulkian eserarazi zuen, «Harri-solairu» deitzen zioten lekuan –hebreeraz, berriz, Gabbata–. Pazkorako Prestaera Eguna zen, eguerdi inguru. Eta Pilatok esan zien juduei: **S.** «Horra zuen erregea». **C.** Haiek deiadarka erantzun zioten: **S.** «Ken hori, ken! Josi gurutzean!» **C.** Eta Pilatok: **S.** «Zuen erregea gurutzean josi behar al dut?» **C.** Apaizburuek: **S.** «Guk ez dugu Zesar beste erregerik». **C.** Orduan haien esku utzi zuen Jesus, gurutzean josi zezaten.

Gurutzean josi zuten, eta harekin batean beste bi.

Hartu zuten Jesus eta, gurutzea sorbaldan zeramala, «Buru-hezurtegi» –hebreeraz, Golgota– izeneko lekura atera ziren. Han josi zuten gurutzean, eta harekin batean beste bi: bata alde batean eta beste bestean, eta erdian Jesus. Gurutze buruan idazkun bat ipintzeko agindu zuen Pilatok; hau zioen idazkiak: Jesus nazaretarra, juduen erregea. Judu askok irakurri zuen idazkuna, hiritik hurbil baitzegoen Jesus gurutzean jositako lekua, eta idazkuna hiru hizkuntzatan idatzi baitzuten: hebreeraz, latinez eta grekoz. Juduen apaizburuek esan zioten Pilatori: **S.** «Ez ipini “Juduen erregea”, baizik eta “Honek esan du: Juduen erregea naiz”». **C.** Baina Pilatok: **S.** «Idatzi dut, eta idatzirik dago».

Nire jantziak beren artean banatu zituzten.

C. Gudariak, Jesus gurutzean josi zutenean, haren jantziak hartu eta lau zati egin zituzten, gudari bakoitzarentzat zati bana; soinekoa, berriz, bere hartan utzi zuten. Josturarik gabea zen soinekoa, goitik behera erabat ehoa. Eta elkarri esan zioten: **S.** «Ez dezagun zatitu, baizik eta txotx egin dezagun, nori ateratzen zaion». **C.** Horrela bete zen Liburu Santuak dioena: «Nire jantziak beren artean banatu zituzten, eta nire soinekoa txotx egin zuten». Hori egin zuten gudariak.

Horra zeure semea. Horra zeure ama!

Jesusen gurutzearen oinean zeuden haren ama, amaren ahizpa – Kleofasen Maria– eta Maria Magdalena. Jesusek bere ama ikustean eta, han bertan, berak hain maite zuen ikaslea, esan zion amari: † «Andrea, horra zeure semea!» **C.** Eta gero ikasleari: † «Horra zeure ama!» **C.** Orduz gero, ikasleak bere etxean hartu zuen Maria.

Bete da dena.

Gero Jesusek, dena bete zela ikusirik, Liburu Santua bete zedin, esan zuen: † «Egarri naiz». **C.** Bazen han ozpinez betetako pitxar bat. Eta ozpinetan bustitako belaki bat kanabera-muturrean loturik, ezpainetara eman zioten. Ozpina hartu ondoren, esan zuen Jesusek: † «Bete da dena». **C.** Eta, burua makurturik, azken arnasa eman zuen.

(Hemen, belauniko jarri eta egonalditxo bat egiten da).

Odola eta ura atera ziren.

Juduek orduan, Prestaera Eguna zelako, gorpuak larunbatez gurutzean geldi ez zitezen –Larunbat hura egun handia baitzen–, bernahezurrak hautsi eta gorpuak handik kentzeko eskatu zioten Pilatori.

Aste Santua.*San Sixto I.a., 7. aita santua.*

Etorri ziren gudariak, eta Jesusekin batean gurutzean jositako lehenengoari eta besteari berna-hezurak hautsi zizkieten; Jesusengana iritsi zirenean, ordea, hila zegoela ikusirik, ez zioten berna-hezurrik hautsi, baizik eta gudari batek lantzaz saihetsa zulatu zion, eta berehala odola eta ura atera ziren. Ikusi zuenak berak aitortzen du hori, eta egiazkoa da haren aitormena; badaki egia dioela, zuek ere sinets dezazuen. Hori guztia, Liburu Santuak dioena bete zedin gertatu zen: «Ez diote hezurrik hautsiko». Beste leku batean, hau dio: «Ikusiko dute zulatu zutena».

Jesusen gorputza, usain gozoz gantzaturik, oihaletan bildu zuten.

Gero, Arimateako Josek –hura ere Jesusen ikaslea baitzen, nahiz ezkutuka, juduen beldurrez– Jesusen gorpua eramaten uzteko eskatu zion Pilatori; Pilatok eman zion baimena. Hark, orduan, joan eta eraman zuen Jesusen gorpua. Etorri zen Nikodemo ere –lehenengo aldiz Jesus ikustera gaez joan zena– mirraz eta aloezko nahastura batetik ehun bat libra zekarrela. Hartu zuten, beraz, Jesusen gorpua eta, usain-gozoz gantzaturik, oihaletan bildu zuten, juduen ehorzketan-ohitura den bezala. Jesus gurutzean jositako lekuan, bazen baratze bat, eta baratzean ordu arte inor ehortzi gabeko hilobi berri bat. Eta juduentzat Prestaera Eguna zelako, eta hilobia hurbil zegoelako, han bertan ipini zuten Jesus.

Akabo, Jesus, bukatu da dena. Azkena. Hor zaude, Jesus, hilik eta hobiraturik, bai horixe. Bukatu da oinazea, itzali da zure egarria. mututu da zure ahotsa. Bukatu da Nazareteko Jesusena.

Guztiek utzi zaituzte, zuri lur ematera ausartu diren gutxiak ere konbentziturik daude «Jesusena ur joana dela jada», hutsetik hasi beharra dutela berriro, ustearen azkena.

Guztiek ez, alabaina; zure amak badu bihotzean zerbait gordea. Bere, zure adiskideek eraman dute zure ama. Kontsolamendu- eta etsipen-hitzak dituzte ahopean, dolu-egunetan ezer askorako izaten ez diren hitzak. Diotsote gainean dela larunbata, igandean gantzu-tuko dutela, ez baitute ulertu artean Legea baino handiagoa dela kari-tatea. Hitz eta hitz ari dira, zure amari burutik pena kendu nahiz. Eta ama isilik. Hark badaki, «bere semearena» ez dela amaiera-puntu bat, baizik puntu eta jarrai dela. Hark badaki, isilik dago eta zain.

Jauna, zer dela-eta maite izan nauzu horrenbeste? Zer dela-eta egin duzu hau guztia negatibik, nik merezi gabe? Zer dut nik, zuk nire adiskidetasuna nahi izateko? Nolatan izan naiz eta naiz hain koldarra? Nolatan uko egin dizut Pedrok bezala? Nolatan, Jauna, nolatan?

Ez iezadazu erantzun. Ez ote, hain zuzen, nahikoa erantzun zure gorputz hori, hila eta ubeldua? Zuk argiago esatea behar ote dut?

Aste Santua.

PAZKO GAUBEILA.

San Benito Palermokoa, *erlijiosoa*.

§ Paulo apostoluak Erromatarrei 6,3-11.

Senideok: Bataioz Kristo Jesusi lotuak izan garenok, haren heriotzari lotuak izan gara. Bataioaren bitartez harekin heriotzan hobiratuak izan gara; Kristo hilen artetik Aitaren aintzaz piztua izan zen bezala, gu ere biziera berri batean ibil gaitezten. Izan ere, gure izatea harekin bat eginik baldin badago harena bezalako heriotzan, berdin egongo da harena bezalako piztueran ere. Ezagutu dezagun, gure antzinako gizakia Kristorekin gurutziltzatua izan dela, bekatuzko izaera hau ezereztua geldi zedin eta, horrela, gu geu bekatuaren morrontzatik askatuak izan gaitezten. Norbait hiltzen denean, bekatutik askatua gelditzen baita. Beraz, gu Kristorekin hil bagara, sinesten dugu, bizi ere harekin biziko garela; izan ere, badakigu, Kristo, hilen artetik piztu zenez gero, ez dela berriro hilko; heriotzak ez du harengan gehiago aginterik. Haren hiltzea, bekatuarentzat behin betiko hiltzea izan baitzen, eta haren bizitzea, Jaungoikoarentzat bizitzea da. Horrela, bada, zuek ere eduki ezazue zeuen burua bekatuarentzat hila bezala eta Jaungoikoarentzat bizia, Kristo Jesus gure Jaunagan.

[Sal 117: *Aleluia, aleluia, aleluia.*]

† Jesu Kristoren Ebanjelioa San Markosen liburutik 16,1-8.

Larunbat-biharamunean, Maria Magdalenak eta Santiagoren Mariak eta Salomek usain-gozodun gantzuak erosi zituzten Jesusen gorpua gantzutzeko asmoz. Eta, goizean goiz, astearen lehenengo egunean, eguzkia ateratzean, hilobira joan ziren. Eta elkarri ziotzoten: «Nork irauliko digu hilobi-sarrerako harria?» Begiratu, eta harria iraulirik ikusi zuten, handi-handia izanik ere. Eta barruan sartu zirenean, gazte bat ikusi zuten eskuinaldean eserita, soineko zuriz jantzia. Eta ikaratu ziren. Hark esan zien: «Ez ikaratu; Nazareteko Jesus gurutziltzatuaren bila al zatozte? Piztu da, ez dago hemen. Hona ehor-

tzi zuten lekua. Zoazte orain, eta esaiezue haren ikasleei eta Pedrori, aurretik doakiela Galileara. Han ikusiko dute, berak esan zien bezala». Haiak iheska atera ziren hilobitik, beldurraren beldurrez, eta ez zioten inori ezer esan, halakoa baitzen sartu zitzaien beldurra.

«**E**makume santuak» deitzen ditugun hauek etsenplu dira guztiontzat. Jesus urkamendian hilda, madarikatu bat bezala. Haren jarraitzaile ziren gizonezkoek ihes egin dute, Jesus gurutzera zeramatela jakin orduko. Haietako inork ez zien aurre egin etsaiei, Jesus defenditzeko. Erramu- eta palma-adarrei eraginez gogotik oihu egiten zuten haiek ere afoniko gelditu dira. Soilik, «emakume bedeinkatu» hauek izan dute adorea kalean Jesusi jarraitzeko, harresiez kanpo eta Kalbario mendian. Eta bihotza, jasateko gurutzearen oinean, agintari, herri eta soldaduen laido eta isekak.

Emakume hauek asmatu dute pazko-aleluia; izan ere, berauek aukeratu zituen Jainkoak Berri On handia ezagutzen lehenak izateko: Jesusek garaitu du heriotza eta guztiok piztuko gara Jesusekin.

Gau santu honetan, gauen gaua den honetan, errepika ezazu pozik, aingeruen abesbatzarekin: Piztu da! Nekatu gabe, errepikatu eta errepikatu; abestu, abestu aspertu gabe: Aleluia, piztu da Jauna. Ez nadila, Jauna, zure bila ibili hildakoen artean, baizik bizien artean!

Pazkoaldia.**Jaunaren piztuera.**

San Bizente Ferrer, apaiza.

§ Apostoluen Eginak liburutik 10,34a.37-43.

Egun haietan, Pedrok esan zuen: Badakizue zer gertatu zen, Galileatik hasi eta Judea osoan, Joanek erakutsitako bataioaren ondoren: Nazaretoko Jesusena, alegia, Jaungoikoak Espiritu Santuaren indarrez gantzutua, eta on egiten eta deabruak hartutako guztiak sendatzen igaro zena: Jaungoikoa harekin baitzegoen. Gu gara hark juduen lurretan eta Jerusalemen egindako guztien testigu. Haiek habe batetik zintzilikatu eta hil egin zuten. Baina, hirugarren egunean Jaungoikoak piztu egin zuen, eta agertzea eman zion; ez, ordea, herri guztia-ri, Jaunak lehendik aukeratutako testiguen baizik: guri, hura hilen artetik piztu ondoren, harekin jan eta edan genuenoi. Eta agindu zigun, herriari irakatsi geniezaiola eta aitortu, hura dela Jaungoikoak bizien eta hilen epaile ipini duena. Profeta guztiak egiten diote aitormen, harengan sinesten duten guztiak hartzen dutela, haren izenean, bekatu-ten barkamena.

[Sal 117: *Hau da Jaunak egin duen eguna, gu pozteko eta alaitzeko eguna.*]

§ Paulo Apostoluak Kolosarrei 3,1-4.

Senideok: Kristorekin berpiztu zaretenez gero, zabilzate goi-ondasunen bila, han baitago Kristo Jaungoikoaren eskuinaldean jarririk. Hil baitzarete, eta zuen bizia Kristorekin Jaungoikoagan ezkutaturik dago. Gure bizia den Kristo agertuko denean, zuek ere agertuko zaretete aintza betean.

† Jesu Kristoren Ebanjelioa San Joanen liburutik 20,1-9.

Astearren lehenengo egunean, Maria Magdalena hilobira joan zen goizean goiz, oraindik ilun zegoela, eta harria hilobitik kendua ikusi zuen. Lasterka batean, Simon Pedrogana eta Jesusek maite zuen bes-

te ikasle harengana joan, eta esan zien: «Hilobitik eraman egin dute Jauna, eta ez dakigu non jarri duten». Atera ziren Pedro eta beste ikaslea, eta hilobira abiatu ziren. Biak batera abiatu ziren lasterka, baina beste ikasle hark Pedro baino bizkorrago ibili eta aurrea hartu zion, eta lehenago iritsi zen hilobira. Begiratu zuen eta lurrean oiha-lak ikusi zituen, baina ez zen sartu. Iritsi zen atzetik Pedro ere, sartu zen hilobian eta ikusi zituen oiha-lak lurrean; buru gainean edukitako zapia, ordea, ez zegoen oihalekin batera, alde batean bildua baizik. Orduan, sartu zen hilobian lehendabizi iritsitako ikasle hura ere; ikusi zuen, eta sinetsi; ordu arte ez baitzuten ulertu Liburu Santuak dioena: «Piztu egin behar zuela hildakoen artetik».

A, zer ezustekoa ikasleena, Magdalenak ezkutaturik zeuden etxean atea jo zuenean, Jesusen heriotzak eragindako ekaitza noiz baretuko zeudenean. Bi apostolu bakarrik ausartu ziren irtetera, hilobi hutsaren kasu bitxi hura egiaztatzeko. Bi haietako bat, Joan gaztea, lagun izan zuten emakumeek Golgota bidean eta Jesus hilobiratzean. Bestea, Pedro, jada lasaituago zegoen, itxuraz, bere ikaratik.

Joan ikaslea iritsi zen lehena. Eta sinetsi zuen, artean Berpiztua ikusi gabe. Pedro zur eta lur gelditu zen, baina sinetsi gabe artean. Fedea duen hark, Jesusek betiko utzi duen hilobia barruntatu eta ikusi du hilobi huts hartan. Duda-mudan jarraitzen duenak, berriz, gorpurik gabeko zulo bat soilik.

Berpiztuagan dugun fedea ez da oinarrizko gezurtatu ezineko froga batzuetan, baizik eta argibide desberdinak izan ditzaketen gertakizun batzuen interpretazioan. Kristoren argia du kristauak argizuzi, eta argi-zuzi horren argian ez du zalantzarik, Jesu Kristo piztu dela aitortzeko. Konbentzimendu horrek ematen dio zentzua haren bizitzari; lehenago sekula sentitu ez zuen bakeaz betetzen du.

Pazkoaldia.

Jaunaren piztuera.

San Bizente Ferrer, *apaiza*.

Zeinen jarreran duzu parte hartzen zuk zeuk, Joanen jarreran ala Pedorenean? Eska iezaiozu Jaun Berpiztuari bera aitortzeko argia.

*Maria Magdalena
hilobira joan zen
goizean goiz.
Atera ziren Pedro
eta beste ikaslea,
eta hilobira abiatu
ziren.*



Pazkoaldia: Pazko zortziurrenekoa.
San Ireneo, *gotzaina (eliz gurasoa)*.

[Apostoluen Eginak liburutik 2,14.22b-32: *Jesus hori piztu egin du Jainkoak; gu denok gara horren testigu. Sal 15: Zaindu nazazu, Jauna, babes bila bainator zugana.*]

† Jesu Kristoren Ebanjelioa San Mateoren liburutik 28,8-15.

Aldi hartan, emakumeak, hilobitik arin-arin alde egin eta bihotz-ikaraz eta pozaren pozez lasterka joan ziren ikasleei berri ematera. Halako batean, bidera atera zitzaien Jesus, eta esan zien: «Poztu zaitzete!» Haiek hurbildu ziren eta ahuspez oinak besarkatu zizkioten. Orduan Jesusek esan zien: «Ez izan beldurrik! Zoazte eta esan nire senideei, Galileara joateko; han ikusiko naute». Emakumeak bidean zihoazela, zaintzaileetako batzuk herrira joan ziren, eta gertatuko guztiaren berri eman zieten apaizburuei. Hauek, zaharrekin batzarraren eginik, dirutza handia eman zieten gudariei eta agindu: «Esan, ikasleek gauzez etorri eta gorpua lapurtu dutela, zuek lo zeundeten bitartean. Eta hori agintariak jakingo balu, guk gozatuko dugu eta ez duzue okerrik izango». Haiek dirua hartu eta irakatsi zitzaien bezala egin zuten. Eta albiste hau zabaldua dago juduen artean gaurdaino.

Emakumeek saria jaso zuten azkenean: Jesus agertu zitzaien. Ez da esperientzia beldurgarri bat. Ostera, ematen du, kalean bizi izandako ustekabeko topo egite bat izan dela. Emakumeak aztoratu egin dira, ezin baitute sinetsi begiek ikusten dutena. Jesusek, ordea, beldurra kendu eta pozez betetzera gonbidatu ditu.

Jesusekin topo egiteak, ia beti, eguneroko bizitzan gertatzen dira, inolako sorginkeriarik ez duten egoeratan. Txarrena da, zoritxarrez, geu izaten garela antzematen ez diogunak, baldin eta bera ez bazaigu aurreratzen eta ez badigu eragiten, argiaren argiz, topo egitera.

Pazkoaldia: Pazko zortziurrenekoa.

La Salleko San Joan Bautista, apaiza eta fundatzailea
(Salletarrak)

[Apostoluen Eginak liburutik 2,36-41: *Bihotz-berri zaitetze eta bataiatu guztiok Jesu Kristoren izenean. Sal 32: Jaunaren graziaz beterik dago lurra.*]

† Jesu Kristoren Ebanjelioa San Joanen liburutik 20,11-18.

Astearren lehenengo egunean, Maria Magdalena hilobira joan zen goizean goiz, artean ilun zegoela, eta harria hilobitik kendua ikusi zuen.

Negarrez zegoen Maria hilobi ondoan. Eta negarrez zegoela, hilobi barnera begiratu eta bi aingeru ikusi zituen, zuriz jantziak, Jesusen gorpua ipinitako lekuan eserita: bata buru aldetik, eta bestea oin aldetik. Haiiek esan zioten: «Zer duzu negarrez, emakume?» Mariak erantzun: «Nire Jauna eraman dute, eta ez dakit non ipini duten». Hori esanik, atzera itzuli eta Jesus ikusi zuen zutik, baina ez zekien Jesus zela. Jesusek esan zion: «Zer duzu negarrez, emakume? Noren bila zabiltza?» Mariak, baratzezaina zelakoan, esan zion: «Jauna, zuk eraman baduzu, esadazu non ipini duzun, eta nik jasoko dut». Jesusek orduan: «Maria!» Eta honek, itzulirik, esan zion bere hizkuntzan: «Rabbuni!» –hau da: «Maisu!»–. Eta Jesusek: «Uztazu; oraindik ez naiz Aitagana igo. Zoaz nire senideetara eta esaiezu: “Banoa neure Aitagana eta zuen Aitagana; neure Jainkoagana eta zuen Jainkoagana”». Joan zen Maria Magdalena, eta berri hau eman zien ikasleei: «Jauna ikusi dut, eta hau eta hau esan dit».

Maria Magdalena negarrez ari da hilobi ondoan. Jesus galdu izanak penaz bete du. Ez du nork kontsolaturik.

Maria Magdalena gure irudia da hainbat eta hainbat momentutan: etsipen, hostasun, gortasun... momentutan. Mingarri dugu Jesusen absentzia. Eta geure penak geure baitan bil-bilarazten gaitu. Hainbes-

teraino, non asko kostatzen baitzaigu konturatzea, Jauna ezin dugula aurkitu hilobi huts batean.

Baina, anai-arrebengan, ortuzain horrengan... hor dago Jesus berpiztua. Jainkoak ireki ditzala gure begiak Jesusi antzemateko eta Maisu eta Jaun bezala besarkatzeko!

Pazkoaldia: Pazko zortziurrenekoa.San Dionisio, *gotzaina*.

[Apostoluen Eginak liburutik 3,1-10: *Daukadana ematen dizut: Jesu Kristoren izenean, jaiki zaitetz eta ibili. Sal 104: Poztu bedi Jau-naren bila dabiltzanen barnea.*]

† Jesu Kristoren Ebanjelioa San Lukasen liburutik 24,13-35.

Jesusen bi ikasle Emaus izeneko herrixka batera zihoazen, Jerusalem-dik hamaika kilometrora. Jerusalem-en gertaturiko guztiez mintzo ziren elkarrekin. Eta, hizketan eta eztabaidan ari zirela, Jesus bera hurbildu zitzairen eta haiekin zihoan; haien begiak, ordea, itsu zeuden eta ez zuten ezagutu. Jesusek esan zien: «Zertaz zoazte bi-dean elkarrekin hizketan?» Haiek gelditu egin ziren, aurpegia ilun, eta bietako batek, Kleofas zeritzanak, erantzun zion: «Zeu izango zara Jerusalem-en egun hauetan gertatu dena jakin ez duen kanpotar bakarra!» Jesusek galdetu zien: «Zer gertatu da, ba?» Haiek erantzun zioten: «Jesus Nazaretarrarena; profeta ahaltsua zen egitez eta hitzez Jainkoaren eta herri guztiaren aurrean; baina gure apaizburuek eta agintariek heriotzara kondenatu dute eta gurutzean josi. Guk uste genuen hark askatuko zuela Israel, baina bada hiru egun hori gertatu dela. Egia da gure arteko emakume batzuek harriturik utzi gaituztela: goizean goiz joan dira hilobira eta ez omen dute gorpua aurkitu; gainera, Jesus bizi dela esan dieten aingeruak agertu zaizkiela esanez etorri zaizkigu. Gutar batzuk ere izan dira hilobian, eta emakumeek esan bezala aurkitu dute; baina hura ez dute ikusi». Orduan, Jesusek esan zien: «Bai zentzugabeak zaretela, bai motelak profetek esana sinesteko! Ez al zuen, bada, Mesiasek hori guztia sufritu behar, bere aintzan sartzeko?» Eta, Moisesengandik hasi eta profetaz profeta, Liburu Santuek hartaz dioten guztia azaldu zien. Zihoazen herrixkara hurbildu zirenean, Jesusek aurrera jarraitzeko keinua egin zuen. Baina haiek arren eta arren eskatu zioten: «Geldi zaitetz gurekin, berandu baita eta iluna gainean». Eta herrian sartu zen haiekin gelditzeko.

Haiekin mahaian zegoela, Jesusek, ogia hartu, bedeinkapen-otoitza esan, zatitu eta eman zien. Orduan begiak ireki zitzaizkien eta ezagutu zuten, baina Jesus desagertu egin zitzaien. Haiek elkarri esan zioten: «Ez al genuen bihotza sutan, bidean hitz egiten zigunean eta Liburu Santuak azaltzen zizkigunean?» Eta berehala altxatu eta Jerusalemera itzuli ziren. Han Hamaikak eta hauen lagunak bildurik aurkitu zituzten, ziotela: «Piztu da Jauna egiaz eta Simoni agertu zaio». Bi ikasleek bidean gertatua kontatu zieten eta nola ezagutu zuten ogia zatitzean.

Jesus hurbil sentitzeak berotu egiten du bihotza. Etsipenak jo dituen ikasle hauek ohartu dira, su-txingarra beraien bihotza biziberritzen eta berotzen ari dela. Hala, Jesusek ogia zatitzean, eskamak erortzen ari zaizkie begietatik eta Espirituaren suan bero, su hartzen dute. Ez dute zalantzarik. Bidaiari misteriotsu hura, Berpiztua den huraxe da. Eta halako poza eta zoriona sentitzen dute, non ezin baitute gorde esperientzia berentzat bakarrik. Gau ilunean, bideari ekin diote berriro, eguneko nekeari erreparatu gabe. Presaka doaz, alai eta zoriontsu. Ez dute esku-argi beharrik. Barneko argia dute gidari... Albiste tzar bat dute emateko!

Pazkoaldia: Pazko zortziurrenekoa.San Maximo, *aitorlea*.

[Apostoluen Eginak liburutik 3,11-26: *Bizi-iturria hil zenuten. Jaungoikoak, ordea, piztu egin du hilen artetik. Sal 8: Jauna, gure Jauna, bai miragarria zure izena, lurbira osoan!*]

† Jesu Kristoren Ebanjelioa San Lukasen liburutik 24,35-48.

Aldi hartan, Emausko ikasleek bidean gertatua kontatu zuten eta nola ezagutu zuten ogia zatitzean Jauna. Horretan ari zirela, Jesus bera agertu zen ikasleen erdian eta esan zien: «Bakea zuei». Haiek, beldur-ikaraz, mamua ikusten ari zirela uste zuten. Baina Jesusek esan zien: «Zergatik izutu zarete? Zergatik sortzen zaizkizue zalantza horiek barruan? Ikusi nire esku-oinak: Neu naiz. Uki nazazue eta begira: mamuak ez du hezur-haragirik, eta nik bai, ikusten duzue». Eta hau esatean, esku-oinak erakutsi zizkien. Haiek, ordea, beren pozean oraindik ere ezin sinetsirik eta harriturik baitzeuden, Jesusek esan zien: «Ba al duzue hemen jatekorik?». Erretako arrain-puska bat eskaini zioten. Jesusek hartu eta beraien aurrean jan zuen. Gero, esan zien: «Hauxe da, artean zuekin nengoela, esan nizuena: Moisesen Legean, Profetetan eta Salmoetan nitaz idatzitako guztia bete beharrekoa zela». Orduan, adimena argitu zien, Liburu Santuak uler zitzaizkien. Eta esan zien: «Idatzia zegoen, Mesiasek sufritu egin behar zuela eta hirugarren egunean hilen artetik piztu, eta, Jerusalemdik hasita, bihotz-berritzea hots egin behar zaiela haren izenean herri guztiei, bekatuak barka dakizkien. Zeuek zarete gauza hauen testigu».

Berpiztuaren agerpenek misioa izan ohi dute beti azkenean. Ez dira izaten ikasle atsekabetuen gozamen eta kontsolamendurako, baizik eta ikusi, entzun eta espermentatu dutenaren lekuko bezala baietsi eta sendotzeko. Ematen dizkien «bizi-frogak» (haiekin otor-

dua egitea, uki dezaten uztea) haien «adimena irekitzeko dira» eta uler dezaten, Berpiztuaren mezua Israelen mugak baino harago doala eta gizon-emakume guztiei eskaintzen diela barkazioa eta Jainkoarekin adiskidetzeko aukera.

Eta zuk, sinesten al duzu Kristo berpiztu dela? Hala bada, hots egizu mundu hau ez dagoela galdua, Jesus dela gure salbazioa.

Pazkoaldia: Pazko zortziurrenekoa.San Ezekiel, *profeta*.San Makario, *gotzaina*.

[Apostoluen Eginak liburutik 4,1-12: *Ez dugu beste salbatzailerik. Sal 117: Etxegileek baztertutako harria, berori gertatu da giltzarria.*]

† Jesu Kristoren Ebanjelioa San Joanen liburutik 21,1-14.

Aldi hartan, Jesus Tiberiades itsas bazterrean agertu zitzaizen berriro ikasleei. Honela agertu zitzaizen. Elkarrekin zeuden Simon Pedro, Bikia zeritzan Tomas, Natanael Galileako kanatarra, Zebedeoren semeak eta ikasleetako beste bi. Pedrok esan zien: «Arrantzura noa». Haiek erantzun: «Bagoaz gu ere zurekin». Atera ziren, eta ontzira igo. Baina gau hartan ez zuten ezer harrapatu. Egunsentian Jesus ur-ertzean agertu zen, baina ikasleak ez ziren konturatu Jesus zela. Jesusek esan zien: «Mutilak, ba al duzue arrainik?» Eta haiek: «Ez!» Jesusek: «Bota sarea ontziaren eskuinaldean, eta aurkituko duzue». Bota zuten, bada, eta ezin zuten atera arrainketaren handiaz. Jesusek hain maitea zuen ikasle hark esan zion Pedrori: «Jauna da». Simon Pedrok, Jauna zela aditu zueneko, atorra lotu (beste jantzirik ez baitzuen) eta jauzi egin zuen itsasora. Beste ikasleak ontzian etorri ziren, sarea arrastaka zekartela (lehorretik ehunen bat metrora besterik ez baitzeuden). Lehorrera jaitsi zirenean, sua aurkitu zuten, eta su gainean arrain bat, eta ogia. Jesusek esan zien: «Ekar itzazue arrain batzuk, harrapatu berri horietatik». Igo zen ontzira Simon Pedro, eta lehorreraino ekarri zuen sarea, ehun eta berrogeita hamahiru arrain handiz betea, eta, hainbeste izanik ere, ez zen urratu sarea. Jesusek esan zien: «Zatozte eta jan». Eta ikasleetako inor ez zen ausartu, hari «nor zara zu?» galdetzera, bai baitzekiten Jesus zela. Orduan Jesusek, hurbildu, ogia hartu eta eman zien; baita arraina ere. Hau izan zen Jesusek ikasleei egindako hirugarren agerraldia, hildakoen arte-tik piztu ondoren.

Pazkoaldia: Pazko zortziurrenekoa.

San Ezekiel, *profeta*.San Makario, *gotzaina*.

Arrantzuan gau osoa ezer harrapatu gabe eman ondoren –gainera, lemazain Pedro bera zelarik–, Jesusek gosaria prestatu die aintzira-ertzean. Galileako aspaldiko Pedro arrantzalearen ekimenez jo zuten aintzirara, eta ez Jesusek eskatu zitelako. Eta hau agertu denean, beronen keinu soil baten indarrez, sarea lehertzeko zorian jarri da, ehun eta berrogeita hamahiru arrain handiz betea. Horrela izan ohi da lana Jaunaren mahastian. Lana hark gidatzen duenean, ugaria izan ohi da uzta; geure ahaleginean fidatzen garenean, ahalegina hutsaren hurrengo gelditzen da.

Bidal gaitzazu, Jauna, lanera zeure arrantza-gunera.

EZ UTZI GU MAITATZEARI

(Raoul Follereau)

Bai harreman arraroa Jainkoarekin...!

Jauna, emadazu hau!

Jauna, eskura dezadala halako gauza hura!

Jauna, senda nazazu!

Jainkoak nahi ez balu bezala,
geuk baino hobeto eta gehiago,
behar duguna.

Esaten ote dio haur txikiak amari:

«Presta iezadazu ahia?»

Edota gaixoak sendagileari:

«Agindu iezadazu halako botika hura?»

Zeinek segurta lezake falta zaigun hura
ez dela okerragoa duguntxo hau baino?

Egin dezagun, beraz, otoitz mamitsu hau:

«Jauna, ez utzi sekula gu maitatzeari»...

Pazkoaldia: Pazko zortziurrenekoa.

San Ezekiel, *profeta*.

San Makario, *gotzaina*.



*Ogia hartu
eta eman zien;
baita arraina ere.*

[Apostoluen Eginak liburutik 4,13-21: *Gu ezin gintezke egon, geuk entzun eta ikusi duguna esan gabe. Sal 117: Eskerrak zuri, Jau-na, entzun nauzulako.*]

† Jesu Kristoren Ebanjelioa San Markosen liburutik 16,9-15.

Astearen lehenengo egunean piztu zen Jesus goizean goiz, eta Maria Magdalenari –zazpi deabru atera zizkionari– agertu zitzaion aurrena; Maria Magdalena Jesusen lagunei berri ematera joan zen, triste baitzeuden eta negarrez. Eta, bizi zela eta ikusi zuela entzun ziotenean, ez zioten sinetsi. Ondoren, auzora bidean zihoazela, haie-tako biri agertu zitzaion, itxura aldatuta. Hauek ere joan ziren besteei berri ematera, baina hauei ere ez zieten sinetsi. Azkenik, Hamaiketi azaldu zitzaion Jesus, mahaian zeudela, eta beren sinesgaitza eta bi-hotz gogorra aurpegiratu zien, bera piztuta ikusi zutenei sinetsi ez zietelako. Eta esan zien: «Zoazte mundu guztira, eta hots egin berri ona gizaki guztiei.

Mahian zirela agertu zitzaion Jesus. Argia da ebanjelariaren asmoa: beste behin azpimarratu nahi du, agapean, eukaristia deitzen dugun horretan, presente dagoela Jaun berpiztua.

Apostoluek ez zuten aski izan besteren testigantza. Ez zioten sinetsi Magdalenari, ezta Emausko bi ikasleei ere. Horregatik, beren gogorkeria aurpegiratu die Jesusek. Oharpena da guretzat ere.

Markosen ebanjelioko azken hitzek mezu argia dute: Jesusek dakarren salbazioa gizadi osoarentzat ez ezik, kreazio osoarentzat da. Emazkiozu eskerrak, zeure askatzailea baituzu bera.

Pazkoaldia: 2. igandea / domeka.San Zenon, *gotzaina*.**§ Apostoluen Eginak liburutik 4,32-35.**

Sinestunen taldeko guztiak bat ziren bihotzez eta gogoz. Eta inork ere ez zuen esaten, bere gauzak bereak zituenik; guztia guztien zuten. Apostoluek kementsu ematen zuten Jesus Jaunaren piztueraren aitormena, eta guztiak oso ongi ikusiak ziren. Ez zen behartsurik haien artean. Izan ere, lurrak edo etxeak zituztenek saldu egiten zituzten, eta haien saria ekarri eta apostoluen oinetan ipintzen zuten, eta handik ematen zitzaion bakoitzari behar zuena.

[Sal 117: *Eskerrak Jaunari, ona baita, haren maitasuna betikoa baita.*]

§ San Joan Apostoluaren 1. gutunetik 5,1-6.

Senide maiteok: Jesus Mesias dela sinesten duen guztia Jaungoikoagandik jaio da, eta bizi-emailea maite duenak bizi-emaileagandik jaioa ere maite du. Honetan ezagutzen dugu Jaungoikoaren seme-alabak maite ditugula: Jaungoikoa maite badugu eta haren aginduak betetzen baditugu; hau da, izan ere, Jaungoikoa maitatzea: haren aginduak betetzea. Eta haren aginduak ez dira astunak. Jaungoikoagandik jaio den guztiak garaitzen baitu mundua, eta mundua garaitu duen garaipena hau da: gure sinesmena. Izan ere, nor da mundua garaitzen duena, Jesus Jaungoikoaren Semea dela sinesten duena bai-zik? Hau da urez eta odolez etorri zena: Jesu Kristo. Ez urez bakarrik, urez eta odolez bai-zik; Espiritua da honetaz aitormen egin duena, eta Espiritua egia da.

† Jesu Kristoren Ebanjelioa San Joanen liburutik 20,19-31.

Astearen lehenengo eguneko ilunabarrean, etxe batean bildurik zeuden ikasleak, atek itxita, juduen beldurrez. Sartu zen Jesus eta, haien erdian zutik, esan zien: «Bakea zuekin». Hori esanda, eskuak

eta saihetsa erakutsi zizkien. Eta ikasleak pozez beterik gelditu ziren, Jauna ikustean. Jesusek berriz ere: «Bakea zuekin. Aitak ni bidali nauen bezala, hala bidaltzen zaituztet nik zuek». Eta hori esanez, haize eman zuen haien gainera, eta esan zien: «Hartzazue Espiritu Santua: zuek bekatuak barkatuko dizkiezuenei, barkatuak geldituko zaizkie, eta lotzen dizkiezuenei, lotuak geldituko zaizkie». Tomas, ordea, Hamabietako bat, Bikia zeritzana, ez zegoen besteekin batean Jesus etorri zenean. Beste ikasleek esan zioten: «Jauna ikusi dugu». Tomasek, ordea: «Haren eskuetan iltze-zuloak ikusten ez baditut, nire hatza haren iltze-zuloetan eta nire eskua haren saihetsean sartzen ez badut, ez dut sinetsiko». Handik zortzi egunera, berriz ere barruan zeuden ikasleak, eta Tomas haiekin. Sartu zen Jesus, ateak itxirik zeudela, eta, haien erdian zutik, esan zien: «Bakea zuekin». Gero Tomasi: «Ekatzu hatz hori, hona nire eskuak; ekatzu esku hori, eta sartu nire saihetsean, eta ez izan sinesgogor, sinestedun baizik». Tomasek erantzun zion: «Ene Jauna eta ene Jainkoa!» Eta Jesusek: «Ikusi nauzulako sinetsi duzu? Zorionekoak, ikusi gabe sinesten dutenak». Beste ezaugarri asko ere egin zituen Jesusek ikasleen aurrean; baina ez daude idatzirik liburu honetan; idatzirik daudenak, honetarako daude idatzirik: sinets dezazuen Jesus, Mesias dela –Jainkoaren Semea–, eta hori sinetsirik, haren izenean bizia izan dezazuen.

Piztueraren ondoren, Jesusi «Jauna» esaten hasi dira ikasleak. Ez da jadanik, ez Gizonaren Semea, ez profeta, ez Mesias, ez Maisua eta ez gaixoen sendatzailea. Tomasek argi aitortu du, bere fede-faltaz damuturik: «Ene Jainkoa eta ene Jauna». Ahogozatzekoak ditugu kristauok Jesusi ematen diogun deiki honen esangura desberdinak. Lehenik eta behin, gure nagusia da Jesus. «Jaunarenak gara». Haren jabetza gara. Bigarren, hari bakarrik zor diogu adorazioa eta gurtza,

Pazkoaldia: 2. igandea / domeka.San Zenon, *gotzaina*.

Jainkoa delako. Hirugarren, geure Jainko bakarra dugu bera, ez dugu beraren gaintik inolako botere edo idolorik. Laugarren, Gurutziltzatua da, bekatutik, gaitzetik eta heriotzatik askatu gaituena. Bosgarren, Krezio osoa eraldatu eta gorde du, bere galkortasunetik ateraz. Seigarren, bere anai-arreba egin gaitu, Aita bat beraren seme-alaba. Zazpigarren eta azkenik, giza Historiaren eta Historia kosmikoaren jauna da.

Azken batean, «Jauna da Jesus, Jainko Aitaren aintzarako».

Dasta eta ahogoza ezazu gure Jainko eta Jaunaren handitasuna.

San Martin 1.a, *aita santua eta aita santuen artean azken martiria.*

San Hermenegildo, *martiria.*

[Apostoluen Eginak liburutik 4,23-31: *Otoitza bukatu zutenean, Espiritu Santuaz bete ziren guztiak, eta beldur gabe hots egiten zuten Jaun-goikoaren hitza. Sal 2: Bai dohatsu, Jauna, zugana biltzen diren guztiak!]*

† Jesu Kristoren Ebanjelioa San Joanen liburutik 3,1-8.

Bazen fariseuen artean, Nikodemo izeneko gizon bat, juduen lege-gizonetakoa. Etorri zen gauzez Jesusengana, eta esan zion: «Rabbi, badakigu Jainkoagandik etorritako irakaslea zarena; inork ez baitezake egin zuk egiten dituzun ezaugarriak, Jainkoa ez badu berekin». Jesusek erantzun zion: «Egi-egiaz diotsut: berriro jaiotzen ez denak, ezin ikus dezake Jainkoaren erreinua». Nikodemok erantzun: «Nola jaio daiteke bat zahartu ondoren? Sar ote daiteke amaren sabelean, eta berriz jaio?» Jesusek erantzun zion: «Egi-egiaz diotsut: uretik eta Espiritutik jaiotzen ez dena, ez daiteke sar Jainkoaren erreinuan. Haragitik haragia jaiotzen da, Espiritutik espiritua. Ez harritu esan dizudalako: “Berriro jaio behar duzue”. Haizeak nonahitik jotzen du, eta entzuten duzu haren hotsa, baina zuk ez dakizu, ez nondik datorren, ez nora doan. Horrela da Espiritutik jaio den guztia».

Jaio al daiteke berriro jadanik heldua den pertsona bat? Izan al daiteke emakume bat ama, birjintasuna galdu gabe? Jainkoarentzat ez da ezinik. Jesusek Nikodemorekin izan duen solasak beste behin baiesten du Jaunak beti beste aukera bat ematen duela, inor ez dagoela galdua erremediorik gabe. Inoiz ez da berandu. Zahar bat ere gaztetu daiteke, haizea harrotzen edo baretzen den bezala, guk haren mugimenduaren nondik norakoa jakin gabe.

Espiritutik jaioak garenok, geure bizitzaren sostengu den haren eskuetan ipintzen dugu geure konfiantza. Badakigu ez digula huts egingo, geuk berari asko eta asko huts egin arren.

Pazkoaldiko 2. astea.San Tiburtzio, *martiria*.Santa Liduvina, *birjina*.

[Apostoluen Eginak liburutik 4,32-37: *Sinestedunen taldeko guztiak bat ziren bihotzez eta gogoz. Sal 92: Errege da Jauna, jantzi da handikiro.*]

† Jesu Kristoren Ebanjelioa San Joanen liburutik 3,5a.7b-15.

Aldi hartan, Jesusek esan zion Nikodemori: «Egi-egiaz diotsut: berriro jaio behar duzue. Haizeak nonahitik jotzen du, eta entzuten duzu haren hotsa, baina ez dakizu, ez nondik datorren, ez nora doan. Horrela da Espiritutik jaio den guztia». Nikodemok esan zion: «Nola daiteke hori?» Eta Jesusek: «Maisu zara Israelen, eta hori jakin ez? Egi-egiaz diotsut: guk, dakiguna esaten dugu, eta ikusi duguna aitortzen, eta zuek ez duzue onartzen gure aitormena. Lurrekoez ari natzaizuenean sinesten ez baduzue, nola sinetsi zerukoez hasten banaiz? Inor ez da zerura igo, zerutik jaitsi zena besterik: Gizonaren Semea. Moisesek basamortuan sugea altxatu zuen bezala, hala altxatu beharra da Gizonaren Semea; sinesten dion guztiak betiko bizia izan dezan».

Medizina naturistan, antidotoa benenoarekin berarekin prestatzen dute, txertoak gaixotasunaren kontra immunizatzen gaituen dosi txiki bat barneratzen digun moduan. Moisesen sugeak sendatu egiten zituen, Jainkoari desleial izateagatik, sugedorriaren miztoa jasaten zutenak. Jesusek ere bere larruan jasan du bekatuaren zigorra, gure bekatuarena, gurutzean –bere odolean– gu salbatzeko.

Hilezkortasuna Jesusek bakarrik du berezkoa; halaz guztiz, giza heriotza jasan du hark ere, guk betiko biziaz gozatu ahal dezagun. Heriotza-apur baten truke, azkenik gabeko bizia. Eskerrak, Jauna, eskerrak.

[Apostoluen Eginak liburutik 5,17-26: *Kartzelan sartu zenituzten gizonak hor daude jauretxean, eta herriari irakasten ari dira. Sal 33: Dohakabeak oihu egin zuen, eta Jaunak entzun.*]

† Jesu Kristoren Ebanjelioa San Joanen liburutik 3,16-21.

Aldi hartan, Jesusek esan zion Nikodemori: «Hain maite izan du Jainkoak mundua, bere Seme bakarra eman baitio; hari sinesten dionik inor gal ez dadin, baizik eta betiko bizia izan dezan. Jainkoak ez baitu bere Semea mundua galtzera bidali, baizik eta haren bitartez mundua salba dadin. Hari sinesten dionak ez du auzirik izango; sinesten ez dionarentzat, berriz, erabakia dago auzia, Jainkoaren Seme bakarraren izenean sinetsi ez duelako. Honetan dago auzia: etorri da argia lurrera, eta gizakiek maiteago izan dute iluna argia baino; okerrak baitziren haien egiteak. Izan ere, gaizki egiten duenak gorroto dio argiari, eta ez dator argira, bere egiteek salatuko duten beldurrez. Egia betetzen duena, berriz, argira dator, haren egiteak ager daitezen, Jainkoak nahi bezala eginak baitira».

Inor ez da harrotzen norberaren egintza txarrez. Guztiok ahalegintzen gara, alde txarrak oharkabean pasa daitezen. Bizi garen mundu honetan, gardentasuna ez da oso praktikatua den bertutea. Nahiago izaten dugu erruak eta erantzukizunak besteren bizkarrean jarri, geure errugabetasuna aho beroz aldarrikatzeko. Ustelkeria ondo ezarria dago gure gizarte honetako bizitzan; halere, ematen du, ustelkeria horrek inor ez duela kutsatu edota inor ez dela dirutza publiko edo besterenak diren horiek hatzaparka eta modu eskandalagarrian harrapatu dituztenetako.

Neurri txikiago edo handiagoan, geu ere ustelkeriak eta erruak joak gara. Nahiago izaten dugu beste alde batera begiratu edota geure egintza txarrak ezinbesteko premia bati egotzi... edo giza ahuldadeari. Azter ezazu zeure burua eta erreparatu, zeure bizitzako zein puska nahi izaten duzun ezkutuan gorde. Eta zerbait gaitxo bada, eskatu Jaunari barkazioa, eta asmoa hartu, egia begi bistan eramatekoa.

Pazkoaldiko 2. astea.

Toribio Santua Liebanakoa.

Santa Bernardita Soubirouskoa, *birjina*.

[Apostoluen Eginak liburutik 5,27-33: *Gu gara gauza hauen testigu, baita Espiritu Santua ere. Sal 33: Dohakabeak oihu egin zuen, eta Jaunak entzun.*]

† Jesu Kristoren Ebanjelioa San Joanen liburutik 3,31-36.

Aldi hartan, Jesusek esan zion Nikodemori: «Goitik datorrena beste guztiak baino gorago dago. Lurretik dena lurrekoa da eta lurrekoaz mintzo da. Zerutik datorrena beste guztiak baino gorago dago; ikusi eta entzun duenaren testigu da, baina inork ez du onartzen haren testigantza. Haren testigantza onartzen duenak aitormen egiten du, Jainkoak egia dioela. Jainkoak bidali zuenak Jainkoaren hitzak esaten ditu, neurririk gabe ematen baitu hark Espiritua. Aitak maite du Semea, eta gauza guztiak eskura emanak dizkio. Semeagan sinesten duenak badu betiko bizia; Semeagan sinesten ez duenak ez du ikusiko bizia; halakoak Jainkoaren haserrea du gainean».

Aitaren Bidalia da Jesus, eta gainezka ditu onginahia eta errukia. Zeren Jainkoak ez baitigu Espiritua neurturik eman, ez xuhurki, baizik eskuzabal. Gehiago ezinean jokutzen du gurekin. Bere Semea bera bidali digu, bere hurbiltasuna adierazteko, ez bakarrik zuzenak diren pertsoneri, baita bekatariei, ezinduei, behartsuei eta gaixoei ere. Ez zuen jo Jainkoaren aginduak zuzen betetzen zituztenengana, baizik, arrazoi batengatik edo besterengatik, aginduak bazter utziak zituzten, infragizakitzat hartuak zirenen, aintzat hartuak ez zirenen-gana.

Eta zuk, Jesus honengan sinesten al duzu ala sasiko bat asmatu duzu, zeure neurriko bat?

[Apostoluen Eginak liburutik 5,34-42: *Apostoluak pozez atera ziren Batzarretik, Jesusen izenagatik irainak jasateko gai aurkitu zituztelako.*
Sal 26: *Gauza bat diot eskatzen Jaunari: Jaunaren etxean nadila bizi.*]

† Jesu Kristoren Ebanjelioa San Joanen liburutik 6,1-15.

Aldi hartan, Galileako edo Tiberiadesko itsasoaz beste aldera joan zen Jesus. Jendetza handia zuen ondotik; ikusten baitzuten nolako mirariak egiten zituen gaixoetan. Jesus, orduan, mendira igo zen, eta han zegoen eserita ikasleekin. Handik laster zen Pazkoa, juduen jaia. Jesus-ek orduan, begiak jaso eta ondoren zetorkion hainbesteko jendetza ikusirik, esan zion Feliperi: «Nondik erosiko dugu, horiek guztiek jateko adina ogi?» (Zirikatzearren ari zen, bai baitzekien zer egin). Felipek erantzun zion: «Berrehun denarioren ogia ez litzateke izango nahikoa, bakoitzak apur bat izan dezan». Ikasleetako bat, Andres, Simon Pedoren anaia, mintzatu zen orduan: «Bada hemen bost garagar-opil eta bi arrain dituen mutiko bat; baina zer da hori horrenbesterentzat?» Jesus-ek orduan: «Esaiozue jendeari eser dadila lurrean». Belar ederra zen leku hartan. Eseri ziren: gizonezko hutsak bost milaren bat ziren. Jesus-ek hartu zituen ogiak, egin zuen esker oneko otoitza, eta eseritakoen artean banatu zituen, eta gauza bera arrainekin ere, bakoitzak nahi zuen guztia. Ase zirenean, esan zion ikasleei: «Bil itzazue gelditu diren hondarrak, ezer gal ez dadin». Eta hamabi saski bete bildu zituzten, bost garagar-opil haiek jan ondoren gelditutako hondarrekin. Jendeak, orduan, halako ezaugarria ikusitakoan, zioen: «Hau da, benetan, munda etortzekoa zen profeta». Jesus-ek, orduan, errege egiteko etorriko zitzaizkiola oharturik, ihes egin zuen berriro mendira, berak bakarrik.

«**E**z dadila ezer alferrik gab», dio Jaunak. Egunero, geure etxeetan, krisialdia eta guzti, zakarretara botatzen da tonaka janari. Kontsumitu ez

Pazkoaldiko 2. astea.San Fortunato, *martiria*.

diren soberakinak dira. Ez da ahoberokeria bat, egia hutsa da. Aski da erreparatzea eskaleei, nola saiatzen diren edukiontzietan bila, eta nola topatzen dituzten –hondarrekin– printze-janariak.

Eskuarki, behar duguna baino gehiago erosten dugu. Gero, ez zaigu atsegin izaten hondarrak jatea, eta zakarrontzia izaten da erre-medioa. Hainbeste haur eta pertsona heldu goseak hiltzen dagoenean, egunero zakarrontzira botatze hori lotsatzekoa eta kolorez aldatzekoa izan beharko genuke.

* * *

ZEUREA NAUZU

(San Alontso Rodriguez, s.j.)

Ene Jauna, ez naiz ni neurea, zurea baizik.

Zuk egin nauzu eta zuk didazu eman neure izatea.

Zeure ondarea nauzu.

Zure eskuetan jarri nahi dut, zuri nahi dizut eskaini neure burua.

Egizu nitaz nahi duzuna, hori dut izango neure gozamen,

barnez ene bihotza eta gogoa landuz

neure burua zuri eskaintzeko pozik eta alai,

atseden hartuz lasai eta bakean

Jaunak nitaz egin gura duen hartan,

zeren leial-leiala baita Jainkoa,

eta hain handia baita Jainkoarena gizakiaren leialtasunaren aldean,

nola den handiagoa Jainkoarena gizakiaren ontasunaren aldean.

Har nazazu zeure ardurapean eta ondareztat, eta ez neureztat.

Ene Jauna, izan nitaz erruki,

zeren ez baitut neugan erremediorik topatzen, zugan baizik.

Urrundu nigandik, Jauna, atsegin ez zaizun guztia

eta egin ni zure bihotzaren araberako gizaki.

Pazkoaldiko 2. astea.
Santa Atanasia, *aitorlea*.
San Eusebio, *gotzaina*.

[Apostoluen Eginak liburutik 6,1-7: Zazpi gizon aukeratu zituzten, *Espiritu Santuaz beteak*. **Sal 32:** *Betor gugana, Jauna, zure maitasuna, zuga baitugu geure uste ona.*]

† Jesu Kristoren Ebanjelioa San Joanen liburutik 6,16-21.

Iluntzean, Jesusen ikasleak itsasora jaitsi ziren; ontzira igo eta Kafarnaum aldera jo zuten. Iluna zen, eta artean Jesus ez zen haiengana iritsi. Haize zakarra zebilen, eta itsasoa harrotzen hasi zen. Bos-pasei kilometro arraunean egin zutenean, itsasoan ur gainean oinez ontzira hurbiltzen ikusi zuten Jesus. Ikaratu ziren, baina hark esan zien: «Ni naiz, ez izan beldurrik!» Ontzian hartu nahi zuten, baina ontzia berehala iritsi zen zihoazen tokira.

Ebanjelioetan, pasarte askotan ageri da zenbat kostatzen zaien ikasleei Jesusi antzematea, hurbiltzen zaienean. Gauzez dena izan ohi da nahasbide, eta aintziran, ilun itsuan, askoz gehiago. Beldurra sartu zaie Jesus ikustean, adoretu eta animatu ordez. Hala, askotan esan diena errepikatu die: «Neu nauzue, ez beldur izan».

Ez dute nahikoa ahotsa, ez Jesusen hurbiltasuna ere. Hura ontzira igotzea nahi dute, segurago senti daitezen. Ez da beharrezkoa. Hurbiletik ala urrundik, Jesusek du gidatzen gure ontzia eta berak garamatza portura.

Pazkoaldiko 3. astea.San Leon IX.a, 152. *aita santua.*

§ Apostoluen Eginak liburutik 3,13-15.17-19.

Egun haietan, Pedrok hitz egin zion herriari: «Abrahamen, Isaaken eta Jakoben Jainkoak, gure arbasoen Jaungoikoak, goratu egin du Jesus bere zerbitzaria, zuek Pilatori eman zeniotena eta haren aurrean ukatu zenutena, nahiz eta hark askatu nahi izan. Zuek santua eta zintzoa ukatu zenuten, eta gizon-hiltzailea askatzeko eskatu; bizi-iturria hil zenuten. Jaungoikoak, ordea, piztu egin du hilen artetik, eta gu gara horren testigu. Badakit, ordea, senideok, zuek eta zuen agintariak ezjakinean egin duzuela hori. Jaungoikoak, berriz, horrela bete du Profeten ahoz esana zeukana: haren Mesiasak nekeak igaro behar zituela, alegia. Damu zaitezte, beraz, eta bihotz-berritu, zuen bekatuak garbi daitezen».

[Sal 4: *Argi ezazu, Jauna, zure aurpegia gugana.*]

§ San Joan Apostoluaren 1. gutunetik 2,1-5a.

Ene semeok: Bekaturik egin ez dezazuen idazten dizuet hau. Hala ere, norbaitek bekatu egiten badu, hor dugu gure bitarteko Aitaren aurrean Jesu Kristo, Zintzoa. Bera da gure bekatuen ordainoparia, eta ez gure bekatuena bakarrik, baita mundu guztiko bekatuena ere. Jesus ezagutzen dugula honetatik dakigu: Haren aginduak gordetzetik. Hura ezagutzen duela esan, eta haren aginduak betetzen ez dituen, gezurtia da, eta horrelakoagan ez dago egia. Haren hitza betetzen duenagan, berriz, Jaungoikoaren maitasuna bete dago egi-giaz. Horretatik dakigu harengan gaudela.

† Jesu Kristoren Ebanjelioa San Lukasen liburutik 24,35-48.

Aldi hartan, Emausko ikasleek bidean gertatua kontatu zuten eta nola ezagutu zuten Jauna ogia zatitzean. Horretan ari zirela, Jesus bera agertu zen ikasleen erdian eta esan zien: «Bakea zuei». Haiek,

beldur-ikaraz, mamua ikusten ari zirela uste zuten. Baina Jesusek esan zien: «Zergatik izutu zarete? Zergatik sortzen zaizkizue zalantza horiek barruan? Ikusi nire esku-oinak: Neu naiz. Uki nazazue eta begira: mamuak ez du hezur-haragirik, eta nik bai, ikusten duzuenez». Eta hau esatean, esku-oinak erakutsi zizkien. Haiek, ordea, beren pozean oraindik ere ezin sinetsirik eta harriturik baitzeuden, Jesusek esan zien: «Ba al duzue hemen jatekorik?» Erretako arrain-puska bat eskaini zioten. Jesusek hartu eta beraien aurrean jan zuen. Gero, esan zien: «Hauxe da, artean zuekin nengoela, esan nizuena: Moisesen Legean, Profetetan eta Salmoetan nitaz idatzitako guztia bete beharrekoa zela». Orduan, adimena argitu zien, Liburu Santuak uler zitzaizten. Eta esan zien: «Idatzia zegoen, Mesiasek sufritu egin behar zuela eta hirugarren egunean hilen artetik piztu, eta, Jerusalemdik hasita, bihotz-berritzea hots egin behar zaiela haren izenean herri guztiei, bekatuak barka dakizkien. Zeuek zarete gauza hauen testigu».

Beste behin, mamutzat hartu dute Jesus Berpiztua ikasleek. Dudarik gabe, Jesusen misiolari bihurtu zirenean, entzuleek duda handiak izan zituzten apostolu haien pertzepzio-gaitasunaz; uste zuten, ezagutzen zituzten berpiztu bakarrak ametsetako eta begitazio hutseko pertsonaiak zirela. Horregatik, erabateko konbentzimendua aitortu behar izan zuten Jesusek piztuera ez zela ipuin bat, ezta asma-kizun bat ere, ezta fantasia bat ere. Jesusek berpiztuarekin otorduak eginak ziren eta besarkatua zuten piztu ondoren.

Horregatik izan ziren Berpiztuaren lekuko. Horregatik esperimentatu beharko luke gaur egungo edozein kristauk, beste era batean baina era segurean, Jesus bizi dela, eta poz-, bake- eta betiereko bizi-iturri dela. Inoiz ere sentitu ez bada, ezin hots egin da Kristo hila eta berpiztua. Hein batean, errazagoa da Kristo gurutziltzatua

Pazkoaldiko 3. astea.

San Leon IX.a, 152. aita santua.

predikatzea. Baina pazko-misterioa herren geldituko litzateke Piztuerako goiz-alba aintzatsurik gabe. Gaur, Kredoan esatean, esazu ahots sendo eta ziuerez: «gurutziltzatua, hila eta hobiratua izan zen, eta hirugarren egunean piztu zen hildakoen artetik». Ez zaitez ari hitz-kottor huts; esazu bihotz-bihotzetik, sinetsiz Jesus bizi dela, gure artean bizi ere.



*Erretako arrain-
puska bat eskaini
zioten.
Jesusek hartu eta
beraien aurrean
jan zuen.*

Pazkoaldiko 3. astea.

San Zakeo, zerga-biltzailea.

Santa Ines Montepulciano-koa, birjina.

[Apostoluen Eginak liburutik 6,8-15: *Ezin erantzun zioten haren jakinduriari eta haren hitzaren indarrari. Sal 118: Dohatsu, Jaunaren legean dabilzanak.*]

† Jesu Kristoren Ebanjelioa San Joanen liburutik 6,22-29.

Aldi hartan, beste itsas ertzean gelditutakoak ohartu ziren han ez zegoela txalupa bat besterik, eta Jesus ez zela ikasleekin batean ontzira igo, baizik eta bakarrik joan zirela hauek. Bitartean ontzi batzuk etorri ziren Tiberiadetik, Jaunak, esker-otoitza eginik, ogia jatera eman zien toki ingurura. Jendea, Jesus eta ikasleak han ez zeudela ikusi zuenean, ontzietara igo eta Kafarnaumera joan zen, Jesusen bila. Itsasoaz beste aldean aurkitu zutenean, esan zioten: «Maisu, noiz etorri zara hona?» Jesusek erantzun zien: «Egi-egiaz diotsuet: nire bila zabiltzate, ez noski ezaugarriak ikusi dituzuelako, baizik ogia jan eta ase zaretelako. Egizue lan, ez hondatzen den janariagatik, baizik betiko bizitzaraino irauten duenagatik, Gizonaren Semeak emango dizuenagatik. Honi egin baitio Jainko Aitak bere aitormena». Haiek esan zioten: «Zertan ari behar dugu, Jainkoak nahi duena egiteko?» Jesusek erantzun: «Hau da Jainkoak nahi duen egintza: Sinets diezaiozuela berak bidali duenari».

J^oanek, bere ebanjelioa, irakurleei Kristoganako fedea besarkatzera animatzeko idatzi zuen; eten gabe dei egiten die Jesus bera onartzera Jainkoaren Seme, Mesias, Argi, Bizi bezala. Gaurko pasarte honetan ere, ogien eta arrainen ugaltzera atzera karga etorri direnei, esaten die, salbatzen duena ez dela gauza miresgarrien presentzia, baizik Jainkoak gura duena egitea dela inportantea: aitortzea, alegia, Jainkoa dela Jesus, Jainkoak bidalitakotzat hartzea.

Agian, galde nezake gaur: Jesus hain gizatar dela iruditzen al zait, ez dela Jainkoa esateko moduan? Ala hain jainkozkoa dela iruditzen zait, ez dela gizon esateko moduan?

Pazkoaldiko 3. astea.

Canterbury-ko San Antselmo, *gotzaina eta eliz irakaslea.*

[Apostoluen Eginak liburutik 7,51–8,1a: *Jesus Jauna, har ezazu nire arnasa. Sal 30: Zure eskuetan uzten dut, Jauna, neure arnasa.*]

† Jesu Kristoren Ebanjelioa San Joanen liburutik 6,30-35.

Aldi hartan, jende-taldeak esan zion Jesusi: «Zer ezaugarri egiten duzu, hura ikusita guk zugar sinets dezagun? Zer egiten duzu? Gure gurasoek basamortuan mana jan zuten; “zeruko ogia eman zien jateko” –idatzirik dagoen bezala–». Jesusek erantzun zien: «Egi-egiaz diotsuet: ez zizuen Moisesek eman zeruko ogia; nire Aitak ematen dizue zeruko egiazko ogia; Jainkoaren ogia baita zerutik jaisten dena eta munduari bizia ematen diona». Orduan haiek: «Jauna, emaguzu beti ogi horretatik!» Jesusek erantzun: «Ni naiz biziaren ogia; nigan datorrena ez da gosetuko; nigan sinesten duena ez da behin ere egarrituko».

Zuri ari natzaizu, Bizi Ogi zaren horri, jaten zaituena beste janariren edo edariren premiarik gabe uzteraino janaritzen duzun horri, zuri ari natzaizu zeure entzuleen hitz hauekin: Emaguzu, Jauna, ogi horretatik. Neure bizitzan janari desberdin asko dastatu izan dut: zoriona, poz iraunkorra, paradisua, beste ezer ez bezalakoa... hitzematzen zidatenak. Alabaina, batek ere ez nau ase izan, ez nau atsegin ez bete utzi izan. Beraz, neure antsia hori zuk beteko didazulakoan jarraitzen dut, guztiz aserik utz nazazun. Zu zara, Jauna, ogi hori eta kopa hori. Ase nazazu zeure buruaz.

Andre Maria Santua, *Jesusen Lagundiaren ama*.
San Sotero, 13. *aita santua*. San Apeles, *aitorlea*.

[**Apostoluen Eginak liburutik 8,1b-8:** *Harat-honat zebiltzala, Berri Ona zabaltzen ari ziren. Sal 65: Lur osoa, egiozu irrintzi Jainkoari.*]

Jesu Kristoren Ebanjelioa San Joanen liburutik 6,35-40.

Aldi hartan, Jesusek esan zion jende-taldeari: «Ni naiz biziaren ogia; nigana datorrena ez da gosetuko, eta nigan sinesten duena ez da behin ere egarrituko; baina nik esan bezala, ikusi nauzue, eta ez duzue sinesten. Aitak ematen didan guztia nigana etorriko da, eta nigana datorrena ez dut kanpora botako. Zerutik ez bainaiz jaitsi neure nahia egiteko, baizik bidali nauenaren nahia. Eta hau da ni bidali nauenaren nahia: eman didanetatik ez dezadala ezer gal, baizik eta piztu dezadala azken egunean. Hau da nire Aitaren nahia: Semea ikusten duenak eta harengan sinesten, izan dezala betiko bizia; eta nik piztuko dut hura azken egunean».

San Ignaziok, gogo-jardunen egilearentzat garrantzizko grazia bat Jainkoagandik eskuratu nahi izaten duenean, gomendatzen dio, buka ditzala bere otoitzaldiak hiru solas labur hauekin: Andre Mariarekin, Jesusekin eta, azkenean, Aitarekin egindakoeekin. Inñigorentzat, Jaunagana iristeko lehen eskailera-maila Andre Maria da beti. Abokatu bete-betea, gida segura, ondotxo daki nola jokatu bere Semearekin. Ignaziok egiten dion eskari ederrenaren formula da: Maria, emadazu hitzordua zeure Seme eta Jaunarentzat. Errepika ezazu eskari hau zeure bihotzeko isiltasunean edota oihuka. Dena den, esazu behin eta berriz, egia bihurtzeko gogo beroz.

* * *

Pazkoaldiko 3. astea.

Andre Maria Santua, *Jesusen Lagundiaren ama.*
San Sotero, *13. aita santua.* San Apeles, *aitorlea.*

GOGORA ZAITEZ
(*San Bernardori egotzia*)

Gogora zaitez, Maria errukitsua,
ez dela sekula entzun esaten
bertan behera utzia izan dela
zugana jo izan duen inor
zure laguntza eske.
Konfiantza honekin adoreturik,
zugana nator ni neu ere,
Ama onbera,
eta ausartzen naiz erregutzera,
nire bekatuak eta guzti.
Ez muzin egin nire erreguari,
baizik eta entzun
eta onar itzazu errukibera. Amen.

[Apostoluen Eginak liburutik 8,26-40: *Bihotz-bihotzez sinesten baduzu, bataiatua izan zaitezke. Sal 65: Lur osoa, egiozu irrintzi Jainkoari.*]

† Jesu Kristoren Ebanjelioa San Joanen liburutik 6,44-51.

Aldi hartan, Jesusek esan zion jende-taldeari: «Ez daiteke inor nigana etorri, bidali nauen Aitak ez badakar. Eta nik piztuko dut hura azken egunean. Profetetan idatzirik dago: “Jainkoaren ikasle izango dira guztiak”. Aitari entzun, eta haren irakaspenak ikasten dituenan nigana dator. Inork ez du ikusi Aita, Jainkoagandik datorrenak baizik; hark, bai, hark ikusi du Aita. Egi-egiaz diotsuet: Sinesten duenak, badu betiko bizia. Ni naiz biziaren ogia. Zuen gurasoek basamortuan mana jan zuten eta hil ziren; hau da zerutik jaitsitako ogia, gizakiak horretatik jan dezan eta hil ez dadin. Ni naiz ogi bizia, zerutik jaitsia. Ogi honetatik jaten duena betiko biziko da, eta nik emango dudan ogia neure haragia da munduaren bizirako».

«Jainkoari entzuten dion oro, nigana dator», dio Jesusek. Inporta duena ez da basamortuko mana, baizik hura jaitsarazi duena, bere herria janaritzeko, Jainkoa bera. Dohainetik dohain-emailegana jo beharra. Ez genuke gelditu behar sakramentuaren materialtasun hutsean. Betiko bizia lortzen diguna ez da «zerutik jaitsi ohi den ogi bizia». Baizik ogi hori lortzen diguna: Kristo bera. Harengan Jainkoaren esku amodiotsua ikusi beharko genuke, pertsona beteago egin eta ikusi nahi gaituen Jainkoaren eskua. Gure baliabide bakarra Jesu Kristo da, Jainkoaren giza aurpegia. Harengana jo behar dugu beti.

Pazkoaldiko 3. astea.Sigmaringengo San Fidel, *apaiza eta martiria.*

[Apostoluen Eginak liburutik 9,1-20: *Nik gizon hori aukeratua daukat, jentilei nire izena adieraz diezaien. Sal 116: Zoazte mundu guztira, eta hots egin Berri Ona.*]

† Jesu Kristoren Ebanjelioa San Joanen liburutik 6,53-60.

Aldi hartan, juduak eztabaidan ari ziren: «Nola eman diezaguke honek jatera bere haragia?» Eta Jesusek: «Egi-egiaz diotsuet: Gizonaren Semearen haragia ez baduzue jaten eta haren odola edaten, ez duzue bizirik zeuengan. Nire haragia jaten duenak eta nire odola edaten, badu betiko bizia, eta nik piztuko dut hura azken egunean. Nire haragia egiazko janaria da, eta nire odola egiazko edaria. Nire haragia jaten duena eta nire odola edaten nigan dago, eta ni harengan. Bizi den Aitak bidali nau, eta ni Aitagandik bizi naiz; era berean, ni jaten nauena, nigandik biziko da. Hau da zerutik jaitzitako ogia; ez zuen gurasoena bezalakoa; jan eta hil egin baitziren haiek. Ogi honetatik jaten duena, betiko biziko da». Kafarnaumeko sinagogan irakasten ari zen batean esan zuen Jesusek hori.

Ez da kanibalismo-modu bat. Jainkoaren Semearen haragia jan eta haren odola edateak ez du zerikusirik antropofagiaren erritualekin. Hau da kontua: Jesusi berari uztea, gure baitan bizilekua ezar dezan eta gutaz jabetu dadin. Ni neu Jesusekin berarekin eta haren misioarekin bat egitea halako mailara irits dadila, non «hartua» gerta nadin, ez deabruak «hartua», baizik Aitaren Semeak berak «hartua». Beste hitz batzuek esanda, nigan Jainkoa izan dadila dena, utz diezaiodala munduko beste inork ez bezala maite nauen hari nitaz jabetzen, izan nadila ni «beste Kristo» bat harekin.

§ San Pedro Apostoluaren 1. gutunetik 5,5b-14.

Senide maiteok: Izan zaitezte apalak guztiok elkarrekin, Jainkoak gogor egiten baitie harroei; apalei, berriz, bere grazia ematen. Makur zaitezte Jaungoikoaren esku indartsuaren azpian, berak bere garaian jaso zaitzaten. Utzi haren gain zeuen kezka guztiak, hura baita zuen ardura duena. Izan zaitezte neurritsu, eta zaudete erne; zuen etsaia –deabrua–, orroka ari den lehoia bezala, hor dabil inguruan, nor irentsiko. Gogor egiozue, sinesmenean sendo; jakinik, lur zabalean dituzuen beste senideak ere neke beretan dabiltzala. Eta kristau bezala bere betiko zerura deitu zaituzten grazia guztien Jaungoikoak bizkortuko zaituzte, gogortuko, indartuko eta sendotuko neke-aldi labur baten ondoren. Berea du indarra gizaldi eta gizaldietan. Amen. Niretzat anaia zintzo den Silbanoren eskuz idatzi dizuet eskutitz labur hau, zuei indar emateko eta zuei aitortzeko hori dela Jainkoaren zinezko grazia; zaudete sendo horretan. Zuek bezala aukeratua den Babiloniako elkarteak agur egiten dizue, baita nire seme Markosek ere. Agur egiozue elkarri, senideen maite-laztanaz. Bakea zuei guztioi, kristauoi.

[Sal 88: *Jauna, zure maitasuna abestuko dut betiren beti.*]

† Jesu Kristoren Ebanjelioa San Markosen liburutik 16,15-20.

Aldi hartan, Jesusek Hamaikei agertu eta esan zien: «Zoazte mundu guztira eta hots egin Berri Ona izaki guztiei. Sinetsi eta baitaiatzten dena salbatuko da; sinesten ez duena, berriz, kondenatuko. Sinesten dutenek seinale hauek izango dituzte lagun: Nire izenean deabruak botako dituzte, hizkuntza berrietan mintzatuko dira, sugeak eskuetan hartuko dituzte eta, edari hilgarriren bat edanda ere, ez die kalterik egingo; gaixoei eskuak ezarriko dizkiete eta sendatu egingo dira». Horrela mintzatu ondoren, Jesus Jauna zerura jasoa izan zen

Pazkoaldiko 3. astea.
SAN MARKOS, EBANJELARIA.

eta Jainkoaren eskuinaldean eseri zen. Haiek, berriz, alde guztietara joan ziren Berri Ona hots egitera. Eta Jauna bera ari zen haiekin, egiten zituzten mirarien bidez hitza baietsiz.

Markosen ebanjelioaren azken zati honetan laburbiltzen da Jesusek bere jarraitzaileei gomendaturiko zeregin apostolikoa. «Jesusen bidez» sutsuki mintzatu diren predikari hauetatik sortu da Eliza; beste hitz batzuekin esanda, Jainkoaren erreinua mundu honetan gauzatu behar dela hots egitetik, hasiera Jesus bera izan delarik eta jarraipena, berriz, bere ondasuna eta errukia bere Se-meagan agertu dituen Jainkoagan sinetsi dutenek eman diotelarik. Jauna jadanik bere Aitaren aintzan dago; baina inspiratzen eta lagun egiten jarraitzen du lurrean bere misioa izan zuen hura aurrera eramaten. Jesusek ez ditu utzi bereak, eta bere laguntza segurtatu digu eginkizuna amaitzeko.

§ Apostoluen Eginak liburutik 4,8-12.

Egun haietan, Pedrok, Espiritu Santuaz beterik, esan zuen: «Herriko agintari eta zaharrok, entzun: Sendatu den gaixo hau dela-eta honen sendatzea nondikakoa izan den galdetzen diguzue; jakin ezazue, bada, zuek denok eta Israel herri guztiak, zuek gurutziltzatu eta Jaungoikoak hilen artetik piztu duen Nazaretoko Jesu Kristoren ize-nean daukazuela gizon hau zuen aurrean sendaturik. Jesus da zuek “etxegileok baztertu duzuen harria; baina orain giltzarri egina dago”. Ez dugu beste salbatzailerik, eta ez zaigu eman gizonei eguzkipean beste izenik, gu salba gaitzakeenik».

[Sal 117: *Etxegileek baztertutako harria, berori gertatu da giltzarria.*]

§ San Joan Apostoluaren 1. gutunetik 3,1-2.

Senide maiteok: Begira zenbaterainoko maitasuna agertu digun Aitak: Jaungoikoaren seme-alaba izena daramagu, baita izana ere. Hona zergatik munduak ez gaituen ezagutzen, Jainkoa ere ezagutu ez zuelako. Senide maiteok, orain Jaungoikoaren seme-alaba gara; gero izango garena, oraindik ez da ageri. Badakigu, Jauna agertuko denean, haren antzeko izango garela, den bezalakoa ikusiko baitugu.

† Jesu Kristoren Ebanjelioa San Joanen liburutik 10,11-18.

Aldi hartan, Jesusek esan zien fariseuei: «Ni naiz artzain ona. Artzain onak bere bizia ematen du ardiengatik. Morroiak, ordea, artzain ez denak, ardiak bereak ez dituenak, ikusten du otsoa etortzen eta, ardiak utzirik, ihes egiten du; otsoak harrapatu eta sakabanatzen ditu; morroiari ez baitzaio axola ardiengatik. Ni naiz artzain ona; ezagutzen ditut neure ardiak, eta neureek ezagutzen naute ni; Aitak ni ezagutzen nauen bezala, halaxe nik ere Aita; gainera, neure bizia

Pazkoaldiko 4. astea.

San Isidoro, *gotzaina eta eliz irakaslea.*

ematen dut nik ardiengatik. Baditut artegi honetakoak ez diren beste ardi batzuk; haiek ere erakarri beharra dut; adituko dute nire ahotsa, eta artalde bakarra izango da, eta artzain bakarra. Aitak horregatik maite nau: Nire bizia ematen dudalako, berriro hartzeko. Ez dit inork kentzen: Neuk ematen dut neure gogoz. Nire esku dago bizia ematea, eta nire esku berriro hartzea: agindu hau hartu dut neure Aitagandik».

Jesusi ez dio bizia inork kendu. Bere biziaren jaun izan da bera, mundu honetan beste inor izan ez den moduan izan ere; hala, berak eskaini du bere bizia, askatasun osoaz, Aita eta gizadia maite dituelako. Guztiz bat etorri da Aita Semearen jarrera horrekin; izan ere, Hirutasun gisa, elkarrekin hartu dute erabakia, jakin dezagun zer nolako Jainkoa dugun, hausnar dezagun eta behin betiko harengana itzul gaitezen, hartaz behin betiko sekula ahaztu ez gaitezen, Maitasun, Bizi eta Askapen baita bera.

Kristo, artzain ona, lepoan bildots bat duela irudikatu ohi da. Guztiontzat eta gutako bakoitzarentzat agertu izan duen txeraren, arduraren, maitasun suharraren irudia da. Horregatik, harenganako konfiantza beteko otoitza izan behar du gaurkoak.

Artzain ona, zeure eskuetan duzu ene bizia, gorde nazazu altzoan, ez nazazu utz zure gogokoak ez diren zokoetan ibiltzen. Eraman nazazu larre lasai batera, neure indarrak berritzeko, beti zure artaldeko ardi izateko nire nahia sendotu dezadan. Ez nazala urrundu zugandik inongo otsok: zure esaneko eta zure atsegin nahi dut izan bizitza osoan. Ez dut gura zu beste artzainik.

Maria Antonia Bandres dohatsua, *birjina*.

San Pedro Canisio, *apaiza*.

San Pedro Chanel, *apaiza eta martiria*.

[Apostoluen Eginak liburutik 11,1-18: *Atzerritarrei ere eman die, beraz, Jainkoak bizira daraman bihotz-berritzea. Sal 41: Nire gogoa Jainko biziarengatik da.*]

† Jesu Kristoren Ebanjelioa San Joanen liburutik 10,1-10.

Aldi hartan, Jesusek esan zien fariseuei: «Egi-egiaz diotsuet: ategi-ara, atetik sartu beharrean, beste nonbaitetik sartzen dena lapurra da eta harrapatzailea. Atetik sartzen dena da ardien artzaina. Honi irekitzen dio atezainak, eta ardiek aditzen dute haren ahotsa; bakoitzari bere izenez deitzen dio, eta kanpora ateratzen ditu. Bere ardi guztiak atera ondoren, haien aurretik joaten da eta ardiek jarraitzen diote, ezagutzen baitute haren ahotsa. Arrotzari, ordea, ez diote jarraituko; ihes egingo diote, arrotzen deia ez baitute ezagutzen». Jesusek parabola hau esan zien, baina haiek ez zioten antzeman zer esan nahi zuen. Beraz, berriro esan zien Jesusek: «Egi-egiaz diotsuet; ni naiz ardien atea. Lehen etorri ziren guztiak lapurrak ziren eta harrapatzaileak, eta ardiek ez zieten entzun. Ni naiz atea. Nigandik sartzen dena salbatuko da; sartuko da eta aterako, eta aurkituko du jatekoa. Lapurra ez dator, ostu, hil eta hondatzera baizik; ni, berriz, bizia izan dezaten eta ugari izan dezaten etorria naiz».

Pedro Kanisio santua, Alemaniako apostolua, idazle, predikari eta diplomatiko nekazaria izan zen; hala lortu zuen aleman hizkuntzako jende erdia baino gehiagok Eliza katolikoari leial jarraitzea, Erreforma garaian.

Eskein dezagun gaur geure otoi-tza, Jaunari eskatzeko Kristogan sinesten dugun guztion batasuna. Eraiki dezagula geure bizitza bakearen eta maitasunaren oinarri sendoen gainean, egon gaitzela prest gehiago azpimarratzeko batzen gaituen hura bereizten gaituen hura baino; azken batean, edozein lekutan bizi garela, izan gaitzela adiskidetzaren sustatzaile eta eragile.

Pazkoaldiko 4. astea.

San Prudentzio, *gotzaina* (*Gasteizko elizbarrutiko eta Arabako Zaindaria*).

[**Apostoluen Eginak liburutik 11,19-26:** *Greziarrei ere hitz egin zieten, Jesus Jaunaren berri emanaz. Sal 86: Goretatzue Jauna, atzerritar guztiek.*]

† Jesu Kristoren Ebanjelio San Joanen liburutik 10,22-30.

Aldi hartan, Jerusalemen jauretxearen sagaratzeko-jaiak ziren. Negua zen. Jesus jauretxean zebilen, Salomonen aterpean. Inguratu zuten juduek, eta esan zioten: «Noiz arte eduki behar gaituzu zalan-tzan? Mesias baldin bazara, esaguzu garbi». Jesusek erantzun zien: «Esan dizuet, eta ez duzue sinesten. Nik Aitaren izenean egiten ditudan egintzek, horiek egiten dute nitaz aitormen. Baina zuek ez duzue sinesten, ez baitzarete nire ardietaoak. Nire ardiek aditzen dute nire mintzoa; nik ezagutzen ditut, eta haiek ondotik datozkit. Eta betiko bizia ematen diet; ez dira betiko galduko, eta ez dizkit inork eskutik kenduko. Haiek eman dizkidan Aita, beste denak baino handiagoa da, eta inork ere ezin ditzake ken nire Aitaren eskuetatik. Aita eta biok, bat gara».

Gauza gogorra izan ohi da ikustea, norbaiti ohartarazi leize baten ertzean dagoela eta eror daitekeela, eta kasurik egin ez eta hondoraino joan dela. Ezintasun hori bera sentitu bide zuen Jesusek, ikustean jende askok atzea ematen ziola beraren predikuari eta uko egiten ziola bera Mesiasztat eta Jainkoaren Semetzat hartzeari. Eta kontuan izan behar da, hitzek bakarrik ez, egintzek ere haren jainkotasuna baiesten zutela.

Egia handia da ezen ez dela sorgor handiagorik entzun nahi ez duena baino. Bere bihotza Jainkoari edo gainerakoei ixten dienak hondorik gabeko leizea izan ohi du bere zoria, handik ezin izango du inork atera... uko egiten baitio galtzen ari dela aitortzeari.

[**Apostoluen Eginak liburutik 12,24–15,5a:** Bereiz iezazkida-zue Saulo eta Bernabe. **Sal 66:** *Ene Jainko, ospa zaitzatela herriek, ospa zaitzatela herri guztiek.*]

† Jesu Kristoren Ebanjelioa San Joanen liburutik 12,44-50.

Aldi hartan, Jesusek esan zuen oihu handiz: «Nigan sinesten duenak, ez du nigan sinesten, ni bidali nauen harengan baizik. Eta ni ikusten nauenak, ni bidali nauena ikusten du. Ni argi bezala etorri naiz mundura, nigan sinesten duenik inor ilunpean egon ez dadin. Nire hitzak entzun, bai, baina betetzen ez dituenak, nik ez dut gaitzetsiko; ez bainaiz mundua gaitzestera etorri, mundua salbatzera baizik. Ni baztertzen nauenak eta nire hitzak onartzen ez dituenak, badu nork gaitzetsi: Nik esan dudana hitzak, horrek gaitzetsiko du azken egunean. Nik ez dut neurez hitz egin; bidali nauen Aitak agindu dit zer eta nola esan. Eta badakit haren agindua betiko bizia dela. Horregatik, nik esaten dudana, Aitak agindu bezala dut esaten».

Santa Katalinaren eraginak mendez mende iraun du, azkenean, Elizaren irakasle eta Europako zaindari-kide izendatzeraino. Ez zen izan komentuan itxirik bizi izan zen emakumea; osterak, ekintzaile bizia izan zen bakearen, adiskidetzaren eta nola estatuen arteko harremanetan hala Elizaren beraren barnekoetan konkordiaren alde. Katalinaren parte hartze erabakitzaileari esker, Avignongo Aita Santua Erromara itzuli zen. Eska diezaiozun Katalina santuari, erregutu dezala gure Europa honentzat, bere burua ekonomiaren gainean erai-ki nahi baitu eta ez bera fundatu zuten kristau-balioen gainean.

Pazkoaldiko 4. astea.

San Pio V.a, 225. aita santua.

Santa Sofia, birjina eta martiria.

[**Apostoluen Eginak liburutik 13,13-25:** *Daviden hazitik atera zion Jainkoak Israeli Salbatzailea, Jesus. Sal 88: Jauna, zure maitasuna abestuko dut betiren beti.*]

† Jesu Kristoren Ebanjelioa San Joanen liburutik 13,16-20.

Jesusek, ikasleei oinak garbitu ondoren, esan zien: «Egi-egiaz diotsuet: morroia ez da nagusia baino handiagoa; bidalia ere ez da bidaltzailea baino handiagoa. Hori dakizuelarik, zorionekoak zuek, betetzen baduzue. Ez diot hau zuengatik guztiongatik; ongi dakit nik, zein aukeratu ditudan; baina bete beharra da Liburu Santuak dioena: “Nire ogitik jaten zuenak egin dit saldukeria”. Orain esaten dizuet, hori gertatu baino lehen; gertatzean, “Ni naizena naizela” sinets dezazuen. Egi-egiaz diotsuet: Nik bidalia hartzen duenak ni neu hartzen nau; eta ni hartzen nauenak bidali nauena hartzen du».

Jesusek etsenplua eman digu: ikasleen oinetan jarri eta oinak garbitu dizkie, esklaboei eta morroiei zegokien lana eginez. Zorionekoak gu, irakaspen hau onartzen badugu eta besteen zerbitzari bihurtzen bagara, sufritzen ari direnez errukitzen bagara, negar degitenak kotsolatzen baditugu, barre degitenekin pozten bagara. Zoriona ez da jaiotzen geure desioak modu egoistan asetzetik, baizik eta gainerakoengatik ongizatea gauzatzen saiatzetik. Haien poza gure zorion izan ohi da, bizi izan ez duenak ezin imajinatzeko moduan. Bere eskura du zoriona... gainerakoentzat bizi denak.

«Ni naiz egiazko mahatsondoa, eta nire Aita da mahasti-jabea»



AITA SANTUAREN ASMOAK

Orokorra: Axola-ezaren kultura alde batera utzirik, ardura gaitzen sufritzen ari direnez, bereziki gaixoez eta behartsuez.

Ebanjelizazioaren alde: Andre Mariaren erreguak lagundu ditzala kristauak, bizi diren giro sekularizatuan, prest egotera Jesusen berri emateko.

MAIATZA / ORRILA

Pazkoaldiko 4. astea.
SAN JOSE LANGILEA

PAZKOALDIKO EGUNEKOA: [Apostoluen Eginak liburutik 13,26-33: *Bete du Jainkoak bere promesa, Jesus berpiztuaz. Sal 2: Nire Semea zara zu, nik zaitut gaur sortu. San Joanen ebanjeliotik 14,1-6: Ni naiz bidea, egia eta bizia.*]

SAN JOSEREN JAIKOA

§ Hasiera liburutik 1,26–2,3.

Jainkoak esan zuen: «Egin dezagun gizakia; izan bedi gure irudiko, gure antzeko; mendera ditzala itsasoko arrainak, zeruko hegaztiak, abereak, basapiztiak eta lurrean narraska dabiltzan piztia guztiak». Jainkoak, beraz, bere antzeko egin zuen gizakia, Jainkoaren beraren irudira egin zuen; ar eta eme egin zituen. Eta bedeinkatu zituen, esanez: «Sor itzazue umeak eta ugaldtu, bete lurra eta izan haren nagusi; mendera itzazue itsasoko arrainak, zeruko hegaztiak eta lurrean narraska dabiltzan piztia guztiak». Jainkoak esan zien: «Hara, zeuei ematen dizkizuet lurrazalean diren hazidun landare guztiak eta hazidun fruta-arbola guztiak; horiek izango dituzue janari. Abere, zeruko hegazti eta lurrean narraska dabiltzan bizidun

guztiei, berriz, belar hezea ematen diet janari». Eta hala izan zen. Eta egin zuen guztia oso ona zela ikusi zuen Jainkoak. Honela, sei-garren eguna burutu zen. Honela burutu zituen Jainkoak zeru-lurrak, berauetan dagoen guztiarekin. Zazpigarren egunerako burutu zuen Jainkoak berak eginiko lana eta zazpigarren egunean lanari utzi zion. Eta bedeinkatu egin zuen zazpigarren eguna eta sagaratu, egun horretan hartu baitzuen atsedean kreazio-lanetik.

[Sal 89: *Gure eskuen lana lagundu ezazu, Jauna.*]

† Jesu Kristoren Ebanjelioa San Mateoren liburutik 13,54-58.

Aldi hartan, Jesus bere herrira etorri zen, eta irakasten ari zitzaizen sinagogan, denak harritzeraino. Entzuleek zioten: «Nondik ditu honek horrelako jakinduria eta ahalmena? Hau ez al da, bada, arotzaren semea? Ez al da Maria, honen ama? Eta honen anaiak ez al dira Santiago, Jose, Simon eta Judas? Ez al dira gure artean bizi honen arrebak? Nondik du, beraz, honek hau guztia?» Eta ezin sinetsi zuten harengan. Jesusek, berriz, esan zuen: «Bere herrian eta bere etxean bakarrik gutxiesten dute profeta». Eta haien sinesgogorkeriagatik, ez zuen han mirari askorik egin.

Gogoan izan, Jauna, munduko langile guztiak; batez ere, beren ahalegina eta guzti, soldata eskasa jasotzen dutenak beren familia-rekin bizitza duin bat egin ahal izateko. Gogoan izan langabetuak; batez ere, langabetuen laguntzarik ere jasotzen ez dutenak; bila eta bila jardun arren, lanik aurkitzen ez dutenak. Gogoan izan haurrak eta emakumeak, lanaldi lehegarriaz esplotatzen dituztenak, adina eta izaera mespretxatuz. Gogoan izan premian diren pertsonen abusatzen dutenak, berauen baliabide-faltaz baliatuz. Gogoan izan, Jauna, zu zeu ere langilea izan zinela, esku-langile, Jose zeure aita bezala.

Pazkoaldiko 4. astea.

San Atanasio, *gotzaina eta eliz irakaslea*.
San Felix, *martiria*.

[Apostoluen Eginak liburutik 13,44-52: *Atzerritarrengana goaz. Sal 97: Ikusi dute lur-muga guztiek gure Jainkoagandiko garaipena.*]

† Jesu Kristoren Ebanjelioa San Joanen liburutik 14,7-14.

Aldi hartan, Jesusek esan zien ikasleei: «Ni ezagutuko baninduzue, nire Aita ere ezagutuko zenukete; dagoeneko ezagutzen duzue hura, eta ikusten ere bai». Felipek orduan: «Jauna, erakutsiezaguzu Aita, eta nahikoa dugu». Eta Jesusek: «Hainbeste denboran zuekin egon, eta ez al nauzu ezagutzen, Felipe? Ni ikusten nauenak, Aita ere ikusten du. Nola diozu, “erakutsiezaguzu Aita”? Ez al duzu sinesten, ni Aitagan nagoela eta Aita nigan dagoela? Esaten dizuedana, ez dizuet nik neurez esaten. Nigan dagoen Aitak berak egiten ditu bere egintzak. Sinetsiezadazue: Ni Aitagan nago eta Aita nigan. Sinetsi, bestela, haren egintzengatik. Egi-egiaz diotsuet: nigan sinesten duenak, nik egiten ditudan lanak egingo ditu hark ere, eta handiagoak ere bai, ni Aitagana bainoa, eta nire izenean zerbait Aitari eskatzen badiozue, egingo dut nik, Aita Semeagan goretsia izan dadin. Nire izenean zerbait eskatzen baduzue, egingo dut nik».

San Paulok dio, Jainko ikusezinaren irudi ikusgarria dela Jesus. Joanek, lehentxeago, esan zigun, Jainkoa ez duela inork ikusi; alabaina, gaur irakurri digun haren ebanjelioak diosku, Jesus ikusten duenak Aita ikusten duela. Beraz, Nazaretarragan ikusten dugu Jainkoaren aurpegia. Azken bi milurteko hauetan, Jesusen aurpegia pinturretan eta tailurretan tankeratu nahi izan dute artistek. Hunkigarriak dira batzuk, baina, gure irudiko, kamuts dira guztiak ere. Horregatik dario ene bihotzari deiadar hau: Jauna, erakutsiezadazu zeure aurpegia.

§ Apostoluen Eginak liburutik 9,26-31.

Egun haietan, Saulo, Jerusalema iritsi zenean, ikasleekin elkartu nahian zebilen. Denek, ordea, beldurra zioten; ez baitzuten uste ikasle zela. Orduan, Bernabek berekin hartu eta apostoluengana eraman zuen. Saulok bidean Jauna nola ikusi zuen adierazi zien, Jaunak nola hitz egin zion, eta bera Damaskon Jesusen izenaz nola mintzatu zen jendearen aurrean. Saulo haiekin zebilen, Jerusalemen sartu eta atera, Jaunaren izenaz jendearen aurrean mintzatu. Greziar hizkuntzako juduekin ere hitz egiten zuen eta eztabaidak izan zituen. Baina haiek hura nola hilko zebiltzan. Senideek, hori jakitean, Zesareara eraman zuten eta handik Tartsora bidali. Eliza, berriz, bakean bizi zen Judea osoan, Galilean eta Samarian; eraikitzen zihoan, Jaunari gero eta leialago jarraituz, eta gero eta handiagoa egiten ari zen, Espiritu Santuak eraginda.

[Sal 21: *Zugana nire goreskizuna, Jauna, batzar nagusian.*]

§ San Joan Apostoluaren 1. gutunetik 3,18-24.

Ene semeok: Ez dezagula hitzez eta ahoz maita, egiaz eta egi-tez baizik. Horretan ezagutuko dugu egiagandik gabela, eta lasaituko dugu geure bihotza Jainkoaren aurrean; gure bihotzak errudun gabela esaten badigu ere, gure bihotza baino handiagoa da Jainkoa, eta guztia dakiena. Senide maiteok, bihotzak ez badigu esaten errudun gabela, uste osoa dugu Jainkoagan. Eta eskatu ahal guztia hartzen dugu Jainkoagandik, haren aginduak betetzen baititugu eta hari atsegina zaiona egiten. Eta hau da haren agindua: bere Seme Jesu Kristoren izenean sinets dezagula eta elkar maita, berak agindu zigun bezala. Haren aginduak betetzen dituen Jainkoarekin dago eta Jainkoa harekin; honetatik ezagutzen dugu gurekin dagoela: eman digun Espiritutik.

Pazkoaldiko 5. astea.San Felipe eta Santiago, *apostoluak*.

† Jesu Kristoren Ebanjelioa San Joanen liburutik 15,1-8.

Aldi hartan, Jesusek esan zien ikasleei: «Ni naiz egiazko mahatsondoa, eta nire Aita da mahasti-jabea. nigan fruiturik ematen ez duen aihena moztu egingo du, eta fruitu ematen duen guztia kimatu, fruitu gehiago eman dezan. Zuek, bai, garbi zaudete, nik adierazi dizuedan hitzari esker. Zaudete nigan eta ni zuengan. Aihenak ez dezake berez fruiturik eman, mahatsondoan ez badago; ezta zuek ere, nigan ez bazaudete. Ni naiz mahatsondoa, eta zuek aihenak. Nigan dagoenak, eta ni harengan, fruitu asko ematen du; ni gabe ezin baituzue ezer egin. Nigan ez dagoena, aihena bezala kanpora botako dute eta ihartu egingo da; gero, bildu eta sura botako dituzte, eta erre egiten dira. Nigan bazaudete eta nire hitzak zuengan badaude, eskatu nahi duzuen guztia, eta izango duzue. Honek goersten du nire Aita: zuek fruitu ugari emateak; horrela izango zarete nire ikasle».

Mahatsondoaren alegoriaz, biak ditu gutxien Jesusek: batetik, aktibismoa, hau da, neurririk gabeko jarduera; bestetik, otoitz-zaletasun geldoa. Kristorekin zerikusi esturik ez duen Erreinuarekiko lanak porrota izan ohi du ondorio. Jainkoak eskatzen diguna, maitatua izateari ematen zaion erantzuna da, erantzun bezala egiten den lana. Hain juxtu, gure jarduera gehienei horixe falta zaie: erantzuna izatea: Espiritutik ez datorren norberaren berezkotasunetik jaio ohi dira jarduera horietako asko. Baina, jakina, kontua ez da Jainkoari zuzenketa batzuk egin nahi izatea; baizik hark nahi duen lekuan eta hark nahi duen bezala lan egitea da arazoa.

Alabaina, egintzarik gabeko otoitz-zaletasuna ere gaitzetsi egin du Jesusek. Fruiturik ez dakarten aihenak moztu egin dira, surako.

Baita mahatsondoari itsatsiak daudenak ere: «nigan fruiturik eman ez dutenak», dio Jesusek.

Mahastiaren Jauna, egizu, zure aihena honek har dezala zure onginahiaren izerdi bizia, uzta ugaria eman dezan, zure izenaren aintzarik handienerako eta zure erreinua hedatzeko. Ez nadila galdu berritsukerietan, eta heldu diezaiodala lanari. Horrela egiten badut, zure laguntzaz fidatuz, nire mahatsondoaren ardoa munduko hobereña izango da.

Pazkoaldiko 5. astea.San Jose Maria Rubio, *aitorlea*.

[Apostoluen Eginak liburutik 14,5-17: *Berri ona dakarkizuegu, gezurrezko jainkoak utzi eta Jaungoiko biziagana itzul zaitezten. Sal 113: Jauna, ez guri, emaiozu ospea zeure izenari.*]

† Jesu Kristoren Ebanjelioa San Joanen liburutik 14,21-26.

Aldi hartan, Jesus honela mintzatu zitzaien bere ikasleei: «Nire aginduak hartu eta betetzen dituen, hori da ni maite nauena, eta ni maite nauena, maite izango du nire Aitak, eta nik ere maite izango dut eta agertuko natzaio». Orduan galdetu zion Judasek –ez ordea, Iskariotek, besteak baizik–: «Zer dela eta guri agertu, eta munduari ez?» Jesusek esan zion: «Ni maite nauenak, beteko du nire hitza; nire Aitak maite izango du, eta harengana etorriko gara eta harengan egingo dugu bizileku. Ni maite ez nauenak, ez ditu betetzen nire hitzak. Eta entzuten duzuen hitza, ez da nirea, ni bidali ninduen Aitarena baizik. Oraindik zuen artean nagoela esan dizuet hau. Baina Aitak nire ize-nean bidaliko dizuen laguntzaileak, Espiritu Santuak, hark irakatsiko dizue dena, eta oroitaraziko, nik esan dizuedan guztia».

Itzultzaileei asko kostatu ohi zaie grekozko paraklito terminoaren sinonimo bat aurkitzea, eta Joanen ebanjelioan, Azken Afariko hitzaldi honetan, oso maiz dator. Euskaraz honela itzuli ohi dugu termino hori: abokatu, kontsolatzaile, aholkulari, defendatzaile, argi-emaile, laguntzaile... Espiritu Santuari ematen zaion izena da. Ez gara hasiko horietan zein hobetsi esaten, baina ondo gertatuko zaizu izen horiek adierazten dutena ahogozatzea. Jar ezazu zeure burua Jesusen Espiritu horren eskuetan; abba (aita) esanaraziko dizu, Jainkoari hitz egitean; zure defendatzailea dela iradokiko dizu, Kristoren etsaiak erasoka hasiko zaizkizunean; seguru sentiaraziko zaitu arriskuen artean... Zatoz, Espiritua, zatoz.

[Apostoluen Eginak liburutik 14,19-28: *Beren bidez Jaungoikoak egindako guztia azaldu zioten elkarteari. Sal 144: Ezagutarazi bezate zure zintzoek, Jauna, zure erregetzaren bikaintasuna.*]

† Jesu Kristoren Ebanjelioa San Joanen liburutik 14,27-31a.

Aldi hartan, Jesusek esan zien ikasleei: «Bakea uzten dizuet, neure bakea ematen; ez dizuet ematen munduak bezala. Ez izan beldurrik zeuen bihotzean; ez larritu. Entzun duzue nik esana: “Banoa, baina etorriko natzaizue berriro”. Maite baninduzue, poztuko zinatekete Aitagana noalako, Aita ni baino handiagoa baita. Orain esan dizuet, hori gertatu baino lehen; gertatzean, sinets dezazuen. Honez gero ez dut zuekin hitz askorik egingo, bai baitator mundu honetako nagusia; ez du aginterik nigan, baina munduak jakin behar du, nik maite dudala Aita, eta Aitak agindu didana, hura egiten dudala».

Irizpide ziurra da. Bakea kentzen dizun hura ez dator Jainkoagandik. Haren presentziak kontsolamendua dakar beti, poza, lasaitasuna. Larritzen, estutzen, hertsatzen edo izutzen edo tristura ematen duena ez dator Jainkoagandik. Ez, behintzat, Jesusi eta Ebanjelioari leial izaten saiatzen diren pertsonen kasuan. Arrazoi osoz dio Teresa santuak: «Ez zaitzala ezerk larritu. Ez zaitzala ezerk izutu. Jainkoa duenari ez zaio ezer falta». Soilik, bekatari tematiei die kontzientziak ezinegona sortzen, beren egoeratik irten daitezten. Maitasun den Jainkoak ez dio inoiz inori beldurrik sartzen, ez kezkarik eragiten. Bakea da Jainkoa, benetako bakea, betea eta iraunkorra.

Pazkoaldiko 5. astea.

Domingo Savio santua, *aitorlea*.
San Luzio, *profeta eta doktorea*.

[Apostoluen Eginak liburutik 15,1-6: *Jerusalema igo zitezela erabaki zuten, apostolu eta arduradunekin auzia argitzeko. Sal 121: Bagoaz pozik Jaunaren etxera.*]

† Jesu Kristoren Ebanjelioa San Joanen liburutik 15,1-8.

Aldi hartan, Jesusek esan zien ikasleei: «Ni naiz egiatzko mahatsondoa, eta nire Aita da mahasti-jabea. nigan fruiturik ematen ez duen aihena, moztu egingo du, eta fruitu ematen duen guztia kimatu, fruitu gehiago eman dezan. Zuek, bai, garbi zaudete, nik adierazi dizuedan hitzari esker. Zaudete nigan eta ni zuengan. Aihenak ez dezake berez fruiturik eman, mahatsondoan ez badago; ezta zuek ere, nigan ez bazaudete. Ni naiz mahatsondoa, eta zuek aihenak. Nigan dagoenak, eta ni harengan, fruitu asko ematen du; ni gabe ezin baituzue ezer egin. Nigan ez dagoena, aihena bezala kanpora botako dute eta ihartu egingo da; gero bildu eta sura botako dituzte, eta erre egiten dira. Nigan bazaudete eta nire hitzak zuengan badaude, eskatu nahi duzuen guztia, eta izango duzue. Honek goستن du nire Aita: zuek fruitu ugari emateak; horrela izango zarete nire ikasle».

Gizon-emakumeak libre izatean datza Jainkoaren aintza, esan zuen Ireneo santuak. Geure bizitzaz bete-betea gozaten dugunean ohoratzen dugu Jainkoa eta egiten diogu publizitatea; alegia, gure bizitza Jesusenaren antzeko izatea lortzen dugunean irizpide, jarrera eta jokabideetan. Horixe adierazten du Kristok gaur dioskun honek: «Zuek fruitua ematen duzuenean jasotzen du aintza nire Aitak». Oso ondo da goraka eta aleluiaka aritzea, baina Jainkoari aintza ematea, hau da, haren presentzia gure mundu honetan garden egitea, orduan egingo dugu: gure egintzek eta portaerak Jainkoaren onberatasuna, errukia eta gupida ispilatuko dutenean. Hori da Jainkoak gugandik jaso nahi duen kultura.

[Apostoluen Eginak liburutik 15,7-21: *Uste dut ez direla kezkarazi behar Jaungoikoagana itzultzen diren jentilak. Sal 95: Zabaldu Jaunaren mirariak herri guztietan.*]

† Jesu Kristoren Ebanjelioa San Joanen liburutik 15,9-11.

Aldi hartan, Jesusek esan zien ikasleei: «Aitak ni maite izan nauen bezala, hala maite izan zaituztet nik zuek. Zaudete nire maitasunean; nire aginduak betetzen badituzue, nire maitasunean egongo zarete; ni, Aitaren aginduak betetzen ditudalako, haren maitasunean nagoen bezala. Hori esan dizuet, nire poza zuengan izan dadin, eta bete-betea izan dadin zuen poza».

Zeinek esan du kristauok pertsona tristeak gara? Sasi-kristauak izango dira horrelako, Jesu Kristoz maitemindu ez direnak. Zeren Jainkoak agertzen dizun maitasunarentzat leiala bazara eta erantzuten badiozu –apurño bat besterik ez bada ere–, zeurekin dukezu poz-asegurua betiko. Gerta dakizuna gerta zaizula, bada-kizu ez zaituela utziko sekula Jainkoagandiko poz sakonaren, barearen eta zure bizitza amairik gabeko festa bihurtzen duenaren betearen beteak. Jainkoak zutaz dituen desioak betetzea, zorrotzenak direla ere, arrosa-bide irudituko zaizu. Jesusek eskutik hartu zaituela sentitzean, atsegingarri gertatuko zaizkizu gauza guztiak, zorionaren punta-puntako.

Pazkoaldiko 5. astea.

Antiguako Andre Maria.
Santa Dominga, *martiria*.

[Apostoluen Eginak liburutik 15,22-31: *Espiritu Santuak eta guk erabaki dugu, behar-beharrezko direnak beste zamarik zuei ez ezartzea. Sal 56: Goretsiko zaitut, Jauna, herrietan.*]

† Jesu Kristoren Ebanjelioa San Joanen liburutik 15,12-17.

Aldi hartan, Jesusek esan zien ikasleei: «Hau da nire agindua: Maita dezazuela elkar, nik maite izan zaituztedan bezala. Ez da maitasun handiagorik, nork bere bizia bere adiskideengatik ematea baino. Zuek nire adiskide zarete, nik agindua betetzen baduzue. Orain ez dizuet gehiago morroi esaten, morroiak ez baitaki nagusiak zer egiten duen: adiskide esaten dizuet, Aitagandik ikasi dudan guztia adierazi baitizuet. Ez nauzue zuek aukeratu ni, baizik eta nik aukeratu zaituztet zuek, eta ezarri zaituztet, joan zaitezten eta fruitu eman dezazuen eta zuen fruituak iraun dezan; Aitak, nire izenean eskatuko diozuen guztia, eman diezazuen. Hau agintzen dizuet: Maita dezazuela elkar».

Dohain edo erregalu handia da adiskidetasuna. Horretaz gozaten duenak badaki, uste osoa izan dezakeela lagun horrengan, ez ondo pasatzeko bakarrik, baita, batez ere, gauzak okertzen direnean eta gaizkira jotzen hasten direnean ere. Halakoetan ikusten da zein den benetako adiskidea eta zein komenientziakoa.

Imajina zenezakeen adiskiderik handiena da Jesus, inoiz ere huts egiten ez duena. Ez da beste inor hura bezalako. Zeure ondoan duzu hura beti. Bila doakizu, galdurik zabiltzanean ere.

Onar ezazu Jesusek eskaintzen dizun adiskidetasuna, eta seguru egon, hura adiskide duzula, munduko pertsonarik zorionekoena izango zarela.

San Gregorio Berruezakoa, *gotzaina (Iruñe eta Tuterako elizbarrutietan).*
Santa Luminosa, *birjina.*

[Apostoluen Eginak liburutik 16,1-10: *Zatoz Mazedoniara, eta lagun iezaguzu. Sal 99: Lurtar guztiok, egin irrintzi Jaunari.*]

† Jesu Kristoren Ebanjelioa San Joanen liburutik 15,18-21.

Aldi artan, Jesusek esan zien ikasleei: «Munduak gorrotatzen bazaituzte, jakizue, zuek baino lehen gorrotatu ninduela ni. Zuek mundutarrak bazinete, maite izango luke munduak berea; zuek ez izan, ordea, mundutarrak, nik aukeratuak baizik eta mundutik atereak, eta horregatik zaituzte gorroto munduak. Izan gogoan nik esan nizuena: “Morroia ez da nagusia baino handiagoa. Niri eraso badidate, zuei ere erasoko dizuete; nire hitza honela hartu badute, hala hartuko dute zuena ere”. Eta hori guztia nire izenagatik egingo dizuete, ez baitute ezagutzen ni bidali nauena».

Harritu zaitez, zeure bizitzan kristau izateagatik, jendaurrean nahiz pribatuan, kontraesanik jasan ez baduzu. Jesusen jarraitzaileok haizearen kontra bizi gara. Esan nahi baita, ez dugula amesten beste batzuek bezalako handinahirik; ez dugu irrikatzen edozein modutan aberastea, lanbideko arrakasta, nabarmentzea, maila pertsonalean eta familiarren arrakasta izatea, gizartean postu goratuak izatea... Koherente bazara, traba askorekin egingo duzu topo: ulermen-eza, aurkaritza, mespretxua, baita laidoa bera ere. Zorotzat emango zaituzte, zigagaixotzat, onegitzat. Gaitzetsiko zaituzte, ez zaituzte aintzat hartuko... Arrarotzat joko zaituzte edo jendetasun gabekotzat.

Horrela ez bada, azter ezazu, ea Jesusekiko zure jarraipena egiazkoa eta benetakoa den.

Pazkoaldiko 6. astea.San Joan Avilakoa, *apaiza*.San Damian Molokaikoa, *apaiza eta aitorlea*.

§ Apostoluen Eginak liburutik 10,25-26.34-35.44-48.

Egun haietan, Pedro sartzera zihoala, Kornelio bidera atera zitzaion eta oinetaraino ahuspeztu. Pedrok altzarazi eta esan zion: «Zuti zaitez; ni ere gizona naiz zu bezala». Gero, Pedrok esan zuen: «Garbi ikusten ari naiz, Jaungoikoak ez duela bereizkeriarik egiten; baizik eta onartzen duela haren beldur dena eta zuzen dabilena, edozein herritakoa dela ere». Artean Pedro hizketan ari zela, Espiritu Santua jaitsi zen hitza entzuten zeuden guztien gainera. Pedrokekin etorritako fededun erdainduak harriturik gelditu ziren, jentilen gainera ere Espiritu Santuaren dohaina jaisten ikusita, hizkuntza arrotzetan mintzatzen eta Jaungoikoa goratzen ari baitziren. Orduan, esan zuen Pedrok: «Uka al diezaieke inork Bataioko ura, guk bezala Espiritu Santua hartu duten hauei?» Eta Jesu Kristoren izenean bataiatzeko agindu zuen. Eta, gero, haiek egun batzuk berekin gelditzeko eskatu zioten.

[Sal 97: *Agertu du Jaunak atzeritarren aurrean beragandiko garaipena.*]

§ San Joan Apostoluaren 1. gutunetik 4,7-10.

Senide maiteok: Maita dezagun elkar, maitasuna Jaungoikoagandik baitator, eta maite duen guztia Jaungoikoagandik jaioa da eta ezagutzen du Jainkoa. Maite ez duenak ez du ezagutzen Jainkoa, Jainkoa maitasuna baita. Jaungoikoak digun maitasuna honetan agertu zen: Jaungoikoak bere Seme bakarra bidali zuela lurrera, gu haren bidez bizi gaitezen. Maitasuna badela, honetan agertzen zaigu: ez guk Jainkoa maite izan dugulako, baizik hark gu maite izan gaituelako, eta bere Semea gure bekatuen bake-opari bidali zuelako.

Pazkoaldiko 6. astea.

San Joan Avilakoa, *apaiza*.San Damian Molokaikoa, *apaiza eta aitorlea*.

† Jesu Kristoren Ebanjelioa San Joanen liburutik 15,9-17.

Aldi hartan, Jesusek esan zien ikasleei: «Aitak ni maite izan nauen bezala, hala maite izan zaituztet nik zuek. Zaudete nire maitasunean; nire aginduak betetzen badituzue, nire maitasunean egongo zarete; ni ere, Aitaren aginduak betetzen ditudalako, haren maitasunean nagoen bezala. Hori esan dizuet, nire poza zuengan izan dadin, eta bete-betea izan dadin zuen poza. Hau da nire agindua: Maita dezazuela elkar, nik maite izan zaituztedan bezala. Ez da maitasun handiagorik, nor bere bizia bere adiskideengatik ematea baino. Zuek nire adiskide zarete, nik agindua betetzen baduzue. Orain ez dizuet gehiago morroi esaten, morroiak ez baitaki nagusiak zer egiten duen; adiskide esaten dizuet, Aitagandik ikasi dudan guztia adierazi baitizuet zuei. Ez nauzue zuek aukeratu ni, baizik eta nik aukeratu zaituztet zuek, eta ezarri zaituztet, joan zaitezten, eta fruitu eman dezazuen eta zuen fruituak iraun dezan; Aitak, nire izenean eskatuko diozuen guztia, eman diezazuen. Hau agintzen dizuet: Maita dezazuela elkar».

Maitasuna da kristautasunaren funtsa eta muina. Ez dezagun ahaztu. Gainerako jainkoek adorazioa eskatzen dute, menpetasuna, obediencia, begirunea eta urruntasuna... Haietako batzuk, beraien handitasuna dela eta, atzeman ezineko dira. Gure Jainkoak, beraren maitasunari erantzutea eskatzen digu; besterik ez.

Lehen agindua eta nagusia, Jainkoa «maitatzea» da. Ez dugu Jainkoa zertan baretu, ez zertan beneratu, ez zertan belauniko jarri edo makurtu haren aurrean, ezta zertan burua beheratu ere haren aurrean. Ostera, haur txiki egin da, besoetan har dezakezun haurño. Gizon egin da, gugandik ahalik eta hurbilena egoteko. Egiatzko maitasuna

Pazkoaldiko 6. astea.San Joan Avilakoa, *apaiza*.San Damian Molokaikoa, *apaiza eta aitorlea*.

eskatzen digu, desinteresatua, samurtasuna, afektua, seme-alabek, senar-emazteek, maiteminduek, gaixoek, bertan behera utziek, pobretuek... eskatzen dutena bezalako txera. Gure arteko egin da, sentimenduak eta emozioak partekatzeko; batez ere, ordea, unibertsoan den gauzarik goitiarrena agertzeko; Jainkoak digun doako maitasuna agertzeko, jainkozko hiru pertsonen elkarrekiko duten maitasuna, Hirutasun Santuak guztiontzat eta gutako bakoitzarentzat duen maitasuna agertzeko. Jainkoak halako maitasun-etsenplua eskaini badigu, zer gutxiago geuk ere elkar maitatzea baino! Badaezpada, Jesusek azpimarratzen digu: «Maita dezazuela elkar». Kristauok maitasunean sinesten dugu.

[Apostoluen Eginak liburutik 16,11-15: *Jaunak bihotza ireki zion, Paulok zioena onar zezan. Sal 149: Maite du Jaunak bere herria.*]

Jesu Kristoren Ebanjelioa San Joanen liburutik 15,26–16,4.

Aldi hartan, Jesusek esan zien ikasleei: «Nik Aitagandik bidaliko dizuedan laguntzailea etorriko denean –Aitagandik den egiaren Espiritua–, hark egingo du aitormen nitaz, eta zuek ere egingo duzue aitormen, hasieratik nirekin baitzaudete. Zuen sinesmena zalantzan egon ez dadin esan dizuet hau. Sinagogatik botako zaituztete; gehiago oraindik: badator garaia, zuei bizia kenduko dizuetenek, Jainkoari omen egiten diotela uste izango dutena. Ez Aita, ez ni, ezagutu ez gaituztelako egingo dute hori. Horien ordua etorriko denean, oroit zaitezte nik esan nizuela; horretarako esaten dizuet hau».

Kristauak Kristorekiko agertu izan duten fedearen Historian orrialde ilun asko dago. Okerrenak ez dira heresienak, ezta Elizaren aberastasun eta boterearenak ere, baizik eta kristauok batzuek bes-teen kontra gerla egin izana da okerrera eta, batez ere, zentzugabe-keriarik handienak zuritzeko, halakoetan Jainkoaren izena hartu eta erabili izana. Adibidez, jendea torturatzean eta hiltzean, fedea osorik defenditu nahi izatea agertu izan da batzuetan arrazoitzat –a zer bur-
la–. Ba ote da fedearen kontra ezer handiagorik, nork bere burua Jainkoa baino gorago ezarri eta Jainkoak eman dionari bizia kentzea baino? Are gehiago: hori guztia Jainkoaren izenean egitea baino, ha-
ren nahia balitz bezala?

Santo Domingo Kaltzadakoa, *erlijiosoa*.San Nereo eta Akileo, *martiriak*.San Pankrazio, *martiria*.

[Apostoluen Eginak liburutik 16,22-34: *Sinets ezazu Jesus Jau-nagan, eta salbatuko zarete zu eta zure etxeakoak. Sal 137: Zure eskui-nak nau salbatzen, Jauna.*]

† Jesu Kristoren Ebanjelioa San Joanen liburutik 16,5-11.

Aldi hartan, Jesusek esan zien ikasleei: «Banoa, bidali ninduen harengana, eta zuetako inork ez dit galdetzen: “Nora zoaz?” Baizik eta hori esan dizuedalako, tristurak bete du zuen bihotza. nik, ordea, egia diotsuet: hobe duzue ni joatea; ni joaten ez banaiz, ez zaizue etorriko laguntzailea. Joaten banaiz, berriz, nik bidaliko dizuet. Eta datorkeenean, agerian jarriko ditu hark munduaren aurrean errua, zuzentasuna eta epaia. Errua, nigan sinesten ez dutelako. Zuzentasuna, Aitagana bainoa eta ez nautze ikusiko. Eta epaia, mundu honetako nagusia gaitzetsia dagoelako».

Azken-agurra tristera izan ohi da beti, ospitaleari edo kartzelari esatean salbu. Apostoluek barruntatu dute, hurbiltzen ari zaiena beraien handikeriazko ametsen azkena izango dela. Beldur dira Jesusez, baita beraiez ere, beren bizitzako uste guztia harengan jarria baitute.

Jesusek bera badoala iragarri die; aldi berean, ordea, abokatu defendatzaile bat bidaliko diela agindu die. Bai, esku onetan utzi gaitu Jesusek. Jesusek bidalitako Espiritu hori aholkulari dugu une iluntan, indarra eta adorea ematen digu geure bokazioa eta kristau-zeregina betetzeko eta, arriskualdian, laguntzera etorri ohi zaigu. Beraz, Jesus ez doa..., zeren haren Espirituak gurekin jarraitzen baitu.

[Apostoluen Eginak liburutik 17,15-22–18,1: *Zuek ezagutu gabe gurtzen duzuen horren berri ematera natorkizue. Sal 148: Zeru-lurrak beterik dauzka zure distirak.*]

† Jesu Kristoren Ebanjelioa San Joanen liburutik 16,12-15.

Aldi hartan, Jesusek esan zien ikasleei: «Gauza asko ditut zuei esateko, baina orain ezin jaso dituzue; egiaren Espiritua datorkeenean, ordea, hark gidatuko zaituzte egia osoraino. Hark ez baitu bere buruz esango ezer; entzuna esango dizue eta etorkizuna adieraziko. Hark goretsiko nau, niretik hartuko baitu, eta zuei adieraziko dizue. Aitak duen guztia nirea da; horregatik esan dizuet: “Niretik hartuko duela, eta zuei adieraziko”».

Bidal iezaguzu, Jauna, zeure Espiritua; ez egia asko ezagutzeko, baizik egia betea ezagutzeko, hau da, zu zeu ezagutzeko. Izan ere, beste egia guztiak on dira pertsona baten bizitza hobetzeko, baina zu bakarrik zara antsiatzen dugun biziaren betea. Ez gure merezimen-duengatik, baizik zurengatik.

Zure egia hori ez zaie ageriko, ez harroputzei, ez aberatsei, ez jakintsu ustekoei.

Ez iezadazu utzi kategoria horietako batean erortzen, zu ezagutzeko eragozpen baitira. Egin nazazu zeure zerbitzari umil eta xume bat, zure jakinduriari irekia.

Pazkoaldiko 6. astea.
SAN MATIAS, APOSTOLUA.

[Apostoluen Eginak liburutik 1,15-17.20-26: *Txotx egin zuten, eta Matiasi erori zitzaion, eta hamaika apostoluekin hartu zuten. Sal 112: Bere herriaren nagusiekin eserarazi du Jaunak.]*

† Jesu Kristoren Ebanjelioa San Joanen liburutik 15,9-17.

Aldi hartan, Jesusek esan zien ikasleei: «Aitak ni maite izan nauen bezala, hala maite izan zaituztet nik zuek. Zaudete nire maitasunean; nire aginduak betetzen badituzue, nire maitasunean egongo zarete, ni ere, Aitaren aginduak betetzen ditudalako, haren maitasunean nagoen bezala. Hori esan dizuet, nire poza zuengan izan dadin, eta bete-betea izan dadin zuen poza. Hau da nire agindua: Maita dezazuela elkar, nik maite izan zaituztedan bezala. Ez da maitasun handiagorik, nork bere bizia bere adiskideengatik ematea baino. Zuek nire adiskide zarete, nik agindua betetzen baduzue. Orain ez dizuet gehiago morroi esaten, morroiak ez baitaki nagusiak zer egiten duen: adiskide esaten dizuet, Aitagandik ikasi dudan guztia adierazi baitizuet zuei. Ez nauzue zuek aukeratu ni, baizik eta nik aukeratu zaituztet zuek, eta ezarri zaituztet, joan zaitezten, eta fruitu eman dezazuen eta zuen fruituak iraun dezan; Aitak, nire izenean eskatuko diozuen guztia, eman diezazuen. Hau agintzen dizuet: Maita dezazuela elkar».

Zotz egitean, Matiasi egokitu zitzaion apostolu izena eta izana. Ez da hau baino zorion handiagorik: Jesusen jendarteko izatea, hark maiteenak dituenen artekoa izatea. Horretako, ez da ezinbestekoa, Jesusek, mundu honetan egin zuen bizitzaldian, nor bere izenaz deitu zituen haietakoa izatea. Apostolu izatera deitzen jarraitzen du Jesussek beragana hurbildu eta lanerako bihotz ona agertzen duten guztiei. Ez da zertan izan ezkongabe, ezta familia-eginbeharrik gabeko, ezta buruargi eta buru-dohain handiko edo pertsona normal bat handiago. Aski duzu, nahi izan eta zeure burua eskaini. Hala ote zure kasuan?

[Apostoluen Eginak liburutik 18,9-18: *Asko dira hiri honetan nire herriko. Sal 46: Jainkoa da lurbira osoan errege.*]

† Jesu Kristoren Ebanjelioa San Joanen liburutik 16,20-23a.

Aldi hartan, Jesusek esan zien ikasleei: «Egi-egiaz diotsuet: Zuek negar egingo duzue, eta hiletak joko; mundua, berriz, poztuko da. Zuek triste egongo zarete, baina zuen tristura poz bihurtuko da. Emakumea, haur egitekoan, triste egon ohi da, ordua etorri zaiolako, baina haurra izan bezain laster, ez da oroitzen izandako estutasunaz, munduari gizon bat jaio zaiolako pozez. Zuek ere triste zaudete orain, baina ikusiko zaituztet berriro, eta poztuko da zuen bihotza, eta zuen poza ez dizue inork kenduko. Egun hartan ez didazue ezer eskatuko».

Sinesgaitza da zenbat bider mintzo den Jesus pozaz, gozamenaz; hitz batean esateko, zorionaz. Hori digu promes egiten Jesusek beraren bideari jarraitzen diogunoi. Halaz guztiz, zenbat aldiz ez gara agertzen kopeta ilun eta erretxin!

Tira, ba, izan gaitezen kristau: alai, irribarretsu, zorionekoaren pareko! Eta nolatan adierazten dut askotan guztiz kontrako jarrera?; nolatan adierazten dut Jesusi jarraitze hau garratza eta neketsua dela, sufrimendu handiak dituela berekin?

Gezurra! Gurutzea lepoan hartzen duenak ez du sekula berak bakarrik hartzen. Halakoak zirenetarraren lana egiten du, eta, Jesus ondoan duela, Kalbariorako bidea aintzazko bidezidor gertatzen zaio.

San Andres Bobola, *apaiza eta martiria.*San Ubaldo, *martiria.*Santa Gema Galgani, *birjina.*

[Apostoluen Eginak liburutik 18,23-28: *Liburu Santutik garbi irakasten zuen Apolok, Jesus zela Mesias. Sal 46: Jainkoa da lurbera osoan errege.*]

† Jesu Kristoren Ebanjelioa San Joanen liburutik 16,23b-28.

Aldi hartan, Jesusek esan zien ikasleei: «Egi-egiaz diotsuet: Aitari zerbait nire izenean eskatzen badiozue, emango dizue. Orain arte ez diozue ezer eskatu nire izenean; eskatu, eta hartuko duzue, zuen poza bete-betea izan dadin. Parabolatan aipatu izan dizkizuet gauza horiek. Badator, parabolatan gehiago hitz egingo ez dizuedan garaia, eta argi eta garbi emango dizuet Aitaren berri. Egun hartan nire izenean eskatuko duzue, eta ez dizuet esaten nik Aitari eskatuko diodala zuentzat; Aitak berak maite baitzaituzte, zuek maite nauzuelako, eta Aitagandik natorrela sinetsi duzuelako. Aitagandik atera nintzen, eta mundura etorri; orain mundua utzi eta berriro Aitagana noa».

Zer-nolako testamentua utzi digun Jesusek! Haren izenean Aitari eskatu guztia emango digu honek. Baina ez Kristo zoratzeko moduan maite duelako, baizik bere Seme harengan gu guztiok seme-alaba bezala maite gaituelako. Kristauok ez diogu uzten Jesusi dei egiteari. Ez zaigu joaten ahotik Jesusen izen bedeinkatua. Eta heriotzako orduan ez al diogu utziko ahopean esateari, azkenik ez duen bizirako pasaportea baita.

Emaiozu alditxo bat Jesusen izena ahogozatzeari, dastatzeari. Errepika ezazu behin eta berriz, zeure bihotzeko kantu bihurtu arte.

§ Apostoluen Eginak liburutik 1,1-11.

Teofilo maitea: Nire lehenengo liburuan idatzi nuen, Jesusek hasieratik egin eta erakutsi zuen guztia. Espiritu Santuak eraginda aukeratutako apostoluei aginduak eman ondoren, zeruetara igo zen arte. Jesus, bere nekaldiaren ondoren, agertu zitzairen bere apostoluei, bizirik zegoela argi erakutsiz, eta, berrogei egunez azaltzen zitzaie, Jaungoikoaren erreinuaz hitz egin zien. Berarekin jaten ari ziren batean, esan zien: «Ez zaitetzela atera Jerusalemdik. Zaudete han, Aitak hitzeman eta zuek niri entzundako agintzariaren zain. Joanek urez bataiatu zuen; zuek, ordea, Espiritu Santuaz izango zarete bataiatuak hemendik egun gutxi barru». Bildurik zeudenek galdetu zioten: «Jauna, orain eraikiko al duzu berritik Israelgo erreinua?» Eta Jesusek: «Ez dagokizue zuei, Aitak bere esku dauzkan uneak eta garaiak jakitea. Espiritu Santua etorriko zaizuenean, hartuko duzue indar nire aitorle izateko, Jerusalemen, Judea guztian, Samarian eta lurrean azken mugaraino». Hori esanik, igo egin zen, haiek begira zeudela, eta hodei batek gorde zien begien aurretik. Zerura nola zihoan begira-begira zeudela, zuriz jantzitako bi gizon aurkeztu zitzaizkien, eta esan zieten: «Galilearrok, zertan zaudete hor, zerura begira? Zuek utzi eta zerura igo den Jesus hori berriz etorriko da joaten ikusi duzuen bezala».

[Sal 46: *Oihu alaien artean igo da Jainkoa, turuta-soinuz Jauna.*]

§ Paulo apostoluak Efesoarrei 1,17-23.

Senideok: Jesu Kristo gure Jaunaren Jaungoikoak, aintzaren Aitak, eman diezazuela jakinduriazko eta goi-argizko Espiritua, bera ezagutzeko. Argi bitza zuen bihotzeko begiak, horrela jakin dezazuen nolakoa den haren deiaren itxaropena, nolakoak haren aintzaren aberastasunak, berak santuei oinordekotzan emanak; no-

JAUNAREN IGOKUNDEA.

San Paskoal Bailon, *erlijiosoa*.

lakoa haren ahalmenaren handia, sinesten dugunontzat. Ahalmen eta indar hori guztia Kristogan agertu du, berau hilen artetik pitzaraztean eta zeruan bere eskuinaldean eseraraztean: agintaritza, nagusitza, ahalmena eta jauntasun guztien gainetik, eta nahiz oraingo gizaldian, nahiz gerokoan, aipa daitezkeen izen guztien gainetik eseraraztean. Gauza guztiak oinpean jarri zizkion eta berau egin du denen gainetik Elizaren buru.

† Jesu Kristoren Ebanjelioa San Markosen liburutik 16,15-20.

Aldi hartan, Jesus Hamaikei agertu eta esan zien: «Zoazte mundu guztira eta hots egin Berri Ona izaki guztiei. Sinetsi eta bataiatzen dena salbatuko da; sinesten ez duena, berriz, kondanatuko. Sinesten dutenek seinale hauek izango dituzte lagun: nire izenean deabruak botako dituzte, hizkuntza berrietan mintzatuko dira, sugeak eskuetan hartuko dituzte eta, edari hilgarriren bat edanda ere, ez die kalterik egingo; gaixoei eskuak ezarriko dizkiete eta sendatuko dituzte». Horrela mintzatu ondoren, Jesus Jauna zerura jasoa izan zen eta Jainkoaren eskuinaldean eseri zen. Haiek, berriz, alde guztietara joan ziren Berri Ona hots egitera. Eta Jauna bera ari zen haiekin, egiten zituzten mirarien bidez hitza baietsiz.

«**E**ta uzten duzu, Artzain santua, / zeure artaldea ibar sakon, ilun honetan, / bakar eta lantuz; / eta zu zeu, etenik /aire garbia, zoaz segurtasun hilezkorrera?» Horrela hasten da Leongo frai Luisen Igokundeari Oda. Baina oker dabil olerkaria. Jaunak ez gaitu bakarrik eta babesgabe uzten. Ez da hori harengan sinesten dugun esperientzia. Ostera, bidea urratu digu, igotze miresgarri horretan jarraitu ahal diezaigun. Eta ez dugu hil zain egon beharrik,

aintzazko egundoko pizgarria eman baitigu mundu honetan berean jadanik.

Bai, Jauna, benetan komeni zaigu zu joatea. Jakindakotzat dugu hori; izan ere, zure bizitza guztia izan zen, Gizakundetik Igokundera, gure eta Kreazio osoaren onerako; gu geu bezala, Kreazioa ere, egun batean zure izenaren aintza goresteke eginak baikara. Egin nazazu, beraz, Jauna, zerutarrago baina lurtar txikiago, zure nahia egiten ikasiz joan nadin, nola lurrean hala zeruan...

Pazkoaldiko 7. astea.San Joan I.a, 53. *aita santua eta martiria.*

[Apostoluen Eginak liburutik 19,1-8: *Hartu al zenuten Espiritu Santua sinetsi zenutenean?* Sal 67: *Lurreko erreinuak, egin eresi Jainkoari.*]

† Jesu Kristoren Ebanjelioa San Joanen liburutik 16,29-33.

Aldi hartan, ikasleek esan zioten Jesusi: «Orain bai argi hitz egi-ten duzula eta ez parabolatan. Orain ikusten dugu dena dakizula eta ez duzula inork galdetu beharrik; horregatik sinesten dugu Jainkoagandik etorria zarela». Jesusek erantzun zien: «Orain sinesten al duzue? Begira, badator ordua, edota etorria da, zuek bakoitza bere aldetik sakabanatu eta ni bakarrik utziko nauzuen. Baina ni ez nago bakarrik, neurekin dut Aita. Hauek esan dizkizuet, nigan bake izan dezazuen. Izango duzue atsekabe munduan, baina izan bihotz: nik garaitu dut mundua».

Bai horixe! Mundua garaitu zenuen! Eta, nolako maneran! Gurutzetik, kriminalen urkamendik zintzilik, zu, ardi zuria, hiltegitira eramana, txintik esan gabe. Urkamendia, guretzat, garaipen betearen sinbolo bihurtu da. Ez zizuten bizia kendu: zeuk eman zenuen nigatik eta guztiongatik. Horregatik dugu aurkitu bakea zuegan, guduko sugarraren erdian. Borrokak iragarri dizkiguzu. Nolatan ez atera gu irabazle, haietan zu lagun zaitugula, zu geure arma sekretu zaitugula! Zure taldean, Jauna, seguru sentitzen naiz eta gai, maitasunagatik, balentria handienetarako. Zeren ez bainaiz nitaz fidatzen, zutaz baik.

San Zelestino V.a, 192. aita santua.
San Frantzisko Coll, *apaiza eta fundatzailea*
(*La Anunciata-ko moja domingotarrak*).

[Apostoluen Eginak liburutik 20,17-27: *Neure ibilaldia burutu behar dut, eta Jesus Jaunagandik hartutako zerbitzua bete. Sal 67: Lurreko erreinuak, egin eresi Jainkoari.*]

† Jesu Kristoren Ebanjelioa San Joanen liburutik 17,1-11a.

Aldi hartan, Jesusek begiak zerura jaso eta esan zuen: «Aita, iritsi da ordua; gorets ezazu zeure Semea, zure Semeak zu gorets zaitzan, eta gizon guztien gain eman diozun aginpideaz, hark betiko bizia eman diezaien, zuk haren esku utzitakoei. Hau da betiko bizia: Ezagut zaitzatela zu, egiazko Jainko bakar hori, eta Jesu Kristo, zuk bidali zenuena. Goretsi zaitut nik lurrean, bete dut eman didazun egitekoa. Eta orain, Aita, gorets nazazu zeure ondoan, mundua mundu izan baino lehen nik zure ondoan nuen aintzaz. Agertu diet zure izena, munduan eman zenizkidan gizakiei. Zeureak zenituen eta zeuk eman zenizkidan, eta haiek bete dute zure hitza. Badakite orain, eman didazun guztia zugandik datorrela; eman baitizkiet zeuk niri eman zenizkidan hitzak, eta haiek hartu dituzte, eta benetan ezagutu dute zugandik atera nintzela, eta sinetsi dute zeuk bidali ninduzula. Haientzat eskatzen dizut; ez dut munduarentzat eskatzen, baizik eta zeuk eman dizkidazun eta zureak diren hauentzat. Bai, nire guztia zurea da, eta zure guztia nirea, eta haietan izan dut nik neure aintza. Ni ez naiz gehiago munduan egongo; haiek, bai, munduan daude; ni, berriz, zugana noa».

Jauna, iraupen laburrekoa naiz, zu hobeto ezagutzen joateko eguneroko otoitzean; izan ere, zurekiko eta zuk bidalitako Jesu Kristorekiko adiskidetasunean hazten joatea da egiazko bizia. Zenbat eta zugandik hurbilago, orduan eta biziago eta zorionekoago sentitzen naiz. Adiskidetasun estura tira egiten didazu neurrian, gizakiago,

pertsonago sentitzen naiz. Orduan, era berri batean sumatzen dut nola praktikatu errukia, gupida, barkazioa, solidaritatea... Itxura ezertan aldatzen ez bada ere, benetan esperimentatzen dut sakonago eta eraldatzaileago direla zurekiko harremanak. Su naiz, baina erre gabe. Horregatik, zenbateraino eskertzen dizudan, zeure adiskide jotzen dituzunen alde Aitari egin diozun erregua!

[Apostoluen Eginak liburutik 20,28-38: *Jaungoikoaren eskuetan uzten zaituztet; badu indar etxea eraikitzeko eta zuei oinordekotza emateko. Sal 67: Lurreko erreinuak, egian eresi Jainkoari.]*

† Jesu Kristoren Ebanjelioa San Joanen liburutik 17,11b-19.

Aldi hartan, Jesusék begiak zerura jaso eta otoitz egin zuen: «Aita guztiz santu, zaindu itzazu zeuk eman dizkidazun hauek, gu bezala bat izan daitezen. Haiekin nengoenean, neuk zaintzen nituen zure izenean, zuk niri emandakoak; gorde nituen, eta haietatik ez zen bat ere galdu, hondamendiaren semea baizik, Liburu Santuarena bete zedin. Orain zugana noa, eta gauza hauek esaten ditut munduan, hauek nire pozaren betea izan dezaten. Zure hitza eman diet, eta munduak gorroto ditu, ez baitira mundutarrak, ni ere mundutarra ez naizen bezala. Ez dizut eskatzen hauek mundutik ateratzeko, gaitzetik gorde ditzazula baizik. Ez dira mundutarrak, ni ere mundutarra ez naizen bezala. Santu egi-tzazu egian; zure hitza da egia. Zuk ni mundura bidali ninduzun bezala, nik ere hauek mundura bidaltzen ditut. Eta hauengatik santu egiten dut neure burua, hauek ere santu eginak izan daitezen egian».

Eliza, Kristoren laguntzarik gabe, hondoratu egingo zen jaio orduko. Baina Jesusen Espiritua du babesle eta gidari. Eta, zabuka eta banaturik bada ere, zutik dirau Elizak gizon-emakumeen artean, kristau guztien artalde bakarra ezin eratu izan badugu ere.

Elizen askotarikotasun hori begi-bistan dugula, aitortu beharra dugu, Jauna, geure bekatua, zeren ez baitugu lortu bat egitea, ezta zu gorestekoa, bedeinkatzeko eta zuri eskerrak emateko orduan ere. Axolagabe edo mespretxuz begiratzen diegu gureetakoak ez direnei. Jauna, bihotz-berri ezazu gure bihotza, gehiago errepara diezaiogun batzen gaituenari bereizten gaituenari baino.

San Konstantino, *enperadorea*.San Eutiki, *martiria*.San Timoteo, *martiria*.

[*Apostoluen Eginak liburutik 22,30; 23,6-11: Erroman ere aitor-
men egin beharko didazu. Sal 15: Zaindu nazazu, Jauna, babes bila
bainator zugana.*]

† Jesu Kristoren Ebanjelioa San Joanen liburutik 17,20-26.

Aldi hartan, Jesusek begiak zerura jaso eta honela egin zuen otoitz: «Aita guztiz santu, ez dizut hauengatik bakarrik eskatzen, baita hauen hitzari esker nigan sinetsiko dutenengatik ere; bat izan daitezela guztiak, zu, Aita, nigan zauden eta ni zugan nagoen bezala; hauek ere guban bat izan daitezela, munduak sinets dezan zuk bidali nauzula. Zuk eman didazun aintza, haiei eman diet nik, bat izan daitezzen, gu bat garen bezala: ni haiengan eta zu nigan, batasun osora irits daitezzen, eta honela munduak ezagut dezan zuk bidali nauzula, eta maite izan dituzula, ni maite nauzun bezala. Aita, hau da nire nahia: zuk eman dizkidazunak ni nagokeen tokian nirekin egotea, nire aintza ikus dezaten, zuk niri emandako aintza, mundua izan baino lehenagotik maite izan nauzulako. Aita zuzena, munduak ez zaitu ezagutu; baina nik ezagutu zaitut eta hauek ere ezagutu dute zuk bidali nauzula. Agertu diet nik zure izena, baita agertuko ere, zuk niri didazun maitasuna haiengan izan dadin, eta ni ere haiekin egon nadin».

Jauna, zenbat aldiz sentitzen dudan zuk gure alde egindako otoitz hura. Neure bizitzan atzera begira jarri eta ikusten dut ez nauzula utzi bidetik ateratzen eta zugandik urruntzen, nire bizitzako unerik funtsezkoenetan. Hemen banago ere, zuri eskerrak ematen, ez nago neure merezimenduengatik, baizik zuk nirekiko izan duzun onberatasun jarraikiagatik. Ez diozu utzi niri era guztietako dohainak erregalatzeari eta, halere, itsu jarraitzen dut haietako gehienen aurrean.

Aintzat hartzeko gai izan ez naizen hainbat eta hainbat mesederengatik eta ikusten saiatu ez naizen beste hainbatengatik, eskerrak, Jauna, bihotz-bihotzez.

Santa Joakina Vedruna, *fundatzailea*
(*Karitateko Karmeldarrak*).
Santa Rita Casia-koa, *erlijiosa*.

[Apostoluen Eginak liburutik 25,13b-21: *Eztabaidak hildako Jesus bati buruz zituzten, Paulok bizi zela esaten baitzuen. Sal 102: Jaunak zeruan ezarri du bere aulkia.*]

† Jesu Kristoren Ebanjelioa San Joanen liburutik 21,15-19.

Jesusek, ikasleei agertu eta haiekin jan ondoren, galdetu zion Pedrori: «Joanen seme Simon, hauek baino gehiago maite al nauzu?» Pedrok erantzun: «Bai, Jauna, zuk badakizu maite zaitudala». Jesusek orduan: «Bazka itzazu nire bildotsak». Berririo galdetu zion: «Joanen seme Simon, maite al nauzu?» Pedrok erantzun: «Bai, Jauna, zuk badakizu maite zaitudala». Eta Jesusek: «Zaindu itzazu nire ardiak». Hirugarrenez galdetu zion: «Joanen seme Simon, maite al nauzu?» Hirugarrenez «maite al nauzu» galdetu ziola-eta goibeldu zen Pedro, eta erantzun zion: «Jauna, zuk dena dakizu; zuk badakizu maite zaitudala». Jesusek orduan: «Bazka itzazu nire ardiak. Bene-benetan diotsut: Gazte zinenean, zeuk lotzen zenuen gerrikoa, eta nahi zenuen tokira joaten zinen. Zahartutakoan, ordea, besoak zabaldu beharko dituzu, eta gerrikoa bestek lotuko dizu, eta zuk nahi ez duzun tokira eramango zaitu». Hori esan zion, nolako heriotzaz Jainkoa goratuko zuen adierazteko. Gero, esan zion: «Jarraitu niri».

Uko hirukoitzari, maitasun-aitorpen hirukoitza. Jesusek bekatua barkatu dio Pedrori, hura zuzenean aipatu ere egin gabe, baina ikusarazi dio haren leialtasun-faltak eta koldarkeriak benetan erasan diotela.

Batzuetan, dena onartzen duen aita gizajo bihurtzen dugu Jainkoa, gure demasiei eta nahikeriei amore ematen dien aita: dena du barkatzen... Egia da, bai, Jainkoak besoak zabalik dituela beti gu bere altzoan hartzeko, baina ez ditu gustuko gure maitasun-falta, gure saldukeria eta ukoa, eta ez ditu onesten. Amore ematen du, gizakiaren askatasuna sutuki gordetzen baitu; nolnahi ere, ordea, nire jokabidea ez da izatean, askotan, seme edo alaba bati dagokiona, baizik esker txarreko pertsona zital batena.

Pazkoaldiko 7. astea.

San Desiderio, *gotzaina*.
Santa Almerinda, *martiria*.

[Apostoluen Eginak liburutik 28,16-20.30-31: *Erroman gelditzen, Jaungoikoaren erreinua hots egiten. Sal 10: Zure aurpegia zintzoek ikusiko dute, Jauna.*]

† Jesu Kristoren Ebanjelioa San Joanen liburutik 21,20-25.

Aldi hartan, Pedrok, atzera itzuli eta Jesusek hain maite zuen ikasle hura ikusi zuen etortzen (afaltzekoan, Jesusen bular ondoan etzanik zegoela, «Jauna, nor da salduko zaituena?» esan zion hura). Pedrok, hura ikusi zuenean, esan zion Jesusi: «Jauna, eta hori?» Jesusek: «Ni etortzen naizen arte hori hemen gelditzea nahi badut, zuri zer? Zu zatoz nirekin». Horrela sortu zen zurrur-murrua senideen artean: ikasle hura ez omen zela hilko. Jesusek, ordea, ez zion esan ez zela hilko; beste hau baizik: «Ni etortzen naizen arte hori hemen gelditzea nahi badut, zuri zer?» Ikasle hau da gertakizun hauen aitormen egiten duena; berak idatzi ditu hauek, eta badakigu honen aitormena egiazkoa dela. Beste gauza asko ere badira Jesusek eginak; gauza guztiak bat-banaka idatziko balira, nik uste, mundu guztian ere ez litzatekeela lekurik izango idatz litezkeen liburuak sartzeko.

Atenagoras patriarkak, ospe handiko egin den otoitz batean, gogoratzen du ezen gertarik txarrena nork bere buruari egiten diona dela. Eta, arma guztiak alde batera uzten ez dituen bitartean, bere buruaz baino gehiago gainerakoez gogoratzen ez den bitartean, ezin izango duela lortu bihotzeko bakea. Eta aholku eder hau ematen digu: uko egin konparatzeari, bata bestearekin alderatzeari.

Pedrok, pasarte honetan, begi-bazterraz begiratu dio ikasle mai-teari eta harekiko jeloskor ageri da. Jaunak erantzun dio: Zuk, jarraitu niri, eta ahaztu zer izango den Joanez; ez da zure arazoa eta ez duzu zertan alderatu zeure burua harekin.

Uko egin al diot inor inorekin konparatzeari?

§ Apostoluen Eginak liburutik 2,1-11.

Iritsi zen Mendekoste-eguna, eta ikasle guztiak elkarrekin leku berean bildurik zeuden, Bat-batean, zerutik hots bat etorri zen, haizebolada indartsu batena bezalakoa, eta haiek zeuden etxe guztia bete zuen. Suzkoak bezalako mihi batzuk agertu zitzaizkien, banatu ziren eta bakoitzaren gainean gelditu. Guztiak Espiritu Santuaz bete ziren eta hizkuntza arrotzetan mintzatzen hasi, bakoitzari Espirituak ematen zion bezala. Bazen egun haietan Jerusalem judu jainkozalerik asko, zerupean diren herri guztietakoak. Hots hura entzun zenean, jendetza handia bildu zen eta harriturik gelditu, norberaren hizkuntzan mintzo zirela entzunda. Harri eta zur eginik, zioten: «Ez al dira, bada, galilearrak, hizketan ari diren horiek guztiak? Nolatan entzuten diegu, bada, bakoitzak geure jatorriko hizkuntzan? Gure artean badaude partiarrak, mediarrak, elamdarrak; badaude Mesopotamian, Judean, Kapadozian, Ponton, Asian, Frigian, Panfilian, Egipton eta Zirene ondoko Libian bizi direnak; badaude erromatarrak, juduak eta proselitoak, greziarrak eta arabiarrek, eta denok geure hizkuntzan entzuten diegu Jaungoikoaren mirariak adierazten».

[Sal 103: *Bidal ezazu, Jauna, zeure arnasa, eta berriarazi lurazala.*]

§ Paulo apostoluak 1 korintoarrei 12,3b-7.12-13.

Senideok: Ezin du inork esan: «Jauna da Jesus!» Espiritu Santuaren eraginez izan ezik. Era askotakoak dira dohainak, baina bat-bera Espiritua; era askotakoak zerbitzuak, baina bat-bera Jauna; era askotakoak eginbideak, baina bat-bera guztiengan dena egiten duen Jaungoikoa. Bakoitzari guztien onerako ematen zaio Espirituaren agerpena. Gorputzak, bat izanik ere, atal asko dituen bezala, eta gorputzeko atal guztiak, asko izanik ere, gorputz bat diren bezala, gauza bera

**Pazkoaldiko 8. astea.
MENDEKOSTE EGUNA.**

Stradako Andre Maria (Madonna della Strada).

Kristo ere. Gu guztiok –judu nahiz greziar–, menpeko nahiz askatu, Espiritu berarengan bataiatuak izan gara, gorputz bat bakarra izateko. Eta guztiok Espiritu bakarretik edan dugu.

Neurtitza

Zatoz, bai, Gogo Guren, / eta bidal zerutik / zure argi izpia. /
Zatoz, gaixoen aita, / zatoz, dohain-emaile, / zatoz, bihotzen argi.

Poz-emaile bikaina, / etxelagun atsegin, / sargorian haize fin. /
Lan artean atsedeen, / nekean aringarri, / malkoetan pozgarri.

Bete, argi dohatsu, / zintzoen bihotzeko / zirrikiturik barnena. /
Zure laguntza gabe / ez du gizonak ezer, / ez du ezer on denik.

Garbitu, zikin dagoena, / busti, lehor dagoena, / zauriak oro senda.
/ Zurrun dena bigundu, / makur dena zuzendu, hotz dagoena berotu.

Zugan uste on duten / zintzoei isuri / zazpi dohain zerutik. /
Zintzo saria eman / osasun hil artean, / poza betierean. / Amen.
Aleluia.

† Jesu Kristoren Ebanjelioa San Joanen liburutik **20,19-23**.

Astearen lehenengo eguneko ilunabarrean, etxe batean bildurik zeuden ikasleak, atek itxita, juduen beldurrez. Sartu zen Jesus eta, haien erdian zutik, esan zien: «Bakea zuekin». Hori esanda, eskuak eta saihetsa erakutsi zizkien. Eta ikasleak pozez beterik gelditu ziren Jauna ikustean. Jesusek berriz ere: «Bakea zuekin. Aitak ni bidali nauen bezala, hala bidaltzen zaituztet nik zuek». Eta hori esanez, haien gainera haize eman eta esan zien: «Hartzazue Espiritu Santua: zuek bekatuak barkatzen dizkiezuenei, barkatuak geldituko zaizkie, eta lotzen dizkiezuenei, lotuak geldituko zaizkie».

Beharrezkoa dugu Espirituaren arnasa; ez bakarrik gure beka-
tuak barka ditzan, baita kristau-izenaren duineko den bizitza egiteko
ere. Jainkoarekiko adiskidetasunean aurrera egin ahala, Espiritu San-
tuaren zaleago bihurtzen da pertsona.

Kalifikatzaile hoberenak ematen dizkio liturgiak Espiritu San-
tuari: argi, dohain, aita amultsu eta bikain, kontsolamendu, arimako
apopilo, atsedean, su-eten, haizeño, gozamen, malko-zapi, aberas-
tasun, erreten, sendagile, garbitzaile, bero hotzaren kontra, gidari,
hezitzaile... Gutxi da hori dena, Espirituak, gure bizitza pertsonalean
eta eliztarrean, munduan eta historian, gauzatzen dituen askotariko
egitekoak zehazteko.

Horregatik, gure otoitzak Mendekoste egunean jarraikia izan be-
har du:

Zatoz, Espiritu Santua, bete zeure fededunen bihotza eta piz-
tu han zeure maitasunaren sua. Argitu gure urratsak. Egin gaitzazu
bihotz zabal besteekiko. Kontsolatu gure bidez jende atsekabetua.
Sendotu koloka diren belaunak. Bete gaitzazu poz sanoaz. Adiski-
detu haserre direnak. Sendatu gaixoak. Eman jaten gose direnei eta
supazter bat etxerik ez dutenei. Eman jakinduria gobernarietara. Kendu
armak gudarosteei. Baretu jende bortitza. Desegizu behin betiko zu-
zengabekeria. Eta emaguzu errukia eta gupida guztioi eta guztientzat.

Pazkoaldiko 8. astea.

Santa Bizenta Maria Lopez Bikuña, *birjina*.San Beda Agurgarria, *apaiza eta eliz irakaslea*.San Gregorio VII.a, *aita santua*.*

[**Sirak 17,20-28:** *Itzul zaitez Goi-goikoagana, eta ihes egin bide okerretik. Sal 31: Poztu zaitezte eta alaitu Jaunagan, zintzoak.*]

† Jesu Kristoren Ebanjelioa San Markosen liburutik 10,17-27.

Aldi hartan, Jesus bidera ateratzean, norbaitek lasterka etorri, aurrean belaunikatu eta galdetu zion: «Maisu on, zer egin behar dut betiko bizia iristeko?» Eta Jesusek berari: «Zergatik esaten didazu on? Onik ez da inor, Jainkoa besterik. Badakizkizu aginduak: ez inor hil, ez egin ezkontza-nahasterik, ez lapurtu, ez egin gezurrezko testigantzarik, ez kendu azpikeriaz, aintzat eduki aita eta ama». Hark erantzun zion: «Maisu, horiek guztiak gaztetandik bete ditut nik». Orduan Jesusek, begiz begi jarririk, esan zion onginahiz: «Gauza bat falta zaizu: zoaz, saldu dituzun guztiak, eta eman behartsuei, eta izango duzu gordailu bat zeruan. Gero, zatoz eta jarraitu niri». Hitz hauekin aurpegia ilundu zitzaion eta nahigabez joan zen, ondasun askoren jabe baitzen. Orduan, Jesusek, ingurura begira, esan zien ikasleei: «Bai nekez sartuko direla ondasundunak Jainkoaren erreinuan!» Harritu egin ziren ikasleak hitz horiekin, eta Jesusek berriro: «Semeok, bai zaila dela, beren ondasunetan ustea dutenak Jainkoaren erreinuan sartzea! Errazago da gamelu bat jostorrazt begitik sartzea, aberats bat Jainkoaren erreinuan sartzea baino». Haiek, lehen baino harrituago, elkarri ziotsoten: «Nor salba daiteke, orduan?» Jesus begira gelditu zitzaion, eta esan zien: «Gizakiarentzat ezinezkoa da hori; Jainkoarentzat ez, Jainkoak guztia dezake».

* Santa Maria Magdalena Pazzi-koa, *birjina*.

Santa Bizenta Maria Lopez Bikuña, *birjina*.
San Beda Agurgarria, *apaiza eta eliz irakaslea*.
San Gregorio VII.a, *aita santua*.*

Jesusek ebanjelioan argi utzi izan du beti ezen Jainkoaren borondatearen kontrakoak direla bi jokabide hauek: aberastasunak esku gutxitan metatzea eta pobreak ugaltzea. Are gehiago, Jesusen hurbi-leko jarraitzaile izateko, uko egin behar zaie diruari eta ondasun materialei atxikitzeari. Alabaina, aginduak betetzen dituen eta Jesusen aurrean belaunikatu den gizon hau ez dago prest bere aberastasunei uko egiteko; horregatik, Jesusi urrunetik jarraitzea erabaki du. Nahiago du eroso bizi, zerupean bizi baino; nahiago du aberastasunen estutasunaren biktima izan, ardura horietarik libre bizi baino. Zein da zure egoera honi guztiari dagokionez?

*Santa Maria Magdalena Pazzi-koa, *birjina*.

Pazkoaldiko 8. astea.

San Felipe Neri, *fundatzailea (Oratoriokoak)*.

[**Sirak 35,1-1**: *Aginduak betetzea da opari salbagarria. Sal. 49*: *Zuzen dabilenari diot Jainkoaren salbamena adierazten.*]

† Jesu Kristoren Ebanjelioa San Markosen liburutik **10,28-31**.

Aldi hartan, Pedro hasi zitzaion Jesusi esaten: «Hara, gauza guztiak utzi ditugu guk, zurekin joateko». Orduan Jesusek: «Bene-tan diotsuet: Nigatik eta Berri Onagatik etxea, edota anai-arrebak, aita-amak, haurrak nahiz lurra uzten dituenak, ez da geldituko ehun halako hartu gabe orain mundu honetan: etxe, anai-arreba, ama, seme-alaba eta lur, erasoaldiekin; beste munduan, berriz, betiko bizia. Eta lehenengo asko azken izango dira, eta azkeneko asko lehenengo».

Elizaren hasieratik egon izan dira pertsona liberatuak Ebanjelioa hots egiteko eta elkartearen gobernatzeko. Oso garaiz, ordea, kristau batzuek bakardadera jo izan dute, pobre eta zelibe bizitzeko, otoitzari emanik. Geroago, elkarteetan bildu dira; horrela sortu da bizitza sagaratuak.

Horiek guztiak izan dira, askotariko beren molde eta karisma aberatsak direla medio, lekuko bizi, adierazteko, alegia, merezi duela bizitza osoa Jainkoaren Erreinuaren arazoari eskaintzea. Dei bat da, dohain bat, pribilegio bat. Emazkiogun eskerrak Jainkoari haiengatik guztiengatik, eta eska diezaiozun, segi dezala Elizara bidaltzen betebeteko buru-eskaintza hori onartu duten pertsonak.

[**Sirak 36,1-2a.5-6.13-19**: *Jakin dezatela herri guztiek, Jauna, zu beste jainkorik ez dela. Sal 78*: *Agertu guri, Jauna, zeure bihotz ona.*]

† Jesu Kristoren Ebanjelioa San Markosen liburutik 10,32-45.

Aldi hartan, ikasleak bidean gora Jerusalemera zihoazen; Jesus aurretik zihoakien; haiek harriturik zeuden, eta beldurrez jarraitzen zioten. Hartu zituen berekin Hamabiak, eta gertatuko zitzaizkionak esaten hasi zitzaien: «Begira, bidean gora Jerusalemera goaz, eta Gizonaren Semea apaizburuen eta lege-maisuen esku utziko dute: hauek heriotza-epaia emango diote, eta atzerritarren esku utziko, iseka egingo diote eta listua botako, zigorkatu eta hilko dute; baina handik hiru egunera piztuko da». Santiago eta Joan Zebedeoren semeak Jesusengana inguratu eta esan zioten: «Maisu, eskatuko dizuguna zuk guri ematea nahi genuke». Eta Jesusek esan zien: «Zer nahi duzue nik zuei ematea?» Eta haiek: «Egizu eser gaitezela bata zure eskuinean eta bestea zure ezkerrean, zeure aintza-egunean». Eta Jesusek: «Ez dakizue zer eskatzen duzuen. Gauza al zarete nik edango dudan kaliza edateko, edota nik hartuko dudan bataioa hartzeko?» Eta haiek: «Bai, gauza gara!» Baina Jesusek: «Nik edango dudan kaliza, bai, edango duzue, eta nik hartuko dudan bataioa ere hartuko, baina nire ezker-eskuin esertze hori, ez dago nire esku inori ematea; hori erabakia dago». Beste hamarrak, hori entzutean, biziros haserre jarri ziren Santiagorekin eta Joanekin. Jesusek, berriz, bereganatu bildu eta esan zien: «Badakizue herrietako agintari azaltzen direnek gogor hartzen dutela menpean herria, eta handikiek azpian hartzen dutela. Ez bedi izan horrela zuen artean; baizik eta zuen artean handi izan nahi duena, bego zuen zerbitzari, eta zuen artean lehenengo izan nahi duena, bego guztien menpeko. Gizonaren Semea ere ez baita etorri besteen zerbitzuak hartzera, besteak zerbitzatzera baizik, eta bere bizi askoren erospen-sari ematera».

Pazkoaldiko 8. astea.

San Agustin Canterburykoa, *gotzaina*.

Jesusek presa du Jerusalemara iritsi eta bere misioa bururaino eramateko. Ikasleak aitzaki-maitzaki ageri dira, okerrenaren beldur baitira. Eta, hain juxtu, Jesusek baietsi die beren susmo txarra. Baina, ondoren, itsutasun interesatuaz, Zebedeoren semeek eskaria egin diote: bere geroko balizko erreinuan erregeorde bihur ditzan eskatu diote Jesusi. Honek, pazientzia handiaz, fantasiatzko ilusioa utzarazi die biei eta eguneroko bizitza arruntera erakarri ditu: Gainerakoei gehienik eta hobekienik zerbitzatzen diena izango da handiena Erreinu-*an*, eta ez kargudun bat. Nekez pentsa zezaketen bi Zebedeotarrek gurutzean Jesusek bi lapur izango zituela ezker-eskuin.

* * *

MAITEMINDU ZAITEZ

(Pedro Arrupe, s.j.)

Ezin izan zaizu axola ezer, Jainkoa aurkitzea baizik.

Hau da, Jainkoaz maitemintzea
era behin betiko eta guztizkoan.

Zertaz maitemintzen zaren, hark du harrapatzen zure irudimena,
eta hark du uzten gauza guztietan bere arrastoa.

Hark du erabakiko

zerk dizun ohea utzarazten goizean,

zer duzun egiten ilunabarrean,

zertan duzun ematen asteburua,

zer duzun irakurtzen, zer duzun ezagutzen,

zerk duen zure bihotza urratzen

eta zerk zaituen liluratzen pozez eta esker onez.

Maitemindu zaitez! Eutsi maitasunari!

Dena izango da beste era batekoa.

§ Isaias Profetaren liburutik 52,13–53,12.

Hara, nire aurrera aterako da; handia egingo da eta goratua izango. Jende asko hartaz ikaraturik gelditu bazen ere –hartaraino baitzuen giza itxura galdua, eta gizona zenik ere ez baitzuen irudi–, gero harriturik geldituko dira herri asko, eta erregeak haren aurrean hitzik gabe geldituko dira, egundaino esan ez zena ikustean, eta entzun ez zena begiratzean. Nork sinetsi du guk esandakoa? Nori agertu zaio Jaunaren besoa? Kimua bezala hazi zen haren aurrean, zuztarra lur lehorrean bezala, ederrik eta giza antzik gabe ikusi genuen eta itxura atsegini gabe, barregarri eta gizakietan azkeneko, oinaze-gizon egina, nekeen berri dakiena, ezikusia egiten zaienetakoa, gaitzetsia eta baztertua. Gure nekeak hartu zituen hark eta gure minak eraman. Lepradun bezala geneukan, Jaungoikoak joa eta lotsarazia. Gure bekatuengatik alderik alde zulatua; gure gaiztakeriengatik txikitua. Haren gainera erori zen guri bakea ematen digun zigorra, haren zauriek sendatu gaituzte. Gu denok ardi galduak ginen, bakoitza bere bidetik, baina Jaunak haren gainean ezarri zituen gu guztion txarkeriak. Gaizki zerabilten, baina bera makurtu egin zen, eta ez zuen ahoa ireki. Harategira daramaten arkumea bezala, ile-moztaileen aurrean ardia bezala, isilik egon zen, ahoa ireki gabe. Zuzengabeko auzitan galdu zuten. Nork hartu zuen aintzakotzat haren etorkizuna? Bizidunen lurretik kendu egin zuten; nire herriaren bekatuengatik hil zuten. Gaizkileen artean lur eman zioten, eta bekatariekin haren hilobia; nahiz eta berak bidegabekeriarik ez egin, eta haren ahotik gezurrik ez jalki. Jaunak nekeetan lehertu nahi izan zuen. Bere bizia ordain ematen badu, izango du ondorengo ugari, luzatuko zaizkio egunak, beteko da Jaunaren nahia haren bitartez. Bere oinazeen sari, ikusiko du argia eta aseko da. Jasan duenaren bidez, nire zerbitzariak zuzentasuna emango dio askori, haien hutsegiteak bere gain hartuz. Horregatik, jendetzak emango dizkiot nik bere parte, giza taldeak izango ditu harrapakin; heriotzara eman

JESU KRISTO BETIEREKO APAIZ NAGUSIA

San Justo, *gotzaina*.San Viktor, *martiria*.

baitzuen bere burua, eta bekatarizat hartu baitzuten. Bere gain hartu zieten askoren hutsegiteak, eta bitarteko izan zen bekatarientzat.

[**Sal 39:** *Hemen nauzu, Jauna, zure nahia egiteko.*]

† Jesu Kristoren Ebanjelioa San Lukasen liburutik **22,14-20**.

Ordua etorri zenean, jarri zen Jesus mahian bere apostoluekin, eta esan zien: «Baneukan gogoia, Pazko-afari hau zuekin jateko, neure nekaldiaren aurretik. Hara nik esan: Ez dut berriro jango, Jaungoikoaren erreinuan beteko den arte. Eta edalontzi bat hartu, eskerrak eman eta esan zuen: «Hartu eta banatu zeuen artean. Hara nik egia esan: Ez dut gehiago ardorik edango, Jaungoikoaren erreinua etorri arte». Gero ogia hartu eta esker-otoitza eginez, zatitu zuen eta eman zien, esanez: «Hau nire gorputza da, zuentzat ematen dena. Egizue hau nire oroigarri». Afalondoan gauza bera egin zuen edalontzia hartu eta esanez: «Edalontzi hau itun berria da, zuentzat isurtzen den nire odolaz Jainkoak ezarria».

Kristau-apaizgoak zerikusi gutxi du juduenarekin. Kristauena ez dago errituzko kultu baten zerbitzura. Baizik fededunei laguntzeko da, Jainkoa bihotzez eta egiaz nola adoratu. Itun Zaharrean, Jainkoa baretzeko eta hura onbera edukitzeko eskaini behar ziren opariak zehazturik zeuden. Itun Berrian ez da Kristoren oparia baizik; behin betikoz hil baitzen hura gugatik. Jesusek Azken Afarian izan zuen egiteko hura bera du apaizak, eta Jesusen beraren hitzak egiten ditu bere Jainkoaren Semearen maitasuna eta eskaintza guztioi gogorazteko. Apaizak, gainerako fededunek bezala, gizadiaren salbaziorako Aitari eskaintzen zaion beste Kristo bat izan behar du. Eta bere bizitza Erreinuaren arazoari eskainiz gauzatzen du hori. Kristauak, laiko nahiz apaiz, gure fedearen misterio handia ospatzen du dagoen lekuan dagoela: presente bihurtzen du Kristo gure artean.

Pazkoaldiko 8. astea.

Santa Restituta, *martiria*.San Eleuterio, *aitorlea*.

[**Sirak 44,1.9-13:** *Gure arbasoak jende ona ziren; haien oroipe-nak beti iraungo du. Sal 149: Maite du Jaunak bere herria.*]

† Jesu Kristoren Ebanjelioa San Markosen liburutik 11,11-25.

Jende-taldeak goraka eta hosannaka hartua izan ondoren, Jesus Jerusalemgo jauretxean sartu zen; ikusi zituen inguru guztiak, eta Betaniara abiatu zen Hamabiekin, berandu baitzen ordurako. Biharamunean, Betaniatik atera zirenean, Jesus gosetu zen. Eta hostotan zegoen pikondo bat urrutitik ikusi eta hartan zerbait aurkituko zuelakoan joan zen; bertara iristean, ez zuen hostoa besterik aurkitu, ez baitzen piku-denbora. Orduan, esan zion pikondoari: «Ez beza inork inoiz zure fruiturik jan!» Ikasleek ere entzun zuten. Iritsi ziren Jerusalem-era eta, jaurettxera sarturik, han salerosten ari zirenak botatzen hasi zen. Irauli zituen diru trukatzailleen mahaiak eta uso-saltzailleen aulkiak, eta ez zien uzten jauretxe barruan eskuan ezer eramaten. Gero irakasten hasi zitzairen, esanez: «Ez al dago idatzia: “Nire etxea otoitz-etxe izango da herrialde guztientzat?” Zuek, ordea, lapur-zulo egin duzue». Entzun zuten hori apaizburuek eta lege-maisuek, eta hura nola galduko zebiltzan; baina beldur zioten, jende guztia txoraturik baitzeukan bere irakatsiekin. Ilunabarrean hiritik kanpora atera zen. Biharamun goizean, berriz ondotik igarotzean, pikondoa zainetarraino ihartua ikusi zuten. Pedrok, konturaturik, esan zion Jesusi: «Begira, Maisu, ihartu da zuk madarikatu zenuen pikondoa». Jesusek erantzun zion: «Izan ezazue sineste Jainkoagan. Egiatz diotsuet: Mendi honi norbaitek esaten badio: “Ken zaitez hortik, eta zoaz itsasora”, bihotzean duda-mударik gabe, baizik eta gertatuko dela sinetsiz, iritsiko du. Horregatik diotsuet: Sinets ezazue, otoitzean eskatutako guztia iritsiko duzuela, eta hartuko duzue. Eta zutik otoitzean ari zaretelarik, norbaiten aurka zerbait baldin baduzue, barka iezaziozue, zeruetako zuen Aitak ere barka diezazkizuen zeuen bekatuak».

Pazkoaldiko 8. astea.Santa Restituta, *martiria*.San Eleuterio, *aitorlea*.

Gauza kuriozosa da ikustea, fruiturik ez dakarren pikondoaren pasadizoa tenplura egindako bi bisiten artean jarri izana, aipatu pasadizoaren segidako bisitan merkatariaik tenplutik bota izanaren pasadizoa datorrela. Badirudi hau esan nahi duela: norbaitengandik espero dena egiten ez duena ez dela ezertarako on Erreinua eraikitzeko garaian. Jesusen erreakzioa, Tenpluan mahaiak irauliz eta txosnak hankaz gora botaz, eremu sagaratu garbitzeko izan da, otoitz-leku izan behar baitu eta ez lapur-zulo. Gauza santuez baliatuz dirua egi-tea edota Elizan goranahian ibiltzea: horra hainbat jende harrapatu izan duten bi tentazio. Biribila da Jesusen gaitzespena. Indarrez jokatu duen kasu bakarra da gaurko pasadizoko hau.

* * *

ZER DUT NIK

(Lope de Vega)

Zer dut nik, nire adiskidetasuna nahi baituzu?
 Zein on doakizu, ene Jesus,
 nire atean, ihintzaz blai,
 igarotzen baitituzu gau ilunak neguan?
 Oi, bai gogorra izan zela nire barrua,
 ez nizun, ba, ireki! Bai zorakeria bitxia,
 nire esker txarraren jela hotza izan baitzen
 zure hanka garbietako zauriak lehortu zituena!
 Zenbat bider esaten zidan aingeruak:
 «Arima, atera orain leihora,
 ikus nolako maitasunez lehiatzen den zuri deika!»
 Eta zenbat bider, edertasun goren hori:
 «Bihar irekiko diogu», erantzuten nuen,
 gauza bera erantzuteko biharamunean!

[Sirak 51,17-27: *Eskerrak emango dizkiot jakinduria irakatsi didanari. Sal 18: Jaunaren arauak zuzenak dira, bihotzaren asegarri.*]

† Jesu Kristoren Ebanjelioa San Markosen liburutik 11,27-33.

Aldi hartan, etorri zen berriro Jesus ikasleekin Jerusalemera, eta, jauretxean zebilela, hurbildu zitzaizkion lege-maisuak eta zaharrak, eta esan zioten: «Zer aginpidez egiten dituzu gauza hauek? Nork eman dizu horiek egiteko eskubidea?» Jesusek esan zien: «Galdera bat egingo dizuet; erantzun iezadazue, eta esango dizuet zer aginpidez egiten ditudan gauza hauek. Joanen bataioa, Jainkoagandik al zetorren ala gizakiengandik?» Haiek beren baitan zioten: «“Jainkoagandik” esaten badugu, orduan “zergatik ez zenioten sinetsi?” esango du. Eta nola esan “gizakiengandik” zetorrela?» Izan ere, beldur zioten herriari, guztiek egiazko profetatzat baitzeukaten Joan. Beraz, erantzun zioten Jesusi: «Ez dakigu». Eta Jesusek: «Nik ere ez dizuet esango noren aginpidez egiten ditudan gauza hauek».

Boterea eskuratzen da, ez, ordea, aginpidea edo itzala. Ukan ala ez. Ebanjelioak dio beste pasarte batean, Jesusek aginpidez hitz egiten zuela, eta ez lege-maisuek bezala. Apaiz, senatari eta lege-maisuekin izan duen eztabaida honetan, Jesusek ez du izan bere aginpidea frogatu beharrik. Solaskideek aginpide hori sumatu ez badute, begiak itxi dizkiotelako izan da. Eta Jesusek estualdi batean jarri ditu, nola irten ez dakitela.

Historian beste hainbat kasutan bezala –baita Elizaren historian ere–, botereaz harro ageri ohi diren zoroek aginpidearekin nahasten dute boterea. Ez gaitezen izan horietakoak.

§ Deuteronomio liburutik 4,32-34.39-40.

Moisesek hitz egin zion herriari: «Galde iezaiezu antzinako egunei, zu baino lehenagokoei; galde, Jaunak gizakia lur gainean sartu zuenetik oraindainokoei: ba al da zero-muga batetik besteraino hitz hau bezain handirik? Entzun al da horrelakorik? Ba ote da herririk, zuk bezala Jainkoaren mintzoa sugarren erditik hitz egin entzun ondoren, bizirik gelditu denik? Ba al da jainkorik, herrien artean beretzat herri bat hartu nahi izan duenik, Jaunak, zuen Jainkoak, Egipton zuekin egin zuen bezala: ahaleginez, ezaugarritz eta mirariz, gudu eta esku azkarrez, beso indartsuz eta izu gorria dariola? Jakin ezazu, beraz, gaur, eta sinetsi bihotzez, Jauna dela Jainko bakarra, goiko zero hartan eta beheko lur honetan; ez da besterik. Eta bete itzazu, gaur ematen dizkizudan lege eta aginduak, zu zeu eta zure ondorengo seme-alabak zoriontsu izan zaitezten, eta bizitza luzea izan dezazuen, Jaunak zure Jainkoak, betiko ematen dizun lurraldean.

[Sal 32: *Bai dohatsu. Jauna bere oinorde hautatu duen herria!*]

§ Paulo apostoluak Erromatarrei 8,14-17.

Senideok: Jaungoikoaren Espirituak darabilzkienak, haiexek dira Jaungoikoaren seme-alaba. Ez duzue hartu morrontza-mirabetzarako espiritua, berriz ere beldurrean erortzeko; seme-alabatzako Espiritua hartu duzue, eta horrek hots eginarazten digu: «Abba! Aita!» Espiritu horrek gure espirituarekin batera aitortzen du, Jaungoikoaren seme-alaba garela. Eta seme-alaba bagara, baita oinordeko ere; Jaungoikoaren oinordeko, eta Kristoren oinorde-kide; nekeetan haren kideko baldin bagara, aintzan ere haren kideko izan gaitezen.

† Jesu Kristoren Ebanjelioa San Mateoren liburutik 28,16-20.


Aldi hartan, hamaika ikasleak Galileara joan ziren, Jesusek adierazi zien mendira. Ikusi zutenean, gurtu zuten; batzuk, ordea, zalantzan zeuden. Jesus, hurbildurik, honela mintzatu zitzaien: «Aginpide osoa eman dit Jainkoak zeru-lurretan. Zoazte, bada, eta egin herri guztiak nire ikasle, Aitarene eta Semearene eta Espiritu Santuarene izenean bataiatuz eta nik agindu dizuedan guztia betetzen irakatsiz. Eta ni zuekin izango nauzue egunero munduarene azkena arte».

Jesusen Jainkoa, Aita eta Ama aldi berean, bakarra da, baina Seme bezala ere agertu zaigu, eta gure ibilia argitzen eta arnasten duen Espiritu bezala ere bai. Bizia eta Maitasuna den Jainko honengan sinesten dugu eta honengan dugu konfiantza. Bera bakarrik maite dugu, bera bakarrik zerbitzatu.

Misterio bat da Hirutasun Santua, baina ezagutzen dugu hartaz gauzarik garrantzikoena: Jainkoa ez dela urruneko norbait, ez dela gurekin zerikusirik ez duen norbait. Haren bihotzean printzipio eragilea da maitasuna, eta jainkozko bizitza sumendi bihurtzen du, beti sua dariola, ez bakarrik barnerantz, baita kanporantz ere. Maitasun-etzanda horien fruitu gara gu, unibertso osoa bezalaxe.

Horregatik, gure mezako *Aintza* begirunez eta patxadan esateko eguna dugu gaurkoa, edota *Gurutze Santuarene* ohartuki egitekoa, Jainkoari eskatuz, seinale horrek gorde eta zaindu gaitzan gaitz guztietatik. Nolanahi den, maitasunezko solasalditxo bat ukan genezake hainbeste maite gaituen Jainkoarekin, hartarainoko esker ona zor diogun harekin. *Aintza* Aitari eta Semeari eta Espiritu Santuari, Jainko bakarrari.

«Aitaren eta Semearen eta Espiritu Santuaren
izenean bataiatuz»



AITA SANTUAREN ASMOAK

Orokorra: Etorkinek eta aterpetuek iristen diren lurraldean harrena ona eta begirunea topa ditzaten.

Ebanjelizazioaren alde: Jesusekin era pertsonalean topo egiteak gazte askori eragin diezaion, nork bere bizia eskaintzera, apaiz bezala nahiz bizitza sagaratuan.

EKAINA / BAGILA

Urteko 9. astea.

San Justino, *martiria*.

[**Tobit** 1,1a.2;2,1-9: *Tobitek beldur handiagoa zion Jainkoari erregeari baino. Sal 111: Dohatsua, Jainkoaren beldur de gizakia.*]

§ Jesu Kristoren Ebanjelioa San Markosen liburutik 12,1-12.

Aldi hartan, Jesus parabolatan hitz egiten hasi zitzaizen apaizburuei, lege-maisuei eta zaharrei: «Gizon batek mahasti bat landatu zuen; hesiz inguratu, dolare bat egin eta dorre bat eraiki zuen, eta nekazari batzuei eman zien errentan, eta bera urrutira joan zen. Bere garaian, morroi bat bidali zuen nekazariengana, mahastiko fruitutik berari zegozkion hartzekoak jasotzera; baina haiek heldu, jo eta esku-hutsik bidali zuten. Berriro beste morroi bat bidali zien, eta buruan jo eta ikaragarriak egin zizkioten. Beste bat bidali zien orduan, eta hura hil egin zuten; beste asko ere bidali zituen, eta batzuk jo, eta besteak hil egin zituzten. Bazuen artean beste bat: bere seme maitea. Azkenik, hura bidali zien, bere baitarako esanez: “Izango diote begirune nire semeari”. Baina nekazari haiek esan zioten elkarri: “Hori da oinordekoa, goazen eta hil dezagun, eta geurea izango da ondarea”. Heldu zioten eta hil egin zuten, eta mahastitik kanpora bota. Zer egingo du mahasti-jabeak? Joan eta galdu egingo ditu nekazariak, eta mahastia beste batzuei emango die. Ez al duzue irakurri Liburu Santuan: “Etxegileek baztertutako harria, / berori gertatu da giltzarria. / Jaunak egin du hori, / gure begien harrigarri?”». Jesus preso hartu nahian zebiltzan, ohartu baitziren haientzat esan zuela parabola hura, baina beldur zioten herriari. Eta, Jesus utzirik, alde egin zuten.

Mahastiko nekazari hiltzaileen parabola honek judu-herriko buruzagiak gaitzetsi nahi ditu, aspaldi hartan profetei eta Jainkoak bidalitakoei eta orain berean Kristori berari uko egiteagatik. Baina ez ote genuke geure egin behar gaitzespen hori gaur egungo kristauek?

Urteko 9. astea.
San Justino, *martiria*.

Hain arrunta bihurtu zaigu geure fedea, non, tarteka, ahaztu egiten baikara Ebanjelioak duen gauzarik funtsezkoenaz. Isilarazi egiten ditugu pobreez, etsaia maitatzeaz, iraindu gaituenari barkatzeaz, beste masaila eskaintzeaz... hitz egiten diguten puntuak. Hala esan ohi dugu: ekialdekoen hitz egiteko modu dira horiek, gauzak puztuaz... Hala ote dira egiaz ala ez ote diogu mamia kendu guk Ebanjelioari?

Urteko 9. astea.

San Martzelino, *apaiza*, eta San Pedro, *exorzista*,
martiriak.

[**Tobit 2,10-23**: *Ez zuen Jainkoaren aurka hitz erdi bat ere esan, bidali zion itsutasunagatik. Sal 111*: *Bizkor du zintzoak bihotza Jau-nagan itxaroten.*]

† Jesu Kristoren Ebanjelioa San Markosen liburutik 12,13-17.

Aldi hartan, fariseu eta Herodesen aldeko batzuk bidali zizkio-ten Jesusi, hitzetik nola helduko. Inguratu eta esan zioten: «Maisu, badakigu egiazale zarela eta ez duzula inorengatik atzera egiten; ez baituzu nor zein den begiratzen, baizik eta Jainkoaren bidea irakasten duzu. Zilegi al da Zesarri zerga ematea ala ez? Eman egingo al diogu ala ez?» Jesusek, haien maltzurkeriari antzemanik, esan zien: «Zer zabilzate ni zirikatzen? Ekardazue denario bat, ikus dezadan». Ekarri zioten, eta Jesusek orduan: «Norenak dira irudi hau eta idatzi hau?» Eta haiek: «Zesarrenak». Jesusek erantzun zien: «Emaiozue Zesarri Zesarrena, eta Jainkoari Jainkoarena». Eta harriturik gelditu ziren.

Historian barna, hezurretaraino nahastu izan gara Elizaren eta Estatuaren arteko arazo honetan. Jesusen hitzek argi asko banatzen dituzte bi eremu horiek, baina geure bizitzan nahastu egiten ditugu maiz eta sarri. Eta kristauok Estatu nahi dugu izan aldekoa zaigunean, baina Eliza independente izatea nahi dugu, beste hark trabak jartzen dizkigunean. Oraino ez gara gai laikotasuna eta laizismoa bereizteko. Eta horrela gabiltza burua galdu beharrean. Elizak erabateko autonomia izan beharko luke, baita ekonomiari dagokionez ere. Nola edo hala Estatuaren mendean dagoen bitartean, ezin jokatu ahal izango du guztiz libre.

[**Tobit 3,1-11.24-25:** *Bien otoitzak entzun zituen Jaungoiko Handiak. Sal 24,2-3.4-5.6.7cd.8-9:* *Jauna, zugana jasotzen dut bihotza.*]

† Jesu Kristoren Ebanjelioa San Markosen liburutik 12,18-27.

Aldi hartan, hurbildu ziren Jesusengana saduzear batzuk, berpizterik ez dela dioten horietakoak, eta galdetu zioten: «Maisu, Moisesek idatzirik utzi zigun: “Norbaiti anaia hiltzen bazaio eta honek seme-alabarik gabe utzi badu emaztea, har beza hildakoaren anaiak emazte hori, eta sor biezazkio ondorengoak bere anaiari”. Zazpi anaia ziren, bada. Ezkondu zen zaharrena, eta ondorengorik utzi gabe hil zen. Hartu zuen bigarrenak alarguna, eta ondorengorik utzi gabe hil zen; gauza bera hirugarrenak ere. Eta zazpietatik inork ez zuen ondorengorik utzi. Haien guztien ondotik, hil zen haien emaztea ere. Hildakoak berpiztean, berriro bizia hartuko dutenean, haietako zeinen emazte izango da? Zazpiek izan baitzuten emazte». Jesussek erantzun zien: «Oker zabilzate horretan; ez duzue ezagutzen, ez Liburu Santua, ez Jainkoaren ahalmena. Hildakoen artetik berpiztean, ez da ezkontzarik izango; zeruko aingeruak bezala izango dira. Hildakoen piztueraz, ez al duzue irakurri Moisesen liburuan, sasiko hartan Jainkoak esan ziona?: “Ni Abrahamen Jainkoa naiz, eta Isaaken Jainkoa, eta Jakoben Jainkoa”. Ez da hildakoen Jainkoa, biziena baizik. Oso oker zabilzate».

Uste ohi dugu, heriotzaren ondoko bizitza lur-paradisura itzultea-edo dela. Nekez imajinatzen dugu alde zurretik ezagutzen ez dugun zerbait. Hargatik, falta ditugun edo nahi genituzkeen osagaiz jantzen dugu eduki edo gozatu nahi genukeen paraje goitar, eder eta atsegingarria. Baina saduzearrena gertatzen zaigu, «modu gizakoian pentsatzen baitzuten». Arrazoiz esaten digute Liburu Santuek: «ez begik ikusi du, ez belarrik entzun du Jainkoak jende hautatuentzat prestatu duena». Beraz, jar dezagun geure ustea Jainkoagan, eta utz diezaiogun berari: moldea dezala berak nahi bezala eskuratzea espero dugun hura. Bai, zugan dut nik, Jauna, konfiantza.

Urteko 9. astea.

San Frantzisko Caracciolo, *fundatzailea (Arauzko Klerigo Txikienak)*.

[**Tobit 6,10-11a;7,1.9-17;8,4-10:** *Jaunak ekarri zaitu nigana, nire alaba zurekin ezkon dadin. Sal 127: Dohatsua Jaunaren beldur dena.*]

† Jesu Kristoren Ebanjelioa San Markosen liburutik 12,28b-34.

Aldi hartan, hurbildu zen Jesusengana lege-maisu bat, eta galdetu zion: «Zein da agindu guztietan lehenengoa?» Eta Jesusek erantzun: «Hau da lehenengoa: “Entzun, Israel: Jauna, gure Jainkoa, bakarra da. Maita ezazu Jauna, zeure Jainkoa, bihotz-bihotzez, gogo-gogoz, zeure adimen osoz eta zeure indar guztiz”. Bigarrena, berriz, hau da: “Maita ezazu zeure lagun-hurkoa, zeure burua bezala”. Ez da hauek baino agindu handiagorik». Lege-maisuak erantzun zion: «Ederki, Maisu; egia diozu, bakarra dela Jauna, eta ez dela besterik, eta hura bihotz-bihotzez, adimen osoz eta indar guztiz maitatzea, eta lagun hurkoa nork bere burua bezala maitatzea, erre-opari eta eskaintza guztiak baino hobea dela». Zuzen erantzun zuela ikustean, esan zion Jesusek: «Ez zaude urruti Jainkoaren erreinutik». Eta handik aurrera ez zen ausartzen inor hari ezer galdetzen.

Jesusek lege-maisu bat goratzen dituen kasuetako bat da gaurkoa. Are gehiago, esan dio Jainkoaren erreinutik hurbil dagoela. Dudarik gabe, honengatik onetsi du Jesusek gaurko hau: beste judu garaikideek ez bezalako irudia duelako Jesusen Aitaz, Jesusen ustearekin bat eginez. Bere maitasunari erantzutea eta lagun hurkoarekin hori bera egitea eskatzen duen Jainkoa da. Ez da Izate Goren haserrekor eta mende-karia, ezta jendearen zain eta atzetik dabilena ere, zerga bat ordaindu diezaion, dela hasikin bezala, dela hamarrenak bezala, dela limosna edo opari bezala. Lagun hurkoa maitatze hori, guztiz Bestea den gure Jainkoa maitatzeko era bat da.

[**Tobit 11,5-17:** *Zuk nahigabetu nauzu eta zuk salbatu, eta nik ikusten dut orain neure semea.* **Sal 145:** *Goretsazu, Jauna, ene barnea.*]

† Jesu Kristoren Ebanjelioa San Markosen liburutik **12,35-37.**

Aldi hartan, Jesusek, jauretxean irakasten ari zela, esan zuen: «Nola diote lege-maisuek Daviden seme dela Mesias? Davidek berak esana du Espiritu Santuaren argiz: “Hona, Jaunak esana nire Jaunari: Eser zakizkit eskuinean, zeure etsaiak oin-aulki jartzen dizkizudan bitartean”. Davidek berak deitzen dio “Jauna”; nondik nora izan dai-teke, bada, haren seme?» Eta jendetzak pozik entzuten zion.

Jesusi entzun zion jende gizajo hark gozatu egiten zuen Legearen jakintsu ustekoak hitz gabe nola uzten zituen ikustean. Jendeak gustukoa izan ohi du eztabaida. Berriketaldiak bete egiten ditu irrati-emanaldiak eta telebistakoak, gaur egun. Baina mundua aldatu ez. Solaskidea nola gaizki utziko eratzen diren eztabaidak izan ohi dira.

Jauna, geldi nadila txunditurik eta ahozabalik zeure Aitaz eta zeure Erreinuaz hitz egiten didazunean. Zure entzuleek gozatu egiten zuten, zure hitzak bihotza ukitzen baitzien, eta bihotza berotzen zien Jainkoaren irudia agertzen baitzien, eta ez zituen uzten hotz-hotz, lege-maisuek hartaz hitz egiten zieten bezala. Jesus maitea, hitz egidazu bihotzera.

Urteko 9. astea.

San Norberto, *gotzaina*.San Martzelino Champagnat, *fundatzailea (Maristak)*.

[**Tobit 12,1.5-15.20:** *Bidali nauen harengana itzultzeroa noa. Zuek bedeinka ezazue Jainkoa. Salmoa: Tobit 13: Bedeinkatua Jainkoa, beti bizi dena.*]

† Jesu Kristoren Ebanjelioa San Markosen liburutik 12,38-44.

Aldi hartan, Jesusek, irakasten ari zela, esaten zion jende-taldeari: «Kontuz ibili lege-maisuekin! Jantzi ederretan ibili nahi izaten dute; enparantzetako agurrak, sinagogetan lehenengo aulkiak eta afarietan lehenengo jarlekuak nahi izaten dituzte, eta, otoitz luzeren aitzakian, alargunen ondasunak irensten. Horrelakoen epaia zorrotzagoa izango da». Dirutegiko atabaka aurrean eseri eta Jesus jendeari begira zegoen, atabakara txanponak nola botatzen zituzten. Aberats askok ugari botatzen zuen. Etorri zen alargun behartsu bat, eta txanpon bi bota zituen. Ikasleei deitu eta esan zien: «Benetan diotsuet: atabakan botatzen duten beste guztiek baino gehiago bota du alargun gaixo honek. Beste guztiek gehiegi dutenetik eman baitute; honek, ordea, beharrezko zuenetik, bizitzeko zeukan guztia eman du».

Hau aldea! Arazo onetarako egiten dituen emaitza edo erregalu handiez (zergak arintzeko) harroputz ageri denaren eta emakume alargun pobre honen artean. Ugari dira solidaritateari emanak diren milioi askoko pertsonak eta enpresak, jokabide horrek «irudi ona eskaintzen duelako» eta, finean, azken emaitzak hobetzen dituelako. Filantropia honek, ordea, zerikusi eskasa du lagun hurkoa benetan maitatzearekin. Hobe lukete aberats horiek beren irabaziak beste modu batean arinduko balituzte: langileei soldata zuzena ordainduz eta irabazien partaide bihurtuz. Zorionekoa Jerusalemgo alargun behartsu hori, iragan mendeetan eta ondokoetan irakasle izango zara, solidario nola izan eta limosna nola egiten jakiteko!

§ Irteera liburutik 24,3-8.

Egun haietan, jaitsi zen Moises, eta Jaunaren hitz eta agindu guztiak jakinarazi zizkion herriari eta herri guztiak, aho batez, erantzun zion: «Beteko dugu Jaunak esandako guztia». Moisesek idatzi zituen Jaunaren hitz guztiak, eta goizean goiz jaiki eta mendiaren oinean aldare bat egin zuen, eta hamabi harri ipini zituen, Israelgo hamabi leinuen oroigarri. Eta israeldar mutil batzuei agindu zien, erre-opariak eta zekorrek Jaunari eskaintzeko, bake-oparizat. Moisesek, odolaren erdia hartu eta ontzietan sartu zuen, eta beste erdia aldare gainean isuri. Eta, itun-agiria harturik, herriari irakurri zion. Eta herriak erantzun zuen: «Beteko dugu eta egingo Jaunak esan duen guztia». Moisesek odola hartu eta herria zipriztindu zuen, esanez: «Hau itunaren odola da: Jaunak bere promes guztiez zuekin egiten duen itunarena».

[Sal 115: *Salbamen-edontzia dut hartuko, eta Jaunaren izena deituko.*]

§ Hebrearrei egindako gutunetik 9,11-15.

Senideok: Kristo, beti iraungo duten ondasunen apaiz nagusi bezala etorri zaigu; haren etxola handiagoa eta osoagoa da; ez giza eskuz egina, hau da, sortutako mundu honetakoa; Kristo ez baita Santutegian sartu, ez aker-odolez, ez zekor-odolez, baizik eta bere-bere odolaz eta behin betiko, honela betiko askatasuna irabazirik. Aker-odolak eta zezen-odolak eta bigantxa errearen hauts zipriztinduak, kutsudunak garbitzeko indarra baldin badu, azaleko garbitasuna emanez, zenbateraino indartsuagoa ez da izango Kristoren odola, gure barnea egite usteletatik garbitzeko?, guk Jaungoiko bizia gurtu dezagun, betiko Espirituaren indarrez bere burua Jaungoikoari opari garbi eskaini dionez gero? Horregatik, Kristo itun berri baten bitartekoa da, eta heriotza bat izan

Urteko 10. astea.

KRISTOREN GORPUTZ ODOL SANTUAK.Santa Eugenia, *martiria*. San Roberto, *abadea*.

da, lehengo ituneko bekatuak ordaintzeko; horrela, «deituek» betiko oinordekotzaren agintzaria berengana dezaten».

† Jesu Kristoren Ebanjelioa San Markosen liburutik 14,12-16. 22-26.

Ogi hilen lehenbiziko egunean, pazko-bildotsa opari eskaintzen zenekoan, ikasleek esan zioten Jesusi: «Gu nora joatea nahi duzu, pazko-afarirako gauzak prestatzera?» Jesusek ikasleetako bi bidali zituena, esanez: «Zoazte hirira, gizon bat aterako zaizue bidera ur-suila daramala, jarraitu hari, eta, sartuko den tokian, esaiozue etxe-nagusiarri: Hau dio Maisuak: “Non da nire afaltokia, neure ikasleekin Pazkoa jan dezadan?” Hark, etxe-goian, gela handi bat erakutsiko dizue jarlekuekin. Prestatu han afaria». Joan ziren ikasleak, eta, hirira iritsi zirenean, Jesusek esan bezala aurkitu zuten dena, eta pazko-afaria prestatu zuten. Jaten ari zirela, Jesusek ogia hartu eta, bedeinkapen-otoitza eginenez, zatitu eta eman zien, esanez: «Hartazue, hau nire gorputza da». Gero, edalontzia hartu eta, esker-otoitza eginenez, eman zien eta guztiek edan zuten handik. Eta esan zien: «Hau nire odola da, itunaren odola, guztientzat isuriko dena. Hara nik egia esan: Ez dut gehiago ardorik edango, ardo berria Jainkoaren erreinuan edango dudana eguna arte». Abestu zituzten salmoak, eta Oliamendira atera ziren.

Gauza kuriosa da Jerusalemgo eraikin honetan nabari duguna: gaur egungo afaltokia (goiko solairua) garai batean meskita musulmana izan zen; beheko solairuan, berriz, «David erregearen hilobia» dago; izatez, ordea, sinagoga antzeko bat da. Eukaristia eratu omen zen lekua ez dago kristauen eskuetan. Agian, horixe bera da «gure fedearen sakramentuaren» izaeraren seinale argigarri bat. Ez diogu erreparatu behar, horrenbeste, sakramentu horren materialtasunari (sagaratutako ogiari eta ardoari), baizik edukiari, mamiari. Jesusek janari eta edari

eskaini digu bere burua, hau da, bizitzeko era ematen digun errealitate bezala, hau da, gure bizia elikatzen duen errealitate bezala.

Kristauak asko ahalegindu gara hostia santua custodia eder eta luxuzkoetan agertzen, aldare apain-apainak eraikitzen, Jainkoaren tronu izan daitezten. Asmo ona da, baina ez oso egokia, Jainkoa bihotzez eta egiaz gurtu behar dela esan zuen harentzat. Ordua da, Jesu Kristoren egiazko presentzia ukatu gabe, Eukaristiaren beste alde garrantzikoago batzuk garatzeko: solidaritatea, eskaintza pertsonala, barkazioa eta adiskidetzeta, Jesusekiko adiskidetasun mina, anai-arreba artekotasuna...; hitz batean, maitasuna.

* * *

EGUNON, JAUNA
(*Gorespenak*)

Egunon, Jauna, zurekin lehenik
egiten du topo
bihotzak, eguna argitu orduko:
Zu zara nire lanaldiko argia eta eguzkia.
Egunon, Jauna, zurekin nahi dut
ibili bidexkan:
Zurekin, nire bidea, nire egia, nire bizia;
zurekin, gelditzen zaidan esperantza sendoa.
Egunon, Jauna, zu zaitut bilatzen,
zugana ditut eskuak jasotzen
eta bihotza, egunsentian:
zurekin nahi dut topo egin neure anai-arrebengan.
Egunon, Jaun berpiztua,
poza dakarzu
zure bideetan dabilen bihotzera,
zu zara, zeure eta neure heriotzaren garaile!

Urteko 10. astea.

San Maximo, *gotzaina*.San Heraklio, *gotzaina*.San Santiago Berthieu, *apaiza eta martiria*.

[1 Korintoarrei 1,1-7: Jainkoak pozten gaitu, guk ere besteak edozein saminalditan poztu ahal ditzagun. Sal 33: Txasta ezazue eta ikus zein samur den Jauna.]

† Jesu Kristoren Ebanjelioa San Mateoren liburutik 5,1-12.

Aldi hartan, jende-taldea ikusirik, mendira igo zen Jesus; eseri zenean, ikasleak inguratu zitzaizkion, eta berak honela irakasten zien:

«Zorionekoak, gogoz behartsu direnak; berena dute-eta zeruetako erreinua.

Zorionekoak otzanak; berak izango dira-eta lurraren jabe.

Zorionekoak, negar egiten dutenak; poztuak izango baitira.

Zorionekoak, zuzentasunaren gose eta egarri direnak; aseak izango baitira.

Zorionekoak errukitsuak; hauek iritsiko dute-eta errukia.

Zorionekoak, bihotzez garbi direnak; hauek ikusiko dute-eta Jainkoa.

Zorionekoak bakegileak; Jainkoaren seme eta alaba esango baitzaie.

Zorionekoak, zuzenagatik eraso jasaten dutenak; hauena da-eta zeruetako erreinua.

Zorionekoak zuek, negatik biraoka eta erasoka erabiliko zaituztenean, eta gezurretan asma ahalak zuentzat esango dituztenean; poztu zaitetze eta alaitu, handia izango da-eta zuen saria zeruetan».

Duela gutxi kanonizatu du Benedikto XVI.ak Santiago Berthieu. Jesuita frantses honek bere bizitzarik gehiena Madagaskarren egin du, bertako malgatxeekin. Eta lekuko mugimenduen biktima izan zen; beren independentziaren bila, kolonoen kontra ari ziren.

8

Astelehena

EKAINA / BAGILA

Urteko 10. astea.

San Maximo, *gotzaina*.

San Heraklio, *gotzaina*.

San Santiago Berthieu, *apaiza eta martiria*.

Erljio katolikoa potentzia kolonialari eskua emanik bizi zen, eta aipatu mugimendukoek uste zuten atzerritarren dominazioari eusten ari zela Eliza. Alabaina, Berthieu ez zen nahastu sekula arazo horietan; karitateak eraginda ziharduen eta buru-belarri eskaini zitzaaien bere fededunei; halaz guztiz, matxinoek fusilaturik hil zen, baretasun- eta gizatasun-etsenplua utziz.

Urteko 10. astea.

San Efrem, *diakonoa eta eliz irakaslea.*

San Jose Antxietakoa s.j. (*Brasilen apostolu*).

[2 Korintoarrei 1,18-22: *Jesus ez zen izan batean «bai» eta bestean «ez»; harengan denak «bai» izan ziren. Sal 118:* **Erakuts, Jauna, aurpegi argia zeure morroiari.]**

† Jesu Kristoren Ebanjelioa San Mateoren liburutik 5,13-16.

Aldi hartan, Jesusek esan zien ikasleei: «Zuek zarete lurraren gatz. Eta gatzak gezatzen bada, zerekin gazituko da? Kanpora botatzeko eta oinpean zapaltzeko bestetarako ez da. Zuek zarete munduaren argia. Ezin da ezkutatu mendi gainean dagoen herria. Argia ere, pizten denean, ez da lakaripean ipintzen, argimutilaren gainean baizik, etxeko guztiei argi egin diezaien. Bego piztuta zuen argia ere gizakien aurrean, zuen egite onak ikus ditzaten, eta zeruetan dagoen zuen Aita gorets dezaten».

Gatz, argi, hiri mendi gainean... Kristauok ezin bizi gara ghetto-tan, taldetxotan, autolaguntzako taldetan. Besteren bizitzaren usaina darigula bizi behar dugu, argiontzia goian dugula, ilunpean dabiltzanei argi egiteko. Mendi-tontor bateko hiri bezala. Inola ere ez zulo bateko ezkutuan. Agerian bizi beharra dugu. Kristauok beti beharko genuke bizi «ate irekien politika», jendaurrekoa. Ez gaitzatela hesitu sakristian. Eskain ezazu zeure egia, zeure askatasun-esperientzia. Ez gorde zeuretzat. Izan zaitez, gutxienez, gatz-apur bat, argi-printza bat besteentzat.

[2 Korintoarrei 3,4-11: Itun berri baten zerbitzari izateko gai egin gaitu; ez letra soilean oinarrিতා, Espirituan baizik. Sal 98: Santua zara, Jauna, gure Jainkoa.]

† Jesu Kristoren Ebanjelioa San Mateoren liburutik 5,17-19.

Aldi hartan, Jesusek esan zien ikasleei: «Ez uste izan, Legea edo ta Profetak baztertzerá etorria naizenik; baztertzerá ez, baino betetze- ra etorria naiz. Hara nik egia esan: Zeru-lurrek iraungo duten bitar- tean, ez “I” bat, ez izpi bat, ez da Legetik galduko, guztia bete arte. Beraz, agindurik txikiena baztertzen duena eta baztertzen irakasten, txikiena izango da zeruetako erreinuan; betetzen duena, berriz, eta hala irakasten, handia izango da zeruetako erreinuan».

Jainkoaren aginduak (manamenduak) orientabide dira jendea- rentzat. Garrantzizko balioak ulertzen eta betetzen laguntzeko dira. Jesusek ez du eskatu arauak desegitea. Halako askoren menpe bizi izan zen bera ere. Alabaina, «Jainkoa eta lagun hurkoa maitatu» de- lako aginduan laburbiltzen ditu «Legea eta Profetak». Hark die ema- ten benetako zentzua beste guztiei.

Azalean betetzearen kontra dago Jesus, hutsik eta ohikeriaz be- tetzearen kontra, edozein aldaketa eta agindurik nagusiena zehazki aplikatzea eragozten dituen ohituraren kontra. Zeren lehenengo gau- za, lagun hurkoa maitatzea baita Jainkoarekiko maitasunez. Izan go- goan samariar onaren parabola.

Urteko 10. astea.

SAN BERNABE APOSTOLUA.

[**Apostoluen Eginak liburutik 11,21b-26;13,1-3:** *Gizon ona zen, eta Espiritu Santuaz eta sinesmenez bete.* **Sal 97:** *Agertu du Jaunak atzerritarren aurrean beragandiko garaipena.*]

† Jesu Kristoren Ebanjelioa San Mateoren liburutik 10,7-13.

Aldi hartan, Jesusek esan zien apostoluei: «Bidean zoaztela, hots egin ezazue hurbil dela zeruetako erreinua. Senda itzazue gaixoak, piztu hildakoak, garbitu lepradunak, uxatu deabruak; hutsean hartu duzue, eman hutsean.

Ez eskuratu urrerik, ez zilarrik, ez dirurik, zeuen gerrikoan gordetzeko; ez bide-zorrorik biderako, ez bigarren soinekorik, ez oinetakorik, ez makilarik, zor zaio-eta jatekoa langileari. Edozein herri edota auzotan sartzen zaretela, ikusi nor den izen onekorik, eta egon haren etxean, handik joan arte. Etxera sartzean, egin bake-agurra eta, etxeak merezi badu, betorkio zeuen bakea; baina merezi ez badu, itzul bedi zuengana zuen bakea».

Izutu egiten du, apur bat, Jesusen errotikotasun honek. Ez da aski inor ez hiltzea. Ez da iraindu edo mespretxatu behar lagun hurkoa: pasarte honetan Jesusek «anaia» deitzen dio. Ez utzi geroko gerorako zure kidearekin adiskidetzea. Ez utzi biharko. Eukaristia ospatzera bazoaz eta norbaitekin konpondu beharrekorik baldin baduzu, zoaz lehenik hura konpontzera...

Elizak, jakintsuki, Mezaren hasieran aitopen-penitentzia ezarri digu, bekatuez damutzeko eta iraindu ditugunekin edo barkazioa eskatzen digutenekin adiskidetzeko. Laguntzen al dizu ekitaldi horretan parte hartzeak barkatzaileago izaten eta barkazioa eskatzen?

§ Oseas Profetaren liburutik 11,1b.3-4.8c-9.

Honela mintzo da Jauna: «Israel, haurra zela, maite izan nuen, eta Egiptotik dei egin nion neure semeari. Nik erakutsi nion Efraimi oinez ibiltzen, eta besoan hartu nuen; hala ere, ez zuten ezagutu nik zaintzen nituela. Giza lokarriz erakartzen nituen, maite-lokarriz: haurra bere aurpegiraino jasotzen duena bezala nintzaien, eta jaten ematera makurtzen nintzaien. Bihotza irauli egin zait barruan, sutan dauzkat erraiak. Ez diot biderik emango neure haserrearen garrari; ez dut gehiago Efraim hondatuko; Jaungoikoa bainaiz, ez gizakia; Santua zuen artean, eta ez nator hondatzera.

[**Salmoa:** *Isaias 12,2-6: Aterako dituzu urak pozik salbamenaren iturrietan.*]

§ Paulo apostoluak Efesoarrei 3,8-12.14-19.

Senideok: Niri, santu eginetan txikiena naizen honi, grazia hau eman dit Jainkoak: Kristoren neurrigabeko aberastasunak jentilen artean hots egitea, eta guztiei adieraztea, nola ari den betetzen gauza guztien egile den Jaungoikoak hasiera-hasieratik ezkutuan eduki duen misterioa. Horrela, zeruetako nagusi eta ahaldun guztiek ezagut dezakete, Elizaren bitartez, Jaungoikoaren era askotako jakinduria; horrela burutu du Jaungoikoak bere betiko asmoa Jesu Kristo gure Jaunagan. Kristoren bitartez, beragan dugun sinesmenari esker, badugu uste osoko sarrera zabala Jainkoagana. Horregatik, bada, belau-niko jartzen naiz ni Aitaren aurrean, harengandik baitator aita-izate guztia zero-lurretan, eta eskatzen diot, bizkor dezala bere Espirituaz, indartsu, zuen barne gizakia; haren aintzazko aberastasunaren neurrian, Kristo bizi dadila sinestez zuen bihotzetan; maitasuna izan da-

*Santa Paula Frassineti, *fundatzailea* (Santa Dorotearen ahizpak).

dila zuen sustrai eta oinarri; horrela gai izan zaitezten santu guztiekin batera, neurtzeko eta ezagutzeko, zenbaterainokoa den –zabal eta luze, gora eta sakon– jakinduria guztien gain dagoen Kristoren maitasuna; horrela, Jaungoiko bete-betegan beteko zarete.

† Jesu Kristoren Ebanjelioa San Joanen liburutik 19,31-37.

Juduek, «Prestaera-eguna» zelako, gorpuak larunbatez gurutzean gelditi ez zitezten –larunbat hura egun handia baitzen–, berna-hezurak hautsi, eta gorpuak handik kentzeko eskatu zioten Pilatori. Etorri ziren gudariak, eta Jesusekin batean gurutzean jositako lehenengoari eta besteari berna-hezurak hautsi zizkieten; Jesusengana iritsi zirenean, ordea, hila zegoela ikusirik, ez zioten berna-hezurrik hautsi, baizik eta gudari batek lantzaz saihesta zulatu zion, eta berehala odola eta hura atera ziren. Ikusi zuenak berak aitortzen du hori, eta egiazkoa da haren aitormena; hark badaki egia dioela, zuek ere sinets dezazuen. Hori guztia Liburu Santuak dioena bete zedin gertatu zen: «Ez diote hezurrik hautsiko». Beste leku batean dio: «Ikusiko dute zulatu zutena».

Jesusen Bihotzarekiko debozioa jansenismo pozoitsuaren kontrako antidoto bezala sortu zen; heresi haren arabera gutxi batzuk bakarrik salbatzen baitira betiko. Gainerakoak, infernura, besterik gabe. Alabaina, ez zen izan hori Jainkoaren asmoa bere Semea gizon egitea nahi izan zuenean. Jesus ez zen etorri mundura gu geure bekatuan uzteko, baizik eta goraki aldarrikatu zuen guztiak salbatzea nahi duela Jainkoak, eta guztiek ezagutzea zer-nolako maitasuna digun guztioi.

* Santa Paula Frassinetti, *fundatzailea* (Santa Dorotearen ahizpak).

Kalbario-mendiko soldaduaren sastakoa, Kristok irabazi digun salbazioaren sinbolotzat hartu izan dute kristauek: saihetsetik ura eta odola dariola dakusagu Kristo. Ura: bataioa, gure bekatuak garbitu eta desegin dituena. Odola: bizia, hilezkortasuna dakarkiguna.

Hori bakarrik ez: soldaduaren lantzak bidea garbi utzi digu Kristoren bihotzera sartzeko. Zabalik dago atea, adiskidetasun estu eta samurrerako. Horregatik eskatzen ahal dugu Paulo santuarekin batean:

Ene Jainkoa, bidaliezaguzu zeure Espiritua, Kristo gure bihotzean bizitzen jar dadin, maitasuna izan dadin gure sustraia eta zimentarria, ezagutu ahal dezagun Jainkoaren maitasunaren zabala, luzea eta altua. Egun batean irits gaitezen erabat zure izatera.

*Santa Paula Frassineti, *fundatzailea* (Santa Dorotearen ahizpak).

[2 Korintoarrei 5,14-21: Bekatuarekin zerikusirik ez zuen hura, gugatik bekatuarekin bat egin zuen Jainkoak. Salmoa: 1 Samuel 2: Jauzika daukat bihotza Jaunagan, neure Salbatzaileagan.]

† Jesu Kristoren Ebanjelioa San Lukasen liburutik 2,41-52.

Jesusen gurasoak Jerusalemera joaten ziren urtero Pazko-jaietan. Jesusek hamabi urte bete zituenean, Jerusalemera igo ziren jaietara, ohitura zen bezala. Jaiegunak bukatzean, etxera itzuli ziren; Jesus haurra, ordea, Jerusalemen gelditu zen, bere gurasoek ez zekitela. Eta, lagunuen artean zetorrelakoan, egun bateko bidea egin ondoren, haren bila hasi ziren taldeko ahaide eta ezagunen artean. Baina aurkitzen ez, eta Jerusalemera itzuli ziren haren bila. Hiru egunen buruan, jauretxean aurkitu zuten, lege-maisuen erdian eserita, haiei entzun eta galde. Entzuten zioten guztiak txunditurik zeuden haren adimenarekin eta ematen zituen erantzunekin. Gurasoak, ikusi zutenean, harriturik gelditu ziren. Amak esan zion: «Seme, baina zergatik egin diguzu hori? Horra nolako atsekabez ibili garen aita eta biok zure bila!» Hark orduan: «Zergatik ibili zarete nire bila? Ez al zenekiten, nik neure Aitaren etxean egon behar nuela?» Haiek, ordea, ez zuten ulertu Jesusek esan nahi zuena. Jesus Nazaretera jaitsi zen haiekin, eta haien menpean jarraitu zuen. Haren amak bere bihotzean gordetzen zituen gauza hauek guztiak. Jesus, berriz, aurrera zihoan jakintzan, gorpuzkeran eta grazian, Jainkoaren eta gizakien begietan.

Andre Maria, izan gogoan beren seme-alabengatik sufritzen ari diren aita-ama guztiak. Ia guztiak hartu izan dute pozik haien jaiotza, baina, hazi ahala, kezka- eta min-iturri izan dituzte; huts egiten die, askotan, haien inguruan jarria zuten iguripen handiak. Eta, ez gutxi-

tan, urrundu egiten dira bide zuzenetik, eta askoz handiago bihurtzen da gurasoen atsekabea.

Zu zeu, ama, larriak jo zintuen, Jesus hain seme ona izanik ere. Entzun ezazu guraso hauen erregua, adoretu itzazu beren atsekabea, kendu iezaiezu errugabetasun-sentimendu guztia, erakuts iezaiezu seme-alaben askatasuna begirunez errespetatzen... egiten dutena gustuko ez badute ere.

Urteko 11. astea.San Eliseo, *profeta*.

§ Ezekiel Profetaren liburutik 17,22-24.

Honela mintzo da Jauna: «Zedro handiaren gain-gainetik adar bat hartuko dut eta landatuko; haren adar-muturretik kimu bat kenduko dut, eta mendi garai baten gainean landatuko. Israelgo mendi handiaren gainean landatuko dut; adarrak zabalduko ditu eta fruituak eman- go, eta zedro tantai egingo da. Era guztietako hegaztiak biziko dira haren azpian; haren babesean egingo dute habia. Eta lurreko zuhaitz guztiek ezagutuko dute, ni naizela Jauna: zuhaitz handia zapaltzen duena, eta zapaldua zutiarazten, zuhaitz hezea ihartzen, eta iharra he- zetzen duena. Nik, Jaun honek, hala esan dut, eta hala egingo.

[Sal 91: *On da zuri eskerrak ematea, Jauna.*]

§ Paulo apostoluak 2. korintoarrei 5,6-10.

Senideok: Beti uste onez gaude, eta badakigu, gorputz honetan bizi garen arte, Jaunagandik urruti gaudela, erbestean. Sinesmen-argian baika- biltza, geure begiz ikusi gabe. Uste on hau dela-eta nahiago dugu gorputz honetatik atera, Jaunarekin bizi izateko. Horregatik ahalegintzen gara Jaunari atsegin izaten, bai gorputz honetan, bai gorputz honetatik kan- pora. Guztiok Kristoren auzitegian agertu behar baitugu, bakoitzak berea hartzeko, hona ala txarra, bere gorputzaren bidez egin duenaren arabera.

§ Jesu Kristoren Ebanjelioa San Markosen liburutik 4,26-34,

Aldi hartan, Jesusek esan zion jendeari: «Jainkoaren erreinua lu- rrean hazia ereiten duen gizakiaren antzekoa da: gizakia lo dago gaeuz eta jaikitzen da goizean; hazia ermetzen da eta haziz doa, eta gizakiak ez daki nola. Bere-berez ematen du lurrak uzta: lehenengo, lastoa; gero, burua eta, ondoren, galburua beteko alea. Eta alea prest dagoenean, igitaia eransten diote, heldua baita garaia». Beste hau ere esan zien: «Zeren antzekoa dela esango dugu zeruko erreinua? Zer parabolatan

adieraziko dugu? Mostaza haziaren antzekoa da: lurtean ereiten denean, hazirik txikiena da, baina jaiotzen denean, gora doa, eta barazki guztiak baino handiago egiten da; adar handiak botatzen ditu, txoriek haren itzalpean habia egin ahal izateraino». Horrelako parabola askoz hots egiten zien hitza, haiek uler ziezaioketen neurrian, eta parabolarik gabe ez zien hitz egiten; ikasleei, ordea, bakarrean, dena agertzen zien.

Erreinuko zeregina ezkutuko lana da, batzuetan distira txikikoa, eskerronik gabea ia beti. Erneko den jakin gabe ereiten dugu. Batek erin eta beste batek bildu.

Hau dugu kontsolamendua: ez garela mahastiaren jabe... Ez da gurea alea, ez lurra, ezta uzta ere... Ez dugu geure esku, ez euria, ez eguzkia... Administratzaile gara, langile besteren kontura..., tresna.

Gure umilazioa: emankortasuna ez da Erreinuko «normaltasuna»... Ez digute eskatuko uztaren kontua, baizik egina dugun lanarena. Noiztik nora da efikazia balio ebanjelikoa?

* * *

JESU KRISTO ENE JAUNA

Jesu Kristo ene Jauna, Jainko eta egiazko gizona,
ene kreatzaile, aita eta ene salbatzailea,
zarena zarelako eta mugarik gabeko Ontasuna,
eta gauza guztiak baino maiteago zaitudalako,
damu dut bihotz-bihotzez zu nahigabetu izana.
Zure grazia lagun, asmo sendoa dut
ez gehiago bekaturik egiteko,
aitortzeko eta penitentzia betetzeko. Amen.

Urteko 11. astea.

Santa Maria Mikaela, *birjina, fundatzailea (Aldareko Sakramentuaren Adoratzaileak).*

San Amos, *profeta.*

[2 Korintoarrei 6,1-10: Jaungoikoaren zerbitzari ager gaitezen. Sal 97: Ezagutarazi du Jaunak beragandiko garaipena.]

† Jesu Kristoren Ebanjelioa San Mateoren liburutik 5,38-42.

Aldi hartan, Jesusek esan zien ikasleei: «Entzuna duzue nola dagoen agindua: “Begiari begia, hortzari hortza”. Nik, ordea, hau diotsuet: ez egin gogor gaitz egiten dizunari. Baizik eta norbaitek eskuineko masailean jotzen bazaitu, eskain iezaiozu bestea ere. Auzitara eraman eta jantzia kendu nahi dizunari, emaiozu soingainekoa ere. Norbaitek mila pauso ibilarazi nahi zaituela?, zoaz bi mila, harekin. Eskean datorkizunari, emaiozu, eta, zuk dirua aurretzea nahi lukeenari, ez eman atzea».

Indarkeriari hegoak mozteko bide bakarra, maitasunez erantzutea da, sekula ere berarekin nahastu gabe hartu dituzun erasoan «neurriko» gurpil zoroan. Talioi legeak ez du lortzen jende begi bakarra eta hortzik gabea ugaltzea baino; inola ere ez benetako zuzentasuna.

Indarkeriaren aurka ageri da Jesus. Eta hura nola desegin adierazi digu: jarrera bakezaleaz hura armarik gabe utziz, aurkakotasunari uko eginez eta, are gehiago, liskar bila dabilenaren aurrean zoroarena ere eginez, adiskidetasun-keinuez. Beste masaila eskaintzea delako hori honela adieraz liteke: kristauak nahiago du indarkeria jasan, indarkeria bizi baino.

Urteko 11. astea.

Santa Justina, *martiria*.San Bernabe, *monjea*.

[2 Korintoarrei 8,1-9: Jesu Kristo behartsu egin zen zuengatik.
Sal 145: Goretsazu, Jauna, ene barnea.]

† Jesu Kristoren Ebanjelioa San Mateoren liburutik 5,43-48.

Aldi hartan, Jesusek esan zien ikasleei: «Entzuna duzue nola dagoen agindua: “Maita ezazu lagun hurkoa, eta gorrota zeure etsaia”. Nik, ordea, hau diotsuet: maita itzazue zeuen etsaiak; egin on gorrotoa dizuetenei, eta egin otoitz erasotzen zaituztenentzat, zeruetan dagoen zuen Aitaren seme-alaba izan zaitezten; hark gaitzontzat eta zintzoentzat ateratzen baitu eguzkia, eta zuzenentzat eta okerrentzat egiten euria. Izan ere, maite zaituztenak maite izanik, zer sari zor zaizue? Zerga-biltzaileek ere ez al dute beste horrenbeste egiten? Eta zeuen senideak bakarrik agurtzen badituzue, zer egiten duzue zor ez duzuenik? Jentilek ere ez al dute beste horrenbeste egiten? Izan zaitezte, beraz, on-onak, zeruetako zuen Aita on-ona den bezala».

Zail da indarkeriara ez jotzea, beste masaila eskaintzea; askoz zailagoa da, ordea, gorroto gaituztenentzat, erasotzen digutenentzat eta eten gabe trabak jartzen dizkigutenentzat gauza onak eskatzea. Jaunak geure etsaiak maitatzera gonbidatu gaitu. Txantxetako gauza, hala zangoa! Geure adiskideak berak ere egiaz maitatzen ez ditugunok, geure ongileentzat otoitz egiteaz hainbat bider ahazten garenok...

Jauna, bai gora jartzen duzula helburua! Alabaina, zeure esanari jarraituz, erregutzen dizut, bihotz osoaz, gorde ditzazula gaitz guztitik halako kaltea egiten didaten horiek, hitzik ere egiten ez didaten horiek, era guztietako «zapokeriak» egiten dizkidaten horiek.

Urteko 11. astea.

Santa Valeriana, *martiria*.
San Inozentzio, *martiria*.

[2 Korintoarrei 9,6-11: *Emaille alaia maite du Jainkoak. Sal 111: Dohatsu, Jaunaren beldur den gizakia.*]

† Jesu Kristoren Ebanjelioa San Mateoren liburutik 6,1-6.16-18.

Aldi hartan, Jesusek esan zien ikasleei: «Begira, gero, zeuen egite onak gizakien aurrean egin, ikus zaitzaten! Bestela, ez duzue zeruetan dagoen Aitaren saririk izango. Limosna ematerakoan, beraz, ez ibili aurretik turuta jotzen, itxurazaleak sinagogetan eta kaleetan ibiltzen diren bezala, jendeak goretz ditzan. Egia esan, horiek jaso dute beren saria. Zuk, ordea, limosna ematerakoan, ez beza jakin zure ezkerak, eskuinak egiten duena; zure limosna hori ezkutuan geldidadin, eta ezkutuan ikusten duen zeure Aitak emango dizu saria. Barau egitean, ez ipini aurpegia ilun, itxurazaleek bezala; aurpegia zatartu egiten baitute horrelakoek, barau egiten ari direla ingurukoiei adierazi nahiz. Egia esan, horiek jaso dute beren saria. Zuk, ordea, barau egitean, gantzutu zeure burua usain gozoz eta garbitu aurpegia; ingurukoek ez, baino ezkutuan dagoen zure Aitak ikus dezan zure baraua, eta ezkutuan ikusten duen zeure Aitak emango dizu saria».

Albora ezazu nabarmenkeria oro. Ez jo kanpaiak on egitean. Norbaiti on egiten badiozu, ez jardun denei esaten. Ez ibili on egina nork sarituko bila. Egizu on, doan.

Otoitz zale bazara, ez hasi lau haizeetara zabaltzen. Ez zaitez harrotu otoitz asko egiteaz. Ez du ezerk Jainkoagandik gehiago urruntzen, egintza onak egiteaz harroputz agertzeak baino. Bai jarrera desberdina, beren emaitzen edo erregaluen publizitatea egin behar izaten dutenena!

Urteko 11. astea.

San Markos eta San Martzelino, *martiriak*.
San Ziriako eta santa Paula, *martiriak*.

[2 Korintoarrei 11,1-11: *Hutsean agertu nizuen Jainkoaren Berrri Ona. Sal 110: Zuk eginak, Jauna, zintzo eta zuzen.*]

† Jesu Kristoren Ebanjelioa San Mateoren liburutik 6,7-15.

Aldi hartan, Jesusek esan zien ikasleei: «Otoitz egiterakoan, ez ari hitz-jarioka, sinesgabeak bezala; hitzaren hitzez entzungo zaiela uste baitute. Ez izan zuek haien antzeko, badaki-eta zuen Aitak zer behar duzuen, zuek eske hasi baino lehen. Beraz, zuek honela egingo duzue otoitz: “Gure Aita, zeruetan zarena: / santu izan bedi zure izena, / etor bedi zure erreinua, / egin bedi zure nahia, / zeruan bezala lurrean ere. / Emaguzu gaur egun honetako ogia; / barkatu gure zorrak / guk ere geure zordunei / barkatzen diegun ezker / eta ez gutentaldira eraman, / baina atera gaitzazu gaitzetik”. Izan ere, zuek gizakiei beren hutsegiteak barkatzen badizkiezue, zuei ere barkatuko dizue zeruko zeuen Aitak. Baina gizakiei barkatzen ez badiezue, zuei ere ez dizkizue barkatuko zeuen Aitak zeuen hutsegiteak».

Zure otoitza izan dadila bere aitari begira jarri eta, bere nahia aditzera emateko, hitz gutxi baino egiten ez duen haur batena bezalakoa. Jainkoak badaki zer behar duzun, zer eskatu nahi diozun. Ez hartu «gauza txikitzat» ahozko otoitza. Gure Aita-k, adibidez, otoitz guztiak laburbiltzen ditu. Eta azpimarra ezazu hor batuk bestearerikiko barkazioa. Barkatzeko gai ez baldin bazara, Jainkoak ere ez dizkizu barkatuko zeure bekatuak. Ezinbesteko baldintza da. Eta ez aspertu otoitzean eskatzen, zeren gure Aitak gauza onak ematen baitizkie eskatzen dizkiotenei.

Urteko 9. astea.San Romualdo, *abadea*.Santa Juliana Falconieri, *birjina*.

[2 Korintoarrei 11,18.21b-30: *Horien guztien gainetik, egunero-
roko neure buruhaustea: Eliza guztien ardura. Sal 33: Estualdi guzti-
tik ateratzen ditu Jainkoak zintzoak bere eskuz.]*

† Jesu Kristoren Ebanjelioa San Mateoren liburutik 6,19-23.

Aldi hartan, Jesusek esan zien ikasleei: «Ez pilatu lurrean ondasunik, sitsak eta herdoilak jaten baitituzte, eta lapurrek zuloa egin, eta lapurtzen. Pila itzazue zeruan zeuen ondasunak; han, ez sitsak ez herdoilak ez baititu jaten, ezta lapurrek zuloa egin eta lapurtzen ere. Izan ere, ondasunak dituzun lekuan, han duzu bihotza ere. Begia da gorputzaren argia. Beraz, zure begia argi badago, zure gorputz osoa argian egongo da. Baina zure begia gaixorik badago, zure gorputz osoa ere ilunpean egongo da. Eta zugan daukazun argi bakar hori iluna bada, ai zer iluna!»

Bi aholku eman dizkigu Jaunak: batetik, bihotza ez itsastea ondasun materialei, hau da, ez bizitza pilatzeari eta metatzeari emanik; bestetik, gure asmoa izan dadila beti zuzena egingo ditugun gauza guztietan. Lehenengoak, diruari lotu gabe bizitzen laguntzen digu; bigarrenak, berriz, gauza guztietan Jainkoaren borondatea bilatzen, haren desiorik txikienak ere egiten. Loiolako San Ignaziok, ohikoa zuen moduan, hitz gutxiz, esapide honetan laburtzen ditu biak: «orotan maitatu eta zerbitzatu». Horrek behar du izan gure bizitzaren jomuga; egunero saiatu behar naiz gehiago eta hobeto egiten.

Urteko 11. astea.

Santa Florentina, birjina.
San Silverio, 58. aita santua.

[2 Korintoarrei 12,1-10: Pozik harrotuko naiz neure argaltasunaz. Sal 33: Txasta ezazue eta ikus zein samur den Jauna.]

† Jesu Kristoren Ebanjelioa San Mateoren liburutik 6,24-34.

Aldi hartan, Jesusek esan zien ikasleei: «Ezin da inor bi nagusiren morroi izan. Hain zuzen, edota bata gorroto izango du, eta bestea maite; edota bati leial izango zaio, eta bestea ez du aintzat hartuko. Ezin zarete izan Jainkoaren eta diruaren morroi. Horregatik diotsuet: Ez zaitezte kezkatu biziaz, zer jango, edo gorputzaz, zer jantziko. Bizia ez al da janaria baino gehiago, eta gorputza, jantzia baino gehiago? Begira zeruko hegaztiei: ez dute ereiten, ez igitatzen, ezta ganbaran pilatzen ere, eta zeruko zuen Aitak bazkatzen ditu. Ez al zarete zuek haiek baino gehiago? Eta nor da zuen artean, kezka bere bizitza pixka bat luza dezakeenik? Eta jantziaz, zergatik kezkatzen zarete? Begira landako liliei, nola hazten diren; ez dira lanean ari, ezta ardatzean ere. Eta benetan diotsuet, Salomon bera ere, bere osperik ederrenean, ez zen janzen horietako bat bezain apain. Bada, gaur zutik dagoen, eta bihar sura botako den landako belarra Jainkoak honela janzen badu, zenbatez gehiago zuek, sineste koxkorreko horiek? Ez ibili, beraz, kezkatan, esanez: “Zer jango dugu”, edota “zer edango?”, edota “zer jantziko?” Jentilak ibiltzen dira horien guztien bila. Zeruko zuen Aitak badaki, horiek guztiak behar dituzuela. Bila ezazue, beraz, lehenengo, zeruko erreinua eta haren zuzentasuna, eta beste horiek, gehigarri emango zaizkizue. Ez zaitezte, bada, kezkatu biharko egunaz. Biharko egunak ekarriko du bere kezka. Aski du egun bakoitzak bere nekea».

Urteko 11. astea.

Santa Florentina, *birjina*.
San Silverio, 58. *aita santua*.

Aberastasunaz eta pobretasunaz mintzo garenean, dirua izaten dugu beti gogoan, edo ondasun materialak. Alabaina, jabe izatea eta daukazunez gozatzea baino askoz gehiago adierazten dute ebanjelioko bi eskakizun horiek. Adierazten dute, batetik, zertan jarri behar dugun geure bizitzaren segurtasuna eta, bestetik, ezer defenditzeko eta gordetzeko ez izateak ematen duen askatasuna. Honetan datza edukitzeari edo daukazanari ez atxikitzea: geure bizitza Jainkoaren eskuetan uztean eta aberastasunen itomenetik libre izatean. Jesusek adierazten du ezen dirua (nola eskuratu, nola gorde, nola gehitu) obsesio edo itsumen bihurtzen dela. Askatu zaitetz hartatik, eta bizi Jaunaren besoez fidaturik.

* * *

MAITASUNAREN BIHOZKADAK

(Xabierko Frantzisko santua, s.j.)

Zure zerbitzari izatera, ene Jainkoa,
ez dit eragiten izuak,
ez zure eskua oinaztarria botatzen imajinatzeak,
ezta infernuko suaren ikarak
betikotasunean sutan:
zuk eragiten didazu, ene Jainkoa,
zuk zeuk:
zuk, Jesu Kristo, zulatua izan zaren horrek tiratzen didazu,
Gurutzeak nau behartzen, eta nau pizten, oi Jesus;
zure zaurien odolak.
Infernuko sua ez balitz
eta aintzaren esperantza desegingo,
nik, halere, oi ene Kreatzailea,
zure ontasunez liluraturik,

Urteko 11. astea.

Santa Florentina, *birjina*.
San Silverio, 58. *aita santua*.

zure jainkotasun gorena,
santua eta jatorra miretsiz,
aurrera egingo dut hasia den maitasunean.
Zu, Jesus, Jainkoaren Semea,
zu, Andre Mariaren Semea,
otzana, adoretsua, errugabea,
gugatik hil zinena,
dena merezi duzuna,
zu saririk gabe zaitut maite izango.

Urteko 12. astea.

San Luis Gonzaga, *erlijioso*.
San Ramon Rodakoa, *gotzaina*.

§ Joben liburutik 38,1.8-11.

Jaunak, ekaitzaren barrutik hitz eginez, esan zion Jobi:

«Nork itxi zuen itsasoa atez, amaren sabeletik ibaika atera zenean, hodeia soineko eta lainoa haur-zapi jantzi nizkionean? Nik ezarri nizkion mugak, nik ipini ateak eta morroiloak. «Honaino iritsiko zara (esan nion), eta ez aurrerago; hemen lehertuko da zure olatuen harrotasuna»».

[Sal 106: *Eskerrak Jaunari, haren maitasuna betikoa baita.*]

§ Paulo apostoluak 1 korintoarrei 5,14-17.

Senideok: Kristoren maitasunak behartzen gaitu; jakinik, bat denegatik hil bada, denak hil direla. Kristo denegatik hil zen, bizi direnak ez daitezzen berentzat bizi, berengatik hil eta piztu den harrentzat baizik.

Horregatik, hemendik aurrera guk ez dugu inor giza legez ezagutzen. Eta inoiz Kristo giza legez ezagutu badugu ere, orain ez dugu hala ezagutzen. Kristorena dena, sorkari berri da; zaharrarenak egin du; berria hasi da.

† Jesu Kristoren Ebanjelioa San Markosen liburutik 4,35-40.

Egun hartan, ilunabarrean, Jesusek esan zien ikasleei: «Goazen uraz bestaldera». Eta jendea utzi eta ontzian eraman zuten, zegoen bezala. Beste ontzi batzuek ere jarraitu zioten.

Haize-ekaitz handia sortu zen, eta ontzi barruraino sartzen ziren ur-palastak, ontzia ia betetzeraino. Bera, berriz, txopan, burko baten gainean lo zegoen. Esnarazi eta esan zioten: «Maisu, galtzera goaz, ez al zaizu axola?» Orduan, jaikirik, agindu zion haizeari, eta itsasoari esan: «Ixo! Hago gelditu!» Gelditu zen haizea, eta barealdi handia sortu zen.

Urteko 12. astea.

San Luis Gonzaga, *erlijiosoa*.
San Ramon Rodakoa, *gotzaina*.

Gero, esan zien: «Zergatik zarete horren beldurti? Ez al duzue oraindik sinesmenik?» Eta harriturik gelditu ziren, eta elkarri zio-tsaten: «Nor dugu, ordea, hau? Haizeak eta itsasoak ere obeditzen baitiote!»

Zergatik gara hain koldar? Zergatik, zeruertza lainotzen hasi orduko, hasten gara kexuka? Zergatik gara horrenbeste izutzen Jesusi jarraitzean jotzen gaituzten zailtasunen aurrean? Ekaitzaren erdian, babes-falta sentitzen dugu, Jainkoaren absentzia, hila balitz bezala edota gure arazoak axola ez balitzaizkio bezala.

Halaz guztiz, Jesus ez da urruti: lo dago lasai asko gure ondoan, ardurarik gabe, itxuraz, bizi dugun arriskuaz. Itxuraz bakarrik. Laguntza eske garrasika esnatzen dugunean, berarekiko konfiantza-falta, fede eskasa aurpegiratzen digu. Eta isiltzeko agintzen die itsasoari eta haizeari; artaraino izutu gintuen horri, erabat garbituko gintuelakoan.

Etsai handia da ikara. Bizitza espiritualean askotan estutzen gaitu zurruntzen gaituen funtsik gabeko ikarak, aurrera egitea eragozten digu. Ez naiz ari benetako arriskuez. Hauek kontuan hartzen ez dituen ausartegia da. Geure irudimenak ekartzen eta blokeatzen gaituzten irudipenez eta hersturez ari naiz. Horrelakoen aurka, pikutara bidali beste erremediorik ez dago: lemari heldu eta adorez nabigatzen jarraitzea da bidea, lainoak inguratzen bagaitu ere, uhinek astintzen bagaituzte ere, haizea kontra badugu ere.

Urteko 12. astea.

San Paulino Nolakoa, *gotzaina*.

San Joan Fisher, *gotzaina* eta Tomas Moro santua,
aita familiakoa, martiriak.

[**Hasiera 12,19:** *Hala joan zen Abram, Jaunak esan bezala.*

Sal 32: *Bai dohatsua, Jaunak bere oinorde hautatu duen herria.]*

† Jesu Kristoren Ebanjelioa San Mateoren liburutik 7,1-5.

Aldi hartan, Jesusek esan zien ikasleei: «Ez epaitu, eta ez zaituzte epaituko. Izan ere, zuek epaitzen duzuen epai beraz izango zarete epaituak, eta zuek erabiltzen duzuen neurriaz neurtuak. Zertan zaude senidearen begiko lasto-izpiari begira, eta ez zara konturatzen zeure begian duzun habeaz? Edota nolatan esan diezaiokezu zeure senideari: “Uztazu zure begiko lasto-izpia ateratzen” habea duzularik zeure begian? Itxurazalea zu! Atera ezazu lehenik zeure begiko habea, eta orduan garbi ikusiko duzu, senidearen begitik lasto-izpia ateratzeko».

Ezer ez kaltegarriago bizikidetasunarentzat kritika krudelak baino, funtsik gabeko akusazioak baino, amairik gabeko errietak baino, besteari izen txarra leporatzea baino. Dagokion laguna umiliatu ez ezik, izen ona kentzen zaio. Gainerakoak zorrotz juzgatzen eta jendeari akatsak kanporatzen dizkionak bere burua nahi izaten du aireratu, mundu guztiaren aurrean gaizki geldituko bada ere. Izan ere, kritikarako jarrera honek berekin izan ohi du norberagan atsegin-falta sakon bat. Nolanahi ere, oso gutxitan gauzatzen da kritika latz hori irainduaren aurrean. Agerian uzten du horrek portaera horren koldartasuna. Jainkoak ez nazala juzgatu nik besteak gaitzesten ditudan bezain gogor eta arin.

Urteko 12. astea.

Santa Agripina, *martiria*.San Urbano, *martiria*.

[**Hasiera 13,2.5-18:** *Ez bedi eztabaidarik izan gu bion artean, sendeak baikara. Sal 14:* *Jauna, nor dagoke zure txabolan?*]

† Jesu Kristoren Ebanjelioa San Mateoren liburutik 7,6.12-14.

Aldi hartan, Jesusek esan zien ikasleei: «Ez eman zakurrei santu dena, ez bota harri bitxirik zerriei, hankapean erabil ez ditzaten eta, zuengana itzulirik, hozka ez zaitzaten. Egin besteei, haiek zuei egitea nahi zenuketen guztia; hori da Legea eta Profetak. Sar zaitetze ate estutik; ate handia eta bide zabala baitira heriotzara daramatenak, eta asko sartzen dira handik. Baina, bai estua dela atea, eta bai meharra bidea, bizira daramana! Eta gutxi dira hura aurkitzen dutenak».

Hiru aholku demazkigu Jesusek –zentzu komunekoak kasik–. Lehena: izan dezagula beti kontuan solaskidearen izaera. Badira jende bati ezin eskatu eta eman dakizkion gauzak; bakoitzaren ulertzeko eta baitaratzeko gaitasunaren arabekoak izan behar dute. Bigarrenak, dio Jesusek, Legea eta Profetak laburbiltzen ditu: eman besteri zeuretzat eskatzen dituzun arreta eta begirunea. Eta hirugarrenak gogorarazten digu ezen Bizira garamatzaten atea (estua) eta bidea (aldapan gorakoa) oso eskatzaileak direla.

Emaguzu, Jauna, argitasuna, gauzak zuk bezala ikusi ahal izateko.

Urteko 12. astea.

SAN JOAN BATAIATZAILEAREN JAIOTZA.

San Orentzio, *martiria*.

§ Isaias Profetaren liburutik 49,1-6.

Uharteak, entzun! Urrutiko herriak, aditu! Amaren sabeletik deitu ninduen Jaunak, amaren erraietan nengoela zidan izena eman. Ezpata zorrotz egin zuen nire ahoa, bere gerizpean gorde ninduen; gezia bezala zorrotzurik, gezi-ontzian sartu ninduen. Eta esan zidan: «Zu, Israel, nire morroi zara, zukan dut gorespena». Nik neure baitan esaten nuen: «Alferrikakoak nire nekeak; hutsean erre ditut neure indarrak». Baina egiaz, Jaunak zeukan nire zuzenbidea; nire Jainkoak zeukan nire saria. Orain honela mintzo da Jauna, amaren sabeletik bere zerbitzurako deitu ninduen, Jakob beregana bihurtzeko eta Israel biltzeko; izan ere, halako ospea eman zidan Jaunak, eta Jainkoa izan zen nire indar. Eta esan dit: «Oso gutxi da zu nire zerbitzari izatea, Jakob en leinuak eraikitzeko eta gelditzen diren israeldarrak herriratzeko. Atzerrien argi egiten zaitut, nire salbamena lurraren azken-mugaraino iritsi dadin».

[Sal 138: *Gora Zu, Jauna, hain harrigarriro egin nauzulako.*]

§ Apostoluen Eginak liburutik 13,22-26.

Egun haietan, Paulok zioen: «Jaungoikoak David eman zien errege, harentzat aitormen hau eginez: «Aurkitu dut David, Jeseren semea, neure gogoko gizona, nire agindu guztiak beteko dituen». Hitzemana zuenez, honen hazitik atera zion Jainkoak Israeli Salbatzailea, Jesus. Berau etorri baino lehen, Joaneke bihotz-berritzeko bataioa hots egin zion Israel herri osoari. Eta, bere bizia bukatzera zihoanean, Joaneke zioen: «Ez naiz ni zuek uste duzuen; badator nire ondoren beste bat, eta ni ez naiz inor haren oinetakoak askatzeko ere». Senideok, Abrahamen ondorengo eta Jaungoikoaren beldur zarenok: «Zuei bidali zaizue salbamen-hitz hau».

† Jesu Kristoren Ebanjelioa San Lukasen liburutik 1,57-66.80.

Etorri zitzaion ordua Elisabeti, eta semea izan zuen. Entzun zuten auzokoek eta ahaideek Jaunak egin zion erruki handiaren berri, eta zorionak ematen zizkioten. Zortzigarren egunean haurra erdaintzera eramán zuten, eta «Zakarias» deitzen zioten, aitari bezala. Amak, ordea, esan zuen: «Ez! “Joan” izango du izena». Haiek, berriz: «Ez duzue zeuen senitartean inor, izen hori duenik». Orduan aitari keinuka hasi zitzaizkion, ea zer izen eman nahi zion haurrari. Eta hark, idazteko ohol bat eskatu, eta idatzi zuen: «”Joan” du bere izena». Eta denak harriturik gelditu ziren. Bat-batean askatu zitzaion mihia, eta hitz egiten hasi zen eta Jainkoa goresten.

Elisabeten sabelean berandu erneztean hasi zen Joan Bataiatzailearen berezitasun hura beronen erdaintzuntzan bermatu da. Familiako tradizioz kanpoko izen bat ezarri diote, azpimarratzeko, hasieratik beretik, bere bizitzan misio edo egiteko bere-bere bat izango duela. Gu guztiok bezala; izan ere, Jainkoak ez gaitu deitu existitzera, norberak nahi duena egiteko, baizik misio bat gauzatzeko.

Artean lau urte bete ez nituela, gaixotasun larri bat jasan nuen, hiru egunez hilzorian eduki ninduen. Onera egin eta koskortu nintzelarik, amak esaldi bat irarri zidan buruan; huraxe da bizitza sagaturako nire bokazioaren jatorria: «Ene seme, Jainkoak bizia zaindu dizu; beraz, ezin alferrik galdu duzu».

Horixe bera esaten zuten Zakariasen eta Elisabeten auzokoek: «Zer izango da haur hau?» Zer?, eta Jaunaren aurrelaria! Mesiasi bidea zelaitu zion, parte hartu zuen Jesusek lehen ikasleak aukeratzeko orduan, sekula bekaturik izan ez zuena bataiatu zuen.

Zein duzu zeure misioa eta bokazioa bizitzan? Ezaguna al duzu? Betetzen al duzu.

[**Hasiera 16,1-12.15-16:** *Agar-ek seme bat eman zion Abram-i, eta Abram-ek Ismael izena ezarri zion. Sal 105: Eskerrak Jaunari, ona baita.*]

† Jesu Kristoren Ebanjelioa San Mateoren liburutik 7,21-29.

Aldi hartan, Jesusek esan zien ikasleei: «Niri “Jauna, Jauna!” ari zaizkidanak, ez dira guztiak sartuko zeruetako erreinuan, zeruan dagoen nire Aitaren nahia egiten dutenak baizik. Egun hartan askok esango dit: “Jauna, Jauna, ez al ginen zure izenean profeta izan? Ez al genituen zure izenean deabruak uxatu, eta zure izenean mirari asko egin?” Orduan, esango diet garbi: “Ez zaituztet behin ere ezagutu; alde nigandik, gaizkileok!” Beraz, nire hitz hauek entzuten eta betetzen dituen, bere etxea harkaitz gainean eraiki zuen gizon zentzudunaren antzekoa da. Egin zuen euria, etorri ziren uholdeak, atera zuen haizea, jo zuten etxe hura, baina ez zen erori, harkaitz gainean oinarrিতua baitzegoen. Nire hitz hauek entzuten dituen, eta betetzen ez, bere etxea hondar gainean eraiki zuen gizon burugabearen antzekoa da. Egin zuen euria, etorri ziren uholdeak, atera zuen haizea, jo zuten etxe hura, eta erori egin zen; eta handia izan zen haren hondamena». Jesusek, hitzaldi hauek bukatu zituenean, jendetza hura harriturik zeukan bere irakatsiekin, itzal handiz irakasten baitzien, eta ez lege-maisuek bezala.

Honela bukatzen da Mendiko Hitzaldia. Egitarau honek: indarkeriari, mendekuari, gorrotoari, aberastasunei, hantusteari, hipokresiari, jendea manipulatzeari, zuzengabekeriari... uko egiteko egitarau honek, zoriotsu egiten al gaitu? Benetan zorioneko?

Gure joeren, gure senaren kontra doa eta... nekoso da. Alabaina, ondorioa ez da oinaze eta sufrimendu, baizik gozamen eta alaitasun sakon; mendekuak, arerioa umiliatzeak, ospeak, botereak edo plazer egoistak ematen duten atsegina baino mila bider handiagoa. Zinezko zoriona izan ohi da, benetakoa, bihotza betetzen duena, pozez saltoka jartzen zaituena, besterik ez bezalako alaitasuna.

Urteko 12. astea.

San Pelaio, *martiria*.San Josemaria Escriba, *fundatzailea (Opus Dei)*.

[**Hasiera 17,1.9-10.15-22:** *Erdaindu itzazue gizaseme guztiak iturenaren ezaugarri. Sarak seme bat emango dizu. Sal 127: Hala izango da bedeinkatua gizakia, Jaunari beldur diona.*]

† Jesu Kristoren Ebanjelioa San Mateoren liburutik 8,1-4.

Jesusek, menditik behera jaitsi zenean, jendetza handia zuen ondoren. Eta horra non etortzen zaion legenardun bat eta, ahuspez, honela mintzatu zitzaion: «Jauna, zuk nahi baduzu, garbi nazakezu».

Jesusek eskua luzatu eta ukitu zuen, esanez: «Nahi dut, geldi zaitez garbi!» Eta berehala garbitu zitzaion legenarra. Eta Jesusek, orduan: «Begira, gero, inori ezer esan; zoaz eta ager zaitez apaizagana, eramaiozu Moisesek haientzako ageri bezala agindutako oparia».

Uztazu, Jauna, zure aurrean belauniko jarri eta esaten: Jauna, nahi baduzu, garbi nazakezu.

Ken iezadazu bideko hautsa, oinei, neure izate guztiari erantsi zaiona. Zanbuluka nator, zikin, narras neure buruaskitasuna dela bide, neure harrokeria, gainerakoei buruz dudan neure gailentasun puztua direla medio. Uste izan dut den-dena nire probetxura eta onurara bideratu behar dela. Gauzez eta, are, pertsonenez baliatzen naiz, ez zure aintzarik handienerako, baizik neure komenientziarako. Garbi ezazu neurekin dudan zakar ugari hau: nire egoismoa, nire apeta, nire nahikeria. Neuregan gustuko ez dudan baina besteei ezkutatu nahi diedan hau guztia.

Jauna, gerta nadila garbi!

Urteko 12. astea.

San Zirilo Alexandriakoa, *gotzaina eta eliz irakaslea*.
San Zoilo, *martiria*.

[**Hasiera 18,1-15:** *Jaunarentzat ba ote da ezer ezinik? Etorriko natzaizu berriz, eta Sarak ordurako seme bat izango du. Salmoa: Lukas 1: Gogoan izan du Jaunak bere errukia.*]

† Jesu Kristoren Ebanjelioa San Mateoren liburutik 8,5-17.

Aldi hartan, Jesus Kafarnaumen sartu zelarik, ehuntari bat etorri zitzaion, arrenka esanez: «Jauna, elbarri dut morroia etxean, eta oina-zetan dago». Eta Jesusék: «Joango naiz eta sendatuko dut».

Baina ehuntariak erantzun zion: «Jauna, ni ez naiz inor, zu nire etxean sartzeko, baina esazu hitz bat eta sendatuko da nire morroia. Nik ere, (neu besteren menpean egon arren), baditut nire mende gudamutilak, eta bati “zoaz” esaten diot, eta joan egiten da, eta beste bati “zatoz”, eta etorri egiten da, eta nire morroiari “egizu hau”, eta han egiten du».

Hori entzunik, harritu zen Jesus, eta honela mintzatu zitzairen bere ondoren zetozeni: «Egia esan, Israelen ez dut inorengan aurkitu horrelako sinesmenik. Eta hau diotsuet: asko etorriko dira sortaldetik eta sartaldetik, eta zeruetako erreinuko mahaian jarriko dira Abraham, Isaak eta Jakobekin; erreinuko seme-alabak, berriz, kanpoko ilunpera botako dituzte; han izango dira negarra eta hortz-karraska!» Eta, gero, ehuntariari: «Zoaz, eta gerta bekizu sinetsi bezala». Eta ordu hartan sendaturik gelditu zen morroia.

Jesusek, Pedroren etxera joan zenean, honen amaginarreba sukarréz oheratua aurkitu zuen; hartu zuen eskutik, eta sukarrak utzi zuen; amaginarreba jaiki eta zerbitzatzen hasi zitzairen.

Ilunabarrean deabrudun asko ekarri zioten, eta hitz batez uxatu zituen deabruak, eta gaixo zeuden guztiak sendatu, Isaias profetaren esana bete zedin: «Hark gure ahuleriak hartu ditu, eta gure gaitzak eraman».

Jaunartzen dudan bakoitzean esan ohi dut: ez naiz gauza zu nire etxean sartzeko. Baina errepikatzearen errepikatzeaz galdu egin du

bere indarra esapideak. Erromatar ehuntari haren fedeak eta apaltasunak harridura eragin zuen Jesusengan. Ez zuen Israelgo inorengan halako jarrerarik aurkitu.

Egiaz, ez naiz jabetzen ondo, zer den Jainkoa nire ahora etortze hori, betiko bizirako janari gisa. Eta aukera izatea harekin hitz egiteko, imajina daitekeen adiskidetasunik beroenean! Eta hura nire izatearen osagai izatea! Sinesten al dut?

* * *

ADISKIDETZEA

(Benjamín González Buelta, s.j.)

Zintzoaren odola eta gaiztoarena
zure bihotz beretik dira igarotzen.
Kolpatzen duenaren sorbalda
eta zigorrada hartzen duena
zure gorputz beraren osagai dira.
Zure malkoetan negar dagite onaren minak
eta erasotzailearen nahasmenduak.
Zure txera berak ditu besarkatzen
zure ama Mariaren aurpegia
eta iltzatu zaituen soldaduarena.
Zure bihotzean ez da bazterturik,
denok gara kabitzen zure gorputzean,
denok dugu negar egiten zure malkoetan,
denok gara bizi zure txeran.
Uztazu zurekin sartzen,
Jauna, zeure misterioan,
eta bizitzen zeure pasioaren supazterrean,
ezina bera adiskidetzen den leku horretan!

Urteko 13. astea.San Ireneo Lyongoa, *gotzaina eta martiria*.

§ Jakinduria liburutik 1,13-15; 2,23-25.

Ez zuen Jaungoikoak egin heriotza, ez du atseginik biziaren hondamendian; bizirik irauteko egin zituen hark gauza guztiak; munduko izaki guztiak osasungarri dira; ez da horietan heriotzarako pozoirik, ezta leize-zuloaren aginterik ere lur gainean; zuzenbidea hilezkorra baita. Hilezkor egin zuen Jaungoikoak gizakia, eta bere izatearen irudi zuen egin. Deabruaren bekaizkeriaz sartu zen heriotza munduan, harenak direnek sumatuko dute berengan.

[Sal 29: *Goretsiko zaitut, Jauna, onik atera nauzulako.*]

§ Paulo apostoluak 2. korintoarrei 8,7.9.13-15.

Senideok: Aberats zarete sinesmenean, hitzean, ezagueran, denarako arduran eta guganako duzuen maitasunean. Izan zaitezte aberats, esku-zabaltasunean ere. Baduzue Jesu Kristo gure Jaunaren esku-zabaltasunaren berri: aberats izanik, behartsu egin zen zuengatik, haren behartsu izatetik zuek aberastu zaitezten. Hemen darabilkigun asmoa ez da besteak lasaitu eta zuek estutzea, guztien parekotasuna baizik. Gaur egun, zuen ugariak haien eskasia betetzen du, eta egunen batean haien ugariak zuen eskasia beteko du; honela, guztion parekotasuna egingo da. Hori dio Liburu Santuak: «Asko bildu zuenak ez zuen gehiegirik, eta gutxi bildu zuenak ez zuen gutxiegirik».

† Jesu Kristoren Ebanjelioa San Markosen liburutik 5,21-43.

Aldi hartan, Jesus ontzian itsasoaz beste aldera itzuli zenean, jende asko bildu zitzaion eta itsas ertzean gelditu zen. Etorri zen sinagogako nagusietako bat, Jairo izenekoa, eta, ikusi orduko, oinetan ahuspeztu eta arren eta arren hasi zitzaion: «Alabatxoa azkenetan daukat, zatoz eta ezarri hari eskuak gainean, senda dadin eta bizi». Jesus harekin joan zen, jendetza handia zuela ondotik, estutzen. Bazen han, hamabi urte

hartan odoljariora zuen emakume bat, sendagile askotan ibilia, zituen guztiak horretan xahutu zituena, sendatu beharrean, gero eta okerrago zihona. Jesusen berri entzunik, jende artean atzetik joan eta soinekoa ukitu zion, bere baitan baitzioen: «Soinekoa bederen ukitzen badiot, sendatuko naiz». Eta berehala odol-iturria agortu zitzaion, eta sendatu zela sumatu zuen bere gorputzean. Jesus, indar bat atera zitzaiola oharturik, jendeagana bihurtu zen berehala, eta esan zuen: «Nork ukitu dizkit soinekoak?» Ikasleek erantzun zioten: «Ikusten duzu jendeak estutzen zaituela, eta “nork ukitu nau” diozu?» Eta ingurura begira zebilen, hori egin zuenaren bila. Orduan emakumea, gertatu zitzaiona jakinik, beldur-ikaraz, ahuspez jarri zitzaion, eta egia esan zion. Jesusek esan zion: «Alaba, zeure sinesmenak sendatu zaitu; zoaz bakean, eta osasunean». Artean hizketan ari zela, sinagogako nagusiaren etxetik etorri ziren, esanez: «Hil da zure alaba. Zertako eman neke gehiago Maisuari?» Baina Jesusek, adierazi zutena entzunik, esan zion sinagogako nagusiari: «Ez izan beldurrik; zuk, sinetsi bakarrik!» Eta ez zuen inor hartu nahi izan lagun, Pedro, Santiago eta Joan, Santiagoren anaia, besterik. Iritsi ziren sinagogako nagusiaren etxera, eta hango zaratak, jendearen negarrak eta garrasiak ikusten egon zen. Gero, sartu eta esan zien: «Zertako zarata eta negar horiek? Ume hau ez dago hila, lo dago». Haiek, ordea, barre egiten zioten. Baina hura, denak kanpora aterarazi, neskaren aita-amak eta berekin zeramatzanak hartu eta neska zegoen tokira sartu zen. Neska eskutik hartu eta esan zion: «Thalita, kum» –hau da: «Ume, zuri diotsut: jaiki zaitez»–. Berehala zutitu zen neska, eta ibiltzen hasi; hamabiren bat urte zituen. Guztiak harrিতා gelditu ziren; Jesusek zorrotz agindu zien, inork ez zezala jakin, eta neskari jaten emateko esan zien.

Emakume odoljariodunak hamabi urte zeraman senarrik eta seme-alabarik gabe. Jairoren alabak bete berria zuen adin hori, eta

Urteko 13. astea.San Ireneo Lyongoa, *gotzaina eta martiria.*

pertsona heldutzat emana zen eta ezkontzeko gaitzat. Baina mundu honetatik joateko zorian zegoen, ezkontzaren eta amatasunaren gozamena ezagutu gabe. Hona bi emakume asegabe, zeini Jesusek bizi bete itzultzen baitie.

Sendatu duen lehenengoa ez du utzi nahi Jesusek ezkutuan, eta begi-bistara atera du emakumea babestzat hartua duen ikusezintasunetik. Gizartera itzuli du: gaixotasuna sendatu dio eta, aldi berean, marjinazioa: «Zoaz bakean eta onik». Bigarrena heriotzatik esnatu du, guztiak sinesgabe direla ere. Bizira ekarri du Jesusek neskatoa, emakume bete-betekoa izan dadin.

Ebanjelioetan esapide gutxi datoz Jesusek hitz egiten zuen arameeraz. Jairoren alabari esan diona guganaino iritsi da: «Talitha qumi». Horra berorren garrantzia. Agian, berentzat hartu beharko lukete gaur egungo emakumeek esapide hori. Jaunak berak agintzen die jaikitzeke eta dagokien postua hartzeko Elizan.

* * *

DEIA

(Ignacio Iglesias, s.j.)

Ez iezadazu agindu isiltzeko!
Ezin dizut obeditu!
Zure barkazioak
suak bezala nau sutu
eta esan beharra dut
beti eta guztien aurrean
zuk debekatu arren,
edo sinetsiko ez didaten arren.
Horregatik lur honetatik botatzen banaute,
zutaz hitz eginez irtengo naiz...

Urteko 13. astea.
SAN PEDRO ETA SAN PAULO, APOSTOLUAK.

Santa Maria, *San Markosen ama.*

§ Apostoluen Eginak liburutik 12,1-11.

Egun haietan, Herodes erregea gogor erasotzen hasi zen eliztar batzuen aurka, eta Joanen anaia Santiagori ezpataz lepoa moztu zion. Eta, juduei poza ematen ziela ikusirik, bahitu arazi egin zuen Pedro ere. Pazko-astea zen. Eta, loturik, espetxean sarrarazi zuen, eta launa gudariko lau sailek zaindu zezatela agindu. Pazko-ondorenean herriaren aurrean hilarazteko asmoa zuen. Pedro giltzapean ondo zainduta zeukaten bitartean, Eliza otoitzean ari zitzaion Jaungoikoari haren alde, etengabe. Herodesek hura atera behar zuen aurreko gauean, lo zegoen Pedro, bi gudariren artean, haiei katez loturik. Eta espetxe-zainak ate aurrean zeuden hura zaintzen. Bat-batean Jaunaren aingerua agertu zen, eta gela barrua argitu zen. Eta, saihetsean ukituz, esnarazi zuen Pedro, esanez: «Jaiki, azkar» Kateak eskuetatik erori zitzaizkion. Eta aingeruak berriro: «Lotu gerrikoa eta jantzi oinetakoak». Hala egin zuen Pedrok, eta aingeruak berriz: «Jantzi soingainekoa, eta jarrai niri». Pedro, atera eta atzetik zihoakion. Ez zuen uste, ordea, aingeruak ari zuena egia zela, irudipena zerizkion. Eta lehenengo eta bigarren zaintzaile-taldeak igaro ondoren, herrira daraman burdinazko ateraino iritsi ziren, eta berez zabaldu zitzairen. Atera eta kale bat igaro zuten; orduan, aingerua bat-batean ezkutatu egin zitzaion. Pedrok, bere baitara etorririk, zioen: «Bai, egia zen, Jaunak bere aingerua bidali du, Herodesen eskuetatik eta juduen ikusnahi guztietatik ni ateratzeko».

[Sal 33: *Beldur guztietatik atera ninduen Jaunak.*]

§ Paulo apostoluak 2.a Timoteori 4,6-8.17-18.

Anaia maite: Neure odola isurtzeko zorian nago ni, nireak laster egingo du. Borroka ona egin dut, ibilaldia bukatu dut, gorde dut sinesmena. Orain prestaturik dago niretzat zuzentasunaren koroia,

Urteko 13. astea.

SAN PEDRO ETA SAN PAULO, APOSTOLUAK.

Santa Maria, *San Markosen ama*.

Jaunak, epaile zuzenak, egun hartan emango didana; ez, ordea, niri bakarrik; baita haren etorrera maite duten guztiei ere. Zatozkit lehenbailehen.

Jauna nire alde nuen eta berak indartu ninduen, berri on osoa nire bidez zabal zedin eta herri guztiek entzun zezaten; berak atera ninduen lehoiaren ahotik. Jaunak aterako nau berriz ere gaitz guztietatik; salbatuko nau eta bere zeru-erreinura eramango. Berari aintza gizaldiz gizaldi. Amen.

† Jesu Kristoren Ebanjelioa San Mateoren liburutik 16,13-19.

Aldi hartan, Jesusek, Filiporen Zesarea aldera etorri zelarik, galdetu zien ikasleei: «Gizonaren Semea nor dela dio jendeak?» Eta haiek: «Batzuek, Joan Bataiatzailea dela; beste batzuek, Elias; besteek, Jeremias edota profetaren bat». Jesusek orduan: «Eta zuek, nor naizela diozue?» Eta Simon Pedrok erantzun zion: «Zu Mesias zara, Jainko biziaren Semea». Jesusek orduan: «Zorionekoa zu, Simon, Jonasen semea! Ez haragik, ez odolek, ez baitizu adierazi hori zuri, zeruan dagoen nire Aitak baizik. Eta horra nik esan: Zu “Harria” zara; harri horren gainean eraikiko dut nik neure Eliza, eta herioaren indarrak ez zaizkio nagusituko. Zuri emango dizkizut zeruetako erreinuaren giltzak. Eta zuk lurrean lotua, zeruan ere lotua izango da, eta zuk lurrean askatua, zeruan ere askatua».

Zuzenekoa da galdera. Ez da ihesbiderik. Ezaguna dute jada, berarekin bizi izan dira, ikusiak dituzte egin dituen mirariak, ezaguna dute zer pentsatzen duen eta nola jokutzen... «Eta zuek, nor naizela diozue?» Agintarien gaitzespenek kaltea egina dute ordurako Jesusen artaldean: jarraitzaileen kopuruak gainbehera egin du nabarmenki. Zesareara joan behar izan dute, ezartzen dieten pertsekuzioari ihes

Urteko 13. astea.
SAN PEDRO ETA SAN PAULO, APOSTOLUAK.*Santa Maria, San Markosen ama.*

egiteko. Ezaguna dugu Pedroren erantzuna; ez zaio atera bere kolko-
tik, baizik eta Aitak arnastu dio. Jainkoak eman dion grazia du.

Egiozu gaur zeure buruari, San Pedroz oroituz, galdera hura bera:
Jesus nor dela diozu? Eta erantzun Espirituak inspiratuko dizun be-
zala. Utzi alde batera doktrinako edo kredoko esapideak. Jar zaitez
Jesusi aurpegira begira eta esaiozu zer uste duzun beraren inguruan,
zertaraino zauden prest beraren jarraitzaileen artean parte hartzeko,
Erreinuagatik konprometitzeko. Edota, hobeto, zaude isilik une ba-
tean, eman diezazula erantzuna Aitak berak. Eta esaten dizuna entzu-
nik, eska iezaiozu grazia Jesus modu biziagoan maitatzeko.

Urteko 13. astea.

Erromako Eliza Santuko Lehen Martiriak.

[*Hasiera 19,15-29: Jaunak suzko eta sufrezko euri-erauntsia bota zuen Sodomaren eta Gomorraren gainera. Sal 25: Begien aurrean dut, Jauna, zure ondasuna.*]

† Jesu Kristoren Ebanjelio San Mateoren liburutik 8,23-27


Aldi hartan, Jesus txalupan sartu zen, eta ikasleek jarraitu zioten, eta horra non sortzen den ekaitz handia itsasoan, ur-palastek txalupa estaltzeraino. Bera, berriz, lo zegoen. Ikasleek beragana jo eta esnaraizi zuten esanez: «Salba gaitzazu, Jauna; galduak gara!»

Jesusek, orduan: «Zeren beldur zarete, sineste eskasekook?» Eta jaiki eta haizeari eta itsasoari agindu zien, eta barealdi ederra egin zen.

Gizon haiek, harriturik, zioten: «Nor ote dugu hau? Haizeak eta itsasoak ere obeditzen baitiote!»

«**J**auna, salba nazazu, hondora noa eta». Ez da otoitz txarra, zeure burua bazter utzia, indarrrik gabe, inguruabarren biktima sentitzen duzun momentuetarako. Askotan grina bat izaten da, edo nahikunde errotu baina kaltegarri bat, edo kalte egiten didan adiskidetasun bat, edo neure onetik aterarazten nauen neure izaeraren ezaugarri bat... Norberak du norberaren berri. Hortxe, ahulgunean erasotzen digu geure baitan dugun gaitzak. Eta, ahul garela dakielako, biderkatu egiten ditu erasoak, gu jota utzi nahirik. Erori eta berriz ere erori. Orduan duzu egokiera Jaunari esateko: «Jauna, salba nazazu, hondora noa eta».

«Jesus irakasten hasi zen sinagogan»



AITA SANTUAREN ASMOAK

Orokorra: Erantzukizun politikoa maila guztietan bizi dezaten, maitasunaren molde goratu bat bezala.

Ebanjelizazioaren alde: Gizarte-parekotasunaren aurrean, Latindar Amerikako kristauak pobreekiko maitasunaren testigutza egin eta gizarte anai-arreba artekoago bat eragin dezaten.

UZTAILA / GARAGARRILA

San Aaron (*Moisesen anaia*).Santa Regina, *aitorlea*.Santa Ester, *erregina*.

[**Hasiera 21,5.8-20:** *Neskame-semeak ez du oinordeko izan behar; Isaak nire semearekin. Sal 33:* *Dohakabeak oihu egin zuen, eta Jaunak entzun.*]

† Jesu Kristoren Ebanjelioa San Mateoren liburutik 8,28-34.

Aldi hartan, Jesus beste itsas ertzera joan zenean, gerasatarren lurraldera, bi deabrudun etorri zitzaizkion bidera, hilobitik aterata; oso gaiztoak ziren, eta inor ez zen ausartzen bide hartatik ibiltzera. Oihuka esan zioten: «Zer ikustekorik dugu guk zurekin, Jainkoaren Seme? Ordua baino lehen al zatoz gu oinazetan jartzera?» Handik urruti gabe, txerri-talde handi bat zebilen larrean, eta deabruak eskatu zioten: «Uxatzekotan, bidal gaitzazu txerri-talde horretara». Jesusek esan zien: «Zoazte». Haiak atera eta txerrietara joan ziren; txerri-talde osoa, ezpondan behera, itsasora amildu zen, eta urean ito. Txerri-zainek ihes egin zuten, eta hirira etorri, eta deabrudunekin gertatuaren berria zabaldu zuten. Orduan herri osoa Jesusen bidera atera zen eta, ikusi zutenean, haien mugetatik alde egin zezala eskatu zioten.

Gerasatarrek beren herritik kanpora bidali dute Jesus. Axola handiagoa dute txerriez, jendearentzat arriskutsu ziren bi zoro haien buru-osasunaz baino. Askotan gertatzen da horrelakorik. Onura ekonomikoen eta balio ebanjelikoen edota giza eskubideen artean gatazka sortzen da, eta onuraren eta probetxuaren legea gauza guztien gainetik jartzen dugu, baita jendearen bizitzaren gainetik ere. Behin baino gehiagotan galdu dira herri osoak, politika zapaltzaileen edo amets handi-mandien mesedetan.

Jauna, erruki zaitez balizko «Estatu-arrazoien» biktima guztiez, zuzengabeki erail edo azpiratuak izan diren errugabe guztiez.

San Juvenal, *martiria*.
San Odon, *gotzaina*.*

[**Hasiera 22,1-19:** *Sinesmenean geure aita dugun Abrahamen oparia. Sal 114: Ibiliko naiz Jaunaren aurrean, bizien lurrean.*]

† Jesu Kristoren Ebanjelioa San Mateoren liburutik 9,1-8.

Aldi hartan, Jesus txalupan sartu, itsasoa igaro eta bere herrira etorri zen. Eta horra, elbarri bat ekarri zioten zerraldoan etzanda. Jesus, haien sinesmena ikusirik, esan zion elbarriari: «Izan bihotz, seme! Barkatzen zaizkizu zeure bekatuak».

Honetan, lege-maisu batzuek beren baitan zioten: «Biraoka ari da hau».

Jesusek, ordea, haien burutapenak ezaguturik, esan zien: «Zergatik darabiltzazue burutapen txarrak zeuen bihotzean? Zer da errazago esaten: “Barkatzen zaizkizu zeure bekatuak” ala “jaiki eta zoaz?” Hara bada, jakin dezazuen, Gizonaren Semeak baduela lurrean bekatuak barkatzeko eskubidea —esan zion elbarriari—: “Jaiki zaitetz, hartu zeure esku-ohea eta zoaz etxera”».

Jaiki zen gizona eta han joan zen bere etxera.

Jende-taldea, hori ikustean, izaturik gelditu zen, eta Jainkoa go-
resten zuten, gizakiei horrelako eskubidea ematen dielako.

Jaiki eta ibil zaitetz, zoaz bakean eta ez egin gehiago bekatuak, barkatuak dituzu zeure bekatuak... Zenbat bider errepikatu ote dira hitz hauek mendetan barna, adiskidetzeta-sakramentua eskaintzean! Jainkoak ahalmena eman die gizakiei, Jesusen misioari lurrean segida emateko, Jesusekin berarekin eta gainerako jendearekin jendea adiskidetzeko. Gaurko pasarteak dio, jendeak Jainkoa goratzen zuela, Jesus, gizon batek alegia, bekatuak barkatzen zituelako. Eskertu zeuk ere Jaunari, hain eskura duzulako bakearen eta kontsolamenduaren, adorea iturburu agorrekin hori, bideari berriro ekin ahal izateko.

* Bernardino Realino, Joan Frantzisko Régis eta Frantzisko de Geronimo, *santuak; dohatsuak*: Julian Maunoir eta Antonio Balducci, *apaizak*.

Urteko 13. astea.

SANTO TOMAS, APOSTOLUA.

San Heliodoro, gotzaina.

[Efesoarrei 2,19-22: *Apostoluen oinarri gainean eraikiak zaude-
te. Sal 116: Zoazte mundu guztira eta hots egin Berri Ona.*]

† Jesu Kristoren Ebanjelioa San Joanen liburutik 20,24-29.

Tomas, Hamabietako bat, Bikia zeritzana, ez zegoen besteekin Jesus etorri zenean. Beste ikasleek esan zioten: «Jauna ikusi dugu». Tomasek, ordea: «haren eskuetan iltze-zuloak ikusten ez baditut, neure hatza haren iltze-zuloetan eta neure eskua haren saihetsean sartzen ez badut, ez dut sinetsiko». Handik zortzi egunera, berriz ere barruan zeuden ikasleak, eta Tomas haiekin. Sartu zen Jesus, ateak itxirik zeudela, eta, haien erdian zutik, esan zien: «Bakea zuekin». Gero Tomasi: «Ekatzu hatz hori, hona hemen nire eskuak; ekatzu esku hori, eta sar ezazu nire saihetsean, eta ez izan sinesgogor, sines-
tedun baizik». Tomasek erantzun zion: «Ene Jauna eta ene Jainkoa!» Eta Jesusek: «Ikusi nauzulako sinetsi al duzu? Zorionekoak, ikusi gabe sinesten dutenak».

Dudarik gabe, askotan errepikatu izan duzu Tomas apostolua-
ren fede-aitorpen hau: Ene Jauna eta ene Jainkoa! Ahopean esan ohi
da sagarapenekoan, Eukaristia ospatzean. Horretarako ohiturarik ez
baduzu, esapide ederra da Kristoren presentziaz zeure fedea adieraz-
teko. Horixe esan nahi izan zuen Tomasek: Jesus piztu zela, bizi zela
bereentzat eta borondate oneko jende guztiarentzat. Ez dakigu beste
ezer asko apostolu honetaz, baina ondare bikaina utzi digu.

[*Hasiera 27,1-5.15-29: Jakobek bere anaiari lehen semetza kendu zion, eta hari zegokion bedeinkapena jaso. Sal 134: Goretsazue Jauna, ona delako.*]

† Jesu Kristoren Ebanjelioa San Mateoren liburutik 9,14-17.

Aldi hartan, Joanen ikasleak Jesusi hurbildu eta esan zioten: «Zergatik barau egiten dugu maiz guk eta fariseuek, eta zure ikasleek ez?» Jesusek erantzun zien: «Eztei-lagunek negar egin al dezakete, senar berria berekin duten bitartean? Etorriko da, senar berria kendera dieten eguna; orduan, bai, orduan egingo dute barau». Ez dio inork josten jantzi zahar bati oihal gordinezko adabakirik; adabakiak tira egiten baitio jantziari, eta handiago egiten da zarrastada. Zahagi zaharrak ere ez dira ardo berriz betetzen; bestela, zahagiak lehertzen dira, ardo isuri, eta zahagiak galtzen dira; ardo berria zahagi berrietan sartzen da; horrela, biek irauten dute».

Frantzisko aita santuak agiri eder hau eskaini digu: Ebanjelioaren poza. Behar handia genuen, norbaitek anima gintzan Jesusen Berri Ona pozik bizitzera. Kristauak, askotan, haserre eta kexu bizi garela ematen du. Mila akats ikusten dizkiogu geure mundu honi, dena zoritxar-soka luze bat izango balitz bezala. Jainkoaren Erreinua zailtasunen artean eraikitzen da. Garaipena ospatzeko ibilaldi handios bat izango zela uste zutenak oso erraturik zebiltzan. Erreinukoek «gogor egin behar dute» hura ezartzeko. Haizea kontra dugu geure bizitzan; beraz, alde batera bota behar ditugu zahagi zaharrak eta sitsak jotako mantuak... jantzi berriak eta zahagi sanoak estreinatu behar ditugu.

San Antonio Maria Zaccaria, *apaiza, fundatzailea (bernabitak)*.

Santa Elisabet Portugalekoa, *erregina*.

§ Ezekiel Profetaren liburutik 2,2-5.

Egun haietan, espiritua barrura sartu zitzaidan, eta zutik jarri ninduen, eta norbait niri mintzatzen entzun nuen. Esan zidan: «Adamen seme! Israelgo semeetara bidaltzen zaitut, aurka altxatu zaidan herri bihurri horregana. Hauek eta hauen arbasoak nire aurka ari izan dira gaurdaino. Hauen semeak ere bekoki zakarrekoak eta bihotz gogor-rekoak dira; horiengana bidaltzen zaitut, eta esango diezu: “Hau dio Jaunak”. Entzuten badizue eta ez badizue –herri bihurria baitira–, jakingo dute badela profeta bat haien artean».

[Sal 122: *Gure begiak Jaunarengana daude, gutaz erruki dadin arte.*]

§ Paulo apostoluak 2 korintoarrei 12,7-10.

Senideok: Harro ez nadin, hementxe daukat nik ezten bat neure haragian, Satanen aingerua, makilaka narabilena, harro ez nadin. Eta hiru aldiz eskatu diot Jaunari, uxa dezala nigandik. Baina berak esan dit: «Nahikoa duzu nire grazia; makalaldian iristen da bere betera indarra». Pozik harrotuko naiz, beraz, nire argaltasunez, Kristoren indarra nigan bizi dadin. Horregatik, pozik nabil Kristogatik ahulerietan, laidoetan, gabezietan, erasoaldietan eta estualdietan. Ahul naizenean bainaiz indartsu.

† Jesu Kristoren Ebanjelioa San Markosen liburutik 6,1-6.

Aldi hartan, Jesus bere herrira joan zen, bere ikasleak lagun zituela. Eta, larunbata heldurik, irakasten hasi zen sinagogan, eta gehienek hari entzutean, harriturik, zioten: «Nondik du honek hori guztia? Zer da honi eman zaion jakinduria hau, eta bere eskuz egiten dituen mirariak? Hau ez al da arotza, Mariaren semea, eta Santiago, Jose, Judas eta Simonen anaia? Honen arrebak ere ez al daude hemen, gure

San Antonio Maria Zaccaria, *apaiza, fundatzailea*
(*bernabitak*).

Santa Elisabet Portugalekoa, *erregina*.

artean?» Eta ezin sinetsi zuten harengan. Jesusek, berriz, esan zien: «Bere herrian, bere senitartean eta bere etxean bakarrik gutxiesten dute profeta». Eta ezin izan zuen han miraririk egin; bakar-bakarrik, eskuak gainean ezarri eta gaixo gutxi batzuk sendatu zituen. Harriturik zegoen Jesus, haien sinesgogorkeriagatik. Eta auzorik auzo ibili ohi zen, han inguruan, irakasten.

Markosek dio, herritarrak ez zirela fidatzen beren herriko Jesusez. Inondik ere, ez zuten ezagutzen barne-barnetik. Elkarrekin bi-ziak ziren urte askoz, baina familiako tradizioari jarraitzen zion arotz arrunt bat zela uste zuten. Eta hona non azaltzen zaien orain lege-maisu eta mirarigile harro bezala. Are gehiago, barkatzaile bezala, Jainkoarekin adiskidetzeko oparirik eta eskaintzarik eskatu gabe.

Haien harridura harrigarri gertatzen zaigu. Alabaina, geuk ere askotan galtzen dugu Jainkoarekiko konfiantza. Guk zerbait eskatu eta ematen ez digunean. Bizitzako ekaitzean bertan behera utzi gaituela sentitzen dugunean. Pertsona maite bat galtzen dugunean, gaixotasun gaizto bat jasaten dugunean, etab. Norberak daki zenbait bider agertu dion Jainkoari konfiantza-falta hori. Uste izaten dugu, nonbait, Jainkoak baino hobeto dakigula zer komeni zaigun beti eta kasu bakoitzean, eta, ikustean gure desioa ez dela betetzen, Jainkoari botatzen diogu errua.

Esna zaitetz konfiantza-faltaren kontra, indartu ezazu zeure esperantza Jainkoagan: Jesusen bihotz ona, zukan dut neure ustea! Zure eskuetan jartzen dut neure bizia eta neure ahaideena!

Urteko 14. astea.

Santa Maria Goretti, *birjina eta martiria*.

[**Hasiera 28,10-22a:** *Zurubi bat ikusi zuen, eta Jainkoaren aingeruak, gora eta behera zebiltzala. Sal 90: Ene Jainko, zugan nago sendo.*]

† Jesu Kristoren Ebanjelioa San Mateoren liburutik 9,18-26.

Aldi hartan, Jesus mintzatzen ari zela, handiki bat etorri eta, aurrean ahuspezturik, hitz egin zion: «Alaba hil zait oraintxe. Zatoz, ordea, ezarri eskua gainean eta biziko da». Eta Jesus, jaiki eta ikasleekin ondoren joan zitzaion. Honetan, emakume bat hurbildu zitzaion atzetik, hamabi urte haietan odoljario zegoena, eta soinekoaren ertza ukitu zion, bere baitan baitzioen: «Soinekoa ukitze hutsarekin, sendatuko naiz». Jesus itzuli eta, ikusi zuenean, esan zion: «Izan bihotz, alaba!, zeure sinesmenak sendatu zaitu». Eta ordu berean sendatua gelditu zen emakumea. Iritsi zen Jesus handikiaren etxera eta, hango soinu-joleak eta jendearen zarata ikusirik, esan zien: «Alde hemendik! Ume hau ez dago hila; lo dago». Haiek, ordea, barre egin zioten. Jendea bidali ondoren, Jesus, barrura sartu, neskaxa eskutik hartu eta hura jaiki egin zen. Eta berri hau inguru hartan guztian zabaldu zen.

Mateo ebanjelariak ez dio eman izenik gaurko ebanjelioko «pertsoneia» horri, baina badakigu Jairo zuela izena. Bere egoera sozial altua eta guzti, alaba, artean gatzetxo, hiltzen ikusi behar izan du. Eta, ezinezkoa dela ematen badu ere, belauniko jarri da Jesusen aurrean, entzuleen artean, eta mirari bat egiteko erregutu dio Jesusi.

Maitasun horretaz mintzo da Jesus, zeruko Aitak bere seme-alabez duen maitasunaz hitz egin duenean. Seguru esan du, zeruko Aitak entzungo diola Jesusen izenean eskatzen dionari. Eskatu al diot inoiz miraririk?

[**Hasiera 32,22-32:** *Israel izango duzu izena, Jainkoaren eta gizakien aurka ari izan baitzara eta garaile atera. Sal 16: nik zuzentasunean zure begitartea dut ikusiko, Jauna.*]

† Jesu Kristoren Ebanjelioa San Mateoren liburutik 9,32-38.

Aldi hartan, gizon deabrudun mutu bat eraman zioten Jesusi; bota zuen deabrua, eta mutua hizketan hasi zen. Jendeak, harriturik, esaten zuen: «Ez da inoiz horrelakorik ikusi Israelen». Fariseuek, berriz, zioten: «Deabruen buruzagiaren indarrez botatzen ditu honek deabruak». Herriz herri eta auzorik auzo ibili ohi zen Jesus, haien sinagogetan irakasten, erreinuko Berri Ona hots egiten, eta gaitz eta min guztiak sendatzen. Gizataldeak ikustean, erruki izan zituen, nekaturik eta lur jota baitzeuden, artzainik gabeko ardiak bezala. Orduan ikasleei esan zien: «Uzta ugaria da, baina langileak gutxi. Egin, beraz, otoitz uzta-jabeari, bidal ditzala langileak bere uztara».

Jainkoak ba al du sentimendurik? Errukitu al daiteke? Filosofoentzat kontraesan bat da hori, zeren Jainkoa aldaezina baita. Badakigu, ordea, Jesusek, egiazko gizona zen hark, bizi izan zuela sentimendurik; sakon, gainera; izan ere, ikusirik jendea babesgabe eta norabiderik gabe zebilela, errukia sentitu zuen jendetza hartaz. Salmoetan ere dei egiten zaio Jainko errukitsu eta gupidatsuari. Agian, ez da oso zehatza esatea, Jainkoa errukitzen dela jende pobre eta premiatsuez, gaixoez eta sufritzen ari direnez; alabaina, Jesusen Jainkoaz dugun fedearen osagaia da errukia; horregatik, ez dugu erreparorik izan behar geure kezkak berari kontatu eta kontsolamendua eta erremedioa eskatzeko.

Urteko 14. astea.Santa Priszila, *martiria*.San Prokopio, *martiria*.

[*Hasiera 41,55-57; 42,5-7a.17-24a.: Egiaz bekatu egin genuen geure anaiaren kontra. Sal 32: Betor gugana, Jauna, zure maitasuna, zuga baitugu geure uste ona.*]

† Jesu Kristoren Ebanjelioa San Mateoren liburutik 10,1-7.

Aldi hartan, Jesusek hamabi ikasleei dei egin eta ahalmena eman zien espiritu likitsak uxatzeko, eta gaitz eta min guztiak sendatzeko. Hamabi apostoluen izenak hauek dira: aurrena Simon, Pedro deritzana, eta Andres, haren anaia; Santiago Zebedeorena eta Joan, haren anaia; Felipe eta Bartolome, Tomas eta Mateo zerga-biltzailea, Santiago Alfeorena eta Tadeo; Simon kanaandarra eta Judas Iskariote, saldu zuena bera. Hamabi hauek bidali zituen Jesusek, ohar hauek eginez: «Ez joan jentilen lurretara, ez sartu Samariako herrietan, baizik eta zoazte galdurik dabiltzan Israel etxeko ardietara. Eta bidean zoaztela, hots egin ezazue hurbil dela zeruetako erreinua».

Sumatu al duzu inoiz Jainkoak zeure izenaz dei egin dizula? Zeuri ari zaizula hizketan modu pertsonalean, segurtasuna, esperantza, adorea, poza, bakea... edo beste edozein gauza emateko? Jainkoarekiko esperientzia bizi hori funtsezkoa dugu geure fedebizitzan. Jainkoak ez gaitu hartzen jende-talde nahas-mahas bat bezala. Harreman pertsonala izan nahi du bakoitzarekin. Zure izena tatuaturik du Jainkoak bere eskuetan, Isaias profetak dioskunez. Eta Joanek, Apokalipsi liburuan, dio ezen guztioi ematen digula Jainkoak harri txiki txuri bat, soilik berak eta gutako bakoitzak ezagutzen dugun izenarekin. Sumatzen al duzu horrelakoa zarela, Jainkoak pertsonalki maite zaituela?

Txinako martiriak: San Agustin Zhao Rong, San Leon Mangin apaizak, eta lagunak, *martiriak*.

[*Hasiera 44,18-21.23b-29; 45,1-5: Zuen bizia salbatzeko bidali ninduen Jainkoak Egiptora. Sal 104: Ekarri gogora Jaunak egin dituen mirariak.*]

† Jesu Kristoren Ebanjelioa San Mateoren liburutik 10,7-15.

Aldi hartan, Jesusek esan zien apostoluei: «Bidean zoaztela, ezazue hurbil dela zeruetako erreinua. Senda itzazue gaixoak, piztu hildakoak, garbitu lepradunak, uxatu deabruak; hutsean hartu duzue, eman hutsean. Ez eskuratu urrerik, ez zilarrik, ez dirurik zeuen gerrikoan gordetzeko, ez bide-zorrorik biderako, ez bigarren soinekorik, ez oinetakorik, ez makilarik, zor zaio-eta jatekoa langileari. Edozein herri edota auzotan sartzen zaretela, azter ezazue nor den izen onekorik, eta egon haren etxean, handik joan arte. Etxera sartzean, egin bake-agurra eta, etxeak merezi badu, betorkio zuen bakea, baina merezi ez badu, itzul bedi zuengana zuen bakea. Eta etxean hartzen ez bazaituzte eta zuen hitza entzuten ez badute, etxe edota herri hartatik ateratzean, astindu zeuen oinetako hautsak. Egia diotsuet: auzi-egunean erruki handiagoa izango da Sodoma eta Gomorrako lurraldeentzat, herri harentzat baino».

Gaur martiri-talde handi baten oroitzapena egiten dugu; beren bizia fedegatik eman zuten Txinan. Haien artean, lau jesuita frantses eta kristau laiko asko, gizon eta emakume, gazte eta adin handiko, beren misiolariekin elizan ari ziren batean. Joan Paulo II.ak kanonizatu zituen 2000. urtean. Txina lurralde zailenetako bat izan da ebanjelizatzeke; hain zuzen ere, atzerritarrek bertara joateko beti ezarri izan dituzte trabak eta trabak. Bestalde, beraien hizkuntzak eta kulturak aparteko konplexutasuna dute. Otoitz egin dezagun gaur Txinako elizaren alde; asko sufritu du azken hirurogei urteetan.

Urteko 14. astea.Santa Rufina, *martiria*San Felix, *martiria*.

[**Hasiera 46,1-7.28-30:** *Orain, bai, orain hil naiteke, zure aurpegia ikusi dudanez gero. Sal 36:* *Zintzoek salbamena Jaunagandik dute.*]

† Jesu Kristoren Ebanjelioa San Mateoren liburutik **10,16-23**.

Aldi hartan, Jesusek esan zien apostoluei: «Hor bidaltzen zaituztet, ardiak otso artera bezala. Izan zaitezte, beraz, sugeak bezain zuhur, eta usoak bezain xalo. Kontuz ibili jendearekin; beren auzitegiatara eramango zaituztete, eta zigorkatuko beren sinagogetan. Eta nigatik, agintari eta erregeetara eramango zaituztete, haien eta atzerritarren aurrean aitormen egin dezazuen. Eramango zaituztetenean, ez ibili burua hausten, zer esango eta nola esango. Orduan emango zaizue zer esana. Izan ere, zuek ez, baino zuen Aitaren Espiritua izango da zuengan mintzatuko dena. Anaiak anaia eramango du heriotzara, eta aitak semea, eta umeak gurasoen aurka altxatuko dira, eta hilko dituzte. Nire izenagatik guztiek begitan hartuko zaituztete, baina azkeneraino iraungo duena salbatuko da».

Izan konfiantza nigan eta ez zeuen baliabideetan, esan digu Jau-nak. Horrek ez du esan nahi azti bizi behar ez dugunik, gaizkiaren botereek zozoak bezala harrapa ez gaitzaten; mila eratan ahalegin-tzen baitira gu konbentzitzeko ezen Jesusi zorrotz jarraitzea zorake-ria bat dela, hori guztia gutxi batzuentzat bakarrik dela, Jainkoak ez digula horrenbeste eskatzen... Alabaina, aldi berean, ez zaitez baliatu azpikeriaz eta engainuaz. Izan ezazu beti zeurekin egia, baina modu xume eta apalean, ez pentsatu besteak baino hobea zarenik, beste inor baino jakintsuagoa zarenik. Irmo baina harremanari emana, irekia baina utzia ez.

§ Esaera Zaharrak liburutik 2,1-9.

Seme, nire esanak onartu eta aginduak gogoan badituzu,
 zuhurtziari kasu egin
 eta zentzu onari jaramon egiten badiozu,
 adimenari dei egin eta zentzu onari hots egiten badiozu,
 dirua eta altxorrek bezala bilatzen saiatzen bazara,
 orduan ulertuko duzu zer den Jaunaganako begirunea,
 eta Jainkoa ezagutzera iritsiko zara.
 Jauna baita zuhurtzia ematen duena,
 harengandik datoz ezaguera eta zentzu ona.
 Hark ematen die arrakasta zintzoei
 eta babesa jokabide zuzenekoei;
 zuzenbideari jarraitzen diotenak babesten ditu
 eta berarekin leial direnak zaintzen.
 Orduan ikasiko duzu zuzen, zintzo eta prestu izaten,
 eta ongi jokatzeko.

[Sal 33: *Egunero dut bedeinkatzen Jauna.*]

† Jesu Kristoren Ebanjelioa San Mateoren liburutik 19,27-29.

Aldi hartan Pedrok esan zion Jesusi: «Hara, guk dena utzi dugu zuri jarraitzeko. Zer izango da guretzat?»

Jesusek erantzun: «Benetan diotsuet: Jainkoak mundu hau beregitean, Gizonaren Semea bere aintzazko tronuan eseriko denean, zuek ere, nire jarraitzaileok, hamabi tronutan eseriko zarete, Israelgo hamabi leinuak epaitzeko. Eta nigatik etxeak, senideak, aita, ama, seme-alabak eta lurra uzten dituenak, ehun halako jasoko du eta betiko bizia izango ondare.

Urteko 14. astea.San Benito, *abadea (Europako Zaindaria).*

Jendeak ez du sinesten pertsona bat biziki zoriontsua izan daitekeela diruari eta ondasun materialen jabe izateari uko eginez, berebere familia bat izateari utziz, beste batzuen esku jarritz Jainkoaren erreinuaren alde nola lan egin erabakitzea. Mundu honetan Jesusen auziari erabat sagaratu zaizkion gizon-emakumeek, eskaintza hau egiteko benetako deia jaso badute, esango dizute ezen, berriro jaioko balira, dudarik gabe eskainiko lioketela beren burua Kristori. Ezet esaten badizute, jakizu beraien errua dela, eta ez Jesusena. Ziur esan nahi dizut ezen ehun aldiz gehiago jasotzen dela... hemen berean!

Urteko 15. astea.

San Joan Gualberto, *abadea*.San Hilario, *martiria*.

§ Amos Profetaren liburutik 7,12-15.

Egun haietan Amasiasek, Betelgo apaizak, esan zion Amosi: «Ikusle, zoaz hemendik; ihes egizu Judako lurraldera, jan ezazu han zeure ogia, eta hots egin han profeta-hitza. Baina Betelen ez hots egin gehiago profeta-hitzik; hau erregearen toki santua da-eta, erreinuko jauretzea». Amosek erantzun zion Amasi: «ni ez naiz profeta, ezta profetaren seme ere; artzaina naiz ni, basapiku inaustaria. Artaldeen atzetik nenbilela hartu ninduen Jaunak, eta esan zidan: “Zoaz, eta hots egin iezaiozu profeta-hitza Israel nire herriari”».

[Sal 84: *Jauna, zeure onginahia erakuts iezaguzu, zeure salbamentua emaguzu.*]

§ Paulo apostoluak efesoarrei 1,3-14.

Bedeinkatua izan bedi Jainkoa, Jesu Kristo gure Jaunaren Aita, Espirituaren era guztietako bedeinkapenez, zeruan Kristogan bedeinkatu gaituena. Harengan aukeratu baikintuen, mundua sortu baino lehen, bere aurrean, maitasunez, santu eta errugabe izan gaitzen. Aurrez aukeratu gintuen bere seme-orde izateko, Jesu Kristoren bidez, bere nahiaren onberatasunez; bere Seme maitearengan hain ugari eman digun graziaren aintzak bera gorespenez bete dezan. Seme honengan, bere odolaz dugu erospena, eta bekaturen barkamena; halakoa izan da haren grazia-aberastasuna. Oparo isuri baitigu bere grazia, ezaguera osoz eta jakinduriaz: bere nahiaren misterioa ezagutarazi digu, bere onginahiaz erabakita zeukana, garaia zetorreanean beteko zuena: Zeruko eta lurreko gauza guztiak Kristogan bilduko dituela, berau buru dela.

† Jesu Kristoren Ebanjelioa San Markosen liburutik 6,7-13.

Aldi hartan, Jesus Hamabiei dei egin eta binaka bidaltzen hasi zen, eta espiritu lohien gain ahalmena eman zien.

Urteko 15. astea.San Joan Gualberto, *abadea*.San Hilario, *martiria*.

Biderako ezer ez hartzeko agindu zien, makila bat besterik; ez ogirik, ez bide-zorrorik, ez dirurik gerrikoan; oinetakoak, bai, eramateko; baina ez hartzeko bi soineko. Eta esan zien: «Egon sartuko zareten etxean, leku hartatik atera arte. Eta herriren batean hartzen ez bazaituztete eta entzuten ez badizuete, astindu zeuen oinetakoen hautsak handik alde egitean, haien kontrako testigantzarako. Joan ziren haiek, eta bihotz-berri zitezela hots egiten zioten jendeari; deabru asko uxatzen zuten eta gaixo asko gantzutzen olioiz eta sendatzen.

Binaka bidali ditu Jesusek ikasleak, zeren Erreinua ez baita buruberoen arazoa. Misio-kide doaz apostoluak, hau da, binaka misiora, elkarteko pertsona bezala. Gomendatu die ez dezatela hartu makila bat baizik, ezta hornidurarik edo dirurik sakelan. Oinetakoak bai, baina bigarren tunikarik ez. Arinago ibili ahal izateko! Mugikorrako izateko! Atera daitezela gainean dutenarekin.

Ikasleei gomendatu die Jesusek, ez daitezela baliatu beren zerbitzuaz. Entzuten badiete eta gaixoak sendatzen badizkiete, saritu egin nahi izango dituzte tratu hobea emanez, erregaluak ere emanez. «Ez hartu. Ez zarete ari zeuen probetxurako, baizik premia duenari laguntzeko». Azkenik, azpimarratzen die, errespetatu dezatela jendearen askatasuna. Ezin konbertitu da inor bere gogoaren kontra, arrastaka. Ez dezatela inor zigortu edo mehatxatu, harrerarik egiten ez badiete. Ez direla inoren epaile. «Onartzen ez bazaituzte, jasan porrota eta aski izango duzue handik alde egitea, zeuen asmo onaren arrastoa argi utziz».

Erreinua Jainkoak du eraikitzen. Hark du bihotza mugitzen, eta ez gure predikuak edo etsenplu onak. Jesusen gomendioak betetzen baditugu, haren egintzak berak izango ditugu ondorio: konbertitu, saneatu eta adiskidetu.

Urteko 15. astea.

San Enrique, *enperadorea*.San Silas, *San Pauloren laguna*.

[Irteera 1,8-14.22: *Menpera dezagun Israel, gu baino handiago eta indartsuago egiten ari baita. Sal 123: Gure laguntza, Jaunaren izena.*]

† Jesu Kristoren Ebanjelioa San Mateoren liburutik 10,34–11,1.

Aldi hartan, Jesusek esan zien apostoluei: «Ez uste izan bakea ekartzera etorri naizenik lurrera. Bakea ez, baino ezpata ekartzera etorri naiz: semea aitaren aurka jartzera etorri bainaiz, eta alaba amaren aurka, eta erraina amaginarrebaren aurka; nork bere etxeoak izango ditu etsai. Aita eta ama ni baino maiteago dituenak, ez da niretzat gai; semea edota alaba ni baino maiteago dituenak, ez da niretzat gai, eta bere gurutzea hartu eta nirekin ez datorrena, ez da niretzat gai. Bere bizia beretzat gorde nahi duenak, galdu egingo du, eta bere bizia nigatik galtzen duenak, beretzat gordeko du. Zuek hartuko zaituztenak, ni hartuko nau, eta ni hartuko nauenak, ni bidali nauena hartuko du. Profeta bat, profeta delako, hartuko duenak, profetaren saria izango du, eta zintzo bat, zintzo delako, hartuko duenak, zintzoaren saria izango du. Nire ikasle delako, txiki hauek bati baso bat ur hotz edateko ematen dionak, benetan diotsuet, ez du galduko bere saria». Hamabi ikasleei irakaspenak eman ondoren, joan egin zen Jesus handik, herri haietan irakastera eta hots egitera.

Etxean duzu etsaia. Jauna ez da ari bizikide dituzun familiar-tekoek bakarrik. Norberaren barruan beren bizilekua egina dute joera eta sen gaiztoek ere; ez gara gai izan haiei bidea mozteko bere orduan. Uste baino gehiagotan luzatzen dituzte beren hatzaparrak, batzuetan setazko eskularruren pean. Eta nahi ez genukeen lekura eramán ohi gaituzte, gu engainuaren eta tranparen biktima bihurtuz. Otso amorratuak dira ardi-larrupean. Horregatik, neure barnea sakon berrikusi beharra dut, erro eta zuztar guztiz kaltegarri horiek erauzteko. Jaunak saneatu gaitzala bihotz barnean!

Urteko 15. astea.

San Kamilo Leliskoa, apaiza, fundatzailea
(Kamilotarrak).

[Irteera 2,1-15a: Moises ezarri zion izena, uretik atera baitzuen, eta, gizon egin zelarik, bere senideetara joan zen. Sal 68: Murgilduok, bila ezazue Jainkoa, eta birbiztu bekizue bihotza.]

† Jesu Kristoren Ebanjelioa San Mateoren liburutik **11, 20-24**.

Aldi hartan, Jesus gogor mintzatu zitzairen mirari gehienak egin zitueneko herriei, bihotz-berritu ez zirelako, esanez: «Ai, zu, Korozain! Ai, zu, Betsaida! Zuenean egin diren mirariak Tiron eta Sidonen gertatu balira, aspaldi bihotz-berritu ziratekeen, zakukiz eta hautsez jantzirik. Egiaz diotsuet: auzi-eguna eramangarriago izango da Tiro eta Sidonentzat, zuentzat baino. Eta zuk, Kafarnaum, zeruraino igo behar duzula? Hildakoen lekuraino eroriko zara! Zurean egin diren mirariak Sodomak gertatu balira, gaurdaino iraungo zukeen. Egiaz diotsuet: auzi-eguna eramangarriago izango da Sodomako lurraldearentzat, zuretzat baino».

Jesus atsekabeturik ageri da ebanjelizatu dituenen axolagabeke-riaz, ukoaz ez esateagatik. Beren hitzak bermatzeko berak egindako hainbat seinale eman dizkie, Jaunaren hurbiltasuna adierazten duten seinaleak. Adibidez, gaixo askoren sufrimendua eta ezgaitasuna arindu du, baita sendatu ere erabat; bekatariei barkatu die; halakorik ez zutela ematen zuten pertsoneri duintasuna itzuli die: funtzionario ustel, prostituitu, adulteriogile, eskale, eskolagabe... Halaz guztiz, beragan sinetsi ordez, gehienek beren ohitura zaharrei atxikirik jarraitu dute. Ez zaitezela harritu, beraz, zure egintza onenak ere alde txarretik hartzen badituzte, askotan.

San Buenaventura, *gotzaina eta eliz irakaslea*.
Joan Maiorga, *dohatsua*, eta lagunak, *martiriak*.

[**Irteera 3,1-6.9-12:** *Jaunaren aingerua agertu zitzaion, sasiartetik ateratzen zen sugar batean. Sal 102: Errukior da Jauna eta gupidatsua.*]

† Jesu Kristoren Ebanjelioa San Mateoren liburutik 11,25-27.

Aldi hartan, Jesusek esan zuen: «Bedeinkatua zu, Aita, zerulurren Jauna, gauza hauek jakintsuei eta burutsuei gorde, eta jende xumeari agertu baitzikiozu. Bai, Aita, hala nahi izan duzu. Nire Aitak dena eman dit; inork ez du ezagutzen Semea, Aitak baizik, ezta Aita ere, Semeak baizik, eta Semeak agertu nahi izan dionak baizik».

San Paulok dio, fededunok «Jesus gurutziltzatua» predikatzen dugula, «juduentzat eskandalagarri, paganoentzat zorakeria» dena. Eta «Jainkoak munduko jende ahula, jende bilaua eta mespretxatua, ezdeus dena hautatu duela jende sendoa umiliarazteko».

Jesusek esan duena bera da Paulorena; izan ere, bihotza esker onez gainezka duela agertu du Jesusek: bera onartu, munduak mespretxatzen duen jendeak onartu duelako, ezer ez duen jendeak alegia, Aitaren eraginez. Ostera, boteretsuak, harroputzak eta jakin uste-koak, unibertsoaren sekretuen berri dutela uste dutenak, alde batera utzi ditu Aitak, beren hantusteagatik. Zein taldetako sentitzen naiz?

Urteko 15. astea.

Karmelo Mendiko Andre Maria (Karmengo Ama)

[Karmengo Amarena. Zacarias 2,10-13: *Poztu zaitez, Siongo alaba, banatorkizu-eta!* Salmoa: Lukas 1: *Zorionekoa zu, Maria Birjina, betiko Aitaren Semea ekarri zenuena.* Mateo 12,46-50: *Eskua bere ikasleetara luzatuz, Jesusek esan zuen: «Horra nire ama eta nire senideak».*]

[Urtekoa. Irteera 3,13-20: *Naizena naiz ni. «Ni-naizenak» bidali nau zuengana.* Sal 204: *Gogoan du Jaunak betiko egin zuen ituna.*]

† Jesu Kristoren Ebanjelioa San Mateoren liburutik 11,28-30.

Aldi hartan, Jesusek esan zuen: «Zatozte nigana nekatuok, lanpetuok, eta nik arinduko zaituztet. Hartzazue nire uztarria eta ikas nigandik: bihozbera naiz eta apala, eta aurkituko duzue zeuen arimarentzat atsedean. Nire uztarria leuna baita, eta nire zama, arina».

Gaur, Karmengo Andre Mariaren eguna da, itsasoko jendearen eta hondoratutako jende-mota guztien zaindariaren eguna. Azter dezagun zein iturburu eskaintzen digun Amak gure egarria asetzeko. Haren Semeak berak, bake eta atsedean bila, Mariaren bihotzera jotzea gomendatu digu. Jesusek beregana dei egiten die sufritzen ari diren guztiei, zerbait falta duten eta atsekabeturik bizi diren guztiei, estu eta larri bizi diren guztiei. Gauza bera dagi Amak. Portu segurua da guretzat, aingura sendoa dugu itsaso haserrean, oihalak zabaltzen dituen haizea eta esku salbatzailea dugu Maria uhinek irentsi nahi gaituztenean. Birjina marinela, hainbat itsas ekaitzi aurre egin diezuna, zaindu nazazu, lehorrean marinel baina hondoratzeko arrisku handian bizi naizen hau.

Urteko 15. astea.

Santa Segunda, *martiria*.San Leon IV.a, *103. aita santua*.

[Irteera 11,10–12,14: *Arratsaldean bildots bat hilko duzue; odola ikustean, aurrera joango naiz. Sal 115: Salbamen-edontzia dut hartuko, eta Jaunaren izena deituko.*]

† Jesu Kristoren Ebanjelioa San Mateoren liburutik 12,1-8.

Aldi hartan, bazihoan Jesus larunbatez gari-soroetan barna, eta ikasleak, gose baitziren, galburuak mozten eta jaten hasi ziren. Hori ikusirik, fariseuek esan zioten: «Hara, zure ikasleak larunbatez zilegi ez dena egiten ari dira». Jesusek erantzun zien: «Ez al duzue irakurri, Davidek egin zuena, bera eta bere gizonak gosetu ziren batean? Jainkoaren etxean sartu baitzen, eta eskainiriko ogiak jan zituen, haietatik jatea zilegi ez izan arren, ez berari, ez beraren gizona, apai-zei bakarrik baizik. Edota ez al duzue irakurri Legean, apaizek larunbatez jauretxean larunbata hausten dutela bekatu egin gabe? Nik, ordea, hau diotsuet: hemen dagoen hau jauretxea baino handiagoa dela. Bazenekite zer esan nahi duen esaera hark: “Opariak ez, baino errukia nahi dut nik”, ez zenituzkete gaitzetsiko errugabeak. Izan ere, Gizonaren Semea larunbataren nagusi da».

Bada besteen akatsak harrotzeari emanik bizi nahi izaten duen jenderik. Ematen du, ez dutela besteen erroreak edo erruak salatu beste egitekorik. Gainerakoan aurkako kritika honetan ez dute agertzen autokritika-izpirik. Bestea gaitzetsi dezakete, santuenaren edo pertsonarik hobenaren aurka berenak eta bost bota ditzakete, baina arazoa seriozki aztertu gabe inoiz ere, besteen iritzirik onartu gabe. Errukia falta zaie, Jesusek dioskun bezala, baina batez ere gupida. Fariseu hauei ez zaie bururatu jaten ematea; nahiago dute ikasleak bekataritzat eman.

Ez ote naiz ni, noiz edo noiz, horietako bat? Lasto-izpi bat inoren begian ikusi eta neuk habea irentsi?

Urteko 15. astea.

San Federico, *gotzaina*.

[Irteera 12,37-42: *Jaunak israeldarrak Egiptotik atera zitueneko gaua. Sal 135: Eskerrak Jaunari, ona baita.*]

† Jesu Kristoren Ebanjelioa San Mateoren liburutik 12,14-21.

Aldi hartan, fariseuak sinagogatik atera eta batzarrean bildu ziren Jesusen kontra, hura nola galdu erabakitzeko. Jakin zuen hori Jesusek eta alde egin zuen handik. Askok jarraitu zioten, eta Jesusek sendatu zituen, eta zorrotz agindu zien ez agertzeko bera nor zen. Horrela bete zen Isaias profetak esandako hau: «Hona nire zerbitzaria, nire aukeratua, / nire maitea, nire bihotzari atsegin zaiona. / Honengan ipiniko dut neure espiritua, / irakats diezaien herriei zuzenbidea. / Ez da deiadarka ariko, ez oihuka mintzatuko, / ez du kaleetan ahotsa jasoko. / Kanabera pitzatua ez du hautsiko, / itzaltzear dagoen metxa ez du itzaliko / zuzenbidea nagusiarazi arte. / Bera izango da atzerrien itxaropen».

Fariseuen gorrotoa eragozpen da hazteko. Beren kontraesan moralak eta erlijiosoak agerian jartzen dituen hura nola garbituko dabilta. Eta Jesusek «klandestinitatera jo du». Berri Ona hots egi-ten jarraitzen du eta sendatzen, baina entzuleei eta sendatu ditueni esaten die, ez berriemateko bera non dabilen. Kontua ez da kalean eta plazan gauzak aldarrikatzen ibiltzea. Ezta koloka daudenen kontra jotzea ere, ezta bizitzaren zamaz jadanik makurturik dabiltzaneren kontra ere. Esperantza ekartzera etorri da Jesus, etorkizuna, ilusioa, egitasmoa, erreinua adieraztera; hain juxtu, denentzat lekua duen Jainkoaren erreinua, baita bide-ertzean marjinetatik diren horientzat ere.

§ Jeremias Profetaren liburutik 23,1-6.

«Zoritzarrekoak, nire larreko ardiak galtzen eta sakabanatzen dituzten artzainak» –dio Jaunak–. Horregatik, honela mintzo zaie Jauna, Israelgo Jaungoikoa: «nire herria zaintzen duzuen artzainok, zuek sakabanatu eta galdu dituzue nire ardiak, eta ez duzue haien ardurarik izan. Kontu eskatuko dizuet, zeuen gaiztakeriagatik» –dio Jaunak–. «Neuk bilduko ditut neure artaldearen hondarrak, neuk sakabanatu nituen lurralde guztietatik; beren larreetara ekarriko ditut berriro, eta hazi eta ugarituko dira. Zainduko dituzten artzainak sortuko dizkiet; ez dira inoiz beldurtuko, ez izutuko; bat ere ez da galduko» –dio Jaunak–. «Begira, badatoz egunak –dio Jaunak–, eta Davidi legezko muskil bat sortuko diot. Errege zentzuduna izango da; eskubidea eta zuzentasuna ezarriko ditu lurrean. Haren egunetan Juda salbatuko da eta Israel kezkarik gabe biziko. Eta hau izango du izena: “Jauna gure zuzentasuna”».

[Sal 22: *Jauna dut artzain, ez naiz ezeren beharrean.*]

§ Paulo apostoluak efesoarrei 2,13-18.

Senideok: Orain Jesu Kristogan zaudete. Lehen urruti zeundetenok, orain hurbil aurkitzen zarete Kristoren odolari esker. Kristo da gure bakea; bat egin ditu berak bi herriak, haiek bereizten zituen hesia –gorrotoa– bere haragiaz urraturik; berezko indarra kendu die Legeari eta aginduei, bakeak eginez, bi ziren haietatik gizon berri bakarra sortzeko. Bi herri haiek Jainkoarekin baketu zituen gurutzearen bidez, gorputz batean bilduz, gorroari beragan heriotza ematen ziolarik. Etorri zen eta bakearen berri ekarri zuen: bakea zuei urrutikoei eta bakea hurbilekoei; horrela, beraren bidez dugu batzuk eta besteok sarrera Aitarengana Espiritu bat-beragan.

Urteko 16. astea.

Kordobako Santa Aurea, *martiria*.

† Jesu Kristoren Ebanjelioa San Markosen liburutik 6,30-34.

Aldi hartan, apostoluak Jesusengana bildu, eta egin eta irakatsi zuten guztiaren berri eman zioten. Jesusek esan zien: «Zatozte zuek bakarrik, leku baztertu batera, atsedean pixka bat hartzera». Asko baitziren zetozenak eta zihoazenak, eta jateko ere ez zieten astirik uzten. Eta itsasontzi batean leku baztertu eta baketsu batera joan ziren. Askok ikusi zituen joaten, eta ezagutu ere bai, eta oinez, lasterka, han bildu ziren hiri guztietatik, eta aurea hartu zieten. Ontzitik ateratzean, Jesusek jendetza handia ikusi zuen; erruki izan zituen, artzainik gabeko ardiak bezala baitzeuden, eta luze irakasten hasi zitzaien.

Jesusek eta ikasleek berek ere opor-egun batzuen beharra sentitu dute. Apostoluak iritsi berriak dira binaka egin duten prediku ibiltari baten esperientziatik. Orain giza arrantzale bihurtuak diren horien esku utzi du Jesusek aintziraren ertzeko leku bakarti eta lasai batera eraman dezaten. Baina kale egin die asmoak. Inguruko jendeak ezagunak zituen, nonbait, Pedroren edo Zebedeotarren gustuak, zeren, lur hartu dutenean, zain-zain duten jendetza handi batekin egin baitute topo. Eta «Jesusi pena eman zion eta irakasten hasi zitzaien presarik gabe». Beste behin gehiago, Jesusen bihotza hunkiturik gelditu da bere entzuleen ezjakintasun erlijiosoak ikustean eta, aldi berean, Jainkoaz, bere Aitaz, hitz egiteko duten premia nabaritzean. Beraz, atsedenez ahazturik, irakasten hasi zaie, presarik gabe. Agur oporrak! Baina bai zorte ona jende harena!

Datorrena datorrela, beren planak sekula aldatzen ez dituztenetakoa ote naiz? Ustekabean sortutako edozein eginbehar gorabehera, beren atsedinari edo egun libreari lehentasuna ematen diotenetakoa? Arrazoi zuzenenez izanik ere, beren asmoak bazter uztera behartu dituztenei bizitza mingosten dietenetakoa? Hitz batean esateko, neure ongizateari ematen al diot lehentasuna besteen premiak gorabehera?

Urteko 16. astea.

San Apolinar, *gotzaina eta martiria*.San Elias, *profeta*.

[Irteera 14,5-18: *Ikusiko dute, ni naizela Jauna, aintzaz beteko naizenean, Faraoiaren aurrean. Salmoa: Irteera 15,1.2.3-4.5-6: Kanta degiogun Jaunari, garai-garai delako.*]

† Jesu Kristoren Ebanjelioa San Mateoren liburutik 12,38-42.

Aldi hartan, lege-maisu eta fariseu batzuek esan zioten Jesusi: «Irakasle, ezaugarri bat egiten ikusi nahi zaitugu». Hark erantzun zien: «Gizaldi gaizto eta sasi-jainkozale honek ezaugarri bat eskatzen du! Baina ezaugarririk ez zaio emango, Jonas profetarena besterik. Jonas itsas mamuaren sabelean hiru egun eta hiru gau egon zen bezala, hala egongo da Gizonaren Semea lurraren bihotzean. Auzi-egunean ninibetarrak gizaldi honen aurka jaikiko dira, eta gaitzetsiko dute; haiek Jonasen hitzaldiagatik bihotz berri bairitu baitziren; hona hemen, berriz, Jonas baino handiagoa dena. Auzi-egunean hegoaldeko erregina gizaldi honen aurka jaikiko da, eta gaitzetsiko du; lurraren azken mugetatik etorri baitzen Salomonen jakinduria entzutera; hona hemen, berriz, Salomon baino handiagoa dena».

Jesus aztertzeraz datoz. Haren epaile bihurtu dira. Eta proba bat eskatzen diote, profeta bezala bermatuko lukeen mirari bat. Jesusek, halako mirariak jendea harriarazteko egingo balitu bezala. Ez du eman sekula bere burua harrigarritzko egintza baten egiletzat; Jesusen iritziz, dagokionaren fedea edo Jainkoaren onberatasuna da miraria gauzatzen duena. Tentaziotzat hartu izan ditu beti boterea agertzeko modu guztiak. Jesusen mirariek ez dute frogatzen haren jainkotasuna; soilik, sufritzen ari direnekiko haren hurbiltasuna eta gupida adierazten dute, nahigabetzen gaituen oinazea arindu nahia.

Urteko 16. astea.

San Lorentzo Brindiskoa, *apaiza eta eliz irakaslea.*

[Irteera 14,21—15,1a: *Israeldarrak itsasoan barna sartu ziren, oinak busti gabe. Salmoa: Irteera 15,8-9.10.12.17: Kanta degiogun Jaunari, garai-garai delako.]*

† Jesu Kristoren Ebanjelioa San Mateoren liburutik 12,46-50.

Aldi hartan, Jesus jende-taldeari hizketan ari zitzaioela, haren ama eta senideak azaldu ziren kanpoan, harekin hitz egin nahiz. Eta batek esan zion Jesusi: «Hor dituzu zeure ama eta senideak, zurekin hitz egin nahiz». Hark, berriz, erantzun zion: «Nor da nire ama eta nor dira nire senideak?» Eta, eskua bere ikasleetara luzatuz, esan zuen: «Horra nire ama eta nire senideak. Izan ere, zeruan dagoen nire Aitaren nahia egiten duena, hura da nire anaia, eta arreba, eta ama».

Andre Mariarentzat ez zen batere erraza izan Jesusen ama izatea. Ez zuen eredurik imitatzeko, semea guztiz berezia baitzuen. Ikasi beharra izan zuen guztia, batzuetan atsekabe handia jasanez; adibidez Jesus hiru egunez galdu zitzaienean.

Kasu hartan, Jesusek ulertarazi zion bere familia handitu egingo zela, ezin kontatu ahal izateraino; «adoptatu» egin beharko zituela, ez apostoluak eta Jesusen beste ikasleak bakarrik, baita beste segitzaileen multzoa ere, Jesus Jainkotzat eta Jauntzat hartuko zuten guztiak. Eskerrik asko, Ama, ni neu ere zeure seme edo alabatzat hartu nauzulako.

[Kantarik Ederrena 3,1-4a: *Aurkitu nuen nire bihotzak maite duena. Sal 62: Zure egarriz daukak gogoa, Jauna, ene Jainkoa.*]

† Jesu Kristoren Ebanjelioa San Joanen liburutik 20,1.11-18.

Asteko lehen egunean Magdalako Maria hilobira joan zen goizean goiz, artean ilun zegoela, eta harria hilobitik kendua ikusi zuen. Maria hilobi ondoan gelditu zen, kanpoan negarrez. Halako batean, oraindik ere negarrez, hilobirantz makurtu zen, eta bi aingeru ikusi zituen zuriz jantziak, Jesusen gorpua egon zen tokian eserita, bata burualdean eta bestea oinetan. Aingeruek esan zioten: «Emakume, zergatik ari zara negarrez?» Hark erantzun zien: «Nire Jauna eraman dute, eta ez dakit non ipini duten». Berehala, atzera begiratu eta Jesus ikusi zuen zutik, baina ez zen konturatu Jesus zela. Jesusek esan zion: «Emakume, zergatik ari zara negarrez? Noren bila zabilta?» Hark, baratzezaina zelakoan, esan zion: «Jauna, zuk eraman baldin baduzu, esadazu non ipini duzun, eta neuk jasoko dut. Jesusek esan zion: «Maria!» Honek, hurbilduz, esan zion hebreeraz: «Rabbuni! (hau da, Maisu)». Jesusek esan zion: «Utz nazazu, oraindik ez bainaiz igo Aitarengana. Ea, zoaz nire senideengana eta esaiezu neure eta zuen Aitarengana noala, neure eta zuen Jainkoarengana». Magdalako Mariak joan eta ikasleei berri hau eman zien: «Jauna ikusi dut». Eta hark esana kontatu zien.

Mendetan arnastu izan da Elizan konfiantza-falta bat, are errezelo bat, emakumeen inguruan. Beraz, arrazoi handia dute kexatzeko, hartu izan duten eta hartzten segitzen duten tratu diskriminatzaileaz. Jarrera hau ez dator bat Jesusek izan zuenarekin; argiro egin batzuen hark bere garaiko emakumeak baztertzen zituzten gizarte-arauen aurka. Adibide garbia da Maria Magdalenaren kasua. Gaur, Magdalako apostoluaren jai honetan, irakurtzen dugun pasarteak gonbita eskaintzen digu aparteko gai honen inguruan patxadan eta gozatuz kontenplatzera.

Santa Brigida Suediakoa, *erlijiosa, fundatzailea (Salbatzaile Santu-santuaren Ordena) (Europako Zaindaria)*. Zakarias Fernandez, *dohatsua*. Joan Pedro Bengoa eta Nizeforo Jesusena eta Mariarena, *dohatsuak*.

[Galaziarrei 2,19-20: *Bizi naiz; ez ni, ordea; Kristo bizi da nigan.*
Sal 33: *Txasta ezazue eta ikus zein samur de Jauna.*]

† Jesu Kristoren ebanjelioa San Joanen liburutik 15,1-8.

Aldi hartan esan zien Jesusek ikasleei: «Neu naiz egiazko mahatsondoa, eta nire Aita da nekalaria. Fruiturik ematen ez duen aihena ebaki egiten du Aitak, eta fruitua ematen duena garbitu eta kimatu, fruitu gehiago eman dezan. Zuek garbi zaudete dagoeneko, adierazi dizuedan mezuaren bidez. Zaudete niri itsatsiak, ni zuei bezala. Aihenak, mahatsondoari itsatsia ez badago, fruiturik eman ezin duen bezala, ezta zuek ere, niri itsatsiak ez bazaudete.

Ni naiz mahatsondoa eta zuek aihenak. Norbait niri itsatsia badago, ni berari bezala, horrek fruitu asko emango du; ni gabe ezin baituzue ezer egin. Niri itsatsirik ez dagoena kanpora botatzen dute, ebaki eta ihartzen den aihena bezalaxe; gero, bildu, sura bota eta erre egiten dute.

Niri itsatsirik bazaudete eta nire irakatsiek zuengan tinko irauten badute, eskatu nahi duzuen eta izango duzue.

Honetan azaltzen da nire Aitaren aintza: zuek, nire ikasle izanik, fruitu asko ematean.

Santa Brigida, Sienako Katalinarekin eta Gurutzeko Teresa Benediktarekin (Edith Stein) batean, Europaren zaindaria-kide da, Joan Paulo II.ak 1999an hala erabakirik. Balio eta adore handiko emakume suediar hau XIV. mendean bizi izan zen. Hiru urteko zela ezkontzera behartu zuten. Zortzi seme-alaba izan zituzten, senarrarekin erromes joan zen Compostelara; baita Lurralde Santuetara, jada alargun zela. Ordena erlijioso bat fundatu zuen, eta suharki hartu zuen parte orduan bizilekua Avignon-en zuen aita santua Erromara itzul zedin. Oso gaztetandik izan zituen ikuskariak eta geraldaldi mistikoak; alabaina, zentzu on eta jakinduria nabarmenak agertu zituen beti, jendea adiskidetzeko ahalmen handiarekin batean. Eska diezaigun Jaunari, Brigida tarteko dela, Europa batu eta adiskidetu bat.

Urteko 16. astea.

Santa Kristina, *martiria*.San Arnulfo, *martiria*.

[Irteera 20,1-17: *Legea Moisesen bidez eman zen. Sal 18: Zuk dauzkazu, Jauna, betiko biziaren hitzak.*]

† Jesu Kristoren Ebanjelioa San Mateoren liburutik 13,18-23.

Aldi hartan Jesusek esan zien ikasleei: «Entzun zuek ereilearen parabola: Erreinuko hitza entzun bai, baina ulertzen ez duenari, Gaiztoak etorri eta kendu egiten dio bihotzean ereindakoa; hori da bide-bazterrean ereindakoa.

Lur harritsuan ereindakoa, hitza entzuten duena da eta, berehala, pozik hartzen duena; baina zainik ez du, ezta iraupenik ere, eta hitz hori dela eta, eraso eta nekea sortu orduko, berehala huts egiten du.

Arantza artean ereindakoa, hitza entzuten duena da; baina munduko grinek eta aberastasunen lilurek hitza ito egiten dute, eta uzta eman gabe gelditzen da.

Lur onean ereindakoa, berriz, hitza entzun eta ulertzen duena da. Hark, bai, ematen du alea: honek bateko ehun, hark hirurogei, besteak hogeita hamar».

Ez da aski homiliak, mintzaldiak, hitzaldiak, erretiroak... entzutea. Ezta teologi edo espiritualitate-liburuak irakurtzea ere. Entzuten edo irakurtzen duenak bihotza zabalik ez badu, Ebanjelioa ez da erneko haren barruan. San Ignaziok dio bere Gogo Jardunen hasieran: «ez du asko jakiteak asetzen edo atsegintzen arima, baizik gauzak barnean sentitzeak eta gozatzeak». Oso ona da formazio erlijioso on eta eguneratu bat ukaitea, baina ezagutza hori ez da ezertako on, baldin eta bihotz-hondoan sartzen ez bada eta, otoi-tza eta kontenplazioa direla medio, gure izate guztia hartzen duen sua pizten ez badu.

Urteko 16. astea.

SANTIAGO, APOSTOLUA

San Kristobal, *martiria*.

§ Apostoluen Eginak liburutik 4,33; 5, 12.27-33; 12,2.

Egun haietan, apostoluek kementsu ematen zuten Jesus Jaunaren piztueraren aitormena, eta haien eskuz herrian mirari eta harrigarri asko egiten ziren. Batzar Nagusiaren aurrera ekarri zituzten apostoluak, eta apaiz nagusiak galdetu zien: «Ez al genizuen zorrotz agindu, horren izenean ez irakasteko? Zuek, berriz, Jerusalem osoa bete duzue zeuen irakaspenez, eta gizon horren odolaren erantzukizuna guri ezarri nahi diguzue». Pedrok eta apostoluek erantzun zuten: «Jaungoikoaren esana egin behar da aurrena, ez gizakiena. Gure arbasoen Jaungoikoak piztu egin zuen, zuek habetik zintzilik hil zenuten Jesus. Jaungoikoak goratu egin du bere eskuinaz, eta Buruzagi eta Salbatzaile egin, Israeli bihotz-berritzea eta bekatuen barkamena emateko. Gu gara gauza hauen testigu, baita Jaungoikoak bere esana egiten dutenei ematen dien Espiritu Santua ere». Erantzun honek haserretu zituen bizi-rok batzarrekoak, eta hiltzea erabaki zuten. Eta Herodes erregeak Joanen anaia Santiagori ezpataz lepoa moztu zion.

[Sal 125: *Malkoz erein bazuten, pozez bilduko dute.*]

§ Pablo apostoluak 2. korintoarrei 4,7-15.

Senideok: Ondasun hau buztinezko ontzitan darabilkigu, honenbesteko indarra Jaungoikoagandik dela ager dadin eta ez gugandik. Alde guztietatik estutzen gaituzte, baina ez itotzen; larri gaude, baina ez etsita; erasopean bai, baina ez eskutik utzita; lurrera botatzen gaituzte, baina ez hiltzen. Nonahi eta beti Jesusen heriotza daramagu gorputzean, Jesusen bizia ere gure gorputzean ager dadin. Bizi garen bitartean, beti heriotzara eramaten gaituzte Jesusengatik, Jesusen bizia ere ager dadin gure izate hilkor honetan. Horrela, guban heriotza ari da; zuengan, berriz, bizia. Liburu Santuak dio: «Sinetsi dut, eta horregatik hitz egin dut». Eta guk ere sinesmen-espiritu bera dugularik, sinesten

dugu, eta horregatik hitz egiten dugu; jakinik, Jesus Jauna piztu duenak berak piztuko gaituela gu ere Jesusekin, eta bere ondoan ipiniko zuekin batera. Hau guztia zuen onerako da; graziadunak ugaritzen direlarik, haien esker ona ere ugariagoa izan dadin Jaungoikoaren aintzarako.

† Jesu Kristoren Ebanjelioa San Mateoren liburutik 20,20-28.

Aldi hartan, zebedeotarren ama hurbildu zitzaion Jesusi bere semeekin, eta aurrean ahuspeztu, eskabide bat egiteko.

Jesusek galdetu zion: «Zer nahi duzu?» Eta hark: «Eseraraz ditzazula nire bi seme hauek, bata zeure eskuinean eta bestea zeure ezkerrean, zeure erreinuan». Eta Jesusek: «Ez dakizue zer eskatzen duzuen. Gauza al zarete zuek, nik edango dudan kaliza edateko?» Haiiek: «Bai, gauza gara?» Jesusek orduan: «Nire kaliza edan, bai, edango duzue; baina nire ezker-eskuin esertze hori ez dago nire esku inori ematea; hori nire Aitak erabakitzen duen haientzat da». Beste hamarrak, hori entzutean, biziro haserre jarri ziren bi anaiekin. Jesusek, berriz, beregana bildu eta esan zien: «Badakizue, herrietako agintariiek gogor hartzen dutela menpean herria, eta handikiek azpian hartzen dutela. Ez bedi izan horrela zuen artean, baizik eta zuen artean handi izan nahi duena, bego zuen zerbitzari, eta zuen artean lehenengo izan nahi duena, bego zuen menpeko. Gizonaren Semea ere ez baita etorri besteen zerbitzuak hartzera, besteak zerbitzatzera baizik, eta bere bizia askoren erospen-sari ematera».

Santiago eta Joan «trumoi-kumetzat» aurkezten dituzte ebanjelioek, hau da, izaera adoretzuketzat, agian haserreketzat. Amagandik heredatu zuten, nonbait, izaera hori; nahikunde ausartaz agertu baitzen behin ama hori Jesusen aurrean. Eskatu zion Jesusei, izan zitzatela bi semeek posturik garrantzizkoenak erreinuan, Jesusen se-

Urteko 16. astea.

SANTIAGO, APOSTOLUASan Kristobal, *martiria*.

gidan. Eskatzen hasirik ere, zer gutxiago? Gauza jakina da, gauzarik hobena nahi izaten duela ama batek seme-alabentzat, baina ama honena ez ote handi samarra!

Nolanahi ere, bi semeek adoretzu eta bulartsu erantzun zieten Jesusen galderei, beste behin ere beren ezizena baietsiz. Alabaina, egiazko orduan, Pedro bezain koldar agertu zen Santiago. Artean mutikoa zelarik, Joaneke bakarrik atera zuen aurpegia eta izan zen emakumeen lagun gurutzearen oinean. Han ikusi zuen zein jarri ziren gurutzean Jesusen ezker-eskuin: bi hiltzaile. A zer tronua eta zer erreinua: urkamendi bat hiritik kanpo. Jesusekin, alferrik zabilta, ezin duzu aurrera egin... Ohore eta ondasun bila bazabilta, ez joan haren ondoren. Santiagok ondo asko ikasi zuen lezioa, eta bizia eman zuen Jesusengatik. Haren aintza eta oroitzapena bizirik dira gure artean. Sari ona izan zuen, amak eskatua ez bazen ere.

* * *

IZAN ATSEDENA BAKEAN

Jaunak eman diezagula gau lasai bat
eta heriotza santua.

Jesus, Jose eta Maria,
ene bihotza demaizuet eta ene arima.

Jesus, Jose eta Maria,
izan nire lagun nire hilzorian.

Jesus, Jose eta Maria,
izan beza atsedeen nire arimak.

Salba gaitzazu, Jauna, esna garenean,
zaindu lo garenean,

Kristoren zain egon gaitezen
eta bakean atsedeen izan dezagun.

§ 2. Erregeak liburutik 4 42-44.

Egun haietan, gizon bat etorri zen Baal-Salisatik; lehen-fruituekin hogeitaz garagar-opil ekarri zizkion Jaungoikoaren gizonari, eta gari berria. Eliseok esan zion: «Eman jendeari, jan dezaten». Baina morroiak erantzun: «Zer da hau, ordea, ehun gizonentzat». Baina Eliseok berriro: «Eman jendeari, jan dezaten; Jaunak baitio: “Jango dute eta hondarrak geldituko dira oraindik”». Eman zien eta jan zuten, eta hondarrak gelditu ziren, Jaunak esan bezala.

[Sal 144: *Zabaltzen duzu zeure esku hori, Jauna, eta asea ematen diguzu.*]

§ Paulo apostoluak efesoarrei 4,1-6.

Senideok: nik, Jaunagatik bahitua nagoen honek, eskatzen dizuet, zabilatzatela egin zaizuen deiari dagokionez. Izan beti apal, maitagarri, bihotz handiko; eraman elkar maitekiro; saia zaitezte Espirituaren batasunari eusten, bakearen lokarritz. Bat bakarra da gorputza, bat bakarra Espiritua; bat bakarra den bezala zuek izan duzuen deiaren itxaropena ere. Bat bakarra Jauna, bat sinesmena, bat bataioa, bat bakarra Jaungoikoa, guztion Aita, gauza guztien gaineratik dagoena, guztien barruan eta guztiengan.

† Jesu Kristoren Ebanjelioa San Joanen liburutik 6,1-15.

Aldi hartan, Galilea edo Tiberiadeseko itsasoaz beste aldera joan zen Jesus. Jendetza handia zuen ondotik; ikusten baitzuten nolako mirariak egiten zituen gaixoetan. Jesus, orduan, mendira igo zen, eta han zegoen eserita ikasleekin. Handik laster zen Pazkoa, juduen jaia. Jesusek, orduan, begiak jaso eta ondoren zetorkion hainbesteko jendetza ikusirik, esan zion Feliperi: «Nondik erosiko dugu, horiek guztiak jateko adina ogi?» (Zirikatzearren ari zen, bai baitzekien zer

Urteko 17. astea.

San Joakin eta Santa Ana, Andre Mariaren gurasoak.

egin). Felipek erantzun zion: «Berrehun denarioren ogia ez litzateke izango nahikoa, bakoitzak apur bat izan dezan». Ikasleetako bat, Andres, Simon Pedroren anaia, mintzatu zen orduan: «Bada hemen bost garagar-opil eta bi arrain dituen mutiko bat, baina zer da hori horrenbeste jenderentzat?» Jesusek orduan: «Esaiozue jendeari eser dabila lurrean». Belar ederra zen leku hartan. Eseri ziren: gizonezkoak bakarrik bosten bat mila ziren.

Ogien eta arrainen ugaltzea, milaka laguni doan emandako janaria, jendetzaren erantzuna Jesus errege egin nahirik eta Jesusen uko biribila koroatze horri: komentario asko eta sakonak egiteko aukera eskaintzen digute horiek guztiak Eukaristiaz, partekatzen dena ugaltzen duen solidaritateaz, karitatea politikarako erabili nahi izateaz, baita Jesusek botere politikoaz agertu duen alergiaz ere. Baina ia anekdota hutsa den xehetasun bati erreparatu nahi diot gaur.

Ez du umore-faltarik Feliperi, apostolu beldurti eta, are, xalo hari, Jesusek egin dion galderak. Txantxetan ari zaio, noski, Jesus (testuak dio: «zirikatzeko esan zion»). Adarra jotzen ari zaio ezinezko gauza bati erantzutera behartuz. Izan ere, Jesusek bazuen umore-senik eta, Itun Berria haren algara bakar batez eta irribarre batez ere, mintzo ez bada ere, seguru naiz behin baino gehiagotan jarri zituela ikasleak eta entzuleak barrez, izkirimiriak kontatuz eta txantxak eginez. Adibidez, hurrei barre eginez eta eginaraziz irudikatzen dut nik Jesus. Gauza bera ikasleekin, Mariarekin eta Joserekin ere, eta haurtzaroko adiskideekin jostatuz.

Imajina ezazu Jesus barrez ari zaizula eta egiozu barre zeuk ere.

Urteko 17. astea.

San Galaktario, *gotzaina eta martiria*
(*Baionako elizbarrutian*).

[Irteera 32,15-24.30-34: *Bekatu handia egin du herri honek: urrezko jainkoa egin du beretzat. Sal 105: Eskerrak Jaunari, ona baita.*]

† Jesu Kristoren Ebanjelioa San Mateoren liburutik 13,31-35.

Aldi hartan, Jesusek parabola hau esan zion jendeari: «Zeruetako erreinua, gizon batek bere soroan ereiten duen mostaza haziaren antzekoa da. Hazi guztietan txikiena da, baina hazten denean, beste barazki guztiak baino landare handiagoa gertatzen da, eta zuhaitz egiten; etortzen dira txoriak, eta haren adarretan egiten dute habia». Beste parabola bat esan zien: «Zeruetako erreinua orantzaren antzekoa da; emakume batek hartu, eta hiru lakari irinetan sartzen du, eta orantzak ore guztia harrotzen du». Hauek guztiak parabolatan esaten zizkion jendeari, eta parabolarik gabe ez zien hitz egiten, profetak esana bete zedin: «Parabolatan zabalduko dut neure ahoa, eta lurra lur denetik ezkutuan daudenak agertuko ditut».

Mila eratan diosku Jesusek, itxuraz txiki denak mundu osoa eralda dezakeela, haziak edo legamiak bezala jokatzuz. Itun Zaharrean eta Berrian garbi ageri da ezen Jainkoak txikiak aukeratzen dituela handiak nahastarazteko, ahulak indartsuak azpiratzeko, behartsuak aberatsak beren onetik aterarazteko. Jainkoaren Erreinua hazarazteko orduan ere hura bera da estrategia. Ezdeusa esanahitsu bihurtzen da, irrazionala arrazoiz betetzen, hutsa gainezka jartzen. Misterio bat da, baina hala da gertatzen. Pixka batek ore guztia harrotzen du.

Julian Plazaola, Lazaro Mujika, Braulio Maria Corres, *dohatsuak*, eta lagunak, *erlijiosoak eta martiriak*. Pedro Poveda, *fundatzailea (Teresatar Institutzioa) eta martiria*.

[Irteera 33,7-11; 34,5b-9.28: *Jaunak bekoz beko hitz egiten zuen Moisesekin. Sal 102: Errukior da Jauna eta gupidatsua.*]

† Jesu Kristoren Ebanjelioa San Mateoren liburutik 13,36-43.

Aldi hartan, Jesus jendetza agurtu eta etxeratu egin zen. Hurbildu zitzaizkion, orduan, ikasleak eta eskatu zioten: «Argi iezaguzu soroko olo gaiztoaren parabola».

Jesusek esan zien: «Hazi ona ereiten duena Gizonaren Semea da; soroa, mundua; hazi ona Jainkoaren erreinuko seme-alabak dira; olo gaiztoa, berriz, gaiztoarenak; olo gaiztoa ereiten duen etsaia deabrua da; uzta, munduaren azkena; eta uzta-biltzaileak, aingeruak. Olo gaiztoa bildu eta suan erretzen den bezala, hala gertatuko da munduaren azkenean ere: Gizonaren Semeak bere aingeruak bidaliko ditu, eta haren erreinutik bereiziko dituzte gaizkileak eta besterentzat gaizpide gertatzen direnak, eta su-labera botako. Negarra eta hortz-karraska izango da han. Orduan, zintzoek eguzkiak bezala distira egingo dute beren Aitaren erreinuan. Ulertzeko gauza denak uler beza!

Bere fruituetatik ezagutuko dituzue. Erabakiak presaka ez hartzeko eskatzen digu soro-jabeak, urduritasunari galga ezartzeko, denborak heltzen dituela intxaurrak... Batzuetan txarra eta probetxu gutxikoa ematen duenak, azkenean besterik izaten da. Eta alderantziz. Ez dezagun amore eman alde aurretik.

Ez fidatu itxuraz. Bizi azti, baina itxaron fruituak, ondorioak, emaitzak etorri zain. Erreinuari buruzko lanak etengabeko ebaluazioa eskatzen digu, ez norberari bakarrik, baita elkarteari ere. Horregatik, ezinbestekoa da bereizketa jarraikia, egiten dugun eta bizi dugun guztiaz, behin ere alde batera utzi behar ez genukeen azterketa da.

Urteko 17. astea.

Santa Marta, Lazaroren arreba
eta Mariaren ahizpa.

[Irteera 34,29-35: Moisesi begiratzin ziotenak beldur ziren harrengana hurbiltzeko. Sal 98: Santua zara, Jauna, gure Jainkoa.]

† Jesu Kristoren Ebanjelioa San Mateoren liburutik 13,44-46.

Aldi hartan, Jesusek esan zion jendeari: «Zeruetako erreinua so-roan ezkutaturiko gordailuaren antzekoa da. Aurkitzen du gizon bat-tek eta gorde egiten du. Pozez beterik joaten da, saltzen ditu dauzkan gauza guztiak eta soroa erosten du.

Era berean, zeruetako erreinua harri bitxi ederren bila dabilen merkatariaren antzekoa da. Bat oso bikaina aurkitzen duenean, joaten da, saltzen ditu dauzkan gauza guztiak eta harri bitxia erosten du».

Martaren azken erantzunak ez dio erantzuten Jesusen galdera-ri. Piztueraz duen fedear egin dio Jesusek galdera, eta Martak erantzun: «zugan sinesten dut». Ez dabil iheska, erantzun zuzena eman dio. Zinezko lezioa da guretzat. Guk ez dugu sinesten gertaera bat, ez dogma bat edo gehiago, ez irakaspen bat, ez egia bat; Jesu Kristo bera sinesten dugu. Gure fedea harengan bakarrik oinarritzen da.

Zugan sinesten dut, Jauna, Jainkoaren Seme hori, gu salbatzeko mundu honetara etorri zaren hori. Sinesten dut Piztuera eta Bizia zarelara. Badakit zurekin piztuko naizela, sekula santa ez hiltzeko. Betiko biziko naiz zugan.

Urteko 17. astea.San Pedro Krisologo, *gotzaina eta eliz irakaslea.*Braulio Corres dohatsua eta lagunak, *martiriak.*

[Irteera 40,14-19.32-36: *Lainoak estali zuen batzar-txabola, eta Jaunaren aintzak bete santutegia. Sal 83: Zure egoitza, gudari-taldeen Jauna, bai maitagarria dela!*]

† Jesu Kristoren Ebanjelioa San Mateoren liburutik 13,47-53.

Aldi hartan, Jesusek esan zion jendeari: «Zeruetako erreinua itsasora botatzen duten sarearen antzekoa da. Era guztietako arrainak hartzen ditu. Beterik dagoenean, ateratzen dute itsasbazterrera eta, eseririk, onak saskirako bereizten dituzte, eta txarrak kanpora botatzen. Horrela gertatuko da gizaldiaren azkenean: aterako dira aingeruak eta, zintzoen artetik gaiztoak bereizi eta su-leizera amilduko dituzte. Han izango da negarra eta hortz-karraska!» Orduan, Jesusek galdetu zien: «Ulertu al duzue?» Haiek erantzun zioten: «Bai!» Eta Jesusek: «Beraz, zeruetako erreinuan ikasia den lege-maisua, bere gordailutik gauza zaharrak eta berriak ateratzen dituen etxe-nagusia-
ren antzekoa da». Parabola hauek bukatu zituenean, Jesus joan egin zen handik.

Sarearena olo gaiztoaren parabolaren antzekoa da. Portura iristean, arrantzaleek bereizi egiten dituzte arrainak. «Giza arrantzaleek» mota guztietako jendea hartzen dute, baina azkeneraino leial izan direnek bakarrik jasoko dute saria. Gonbit batekin bukatu da pasarte. Jesusek gomendatu digu erabateko baliorik ez emateko tradizioari (antzinako gauzei), baizik eta aldaketak (berriak) tartekatu behar ditugula bizitzan, zeren Jainkoaren Erreinua bizia den zerbait baita, eta leku eta aldi bakoitzean haragitu beharra izaten baitu. Zer esango ote luke Jesusek gaurko honen eta beste haren aurrean?

§ Deuteronomio liburutik 30,15-20.

Jauna mintzatu zitzaien herriari Moisesen ahoz: «Begira, bizia eta zoriona, heriotza eta zorigaitza jartzen dizkizut gaur aurrean. Aditzen badituzu gaur ematen dizkizudan aginduak, Jauna zeure Jainkoa maitatuz, haren bidetik ibiliz, eta haren aginduak, erabakiak eta esanak betez, biziko zara eta ugarituko, eta bedeinkatuko zaitu Jaunak zeure Jainkoak, jabe izateko sartuko zaren lurraldean. Baina zure bihotza okertzen bada, aditzen ez baduzu eta zeure burua lilaratzen uzten baduzu, jainko arrotzei belauna makurtzen badiezu eta haiei zerbitzu egiten, gaurtik esaten dizut, nahitaez hondatuko zarela, eta ez duzula luzaro iraungo, Jordan igarota menperatzerazoaen lurraldean. Zeru-lurrak deitzen ditut gaur testigu: bizia eta heriotza, bedeinkapena eta madarikapena jartzen dizkizuedala aurrean. Zuk eta zure ondorengoek bizi nahi baduzue, aukera ezazue bizia, Jauna zure Jaungoikoa maitatuz, haren esana adituz, eta hari loturik; hura baita zure bizia eta zure egunen luzagarria, eta biziko zara Jaunak zure guraso Abrahami, Isaaki, eta Jakobi emango ziela hitzeman zien lurraldean».

§ Paulo apostoluak 1. Timoteori 1,12-17.

Anaia maite: Eskerrak ematen dizkiot Kristo Jesus gure Jaunari; izan ere, gai egin ninduen, niregan ustea izan zuen eta eginkizun hau nire eskuetan jarri; nahiz eta ni hasiera batean biraolari izan, erasotzaile eta laidogile. Jauna, ordea, errukitu zitzaidan, sinesgabea izanik, ezjakinez egiten bainuen egiten nuena. Eta Jainkoak gainezka isuri zuen bere grazia nire gainera, sinesmena eta kristau-maitasuna emanaz. Benetako hitza da eta erabat onartzekoa: Jesu Kristo bekariak salbaterazera etorri zela lurrera, eta hauetan aurrenekoa naiz ni. Horregatik iritsi nuen errukia, Jesu Kristok nigan erakutsi zezan, le-

Urteko 17. astea.

SAN IGNAZIO LOIOLAKOA, *fundatzailea (Jesusen Lagundia) (Gipuzkoako eta Bizkaiko Zaindaria).*

henengo, bere bihotz handia, eta eredu izan nendin harengan sinetsi eta betiko bizitza iritsiko dutenentzat. Gizaldien Erregeari, Jaungoiko hilezkor, ikusezin eta bakarrari, aintza eta omena gizaldi eta gizaldietan. Amen.

† Jesu Kristoren Ebanjelioa San Lukasen liburutik **9,18-26**.

Jesus bakardadean otoitzean ari zen batean, ikasleak bildu zitzaizkion, eta Jesusek galdetu zien: «ni nor naizela dio jendeak?» Haiek erantzun: «Batzuek, Joan Bataiatzailea; beste batzuek, Elias; besteek, berriz, antzinako profetaren bat piztu dela». Hark orduan: «Eta zuek, nor naizela diozue?» Pedrok erantzun zion: «Jainkoaren Mesias». Baina Jesusek inori ez esateko agindu zien zorrotz. Eta esan zien: «Beharrezkoa da Gizonaren Semeak neke handiak jasatea: zaharrek, apaizburuek eta lege-maisuek gaitzetsiko dute eta hilko, baina hirugarren egunean piztuko da». Eta Jesusek esan zien guztiei: «nirekin etorri nahi duenak uko egin diezai bere buruari, har beza egunero bere gurutzea eta jarrai biezat. Izan ere, bere bizia salbatu nahi duenak galduko du; baina bere bizia nigatik galduko duenak salbatuko. Zertako du gizakiak mundu guztia irabaztea, bere bizia galtzen eta hondatzen badu? Norbait nitaz eta nik irakatsiaz lotsatzen bada, Gizonaren Semea ere lotsatuko da hartaz, bere edertasunean eta Aitaren eta aingeru santuen aintzan etorriko denean».

Gogo Jardunetan, gogo-jardunak egiten ari dena Jesusen alde jartzera animatzen du Loiolako Ignaziok, eta ez mundua dominatzen duen gaizkiaren alde. Bi Banderaren meditazioak aukeratu behar bat jartzen digu begi aurrean: Jesusen bidea aukeratu behar da, hark pobretasun ebanjelikoa bizitzea eskatzen du, ohoreei eta gizarteko ospeari uko egitea, bere Erreinua Gizadian ezarri nahi duen Jainkoaren asmoaren me-

neko bihurtzea apal eta maitasunez. Ostera, Gaizkiaren botereak aberastasunak pilatzera eragiten digu, edozein modutan bada ere arrakasta bilatzera eta, handi-mandi, gainerakoak menderatzera. Bi alderdiak dira proselitista. Beren jarraitzaileek kopururik handia osa dezaten nahi izaten dute bi alderdiek, ooren eta guztien jaun bihurtzeko.

Alderdi bat aukeratzeko eskatzen digu Ignaziok, eta kontuan izan dezagula Gaizkiak botatzen digun sarea: diruzalekeria, harrokeria eta handinahia, besteren bizkar lortutako plazera, esklabo bihurtzen gaituen boterea: Jesusen aurka doa hori guztia. Jesusek pertsona soil ikusi nahi gaitu, pertsona aske, apal, nor bere buruaren jabe, haren eskuetan konfiantza dugula.

Eska iezaiozu San Ignaziori Jesusen aldera jotzeko argia, eta erregutu Kristori bereen artean onar zaitzan. Emango dizun grazia da.

* * *

LOIOLAKO SEMEA GURE ZAINDARIA

R/. Loiolako semea gure zaindaria,
entzun, arren, gure eskaria.

Jainkoaren aurrean izan zaitez
gure lagun,
zerua irabazi dezagun.

1. Iruñan zauriturik,
Loiolan santutu,
Andre Mariaren bitartez
zinen bihotz-berritu,
santu handia,
zerutik iguzu lagun,
gure bihotzak berri ditzagun.-R/.

Urteko 17. astea.

SAN IGNAZIO LOIOLAKOA, fundatzailea (Jesusen Lagundia) (Gipuzkoako eta Bizkaiko Zaindaria).

2. Zure gazte bizitza
bekataria zen,
ta gero santutasunaren
mendira igo zinen.
Gure bihotzak
zurekin jaso ditzagun,
Jaunaren aintza bila dezagun.-R/.

«Nigana datorrena ez da gosetuko, eta nigan sinesten duena ez da behin ere egarrituko»



AITA SANTUAREN ASMOAK

Orokorra: Boluntarioen eremuan parte hartzen dutenek beren burua bihotz zabal eskain dezaten premian direnen zerbitzurako.

Ebanjelizazioaren alde: Geure baitatik ateraz, harreman gizatar eta sozialen periferian bizi den jendearen lagun hurko bihur gaitzen.

ABUZTUA / DAGONILA

Urteko 17. astea.

San Alfontso Maria Ligorio, *gotzaina eta eliz irakaslea, fundatzailea (erredentoristak).*

[Lebitarrak 25,1.8-17: *Jubileu-urtean, lehen bereak zituenen jabe egingo da bakoitza. Sal 66: Ene Jainko, ospa zaitzatela herriek, ospa zaitzatela herri guztiek.*]

† Jesu Kristoren Ebanjelioa San Mateoren liburutik 14,1-12.

Aldi hartan, Herodes agintariak entzuna zuen Jesusengatik hitz egiten zena, eta esan zien jauregikoei: «Joan Bataiatzailea da hori, hildakoen artetik piztua; horregatik ditu halako mirarizko indarrak». Herodesek, izan ere, Joani eskua erantsi zion, eta preso eduki zuen giltzapean, bere anaia Filiporen emazte Herodiasengatik. Joanek esaten baitzion: «Ez zaizu zilegi emakume hori edukitzea». Eta hilarazi nahi zuen, baina herriaren beldur zen; profetatzat baitzuten. Herodesen urtebetetze-egunean, Herodiasen alabak dantza egin zuen guztien aurrean, eta hainbeste atsegin izan zitzaion, zin eginez agindu baitzion eskatzen zuena emango ziola esanez. Neskatzak, amak eraginda, esan zion: «Ekariezadazu berehala platera batean Joan Bataiatzailearen burua». Goibeldu zen erregea, baina zin egin zuelako, eta, mahaikideengatik, emateko agindu zuen, eta Joani lepoa moztu arazi zion presondegian. Ekarri zuten Joanen burua platera batean, eman zioten neskatzari, eta neskatzak amari. Etorri ziren Joanen ikasleak, gorpua hartu eta lur eman zioten; gero Jesusi berri ematera joan ziren.

Herodes ez dago lasai. Bihotzeko kezka larritzen du, eta mamuak ikusten ditu nonahi. Beldur da Joan Bataiatzailea Jesusengan berraragitu ote den, eta bere jokabidea aurpegiaratu ote dion. Errudun sentitzeak ez dio bakean uzten hiltzaileari; batzuetan errugabeak ere izaten du kezkarik. Eskrupuludunak ezin kendua du burutik bekatua eta uste izaten du kasik etengabe ari dela Jainkoaren aurka. Larriak nahastu egiten du halakoaren arrazoimena eta ezin imajinatu beste sufritu ohi du. Damu dadin kezkarazten du Jainkoak bekataria; zintzoari ez dio ezartzen halako zigorrik. Jainkoak bakea, poza eta kontsolamendua ematen du. Gainerakoa «spiritu gaiztoarena» da, San Ignaziok esango lukeenez.

Aingeruen Andre Maria. San Eusebio Vercelli-
koa, *gotzaina*. San Pedro Julian Eymard, *apaiza*.
San Pedro Fabro, *apaiza*.

§ Irteera liburutik 16,2-4.12-15.

Israel herri osoa marmarrean hasi zen basamortuan, Moisesen eta Aaronen aurka. Esaten zuten: «Hobe Egipton hil bagina Jaunaren eskuz, eltzekada-haragiren aurrean esertzen ginenean, eta ogia asetzeraino jaten genuenean! Honetarako ekarri al gaituzue basamortura, herri osoa hemen goseak hiltzeko?» Jaungoikoak esan zion Moisesi: «Ogi-auria eginaraziko dut nik zuentzat zerutik. Atera dadila herria egunean egunekoa biltzera; nik aztertuko dut neure herria, neure legean dabilen hala ez. Entzun ditut israeldarren marmarrak; hitz egiezu eta esan nire izenean: “Arratsaldean haragia jango duzue, eta goizean ogiz aseko zarete, eta ezagutuko duzue, ni naizela Jauna, zuen Jaungoikoa”». Arratsaldean, galeperrak etorri ziren eta oihaltxabolategia estali zuten, eta goizean ihintzez estalia zegoen inguru guztia. Ihintza joan zenean, bazen lur gainean azal mehe bat, izotza bezalakoa. Hura ikusita, israeldarrak elkarri galdezka hasi ziren: «Zer dugu hau?» Ez baitzekiten zer zen. Moisesek esan zien: «Hau, Jaunak jateko ematen dizuen ogia da».

[Sal 77: *Zeruko ogia eman zien Jaunak.*]

§ Paulo apostoluak efesoarrei 4,17.20-24.

Senideok: Hau esaten eta eskatzen dizuet Jaunaren izenean: Ez zaitezte ibili hemendik aurrera, atzerritarak dabilzan bezala, buruarinkeriatan. Ez da horrelakoa zuei erakutsi zaizuen Kristo –zuek entzun duzuen hari dagokiona bada behintzat, eta hari buruz irakutsi dizuetena Jesusen egia bada, hau da: zuen lehengo jokaera zaharra alde batera uztea, atseginkeri nahiak usteldutako gizon zaharra alde batera uztea, eta adimenez eta bihotzez berritzea–. Berri zaitezte zeuen burubideetan Espirituaren eraginez, eta jantzi zaitezte Jaungoikoaren arbera egina den gizaki berriaz, egiazko zintzotasunez et santutasunez.

Aingeruen Andre Maria. San Eusebio Vercelli-koa, *gotzaina*. San Pedro Julian Eymard, *apaiza*.
San Pedro Fabro, *apaiza*.

† Jesu Kristoren Ebanjelioa San Joanen liburutik 6,24-35.

Aldi hartan, jendeak Jesus eta haren ikasleak han ez zeudela ikusi zuenean, ontzietara igo eta Kafarnaumera joan zen, Jesusen bila. Itsasoaz beste aldean aurkitu zutenean, esan zioten: «Maisu, noiz etorri zara hona?» Jesusek erantzun zien: «Egi-egiaz diotsuet: / nire bila zabiltzate, / ez noski ezaugarriak ikusi dituzuelako, / baizik eta ogia jan duzuelako eta ase zaretelako. / Egizue lan, ez hondatzen den janariagatik, / baizik betiko biziraino irauten duenagatik, / Gizonaren Semeak emango dizuenagatik. / Honi egin baitio Jainko Aitak bere aitormena». Haiek orduan esan zioten: «Zertan ari behar dugu Jainkoak nahi duena egiteko?» Jesusek erantzun: «Hau da Jainkoak nahi duen egintza: / Sinets diezaiozuela berak bidali duenari». Haiek orduan: «Zer ezaugarri egiten duzu, hura ikusi eta guk zukan sinets dezagun? Zer egiten duzu? Gure gurasoek basamortuan mana jan zuten; “zeruko ogia eman zien jateko” –idatzirik dagoen bezala–». Jesusek erantzun zien: «Egi-egiaz diotsuet: / Ez zizuen Moisesek eman zeruko ogia; / nire Aitak ematen dizue zeruko egiazko ogia; / Jainkoaren ogia baita zerutik jaisten dena / eta munduari bizia ematen diona». Orduan haiek: «Jauna, emaguzu beti ogi horretatik!» Jesusek erantzun: «Ni naiz biziaren ogia; / nigana datorrena ez da gosetuko, / eta nigan sinesten duena / ez da behin ere egarrituko».

Beste behin ere, Jesusek uko egin dio erlijioaz baliatzeari, norberaren probetxurako. Jendea ez dabil Jesusen bila hots egiten duen mezuagatik, baizik jaten doan eman dielako. Ebanjelioak ezer gorrotatzen badu eta ezer ezesten badu, hartaz baliatzen denaren diru-gosea da, nolana ere aberasteko. Alabaina, Eliza bera behin baino gehiagotan erori izan da erlijio-zerbitzuei salneurria jartzearen sakrilegioan. Je-

Aingeruen Andre Maria. San Eusebio Vercelli-
koa, *gotzaina*. San Pedro Julian Eymard, *apaiza*.
San Pedro Fabro, *apaiza*.

susen esana argi eta garbi jartzen zaio kontra jokabide honi: «Doan hartua duzue, eman doan».

Gaurko gure eskaria jendearena bera da: Jauna, emaguzu beti zeure ogitik. Honengatik dizugu eskatzen: jaten duenak gizakiak izan ohi dituen gose-egarri sakonenak asetzen dituelako: egiaren, biziaren eta zorionaren irrika erabat betetzen duelako.

Biatikoa da eukaristia, esan nahi baita, biderako janaria dela, eta, gainera, gizakiak espero duen zorionaren atarikoa. Aurrerakina da jaunartzea, Jesu Kristok bere heriotzaren eta piztueraren bidez lortu digun Biziaren betea hemen jadanik dastatzeko aukera ematen digun aurrerakina. Eskerrak, Jauna, zu zeu zaitugulako zorionaren gose-egarriak asetzen dituena.

* * *

ZURE GOSEA
(*Pedro Casaldáliga*)

Zure goseak sutan gauzka, Hildako bizidun hori,
Bildots lepo egina, Pazkoan zutik.
Hego eta aloe lekukoak,
zure zauriak ukitzera gara deituak.
Bide-bihurgune guztietan
sobera izanen ditugu zure oinak guk musu emateko.
Zenbat hilobi nonahi, hutsik
errukiz, mehatxuz zigilaturik.
Isilik, haien aurrean, adiskideak,
boterearen edo ezerezaren beldur.
Baina zure goseak sutan gauzka oraino, Kristo,
eta zugaran piztu ahal izanen dugu egunsentia.

Urteko 18. astea.San Pedro Osmakoa, *gotzaina*.Santa Lidia, *martiria*.

[Zenbakiak 11,5b-15: *Nik, bakarrik ezin eraman dut herri honen guztiaren zama. Sal 80: Egin pozez oihu, laguntzaile dugun Jainkoari.*]

† Jesu Kristoren Ebanjelioa San Mateoren liburutik 14,13-21.

Horren berri jakitean, Jesus bazter batera joan zen bakarrik txalupaz. Baina jendea ohartu zen eta, herrietatik irtenik, oinez jarraitu zioten. Txalupatik jaitsi zenean, jendetza handia ikusi zuen Jesusek eta, errukiturik, gaixoak sendatu zizkien.

Ilunabarrean, ikasleek hurbildu eta esan zioten: «Toki hau oso urruti dago eta orduak aurrera doaz. Bidal ezazu, bada, jendea, auzoetara joan eta jatekoa eros dezan».

Baina Jesusek erantzun zien: «Ez dute zertan joanik; eman zeuek jaten». Haiek, orduan: «Ez daukagu hemen bost ogi eta bi arrain besterik». Eta Jesusek: «Ekarri hona».

Jendeari zelaian esertzeko agindu ondoren, hartu zituen bost ogiak eta bi arrainak eta, begiak zerura jatorik, bedeinkazioa esan, ogiak zatitu eta ikasleei eman zizkien, eta ikasleek jendeari. Asetzeraino jan zuten denek, eta gelditutako hondarrez hamabi saski bete zituzten. Bost mila gizon inguru izan ziren jan zutenak, emakumeak eta haurrak aparte.

Lankide nahi gaitu Jainkoak. Ez gaitu beharrezko, baina eske dugu. «Emaiezue zeuek jaten» esapidea, sakon ezarri da gaur eguneko kontzientzian; berak eragin ditu karitatezko mugimendu modernoak; ez dira oinarrizten fedearen transmisioan bakarrik (janari espiritual, misio), baita gure planeta honetan nagusi den parekotasun-ez izugarrian ere (janari, osasun, heziketa). Batzuk goseak hiltzen, beste batzuk sobera duten janaria zakarrontzira botatzen. Batzuk alferrik galtzen beste batzuei bizitzeko falta zaien hura.

Jauna, zure esapidearen mailukada ez dadila isildu nire belarrietan, eta eragin diezadala solidaritate handiago baterantz.

[Zenbakia 12,1-13: *Moises ez da beste profetak bezalakoak: Nolan ausartu zarete haren kontra hitz egiten? Sal 50: Erruki, Jauna, bekatu egin dugu eta.*]

† Jesu Kristoren Ebanjelioa San Mateoren liburutik 14,22-36.

Jendeak nahikoa jan zuenean, Jesusek bere ikasleak ontzian sarra-razi zituen, itsasoaz beste aldera joan zitezenean bere aurretik, berak jendea bidali bitartean. Jendea bidali zuenean, mendira igo zen bera bakarrik, otoitz egitera, eta, ilundu zuenean, han zegoen bakar-bakarrik. Ordu-rako, ontzia lehorretik oso urrun zihoan, olatuek astindua, haizea aurretik zuten eta. Goiz aldera, Jesus ur gainean ibiliz hurbildu zitzairen. Ikasleak, ur gainean zebilela ikusi zutenean, ikaratu ziren eta zioten: «Mamuren bat da!» Eta, beldurraren beldurrez, deiadarka hasi ziren. Jesus berehala mintzatu zitzairen: «Izan bihotz! Ni naiz, ez izan beldurrik!» Orduan Pedrok erantzun: «Jauna, zu baldin bazara, agindu iezadazu zuzana joateko ur gainean». Jesusek esan zion: «Zatoz!» Pedro ontzitik atera eta ur gainean ibiltzen hasi zen, eta Jesusengana zihoan. Baina, haize zakarra zela oharturik, beldurtu zen; urperatzen hasi eta deiadar egin zuen: «Jauna, salba nazazu!» Berehala Jesusek, eskua luzaturik, hartu eta esan zion: «Sinesmen eskaseko gizona! Zergatik hasi zara zalantzan?» Ontzira igo zirenean, haizea gelditu zen, eta ontzian zeudenak ahuspez jarri ziren Jesusen aurrean, esanez: «Egiaz Jainkoaren Semea zara zu!» Itsasoa igarorik, Genesareten iritsi ziren lehorrera. Hango jendeak ezagutu zuenean, inguru hartan guztian zabaldu zuen berria, eta gaixo guztiak eraman zizkieten; soineko-ertza bederen ukitzen uzteko eskatzen zioten, eta ukitu zuten guztiak sendaturik gelditu ziren.

On da lan apostoliko arriskutsuei ekitea, haietatik fruitu ugari espero denean. Halakoetara jotzen dutenek jakin behar dute, ordea,

Urteko 18. astea.

San Joan Maria Vianney, *Ars-eko apaiza*.

Jainkoa kontuan hartu beharrekoa dela, ez hasieran bakarrik, baita ekintza garatzeko eta errematatzeko orduan ere. Horixe zuen Pedrok kontuan hartu beharra. Jesusekiko konfiantza du bere sostengu ur gainean ibiltzen hasi denean, baina, haize zakarraren mehatxua sentitu orduko, akabo haren ziurtasuna eta hondoratzen hasi da beruna bezala. Orduan «Jauna, salba nazazu» hots egitea porrota aitortzea da. Neure indarraz fidatu naiz eta ez Jainkoarenaz.

* * *

BIZIA DAKARREN JANARIA

(Gustavo Albarran s.j.)

Jauna, aski denbora da irakatsi diguzuna, janari ditugun, elikatzen gaituzten, bizirik gauzkatzen gauzen askotarikotasuna bereizten. Horrenbeste mesederen artean, jainkozko janari agertu zara zu zeu, ez bakarrik geure gorputza, geure arrazionaltasuna eta geure afektibitatea nola janaritu eta elikatu ikas dezagun, baita munduaren bizigarri izango den janari bihur gaitezen ere.

Beti eta gehiago, hilkortasuna baino harago hilezkor, oinaze oro baino harago osasuntsu, tristura oro baino harago alai bihurtuko gaituen ogiaren beharra dugu. Haragi eta Odol zaren horren premia dugu; zuk gaituzu biziarazten beti murgildurik, munduaren bihotza supazter nola bihurtuko.

Zure Haragia jaten eta zure Odola edaten dugunean agertzen diguzu, gu baitan bizi-energia bezalako bat ernetzen dela, dena ureztatuz doana bere isurian, garena eta duguna batera jartzeko gogoia esnaraziz, eta batzuek eta besteek maitasunez eta fedez elkar eroatea lortuz.

Urteko 18. astea.

Andre Mariaren Eliza Sagaratzea Erroman.
Andre Maria Zuria Gasteizen. Elurretako Andre Maria.

[Zenbakiak 13,2-3a.26—14,1.26-30.34-35: *Aztertu zuten lurraz berri txarrak eman zituzten israeldarren aurrean. Sal 105: Oroit zaitzute gutaz, Jauna, oroit herri hau maite duzunaz.*]

† Jesu Kristoren Ebanjelioa San Mateoren liburutik 15,21-28.

Aldi hartan, Jesus Tiro eta Sidongo lurraldera joan zen. Kanaandar emakume bat alderdi haietatik atera eta deiadarka hasi zitzaion: «Jauna, Daviden Seme, erruki zakizkit! Deabru gaizto-gaizto bat du nire alabak». Jesusek, ordea, ez zion hitzik erantzun. Ikasleak, hurbildurik, erreguka ari zitzaizkion: «Egiozu nahi duena, eta doala, atzetik datorkigu-eta deiadarka». Jesusek erantzun zien: «Israelgo ardi galduetara bakarrik bidali naute». Emakumea hurbildu zen, ordea, eta, ahuspezturik, esan zion: «Laguniezadazu, Jauna!» Jesusek erantzun: «Ez da egoki seme-alaben ogia hartu eta zakurrei botatzea». Eta emakumeak: «Egia, Jauna; baina txakurkumeek ere jaten dituzte beren nagusien mahaitik jalkitako ogi apurrak». Orduan Jesusek erantzun zion: «Emakume, handia da zure sinestea! Gerta bekizu nahi duzun hori». Eta ordu hartantxe sendatu zitzaion alaba.

[Elurretako Andre Maria. Zakarias 2,1-13: *Poztu zaitzez, Siongo alaba, banatorkizu-ta! Apokalipsia 21,1-5a: Jerusalem berria ikusi nuen, bere senargaiarentzat apaindutako andregai bezala. Salmoa: Judit 13: Zuan du gure herriak bere edertasuna.*]

† Jesu Kristoren Ebanjelioa San Lukasen liburutik 11,27-28.

Aldi hartan, Jesus jendeari hizketan ari zitzaioa, jende arteko emakume batek, deiadar batean, esan zuen: «Zorionekoa, zu ekarri zintuen sabela eta bularra eman zizun emakumea!». Baina Jesusek esan zuen: «Zorionekoak, bai, Jainkoaren hitza entzuten eta betetzen dutenak!»

Urteko 18. astea.

Andre Mariaren Eliza Sagaratzea Erroman.

Andre Maria Zuria Gasteizen. Elurretako Andre Maria.

Ikasleek baztertu egin nahi dute bere alabaren osasuna oihuka eskatuz inguruan duten emakume nahastailea. Nekagarri da Maisuarentzat, baina, egia esateko, berek dute hura nekagarriago. Haren alde erregutu diote Jesusi, baina ez gupidaz, baizik eragiten ari den iskanbilagatik.

Azkenean, lortu du Jesusekin hitz egitea. Gai da ama hori bere burua txakurkume batekin konparatzeko, alabaren osasuna lortzekotan. Otoitz jarraiki eta apal horrek, fedez gainezka, sendatuko duen esperantza eta ama baten maitasuna den horrek, harridura eragin dio Jesusi: bete dadila horrenbeste opa duzuna!

§ Daniel Profetaren liburutik 7,9-10.13-14.

Begira nengoela, aulkiak jarri zituzten han, eta gizon zahar bat eseri zen. Haren soinekoa elurra bezain zuria, buruko ilea artile garbia bezala, haren aulkia su, eta aulkiaren gurpilak sugar. Suzko ibai bizi bat zerion haren aurretik. Milaka zituen morroiak, milioika bere aurrean zerbitzariak. Auzia hasi zen, eta zabaldu ziren liburuak. Eta artean begira nengoela, gizonaren semea zirudien bat ikusi nuen, zeruetako hodeietan zetorrela. Gizon zaharragana hurbildu zen, eta haren aurrean aurkeztu. Agintaritza, ospea eta erregetza eman zitzaizkion, eta herri, herrialde eta hizkuntza guztiak zerbitzari zituen. Haren agintea, betiereko agintea da, inoiz ere amaituko ez dena, eta haren erregetzak ez du azkenik izango.

[Sal 96: *Errege da Jauna, Goi-goiko, lur guztiaren gainetik.*]

§ San Pedro Apostoluaren 2. gutunetik 1,16-19.

Senide maiteok: Jesu Kristo gure Jaunaren indarra eta azken etorrera ezagutarazi nizuenean, ez nizekizuen nik asmatutako ipuinak esan, baizik-eta geure begiz ikusitako haren handitasuna. Gorespena eta aintza hartu zituen hark Aita Jaungoikoagandik, aintza bikain hartatik harako hitz hura etorri zitzaionean: «Hau da nire Semea, nire Maitea: Honengan dut neure atsegina». Guk geuk entzun genuen zerutik etorritako ahots hori, berarekin mendi santuan geundela. Honek guztiak sendotu egiten du guban Profeten hitza, eta zuek ere ederki egiten duzue hitz horri erne-erne egotean, toki ilunean argi egiten duen argi-ontziari bezala, harik-eta eguna argitzen hasi arte, eta artizarra zuen bihotzean sortu arte.

† Jesu Kristoren Ebanjelioa San Markosen liburutik 9,2-10.

Aldi hartan, hartu zituen Jesusek berekin Pedro, Santiago eta Joan, eta mendi goi batera igo zen haiekin bakarrik, eta hiruren aurrean antzaldatu zen. Haren jantziak distiratsu, zuri-zuri bihurtu ziren, inongo zuritzailek

Urteko 18. astea.

JAUNAREN ANTZALDATZEA.

San Justo eta San Pastor, *anaiak, martiriak*.

zuritu ez ditzakeen bezala. Eta Elias eta Moises agertu zitzaizkien, Jesusekin hizketan. Pedro mintzatu zen orduan, eta esan zion Jesusi: «Maisu, bai ederki gaudela hemen! Hiru txabola egin ditzagun: bata zuretzat, bestea Moisesentzat eta bestea Eliasantzat». Ez zekien zer esaten zuen ere; zeharo beldurrak harturik baitzeuden. Orduan hodei bat sortu zen eta estali zituen, eta hodeitik ahots bat entzun zen: «Hau da nire Semea, nire Maitea. Entzuiozue». Eta halako batean, beren ingurura begiratu, eta ez zuten Jesus besterik ikusi berekin. Menditik behera jaisterakoan, ikusi zutenaren berri inori ez emateko agindu zien Jesusek, harik eta Gizonaren Semea hildakoen artetik piztu arte. Agindu hori gorde zuten, eta elkarri galdetzen zioten, zer izan ote zitekeen «hildakoen artetik pizte» hura.

Antzaldatzeak oso bizi argitzen du Mendiko Hitzaldian Jesusek aldarrikatu duena: hark laburbiltzen ditu Legea eta Profetak. Ezkereskuin dituen Moisesen eta Eliasen irudiek, zerutik etorri den ahotsak bezala, adierazten dute ezen Itun Zaharra –hartatik irauteko modukoa dena– Jesusengan laburbiltzen dela. Jesus da Jainkoak gizakiari eskaini dion mezua. Salbazioa bera da Jesus, geuregan okerredu gungetik liberatzen gaituena, Jainkoaren altzoan ezusteko moduan bizitzera bideratu gaituena. Harekin gara bizi, harekin gara hiltzen, harekin gara pizten, San Pauloren hitzen arabera.

Mundu honetan betiko estasian gelditzeko Pedrok egin duen eskariari uko egin dio Jainkoak. Ez du nahi Jainkoak, guretzat gorderik duen eta mila bider hobea denari guk uko egitea. Amairik gabeko zoriona dugu zain, baldin eta bere Semeari entzuten, bizi-eredutzat besarkatzen eta behin betiko askatzaitzat hartzen badugu.

Ebanjelariak honela baietsi du ideia hau: «ingurura begiratzean, ez zuten ikusi inor Jesus baizik, hura bakarrik berekin». Utz ditzagun alde batera Moises, Elias eta hodeia. Jar gaitezen Jesusi begira.

Urteko 18. astea.

San Sixto II.a, *aita santua* eta lagunak, *martiriak*.
San Kaietano, *apaiza*.

[Daniel 4,32-40: *Zure arbasoak maite izan zituen, eta haien jatorria aukeratu zuen. Sal 76: Oroitzen naiz Jainkoak egindakoez.*]

† Jesu Kristoren Ebanjelioa San Mateoren liburutik 16,24-28.

Aldi hartan, Jesusek esan zien ikasleei: «Nirekin etorri nahi duenak, uko egin biezaio bere buruari, har beza bere gurutzea eta jarrai biezat. Izan ere, bere bizia salbatu nahi duenak, galduko du, eta bere bizia nigatik galduko duenak, beretzat gordeko du. Zertako du gizakiak mundu guztia irabaztea, bere bizia hondatzen badu? Edota zer eman dezake gizakiak, bere bizia berriro eskuratzeko? Etorriko baita Gizonaren Semea Aitaren aintzan, bere aingeruekin, eta orduan bakoitzari bere egiteen neurriko ordaina emango dio. Egia diotsuet: hemen daudenetako batzuk ez dira hilko Gizonaren Semea bere erregetzan etortzen ikusi gabe».

Bizitza onartzea edo alferrik galtzea bi kategoria desberdin dira: Jesusi entzun ala gizon-emakume gehienei entzun. Jenderik gehienarentzat, bizitzaz gozatzea, eman ahal guztian ibiltzea da, gauzak xahutuz erarik handiengan ibiltzea, luxuan, plazerez plazer ibiltzea. Azken hau gauza desberdina izan ohi da kulturen eta gustuen arabera, baina ez dio inporta nola gauzatzen den. Beti izango da oso desberdina Kristok proposatzen digunaren ondoan. Jesusentzat, benetako bizitza, gauza guztietan gizon-emakume guztiak maitatzea da eta guztien zerbitzari izatea, besteen ongizatea norberaren ongizatearen gaintetik jartzea, besteentzat bizitza eta ez norberarentzat. Eta zuk, zer duzu nahiago?

Urteko 18. astea.

Domingo santua, Guzmangoa, apaiza, fundatzailea (domingotarrak).

[Deuteronomioa 6,4-13: *Maita ezazu Jauna bihotz-bihotzez. Sal 17: Maite zaitut, Jauna, nire indar.*]

† Jesu Kristoren Ebanjelioa San Mateoren liburutik 17,14-20.

Aldi hartan, gizon bat hurbildu zitzaion Jesusi eta, belaunikaturik, esan zion: «Jauna, erruki zakizkio nire semeari; erortze-mina du, eta oinaze handiak. Noiznahi sura erortzen da eta urera. Ekarrri diet zure ikasleei, eta ezin sendatu izan dute». Jesusek erantzun zion: «Hau gizaldi sinesgogor eta bihurria! Noiz arte egon behar ote dut zuekin? Noiz arte jasan behar ote zaituztet? Ekardazue hona». Jesusek gogor hitz egin zion deabruari, eta atera zitzaion; ordu berean sendaturik gelditu zen mutikoa. Ikasleak Jesusengana joan eta bereiz galdetu zioten: «Zergatik ezin dugu bota ahal izan guk?» Eta Jesusek erantzun: «Zeuen sinesmen txikiagatik. Egia diotsuet: mostaza-hazia adinako fedea izango bazenute, nahikoa izango zenuketeki mendi hari hona etortzeko esatea, eta etorriko litzateke; ez litzateke zuentzat ezinik izango».

Seme-alaben heziketan izandako porrotak guraso asko atsekabetzen du. Beren seme-alabek, helduak jada, egiten dituzten barrabaskerien erantzule sentitu ohi dira. Alabaina, gurasoak ez dira halakoan egintza txarren erantzule eta ez dute zertan sentitu haien errudun. Baina seme-alabekiko lotura afektiboak zutik jarraitzen du, bai onerako (haien arrakastez harro sentitu), bai txarrerako (lotsa). Epileptikoaren aita bere semearen gaixotasunaren errudun sentitzen da. Garai hartan familiaren bekaturen bati egozten zitzaion seme-alaben gaixotasuna, bereziki gurasoenari. Aita atsekabetu honek Jesusengan ikusi du erremedioa.

Gurutzeko Santa Teresa Benedikta (Edith Stein),
erlijiosa eta martiria, Europako Zaindaria. Santa
Candida Maria Jesusena, *fundatzailea (Jesusen Alabak)*.

§ 1 Erregeak liburutik 19,4-8.

Egun haietan, Eliasek basamortuan barna, egun bateko bidea egin zuen. Isats zuhaixka baten azpian eseri zen, eta bere buruarentzat heriotza eskatu zuen, esanez: «Aski dut, Jauna; keniezadazu bizia, ez naiz-eta neure gurasoak baino hobea». Etzan zen isats zuhaixkaren itzalean, eta loak hartu zuen. Honetan, aingeru batek ukitu eta esan zion: «Jaiki zaitetz, eta jan». Begiratu zuen, eta sutopil bat eta ontzi bat ur ikusi zituen buru ondoan. Jan zuen eta edan, eta berriro etzan egin zen. Etorri zitzaion bigarrenez Jaunaren aingerua, ukitu eta esan zion. «Jaiki zaitetz, eta jan; oraindik bide luzea duzu eta». Jaiki zen Elias, jan eta edan zuen, eta, janari haren indarrez, berrogei egun eta berrogei gau ibili zen Jaungoikoaren Horeb mendiraino.

[Sal 33: *Txasta ezazue eta ikus zein samur den Jauna.*]

§ Paulo apostoluak efesoarreri 4,30–5,2.

Senideok: Ez atsekabetu Jaungoikoaren Espiritu Santua, hark markatuak baitzarete erospen-egunerako. Ken zuengandik garrakeria, beroaldi, haserre, birao eta iskanbilak eta beste gaiztakeria guztiak. Izan zaitetzte elkarrentzat onak eta errukitsuak, elkarri barkatuz, Jaungoikoak zuei Kristogan barkatu zizuen bezala. Izan zaitetzte Jaungoikoaren antzekoak, haren seme-alaba zaretenez gero, eta zabiltzate maitasunean, Kristok ere maite izan baitzintuzten, eta bere burua guretzat eman zuen eskaintza-gai eta Jaungoikoarentzako opari usaintsu bezala.

† Jesu Kristoren Ebanjelioa San Joanen liburutik 6,41-51.

Aldi hartan, juduak Jesusen kontra marmarrean ari ziren, «Ni naiz zerutik jaitsitako ogia» esan zuelako. Esaten zuten: «Hau ez al da Jesus, Joserren semea? Ez al ditugu ezagutzen guk honen aita-amak? Nolatan

Gurutzeko Santa Teresa Benedikta (Edith Stein),
 erlijiosa eta martiria, Europako Zaindaria. Santa
 Candida Maria Jesusena, *fundatzailea (Jesusen Alabak).*

dio, bada, orain, zerutik jaitsia dela?» Jesusek erantzun zien: «Ez ari marmar zeuen artean. Ez daiteke inor nigana etorri, bidali nauen Aitak ez badakar. Eta nik piztuko dut hura azken egunean. Profetetan idatzirik dago: “Jainkoaren ikasle izango dira guztiak”. Aitari entzun, eta haren irakatsiak ikasten dituen, nigana dator. Inork ez du ikusi Aita, Jainkoagandik datorrenak baizik; horrek, bai, horrek ikusi du Aita. Egi-egiaz diotsuet: sinesten duenak badu betiko bizia. Ni naiz biziaren ogia. Zuen gurasoek basamortuan mana jan zuten eta hil ziren; hau da zerutik jaitsitako ogia, gizakiak horretatik jan dezan eta hil ez dadin. Ni naiz ogi bizia zerutik jaitsia. Ogi honetatik jaten duena betiko biziko da, eta nik emango dudana ogia neure haragia da munduaren bizirako».

Jesusen jatorria argi izan behar dute Joanen ebanjelioa entzuten dutenek. Mariaren eta Joserren semea da; aldi berean, ordea, zerutik jaitsi den ogi bizia da. Gauza biek dira bateragarri ebanjelariarentzat. Are gehiago, bata bestearen osagarri dira. Halakoa da Jesusen ahalmena, non bizia eman baitiezaguke, betiko bizia, gero. Ogi arruntak ez bezala, Jesusen honek bizi beteago bat elikatzen du gudan, hain baldintzatua eta mugatua ez dena, lurreko heriotzaren ondoren hilezkortasuna ematen diguna. Egiazko bizia da, eta ez mundu honetako bizi pasakor eta hauskorra bezalakoa.

Jesusen ogia Eukaristian hartzen dugu, baina ez han bakarrik. Geure bizitzan, Jesusen bizierari itsatsia den horretan, egiten dugun guztiak Jesusekiko lotura sortzen du gudan. Mahatsondoa de Kristorekin lotzen gaituzten aihena berriak dira. Badakigu mahatsondoaren eta aihenen alegorian Jesusek esandako hura: «ni gabe ezin duzue ezer egin». Horregatik, harengana jo ohi dugu erregutzera: Emaguzu jaten zeure ogitik, lagundu iezaguzu zure biziera imitatzen, gogo berotu gaitzazu zutaz, eta ez gaitzela sekula, sekula santa, zугandik aparta.

Urteko 19. astea.

San Lorenzo, *diakonoa eta martiria*.

Paulo apostoluak 2 korintoarrei 9,6-10.

Izan kontuan urri ereiten duenak urri biltzen duela, eta oparo ereiten duenak bildu ere oparo biltzen. Eman beza bakoitzak bere kontzientzian erabaki duena, baina ez gogo txarrez eta behartuta bezala, alai ematen duena maite baitu Jainkoak. Eta ahaltsua da Jainkoa, era guztietako dohainak zuei oparo emateko, zeuentzat denetik nahikoa izanik, egintza on guztietarako sobera izan dezazuen, Liburu Santuak dioen bezala: *Esku betean ematen die behartsuei, haren eskuzabaltasunak betiko dirau*. Ereiteko hazia eta jateko ogia ematen dituen Jainkoak emango dizue hazia, ugarituko du zuek ereindakoa eta oparo gehituko zuen eskuzabaltasunaren emaitzak.

[Sal 111: *Zorionekoa, errukitu eta ematen duen gizakia.*]

San Joanen Ebanjeliotik 12,24-26.

Aldi hartan esan zien Jesusek ikasleei: Bene-benetan diotsuet: Gari-alea, lurrean sartu eta hiltzen ez bada, bera bakarrik gelditzen da; hiltzen bada, ordea, fruitu asko ematen du. Bere bizia maite duenak galdu egingo du; baina mundu honetan bere bizia gutxiesten duenak betiko bizirako gordeko du. Nire zerbitzari izan nahi duenak jarrai biezat eta, ni nagoen tokian, han izango da nire zerbitzaria ere. Nire zerbitzari dena Aitak ohoratu egingo du.

Pretore erromatarrak, Elizaren aberastasunak berekin zituela, bere aurrera etortzeko agindu zionean, esaten dutenez, berak babes-ten zituen behartsu-sail handi batekin joan zen Lorenzo diakonoa, eta esan omen zion agintari erromatarrari: «Hauek dira Elizaren aberastasunak». Elizaren altxorrik handiena ote dira, gaur egun, indigenak, behartsuak, marjinatuak, baztertuak? Kristau-karitateak jende askoz

Urteko 19. astea.San Lorenzo, *diakonoa eta martiria.*

gehiago harrapatzen du gaur egun, eta Elizaren ohoragarri da ezaugarri hori, baina gehienoi zuzeneko harremanak falta zaizkigu. Zenbat pobre ezagutzen dut? Zenbatekin dut harremanik?

* * *

EGUNEZ EGUN

Egunez egun, ene Jauna,
eskatuko dizkizut hiru gauza:
Zu argiago ikustea,
zu samurkiago maitatzea
eta zuri leialago jarraitzea.
Egunez egun, egunez egun, Jauna...

[Deuteronomio 31,1-8: *Izan bihotz eta kemen; zuk gidatuko duzu herri hau, Jaunak hitzemandako lurraldera. Salmoa: Deuteronomio 32: Bere herria du Jaunak Israel herria.*]

† Jesu Kristoren Ebanjelioa San Mateoren liburutik 18,1-5.10-14.

Aldi hartan, hurbildu zitzaizkion ikasleak Jesusi, eta galdetu zioten: «Nor da handiena zeruetako erreinuan?» Jesusek, haurtxo bati deitu, guztien artean ipini, eta esan zien: «Benetan diotsuet: Haurtxoen antzeko bihurtzen ez bazarete, ez zarete sartuko zeruetako erreinuan. Horrela, bere burua haur hau bezain txiki egiten duena, hura izango da handiena zeruetako erreinuan. Hau bezalako ume bat nire izenean hartzen duenak, neu hartzen nau. Begira gero, txiki horietako bat gutxietsi! Nik esaten dizuet: horien aingeruek zeruetako nire Aitaren aurpegia ikusten daude zeruan beti. Zer deritzozue? Gizon batek ehun ardi baldin baditu, eta haietako bat galtzen badu, ez al da, laurogeita hemeretziak mendian utzirik, galdutakoaren bila joango? Eta aurkitzen badu, benetan diotsuet, gehiago pozten dela bakar harengatik, galdu ez zitzaizkion laurogeita hemeretziengatik baino. Horra, bada: zeruetako zuen Aitak ez du nahi txiki hauetako bat galtzerik».

Azken aldi honetan Elizak jasan izan dituen lotsatzekorik handienetako bat, eliz jende batzuk, zoritxarrez arrazoi osoz, pederastia dela eta, kondenatua izana da. Gaurko ebanjelioa aski laguntza izan beharko zuketena gaizkile horiek halako jokabidea gorrotatzeko eta haur eta adin txikiko batzuei halako kalterik ez egiteko. Salatu behar izango zituztenek (beraien nagusi eta lagunek), salatu orde, ezkutatu egin zituzten. «Zeruko gure Aitak ez du nahi txiki hauetako bakar bat ere galtzea». Jaunak lagun diezaiela biktimei burua altxatzen halako tormentu mingarri hartatik.

Santa Joana Frantziska Chantalekoa, *erlijiosa, fundatzailea Salesko Frantziskorekin batean (Ahizpa Bisitarien Ordena).*

[Deuteronomio 34,1-12: *Han [Nebo mendian] hil zen Moises, Jaunak esan bezala. Ez zen gehiago sortu hura bezalako profetarik. Sal 65:* *Bedeinkatua Jainkoa, nire arimari bizia eman diona.]*

Jesu Kristoren Ebanjelioa San Mateoren liburutik 18,15-20.

Aldi hartan, esan zien Jesusek ikasleei: «Zure senide batek bekatu egiten badu, zoaz beragana eta zentzarazi bakarrean. Jaramon egiten badizu, irabazia duzu senidea. Jaramonik egiten ez badizu, berriz, hartu zeurekin lagun bat edo bi, *auzi oro bi edo hiru lekukoren aitopenez erabaki dadin.* Haiei ere jaramonik egiten ez badie, esaziozu elkarteari, eta elkarteari ere jaramonik egin nahi ez badio, izan bedi zuretzat jentil edo zerga-biltzaile baten pareko.

«Benetan diotsuet: Zuek mundu honetan lotua, zeruan ere lotua geldituko da, eta zuek mundu honetan askatua, zeruan ere askatua geldituko da.

«Beste hau ere esaten dizuet: Zuetako bik mundu honetan Jainkoari zerbait eskatzeko elkar hartzen badute, emango die zeruko nire Aitak. Izan ere, nire izenean bizpahiru lagun nonbait biltzen badira, han nagoke ni beraien artean».

Kristau-zentzaldia ez da egiten erruduna umiliarazteko, baizik adierazitako errua zuzentzeko. Ez du izan behar inoiz ere zentzarazlea lasaitzeko. Une egokian behar da egin eta ez jendaurrean. Bazuetan komeni izaten da abisua ematea, ez kargudun hierarkikoak, baizik dagokionaren hurbileko lagun batek, honi berehala entzungo baitio, bere burua zuritzera jo gabe. Zentzaldia zuhurki behar da egin; jakina, zentzaldia jaso duenak ere jarrera irekia agertu behar du, lagundua izateko. Gutxieneko baldintza hauek gabe, zentzarazpena kontu-garbitze bat bihurtzen da, ezertarako on ez dena.

San Pontziano, 18. *aia santua*, eta San Hipolito
apaiza, martiriak. Felipe Jesusena Munarriz,
dohatsua, eta lagunak, *martiriak*.

[Josue 3,7-10a.11.13-17: *Jaunaren itun-kutxa zuen aurretik sartuko da Jordan ibaian. Sal 113 A: Israel herria irten zenean Egiptotik, Juda gertatu zitzaion jauretxe.*]

† Jesu Kristoren Ebanjelioa San Mateoren liburutik 18,21–19,1.

Aldi hartan, Pedrok Jesusengana hurbildu eta esan zion: «Jauna, nire anaiak huts egiten badit, zenbat aldiz barkatu behar diot? Zazpi aldiz?» Jesusek erantzun zion: «Zazpi aldiz ez, baizik eta zazpitan zazpi hamar aldiz. Horregatik, zeruetako erreinua, morroiekin bere harremanak garbitu nahi izan zituen erregearen antzekoa da. Hasteko, hamar mila talentu zor zizkion bat ekarri zioten. Eta nondik ordaindurik ez baitzuen, nagusiak agindu zuen haren emazte, seme-alaba eta zituen guztiak saltzeko, eta horrela zorrak ordaintzeko. Morroiak, nagusiaren oinetan ahuspezturik, arren eta arren esaten zion: “Emadazu epea, eta dena ordainduko dizut”. Erruki izan zuen nagusiak morroia, askatu zuen eta barkatu zion zorra. Morroi horrek, atera zenean, hor topatzen du, ehun denario zor zizkion bere morroi-lagun bat; leptotik heldu eta, itobeharrez, esan zion: “Ordain iezadazu zor didazuna”. Eta lagunak, haren oinetan ahuspezturik, arren eta arren esaten zion: “Emadazu epea eta dena ordainduko dizut”. Baina besteak ez eta ez; joan eta giltzapean sartu zuen, zorra ordaindu arte. Haren morroi-lagunak, gertatu zena ikusirik, biziro atsekabeturik gelditu ziren, eta nagusiagana joan eta dena salatu zioten. Orduan, nagusiak deitu eta esan zion: “Morroi gaiztoa, zor guztia barkatu dizut, eskatu didazulako; ez al zen bidezkoa, zu ere zeure morroi-lagunaz errukitzea, ni zutaz errukitu nintzen bezala?” Eta nagusiak, haserreturik, zigortzaileen esku utzi zuen, zor guztia ordaindu arte. Zuei ere gauza bera egingo dizue zeruetako nire Aitak, elkarri bihotzez barkatzen ez badiozue»

Jesus, esaldi hauek bukatu ondoren, Galileatik Judea aldera joan zen, Jordan ibaiatz bestaldera.

San Pontziano, 18. aita santua, eta San Hipolito
apaiza, martiriak. Felipe Jesusena Munarriz,
dohatsua, eta lagunak, martiriak.

Bi zordunen parabola ezin argiagoa da. Lehenengoak, berari bost koarto zor dizkion bati ukatzen dion gupida eta errukia eskatzen du beretzat. Barkatze-arazo honetan hartzekodun eta zordun gara beti. Zein neurritz besteak neurtu, neurri beraz zaituzte zu neurtuko.

Neke izaten dugu barkazioa eskatzea eta ematea. Ezer hoberik ez, egunero norberaren erroreak aitortuz ibiltzea baino, eta barkazioa eskatuz kaltea edo atsekabea egin diegunei. Eta, ordainetan, eskuzabal eta kristau-maitasunez barkatuz, gaitz egin diguna lotsarazi gabe. Ez da aski Gure Aita sarritan esatea. Betetzea da egin beharrekoa.

* * *

ZURE GURUTZEAN

(Ignacio Iglesias, s.j.)

Zure gurutzean, Jauna, bi zutabe daude soilik:
gezi bat bezala zerura begira dena,
eta zeure besoen etzaleku duzuna.
Ez da gurutzerik halakorik gabe eta ez da hegan egiterik.
Ez da besarkadarik halakorik gabe.
Besarkatu eta hegan egin,
zaletasunez antsiaka den gizonarenak.
Lur hau besarkatzea
eta neure barnean eramatea.
Irakats iezadazu izaten zure besarkada.
Izaten zure altzo eta bide, zukanantz
itzulian.
Baina ez dadila izan neure bide huts,
baizik barnean asko dituen.
Esadazu nola den maitatzen azkeneraino.
Eta bihur ezazu hegazti badaramadan gurutze hau.
Edota banaramana!
Zeren jada hegan bainoa!

[**Josue 24,1-13:** *Nik hartu nuen Abraham, zuen aita, ibaiaren haranzko aldetik; Egiptotik atera zintuztedan; lurralde bat eman nizuen. Sal 135: Eskerrak Jaunari, ona baita: Haren maitasuna bertikoa baita.*]

† Jesu Kristoren Ebanjelioa San Mateoren liburutik 19,3-12.

Aldi hartan, fariseuak etorri zitzaizkion Jesusi, eta azpikeriaz galdetu zioten: «Zilegi al da nork bere emaztea edozergatik uztea?» Jesusek erantzun zien: «Ez al duzue irakurri Egileak hasieratik giza- seme eta emakume egin zituela, eta esan zuela: “Horregatik gizonak aita-amak utziko ditu, eta bere emaztearekin elkartuko da, eta biak haragi bat izango dira”. Ez dira, beraz, bi haragi, bat baizik. Horrela, bada, Jainkoak batu duena, ez beza gizakiak banatu». Haiek berriz ere galdetu zioten: «Zer dela-eta agindu zuen Moisesek ezkontza delako agiria emateko, emaztea uzten denean?» Erantzun zien: «Zuen bihotz-gogorkeriatik eman zizuen Moisesek zuen emazteak uzteko eskubidea, baina hasieran ez zen horrela. Eta hau diotsuet nik orain: bere emaztea uzten duenak –legez kontrako ezkontza izan ezik– eta beste batekin ezkondu, ezkontza-nahastea egiten du». Ikasleek esan zioten orduan: «Horrelakoa bada gizon-emakumeen arteko auzia, hobe da ez ezkontzea». Jesusek esan zien: «Ez dute guztiek jasotzen hitz hau, dohain hori hartu dutenek baizik. Badira, izan ere, irenak, amaren sabeletik horrela jaiotak, eta badira irenak, bestek irenduak, eta badira irenak, zeruetako erreinuagatik beren burua irendu dutenak. Jaso dezakeenak, jaso dezala».

Emakumea nola defendituko ari da Jesus, edozein arrazoirengatik dibortziatu zitekeen senarren nahikeriatik. Ezkontza-loturaren egonkortasuna nahi du defenditu, ezdeus izatetik nahi du gorde, nor-

Urteko 19. astea.

San Maximiliano Maria Kolbe, *apaiza eta martiria*.

beraren komenientziaz hauskor izatetik nahi du zaindu. Benetako bokazioa behar dela, dio, nola ezkondu, hala zelibe izateko. Norberak bereizi behar du Jainkoaren aurrean, eta seriooki hartu, eta ez kaskarin.

Gaur egun, konpromiso iraunkorrek errezeloz hartzen dira; Jesusek egonkortasuna sostengatzen du. Duda iraunkorrek segurtasun-falta eragiten du, porrotera eta hondamendira eraman zaitzakeena.

§ Apokalipsi liburutik 11,19a; 12,1.3-6a.10ab.

Ireki zen zeruan dagoen Jaungoikoaren etxea, eta haren barruan itun-kutxa agertu zen. Ikuskari handi bat agertu zen zeruan: emakume bat, eguzkiz jantzia eta ilargia oinpeko, eta hamabi izarreko koroa buruan.

Beste ikuskari bat ere agertu zen zeruan: herensuge gorri handi bat; zazpi buru eta hamar adarrekoa, eta buruetan zazpi koroa zituena. Haren isatsak zeruko izarren hirutik bat arrastaka zaraman eta lurrera bota zuen. Herensugea, haurra izateko zegoen emakumearen aurrean gelditu zen, jaio orduko semea irensteko. Emakumeak izan zuen semea, herri guztiak burdin zigorrez zuzenduko dituen semea; seme hori hartu eta Jainkoaren aulkira eramán zuten. Emakumeak, berriz, ihes egin zuen basamortura, Jainkoak prestatutako leku batera. Eta oihu handi bat entzun nuen zerutik: «Orain etorri da salbamena, gure Jainkoaren indarra eta erregetza, eta haren Kristoren ahalmena».

[Sal 44: *Erregina, Ofirko urrez apaindurik, zure eskuinean dago zutik.*]

§ Paulo apostoluak 1 korintoarrei 15,20-26.

Senideok: Piztu da Kristo hildakoen artetik, lo daudenen lehen fruitu bezala. Izan ere, gizon baten bidez etorri bazen heriotza, gizon baten bidez etorri da hildakoen piztuera ere. Adamengan guztiak heriotza duten bezala, Kristorengan bizia izango dute guztiak. Baina bakoitzak bere mailan: aurrena Kristok, lehen fruitu bezala; gero, kristau guztiak, hura berriz etortzean. Ondoren, azkenekoe, Kristok Jainko Aitari erreinua itzuliko dioenean, ahalmen, aginte eta indar guztiak ezereztu ondoren.

Berak izan behar baitu erregetza, Jainkoak etsai guztiak haren oinazpian ipini arte. Heriotza izango da azkenik ezereztuko den etsaia; izan ere, guztiak haren oinazpian ezarri ditu.

Urteko 19. astea.

ANDRE MARIAREN ZERURATZEA.

San Tarsizio, *martiria*.

† Jesu Kristoren Ebanjelioa San Lukasen liburutik 1,39-56.

Aldi hartan, Maria jaiki eta bizi-bizi mendi aldera joan zen, Judeako herri batera; Zakariasenean sartu, eta Elisabeti agur egin zion. Elisabeti, Mariaren agurra entzun orduko, jauzi egin zion haurrak sabelean. Elisabet Espiritu Santuaz bete zen eta esan zuen oihu handiz: «Bedeinkatua zu emakumeen artean, eta bedeinkatua zure sabeleko fruitua. Nondik niri, nire Jaunaren ama nigana etortzea? Zure agurra nire belarrietara iritsi orduko, jauzi egin dit haurrak pozez sabelean. Zorionekoa zu, sinetsi duzulako, beteko baitu Jaunak esan dizuna!» Orduan Mariak esan zuen: «Handiesten du nire arimak Jauna, / pozaren pozez daukat neure barrua; / Jainkoa baita nire salbamena, / ikusi baitu mirabe honen ezereztasuna. / Dohatsu deituko naute gaurdanik gizaldi guztiek, / handiak egin baitizkit Ahalguztidunak: / Santua da haren izena, / eta haren errukia gizaldiz gizaldi, / beldur diotenengana. / Bere besoaren indarra erabili du, / buru-harroak suntsitu ditu; / bota ditu beren aulkitik handikiak, / eta gora jaso ditu ezerezak; / ondasunez bete ditu gose zeudenak, / eta esku-hutsik bidali asko zutenak. / Bere gain hartu du Israel, bere morroia, / errukia gogora zaiola; / gure gurasoei hala zien hitzemanan, / Abrahami eta ondorengoei betiko esana». Hiru hilabete inguru egon zen Maria Elisabetekin, eta gero etxera joan zen.

Bi andreek elkar agurtu dute eta pozez bete dira. Bi fededun dira, beren konfiantza Jainkoagan jarria dute eta amatasuna jaso dute sari, beti miraria eta erregalua den amatasuna. Miraria, zeren, teknika ugalkorrek aurreratze handia egin badute ere, misterio handia baita nolatan bihurtzen den gurasoengandik aparte biziko den pertsona bi zelulek eratu duten izaki berri bat. Ez da poesia merke bat. Misterio eder bat da, korronte ideologiko batek ukatua, izaki txiki hori ez dela

ezer deklaratur edo bere baitan daraman emakumearen apetaren esku utziz.

Eta erregalu bat, zeren bizitza berria beti baita promes bat eta esperantza bat, egunez egun gauzatur doana, lehenik amaren sabelean, ondoren bizitza bereizi batean, gurasoentzat ondasun askoren kausa izaten delarik. Amatasunaren/aitatasunaren esperientziak aberastu egiten du pertsona, beste pertsona batengatik era doakoan jarduteko modua da eta, horrela, besteengana irekirik bizitzeko eskola.

Elisabetek eta Mariak profetetan azkena eta espero zuten Mesias eman zizkioten munduari. Ba al da hau baino laudorio hoberik emakumearentzat eta amatasunarentzat? Horren ondorioa da Maria zerura eramana izana. Hori sinesten dugu kristauok Maria amatzat hartzen eta ohoratzen dugunean.

AGUR, MARIA
(*Joan Paulo II.a*)

Agur, Maria, Andre apala, Goi-goikoak bedeinkatua! Esperantzaren Birjina, aldi berrien profetia, zure gorespen-kantuan zurekin bat nahi dugu egin, Jaunaren errukia ospatzeko.

Agur, Maria, Jaunaren zerbitzari apala, Kristoren Ama aintzatsua! Birjina leiala, Hitzaren egoitza santua, erakutsiezaguzu Hitza entzuteari emanik bizitzen, Espiritu Santuaren ahotsari esaneko izaten, haren deiari adi egonez kontzientziaren hondo-hondoan eta haren agerpenei historiako gertakizunetan.

Agur, Maria, doloretako Andrea, bizidunen Ama! Birjina Emaztea Gurutzearen oinean, Eva berria, izan zaitez gure gidaria munduko bideetan, irakatsiezaguzu bizitzen eta zabaltzen Kristoren Maitasuna, zurekin batean begira gelditzen zenbatu ezineko gurutzeen oinean, zeinetan gurutzeraturik baitago oraino ere zure Semea.

Urteko 19. astea.**ANDRE MARIAREN ZERURATZEA.**San Tarsizio, *martiria*.

Agur, Maria, fede Andrea, lehena ikasleen artean! Birjina Elizaren Ama, lagundu gaitzazu geure baitan dugun esperantzaren berri ematen, gizakiaren ontasunean eta Aitaren Maitasunean ustea izanik. Irakatsiezaguzu mundua barrutik eraikitzen: isiltasunaren eta otoitzaren sakonean, anai-arreba arteko maitasunaren pozean, Gurutzeak duen beste ezerk ez bezalako emankortasunean.

Maria santua, fededunen Ama, Lourdesko gure Ama, otoitz egizu gure alde.

Urteko 20. astea.

San Esteban Hungariakoa, *erregea*.San Roke, *martiria*.

§ Esaera Zaharrak liburutik 9,1-6.

Jakinduriak etxea eraiki du beretzat, eta zazpi zutabe ipini dizkio. Haragitakoak hil ditu, ardoa prestatu eta mahaia jarri du. Bere zerbitzariak bidali ditu, herri-goietatik deiadar hau egitera: «Ikasi gabeak betoz hona; zentzugabeei esaten diet: Zatozte eta jan nire ogitik; edan prestatu dudan ardotik. Utzi umekeriak, eta biziko zarete; ibil zaitezte zentzu-bidetik».

[Sal 33: *Txasta ezazue eta ikus zein samur den Jauna.*]

§ Paulo apostoluak efesoarrei 5,15-20.

Senideok: Begira ondo nola zabiltzaten; ez izan zentzugabe, zentzudun baizik. Ondo balia zaitezte egokieraz, egun txarrak baitaiz. Horregatik, ez izan ergelak, baizik kontura zaitezte, Jaunak zer nahi duen. Ez zaitez tala ardoz mozkortu, lasaikeria berekin du-eta; baizik bete zaitezte Espirituaz. Esan itzazue elkarrekin salmoak, gorazarreak eta goi-arnasazko abestiak; kanta iezaiozue eta eman ospe bihotz-bihotzez Jaunari. Eman beti eskerrak guztiengatik Jaungoiko Aitari, Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez.

† Jesu Kristoren Ebanjelioa San Joanen liburutik 6,51-58.

Aldi hartan, Jesusek esan zion jende-taldeari: «Ni naiz ogi bizia, zerutik jaitsia. Ogi honetatik jaten duena betiko biziko da, eta nik emango dudan ogia nire haragia da munduaren bizirako». Juduak eztabaidan ari ziren: «Nolatan eman diezaguke honek jatera bere haragia?» Eta Jesusek: «Egi-egiaz diotsuet: Gizonaren Semearen haragia ez baduzue jaten eta haren odola edaten, ez duzue izango bizirik zeungan. Nire haragia jaten duenak eta nire odola edaten, badu betiko bizia, eta nik piztuko dut hura azken egunean. Nire haragia egiazko janaria da, eta nire odola egiazko edaria. Nire haragia

Urteko 20. astea.San Esteban Hungariakoa, *erregea*.San Roke, *martiria*.

jaten duena eta nire odola edaten nigan dago eta ni harengan. Bizi den Aitak bidali nau, eta ni Aitagandik bizi naiz; era berean, ni jaten nauena nigandik biziko da. Hau da zerutik jaitsitako ogia; ez zuen gurasoena bezalakoa; jan eta hil egiten baitziren haiek. Ogi honetatik jaten duena betiko biziko da».

Ekar dezagun gogora zein testuingurutan esan dituen Jesusek hitz hauek. Jesusen garaikideentzat, «jaten duzunetik duzu sortzen». Janarien garbitasunaz juduek dituzten arauak uste honetan dute beren jatorria: janari lohiak lohi bihurtzen du jaten duen jendea. Jesus gure haragi bihurtzen da. Nigan du bizilekua. Kristorekin bat egiten naiz.

Judentzat, bizia da odola. Izaki biziaren arimak odolean du bere egoitza. Hargatik, «bere bizia edatera» gonbidatzen gaitu Jesusek, «bere arima irenstera», berarekin bat egitera. Berari uztera, bera izan dadin gure arima; berari uztera, «gure jabe izan dadin».

Animalia baten odola isurtzeak, Jainkoari erregalu egiteko, Adiskidetasun Ituna berritzea esan nahi zuen juduentzat. Orain, Jesusen odola bera isurtzen da, itun berri bat zigilatzeke; ez da, ordea, kontratu-harreman bat, baizik gizakiak Jainkoarekin egiten duen famili harreman bat. Haren seme-alaba gara. Seme-alaba izatearen itun hori, Jesusen odolarekin izenpetzen edo zigilatzen da.

Beraz, Jainkoarekin bizitzera deituak gara, geure izatearen barruenean harekin adiskidetasun biziz bizitzera. Horrenbestez, egogun lekua geure bihotzean. Uzten badiogu, Espirituak «bere» egingo gaitu.

Urteko 20. astea.

Santa Beatriz Silvakoa, *fundatzailea (Kontzepzionista Frantziskotarrak)*. San Eusebio, *aita santua*.

[Epaileak 2,11-19: *Jaunak epaileak sortu zituen, baina haien esanak ere ez zituzten egiten. Sal 105: Oroit zaitez gutaz, Jauna, herri honi diozun maitasunaz.*]

† Jesu Kristoren Ebanjelioa San Mateoren liburutik 19,16-22.

Aldi hartan, gazte bat Jesusi hurbildu eta esan zion: «Maisu, zer onik egin behar dut, betiko bizia iristeko?» Jesusek erantzun zion: «Zergatik galdetzen didazu niri, zer den on? Jainkoa bakarrik da ona. Eta betiko bizian sartu nahi baduzu, bete aginduak». Hark, berriz: «Zer agindu?» Eta Jesusek: «Ez duzu inor hilko, ez duzu ezkontza-nahasterik egingo, ez duzu lapurtuko, ez duzu gezurrezko testigantzarik egingo, aintzat eduki aita eta ama, maita ezazu lagun hurkoa zeure burua bezala». Orduan, gazteak erantzun zion: «Horiek guztiak bete ditut. Zer besterik gelditzen zait?» Eta Jesusek: «On-ona izan nahi baduzu, zoaz, saldu dituzunak, eta eman behartsuei, eta izango duzu gordailu bat zeruan, eta gero zatoz eta jarrai niri». Hitz hauek entzundakoan, gaztea nahigabeturik joan zen, ondasun askoren jabe baitzen.

«Azkeneraino iristeko» Jesusek egin dion /digun proposamenak, segurtasun materialik gabe bizitzea eskatzen du. Ebanjelioko gazteak manamenduak betetzen ditu; baina, zerbait gehiago egin nahi du; halere, Jesusek proposatu dionari muzin egin eta alde egin du, «aberatsa baitzen».

Zaila da zerupe gorrian bizitzea, auskalo zein den Jainkoaren borondatea, haren arduraz fidaturik bada ere, pobretuen zoria biziz. Bide zorrotz hau jarraitzen dutenek ez dute aldatu nahi ezergatik, eskerrak demazkiote Jainkoari hautatu dituelako, eta pozik gainezka bizi dira. Ostera, ebanjelioko gazte aberats horrek, bere aberastasunek eskaintzen dizkieten plazerez gozaten duen horrek, ez du izango diruak ematen duena baino askotxo biziagoa den beste poz hau.

Urteko 20. astea.

San Agapito, *martiria*. Santa Juliana, *martiria*.
San Alberto Hurtado, *apaiza*.

[Epaileak 6,11-24a: *Gedeon, aska esazu Israel, nik bidaltzen zaitut!* Sal 84: *Bakezkoa da Jaunaren hitza bere herriarentzat.*]

† Jesu Kristoren Ebanjelioa San Mateoren liburutik 19,23-30.

Aldi hartan, Jesusek esan zien ikasleei: «Benetan diotsuet: aberatsa nekez sartuko da zeruetako erreinuan. Bai, errazago da gamelu bat jostorraz-begitik pasatzea, aberats bat zeruetako erreinuan sartzea baino». Hori entzutean, zeharo harriturik, hau zioten ikasleek: «Nor salba daiteke orduan?» Jesusek, begira-begira, esan zien: «Gizakiarentzat ezinezkoa da hori; Jainkoak, ordea, guztia dezake». Orduan Pedrok esan zion: «Hara, gauza guztiak utzi ditugu guk, zurekin joateko. Zer izango da guretzat?» Jesusek erantzun zien: «Benetan diotsuet: gauza guztien eraberritzea etorriko denean, eta Gizonaren Semea bere aintza-aulkian eseriko denean, zuek ere, nirekin etorri zaretenok, hamabi aulkitan eseriko zarete, Israelgo hamabi leinuak epaitzeko. Eta nigatik etxea, edota anai-arrebak, aita-amak nahiz haurrak edota lurak uzten dituenak, ehun halako jasoko du, eta betiko bizia izango. Lehenengo asko azkeneko izango dira, eta azkeneko asko lehenengo».

Alberto Hurtado Txilen jaio zen 1901ean. Abokatu graduatu ondoren, Jesusen Lagundian sartu zen 1923an. Argentinan, Espainian (Burgosko Oña-n) eta Belgikan egin zituen ikasketak. Hamar urte geroago ordenatu zuten apaiz, 1933an. Irakasle izan zen eta lan handia egin zuen defaboratuen alde. Kristoren Supazterra fundatu zuen arriskuan ziren haurrak biltzeko, baita Txileko Asoziazio Sindikal eta Ekonomikoa ere. Abian jarri zuen Mensaje aldizkaria. Bere jarduera apostoliko, heziketazko, karitatezko eta soziala Kristori eta pobreei zien maitasun biziari zerion. Hil, 1952an hil zen, eta Benedikto XVI.ak kanonizatu zuen 2005ean.

San Joan Eudes, *apaiza, fundatzailea (eudistak).*

Ezekiel Moreno Santua, *gotzaina (Iruñeko eta*

Tuterako elizbarrutietan).

[Epaileak 9,6-15: *Esaten ari zarete: «Errege bat izan bedi gure artean», eta Jauna izaki zuen erregea. Sal 20: Jauna, zure indarrez pozten da erregea.]*

† Jesu Kristoren Ebanjelioa San Mateoren liburutik 20,1-16a.

Aldi hartan, Jesusek parabola hau esan zien ikasleei: «Zeruetako erreinua, goizean goiz bere mahastirako langile bila atera zen etxeko jaunaren antzekoa da. Eguneko denario batean hizketatu ondoren, bere mahastira bidali zituen. Atera zen berriro goizerdi aldera, eta beste batzuk ikusi zituen herriko enparantzan egonean zeudela, eta esan zien: “Zoazte zuek ere nire mahastira, eta emango dizuet bidezko dena”. Eta haiek ere joan ziren. Atera zen berriz ere eguerdi inguruan eta arratsalde erdian, eta gauza bera egin zuen. Arratsalde beranduan atera zenean, beste batzuk aurkitu zituen, artean geldi zeudela. Eta esan zien: “Zertan zaudete hemen egun osoan geldi?” Haiek esan zioten: “Ez baikaitu inork hartu lanerako”. Etxeko jaunak orduan: “Zoazte zuek ere nire mahastira”. Iluntzean mahasti-jabeak esan zion bere morroi-buruari: “Deitu langileei, eta emaitza bakoitzari bere saria, azkenekoetatik hasi eta aurrekoetara”. Etorri ziren, bada, arratsalde berandukoak, eta denario bana hartu zuten. Lehenengoek, etorri zirenean, gehiago hartuko zutelara uste zuten, baina haiek ere denario bana hartu zuten. Eta marmarrean hasi ziren etxeko jaunaren kontra, esanez: “Azken horiek ordu bat besterik ez dute lan egin, eta gure pareko egin dituzu, egun guztiko nekea eta beroa jasan ditugunon pareko”. Baina etxeko jaunak erantzun zion haietako bati: “Adiskide, ez dizut bidegabekeriarik egin. Ez al ginen eguneko denario batean hizketatu? Har ezazu zeurea duzuna, eta zoaz. Azkeneko honi ere, ordea, zuri adina eman nahi diot. Ez al zait niri zilegi, nahi dudana egitea neure gauzetan? Edo bekaizti izan behar al duzu zuk, ni eskuzabala naizelako?” Horrela, bada, azkenekoak lehenengo izango dira, eta lehenengoak azkeneko».

San Joan Eudes, *apaiza, fundatzailea (eudistak)*.

Ezekiel Moreno Santua, *gotzaina (Iruñeko eta*

Tuterako elizbarrutietan).

Gaur ere ordaintzen zaie diru-laguntza langabeei. Beraz, egun osoan lan egiteko goiz jaiki behar izaten dutenak kexatzen ahal lirarteke, lanik egiten ez dutenei ere ordaintzen zaielako, baina badakigu ordaintze hori ez dela zuzengabekeria. Gainera, Jaunaren mahastiko lanaz ari gara hemen. Hor lan egitea pribilegio bat da, eta ez zama astun bat. Jaunaren zerbitzari izatea errege / erregina izatea da. Lan egitean, hartua dugu jada bateko ehun. Nolatan inbidia izan, zorte hori izan ez duten eta bizitza hutsala eta zentzurik gabea egin dute-nez? Ez dugu zertan atsekabetu, azkenean Jauna haietaz ere errukitu eta betiko bizira onartu dituelako.

* * *

KRISTOREN ARIMA (anonimoa, XVI. mendea)

Kristoren arima, santu egin nazazu.

Kristoren gorputza, senda nazazu.

Kristoren odola, birbiztu nazazu.

Kristoren saihetseko ura, garbi nazazu.

Kristoren nekaldia, indartu nazazu.

Oi Jesus ona, entzun nazazu.

Zeure zaurietan gorde nazazu.

Zugandik alde egiten ez utzi niri.

Infernuko etsaiengandik libra nazazu.

Heriotzako orduan deitu nazazu,

eta joanarazi nazazu zugana,

zure santuekin batean

mendez mende gorets zaitzadan. Amen.

[Epaileak 11,29-39a: *Nire etxetik bidera aterako zaidan lehenengo Jaunarentzat izango da, eta erre-opari eskainiko dut. Sal 39: Hemen nauzu, Jauna, zure nahia egin dezadan.*]

† Jesu Kristoren Ebanjelioa San Mateoren liburutik 22,1-14.

Aldi hartan, Jesusek, berriz ere parabolatan, esan zien apaizburu eta herriko zaharrei: «Zeruetako erreinua bere semearen ezteiak ospatu zituen errege baten antzekoa da. Bidali zituen morroiak, ezteietarako deituei hots egitera, baina haiek ez zuten etorri nahi izan. Berriz ere bidali zituen beste morroi batzuk, esanez: “Esaiezue deituei: prest dut neure jai-otordua, zekorrak eta haragitako gizenduak hilak ditut, eta dena prest dago, zatozte ezteietara”. Haiek, ordea, ez zuten zuzen erantzuten, eta bata bere lurretara joan zen, bestea bere salerosketara, gainerakoek morroiei heldu, gaizki erabili eta hil egin zituzten. Haserretu zen erregea, eta bere guda-mutilak bidali zituen, hiltzaile haiek galtzera eta haien herriari su ematera. Gero, honela mintzatu zitzaion bere morroiei: “Ezteiak prest dira, baina deituek ez zuten merezi. Zoazte, beraz, bidegurutzeetara, eta aurkituko dituzuen guztiei dei egiezue ezteietara”. Atera ziren morroiak bideetara, eta bildu zituzten aurkitutako guztiak, on eta gaizto. Eta bete zen bazkaldarrez eztei-lekua. Sartu zen erregea bazkaldarrak ikustera, eta eztei-jantzirik gabeko bat ikusi zuen han. Eta esan zion: “Adiskide, nolatan sartu zara hemen eztei-jantzirik gabe?” Eta hark hitzik ez. Erregeak orduan esan zien zerbitzariei: “Eskuoinak loturik, bota ezazue kanpoko ilunpera. Han izango da negarra eta hortz-karraska!” Askok baitira deituak; baina gutxi aukeratuak».

Urteko 20. astea.

San Bernardo, *abadea eta eliz irakaslea.*San Samuel, *Israelen epailea eta profeta.*

Zenbat hitzordu eskaini dizkidazun, Jauna, eta ni joan ez!

Zure zenbat deiri egiten diedan ezentzuna, zure zenbat gonbiti kasurik ez nik! Egunez egun, une eta leku guztietan, etengabeko elkarrizketa nahi duzu nirekin egin, baina nik telefonoa eteteko inolako erreparorik gabe. Ordu eta egun osoak egiten ditut zutaz oroitu gabe, bidaltzen dizkidazun seinale errepikatuei kasurik egin gabe.

Jauna, iraunkorra da zure maitasuna; nirea, berriz, etenkorra. Bizitzako zereginetik eta plazerek zabarturik, zutaz ahazturik nabil. Damu dut, Jauna, hain esker txarrekoa izana, errepika eta errepika ari zaren Maitasun horrekiko hain esker txarreko.

* * *

NIRE GOGOA DAGOENETIK

(José Luis Blanco Vega)

Nire gogoia dagoenetik
zureari emana,
ezagutzen dut
askatasun hobenaren neurria.
Zatoz, Jauna, eta hartu
nire aukeramenaren hedeak;
zure eskuaz naiz fidatzen
eta zure eskuetan dut uzten neure burua,
ezer gutxi baita uzten dudana
ni zurea banaiz eta zu nirea.

Giza maitasunaren maitasunaz
jainkozko maitasunak nau erretzen.
Bidea da santutasuna,
nigandik lagun hurkoagana doan bidea.
Eskua luzatu gabe nintzaion eman
faborea lortzeko;
osasun eta oinaze,
guztiei nintzaion eman,
eta halako moduan,
non heriotzak harrapatu bainau
maitasuna ez beste ezer gabe. Amen.

Urteko 20. astea.San Pio X.a, 257. *aita santua.*San Bonoso eta San Masimiano, *martiriak.*

[Rut 1,1.3-6.14b-16.22: *Itzuli zen Noemi, eta harekin batean Rut moabtarra, eta Betleemera iritsi ziren. Sal 145: Goretzazu Jauna, ene barnea.*]

Jesu Kristoren Ebanjelioa San Mateoren liburutik 22,34-40.

Aldi hartan, Jesusek saduzearrak hitzik gabe utzi zituela jakitean, fariseuak elkarrekin bildu ziren, eta haien arteko lege-gizon batek galdetu zion Jesusi azpikeriaz: «Maisu, zein da legeko agindurik nagusiena?» Jesusek erantzun: «*Maita ezazu Jauna, zeure Jainkoa, bihotz-bihotzez, gogo osoz eta adimen guztiz. Hori da agindurik nagusiena eta lehena. Eta bigarrena, ez garrantzi gutxiagokoa, hauxe da: Maitatu lagun hurkoa zeure burua bezala.* Bi agindu hauetan oinarritzen dira Liburu Santu guztiak.

Judaismoaren eta kristautasunaren ezaugarri apartekoenetako da: maitatua izatea eskatzen digula Jainkoak, opariekin eta limosnekin gurtua, ohoratua edo baretua izatea baino gehiago. Bere kreaioa eta bere sorkariak maite dituen Jainkoa da gurea, berak gurekin egiten duena guk besteei egitea eskatzen diguna. Alabaina, kristauok, Historiako une askotan, juxtu horren kontrakoa egin izan dugu: hil, harrapatu, esklabo bihurtu, tiranizatu, erbesteratu... Jainkoaren ize-nean! Barka diezagula Jainkoak bere izenaz baliatu izana halako krimenak zuritzeko!

Urteko 20. astea.

Andre Maria Birjina Erregina.

San Fabrizio eta san Filiberto, *martiriak*.

[Andre Mariarena: Isaias 9,2-4.6-7. Sal 112,1-2.3-4.5-6.7-8. Jesu Kristoren Ebanjelioa Lukas 1,26-38.]

[Rut 2,1-3.8-11; 4,13-17: *Jaunak ez zaitu utzi nahi izan ondo-rengorik gabe. Hau (Obed, Boozen eta Ruten semea) Jeseren aita izan zen, Daviden aitaren aita. Sal 127: Hala izango da bedeinkatua gizakia, Jaunari beldur diona.*]

† Jesu Kristoren Ebanjelioa San Mateoren liburutik 23,1-12.

Aldi hartan, Jesus honela mintzatu zitzaizen gizataldeari eta ikasleei: «Lege-maisuak eta fariseuak Moisesen maisu-aulkian eseri dira. Egizue, beraz, eta bete, haiek esandako guztia, baina ez egin haiek egiten dutenik; esan, esaten baitute, baina egin ez. Zama astun eta ezin eraman halakoak egiten dituzte, eta besteren bizkarrean jarri; berek, ordea, hatz batez ere heldu ez. Egiten duten guztia jendeak ikusteagatik egiten dute; larrutxa zabalak erabiltzen dituzte bekokian, eta borlatxo luzeak soinekoetan. Afarrietan lehenengo jarlekuak, eta sinagogetan aurreneko aulkiak nahi izaten dituzte, eta enparantzetan agurrak, eta jendeak “maisua” deitzea. Zuek, ordea, ez utzi inori “maisua” izenik zuei ematen, bakarra baita zuen maisua, eta zuek guztiok elkarren senide zarete. Eta zuen artean ez eman inori “aita” izenik lur gainean, bakarra baita zuen Aita: zerukoa. Ez eman zeuen buruari “zuzendari” izenik, bakarra baita zuen zuzendaria: Kristo. Zuetan handiena izan bedi zuen zerbitzari. Bere burua goratzen duena behekatua izango da, eta bere burua behertzen duena goratua».

Gauza bat da predikatzea, beste bat irina ematea, dio esaera zahar batek. Kristori jarraitzen leialago eta zorrotzago izan beharko

Urteko 20. astea.

Andre Maria Birjina Erregina.

San Fabrizio eta san Filiberto, *martiriak*.

genukeenok, Ebanjelioa geure hitzez eta bizieraz hots egiteko misioa dugunok (hau da, guztiok) gai izaten gara Jesusen bidea oztopo-pista bihurtzeko, lehenengoak geu garelarik hari izkina egiteko. Zenbat garen besteei soiltasuna predikatu baina geuk gurari guztiak betetzen ditugunak; behartsuez hitz egin, bai, baina eskua luzatzen ez diegunak; besteei aginduak betetzea eskatu eta geuk komeni bezala hartzen ditugunak.

Jauna, barka iezaguzu; lotsagabe hutsak gara.

Santa Arrosa Lima-koa, *birjina*. San Joan Leskar-ekoa, *gotzaina* (*Baionako elizbarrutian*). San Zakeo Jerusalemekoa, *gotzaina*.

§ Josueren liburutik 24,1-2a.15-17-28b

Egun haietan, bildu zituen Josuek Israelgo leinu guztiak Sikemen, deitu zituen Israelgo zahar, nagusi, epaile eta arduradun guztiak, Jaunaren aurrean aurkeztu zitezen, eta Josue honela mintzatu zitzaion herri osoari: «Jauna zerbitzatzea gaizki iruditzen bazaizue, aukeratu gaur zeuek nor zerbitzatu: zuen arbasoek ibaiatz beste aldean zerbitzatu zituzten jainkoak hala, amortarren lurtean zaudetenez gero, amortarren jainkoak; nik eta nire seme-alabek Jauna zerbitzatu dugu». Herriak erantzun zuen: «Urrun gugandik Jauna uztea, beste jainkoak zerbitzatzeko! Jauna, gure Jaungoikoa, baita Egiptoko morrontzatik gu eta gure arbasoak atera gintuena, gure begietan halako mirari handiak egin zituena, eta ibili garen bide guztietan eta igaro ditugun herri guztietan zaindu gaituena. Guk, beraz, Jauna zerbitzatu dugu, hura da-eta gure Jaungoikoa».

[Sal 33: *Txasta ezazue eta ikus zein samur den Jauna.*]

§ Paulo apostoluak efesoarrei 5,21-32.

Senideok: Izan zaitzete elkarren menpeko, Kristoren beldurrean. Emazteak egon bitez beren senarren mende, Jaunaren mende bezala: senarra baita emaztearen buru, Kristo Elizaren buru den bezala, eta Kristo gorputzaren Salbatzaile. Beraz, Eliza Kristori menperaturik dagokion bezala, horrela emazteak ere beren senarrei gauza guztietan. Senarrok, maita itzazue zuen emazteak, Kristok Eliza maite duen bezala; hark bere burua Elizarengatik eman zuen, hau santu egiteko, urrezko bataioz eta hitzez garbiturik, distiratsu aurkezteko Eliza bere aurrean, zikin eta zimurrik edo ezer horrelakorik gabe, santu eta errugabe baizik. Senarrek ere hala maitatu behar dituzte beren emazteak, beren gorputz dituztenez. Emaztea maite duenak, bere burura maite du. Inork ez dio inoiz bere gorputzari gorrotorik izan, jana eman eta zaindu egiten du, Kristok bere Eliza bezala, bere gorputzaren atal baikaitu. «Horregatik gizonak aita-amak utziko

Santa Arrosa Lima-koa, *birjina*. San Joan Leskar-ekoa, *gotzaina (Baionako elizbarrutian)*. San Zakeo Jerusalemekoa, *gotzaina*.

ditu, eta bere emaztearekin elkartuko da, eta biak haragi bat izango dira». Misterio handia da hau: Kristori eta Elizari buruz esaten dut.

† Jesu Kristoren Ebanjelioa San Joanen liburutik 6,60-69.

Aldi hartan, Jesusen ikasleetako askok zioen: «Gogorra da mintzaera hau. Nork adi dezake?» Jesusek, bere baitan ezaguturik ikasleak beragatik marmarrean ari zirela, esan zien: «Erorbide al zaizue hori? Eta Gizonaren Semea lehen zegoen tokira igotzen ikusiko bazenute, orduan zer? Espiritua da bizi-emailea, haragia ez da ezertako. Nik esan dizkizuedan hitzak espiritu eta bizi dira. Hala ere, badira zuen artean, sinesten ez duten batzuk». Izan ere, bazekien Jesusek, hasieratik, nor ziren sinesten ez zutenak, eta nor zen bera salduko zuena. Eta esan zien: «Horregatik esan dizuet, inor ez datorkeela nigana, Aitak hori ematen ez badio». Ordutik, haren ikasle askok atzera egin zuen, eta ez zuen harekin ibili nahi. Jesusek orduan esan zien Hamabiei: «Zuek ere alde egin nahi al duzue?» Simon Pedrok erantzun zion: «Jauna, norengana joango gara? Zuk dituzu betiko biziaren hitzak. Guk sinesten dugu eta badakigu zu zarela Jainkoaren Santua».

Jesusek halako aginpidez eta konbentzimenduz hitz egiten zuen, non bihotza sutan jartzen baitzuen eta esperantzarako irekitzen. Txunditu, liluratu, xarmatu egiten zuen. Hasiera batean, jende askok nahi izan zuen haren jende arteko izan, haren bidelagun zirenen arteko izan, hark eramane nahi zituen lekura joateko (hura errege egin nahi izateraino iritsi ziren), baina Jesusek mihia askatu eta mundua askatzeko Jainkoak aukeratu duen bidea adierazi zienean, atzera egin zuten gehienek. Hamabien izenean, Pedrok desegin ditu duda guztiak. Jesusi entzun ondoren, ikasleak ezin apartatu ditu harengandik, ez inork, ez ezerk. Zeure egiten ahal dituzu Pedroren hitzak? Benetan sinesten eta jartzen al duzu esperantza Jesusengan?, saldukeria eta leialtasun-falta guztiei uko ginez? Hartaraino maite al duzu?

§ Apokalipsi liburutik 21,9b-14.

Aingeruak esan zidan: «Zatoz, andregaiak erakutsiko dizut, Bildotsaren emaztea». Hartu ninduen aingeruak, eta espirituz mendi handi goi batera eraman ninduen, eta Jerusalem hiri santua erakutsi zidan, zerutik Jainkoagandik jaisten, Jainkoaren aintza berekin zuela. Haren distira harri bitxi baten antzekoa zen, kristal argizko jaspeharriaren antzekoa. Harresi handi eta goi bat zuen, hamabi aterekin, eta ateetan hamabi aingeru eta hamabi izen idatzita: israeldarren leinuen izenak. Sortaldean hiru ate, iparraldean hiru ate, hegoaldean hiru ate, eta sartaldean hiru ate. Hiriaren harresiak hamabi oinarri zituen, eta hauetan hamabi izen: Bildotsaren hamabi apostoluenak.

[Sal 144: *Ezagutarazi dezatela zure zintzoek, Jauna, zure erregetzaren bikaintasuna.*]

† Jesu Kristoren Ebanjelioa San Joanen liburutik 1,45-51.

Aldi hartan, Felipek Natanael aurkitu eta esan zion: «Moisesek Legean eta Profetek aipatu zutena aurkitu dugu: Jesus, Joserren semea, nazaretarra». Natanaelek erantzun: «Nazaretetik atera ote daiteke ezer onik?» Eta Felipek: «Zatoz eta ikus». Jesusek Natanael beregana etortzen ikusi eta esan zion: «Hona hemen egiazko israeldarra, azpikeriarik gabea». Natanaelek esan zion: «Nondik ezagutzen nauzu?» Jesusek erantzun: «Felipek zuri dei egin baino lehen, pikupean zeundela ikusi zintudan». Natanaelek erantzun: «Rabbi, Jainkoaren Semea zara zu, Israelgo Erregea zara zu». Jesusek erantzun: «Pikupean ikusi zintudala esan dizudalako, sinesten al duzu? Hori baino handiagorik ikusiko duzu». Esan zion gainera: «Hara nik egia esan: Zerua zabalik ikusiko duzue, eta Jainkoaren aingeruak gora eta behe-
ra, Gizonaren Semearen gainean».

Urteko 21. astea.

SAN BARTOLOME, APOSTOLUA.

Zer ari zen Natanael, Bartolome deitzen diogun hura, pikupean? Karitateko egintza bat? Ez dakigu; inondik ere, ordea, isilpean gorde nahi zituen momentu eta leku haiek Jesusek aipatu izanak aldatu egin zuen Natanaelen jarrera: guztiz desegin zen haren bihotzean nazaretar harekiko zituen errezeloak; hala prestatu zen Natanael, bera baino lehenagoko jarraitzaileek bezala, Jesus hura juduek espero zuten mesiastzat onartzeko.

Jende-mota guztiekin izaten zuen Jesusek tratua: zintzo eta bekatari, aberats eta pobre; halere, azken hauei eskaintzen zien bere lehentasuna. Gonbidatu zuenaren etxean eseri zen bazkaltzeko; are gehiago, Zakeoren kasuan, berak gonbidatu zuen bere burua haren etxera joateko.

Bere mahaian esertzera gonbidatzen nau beti.

San Luis Frantziakoa, *erregea*. San Jose Calasanz, *apaiza, fundatzailea (eskolapioak)*.

[1 Tesalonikarrei 2,1-8: *Ez Ebanjelioa bakarrik, geure bizia ere zuei emateko prest ginen. Sal 138: Jauna, zuk aztertzen nauzu eta zuk ezagutzen.*]

† Jesu Kristoren Ebanjelioa San Mateoren liburutik 23,23-26.

Aldi hartan, Jesus honela mintzatu zen: «Zoritxarrekoak zuek, lege-maisu eta fariseu itxurazaleok! Menda eta anisa eta kumino bellarren hamarrenak ematen dituzue, baina bazterrera uzten Legean beharrezkoenak: zuzentasuna, errukia eta leialtasuna. Hau zen egin beharrekoa, beste haiek bazterrera utzi gabe. Gidariitsuak! Eulitxoa iragazi eta gamelua irensten duzue. Zoritxarrekoak zuek, lege-maisu eta fariseu itxurazaleok! Edateko eta jateko ontziak kanpotik garbitzen dituzue, baina barnea lapurretaz eta neurrigabekeriak betirik dira. Fariseu itsua! Garbi ezazu lehenik edalontzien barnea, eta kanpokoa ere garbi geldituko da».

Belar aromatiko horien hamarrena huskeria bat da. Zuzentasunaz, gupidaz eta egiazaletasunaz ahaztea, berriz, egundokoa. Diru-gosea eta lizunkeria ezkutatzea, bestalde, berebiziko hipokresia da. Norberaren egintzen bidez zuzenetsia edo zuzentzat emana dela pentsatzen duenaren harrokeriaren eta faltsukeriaren kontra jo du Jesus; izan ere, Jainkoaren errukia da zuzenesten edo zuzen egiten gaituena. Uste faltsu hori Jainkoa funtzionariotzat hartzea da, zeruko aintza lortzeko erosi dezakezun funtzionariotzat hartzea, alegia. Alabaina, Jainkoa ez dago zure gauzen zain, zure bihotza nahi du. Gugatik gainezka agertu duen maitasunari, guk maitasunez erantzutea nahi du. «Bihotz damutua eta umila Jainkoak ez du gutxiesten», dio Jainkoaz salmogileak.

Santa Teresa Jesusena Jornet eta Ibars, *birjina (Adin handikoen Zaindaria)*. Santa Joana Elisabet Bichier des Âges, *birjina, fundatzailea (Gurutzearen Alabak)*.

[1 Tesalonikarrei 2,9-13: Gau eta egun lan eginez adierazi genizuen Berri Ona. Sal 138: Jauna, zuk aztertzen nauzu eta zuk ezagutzen.]

Jesu Kristoren Ebanjelioa San Mateoren liburutik 23,27-32.

Aldi hartan honela mintzatu zen Jesus: «Ai zuek, lege-maisu eta fariseu itxurazaleok! Hilobi zurituen antzeko zarete: kanpotik itxura ederrekoak dira, baina barrutik hil-hezurrez eta ustelkeriaz beteak. Gauza bera zuek: azaletik zintzoak jendaurrean, baina barrutik itxurakeriaz eta gaiztakeriaz beteak.

«Ai zuek, lege-maisu eta fariseu itxurazaleok! Profeten hilobiak eraikitzen eta gizon zintzoen hilarriak apaintzen dituzue, esanez: “Gure arbasoen garaian bizi izan bagina, ez genukeen profeten hilketan haiekin parterik izango”. Horrela, zeuek aitortzen duzue profetak hil zituztenen ondorengo zaretela.

Bete ezazue, bada, zeuen gurasoen egintza gaiztoen neurria!»

Jesusek salatu egin ditu, beren arbasoek Jainkoaren izenean egin zutenatik harritzen direnak. Batzuek ezin ulertu dugu, nolatan hil izan duten elkar kristau-eliza diferentetakoek Ipar Irlandan edo Yugoslavia-ohian duela gutxi edo gaur egungo gerla santu deituetan. Dei al daiteke santu gerla bat, Jainkoa iraindu gabe?

Bai gauza erraza geure arbasoak gaitzestea edo beste alde batera begira jarraitzea albiste batzuk iristen zaizkigunean. Zeinek defenditu ditu gure kostaldean hiltzen ari diren emigranteak? Zeinek saltzen dizkie armak gerla bizian hari diren herrialdeei? Zeinek babesten ditu beren fedeagatik pertsegituak direnak?

Urteko 21. astea.

Santa Monika, aitorlea.

San Lizerio, gotzaina.

[1 Tesalonikarrei 3,7-13: *Jaunak handitu eta berotu dezala zuek elkarri eta guztiei diezuen maitasuna. Sal 89: Zeure maitasunaz ase gaitzazu, Jauna, poztu gaitezen zugan.*]

† Jesu Kristoren Ebanjelioa San Mateoren liburutik 24,42-51.

Aldi hartan, Jesusek esan zien ikasleei: «Zaudete erne, ez baitakizue zeuen Jauna zein egunetan etorriko den. Badakizue: etxe nagusiak baleki gaueko zein orduan etorriko den lapurra, erne egongo litzateke, eta ez luke bere etxea zulatzen utziko. Zuek ere prest egon zaitezte, uste ez duzuen orduan etorriko zaizue-eta Gizonaren Semea. Nor da morroi zintzo eta zentzuduna, nagusiak bere morroien buru ipintzen duena, behar den orduan jatekoa eman diezaien? Zorionekoa, nagusiak etortzean, hori egiten aurkitzen duen morroia! Benetan diotsuet: bere ondasun guztien morroi-buru ipiniko du. Baina morroia, gaiztoa bada eta bere baitan esaten badu: “Berandu dator gure nagusia”, eta bere morroi-lagunak jotzen hasten bada, eta mozko-rrekin jaten eta edaten, uste ez duen egunean eta ez dakien orduan etorriko zaio nagusia, ebaki-ebaki egingo du, itxurazaleek merezi bezala. Han izango da negarra eta hortz karraska!»

Heriotza ziurra eta ez-ziurra da aldi berean. Ziurra, hil beharra dugulako. Ez-ziurra, ez dakigulako, ez noiz, ez nola. Kristauarentzat ez luke izan behar ikaraz bizitzeko arrazoi. Jesusengan konfiantza duena, bekatari handiena izanik ere, konbentziturik dago ezen Jauna bera irtengo zaiola bidera, eta defendatzaile izango duela auzian. Epailea, edozein kasutan, Aita errukitsua izango da.

Horrek ez digu aukerarik ematen galgarik gabe bizitzeko, eta Jainkoa eta lagun hurkoa irainduz. Jesusek ohartarazi digu, bizi gaitzela adi eta azti; ez gaitzela izan gaurko ebanjelioko enplegatu ustel hori bezalako.

Urteko 21. astea.

San Agustin, *gotzaina eta eliz irakaslea*.
Santa Florentina Cartagenakoa, *abadesa*.

[1 Tesalonikarrei 4,1-8: *Hau nahi du Jainkoak zuengandik: bizitza santua. Sal 96: Poztu zaitetze zintzoak Jaunagan.*]

† Jesu Kristoren Ebanjelioa San Mateoren liburutik 25,1-13.

Aldi hartan, Jesusek parabola hau esan zien ikasleei: «Begira zeren antzekoa izango den zeruetako erreinua. Hamar neskatxa, beren kriseiluak eskuetan zituztela, senargaiaren bidera atera ziren. Haietan bost zentzugabeak ziren, eta beste bostak zentzudunak. Zentzugabeek kriseiluak hartu zituzten, baina oliorik ez berekin. Zentzudunek, berriz, kriseiluekin batera olioia ere hartu zuten ontzietan. Senargaia berandu zetorrelarik, logaletzen hasi ziren denak eta lo gelditu ziren. Gauerdian oiuhu bat entzun zuten: “Badator senargaia; irten zakizkio-te bidera!” Jaiki ziren orduan neskatxa guztiak, eta prestatu zituzten beren kriseiluak. Zentzugabeek esan zieten zentzudunei: “Ekarguzue zeuen oliotik, geure kriseiluak itzaltzen ari zaizkigu eta”. Zentzudunek, ordea, erantzun zieten: “Beharbada, ez dugu nahikorik geuretzat eta zuentzat. Zoazte saltzaileetara eta erosi”. Baina eroatera zihoazela, iritsi zen senargaia, eta prest zeudenak sartu ziren harekin ezteietara, eta itxi zen atea. Geroxeago etorri ziren beste neskatxak ere, esanez: “Jauna, Jauna, ireki iezaguzu!” Baina hark erantzun zien: “Egia esan, ez zaituztet ezagutzen”. Zaudete, beraz, erne; ez baitakizue ez egunik, ez ordurik».

«**N**ire arima larri da zugar atsedean hartu arte»; San Agustinen esapidea da; haren jaia ospatzen dugu gaur. Gizon suharra eta izaera gartsukoa; gaztaroa ero antzean bizi ondoren konbertitu zen. Gutzain egin zuten, eta haren idazkiek sekulako eragina izan dute Elizan mendetan.

Urteko 21. astea.San Agustin, *gotzaina eta eliz irakaslea*.
Santa Florentina Cartagenakoa, *abadesa*.

Lehenik, Agustinek bizi zuen kezka zela medio ibili zen Jainkoa haren bila; ez zuen ezerk asetzen haren bihotza. Plazera modu handi-handian bizi zuela, goreneko gauza iruditzen zitzaion, baina laster zakar eta sosegurik gabe gelditu ohi zen. Ebanjelioko neska zuhurren zortea izan zuen Agustinek. Senargaia iritsi zenean, jai-otordura joan zen. Ez zitzaion sekula otu hura uztea.

SAN JOAN BATAIATZAILEAREN MARTIRITZA

San Adelfo, *martiria*.Santa Sabina, *martiria*.

§ Jeremias Profetaren liburutik 1,17-19.

Egun haietan, Jaunaren hitza etorri eta esan zidan: «Lotu ezazu gerria; zoaz eta esaiezu nik agintzen dizudana. Ez izan haien beldurrik; bestela nik sartuko dizut haien beldurra. Begira, nik gaztelu jartzen zaitut gaur, burdinazko zutabe eta tupikizko hesi, herrialde honen guztiaren aurrean: Judako erregeen eta lehen-agintarien aurrean, apaizen eta herriaren aurrean. Borroka egingo dizute, baina ez zaituzte menperatuko; ni zurekin bainago, salba zaitzadan».

[Sal 70: *Nire ahoak zure zuzentasuna iragarriko du.*]

† Jesu Kristoren Ebanjelioa San Markosen liburutik 6,17-29.

Aldi hartan, Herodesek Joan bahiarazi zuen eta presondegian lotu; Herodias, bere anaia Filiporen emaztea, beretzat hartua baitzuen emazte, eta Joaneke esaten zion: «Ez zaizu zilegi zeure anaiaren emaztea edukitzea». Herodias erreminduta zebilen Joanen kontra, eta hilarazi nahi zuen; baina ezin, Herodesek beldurra zion-eta Joani, bai baitzekien gizon zintzoa eta santua zela, eta babes egiten zion. Hari entzutean, kezkatzen gelditu ohi zen; hala ere, atseginez entzuten zion. Gertatu zen, ordea, egun egokia: Herodesek, bere urtebetetze-eguna zuela-eta afaria eman zion bere handiki, gudalburu eta Galileako jaun-txoei. Sartu zen Herodiasen alaba, eta haren dantzatzea atsegin izan zitzaizen Herodesi eta mahaikideei. Honetan, erregeak esan zion neskatxari: «Eska iezadazu nahi duzuna, eta emango dizut». Eta zin egin zion: «Eskatzen didazun guztia emango dizut, nire erreinuaren erdia bada ere». Neskatxak atera eta esan zion amari: «Zer eskatuko diot?» Eta amak erantzun: «Joan Bataiatzailearen burua». Joan zen neskatxa erregeagana lasterka, eta esan zion: «Hau nahi dut: emadazu oraintxe berean Joan Bataiatzailearen burua plater batean». Goibeldu zen erregea, baina, zinagatik eta mahaikideengatik, ez zion nahigaberik eman

nahi izan. Eta berehala zaintzaile bat bidali eta Joanen burua ekartzeko agindu zion. Joan zen zaintzailea, eta lepoa moztu zion presondegian Joani, eta burua platerean ekarri eta neskaxari eman zion, eta neskatxak amari. Joanen ikasleak, hori entzutean, etorri ziren haren gorpua-ren bila eta hilobi batean ehortzi zuten.

Lehen kristaudentzat, irudi nabarmena izan zen Joan Bataiatzailea. Jesusek berak ere harengana jo zuen, eta Jesusen lehen ikasleak Bataiatzailearenak izan ziren lehenago. Haren heriotzak, neska gatzetxo baten apetzaz lepo eginik, badu Kristorenaren antzik. Honen aurrekari izan zen predikuan eta martiritzan.

Joanek, Jesusek bezala, heriotza lotsagarria izan zuen egia esateagatik eta Jainkoak gomendatu zion misiotik izpi bat ere ez apartatzeagatik. Jesusek bezala, Joanek, bere bizitzan, basamortuan entzun zuen ahotsari guztiz leial eutsi zion eta guztiz koherente izan zen harekin.

* * *

BOST ZAURIEI

(*Xabierko Frantzisko santua, s.j.*)

Jesu Kristo ene Jauna, zeinen esku baitira gauza guztiak,
zeinen gogoari ezin baitio inork aurre egin,
jaio, hil eta piztea nahi izan duzuna:
zure Gorputz santu-santuagatik
eta bost zauriengatik,
eta zeure odol guztiz preziatua isuri duzulako,
gupidatu zaitez gutaz, dakizunez

SAN JOAN BATAIATZAILAREN MARTIRITZASan Adelfo, *martiria*.Santa Sabina, *martiria*.

beharrezkoa baitugu geure ariman eta geure gorputzean;
libra gaitzazu deabruaren tentazioetatik
eta samintzen gaituela ikusten duzun guztitik;
eta gorde gaitzazu eta sendotu azkeneraino,
zeure zerbitzuan, eta emaguzu egiazko damua
eta benetako penitentziarako aukera,
eta bekatu guztien barkazioa hil ondoren;
eta egizu maita ditzagula geure anai-arrebak,
adiskide eta etsaiak; eta santu guztiakin
goza dezagula betikotasun osoan zure erreinuan,
Jainko Aitarekin eta Espiritu Santuarekin Jainko eta Errege bizi
baitzara,
gizaldi eta gizaldietan. Amen.

Urteko 22. astea.

Esteban Zudairikoa eta Joan Maiorga-koa, *apaizak*,
eta lagunak, *dohatsuak*, *martiriak*.

§ Deuteronomio liburutik 4,1-2.6-8.

Moises honela mintzatu zitzaion herriari: «Entzun orain, Israel: Nire agindua eta arauak bete ditzazuen irakasten dizkizuet; horrela, biziko zarete; Jaunak, zeuen arbasoen Jaungoikoak, emango dizuen lurrean sartuko zarete eta haren jabe egingo. Ez erantsi ezer, ez kendu ezer, nik agintzen dizuedanari; nik eman bezala gorde Jaunaren, zeuen Jaungoikoaren, aginduak. Gorde itzazue, bada, eta bete; horrek egingo zaituzte zentzudun eta jakintsu herri guztien aurrean; eta, agindu hauek entzutean, esango dute haiek: “Bai herri zentzudun eta jakintsua dela herri hau!”. Izan ere, bai ote da herri handirik, bere jainkoak hain hurbil dituenik, guk Jauna, geure Jainkoa, hurbil dugun bezala, dei egiten diogun aldi bakoitzean? Ba ote da herri handirik, gaur nik ematen dizuedan lege hau bezain agindu eta arau zuzenak dituenik?».

[Sal 14: *Jauna, nor dagoke zure txabolan?*]

§ Santiago Apostoluaren gutunetik 1,17-18.21b-22.27.

Ene senide maiteok: Emaizta on guztiak eta dohain bikain guztiak goitik datoz, argi guztien Aitagandik. Harengan ez baitago itzal-unerik, ez itzal-aldirik. Hark, bere gogoz, egiaren hitzez sortu gaitu, bere izaki guztietan lehenengoak izan gaitezen. Onar ezazue apal-apal, zuengan ereinda dagoen eta zuen arima salba dezakeen hitza. Egizue hitzak dioena, eta ez entzun bakarrik, zeuen burua en-gainatuz. Jainkoaren zaletasun garbi eta akatsik gabea, Jaungoiko Aitaren begietan, hau da: umezurtzei eta alargunei beren nahigabeetan laguntzea, eta mundu honen kutsutik garbi irautea.

† Jesu Kristoren Ebanjelioa San Markosen liburutik 7,1-8.14-15.21-23.

Aldi hartan, bildu ziren Jesusengana fariseuak eta Jerusalem-dik etorritako lege-maisu batzuk, eta ikusi zuten, ikasleetako batzuek

Urteko 22. astea.

Esteban Zudairikoa eta Joan Maiorga-koa, *apaizak*,
eta lagunak, *dohatsuak, martiriak*.

esku zikinekin –hau da, eskuak garbitu gabe– jaten zutela. (Fari-seuek eta gainerako judu guztiak ez baitute jaten eskuak ondo garbitu gabe, zaharren ohiturari jarraituz, eta plazatik etortzean, ez dute jaten bustialdi bat hartu gabe, eta badituzte horrelako beste ohitura asko, gatilu, pitxer eta ontziak garbitzeko, zaharrendik ikasiak). Orduan, fariseuek eta lege-maisuek galdetu zioten: «Zure ikasleek zer dela-eta ez dute gordetzen zaharren ohiturarik, eta zergatik jaten dute esku zikinekin?» Jesusek, ordea, erantzun zien: «Itxurazaleak! Ederki asko esan zuen Isaias profetak zuetaz. Idatzirik baitago: “Herri honek ezpainez goستن nau, / baina bihotza urruti du nigandik. / Hutsa da ematen didaten gurtza, / gizakien agindu diren irakatsiak / irakasten baitituzte”. Jainkoaren aginduak baztertera utzi, eta gizakien ohiturak gordetzen dituzue». Eta berriro jendeari dei egin eta esan zion: «Entzun guztiok, eta adi ezazue: ez da ezer, kanpotik sartuz, gizakia zikin dezakeenik; barnetik ateratzen denak zikintzen du gizakia. Barnetik, gizakiaren bihotzetik, ateratzen baitira asmo txarrak: lizunkeria, lapurreta, gizaki-hiltzea, ezkontza-nahastea, diru-gosea, gaiztakeria, maltzurkeria, lohikeria, bekaizkeria, gaizkiesatea, handikeria, zorakeria. Gaitz hauek guztiak barnetik ateratzen dira, eta hauek zikintzen dute gizakia».

Higienea eta gaixotasunen aurka neurriak hartzea arazo erlijioso bihurtu eta haien bidez Jainkoaren aurreko egoera neur-tzea: horra nola sartu zituzten juduek herrian ohitura sano batzuk; baina oker jokatu zuten ohitura haiek arazo erlijioso bihurtzean. Oso ondo banatu zituen Kristok bi eremuak. Inor ez kutsatzea, lagun hurkoa maitatzeko era bat da, noski; baina Jainkoari geure egintza onez ematen zaio atsegina, eta ez osasun-ohitura batzuk erritu bihurtuz.

Urteko 22. astea.

Esteban Zudairikoa eta Joan Maiorga-koa, *apaizak*,
eta lagunak, *dohatsuak*, *martiriak*.

Lohitasun legalari dagokion polemika honek ez liguke ahaztarazi behar Jesusek eskatzen diguna: egin dezagula kontzientzia-azterketa serio bat geure bihotzari darionaz. Gorrotoa diodala norbaiti? Ez diodala barkatzen lagun batzuei? Aberasteko grina bizi dudala, zuzenaren kontra bada ere? Norbaiti kalte egiten diodala jakinaren gainean? Inbidia dudala eskura ez dudan zerbaitez? Ezkontzaz kanpoko harremanak izaten ditudala? Eta maite al dut ezkontidea? Ez al dut gastatzen neurririk gabe? Ez al naiz bizi beharrezko ez den luxuan? Ez al naiz handi-mandi eta zakar mendeko dudan jendearekin? Eskaintzen al diot astirik familia-bizitzari? Saiatzen al naiz etxean konfiantza- eta afektu-giroa eragiten? Eskaiozu barkazioa Jaunari «lohitasun» hauengatik.

Urteko 22. astea.San Ramon Nonnato, *apaiza, kardinala.*San Jose Arimateakoa eta Nikodemo, *Jesusen ikasleak.*

[1 Tesalonikarrei 4,12-17: *Jesusengan hil direnak, Jainkoak berekin hartuko ditu.* Sal 95: *Badator Jauna lurra epaitzera.*]

† Jesu Kristoren Ebanjelioa San Lukasen liburutik 4,16-30.

Aldi hartan, Jesus Nazaretera joan zen, hazi zen herrira, eta larunbatean, ohitura zuen bezala, sinagogan sartu zen eta zutik jarri, irakurgaia hots egiteko. Isaias profetaren liburua eman zioten. Liburua zabaldurik, profetaren hitz hauek aurkitu zituen: «Jaunaren Espiritua nigan dago, / Hark gantzutu bainau, / behartsuei berri ona emateko. / Gatibuei askatasuna / eta itsuei ikusmena hots egitera bidali nau, / zapalduen askatasuna ematera, / Jaunaren grazi urtea hots egitera». Liburua bildu ondoren, laguntzaileari eman eta eseri zen. Sinagogan ziren guztien begiak, hari begira-begira zeuden. Jesus honela hasi zitzaien hitz egiten: «Gaur bete da orain entzun duzuen Liburu Santuko hitz hau». Eta guztiek aitormen egiten zioten eta harriturik zeuden, haren ahotik graziazko hitzak ateratzen baitziren, eta zioten: «Hau ez al da Joseren semea?» Jesus honela mintzatu zitzaien: «Harako esatera hura gogoraziko didazue, noski: “Sendagile, senda ezazu zeure burua”. Kafarnaumen egin omen dituzunak, egitzazu hemen ere zeure herrian». Gero esan zien: «Hara nik egia esan: ez da profetarik, bere herrian ondo ikusia denik. Egiaz esaten dizuet: Bazen emakume alargunik asko Eliasen egunetan, hiru urte eta sei hilabete zerua itxia egonik, lurralde guztian gosete gorria izan zenean; baina ez zitzaion haietako inori bidali Elias, Sidonen dagoen Sareptako emakume alargunari besterik. Eta bazen legenardunik asko Israelen Eliseo profetaren egunetan; baina ez zen haietako inor sendatu, Siriako Naaman besterik». Hauek entzunik, haserre biziak hartu zituen sinagogan ziren guztiak. Eta jaikirik, herritik kanpora atera zuten, eta herria eraikita zegoen mendiko amildegira eramanez, handik behera botatzeko asmotan. Jesus, ordea, haien erditik igaro eta bere bidetik joan zen.

Urteko 22. astea.

San Ramon Nonnato, *apaiza, kardinala*.San Jose Arimateakoa eta Nikodemo, *Jesusen ikasleak*.

Nazareteko pasadizoa bi alditan kontatzen du Lukasek. Lehenengoan, Jainkoaren errukiaz jardun da; gustatu zaie herritarrei. Bigarrena, gaizki bukatu da. Jesusek ez du onartu berarenak ez diren helburuetarako erabil dezaten. Hain juxtu, pertsona bat norberaren probetxurako objektutzat hartzea giza duintasunaren aurka doa. Halaz guztiz, zenbat bider manipulatu dugun jendea, gure goranahi maltzur eta interesatuak ezkututzen dituzten argudio faltsuak erabiliz! Ez gaitezen, beraz, harritu, gutaz fidatzen ez direnen kopurua handituz baldin badoa.

* * *

HAR NAZAZU, JAUNA, INDARREZ

(Ignacio Iglesias, s.j.)

Zu zeu zara desioaren sorburua
 eta hura asetzen duen ura;
 pizten duen sua
 eta nire laharra erretzen ez duen garra,
 nire hezurren txingarra, isiltzen ez dena.
 Har nazazu, Jauna, indarrez.
 Zure desioen esku naiz jartzen.
 Neure ditut jada.
 Beste bat naiz.
 Zu zeu naiz, ez arrotz bat,
 baina suhar eta zorioneko,
 jainkotua.

«Ez da ezer, kanpotik sartuz, gizakia zikin dezakeenik; barnetik ateratzen denak zikitzen du gizakia»



AITA SANTUAREN ASMOAK

Orokorra: Gazte guztientzat formazio- eta lan-aukerak haz daitezzen.

Ebanjelizazioaren alde: Katekista guztien biziera hots egiten duten fedearen lekukotza koherente izan dadin.

TRAILA

Urteko 22. astea.

San Josue, *patriarka*.San Gil (Egidio), *ermitaua*.

[1 Tesalonikarrei 5,1-6.9-11: *Gugatik hil da, gu berarekin bat eginik bizi gaitezen. Sal 26: Jaunaren ontasuna gozatuko dudan us-tean nago bizien lurrean.*]

† Jesu Kristoren Ebanjelioa San Lukasen liburutik 4,31-37.

Aldi hartan, jaitsi zen Jesus Galileako Kafarnaum herrira, eta larunbatetan jendeari irakasten zion. Harriturik zeuzkan denak bere irakatsiekin, itzal handiz hitz egiten baitzuen. Bazen sinagogan, deabru lohiak hartua zuen gizon bat, eta oihu handi bat egin zuen, esanez: «Jesus, Nazaretarra!, zer dugu ikustekorik zurekin? Gu galtzeko etorri al zara? Badakit nor zaren: Jainkoaren santua». Jesusek zorrotz agindu zion: «Zaude isilik eta atera zaitez gizon horrengandik!» Deabruak guztien erdira bota zuen gizona, eta atera zen harengandik, minik egin gabe. Guztiak harriturik zeuden eta elkarri ziotsoten: «Zer du honen hitzak? Itzal handiz eta indarrez agintzen die espiritu lohiei, eta ateratzen dira». Eta Jesusen entzutea zabaltzen ari zen alderdi hartan guztian.

Jauna, esadazu niri ere: «Itxi ezazu ahoa eta irten zaitez!» Deabruak hartua zuen gizonarena gertatzen zait niri ere: mila eratako aitzakia eta zuritu nahiak erabiltzen ditut zuri desleial izatera behartzen nauen epelkeria hau nigandik behingoz ez botatzeko. «Ez iezadazu eskatu hori», «ez dut indarririk», «geroago», «saiatzen naiz»...

Baina argi baino argiago dago zure nahia: irten zaitez! Eten ezazu kateatzen zaituen lotura hori, utz ezazu erretolika gezurti hori, atera ezazu zuztarretik kaltegarri duzun adiskidetasun hori, egizu behingoz zirt edo zart zurruntzen zaituen duda horrekikoa... Jauna, inork baino hobeto nauzu ezagutzen; emadazu zeure grazia, epelkeria eroso honetatik irteteko.

Urteko 22. astea.

Frantzisko Dardan dohatsua, *apaiza*, eta lagunak, *martiriak (Iruñeko eta Baionako elizbarrutietan).**

[Kolosarrei 1,1-8: *Zuengana iritsi da Berri Ona, eta lur osora. Sal 51: Zugan uste onez beterik nago, Jauna, gizaldien gizaldietan.*]

† Jesu Kristoren Ebanjelioa San Lukasen liburutik 4,38-44.

Aldi hartan, Jesus sinagogatik atera eta Simonen etxean sartu zen. Sukar handiak hartua zeukan Simonen amaginarreba, eta haren alde eskabide egin zioten. Jesusek, harengana makurturik, sukarrari agindu eta sukarrak utzi zion. Berehala jaiki eta zerbitzatzen hasi zitzaizen amaginarreba. Eguzkia sartu zenean, nolanhiko gaitzez gaixorik zeuden guztiak Jesusi zeramazkioten. Eta hark banan-banan eskuak ezarri eta sendatu zituen. Askorengandik deabruak ere ateratzen ziren, deiadarka esanez: «Zu Jainkoaren Semea zara!» Jesusek zorrotz agindu eta ez zien uzten hitz egiten, bai baitzekiten Mesias zela. Eguna argitu orduko, atera eta leku baztertu batera joan zen; jendea haren bila zebilen, eta aurkitu zutenean, eutsi egin nahi zioten, alde egin ez ziezaien. Jesusek, ordea, esan zien: «Beste herriei ere hots egin behar diet Jainkoaren erreinua; horretarako bidalia naiz eta». Eta Judeako sinagogetan hitz egiten jardun zuen.

Jesusek, Sinagogatik irtendakoan, Pedroren amaginarrebari, sukarra sendatzeaz aparte, Ebanjelioko oinarrizko printzipio bat irakatsi dio, bidenabar. Onik gelditu orduko, zerbitzatzen hasi zaie. Jainkoagandik hartutako dohainengatik esker ona agertzeko modua da: gainerakoei zerbitzatzea.

Jesusek ez du utzi egun bakar bat ere otoitz egin gabe. Kontsolamenduzko hitz bat edo osasuna eskatu dioten guztiak artatu ditu egun eta arrats horietan, bere nekea agertu gabe. Halere, goizean goiz, leku bakarti batera joan da Aitarekin adiskidetsu egotera. Lan-bizitza gogor bati ezin eutsi zaio egunero otoitz egin gabe.

*Dohatsuak: Santiago Bonnaud, *apaiza*, eta lagunak; Jose Imbert eta Joan Nikolas Cordier, *apaizak*; Tomas Sitjar, *apaiza*, eta lagunak, *martiriak*.

Urteko 22. astea.

San Gregorio Handia, *64. aita santua eta eliz irakaslea.*

[Kolosarrei 1,9-14: *Ilunaren menpetik atera gaitu, eta bere Seme maitearen erreinura aldatu. Sal 97: Ezagutarazi du Jaunak beragan-diko garaipena.*]

Jesu Kristoren Ebanjelioa San Lukasen liburutik 5,1-11.

Behin batean, jendea gainera zetorkion Jesusi, Jainkoaren mezua entzuteko; Jesus Genesaret aintzira-ertzean zegoen. Eta bi ontzi ikusi zituen ur-bazterrean: arrantzaleak, ontzitik jaitsi eta sareak garbitzen ari ziren. Igo zen bietako batera, Simonenera, eta ontzia lehorretik pixka bat aldentzeko eskatu zion; gero, eseri eta jendeari irakasten ziharduen ontzitik. Hitzaldia amaitu zuenean, Simoni esan zion: «Jo itsas zabalera eta bota sareak arrantzurako». Simonek erantzun zion: «Maisu, gau guztian eginahalak egin eta ez dugu ezer harrapatu; baina, zuk diozunez gero, botako dut sarea».

Hala egin zuten eta, hainbesteko arrain-pila harrapatu zuten, sareak puskatzeko zorian zeuden. Beste ontziko lagunei keinu egin zieten laguntzera etortzeko; hurbildu ziren eta bi ontziak ia-ia hondoratzeraino bete zituzten. Gertatua ikusirik, Jesusen oinetara erori zen Simon Pedro, esanez: «Alde nigandik, Jauna, bekataria naiz eta!»

Izan ere, zur eta lur zeuden eginiko arrantzuagatik Simon eta berekin zirenak, baita haren arrantzu-lagun Santiago eta Joan Zebedeoren semeak ere. Baina Jesusek esan zion Simoni: «Ez beldurtu, hemendik aurrera giza arrantzale izango zara».

Ontziak lehorrera atera zituzten eta, dena utzirik, jarraitu egin zitoten.

Lanbidean ere egunero ari ohi da Jesus deika. Pedroren ontziaz baliatu da predikatzen, baina, bere ikasleei dei egiteko, lanean ari

diren momentua hautatu du. Eta beraien lanbideko hizketaz baliatu da gomendatu nahi dien misioa adierazteko. Eguneroko zereginen artean ateratzen zaigu Jesus gurekin topo egitera, ez zereginak utzarazteko, baizik maitasunez eta zerbitzu-gogoz egin ditzagun. Jesusi jarraitzeko, ez da zertan utzi ontzia eta sareak; ez beti, behintzat; gehienoi betiko gauza bera egiteko eskatzen digu, baina beste era batean.

Urteko 22. astea.

San Moises, *profeta*.

[Kolosalrei 1,15-20: *Gauza guztiak beraren bidez eta berarentzat dira eginak. Sal 99: Jaunaren aurrera pozez oihuka sar gaitezen.*]

† Jesu Kristoren Ebanjelioa San Lukasen liburutik 5,33-39.

Aldi hartan, fariseuak eta lege-maisuak honela mintzatu zitzaizkion Jesusi: «Joanen ikasleek maiz egiten dute barau eta otoitz; baina fariseuenek ere. Baina zure ikasleak jan eta edan ari dira». Jesusek erantzun zien: «Eztei-lagunei barau eginarazi nahi al diezue, senar berria berekin duten bitartean? Etorriko da, senar berria kenduko dieten eguna; orduan, bai, egun hartan egingo dute barau». Eta parabola hau esan zien: «Inork ez du soineko berririk urratzen, zaharrari adabakia ipintzeko; hori egiten bada, berria hondatzen da, eta zaharrari ez zaio ongi etortzen ipinitako adabaki berria. Ez ditu inork ardo berriz betetzen zahagi zaharrak; ardo berriak lehertu egiten baititu zahagiak; ardoa isuri, eta zahagiak galtzen dira. Ardo berria zahagi berrietan sartu behar da. Ardo zaharra edan ohi duenak ez du berririk nahi; izan ere, hau dio: “zaharra da ona”».

Ikasleak tripazaintzat salatzea, Jesusen beraren kontrako zeharkako kritika zen. Baina Jesus ez da desenkusutzen. Aitzitik, bizitzako plazer zilegiez ere gozatzeko esaten du, bizitzak eskaintzen digunaz gozatzeko. Eta, berehala, bere predikuan errepikatzen duen gai batera jo du. Ebanjelioaren berritasunak ordu arte indarrean zirenak ez bezalako modu eta arauak eskatzen ditu. Jainkoarekiko harreman filialak ezin uztartu dira Jainkoarekin egindako tratu batean oinarritzen den erlijio batekin: bedeinka nazazun obeditzen dizut. Jesus etortzearekin, beste modu batekoak dira harremanak: maite nauzulako obeditzen dizut.

San Lorenzo Justiniano, *gotzaina*. Santa Teresa Kalkutakoa, *fundatzailea* (*Karitateko Misiolariak*)

[**Kolosarrei 1,21-23**: *Jainkoak berekin baketu zaituzte, bere aurrean herri santu, garbi eta bekaturik gabe ager zaitezten. Sal 53: Nik Jainkoa dut laguntzaile.*]

Jesu Kristoren Ebanjelioa San Lukasen liburutik **6,1-5**.

Behin batean, larunbatez, gari-soro batean zehar zihoan Jesus. Eta ikasleek, galburuak hartu eta eskuan aleturik, jan egiten zituzten. Fariseu batzuek esan zieten: «Nola ari zarete egiten, larunbatez zilegi ez dena?»

Jesusek erantzun zien: «Ez al duzue irakurri Davidek egin zue-na, bera eta bere lagunak goseak aurkitu zirenean? Jainkoaren etxean sartu, Jaunari eskainiriko ogiak hartu eta jan zituen, eta bere lagunei ere eman zizkien, legez apaizek bakarrik jan zitzaketen ogiak iza-nik».

Eta, gainera, esan zien: «Larunbataren nagusi da Gizonaren Se-mea».

Berriro salatzen dute maisua ikasleen jokabideagatik. Orain-goan, larunbateko atsedena da arazoa; uzta biltzearen lan bezala jotzen dute gari-ale batzuk hartzea. Erantzuteko, premia gorriko argudiora jo du Jesusek; David erregeak ogi sagaratuekin egin zuen kasu bera da. Beste edozein iritziren aurretik jarri behar da jendearen osasuna edo bizia. Gizakia bizirik nahi du Jainkoak; horretan datza Jainkoaren beraren aintza. Bizi ez bada, nola hartuko du atsedena? Nolatan emango dio aintza? Tamalez, gure erlijiotasuna begi-bistako kontraesan ez blai dago. Adibide bat da gaurko hau.

Urteko 23. astea.San Eleuterio, *abadea*.

§ Isaias Profetaren liburutik 35,4-7a.

Esan bihotz-beldurtiei: «Gora bihotzak! Ez izan beldurrik! Bador Jaungoikoaren saria. Bera etorriko da, eta salbatuko zaituzte». Orduan itsuen begiak irekiko dira, eta gorren belarriak zabalduko. Orduan herrenak basahuntzak bezala jauzi egingo du, eta mutuaren mihiak oihu egingo pozez; ura sortuko baita basamortuan eta errekek eremuan. Lur errea aintzira bihurtuko da, eta lur egarrtua, iturri.

[Sal 145: *Goretsazu Jauna, ene barnea.*]

§ Santiago Apostoluaren gutunetik 2,1-5.

Ene senideok: Ez egin gizakien artean bereizkuntzarik, Jesu Kristo gure Jaun aintzatsuaren sinesmenaren izenean. Egin dezagun, zuen batzarrean sartzen dela norbait urrezko eraztun eta soineko distiratsuz jantzia, eta behartsu bat ere sartzen dela zarpail. Eta zuek, soineko distiratsua daramanari begiratu eta esaten diozuela: «Zaude hor zutik»; behartsuari, berriz, esaten diozuela «eseri hemen lurtean, nire oinetan». Ez al da hori, zuen artean bereizkuntza egitea eta zuen burua iritzi okerreko epaile bihurtzea? Entzun, ene senide maiteok: Jaungoikoak ez al ditu, bada, munduarentzat behartsu direnak aukeratu, sinesmenean aberats izateko, eta bera maite dutenei agindu dien erreinuaren oinordeko izan daitezen?

† Jesu Kristoren Ebanjelioa San Markosen liburutik 7,31-37,

Aldi hartan, Jesus, Tiroko lurraldea utzi eta Sidondik igaro zen, eta Dekapolisen barna Galileako itsasora etorri zen. Gorra eta hitz-motela zen gizon bat ekarri zioten, eta eskuak gainean ezartzeko eskatu. Jesusek, jende artetik bereiz harturik, hatzak belarrietan sartu zizkion, eta bere listuz mihia ukitu zion. Zerura begira, intziri eginez, esan zion: «Effetá» –hau da: «Ireki zaitez»–. Eta berehala ireki zi-

tzaizkion belarriak, eta mihiko lotura askatu, eta hizketan hasi garbi-garbi. Inori ez esateko agindu zien Jesusek, baina haiek orduan eta gehiago zabaltzen zuten. Eta harriturik zioten: «Ondo egiten du dena: gorrei entzunarazi eta mutuei hitz eginarazi».

Jauna, sekulako gorraize batek penatzen nau. Nire belarriak berekoikeriaz ixten zaizkie zure hitzari, zure nahiari, zure inspirazioei. Neure mundu gormutu honetan babesten naiz, zure eskakizunei erantzun beharrik ez izateko. Neure irizpideak, gure gizartean indarrean direnen aski antzekoak, hartu ditut gidari, eta ezentzunarena egiten diet zure deiei.

Beraz, Jauna, sartu zure hatzak nire belarrietan, aska ezazu nire mihia, egizu intziri –nire itxikeria honetaz kexu– eta oihu egidazu ozen: «Ireki zaitez!»

Jauna, ireki nadila zurekiko eta besteekiko. Bihotza dolorez, damu nadila zuri entzun ez izanaz eta zure gogoa bete ez izanaz. Ireki nadila besteekiko ere, kezka nadila haien zoriaz eta mugi nadila hain onerako lan egiteko, azken batean neure ona izango baita, zeren ematen duenari ez baitzaio ezer falta. Nire mihi honek aldarrika dezala poza, bakea eta askapena, neure bihotzak jariaturik zure presentziaren ondorioz. Gormutua aurkeztu zizutenek bezala, hots egin dezadala neuk ere, guztiz ozen, zuri jarraitzea zorionaren iturburu agorrezin dela.

* * *

Urteko 23. astea.

San Eleuterio, *abadea*.

ITXARONGO DUT

(Benjamín González Buelta)

Itxarongo duk arbola haz dadin eta itzala eman diezadan.
Baina neure hosto iharrez ongarrituko dut itxarote hori.
Itxarongo dut iturria sor dadin eta ura eman diezadan,
baina lohizko neure oroitzapenen ubidea garbituko dut.
Itxarongo dut egunsentia etorri eta argi nazan.
Baina astinduz botako ditut neugandik nekea eta izerdia.
Itxarongo dut irits dadin ezagutzen ez dudana hura eta harritu nazan,
baina hustuko dut etxea itsatsi zaion guztitik.
Eta arbola ongarritzean, ubidea garbitzean,
gaua astintzean eta etxea hustean,
lurra eta intzeria esperantzari irekiko zaizkio.

Urteko 23. astea.
Santa Regina, *martiria*.

[Kolosalrei 1,24–2,3: *Jainkoaren Elizaren zerbitzari egin nau, gizaldietan ezkutuan egona den misterioa zuei adierazteko. Sal 61: Jainkoagan ditut edertasuna eta salbamena.*]

† Jesu Kristoren Ebanjelioa San Lukasen liburutik 6,6-11.

Beste larunbat batez, Jesus sinagogan sartu eta irakasten hasi zen. Bazen han eskuineko besoa ihartua zuen gizon bat. Lege-maisuak eta fariseuak begira zegozkion Jesusi, larunbatez sendatuko ote zuen, zertan salatu izateko. Baina Jesusek ezagutzen zituen haien burutape-nak, eta gizon beso-iharrari esan zion: «Jaiki zaitez eta zatoz denon erdira». Jaiki zen gizona eta zutik gelditu zen. Orduan Jesusek esan zien: «Galdera bat egin behar dizuet: larunbatez zer da zilegi, on egi-tea ala gaitz egitea? Bizia salbatzea ala galtzen uztea?» Eta inguruko guztiei begira, esan zion gizonari: «Luza ezazu beso hori». Luzatu zuen eta bere onera etorri zitzaion besoa. Haiek haserre gorrian jarri ziren eta elkarrekin eztabaidan hasi, zer egingo ote zuten Jesusekin.

Atzo galburuak biltzeagatik zen, gaur larunbatean sendatzeagatik. Israel herriaren agintariak ingurua estutzen ari zaizkio Jesusi. Kontuan hartzen ari dira Jesus behin eta berriz egiten ari den lege-hausteak.

Baina, lege-hauste dira ala lege-betetze? Jesusek guztiz gizatar ikusi nahi gaitu, eta gizon hark, besoa elbarri duen hark, sendatu beharra sentitzen du, berriro balioko gizon izateko. Jesusek itxaron zezakeen eguzkia sartu arte, baina kasu honetan nabarmen agertu nahi izan du. Lagun hurkoari on egiteko, ez da larunbata zertan kontuan hartu. Ez ote da Jesusen jokabide hori bera, larunbata ospatzeko modurik hobena?

Urteko 23. astea.

ANDRE MARIA BIRJINAREN JAIOTZA.

Koruko, Guadalupeko, Arrateko, Haizpeko Andre Maria.

§ Mikeas profetaren liburutik 5,2-5a.

Honela mintzo da Jauna: «Zu, Efratako Betleem, Judako herrixketan txiki hori, zugandik jaioko da Israelgo agintaria. Aspaldikoa da haren sortzea, betiereko egunetakoa.

Horregatik utzi egingo ditu Jaunak, amak haur egin dezan arte. Orduan haren senide-hondarrak Israelgo semeetara itzuliko dira. Zutituko da eta Jaunaren indarrez larratuko ditu, Jaunaren, beren Jaungoikoaren, izen handiaz. Lasai biziko dira, handi agertuko baita lurraren mugetaraino eta hura izango da gure bakea.

[Sal 12: *Pozez beterik nauka Jaunak.*]

† Jesu Kristoren Ebanjelioa San Mateoren liburutik 1,18-23.

Jesu Kristoren jaiotzea honela gertatu zen: Jesusen ama Maria, Joserekin ezkontzeko hitzemana zegoelarik, elkarrekin bizi izan baino lehen, haurdun gertatu zen Espiritu Santuaren egitez. Haren senar Josek, gizon zintzoa baitzen, eta ez baitzuen bere emaztea salatu nahi, isilka utzi eta joatea erabaki zuen. Baina, asmo hori gogoan zerabilkiela, Jainkoaren aingeruak ametsetan azaldu eta esan zion: «Daviden seme Jose, ez izan beldurrik, Maria, zeure emaztea, etxean hartzeko, sabelean daraman haurra Espiritu Santuagandik baitator. Semea izango du, eta zuk “Jesus” ezarriko diozu izena, horrek salbatuko baitu bere herria bekatuetatik». Hau guztia gertatu zen, Jaunak profetaren ahoz esandakoa bete zedin: «Begira, birjinak sabelean sortu eta semea izango du, eta “Emmanuel” ezarriko diote izena, hau da: “Jainkoa gurekin”».

Maria, gure ama, Mikeas profetak esan du zure Semea be-
deinkazio bat izango dela jarraitzen diotenentzat: «Lasai biziko dira

eta bera izango gure bakea». Begira, anderea, gure mundu honi: gerlaz, indarkeriaz, liskarrez, heriotzaz nahas-mahas egina. Erruki zaitetzorakeria honek eragindako biktimez, eta zuk, bakearen erregina, egizu halakotzat aitortzen zaitugunok izan gaitzela elkartasunaren eta adiskidetzearen eragile geure etxean, familian, lanean, gizarte-eta lanbide-ingurunean. Ikus gaitzabela bakegile bezala, sekula ez zaitiketaren, etsaigoaren eta bazterketaren eragile bezala. Geure zorionerako, zure jaioteguna ospatzen dugun honetan erregutzen dizugu.

Urteko 23. astea.San Pedro Claver, *misiolaria, jesuita.*

[Arantzazuko Andre Maria Birjinarena. Galaziarrei 4,4-7: *Bere Semea bidali zuen Jaungoikoak, emakumeagandik jaioa. Salmoa: Lukas 1: Zorionekoa zu, Andre Maria, betiko Aitaren Semea ekarri zenuena!*]

† Jesu Kristoren Ebanjelioa San Lukasen liburutik 1,39-47.

Aldi hartan, Maria jaiki eta bizi-bizi mendi-aldera joan zen, Judeako herri batera, eta Zakariasenean sartu, eta Elisabeti agur egin zion. Elisabetek Mariaren agurra entzun zuen orduko, jauzi egin zion haurrak sabelean. Elisabet Espiritu Santuaz bete zen, eta esan zuen oihu handiz: «Bedeinkatua zu emakumeen artean, eta bedeinkatua zure sabeleko fruitua. Nondik niri, neure Jaunaren ama nigana etortzea? Zure agurra nire belarrietara iritsi orduko, jauzi egin dit haurrak pozez sabelean. Zorionekoa zu, sinetsi duzulako, beteko baitu Jaunak esan dizuna!» Orduan Mariak esan zuen: «Handiesten du nire arimak Jauna, pozaren pozez daukat neure barnea».

Arantzazuko Ama

Gaur ospatzen ari gara Arantzazuko Andre Maria, Birjina, Gipuzkoako Zaindariaren eguna. Tradizioak dioenez, Rodrigotxok (Baltzategi baserrikoak) Andre Mariaren harrizko irudi txiki bat aurkitu zuen, Jesus Haurra besoetan zuela.

«Arantzan zu?», galdetu omen zuen txunditurik. Gaurko festa eguneko ebanjelioak garbi esaten digu: fede sakonaz onartu du Mariak Jainkoaren hitza. Elisabeten senar Zakarias ez da fidatu aingeruaren hitzaz; Mariak, aldiz, konfiantza osoa eskaini dio: «gerta bekit zuk diozuna». Arantzazuko Andre Mariaren goratasun betea ospatzen dugun honetan, goratasun horretarako bidea zein dugun agertzen digu zeruko amak: bihotza besteengana irekitzea da bidea.

Pedro Claver 1580an jaio zen Verdú-n (Lleida). Humanitateak eta Filosofia ikasi zituen Bartzelonako Unibertsitatean. Jesusen Lagundira jo zuen 1602an. Misiioetarako bokazioa sentitu zuen Palma de Mallorca-n atezain zen anaia jesuitarekin, San Alonso Rodriguezekin, izandako elkarrizketetan. Ameriketara bidali zutelarik, oso osorik eman zitzaion, hil arte, Cartagena de Indias-era (Kolonbia) iristen ziren esklaboen arreta material eta espiritualari. Miresgarriak izan ziren jende pobre hauekiko haren maitasuna eta ardura. Lan aki-garri honen biktima hil zen 1654an.

Urteko 23. astea.

San Nikolas Tolentino-koa, *aitorlea*.
Frantzisko Garate, *dohatsua, jesuita*.

[Kolosalrei 3,12-17: *Izan ezazue maitasuna, hori baita lokarririk bikainena. Sal 150: Arnasa duen orok Jauna dezala goretzi.*]

Jesu Kristoren Ebanjelioa San Lukasen liburutik 6,27-38.

Aldi hartan esan zien Jesusek ikasleei: «Baina zuei, entzuleoi, hau diotsuet: Maitatu etsaiak, egin ongi gorroto dizuetenei, bedeinkatu madarikatzen zaituztetenak, egin otoitz izen ona kentzen dizuetenen alde. Masail batean jotzen zaituenari eskaini bestea ere; soingainekoa kentzen dizunari, ez ukatu soinekoa ere. Eskatzen dizun edonori, eman, eta zeurea kentzen dizunari, ez itzularazi. Eta besteek zuei egitea nahi duzuen, egin zuek ere besteei. «Maite zaituztetenak bakarrik maite badituzue, zer esker on zor zaizue? Bekatariek ere maite dituzte beren maitaleak. Eta ongi egiten dizuetenei bakarrik egiten badiezue ongi, zer esker on zor zaizue? Bekatariek ere egiten dute beste horrenbeste. Eta ordaina hartzekotan bakarrik ematen baduzue maileguz, zer esker on zor zaizue? Bekatariek ere aurreratu ohi diote elkarri, beste hainbeste hartzekotan.

Ez! Zuek maitatu etsaiak, egin ongi eta eman maileguz ordainari begiratu gabe: handia izango da zuen saria, eta Goi-goikoaren seme-alaba izango zarete, ona baita bera esker txarreko eta gaiztoentzat.

Izan zaitetzte errukitsuak, zuen Aita errukitsua den bezala.

«Ez gaitzetsi inor eta Jainkoak ere ez zaituzte gaitzetsiko; ez kondenatu inor eta Jainkoak ere ez zaituzte kondenatuko; barkatu, eta Jainkoak ere barkatuko dizue; eman, eta emango dizue: neurri betea, sakatua, estutua eta leporainokoa emango dizue altzora. Izan ere, zuek zein neurritz neurtu, halakoaz neurtuko zaituzte Jainkoak».

Jesusen hitz hauek, patxadan irakurririk, harrigarri eta miresgarri gertatzen zaizkio lehenengo aldiz entzuten dituenari. Gandhik

Urteko 23. astea.

San Nikolas Tolentino-koa, *aitorlea*.
Frantzisko Garate, *dohatsua, jesuita*.

bere-bere egin zituen erresistentzia pasiboaren alde egin zuenean. Praktikatu nahi dituenagan, arrokarik gogorrena hausteko moduko goratasun morala ukaitea eskatzen dute. Halakoek guztiz utzi dute alde batera talio-legea, eta areriorik makurrena maitasunaren maitasunaz konkistatzea dute helburu.

Izan zaitetz gupidatsu Jainko zeure Aita bezala, eta ekin iezaiozu jada konbertsioari: Jauna, etsaitzat ditudan guztien alde erregutzen dizut, gorroto nautenen alde, gaitzesten eta iraintzen nautenen alde. Egiezu on, guztiz.

Urteko 23. astea.

Tomas dohatsua Zumarragakoa, *apaiza*, eta lagunak, *martiriak (Gasteizko elizbarrutian)*.

[1 Timoteori 1,1-2.12-14: *Ni lehenago biraolari nintzen, baina Jauna errukitu zitzaidan. Sal 15: Zu zara, Jauna, nire ondarea.*]

Jesu Kristoren Ebanjelioa San Lukasen liburutik 6,39-42.

Aldi hartan Jesusek parabola bat ere esan zien ikasleei: «Itsua itsuaren gidari izan ote liteke? Ez ote dira biak zulora eroriko? Ikaslea ez da irakaslea baino handiago, baina ongi eskolaturiko ikaslea irakaslea adinako izango da. «Nolatan ikusten duzu senidearen begiko lasto-izpia eta zeure begiko hagaz ohartzen ez? Nolatan esan diezaiokezu senideari: “Adiskide, utzi begian duzun lasto-izpia ateratzen”, zuk zeurean duzun haga ikusten ez duzula? Itxurazale hori! Kendu lehenengo zeure begitik haga, eta orduan ikusiko duzu garbi, senidearen begitik lasto-izpia ateratzeko.

Bai abilak garela besteak juzgatzean! Gure hitzak, ia beti, bizikide ditugunen kontra joan ohi dira. Susmoak ziurtasun bihurtzen dira, zantzuak froga. Geuretzat ez dugu onartzen kritikarik txikiena ere, baina besteak koloka uzteko batere erreparorik ez. Eta zenbat eta ahulagoa gure kritikaren xedea, orduan eta krudelkiago ahalegintzen gara. Laster ikasten dute hori hurrek eskolan eta, gero, nagusiago direnean, arin baino arinago jotzen dute, ezker-eskuin, deskalifikazio hauetara.

Barkatu, Jauna; ni besteak bezala juzga nazazun mereziko nuke nik.

[Urtekoa: 1 Timoteori 1,15-17: *Bekatariak salbatzera etorri zen lurrera. Sal 112: Jaunaren izena bedeinkatua izan bedi, gizaldiz gizaldi.*]

Jesu Kristoren Ebanjelioa San Lukasen liburutik 6,43-49.

Aldi hartan Jesusek esan zien ikasleei: «Ez dago zuhaitz onik fruitu txarra ematen duenik, ezta zuhaitz txarririk ere fruitu ona ematen duenik. Bere fruituetatik antzematen zaio zuhaitzari; ez da arantzatik pikurik biltzen, ezta sasitik ere mahatsik hartzen. Ona denak ona ateratzen du bere barneko ontasun-altxorretik, eta gaiztoak gaitza bere gaiztakeri altxorretik. Ahoak esan, bihotzari gainezka darionetik esaten baitu.

Zergatik esaten didazue “Jauna, Jauna”, eta ez duzue egiten esaten dizuedana? Erakutsiko dizuet noren antzeko den nigana hurbildu eta nire esanak entzun eta betetzen dituen: etxea egitean, zulatu, sarkondu eta oinarriak harkaitzean hartu zituen gizon baten antzekoa da. Uholdea gertaturik, jo zuen ur-boladak etxea, baina ezin izan zuen dardararazi, sendo egina baitzen. Entzun bai, baina betetzen ez dituen, berriz, etxea lur gainean, oinarririk gabe, egin zuen gizonaren antzekoa da. Jo zuen ur-boladak eta berehala erori zen, eta dena porrokatua gelditu».

[**Estibalizko Andre Mariarena.** Sirak 24,1-2.5-6.12-16.26-30: *Maria, jakinduriaren aulkia. Salmoa: 1 Samuel: Jauzika daukat bihotza Jaunagan, nire Salbatzaileagan.*]

† Jesu Kristoren Ebanjelioa San Lukasen liburutik 1,39-47.

Aldi hartan, Maria jaiki eta bizi-bizi mendi aldera joan zen, Judeako herri batera, eta Zakariasenean sartu, eta Elisabeti agur egin zion. Elisabeti, Mariaren agurra entzun orduko, jauzi egin zion hau-

Urteko 23. astea.Estibalizko Andre Maria (*Arabako Zaindaria*).

rrak sabelean. Elisabet Espiritu Santuaz bete zen, eta esan zuen oihu handiz: «Bedeinkatua zu emakumeen artean eta bedeinkatua zure sabeleko fruitua. Nondik niri, neure Jaunaren ama nigana etortzea? Zure agurra nire belarrietara iritsi orduko, jauzi egin dit haurrak pozez sabelean. Zorionekoa zu, sinetsi duzulako, beteko baitu Jaunak esan dizuna!». Orduan Mariak esan zuen: Handiesten du nire arimak Jauna, / pozaren pozez daukat nire barnea».

Estibalizko Andre Maria Birjina

Estibalizko santutegiaren lehenbiziko albiste idatzia 1074koa da, Estibalizko Jaun edo Kondeak elizako eskuineko aldea Donemiliaga Kukulako (Errioxa) monasterioari emate-agirian. Sortzez, bertako jaunaren otoitz-leku izango zen santutegia. XII-XVI mende artean joera eta debozio handia zion Arabako herriak Estibalizko santutegiari. Bi jai nagusi izan ohi ziren Estibalitzen: Jainkoaren Semearen Gizakundekoa –gehienetan Garizuman izaten denez, maiatzaren 1ean ospatu ohi zuten– eta iraileko igande batean, ziur aski Estibalizko Andre Mariari uztarengatik eskerrak emateko. 1608an Frantziskotarrak beren ardurapean hartu nahi izan zuten Estibalizko santutegia, eta Gasteizko Udalak baimena ere eman zien; baina ez zuten antolatu anaidirik. XIX. mendeko gerrateak zirela eta, santutegi oineko Villafrancako parrokiara jaitsi zuten Andre Mariaren irudia. XX. mendean berpiztu eta indarberritu egin zen Estibalitzeko joera eta debozioa, batez ere 1906an santutegia eraberritu eta urriaren 21ean Andre Maria berriz ere hara igo zutenez geroztik. 1915ean aldare nagusi berria sagaratu zuen apezpikuak. 1923az geroz, antzina kaperauarena zen etxea handiturik, beneditar lekaide-taldea kokatu zen Estibalitzen. (*Dionisio Amundarain*).

Bi aholku demazkigu Jesusek. Lehenengoa, ongia gaizkitik bereizteko irizpidea da. «Beren fruituetarik ezagutuko dituzue». Gaizkira daramana kaltegarri da, ongira daramana baliotsu. Bigarrena abisu bat da: Jesusen hitzak txalotzen dituzte, baina haietaz berehala ahaztu eta ohitura zaharrei jarraitzen. Konbertsiorako deia egin digu Jainkoak, jarrera eta jokabidea aldatzeko deia. Hitzak betetzen ez bada, uholderik arinenak berekin eramango du etxea. Zergatik deitzen didazu Jauna eta ez duzu egiten nik esana?

Urteko 24. astea.San Joan Krisostomo, *gotzaina eta eliz irakaslea.***§ Isaias Profetaren liburutik 50,5-9a.**

Jaunak belarria ireki dit, eta nik ez diot gogor egin; ez dut atzera egin. Bizkarra ipini diet jotzen nindutenei; masaila bizarretik tiraka ari zitzaizkidanei. Ez diet aurpegia saihestu irainei eta listuei. Neure Jauna nuen laguntzaile; horregatik ipini nuen aurpegia, harri gogor bezala, eta badakit ez naizela lotsagarri gertatuko. Ondoan dut neure laguntzailea, nork eraman ni auzitara? Jar gaitezen aurrez aurre, nork du nirekin auzirik? Datorrela! Hara, neure Jauna dut lagun, nork galduko nau?

[Sal 114: *Ibiliko naiz Jaunaren aurrean, bizien lurrean.*]

§ Santiago Apostoluaren gutunetik 2,14-18.

Ene senideok: Zertako du batek, «nik sinesten dut» esatea, egintza onik ez badu? Horrelako sinesmenak salba ote dezake inor? Egin dezagun, anaia edo arrebaren bat jantzirik gabe eta eguneroko ogirik gabe dagoela, eta zuetako batek esaten diola: «Zoaz bakean, berotu zaitetz eta ase»; gorputzerako beharrezko dutenik ematen ez badiezu, zertako izango litzake hori esatea? Horrela gertatzen da sinesmenarekin ere: egintza onik ez badu, hilik dago bere baitan. Norbaitek esan dezake: «Zuk sinesmena duzu; nik, berriz, egintzak. Erakutsiezadazu zeure sinesmena, egintzarik gabea; nik, berriz, egintzetatik erakutsiko dizut neure sinesmena».

Jesu Kristoren Ebanjelioa San Markosen liburutik 8,27-35.

Aldi hartan, joan zen Jesus ikasleekin Filiporen Zesarean dauden herrixketara, eta bidean galdetu zien ikasleei: «ni nor naizela dio jendeak?» Haiek erantzun: «Batzuek Joan Bataiatzailea; beste batzuek Elias; besteek, berriz, profetaren bat». Jesusek orduan: «Eta zuek nor naizela diozue?» Pedrok erantzun: «Zu Mesias zara». Jesusek inori ez esateko agindu zien zorrotz. Eta irakasten hasi zitzaien: «Beharrezkoa

da Gizonaren Semeak neke handiak jasatea: zaharrek, apaizburuek eta lege-maisuek gaitzetsiko dute eta hilko, baina hirugarren egunean piztuko da». Eta, horrela, argi eta garbi mintzatzen zitzaien. Orduan Pedrok, bereiz harturik, haserre antzean erantzun zion. Jesusek, itzulirik eta ikasleei begira, haserre egin zion Pedrori: «Jar zaitez nire atzean, Satanas! Zure pentsaera ez baita Jainkoarena, gizakiarena baizik». Eta jendea eta ikasleak batera deiturik, esan zien: «Nirekin etorri nahi duenak uko egin biezaio bere buruari, har beza bere gurutzea eta jarrai biezat. Izan ere, bizia salbatu nahi duenak galduko du, baina bere bizia nigatik eta Berri Onagatik galduko duenak salbatuko du».

Nor da Jesus zuretzat? Imajina ezazu haren aurrean zaudela eta, egiteko modurik bada, adieraz ezazu zeure erantzuna ozenki, bihur ezazu hitz ozen norbaiten aurrean bazeunde bezala, solasaldi batean galdera egin lizukeen konfiantzako adiskide baten aurrean bazeunde bezala. Elizan edo beste norbaiten aurrean bazaude, berriz, esazu zeure baitan, ahopean, baina hitzak eratuz; ez zaitez gelditu ideia lainotsuekin edota kristaldutako erantzunekin (Jainkoaren Semea, Jainko eta gizon...). Grabagailu bat eskura bazenu, on egingo lizuke grabatu eta gero entzuteak.

Joka ezazu egiazale, bai zeure buruarekin, bai Jesusekin. Esaiozu nola txunditu zaituen zeure bizitzan, zein unetan sentitu zaren beragandik hurbilena, zer zaizun neketsuena beraren irakaspenetik, beraren zein irizpide eta jarrerarekin sentitzen zaren konformeago. Zein garrantzi du Jesusek zure bizitzan? Haren adiskide mintzat al daukazu zeure burua, haren arazoan militante soiltzat ala zale on huts bat bezala?

Eskaiozu, ager dakizula bera modu berezi batean, harekiko zure gogo beroa etengabe handituz joan dadin. Eman diezazula ezagutzera zein edo zer den bera egiaz. Eman diezazula gogoia zeure bizitza osoa haren arazo edo auzian gastatzeko; lagundu diezazula, horrelako eskaintza bat egiteko ahul eta ezgai sentitzen zarelako.

Urteko 24. astea.

GURUTZE SANTUAREN GORAPENA.

Jerusalemeko San Alberto, *gotzaina*.

§ Zenbakiak liburutik 21,4b-9.

Egun haietan, Hor menditik, Itsaso Gorri aldera abiatu ziren hebrearrak, Edomeko lurraldea inguratuz. Bidez aspertuta, Jainkoaren eta Moisesen aurka marmarrean hasi ziren: «Zertako atera gaituzu Egiptotik, basamortuan hiltzeko? Ez da, ez ogirik, ez urik, eta asper-turik gaude janari txar honekin».

Orduan Jaunak pozoiz-miztodun sugeak bidali zizkion herriari; hauek hozka egiten zieten, eta israeldar asko hil zen. Herria Moisesengana joan eta esan zion: «Bekatu egin dugu Jaunaren eta zure kontra marmar eginez. Eska iezaiozu Jaunari ken ditzala sugeak gu-gandik».

Egin zuen otoitz Moisesek herriaren alde, eta Jaunak esan zion: «Egizu suge bat, eta ipini haga baten muturrean. Sugeak hozkatuak izan diren guztiak, hari begiraten badiote, sendatuko dira». Egin zuen Moisesek tupikizko suge bat eta hagaren muturrean ipini zuen. Sugereren batek inori hozka egiten zionean, tupikizko sugeari begiraten zion eta sendatu egiten zen.

[Sal 77: *Ez ahaztu Jainkoak eginak.*]

§ Paulo apostoluak filipoarrei 2,6-11.

Kristo Jesusek, Jainkoaren izaera bereko izanik, ez zion gogor eutsi Jainkoarekin berdin izateari; bestela baizik, bereaz hustu egin zen, morroi-izaera hartuz, eta beste edozein bezala azalduz. Eta gizon bezala agerturik, apaldu egin zuen bere burua, menpeko eginez heriotzaraino, gurutzeko heriotzaraino. Horregatik, Jainkoak goratu egin zuen, eta izen guztien gaineko izena eman zion, Jesusen izenera belaun guztiak makur daitezen, zeruan, lurpean eta lurpean, eta mihi guztiek aitor dezaten: Jesu Kristo, Jauna da, Aita Jainkoaren aintzarako.

Urteko 24. astea.
GURUTZE SANTUAREN GORAPENA.
Jerusalemeko San Alberto, *gotzaina.*

† Jesu Kristoren Ebanjelioa San Joanen liburutik 3,13-17.

Aldi hartan, Jesusek esan zion Nikodemori: «Inor ez da zerura igo, zerutik jaitsi zena besterik: Gizonaren Semea. Moisesek basamortuan sugea altxatu zuen bezala, hala altxatu beharra da Gizonaren Semea; sinesten dion guztiak betiko bizia izan dezan. Hain maite izan baitu Jainkoak mundua, bere Seme bakarra eman baitio, hari sinesten dion inor gal ez dadin, baizik eta betiko bizia izan dezan. Jainkoak ez baitu bere Semea bidali mundua galtzera, baizik eta haren bitartez mundua salba dadin».

Bai esapide kontsolagarriak gaurko ebanjelioko azken bi hauek! Zorakeria huts direla esango litzateke, baina egia borobil dira: Hartaraino maite gaitu Jainkoak, non bere Seme bakarrak gurekin bizitzea nahi izan baitzuen eta gugatik hiltzea, behin betiko hondamenditik gu libratzeko. Norbait gai baldin bada hori guztia bete-betean ulertu eta azaltzeko, Jainkoaren aintzan bizi den seinalea da. Gure ulermen estua ez da gai Jainkoagandiko horrelako maitasun hori ulertzeko; guztiz merezi gabe izateaz gain, ezin adierazia da. Gizon-emakumeon zorakeriak eta krudelkeriak ontzat emango lukete, kasik, gizon-emakume guztiok gaitzestea; baina egiaz eskaini zaiguna erabateko amnistia da. Nola eskertu?

Urteko 24. astea.

DOLORETAKO ANDRE MARIA.

§ Paulo apostoluak hebrearrei 5,7-9.

Senideok: Kristok, haragizko bere bizitzaldian, heriotzatik gorde zezakeenari, deiar dar handiz eta negarrez, otoitzak eta eskariak egin zizkion, eta bere begiruneagatik entzun egin zion Aitak. Eta Semea izanik ere, bere neke artean ikasi zuen esaneko izaten, eta, bere betera iritsirik, haren esaneko direnentzat betiko salbamen-iturri egin zen, Jainkoak apaiz nagusi izendatua, Melkisedeken sailean.

[Sal 30: *Salba nazazu, Jauna, zeure errukiaz.*]

Neurtitza

Zutik, gurutze ondoan, / Ama samina zegoan, / eta Semea zintzilik. / Haren arimaren mina!, / zazpi ezpatek egina, / han zegoen larririk.

Hain estu eta atsekabea, / Seme bakardun Andrea, / Ama be-deinkatua! / Oinazez eta atsekabez, / Seme kutunaren lanez / zegoen kupitua.

Nork ez du negar egingo, / Jesusen Ama halango oinazez ikusita? / Ama Semeak ikustean / biak oinaze berean / elkarrekin josita?

Bazekien beretarren / erruz zutela zigortzen / Jesus, bere maitea. / Inortxok ere ez laguntzen, / eta azken arnasa ematen / han zekusan Semea.

Hots, Ama, maite-iturri, / zurekin oinaze bizi / har dezadan egizu. / Sutu Kristoren maitean / bihotz hau, eta haren aurrean / eder egin nazazu.

Ama, nire bihotzari / Kristoren zauriak jarri, / otoi, mami-mamian. / Seme horren neke-lanak / erdiz bidal niregana, / maite nauen sarian.

Zurekin negar bizian / naukazu, eta haren zorian, / hil nadin ar-teraino. / Zurekin gurutze ondoan / lagunduz, negar malkoan / nagon bizi naizeino.

Birjinetan ederrena, / zakizkit samurrena, / niri negar eragin. /
Kristoren neke-herio / zauriak hartzeko, bihotz / hau adoretzu egin.

Zauri ni zeure zauriez, / zora ni zeure odolez, / gurutze-iturri-
pean. / Su-garrez erre ez nazaten / nire alde jarri, arren, / Ama azken
egunean.

Hemendik irtetekoan, / Amaren bidez ni noan, / Kristo, garai-
penera. / Nire gorputz hau hiltzean, / arima doala hegan / Zeruko
pozetara. Amen.

† Jesu Kristoren Ebanjelioa San Joanen liburutik [19,25-27](#).

Aldi hartan, Jesusen gurutzearen oinean zeuden: haren ama, ama-
ren ahizpa –Kleofasen Maria– eta Maria Magdalena. Jesusek bere
ama ikustean eta, han bertan, berak hain maite zuen ikaslea, esan
zion amari: «Andrea, horra hor zeure semea!» Eta gero ikasleari:
«Horra hor zeure ama!» Eta orduz gero, ikasleak bere etxean hartu
zuen Maria.

Bizitzan zoritxarrak ugari direlako, asko dira Ama Dolore-
takoaren zaleak. Izan ere, bere Semea gurutzean halako modu izuga-
rrian «galdu» duen ama hau milioika fededunen lagun min eta babes
izan da, pertsona maite baten sufrimenduagatik edo heriotzagatik
beragana atsekabez jo dutenean. Are gehiago, bihotza zeharkatzen
omen dioten zazpi ezpata edo labana asmatu zaizkio.

Gure fedeko kontsolamendu handietako bat jakitea da, Jesus eta
Maria aurrekari izan ditugula oinazezan eta atsekabeaz, heriotza bera
ere jasanez. Hargatik, konfiantza osoz jo dezakegu geure Amagana
eta haren Semeagana, indarra eta adorea lortzeko, Ama eta Semea
lagun ditugula, geure bizitzako sufrimenduak gainditu ahal izateko.

Urteko 24. astea.

San Kornelio, aita santua eta San Zipriano, gotzaina, martiriak.

[1 Timoteori 3,14-16: *Handia da gurtzen dugun misterioa. Sal 110: Handiak dira Jaunak eginak.*]

† Jesu Kristoren Ebanjelioa San Lukasen liburutik 7,31-35.

Aldi hartan, Jesusek esan zuen: «Noren antzekoak direla esango nuke gizaldi honetako gizakiak? Noren antzekoak dira hauek? Plazan eserita dauden mutikoen antzekoak dira; honela oihu egiten baitiete elkarri: “Soinua jotzen dugu eta ez zarete dantzatzen, / hiletak kantatzen ditugu / eta ez duzue negarrik egiten”. Izan ere, etorri zen Joan Bataiatzailea, eta ez zuelako, ez ogirik jaten, ez ardorik edaten, esan zenuten: “Deabrua du berekin”. Etorri da Gizonaren Semea jaten eta edaten duena, eta diozue: “Horra tripazaina eta ardo-edalea, zergabiltzaileen eta bekatarien adiskidea”. Baina Jainkoaren jakinduriari arrazoi eman diote bere ikasleek».

Dena aitzakia hutsa, edozein aldaketa eskatzen zaigunean. Edozein gauza berriren kontra agertu ohi gara, batez ere geure konbentzimenduei dagokienean edota bizitzari jira mingarri bat ematea eskatzen digunean. Geure itxituran hesitzera jo ohi dugu. Jaiki, geure baitatik irten eta beste etorkizun baterantz irteerari ekitea, ezin eskalatuzko mendi-murru bihurtzen zaigu, ez indar-faltagatik, baizik gogo-faltagatik.

Horixe gertatu zitzaion Jesusen garaikideei; nahiago izan zituzten molde zaharrak zahagi berriak baino. Uko egin zioten Jesusi, gauzatu nahi ez zuten konbertsioa eskatu zielako.

Urteko 24. astea.

San Roberto Belarmino, *gotzaina*
eta eliz irakaslea, jesuita.

[1 Timoteori 4,12-16: *Begiratu zeure buruari eta irakaspenari; hori eginez salbatuko dituzu, bai zeure burua, bai zeure entzuleak. Sal 110: Handiak dira Jaunak eginak.*]

† Jesu Kristoren Ebanjelioa San Lukasen liburutik **7,36-50**.

Aldi hartan, fariseu batek berarekin bazkaltzera joateko eskatu zion Jesusi. Sartu zen Jesus fariseu haren etxean eta mahaiari jarri zen. Hone-tan, herrian zen emakume bekataria batek, fariseuaren etxean bazkaltzen zela jakin zuenean, hartu zuen gantzu usain-gozodunez betetako ontzi eder bat, Jesusen atzean jarri eta oinak malkoz bustitzen hasi zitzaion, eta bere buruko ile-adatsez xukatzen, musuka eta usain-gozoz gantzu-tzen. Bazkaltzera deitu zuen fariseuak, hau ikusirik, bere barruan zioen: «Profeta balitz, jakin behar luke honek, nor eta nolakoa den ukitzen duen emakume hori, bekataria baita». Baina Jesusek esan zion: «Simon, badut zerbait zuri esateko». Eta hark: «Esazu, Maisu». Jesusek: «Diru-aurre-ratzaile batek bi zordun zituen: bata bostehun denario zor zizkion, eta besteak berrogeita hamar. Ez zeukaten nondik ordaindurik, eta barkatu zien bie. Bi hauetan zeinek maiteko du gehien?» Eta Simonek: «Gehien barkatu zaionak, nik uste». Jesusek: «Ondo erabaki duzu». Eta emaku-meagana itzulirik, esan zion Simoni: «Ikusten al duzu emakume hau? Zuenean sartu naiz, eta ez didazu oinetarako urik eman; honek, berriz, malkoz busti dizkit oinak, eta bere ilez lehortu. Ez didazu laztanik eman; hau, berriz, sartuz geroztik, oinak laztantzen ari zait etengabe. Ez didazu burua olioaz gantzutu; honek, berriz, usain-gozoz gantzutu dizkit oinak. Hau diotsut, beraz: asko maite izan du, eta barkatu ere bekaturik asko barkatu zaio. Gutxi barkatzen zaionak, maitatu ere gutxi maitatzen du». Eta emakumeari esan zion: «Barkatuak dituzu bekatuak». Jesusekin ma-haiari zeudenak beren artean esaten hasi ziren: «Nor dugu, ordea, beka-tuak ere barkatzen dituen hau?» Jesusek, berriz, esan zion emakumeari: «Zeure sinesmenak salbatu zaitu. Zoaz bakean».

Urteko 24. astea.

San Roberto Belarmino, *gotzaina*
eta eliz irakaslea, jesuita.

Roberto Belarmino 1542an jaio zen Italian. Hemezortzi urteko zela, Jesusen Lagundira jo zuen. Kolegio Erromanoko (Unibertsitate Gregorianoa) irakasle eta errektore izan zen, eta probintzia-buru. Teologiako eta espiritualitateko liburu oso preziatuak idatzi zituen. Kardinal izendaturik, Kanpuako artxidiozesiko buru izan zen. Aita santuaren aholkulari ere izan zen garrantzi handienetako arazoetan. Erroman hil zen 1621ean. Eliza orokorreko doktore da.

Jauna, emadazu egiazko jakinduria, neure bizitzako arazo inportanteetan erabakiak zure gogoaren arabera har ditzadan.

* * *

ZUK NAUZU SALBATZEN

(José María R. Olaizola, s.j.)

Ez zara nirekin aspertzen,
tarteka neure burua neuk ere ezin badut jasan.
Ez duzu amore ematen,
horrenbesteraino banaiz ere
urruntzen, ezikusia egiten, galtzen.
Ez duzu etsitzen,
zoroa bainaiz ni,
baina nekaezina zu.
Ez didazu ezikusiarena egiten,
zure maitasuna
handiagoa baita arrazoiak baino.
Ukan ezazu pazientzia nirekin,
ez baitzaitu etsiak hartzen,
eta nitaz konfiantza agertzearekin
begiak baitizkidazu irekitzen
eta hegoak...

Karlos Eraña, Fidel Fuidio eta Jesus Hita, dohatsuak, *erlijioso eta martiriak*. San Jose Kupertino-koa, *erlijiosoa*.

[1 Timoteori 6,2c-12: *Zuk, ordea, Jainkoaren gizon horrek, bila ezazu zuzenbidea. Sal 48: Zorionekoak, gogoz behartsu direnak, berena dute-eta zeruetako erreinua.*]

Jesu Kristoren ebanjelioa San Lukasen liburutik 8,1-3.

Aldi hartan, herriz herri eta auzorik auzo ibili zen Jesus, Jainkoaren erregetzaren berri ona hots eginez. Berekin zituen Hamabiak, baita espiritu gaiztoetatik eta gaitzetatik sendatuak zituen zenbait emakume ere: Magdalako Maria –honengandik zazpi deabru bota zituen–, Joana –Herodesen etxezain Kusaren emaztea–, Susana eta beste asko. Guztiok beren ondasunez laguntzen zieten Jesusi eta honen ikasleei.

Jesus batetik bestera ibili ohi zen, predikari ibiltari. Entzun nahi izaten ziotenen artean gelditu ohi zen; entzun nahi ez ziotenen kasuan, alde egiten zuen, ez madarikatu ez gaitzetsi. Hurbilenetako ikasleak zituen lagun, eta emakume-talde bat, Jesusen zale bizi, arrazoi desberdinengatik. Kristau-elkarteak nolako izan beharko lukeen marrazten du hemen ebanjelariak: anai-arreba artekoa, familia bakar batean bildua, ez odol-loturaz, baizik Jesusekiko grinaz, miresmenaz, fedez. Hemen jada ondasun-elkarte bat seinalatzen du Lukasek; printzipio hori izango dute gidari lehen kristauek; horrek beharko luke izan gure lege.

Urteko 24. astea.

San Jenaro, *gotzaina eta martiria*.

[1 Timoteori 6,13-16: *Bete agindua kutsurik gabe, Jauna agertzearen eguna arte. Sal 99: Jaunaren aurrera pozez oihuka sar gaitezen.*]

† Jesu Kristoren Ebanjelioa San Lukasen liburutik 8,4-15.

Aldi hartan, herri guztietatik etorritako jendetza handia bildu zitzaion batean, Jesusek parabola hau esan zien: «Atera zen ereilea hazia ereitera. Eta ereitean, hazi batzuk bide bazterrean erori ziren, hankapean zapaldu zituzten eta zeruko hegaztiek jan. Beste batzuk harri tartean erori ziren eta, erne orduko, ihartu egin ziren, ez baitzuten hezetasunik. Beste batzuk arantza artean erori ziren, eta beraiekin batean sortutako arantzek ito egin zituzten. Besteak lur onean erori ziren, eta, ernetakoan, bateko ehun eman zuten». Hau esanik, oihu egin zuen: «Entzuteko belarririk duenak, entzun dezala». Ikasleek, orduan, parabola honek zer esan nahi zuen galdetu zioten. Jesusek erantzun zien: «Zuei eman zaizue, Jainkoaren erreinuaren misterioak ezagutzea; besteei, ordea, parabolatan agertzen zaie; ikusiz ikus ez dezaten, eta entzunez uler ez dezaten. Hau da parabolaren esanahia. Hazia Jainkoaren hitza da. Bide-bazterrekoak hitza entzuten dutenak dira, baina gero etortzen da deabrua eta kendu egiten die hitza beren bihotzetik, sinetsi eta salba ez daitezten. Harri artekoak, hitza entzutean pozik hartzen dutenak dira; baina zainik izan ez, eta denbora gutxiko sinestea dute, eta tentaldian atzera egiten dute. Arantza artean eroritakoak, entzuten dutenak dira, baina bizitzako ardura dela, edota aberastasunak eta gainerako atseginkeriak direla-eta, ito egiten dira eta ez dute alerik ematen. Lur onean eroritakoak bihotz on eta jorian hitza entzuten eta gordetzen dutenak dira, eta gero ekinaren ekinez alea ematen dutenak».

Gaurko ebanjelioko parabola honek fedearen hiru etsai adierazten ditu. Lehena, iraupenik eza. Ebanjelioak kontra egiten die beste irizpide batzuei, eta galtzekoak dituela ematen du, zeren beste horiek eraginkorrakoak omen dira bizitzan aurrera egiteko. Bigarrena, arinkeria da, gaur egun oso sarri ageri dena. Jendea sentsazio-sare baten neskame-morroi egin da: orain bat gero bestea, eta ez da gai gauza iraunkorrak eta iheskorak bereizteko. Azkenik, diru-gosea da: plazer-, esperientzia- eta aberastasun-egarri aseezina, Jainkoaren hitzari zartako gaitza ematen diona. Errepara ezazu, hauetakoren batean herren ote zabiltzan.

* * *

ZURE PREMIA DUT
(*R. Tagore*)

Zure premia dut, zurea soilik!
Uztazu errepikatzen neure bihotzean aspertu gabe.
Gainerako desioak, gau eta egun bahitzen nauten haiek,
sasiko dira eta hutsal barneraino.
Gauak gordetzen duen bezala bere ilunean
argi nahia,
hala ene inkontzientearen ilunean
durundi du egiten oihu honek:
Zure premia dut, zurea soilik!
Ekaitza dabilen bezala bake bila
bakea duenean kolpatzen bere botereaz,
hala du kolpatzen nire asaldurak zure maitasuna eta oihu egiten:
Zure premia dut, zurea soilik!

Urteko 25. astea.

San Andres Kim Taegon, *apaiza*, San Paulo Chong Hassag eta lagunak, *martiriak (Koreako martiriak)*.

§ Jakinduria liburutik 2,12.17-20.

Gaiztoek esan zuten: «Sareak jar diezazkiogun zintzoari, ikus dezagun haren biziaren azkena. Zintzoa bada eta Jainkoaren semea, zainduko du, eta aterako, etsaien eskuetatik. Sar dezagun irainetan eta oinazetan, haren ona ezagutzeko eta egonarrria neurtzeko. Eman diezaiogun heriotza lotsagarria, zaintzailea baduela esan baitu».

[Sal 53: *Jauna da nire biziaren eusle.*]

§ Santiago Apostoluaren gutunetik 3,16-4,3.

Senide-maiteok: Elkar ikusi-ezina eta etsaikeria dauden tokian, han daude nahaspila eta era guztietako egite okerrak. Goitik datorren jakinduria, berriz, lehenik garbia da, eta gainera baketsua, eratsua, apala, errukiz eta egintza onez betea, alderdikeria eta zurikeriarik gabea. Bakezaleek bakea ereiten dute, eta bakeak zuzentasuna dakar ondorio. Nondik datoz zuen arteko haserreak eta borrokak? Ez ote datoz, zuen barruan borrokan ari diren grina txarretatik? Irrikatzen duzue eta iristen ez; hil egiten duzue; bekaitzez beteak zaudete, eta ez duzue ezer iristen; borroka eta gudu egiten diozue elkarri. Ez daukazue, eskatzen ez duzelako; eskatzen duzue eta ez duzue ezer hartzen, gaizki eskatzen duzelako, zeuen grinak asetzeagatik.

† Jesu Kristoren Ebanjelioa San Markosen liburutik 9,30-37.

Aldi hartan, Jesus eta ikasleak menditik alde egin eta Galilean barna joan ziren; Jesusek ez zuen nahi hori inork jakiterik, ikasleei irakasten ari baitzitzaian. Esaten zien: «Gizonaren Semea gizakien esku utzia izango da; hilko dute, baina hil eta hirugarren egunean piztuko da». Haiek, ordea, ez zuten ulertzen esaten ziena, eta beldurra ematen zien galdetzeak. Iritsi ziren Kafarnaumera, eta, etxean zeudela, Jesusek galdetu zien: «Zer eztabaida zenuten bidean?» Haiek,

Urteko 25. astea.

San Andres Kim Taegon, *apaiza*, San Paulo Chong Hassag eta lagunak, *martiriak* (*Koreako martiriak*).

ordea, isilik; handiena nor zen: hori izan baitzuten beren arteko eztabaida. Eseri zen Jesus, Hamabiei deitu eta esan zien: «Norbaitek lehenengo izan nahi badu, izan bedi denetan azkena eta guztien zerbitzari». Eta haurtxo bat hartu eta haien erdian jarri zuen, eta, hura besarkaturik, esan zien: «Honelako haurtxo bat nire izenean hartzen duenak ni hartzen nau, eta ni hartzen nauenak, ez nau ni hartzen, ni bidali nauena baizik».

Bakarrean eskolatzen ditu Jesusek ikasleak. Berrito azpimarratu die beraren azkena ez dela izango garaipen aintzatsu bat, baizik urkamendia, beraren auziak mundu honetan porrota izango duela azkena, baina horixe bera izango dela beste biziera berpiztu baten hasiera. Alabaina nahi duguna entzun ohi dugu guztiok. Eta apostoluak azken hau bakarrik jaso (entzun) dute; piztuera hori zer izango den galdetu ordez, isildu egin dira, ez dira ausartu galdetzera, eta aurretik joaten utzi diote Jesusi; beraiek, berriz, atzera gelditu dira handiena zein izango den eztabaidatzeko, aberastasun-, ohore- eta botere-erreinu izango dela amesten duten erreinu horretan. Ez dira gai zoriontasuna beste era batean imajinatzeko.

Jesus, iluntzean, gaizki-ulertze hori argitu beharrean gertatu da. Haur bat, indarge bat, garaiko gizartean inolako eskubiderik ez duten horietako bat hartu, eta esaten die, horrelako bat onartu eta zerbitzatzeko duena, hura izango da gorenena nire Erreinuaren. Babesgabe bati laguntzen diona berari ari dela laguntzen esaten die eta, beragan, Jainkoari berari. Gehiegi ikasleen ulermenerako! Eta niretzat?

Urteko 25. astea.

SAN MATEO, APOSTOLUA ETA EBANJELARIA.

San Jonas, *profeta*.

§ Paulo apostoluak efesoarrei 4,1-7.11-13.

Senideok: nik, Jaunagatik bahitua nagoen honek, eskatzen dizuet, zabiltzatela egin zaizuen deiari dagokionez. Izan beti apal, maitagarri, bihotz handiko; eraman elkar maitekiro; saia zaitezte Espirituaren batasunari eusten, bakearen lokarritz. Bat bakarra da gorputza, bat bakarra Espiritua, bat bakarra den bezala zuek izan duzuen deiaren itxaropena ere. Bat bakarra Jauna, bat sinesmena, bat Bataioa, bat bakarra Jaungoikoa, guztion Aita, gauza guztien gainetik dagoena, guztien barruan eta guztiengan. Grazia gutako bakoitzari Kristoren dohainaren neurritz eman zaigu. Eta hark berak egin ditu batzuk apostolu, beste batzuk profeta, beste batzuk ebanjelari, beste batzuk artzain eta irakasle, eliztarrak beren zerbitzu-lanetarako eratzeko, eta Kristoren gorputza eraikitzeko, guztiok Jaungoikoaren Semearen sinestez eta ezagueraz bat izatera iritsi arte, gizon heldu izateraino—Kristoren adin beteko izateraino—.

[Sal 18: *Lur guztira zabaltzen da haien hotsa.*]

† Jesu Kristoren Ebanjelioa San Mateoren liburutik 9,9-13.

Aldi hartan, Jesusek, bidez zihoala, Mateo zeritzan gizon bat ikusi zuen zerga-biltzaileen mahaian eseria, eta esan zion: «Jarrai niri». Eta Mateok zutitu eta jarraitu zion. Jesus Mateoren etxean mahaian zegoela, zerga-biltzaile eta bekatarari asko etorri zen, eta mahaian eseri zen Jesusekin eta honen ikasleekin. Fariseuek hori ikusi eta esan zieten ikasleei: «Zergatik jaten du zuen Maisuak zerga-biltzaile eta bekatariekin?» Jesusek, hori entzunik, esan zien: «Ondo daudenek ez, baino gaixo daudenek behar dute sendagile. Zoazte, bada, eta ikas zer esan nahi duen esaera hark: “Opariak ez, baino errukia nahi dut nik”. Ez bainaiz zintzoei dei egitera etorri, bekatariei baizik».

Urteko 25. astea.
SAN MATEO, APOSTOLUA ETA EBANJELARIA.

San Jonas, *profeta*.

Hori da hori ahalmena duzuna, Jauna! Zerga-biltzaile horri begiratu eta «jarraitu niri» esatea aski izan duzu. Bere lanbide etekin-sua berehala utzi eta zure elkartekide egin da. Zertako? Zurekin bidez bide ibiltzeko, dirurik gabe, etxerik gabe, zure deiak eragin dion gogo bizia ez beste fardelik gabe. Gizon hau ez zen «jator» horietakoa, Natanael bezala, ezta arrantzale trakets bat ere, Pedro bezala. Zerga-biltzaile honek bazekien zerk duen balio munduan.

Jauna, begira iezadazu Mateori bezala, dei egidazu hari bezala: lilura nazazu. Utzi ditzadala alde batera neure segurtasunak eta jo dezadala zure ondoren, zure jendearekin.

Urteko 25. astea.

Karitateko Karmeldar Vedrunatar dohatsuak, *birjinak eta martiriak*.

[Esdras 6,7-8.12b.14-20: *Bukatu zuten tenplua eraikitzea, eta Pazkoa ospatu zuten. Sal 121: Bagoaz pozik Jaunaren etxera.*]

† Jesu Kristoren Ebanjelioa San Lukasen liburutik 8,19-21.

Aldi hartan, etorri ziren Jesusengana haren ama eta senideak, eta jendearen jendez ezin hurbildu zitzaizkion. Orduan esan zioten Jesusi: «Hor dituzu atarian zeure ama eta zeure senideak, Zu ikusi nahiz». Jesusek erantzun zien: «Jainkoaren hitza entzuten eta betetzen dutenak, horiek dira nire ama eta nire senideak».

Jendea bitartekari Jesusen eta honen familiaren artean. Jaunak argi ditu bere lehentasunak. Ugaldu egin dira beraren ahaideak. Berari entzun eta beraren auziaren alde jarri diren guztiak dira Jesusen familiarteko. Bere amari eta etxekoei geroxeago egingo die kasu.

Pasadizo honek erregalu eder bat utzi digu. Jesusek bere-bere egin ditu bizia eman digun haren gogoa nola bete dabiltzanak, anai-arreben elkarte batean bakearen, maitasunaren eta zuzentasunaren Erreinua eraikitzeko.

[Esdras 9,5-9: *Gure morrontzaren erdian Jainkoak ez gaitu erabat utzi. Salmoa: Tobit 13: Bedeinkatua Jainkoa, beti bizi dena.*]

† Jesu Kristoren Ebanjelioa San Lukasen liburutik 9,1-6.

Aldi hartan, Jesusek Hamabiak bildu eta deabru guztien gain indarra eta ahalmena eman zien, baita gaitzak sendatzeko ere. Gero, Jainkoaren erreinua hots egitera eta gaixoak sendatzera bidali zituen. Esan zien: «Ez hartu ezer biderako, ez makilarik, ez bide-zorrorik, ez ogirik, ez dirurik; ez eraman bi soineko ere. Egon sartuko zareten etxean, leku hartatik atera arte. Nonbaiten hartzen ez bazaituzte, berriz, astindu zeuen oinetako hautsak handik ateratzean, haien kontrako testigantzarako». Haiak atera eta herriz herri ibili ziren, alde guztietan berri ona hots egiten eta gaixoak sendatzen.

Aitaren bidalia da Jesus. Mundu honetan izan duen misioa aurrera eramateko gomendatu die bere ikasleei. Ebanjelioetan bidaltze asko errepikatzen dira azkena arte, zerura igo baino pixka bat arte. Eta beti gauza bera esaten die: hots egin Jainkoaren Erregetza, arindu jendearen sufrimendua, joan alde batetik bestera patrikan ezer eraman gabe, hornidurarik gabe, aldatzeko arroparik gabe. Gelditu ostatu ematen dizueten hartan, ez eskatu ordainik eta, onartzen ez bazaituzte, irten handik, inor madarikatu gabe. Horrela al dut ematen nik Jesusen berri?

Urteko 25. astea.

Mesedeetako Andre Maria.

[Ageo 1,1-8: *Eraiki Tenplua, nik poza izan dezadan. Sal 149: Maite du Jaunak bere herria.*]

† Jesu Kristoren Ebanjelioa San Lukasen liburutik 9, 7-9.

Aldi hartan, Galileako Herodes erregeak jakin zuen Jesusek egiten zituen guztien berri, eta kezkatan zegoen, batzuek esaten baitzuten: «Hau Joan Bataiatzailea da, hildakoen artetik piztua», eta beste batzuek: «Elias agertu da»; beste batzuek, berriz: «Antzinako profetaren bat piztu da». Herodesek, ordea, bere baitan zioen: «Joani nik lepoa moztu nion; nor da, beraz, horrelakoak egiten omen dituen hori?» Eta Jesus ikusi nahian zebilen.

Herodes, ebanjelioetan, festazale eta jai-otordu zale ageri da. Baita azti, ikusle eta «profeta» zale ere. Ez da aspertzen Joan Bataiatzailea lepo egin zuela esaten. Nazareteko Jesus honetaz, beraz beraren mendekoa den honetaz, gauza miresgarriak entzun ditu eta ezagutu nahian dabil. Ez, noski, Jainkoaren erreinua onartzeko, baidarik gauza miresgarriak egiten ikusi eta mirarigile hark zein hizketa-modu darabilen entzuteko.

Azkenean, beterik ikusiko du bere gogoan, Pilatok Ostiral Santuan Jesus bidaliko dionean. Baina Jesusek ez dio gusturik emango «azeri zahar» hari. Ebanjelioa ez da zirku bat.

[Ageo 2,1b-10: *Apur bat oraindik, eta aintzaz beteko dut etxe hau.* Sal 42: *Itxaron Jaunagan, hura dut goretsiko, neure aurpegia- ren salbamen eta neure Jainko.*]

† Jesu Kristoren Ebanjelioa San Lukasen liburutik 9,18-22.

Jesus bakardadean otoitzean ari zen batean, ikasleak hurbildu zitzaizkion eta Jesusek galdetu zien: «Ni nor naizela dio jendeak?» Haiek erantzun: «Batzuek Joan Bataiatzailea; beste batzuek Elias; besteek, berriz, antzinako profetaren bat piztu dela». Hark orduan: «Eta zuek nor naizela diozue?» Pedrok erantzun zion: «Jainkoaren Mesias». Baina Jesusek inori ez esateko agindu zien zorrotz. Esan zien gainera: «Beharrezkoa da Gizonaren Semeak neke handiak jasatea: zaharrek, apaizburuek eta lege-maisuek gaitzetsiko dute eta hilko, baina hirugarren egunean piztuko da».

Lukasek askotan aurkeztu digu Jesus otoitzean. Oraingoan, gainera, aparte samar ekin dio otoitzari, baina ikasleen begi-bistan. Apur baten ondoren, ezaguna dugun galdera bikoitza egin die ikasleei. Pedroren aitorenaren ondoren, bere mesianismoa isilik gordetzeko agindu die. Pedrori Jainkoak inspiratu dio bere erantzuna, hemen berariaz esaten ez bada ere. Fedea erregalu bat da. Jainkoak gutako bakoitzari egin nahi diguna. Horixe eskatu beharko genuke besteentzat eta geuretzat.

Urteko 25. astea.

San Kosme eta San Damian, *martiriak*.

[Zakarias 2,1-5.10-11a: *Etorriko naiz eta zuen artean biziko. Salmoa: Jeremias: Artzainak artaldea bezala zainduko gaitu Jaunak.*]

Jesu Kristoren Ebanjelioa San Lukasen liburutik 9,43b-45.

Jesusek egiten zituenengatik txunditurik zeuden denak. Hark esan zien ikasleei: «Hartu ongi gogoan hitzok: Gizonaren Semea gizakien eskuetara emango dute». Haiek, ordea, ez zuten ulertzen zer ari zitzaien; ilun gertatzen zitzaien, eta ezin ziren esanahiaz jabetu; galdetzera, berriz, ez ziren ausartzen.

Jesusen beste abisu bat eta beste izu bat jarraitzaileentzat. Isilik gelditzeko eta entzun dutenari sinesgarritasunik ez aitortzeko jarrera horrek ihesi joatera eramango ditu laster. Sinetsi nahi zuten, beste parabola bat gehiago zela Jesusek esan zien hura, eta ez zutela ulertzen haren zentzu irudizkoa. Baina beldur ziren galdetzeko, ez zela alegoria bat, baizik hitzen esangura gordina zela esango zien beldur. Datorrenari begiak ixtea izan ohi da jarrerarik txarrena, gainean den euri-jasa handi baten aurrean. Eta ederra egin zuten egiaren orduan ikasleek!

Urteko 26. astea.

San Bizente Paul, *fundatzailea (Pauldarrak eta Karitateko Ahizpak).*

§ Zenbakiak liburutik 11,25-29.

Egun haietan, jaitsi zen Jauna hodeian, eta Moisesi hitz egin zion. Eta harengan zegoen espiritutik hartu, eta hirurogei eta hamar zaha-rrengana isuri zuen. Eta espiritua haiengan kokatu orduko, profeta-hitza hots egiten hasi ziren. Gizon haietatik bi, Eldad eta Medad, txabolategian gelditu ziren. Aukeratuak izanagatik, ez ziren batzar-txabolara joan, baina hauengan ere kokatu zen espiritua eta profeta-hitza hots egiten hasi ziren txabolategian. Mutil batek Moisesengana lasterka jo eta esan zion: «Eldad eta Medad profeta-hitza hots egiten ari dira txabolategian». Josuek, Nunen semeak, gaztetandik Moises-en morroi zenak, esan zuen: «Moises, ene jauna, debeka iezaiezu». Baina Moisesek erantzun: Zergatik zure espa horiek nirekiko? Hobe izango litzateke Jaunaren herri osoa profeta balitz eta Jaunaren espi-ritua izango balu!»

[Sal 18: *Jaunaren arauak zuzenak dira, bihotzaren asegarri.*]

§ Santiago Apostoluaren gutunetik 5,1-6.

Zuek, aberatsok, egizue negar garrasi batean, gainera datoz-kizuen zoritxarrak direla-eta. Zuen ondasunak ustelduta daude, eta zuen jantziak sitsak janda; zuen urre-zilarrak, herdoilak jota, eta horien herdoilak zuen kontrako testigantza egingo du eta suak bezala jango zuen haragia. Azkenak diren egunotan pilatu duzue aberastasuna. Zuen soroetan igitaian egin duten langileei eman ez diezuen lan-saria deiadarka ari da, eta horien deiadarra iritsi da diren guztien Jaunaren belarrietaraino. Lurrean beti asean bizi izan zarete, eta atseginkerian; harakintza-egunerako gizendu za-rete. Gizon zuzena gaitzetsi duzue eta hil, eta hark ez dizue gogor egiten.

Urteko 26. astea.

San Bizente Paul, *fundatzailea (Pauldarrak eta Karitateko Ahizpak).*

† Jesu Kristoren Ebanjelioa San Markosen liburutik 9,38-43.45.47-48.

Aldi hartan, Joan honela mintzatu zitzaion Jesusi: «Maisu, zure izenean deabruak botatzen ikusi dugu gurekin ez dabilen bat, eta guk galarazi nahi izan diogu, ez baitabil gurekin». Jesusek esan zion: «Ez galarazi; ez da inor, nire izenean mirari bat egin ondoren, niretzat gaizki esaka ari daitekeenik. Gure aurka ez dagoena gure alde dago. Zuek Kristorenak zaretelako, baso bat ur edateko ematen dizuenak, benetan diotsuet, ez du galduko bere saria. Nigan sinesten duen txiki horietako bat okerbideratzen duenak hobe izango luke, errotarri bat lepotik lotuko baliote, eta itsasora botako balute. Zure eskuak arriskuan jartzen bazaitu, moztu ezazu. Hobe duzu bizian besamotz sartu, bi eskuak dituzula itzali ezineko su-leizera joan baino. Eta zure oinak arriskuan jartzen bazaitu, moztu ezazu. Hobe duzu bizian herren sartu, bi oinak dituzula su-leizean bukatu baino. Eta zure begiak arriskuan jartzen bazaitu, atera ezazu. Hobe duzu Jainkoaren erreinuan begibakar sartu, bi begiak dituzula su-leizean bukatu baino; hango harra ez da hiltzen, ez sua itzaltzen».

Luzaroan, egiaren jabe sentitu izan gara katolikook. Uko egin diogu anai-arreba apartatuekin lankide izateari, auzi zuzenetan beretan ere. Ez ziren gureetakoak eta ihes egin behar zen haiengandik, beren heresia kutsa ez ziezaguten. Helburu jakin batzuetarako, alderdiak, sindikatuak eta mugimendu sozialak batzen pentsatzea bera ere, katolikoek partekatu ez ezik eragin ere beharko luketen hori, oso arriskutsua zen, kasu askotan antierlijioso edo antiklerikal baitira...

Jainkoari eskerrak, indarra hartzen ari da beste uste hau: Jainkoaren erreinua ez dugula eraikitzen kristauek bakarrik, bai-

Urteko 26. astea.

San Bizente Paul, *fundatzailea (Pauldarrak eta Karitateko Ahizpak).*

zik eta mundu zuzenago, anai-arreba artekoago eta solidarioago bat nola egingo ari diren borondate oneko gizon-emakume guztiok, fededun, agnostiko edo ateo izan. Halakoekin ideal horien bila eskutik helduz joatea, zilegi bakarrik ez, baizik derrigorrezkoa dugu. Halakoak dira gaizkiaren indarrak, non elkartze-mota guztien beharra baitugu; fronte komun bat egin beharra basakeria neoliberalaren aurka, bere helburua, guztien gaintik, gutxi batzuk aberastea eta gehienak pobretzea duelako. Uko egingo al zenioke egarri zarenean Elizaren etsai batek eskainitako baso bat uri?

Urteko 26. astea.

San Domingo Erkizia, San Mikel Aozaraza,
San Lorenzo, *apaizak*, eta lagunak, *martiriak*.

[**Zakarias 8,1-8:** *Nik salbatuko dut neure herria, sortaldeko lurretatik eta sartaldekoetatik. Sal 101: Berreraiki du Jaunak Sion, eta bere ederrean agertu da hura.*]

Jesu Kristoren Ebanjelioa San Lukasen liburutik **9,46-50**.

Aldi hartan, eztabaida sortu zen ikasleen artean, nor ote zen berrietan handiena. Igarri zizkien Jesusek beren burutazioak eta, haur bat harturik, bere ondoan jarri eta esan zien: «Haur hau nire izenean onartzen duenak neu onartzen nau, eta ni onartzen nauenak, bidali nauen hura onartzen du. Zeren zuetan txikiena, horixe baita handiena». Orduan, Joanek esan zion: «Maisu, gizon bat ikusi dugu zure izenean deabruak botatzen, eta eragotzi egin nahi izan diogu, ez baita gure taldekoa». Baina Jesusek erantzun: «Ez eragotzi, zeren zuen kontra ez dagoena zuen alde baitago».

Astelehen honetako ebanjelioak atzokoaren, igandekoaren, ideia bera azpimarratzen du. Jesusi galdetu diote ea beraren izena erabil dezaketen beraren jarraitzaile ez direnek. Eta Jesusek: Bai, jakina. Gizadi osoaren ondarea da Jesus, eta ez taldetxo hautatu batena; gizon-emakume guztiak salbatzera etorri da. Halaz guztiz, geure jabetza-edo bihurtu izan dugu Jesus, eta haserretu egiten gara hartaz beste batzuek beste interpretazio bat egiten dutenean, faltsua, nahasgarria edo asmo gaiztokoa iruditu zaigulako. Deigarriak dira Jesusez ditugun maitasuna eta ardura, baina ez da halakoa Jesus bera haragitzen duen pobrearen alde egitean.

[Daniel 7,9-10.13-14: *Milaka zituen morroiak. Sal 137: Eresi egingo dizut, Jauna, aingeruen aurrean.*]

† Jesu Kristoren Ebanjelioa San Joanen liburutik 1,47-51.

Aldi hartan, Jesusek Natanael beregana etortzen ikusi eta esan zion: «Hona hemen egiazko israeldarra, azpikeriarik gabea». Natanaelek esan zion: «Nondik ezagutzen nauzu?» Jesusek erantzun: «Felipek zuri dei egin baino lehen, pikupean zeundela, ikusi zintudan nik». Natanaelek erantzun: «Rabbi, Jainkoaren Semea zara zu; Israelgo Erregea zara zu». Jesusek erantzun: «Pikupean ikusi zintudala esan dizudalako sinesten al duzu? Hori baino handiagorik ikusiko duzu». Esan zion gainera: «Hara nik egia esan: Zerua zabalik ikusiko duzue, eta Jainkoaren aingeruak gora eta behera, Gizonaren Semearen gainean».

«Zabalik ikusiko duzue zerua». Jesusen entzuleentzat, Jainkoaren egoitza zen zerua; gizakiak ezin kontenplatu zuen haren aurpegia, hil nahi ez bazuen. Zeruko gortea eratzen zutenek berek ere ezin begiratu zioten aurrez aurre. Zerua zabalik eskaini digunean, behin betiko hautsi nahi izan du Jesusek Jainkoagandik bereizten gintuen hesi hau; agertu digu, gizakiok bidea libre-libre dugula Aitarengana jotzeko, besoak zabalik hartuko gaituela, bere Seme maitearekin egin zuen bezala. Geu ere seme-alaba gara Seme horrengan. Eskerrak, Aita gurea, seme-alabatzat hartu gaituzulako.

Urteko 26. astea.

San Jeronimo, *apaiza eta eliz irakaslea*.

[Nehemias 2,1-8: *Erregeari ondo iruditzen bazaio, bidal nazazu neure gurasoen hirira, hura berriro eraikitzeko. Sal 136: Nire mihia ahosabaian itsatsi bedi, zutaz [Jerusalemez] oroit ez banendi.]*

† Jesu Kristoren Ebanjelioa San Lukasen liburutik 9,57-62.

Aldi hartan, Jesus eta ikasleak bidez zihoazela, batek esan zion Jesusi: «Jarraituko dizut, noranahi zoazela». Jesusek erantzun: «Azetiek badituzte zuloak, eta zeruko hegaztiek habiak, baina Gizonaren Semeak ez du burua non etzanik». Eta beste bati esan zion: «Jarrai niri». Baina hark erantzun: «Jauna, uztazu lehenik geure aitari lur ematera joaten». Jesusek erantzun zion: «Utziezu hildakoei, beren hildakoei lur ematen; zu zoaz Jainkoaren erreinuaren berri ematera». Beste batek esan zion: «Jarraituko dizut, Jauna, baina uztazu lehenik neure etxekoei agur egiten». Jesusek esan zion: «Eskua goldeari ezarri eta atzera begiratzen duena ez da gai Jainkoaren erreinurako».

Jesusek ez du inor engainatu nahi. Beragana jo dutenei edota berari jarraitzera berak dei egin dienei ohartarazi die, ez dutela izango zerupea beste sukalderik, ez ditzatela jar Ebanjelioaren gai-netik familia-eginbeharrak, Erreina eraikitzeko orduan atzera begira jartzen bazara, seinalea ez duzula balio apostolu izateko. Jesusi jarraitzeak eskakizun handia du berekin, eta errotiko sakrifizioak eskatzen ditu: batzuei, beren familia uzteko eskatzen die; beste batzuei, bizitza pobreekin partekatzea; guztiei, Jainkoari esaneko izatea... Eta zuri, zer dizu eskatzen?

Eta, besoetan hartuz, bedeinkatu egiten zituen haurrak, eskuak gainean ezarriz.



AITA SANTUAREN ASMOAK

Orokorra: Pertsona-trafikoa, esklabotza-molde berri hori, errotik aterea izan dadin.

Ebanjelizazioaren alde: Misio-burubideak eraginda, Asiako kristau-elkarteek Ebanjelioa hots egin diezaieten oraindik zain direnei.

URRIA / URRILA

Urteko 26. astea.

Santa Teresa Jesus Haurrarena, *birjina eta eliz irakaslea.*

[Nehemias 8,1-4a.5-6.7b-12: *Esdrasek Legearen liburua zabaldu eta Jaunaren gorapena esan zuen, eta herri osoak erantzun: «Amen, Amen».* Sal 18: *Jaunaren arauak zuzenak dira, bihotzaren asegarri.*]

† Jesu Kristoren Ebanjelioa San Lukasen liburutik 10,1-12.

Aldi hartan, Jaunak beste hirurogeita hamabi aukeratu zituen, eta bere aurretik bidali binaka, bera joatekoa zen herri eta auzo guztietara. Eta esan zien: «Uzta ugaria da, baina langileak gutxi. Egin, beraz, otoitz uzta-jabeari, bidal ditzala langileak bere uztara. Zoazte; begira, arkumeak otso artera bezala bidaltzen zaituztet. Ez eraman zeuekin, ez diru-poltsarik, ez bide-zorrorrik, ez oinetakorik. Eta ez gelditu bidean inori agur egiten. Etxeren batean sartuko zaretenean, hau izan bedi zuen aurreneko hitza: “Bakea etxe honetan!” Eta han bakezko jenderik bada, haien gainean kokatuko da zuen bakea; bestela, zuengana itzuliko da. Etxe hartan berean egon zaitezte; jan ezazue eta edan daukatenetik, zor zaio-eta langileari bere saria. Ez ibili etxez etxe. Herri batean sartu eta ongi hartzen bazaituzte, jan jartzen dizuetenetik, sendatu gaixoak eta esaiezue: “Gainean duzue Jainkoaren erregetza”. Baina herri batean sartuko zaretenean ondo hartzen ez bazaituzte, atera haien enparantzeta eta esan: “Oinetan itsatsi zaigun hautsa ere hor astintzen dizuegu. Baina jakizue, hurbil dela Jainkoaren erreinua”. Egia esan, egun hura eramangarriago izango zaio Sodomari, halako herriari baino».

Bidali, Jauna, misiolariak zeure uztara. Horixe eskatu nahi dizugu gaur, misioen zaindari-kide den Jesus Haurraren Teresa santuaren egun honetan: jarrai dezazula bidaltzen gizon-emakume sagaratuak, erabat ebanjelizazioari emanik biziko direnak. Inoiz baino

1

Osteguna
Eguena

URRIA / URRILA

Urteko 26. astea.

Santa Teresa Jesus Haurrarena, *birjina eta eliz irakaslea.*

beharrezkoago ditugu. Ez urruneko lurraldeetara joan daitezen, baizik Ebanjelioa hots egin diezaioten antzinako gure kristiandade honetako jendeari; landugabeko lur baita orain eta olo txarra garia baino ugariago duen lur. Sagaratu hauen faltan, emaguzu indarra eta adorea, zure berri emateko geure bizieraz eta zure maitasunaren esperientzia biziaz.

Urteko 26. astea.
AINGERU ZAINDARIAK.San Saturio, *ermitaua*.

§ Irtera liburutik 23,20-23a.

Jaunak dio: «Aingeru bat bidaliko dizut aurretik, bidean zaindu zaitzan, eta eratu dizudan tokira eraman. Izan iezaiozu begirune, eta egin haren esana. Ez altxa haren aurka, nire izena baitarama eta ez dizu zeure harrokeriarik barkatuko. Haren esana egiten baduzu, berri, eta nik agindua betetzen, haren etsaiak nire etsai izango dira, eta zure aurka jartzen direnak nire aurka jarriko dira. Nire aingerua aurretik ibiliko zaizu.

[Sal 90: *Agindu die aingeruei zutaz, zaindu zaitzatela bide guztietan.*]

Jesu Kristoren Ebanjelioa San Mateoren liburutik 18,1-5.10.

Aldi hartan, hurbildu zitzaizkion ikasleak Jesusi, eta galdetu zioten: «Nor da handiena zeruetako erreinuan?» Jesusek, haurtxo bati deitu, guztien artean ipini eta esan zien: «Benetan diotsuet: Haurtxoen antzeko bihurtzen ez bazarete, ez zarete sartuko zeruetako erreinuan. Horrela, bere burua haur hau bezain txiki egiten duena, hura izango da handiena zeruetako erreinuan. Hau bezalako ume bat nire izenean hartzen duenak ni neu hartzen nau. Begira, gero, txiki horietako bat gutxietsi? Nik esaten dizuet: horien aingeruak zeruetako nire Aitaren aurpegia ikusten daude zeruan beti».

Nikodemok galdetu zion behin batean Jesusi: Nolatan jaiodaiteke gizakia berriro? Gaurkoan Jesusek ez digu eskatu hainbestekorik, baina gaurko honek ere ezinaren aurre-aurrekoa dela ematen du. Hona zer esan nahi digun Jesusek: batetik, senti gaitezela Jainkoaren meneko, haurrak gurasoekiko sentitzen diren adina edo bezala, jar dezagula geure bizitza Jainkoaren eskuetan; bestetik,

errespeta ditzagula haurrak, duintasunari dagokionez gure pareko baitira. Bere ahotsa asko goratu du Jesusek kasu honetan, jasaten ari diren zoritxarreko tratu txarraren eta abusuaren kontra defenditzeko. Erregutu diezaiogun gaur Jaunari, haurtzaro zoriontsurik ez duten eta adinekoen biktima diren haurrentzat.

Urteko 26. astea.

San Frantzisko Borja-koa, *apaiza, jesuita*. San Birila Leirekoa, *abadea (Iruñeko eta Tuterako elizbarrutietan)*.

[**Baruk 4,5-12.27-29:** *Zoritxarra zuenganatu zuenak, ekarri dizue zoriona. Sal 68:* *Behartsua du Jaunak aditzen.*]

† Jesu Kristoren Ebanjelioa San Lukasen liburutik 10,17-24.

Aldi hartan, hirurogeita hamabi ikasleek poz-pez itzuli eta esan zioten Jesusi: «Jauna, deabruak ere menpean jartzen zaizkigu zure izenean». Jesusek erantzun zien: «Tximista bezala zerutik erortzen ikusi dut Satanas. Begira, sugeak eta eskorpioiak zapaltzeko eta etsaiaren indar guztiak menperatzeko ahalmena eman dizuet, eta ezin izango dizue ezerk ere kalterik egin. Hala ere, ez poztu espirituak menpean jartzen zaizkizuelako; poztu, bai, zuen izenak zeruan idatzirik daudelako». Une hartan, Jesusek, Espiritu Santuaren pozez beterik, esan zuen: «Bedeinkatua Zu, Aita, zeru-lurren Jauna, gauza hauek jakintsuei gorde eta jende xumeari agertu dizkiozulako. Bai, Aita, hala izan duzu gogoko». Nire Aitak dena eman dit, eta ez du inork ezagutzen Semea nor den, Aitak baizik; ezta ere Aita nor den, Semeak baizik eta Semeak agertu nahi dionak baizik». Eta ikasleengana itzulirik, esan zien haiei bekarrik: «Zorionekoak, zuek ikusten duzuen ikusten duten begiak. Hara nik esan: Profeta eta errege askok ikusi nahi izan zuten zuek ikusten duzuen, eta ez zuten ikusi, eta entzun nahi izan zuten zuek entzuten duzuen, eta ez zuten entzun».

Frantzisko Borjakoa Gandian (Valentzia) jaio zen 1510ean. Karlos V.a enperadorearen gortean hezi zen; adiskide handia zuen hura. Gandiako duke eta Lombayko markes izan zen; emaztea zortzi seme-alaba izanik hil zitzaion; orduan uko egin zien tituluei, eta apaiz egin zen, eta agirian jarri zuen Jesusen Lagundikoa zela bera, ezkutuan joana baitzen hartara hasiera batean. Ignazioren ordenako hirugarren aita-buru izendaturik, jesuita gazteei formazio espiritual eta akademiko ona ematen saiatu zen. Ikastetxe asko fundatu zituen eta Lagundiko kide ugari bidali zuen misioetara. Erroman hil zen 1472an.

Urteko 27. astea.

San Frantzisko Asis-koa, *fundatzailea*
(*Frantziskotarrak*).

§ Hasiera liburutik 2,18-24.

Jaungoiko Jaunak bere baitan zioen: «Ez da on, gizonezkoa baka-
rrik egotea; berari dagokion laguna egingo diot». Eta Jaungoiko Jau-
nak landako abere eta zeruko hegazti guztiak egin zituen lurretik, eta
gizonari ekarri zizkion, zer izen ematen zien ikusteko, eta bizidun
orok, gizonak jarritako izena du bere izena. Eta gizonak izena ezarri
zien abere guztiei eta zeruko hegazti guztiei, eta basa-piztia guztiei,
baina ez zen aurkitzen gizonari zegokion lagunik. Orduan Jaungoiko
Jaunak lo astun bat harrarazi zion gizonari, eta lo hartu zuen; saihets-
hezur bat kendu zion, eta hutsunea haragiz bete zuen; hari kendutako
saihets-hezurraz emakumea egin zuen Jaungoiko Jaunak, eta aurrera
eraman zion gizonari. Eta gizonak esan zuen: «Hau bai dela nire he-
zurretako hezur eta nire mamiko mami. “Emakume” izango du ize-
na, Gizonetik egina izan baita. Horregatik, gizonak aita-amak utziko
ditu, eta bere emaztearekin elkartuko da, eta biak haragi bat izango
dira.

[Sal 127: *Jaunak bedeinka gaitzala, geure bizitzako egun
guztietan.*]

§ Hebrearrei egindako gutunetik 2,9-11.

Senideok: Apur batez aingeruak baino beheragotua izan den Je-
sus, orain aintzaz eta ederrez koroatua ikusten dugu, jasan zuen he-
riotzagatik; Jaungoikoaren onginahiaz, guztien onerako hartu zuen
heriotza. Gauza guztiak beretzat eta beragatik egin zituenak, egoki
iritzi zuen seme-alaba asko aintzara eramateko, haien salbamenaren
egilea oinaze-bidez bere betera eramatea. Santutzailea eta santu egi-
nak, guztiak jatorri batetik datoz. Horregatik, ez du haiei «senide»
deitzeko lotsarik.

Urteko 27. astea.

San Frantzisko Asis-koa, *fundatzailea*
(*Frantziskotarrak*).

Jesu Kristoren Ebanjelioa San Markosen liburutik 10,2-16.

Aldi hartan, hurbildu zitzaizkion fariseu batzuk Jesusi, eta azpikeriaz galdetu zioten: «Zilegi al zaio gizonari bere emaztea uztea?» Jesusek erantzun zien: «Zer agindu zizuen Moisesek?» Haiek erantzun: «Moisesek emaztea uzteko eskubidea eman zuen, ezkontza hausten delako agiria berari emanaz». Jesusek esan zien: «Zeuen bihotz-gogorkeriagatik idatzi zizuen Moisesek agindu hori, baina munduaren hasieratik gizaseme eta emakume egin zituen Jainkoak. Horregatik, gizonak aita-amak utziko ditu eta emaztearekin elkartuko da, eta biak haragi bat izango dira. Ez dira, beraz, bi, haragi bat baizik. Jainkoak batu zuena, ez beza gizonak banatu». Etxera etorririk, berriro gauza hartaz galderak egin zizkieten ikasleek. Hark erantzun zien: «Bere emaztea utzi eta beste batekin ezkontzen denak haren kontrako ezkontza-nahastea egiten du, eta emazteak senarra uzten badu eta beste batekin ezkontzen bada, ezkontza-nahastea egiten du». Eta haurtxo batzuk ekarri zizkieten Jesusi, uki zitzaizkien; ikasleek, ordea, haserre egiten zieten. Baina Jesusek, hori ikustean, haserretu eta esan zien: «Utzi haurrei nigana etortzen, ez galarazi; horrelakoena da-eta Jainkoaren erreinua. Benetan diotsuet: Jainkoaren erreinua haurtxo batek bezala hartzen ez duena ez da han sartuko». Eta, besoetan hartuz, bedeinkatu zituen haurrak, eskuak gainean ezarriz.

Beste behin ere, jende ahula eta garaiko legeen nahiz ohituren aldetik tratu txarra jasaten dutenak babesten saiatu da Jesus. Emakume alargunaren zoria makurra bazen, are makurragoa zen dibortzioz baztertua. Haurrek ere ez zuten eskubiderik, esateko; aitaren jabetza ziren, nahi zuena egin zezakeen haiek. Ikasleek, ordea, ezin ulertu

Urteko 27. astea.San Frantzisko Asis-koa, *fundatzailea*
(*Frantziskotarrak*).

diote Jesusi gai honetan ere: ez ezkontzako loturaren iraupenaz, ez hurrekiko maitasun eta begiruneaz.

Parekotasun-eza eta norbaitez norberaren probetxurako baliatzea, zokoratzea edo trataera desberdina ikusten zuen lekuan, han goratzen zuen Jesusek ahotsa injustizia haren aurka. Harentzat, bat bera da gizon-emakume guztien duintasuna, edozein dela adina, jatorria edo gizarte-egoera. Jainkoak ezin jasan du handiki batek txikia irenstea, indartsu bat ahulaz baliatzea, osasuntsu bat gaixoaz ahaztea.

Utzazu, momentuz, alde batera, dibortziatei bigarrenez ezkontzeko baimena ukatu edo eman behar ote zien arazoa. Har ezazu hau otoitzaren ardatz Jaunaren aurrean: ea denak modu berean hartzen dituzun ala lausengari zaren boteretsuarekin, eta zakar-ipurdi ezinduarekin.

Urteko 27. astea.

ESKARI ETA ESKER ONEZKO OTOITZ EGUNA.San Froilan Leon-goia, *ermitaua eta gotzaina*.

§ Deuteronomio liburutik 8,7-18.

Egun haietan, Moises-ek hitz egin zion herriari:

«Jaunak, zeure Jainkoak, lur onera eramango zaitu: ibar eta mendietan errekek, iturriak eta ur handiak sortzen diren lurrera; gari, garagar, mahasti, pikondo, pikor-sagar, oliondo, olio eta ezta dakarzkien lurrera; ogia neurri gabe jango duzun eta ezer ere faltako ez zaizun lurrera. Han, harriek burdina dute, eta mendietatik tupikia aterako duzu. Han, jango duzu eta aseko zara, eta eman dizun lurrarengatik Jauna, zeure Jainkoa, bedeinkatuko duzu. Baina, ibil zaitez erne: ez ahaztu Jauna, zeure Jainkoa; ez utzi bete gabe gaur esan dizkizudan haren agindu, lege eta arauak. Bestela, nahikoa jan eta asetzen zarenean, bizitzeko etxe ederrak eraikitzen dituzunean, zure behiak eta ardiak ugaritu, eta zilar, urre eta zure ondasun guztiak gehitzen ari direla ikustean, harrotu egingo da zure bihotza, eta Egiptoko lurretik, morrontza-etxetik, atera zintuen Jauna, zeure Jainkoa, ahaztu egingo duzu. Hark eraman zintuen, pozoidun sugez eta arrabioz betetako basamortu beldurgarrian barna; lur lehor eta urik gabean, hark atera zuen suharrizko harkaitzetik ura zuretzat. Hark eman zizun jateko basamortuan zure gurasoek ezagutu ez zuten mana, zu atsekabetu eta aztertu ondoren, azkenean zuri on egiteko. Ez esan zeure bihotzean: “Neure ahalmenak eta neure eskuaren indarrak ekarri dizkidate on hauek guztiak”. Izan ezazu gogoan Jauna, zeure Jainkoa: Berak eman baitizu ahalmena ondasun horiek sortzeko, eta horrela betetzen du gaur ere zure gurasoei egindako agintzaria».

[**Salmoa: 1 Kro 29:** *Zureak dira, Jauna, indarra eta handitasuna.*]

§ Paulo apostoluak 2. korintoarrei 5,17-21.

Senideok: Kristorena den oro, sorkari berri da; zaharrarenak egin du; berria hasi da. Eta hau guztia Jaungoikoagandik dator, Kristoren

Urteko 27. astea.
ESKARI ETA ESKER ONEZKO OTOITZ EGUNA.

San Froilan Leon-goia, *ermitaia eta gotzaina.*

bitartez bere adiskide egin baikaitu, eta adiskidetzeko zerbitzua ezarri digu. Izan ere, Jaungoikoa mundua berekin adiskidetzen ari zen Kristogan, gizon-emakumei bekatuena kontua eskatu gabe, eta guri eman zizun adiskidetzearen hitza. Gu Kristoren ordezkio bezala ari gara. Kristoren izenean esaten dizuegu: Adiskidetu zaitezte Jaungoikoarekin. Bekaturik ezagutu ez zuen hura, Jaungoikoak gugatik bekatu bihurtu zuen, guk harekin bat eginda Jaungoikoaren salbamena irits dezagun.

† Jesu Kristoren Ebanjelioa San Mateoren liburutik 7,7-11.

Aldi hartan, Jesusek esan zien ikasleei: «Eska ezazue, eta eman go zaizue; bilatu, eta aurkituko duzue; jo atea, eta zabalduko zaizue. Eskatzen duenak, hartzen du; bilatzen duenak, aurkitzen, eta atea jotzen duenari, zabalduko zaio. Zuetako norbaitek, semeak edo alabak ogia eskatuta, harria emango ote dio? Edo arraia eskatuta, sugea emango ote dio? Beraz, zuek, gaiztoak izanik ere, zeuen seme-alabei gauza onak ematen baldin badakizue, zenbatez gehiago emango dizkie zuen zeruko Aitak gauza onak, berari eskatzen dizkiotenei!

Vatikano II.aren aurretik, urtaro bakoitza bukatzean, eskerrak eman ohi zitzaizkion Jainkoari, aurreko hiru hilabeteetan jasotako emaitzengatik. Gaur egun, «esker-egun hauek» jai bakar batean bildu dira, gutxi gorabehera nekazaritza-urteko azken uztaren inguruan. Landako lanak bukatu dira eta atzera begira jarri behar da, Jainkoak eman diguna eskertzeko, ugariagoa ala eskasagoa, hobea ala txarragoa.

Egun eta une guztiak dira Jainkoari eskerrak emateko egokiera eta arrazoi. Jai hau oroitzapen bat da soilik. Etengabeko gure esker-otoitzak ez luke izan behar orokorra edo generikoa, baizik honengatik, horrengatik, harengatik eta haratagoko harengatik, hau da, gauza guztiengatik.

Urteko 27. astea.

San Bruno, *fundatzailea (Kartusiarrak)*.

[Jonas 3,1-10: *Ninibetarrak beren bide okerretik itzuli ziren, eta Jainkoa errukitu zitzaien. Sal 129: Gure erruak gogoan badituzu, nor dagoke zutik, Jauna.*]

† Jesu Kristoren Ebanjelioa San Lukasen liburutik 10,38-42.

Aldi hartan, sartu zen Jesus herrixka batean, eta Marta zeritzan emakume batek bere etxean hartu zuen. Bazuen honek Maria izeneko ahizpa bat, eta hau, Jaunaren oinetan eseririk, haren hitza entzuten zegoen. Martak, berriz, nahiko lan bazuen etxeko zereginetan, eta aurrean jarri eta esan zion Jesusi: «Jauna, ez al zaizu batere axola, nire ahizpak ni lanean bakarrik uztea? Esaiozu niri laguntzeko». Jaunak erantzun: «Marta, Marta, estu eta larri zabilta gauza askorekin, eta bakarra izan beharrezkoa. Mariak alderdirik onena aukeratu du, eta ez zaio kenduko».

Maitasunik gabe, lana edo zerbitzua zigor bat da. Ostera, samurtasunez egiten denean, maitasun-keinu da, ez da obligazio edo eginbehar bat, baizik bihotzari darion zerbeit. Zerbitzua edo lana plazer bilakatzen da orduan, zinezko maitasunak ematen dizkigun atsegintasun askoren arteko bat. Zeren maitemindua den pertsona grazia-egoeran bizi baita, zeinetan txeraren beroak dena, guzti-guztia, ontzen baitu, «buztina urre» bihurtzeraino, kantu batek dioenez. Beraz, Marta ez dago oso gogotsu Jesusekin, harentzat lan egitea egokitu baitzaio eta hori neketsu du...

Urteko 27. astea.

Arrosarioko Andre Maria Birjina.
Santana Justina, *birjina eta martiria*.

[Jonas 4,1-11: Zu (*Jonas*) nahigabeturik zaude landareagatik, eta nik ez ote dut erruki izango Ninive hiri handia? Sal 85: Berant hase-re zara zu, Jauna, eta guztiz maitekor.]

† Jesu Kristoren Ebanjelioa San Lukasen liburutik 11,1-4.

Aldi hartan, Jesus otoitz egiten ari zen leku batean, eta, bukatu zuenean, esan zion ikasleetako batek: «Jauna, irakatsiezaguzo otoitz egiten, Joanek bere ikasleei irakatsi zien bezala». Jesusek esan zion: «Otoitz egitean, esan: “Aita, santu izan bedi zure izena, / etor bedi zure erreinua, / emaguzo gure eguneroko ogia, / eta barka guri gure bekatuak / guk ere geure zordun guztiei / barkatzen diegunez gero; / eta ez gu tentaldira eraman”».

Otoitz egitea ez da gauza korapilatsua, eta ez da gutxi batzuen eskura bakarrik dagoen zerbait. Jainkoarekin izandako elkarrizketa oro da otoitz ona. Ama atsekabetu baten otoitzetik hasi eta mistiko baten goreneko kontenplazioraino. Behar den gauza bakarra, elkarrizketa benetakoa izatea da, hau da, Jaunari hitz egin bakarrik ez, baizik baita entzun ere hark esan nahi diguna. Adibide ona da *Gure Aita*, baita arrosarioa ere jende askorentzat. Gaur eska diezaiogun Jaunari, irakats diezagula berarekin hitz egiten; haren Amari, berri, hainbat aldiz jo baitzuen Jesusengana, ager diezagula nola tratatu beraren Seme hori.

Urteko 27. astea.

Santa Pelagia Antiokia-koa, *birjina eta martiria*.

[**Malakias 3,13—4,2a:** *Hona non datorren Jaunaren eguna, labea sutan bezala. Sal 1: Bai dohatsua, Jaunagan itxarobidea duen gizakia.*]

† Jesu Kristoren Ebanjelioa San Lukasen liburutik 11,5-13.

Aldi hartan, Jesusek esan zien ikasleei: «Zuetako batek badu adiskide bat, eta gauerdian harengana joan eta esaten dio: “Adiskide, emazkidazu ordainetan hiru ogi; lagun bat etorri zait bidez etxera, eta ez daukat zer emanik”. Baina besteak erantzuten dio barrutik: “Utz nazazu bakean! Atea itxita daukagu, eta haurrak eta denok ohean gaude; ez ninteke jaiki ematera”. Baina adiskide hark ate joka jarraitzen badu, hara zer diotsuedan: adiskide bezala ematera jaikitzen ez bada ere, haren lotsagabeagatik bederen, jaiki eta emango dizkio behar dituen guztiak». Hau diotsuet: «Eska ezazue, eta emango zaizue; bila ezazue, eta aurkituko duzue; jo atea, eta zabalduko zaizue; eskatzen duenak hartzen du; bilatzen duenak aurkitzen, eta atea jotzen duenari zabaltzen zaio. Zuetako norbaitek, aita izanik, semeak ogia eskatuta, harria emango ote dio? Edota arraina eskatuta, luhartza emango ote dio? Beraz, zuek, gaiztoak izanik, zeuen seme-alabei gauza onak ematen baldin badakizue, zenbatez gehiago ez die emango zeruko zuen Aitak Espiritu Santua eskatzen diotenei!».

Jainkoagan konfiantza eta uste ona izatera gonbidatzen gaitu gaurko ebanjelioak. Gure eskaria ez da sekula ate atzean gelditzen. Adiskide ona da Jainkoa, ate joka doakion ikasleari ez dio sekula «hor konpon» esaten, ezorduan eta gauerdian bada ere. Seme-alabei jaten ematen dien Aita ona da.

Kexu izaten gara batzuetan, gure eskariei ez diela kasurik egingen. Baina, komeni zaiguna eskatzen al diogu? Ez ote gara izaten haur apetatsu horiek bezalako, zipozkerian eta hanka-soinu handia ateratzen hasten direnak, gurasoek ematen ez dietelako garrasika eskatzen duten karamelua edo jostailua? Egin dezagun eskari ona eta era onean, eta izango dugu erantzuna.

Urteko 27. astea.

San Dionisio, *gotzaina*, eta lagunak, *martiriak*.
San Joan Leonardi, *apaiza*.

[Joel 1,13-15; 2,1-2: *Jaunaren eguna, egun iluna eta beltza. Sal 9: Jaunak epaituko du zuzentasunez lurbira.*]

Jesu Kristoren Ebanjelioa San Lukasen liburutik 11,15-26.

Aldi hartan, Jesusek deabru bat bota ondoren, gizataldeko batzuek zioten: «Deabruen buruzagi den Beeltzebulen indarrez botatzen ditu honek deabruak». Beste batzuek, azpikeriaz, zerutik datozen mirari bat eskatzen zioten. Jesusek, gogoan zer zuten ikusirik, esan zien: «Herri batean herritarrak elkarrekin borrokan badabiltza, herri hura hondatua dago, eta etxea etxearen gainean eroriko da. Satanas ere bereen aurka ari bada, nola iraun dezake zutik haren erreinuak? Zuek diozuenez, Beeltzebulen indarrez botatzen ditut nik deabruak. Nik Beeltzebulen indarrez botatzen badituzte, zuen semeek noren indarrez botatzen dituzte? Horrela, bada, haiek izango dituzue zeuen epaile. Baina nik deabruak Jainkoaren eskuz botatzen badituzte, garbi dago iritsi dela Jainkoaren erreinua zuen artera. Gizon indartsu eta armadun batek ere bere jauregia zaintzen duenean, haren ondasunak esku onetan daude. Baina beste indartsuago batek, etorri eta menperatzen badu, kenduko dizkio indar ematen zioten armak, eta haren ondasunak banatuko ditu. Nirekin ez dagoena nire aurka dago; nirekin biltzen ez duenak, sakabanatu egiten du. Espiritu lohia gizon edota emakume batengandik ateratzen denean, basamortuan barna joaten da, nora ez dakiela, atsedentoki bat non aurkituko, eta, ez aurkitzean, esaten du: “Itzul nadin atera nintzen etxera”. Baina etxeratzean, dena garbi eta txukun aurkitzen du. Orduan, berriro joan eta bera baino makurrago diren zazpi espiritu hartu eta, etxean sarturik, bertan gelditzen da. Horrela, gizon haren ondorena hasiera baino okerragoa izaten da».

Urteko 26. astea.

San Dionisio, *gotzaina*, eta lagunak, *martiriak*.

San Joan Leonardi, *apaiza*.

Ebanjelioan aipatzen diren deabruak, gaixotasunekin identifikatu behar dira gaur egun, nortasun-nahasmenduekin, ohitura txarrekin. Azken hauez ari da Jesus esaten duenean, errotik ateratzen ez badira, azkenean masiboki harrapatuko gaituela gaitzak. Oharpen jakintsua. Loiolako Ignaziok hala adierazten du: diru-gosea eta harrokeria direla gainerako bizio guztien iturburua. Edozein nekazari edo laborarik daki, belar txarra errotik ateratzen ez bada, hazi eta kimu berriak ematen dituela. Har ezazu kontuan.

[Joel 3,12-21: *Sartu igitaia, uzta ondu da. Sal 96: Poztu zaitezte, zintzoak, Jaunagan.*]

† Jesu Kristoren Ebanjelioa San Lukasen liburutik 11,27-28.

Aldi hartan, Jesus jendeari hizketan ari zitzaiola, jende arteko emakume batek, deiadar batean, esan zuen: «Zorionekoak, zu ekarri zintuen sabela eta zu hazi zintuzten bularrak!» Baina Jesusek esan zuen: «Zorionekoak, bai, Jainkoaren hitza entzuten eta betetzen dutenak!».

Emakume ezezagun baten zoriontasun herrikoi honi, Andre Mariaz esanari, Mendiko Hitzaldian ez datorren beste batekin erantzun dio Jesusek: zorionekoak Jainkoaren Hitza entzun eta betetzen dutenak. Ia inoiz ez dugu agertzen, geure artean hitz egitean, «Jainkoaren nahia betetze hori» zorionbide eta poz-iturritzat; beti, nekoso, latz, zail bezala aipatzen dugu; Jainkoak muga-mugan bizitzera behartuko bagintu bezala, geure geurezko joerei kontra eginez. Errore biribila da, benetan. Jainkoak, jende hobeia izatera eragiten digunean, geure izaerari konformeago izatera eragiten digu. Eta horrek egundoko gozamenaren sortzen du.

§ Jakinduria liburutik 7,7-11.

Eskatu nuen, eta eman zitzaidan zentzu ona; dei egin nion, eta etorri zitzaidan jakinduri espiritua; errege-makila eta aulkia baino nahiago izan nuen; aberastasunak ezer ez zirela iritzi nuen haren ondoan; harri bitxiak berak ere ez nituen haren pareko egin, urre guztiak haren aldean hondar-pixka bat baitira, eta zilarra, lokatza bezala. Osasuna eta edertasuna baino maiteago izan nuen, eta neure argitzat hartu nuen, ezin itzalia baita haren argia. Harekin batean on guztiak etorri zitzaizkidan, eta ezin esan ahala ondasun, haren eskutik.

§ Hebrearrei egindako gutunetik 4,12-13.

Senideok: Bizia da Jaungoikoaren hitza eta eraginkorra; bi ahoko ezpata baino sarkorragoa, arimaren eta espirituaren tarteetaraino, giltza eta muinen tarteraino, sartzen dena, bihotzaren erabaki eta asmoak epaitzeko gai dena. Ez da harentzat ezer ikusezinik; dena biluz eta agerian dago haren begietan, eta hari diogu kontu eman beharra.

† Jesu Kristoren Ebanjelioa San Markosen liburutik 10,17-30.

Aldi hartan, Jesus bidera atera zen batean, norbaitek, lasterka etorri eta aurrean belaunikaturik, galdetu zion: «Maisu on, zer egin behar dut betiko bizia iristeko?» Eta Jesusek: «Zergatik esaten didazu ona? Onik ez da inor, Jainkoa besterik. Badakizkizu aginduak: ez inor hil, ez egin ezkontza-nahasterik, ez lapurtu, ez egin gezurrezko testigantzarik, ez kendu azpikeriaz, aintzat izan aita eta ama». Hark erantzun zion: «Maisu, horiek guztiak gaztetandik bete ditut».

Orduan Jesusek, begiz begi jarririk, esan zion onginahiz: «Gauza bat falta zaizu: zoaz, saldu dituzun guztiak eta eman behartsuei, eta izango duzu gordailu bat zeruan. Gero, zatoz eta jarraitu niri». Hitz hauekin aurpegia ilundu zitzaion hari eta nahigabez joan zen, ondasun

Begoñako Andre Maria Birjina (Bizkaiko zaindaria).
Santa Soledad Torres Acosta, *fundatzailea* (Mariaren
Mirabeak). San Joan XXIII.a, 261. *aita santua*.

askoren jabe baitzen. Orduan Jesusek, ingurura begira, esan zien ikasleei: «Bai nekez sartuko direla ondasundunak Jainkoaren erreinuan!» Harritu ziren ikasleak hitz horiekin, eta Jesusek berriro: «Semeok, bai zaila dela beren ondasunetan ustea dutenak Jainkoaren erreinuan sartzea! Errazago da gamelu bat jostorrazaren begitik sartzea, aberats bat Jainkoaren erreinuan sartzea baino». Haiek, lehen baino harrituago, elkarri ziotseten: «Nor salba daiteke, orduan?» Jesusek begira jarri eta esan zien: «Gizakiarentzat ezinezkoa da hori; Jainkoarentzat ez; Jainkoak guztia dezake». Pedro hasi zitzaion Jesusi esaten: «Hara, gauza guztiak utzi ditugu guk, zurekin joateko». Orduan Jesusek: «Bentanan diotsuet: nigatik eta berri onagatik etxea, edota anai-arrebak, aita-amak, haurrak nahiz lurak uzten dituenak ez da geldituko ehun halako hartu gabe orain mundu honetan: etxe, anai-arreba, ama, seme eta lur, erasoaldiekin; beste munduan, berriz, betiko bizia».

* * *

[**Begoñako Andre Mariarena:** Ben Sirak 24,17-22: *Maria, jakinduriaren aulkia*. **Salmoa:** Lukas 1: *Handiesten du nire arimak Jauna*. **Galaziarrei** 4,4-7: *Bere Semea bidali zuen Jaungoikoak, emakumeagandik jaioa.*]

† Jesu Kristoren Ebanjelioa San Lukasen liburutik 2,43-51.

Jai-egunak bukatu zirenean etxera itzuli ziren; Jesus haurra, ordea, Jerusalemen gelditu zen, bere gurasoek ez zekitelako. Eta lagunaren artean zetorrelakoan, egun bateko bidea egin ondoren, haren bila hasi ziren [gurasoak] taldeko ahaide eta ezagunen artean. Baina aurkitzen ez, eta Jerusalemera itzuli ziren haren bila. Hiru egunen buruan, jauretxean aurkitu zuten, irakasleen artean eseria, haiei entzuten eta galdezka.

Entzuten zioten guztiak txunditurik zeuden haren adimenarekin eta ematen zituen erantzunekin. Gurasoak ere, ikusi zutenean, harriturik gelditu ziren. Amak esan zion: «Seme, baina zergatik egin diguzu hori? Horra nolako atsekabez ibili garen aita eta biok zure bila!» Jesusek orduan: «Zergatik ibili zarete nire bila? Ez al zenekiten, nik neure Aitaren etxean egon behar nuela?» Gurasoek, ordea, ez zuten ulertu, Jesusek esan nahi zuena. Jesus Nazaretera jaitsi zen haiekin, eta haien menpean jarraitu zuen. Haren amak bere bihotzean gordetzen zituen gauza hauek guztiak.

Bada jende sagaraturik, esaten duena, elkarteko bizitza edo ministerio-lana gurutze astun bat dela, esperientzia mingarri bat, asko kostatzen dena eta batzuetan kasik jasanezina; mesedez, ez egin kasurik horrelakoei. Bere bokazioaren arabera bizi denak, eskakizunak zorrotzak izan arren eta inguruabar konkretua ideala ez izan arren, barne-atsegintasuna sentitzen du, hondo-hondokoa eta pozgarria. «Bateko ehun» delako hura hemen lurrean. Jesusen promesa ez da «hitz egiteko modu bat»: nabari ohi den eta sentitu ohi den errealtatea da.

Inoiz galdetu izan didate, ea jesuita izatea errepikatuko nukeen, berriro jaioko banintz. Eta egi-egiaz erantzun ohi dut, biziaren ondoren, hartu dudak gauzarik handiena dela Jesusen Lagundiko neure bokazioa. Balantzan, ongiaren platerak gaizkiarenak baino askoz gehiago ematen duela. Naizena banaiz, Jesusen dei horri zor diodala eta neure bizitzaldirik handiena Konpainian bizi izanari. Mimatatu bat naiz. Lotsarazten nauen gauza bakarra, bokazio horren mailan egon ez izana, eta askotxo, da. Dena den, horrek ere ez nau tristatzen. Badakik Jainkoak barkatuko didala neure lerdokeria eta beraren onginahiari eman diodan erantzun kaxkarra.

Igandea**Domeka**

Begoñako Andre Maria Birjina (Bizkaiko zaindaria).

Santa Soledad Torres Acosta, *fundatzailea* (Mariaren*Mirabeak*). San Joan XXIII.a, 261. *aita santua*.**URRIA / URRILA****Urteko 28. astea.***Begoñako Andre Maria***Begoñako Andre Maria**

Begoñako Andre Mariaren, Bizkaiko Zaindariaren, egun honetan, liturgia-ospakizunerako aukeratutako ebanjelioak, Jesus Haurren gertakariak, «galdu eta tenpluan aurkitua» izan zenaz, hitz egiten digu. Lukas ebanjelariak, zera esanez amaitu du ebanjelioko pasarte hau: «Haren amak bere bihotzean gordetzen zituen gauza hauek guztiak». Mariaren bizitzako ezaugarriak sakonenetakoa laburbiltzen duen esaldia da: sinesmena bihotzean bizi; Jainkoaren hitzaz fidatu zen Deikunde egunetik beretik; zeruratu izan zenean, hara eraman zezan utzi zion Jainkoari. Mariak jakin zuen Jainkoari entzuten bere bizitzan, eta gure belarriak irekitzen ditu, Jesusen hitza gure barnera ere sar dadin. Andre Maria, otoitz egizu gure alde!

Urteko 28. astea.

Pilare-ko Andre Maria.

Joan Beyzym *dohatsua, apaiza.*

[Paulok Erromatarrei 1,1-7: *Kristogandik hartu genuen guk grazia hau eta eginkizun hau: jentilak sinesmenera erakartzea. Sal 97: Ezagutarazi du Jaunak beragandiko garaipena.]*

† Jesu Kristoren Ebanjelioa San Lukasen liburutik 11,29-32.

Aldi hartan, jendea pilaka zetorrela, Jesus esaten hasi zitzaien: «Gizaldi hau gizaldi bihurria da. Ezaugarri bat eskatzen du, eta ezaugarririk ez zaio emango, Jonasena besterik. Izan ere, ninibetarrentzat Jonas ezaugarri izan zen bezala, hala izango da Gizonaren Semea gizaldi honentzat. Auzi-egunean hegoaldeko erregina gizaldi honetako gizakien aurka jaikiko da eta gaitzetsiko ditu; lurraren azken mugetatik etorri baitzen hura Salomonen jakinduria entzutera; hona hemen, berriz, Salomon baino handiagoa dena.

* * *

[**Pilareko Andre Mariarena. 1.** Kronikak 15,3-4.15-16; 16,1-2: *Ekarri zuten Jainkoaren kutxa, eta Davidek harentzat eraikitako oihal-txabolaren erdian ipini zuten. Sal 26: Jaunak goratu nau eta itxaropen-zutabe egin nau. Apostoluen Eginak liburutik 1,12-14: Guztiak etengabe otoitzari emanak bizi ziren, Jesusen ama Mariarekin.]*

† Jesu Kristoren Ebanjelioa San Lukasen liburutik 11,27-28.

Aldi hartan, Jesus jendeari hitz egiten ari zitzaiola, jende arteko emakume batek, deiadar batean, esan zuen: «Zorionekoa, zu ekarri zintuen sabela eta bularra eman zizun emakumea!» Baina Jesusék esan zuen: «Zorionekoa, bai, Jainkoaren hitza entzuten eta betetzen dutenak!»

Urteko 28. astea.
Pilare-ko Andre Maria.

Joan Beyzym *dohatsua, apaiza.*

Arrazoi osoz deitzen diote Mariari Itunaren Kutxa. Lehen irakurgaiak kontatzen du, nola lekualdatu zuen Davidek kutxa handi hura, Jainkoak, israeldarrekin egindako itunaren seinaleztat, Moisesi eman zizkion harlauzak bere barruan zituen hura. Mariari izen hori bera ematen bazaio, bere sabelean bederatzi hilabetez munduaren salbatzailea ukan zuelako da: itun berria finkatu eta Jainkoarekin behin betiko adiskidetuko gintuen hura.

Horregatik jotzen du hain sarri Mariagana Jainkoaren herriak, izen desberdin askoren pean. Pilarekoak gogorarazten digu, gainera, Mariaren sabeleko fruitua dela, azken batean, gure fedea sostengatzen duen zutabea.

* * *

BEGIRATU IZARRARI (*San Bernardo*)

Tentazioaren urakanak erakartzen bazaitu, / oinazeak eta estutasunak makurrarazten bazaituzte, / begiratu Izarrari, jo Mariagana.

Harrokeriaren uhinek urperatzen bazaituzte, / kalumniak, handinahiak edo inbidiak abailtzen bazaituzte, / begiratu Izarrari, jo Mariagana.

Haserrea, zekenkeria edo hedonismoa / mehatxu badira zure ari-maren txaluparentzat, / begiratu Izarrari, jo Mariagana.

Zeure bekatu ugarik aztoratzen bazaituzte, / zeure egiteek lotsarazten, / kontzientzia txarrak izutzen / eta leize-ertzean bazaude, / begiratu Izarrari, jo Mariagana.

Ez duzu bidea galduko hari badiozu jarraitzen, / ezta esperantza ere dei badiozu egiten. / Arriskuan, pena-aldian, duda-mudakoan, / begiratu Izarrari, jo Mariagana. / Hura sostengu baduzu, ez beldur izan.

Ez kendu haren izena zeure ahotik, / ez urrundu bihotza haren-gandik. / Jo Mariagana une guztietan.

Urteko 28. astea.

San Romulo, *gotzaina*. San Fausto, *martiria*.
Santa Zeledonia, *birjina*.

[Paulo apostoluak Erromatarrei 1,16-25: *Jainkoa ezagutu ondoren, ez diote aintzarik eman, Jainkoari dagokion bezala. Sal 18: Ortzia Jaunaren ospea du zabaltzen.*]

Jesu Kristoren Ebanjelioa San Lukasen liburutik 11,37-41.

Aldi hartan, Jesusek hitzaldia bukatu zuenean, fariseu batek bere etxean bazkaltzera dei egin zion; sartu zen Jesus eta mahaian jarri. Hori ikusirik, fariseua harritu egin zen, bazkal aurretik eskuak garbitu ez zituelako. Jaunak esan zion: «Zuek, fariseuok, kanpotik garbitzen dituzue edateko eta jateko ontziak, baina zeuen barrua lapurretaz eta gaiztakeriaz beterik duzue. Zentzugabeak! Kanpoaldea egin zuenak ez ote zuen barrengoa ere egin? Egizue limosna barnean duzuenetik, eta dena garbia izango da zuentzat».

Barregarri irudi dakiguke gauza ez-lohiez eta lohiez juduek dute obsesioa; gaur oraino ere hartan jarraitzen dute janarien eta egite jakin batzuen inguruan. Baina kristauak ere ez ditugu baztertu halako hitzak Elizaren Historian. Urrunago joan gabe, *garbi* eta *ezgarbi*, *garbitasun* eta *lizunkeria* esaten zitzaizen seigarren aginduaren araberako nahiz kontrako egiteei; are gehiago, *legezko egite* senar-emazteen artean. Gai horren eta beste batzuen inguruko eskrupuluak ez datoz Jainkoagandik, baizik hark nahi duenaz guk uste legalista eta okerra izatetik. Zeruko gure Aita ez da horrelakoa.

Urteko 28. astea.

San Romulo, *gotzaina*.San Kalisto I.a, *16. aita santua eta martiria*.

[Paulo apostoluak Erromatarrei 2,1-11: Bakoitzari bere egin-tzen arabera ordainduko dio; juduei lehenengo, baina baita greziarrei ere gero. Sal 61: Zuk ematen diozu bakoitzari, Jauna, bere egin-nengatik dagokiona.]

† Jesu Kristoren Ebanjelioa San Lukasen liburutik 11,42-46.

Aldi hartan, Jaunak esan zuen: «Zoritxarrekoak zuek, fariseuok! Menda eta boskoitza eta barazki guztien hamarrenak ematen dituzue, baina bazterrera uzten dituzue zuzentasuna eta Jainkoaren maitasuna. Hau zen eginbeharrekoa, beste haiek bazterrera utzi gabe. Zoritxarrekoak zuek, fariseuok! Sinagogetan lehenengo aulkiak eta enparantzetan agurrak nahi izaten baitituzue! Zoritxarrekoak zuek! Ikusten ez diren hilobiak bezala baitzarete, jendea konturatu gabe haien gainetik dabilela». Lege-maisu batek esan zion: «Maisu, horrela mintzatuz, gu ere lotsagarri uzten gaituzu». Jesusek esan zion: «Zoritxarrekoak zuek ere, lege-maisuok! Gizakiei ezin jasan ahalako zamak ezartzen dizkiezue, eta zeuek ez dituzue zama horiek ezta hatz batez ere ukitzen».

Zer da Jesusek fariseuei aurpegiratzen diena? Errepara ezazu ez ote zaren erortzen zeu ere akats horietakoren batean. Adibidez, eskrupuluz jokatzan al duzu Elizaren arau guztiak bete behar izate horretan? Eta ez al zara ahazten gauza nagusienaz: gainerakoei dagokien errukiaz eta gupidaz? Zoragarria iruditzen al zaizu jendaurrean aitortzea zure balioa eta merezimenduak, kristau-balioak nahiz familiarrak edo profesionalak? Ez ote zara ari lantzen zeure irudi bat, zeure izateko moduari ez dagokion bat? Besteei esaten dieten haietakoa al zara, zer egin behar duten, baina norbera ezertaz arduratu gabe? Egizu azterketa eta jo ezazu zuzentzera.

Urteko 28. astea.

Santa Teresa Jesusena Avilakoa, *birjina eta eliz irakaslea.*

[Ben Sirak 15,1-6: *Jakinduriaz eta zentzu-espirtuaz beteko du.*
Sal 88: *Neure senideei zure izena diet iragarriko, batzarraren erdian zaitut goretsiko.*]

Jesu Kristoren Ebanjelioa San Mateoren liburutik **11,25-30.**

Behin batean, Jesus honela mintzatu zen: «Goresten zaitut, Aita, zeru-lurren Jauna, gauza hauek jakintsu eta ikasiei ezkutatu dizkiezulako eta jende xumeari agertu. Bai, Aita, goretsia zu, horixe izan baituzu gogoko.

«Nire Aitak nire esku utzi du dena. Eta inork ez du Semea ezagutzen, Aitak baizik; ezta Aita ere, ez du inork ezagutzen, Semeak baizik eta Semeak agertu nahi dionak.

«Zatozte nigana, nekatu eta zamatu guztiok, eta neuk emango dizuet atsedena. Hartzazue nire uztarria eta ikasi nigandik, gozoa eta bihotz-apala bainaiz ni, eta aurkituko duzue bizitzarako atsedena; eramaneraza baita nire uztarria eta arina nire zama».

Avilako Teresa santu handia izan zen. Batez ere, emakume handia. Harekin errepika dezakezu gaur: «Ez zaitzala ezerk larritu. Ez zaitzala ezerk izutu; dena da igarotzen; Jainkoa ez da aldatzen, pazientziak dena du lortzen Jainkoa berekin duenari ez zaio ezer falta. Jainkoa bakarrik da aski». Jesu Kristori jarrai iezaiozu burua zut eta, datorrena datorrela, ez zaitzala ezerk izutu. Ikusten al duzu munduko aintza? Aintza hutsala da, ez du ezer egonkorrik, dena da pasatzen. Amets egizu zerua, beti du irauten. Promes egin dituenetan leiala eta aberatsa da, Jainkoa ez da aldatzen.

Urteko 28. astea.

Santa Eduvigis, moja.

Santa Margarita Maria Alacoque, birjina.

[Paulo apostoluak Erromatarrei 4,1-8: *Abrahamek sinetsi zion Jainkoari, eta sinesmen hori aintzat hartu zion Jainkoak zuzentasunerako.*
Sal 31: *Zu zaitut ihesleku, askatasun-pozez inguratzen nauzu, Jauna.*]

† Jesu Kristoren Ebanjelioa San Lukasen liburutik 12,1-7.

Aldi hartan, milaka jende bildu zen, elkar zapaltzeko zorian. Jesus hitz egiten hasi zen, eta lehenik ikasleei hitz egin zien: «Kontuz ibili fariseuen orantzarekin, hau da, maltzurkeriarekin. Ez baita ezer ezkuturik, agertuko ez denik; ezer ez gorderik, jakingo ez denik. Gaueko ilunpean esan zenituztenak egun-argitan entzungo dira, eta gela barruan belarrira hitz eginak etxe gainetik hots egingo. Zuei dio-tsuet, orain, ene adiskideoi: ez izan beldurrik gorputza hiltzen dutenei, eta hortik aurrera ezer egiterik ez dutenei. Nik esango dizuet nori beldur izan: Izan beldur hiltzeko eta su-leizera botatzeko eskubide duenari. Honi bai beldur izan behar diozuela! Ez al dira bi txanporetan saltzen bost txori? Eta haietako bakar bat ere ez dago ahaztuta Jainkoaren aurrean. Zuen buruko ile guztiak ere kontaturik daude. Beraz, ez izan beldurrik; txori guztiak baino duinago zarete zuek».

Faltsukeria, gezurra, hipokresia ezin irentsi ditu Jesusek. Bere hitzik gordinenak bota ditu esan bai baina betetzen ez dituztenentzat, norbera errudun izanik kondenatzen duenaren kontra, norberak kontuan hartu gabe irakasten duenaren kontra. Jarrera horri legamia deitzen dio Jesusek; pertsona hartitzen edo harrotzen duelako, guztiz hondatzen duelako. Ostera, Jainkoagan konfiantza izateko eskatzen du, haren besoetara jotzeko, nagusiki ekaitza zakarrean eta estutasun bizian aurkitzen zarenean. Izan zaitez apala, egiatia, fidakorra. Ez beldur izan zeure akatsak agertzeari. Eskatu laguntza. Izan ildo bereko, sinesten eta espero duzunarekin. Egiozu ihes fariseuen legamiari.

Urteko 28. astea.

San Ignazio Antiokiakoa, *gotzaina eta martiria.*

[Paulo apostoluak Erromatarrei 4,13,16-18: *Itxaropenean oinarriturik, sinetsi egin zuen itxaropen guztien kontra. Sal 104: Gogoan du Jaunak betiko egin zuen ituna.*]

† Jesu Kristoren Ebanjelioa San Lukasen liburutik 12,8-12.

Aldi hartan, Jesusek esan zien ikasleei: «Gizakien aurrean nire alde ateratzen denak, Gizonaren Semea ere bere alde izango du Jainkoaren aingeruen aurrean. Baina gizakien aurrean ni ukatzen nauena ukatu egingo dute Jainkoaren aingeruen aurrean. Gizonaren Semearen aurka hitz egiten duenari barkatuko zaio; baina Espiritu Santuaren aurka birao egiten duenari ez zaio barkatuko. Sinagogara, legelari eta agintarien aurrera zaramatzatenean, ez ibili buru hausten, nola erantzungo edo zer esango. Espiritu Santuak irakatsiko dizue, ordu berean, zer esan behar duzuen».

Hasiera hartako kristautasunaren irudi handietakoa da Antiokiako Ignazio. Zangalatrau bizi izan zen gure aroko lehen eta bigarren mendeen artean. Kristori zion maitasun gartsuaz nabarmendu zen. Baita egozten zaizkion gutunengatik eta adore pertsonalagatik; bere bizia eman zuen beragatik eta gugatik aldez aurretik berea eman zuen Jesusengatik. Benetan, egia bihurtu zuen bere auzian eta heriotzan Kristok auresan zuen hura: Espiritua Santuak eman zizkion Ignaziori behar izan zituen hitzak eta indarra, sua bezain bizia zuen bere fedearen testigantza adoretsua, argia eta apala emateko.

Urteko 29. astea.
SAN LUKAS, EBANJELARIA.
 San Justo, *haurra*. **DOMUND** eguna.

§ Isaias Profetaren liburutik 53,10-11.

Jaunak nekeetan lehertu nahi izan zuen. Bere bizia ordain ematen badu, izango du ondorengo ugari, luzatuko zaizkio egunak, beteko da Jaunaren nahia haren bitartez. Bere oinazeen sari, ikusiko du argia eta aseko da. Jasan duenaren bidez, nire zerbitzariak zuzentasuna emango dio askori, haien hutsegiteak bere gain hartuz.

[Sal 32: *Betor gugana, Jauna, zure maitasuna, zugar baitugu geure uste ona.*]

§ Hebrearrei egindako gutunetik 4,14-16.

Senideok: Jesus, Jaungoikoaren Semea, dugu zeruetan sartu zen apaiz nagusi handia; eutsi diezaiozun, beraz, sinesmen-aitormenari; gure apaiz nagusia ez baita gure ahuleriaz erruki ez daitekeen norbait; baizik gure antzera gauza guztietan aztertua izan da, baina bekatutik garbi. Goazen, beraz, uste osoz, graziaren aulkira; errukia iritsi eta behar orduko laguntza emango digun mesedea aurki dezagun.

† Jesu Kristoren Ebanjelioa San Markosen liburutik 10,35-45.

Aldi hartan, Santiagok eta Joanek, Zebedeoren semeek Jesu-sengana inguratu eta esan zioten: «Maisu, eskatuko dizuguna zuk guri egitea nahi genuke». Eta Jesusek esan zien: «Zer nahi duzue nik zuei egitea?» Eta haiek: «Egizu eser gaitzela bata zeure eskuinean eta bestea zeure ezkerrean, zeure aintza-egunean». Eta Jesusek: «Ez dakizue zer eskatzen duzuen. Gauza al zarete nik edango dudan kaliza edateko, edota nik hartuko dudan bataioa hartzeko?» Eta haiek: «Bai, gauza gara!» Eta Jesusek: «Nik edango dudan kaliza, bai, edango duzue, eta nik hartuko dudan bataioa hartuko; baina nire ezker-eskuin esertze hori ez dago nire esku inori ematea; hori erabakia dago». Beste hamarrak, hori entzutean, biziro haserre jarri ziren

Urteko 29. astea.

SAN LUKAS, EBANJELARIA.

San Justo, *haurra*. DOMUND eguna.

Santiagorekin eta Joanekin. Jesusek, berriz, bereganatu bildu eta esan zien: «Badakizue herrietako agintari azaltzen direnek gogor hartzen dutela menpean herria, eta handikiek azpian hartzen dutela. Ez bedi izan horrela zuen artean, baizik eta zuen artean handi izan nahi duena bego zuen zerbitzari, eta zuen artean lehenengo izan nahi duena bego guztien menpeko. Gizonaren Semea ere ez baita etorri besteen zerbitzuak hartzera, besteak zerbitzatzera baizik, eta bere bizia askoren erospen-sari ematera».

Beti izaten da norbait banatzeko orduan, garrantzizko postu bat segurtatu nahi izaten duenik. Unea izaten da adiskideari eta nagusiari gogoratzeko, beste inor baino leialagoa, adoretuagoa eta gaiagoa zarelara, eta beste inork baino merezimendu handiagoak dituzula. Horixe egin zuten Santiagok eta Joanez. Jesus etsirik bezala sentitu bide zen. Jainkoaren erregetzak ez zuela lurrekoekin inolako antzik hainbeste aldiz esan bazien ere, apostolu maiteenetako bi ateraldi horrekin datozkio orain... Zertan harritu gainerako jarraitzaileak aztoratu izanaz, ikusirik Maisuak agertu zien adiskidetasun handiago hartatik probetxua atera nahi zutela bi anaiek.

Zebedeoren bi semeek bezala jokatu ohi dugu geuk ere askotan Jainkoarekin. Egin omen ditugun gauzen zerbitzu-orrria aurkezten diogu Jainkoari eta «faborezko tratua» eskatzen, merezimendukrazian oinarritua den munduan egin ohi den bezala. Horrenbeste eman dizut, beste horrenbeste zor didazu. Baina hori ez da maitasun- edo adiskidetasun-harreman bat, salerosketakoa da hori eta kontratuzkoa. Ez dugu ulertu ezer ere: Jainkoak maite gaituela lehenik, gu maitatzen segitzen duela gure epelkeria eta esker txarra eta guzti, jatorrasunik handiena besteak doan zerbitzatzera dela eta ez besteak azpian hartzea. Zenbat desengainu ematen dizugun, Jauna!

Santuak: Joan de Brébeuf, Isaak Jogues, *apaizak*, eta lagunak, *martiriak*. San Pedro Alkantarakoa, *apaiza*. San Paulo Gurutzekoa, *apaiza*.

[Erromatarrei 4,20-25: *Liburu Santuak guregatik ere esaten du; guri ere aintzat hartuko digu Jainkoak, harengan sinesten badugu. Salmoa: Lk 1: Bedeinkatua Jauna, Israelgo Jainkoa, agertu eta bere herria askatu duena.*]

† Jesu Kristoren Ebanjelioa San Lukasen liburutik 12,13-21.

Aldi hartan, jende arteko batek esan zion Jesusi: «Maisu, esaiozu nire anaiari, erdibana dezala nirekin senipartea». Jesusek erantzun zion: «Adizu, nork jarri nau ni, zuen artean, epaile edo erdi-banatzaille?» Eta jendeari esan zion: «Begira, alde egizue ondasun-gose guztitik. Ez baitago inoren bizia, asko edukirik ere, dauzkan ondasunetan». Eta parabola hau esan zien: «Gizon aberats baten soroak fruitu ugari eman zuen, eta bere baitan zioen: “Zer egin orain? Nire uzta non sarturik ez dut”. Eta esan zuen: “Hauxe egingo dut: neure mandioak bota, handiagoak egin, eta han gordeko ditut neure uzta eta ondasun guztiak”. Eta esango diot neure buruari: “Ea, motel! Baduk ondasunik asko urtetarako gorderik; hago lasai: jan, edan eta egin ezak jai!” Baina Jainkoak esan zion: “Zoroa halakoa! Gaur gauean datoz zure bizia-ren bila, eta norentzat izango dira pilatu dituzunak?” Horrela gertatzen zaio, ondasunak beretzako bildurik, Jainkoarentzat aberats ez denari».

Jesusek ez du burruntzalia sartu nahi, etxeko herentzia dela-eta haserre dabilzan bi anaien artean. Ez du parte hartu nahi diru-ara-zoetan. Baina gizon honek eskaini dion abaguneaz baliatu da, oso gustukoa duen gai bati berriro ekiteko: ez zaitez tuela erori diru-gosean. Kontu korrante bikain bat izatean bizitza segurtatua duelakoan dagoena, oso oker dabil. Aberats zoroaren parabola kontatu die, azpimarratzeko, aberastasunek ez dakartela zorionik, ez dutela bermatzen bizitza luzerik. Kezkatu zaitez, baldin eta bankuan diru asko baduzu eta zeruko kontua gorri baduzu.

Urteko 29. astea.

Santa Aurora, *aitorlea*.San Kornelio, *ehuntaria*.

[Paulo apostoluak Erromatarrei 5,12.15b.17-19.20b-21: Gizon bakar baten bekatuagatik nagusitu zen heriotza. Zenbatez gehiago biziko dira orain eta nagusituko Jesu Kristo bakarragatik? Sal 39: Hemen nauzu, Jauna, zure nahia egiteko.]

† Jesu Kristoren Ebanjelioa San Lukasen liburutik 12,35-38.

Aldi hartan, Jesusek esan zien ikasleei: «Zaudete erne, gerrikoa gerrian eta kriseiluak pizturik, nagusia ezteietatik noiz etorriko zain dauden morroiak bezala, etorri eta atea jotzen duenerako ireki diezaio ten. Zorionekoak, nagusiak, etortzean, erne aurkituko dituen mutilak! Egia diotsuet: gerrikoa jantzi eta mahaian eseraraziko ditu, eta bera hasiko zaie zerbitzatzen. Zorionekoak, nagusiak horrela aurkitzen dituen morroiak, nahiz gauerdian nahiz goizaldean etorri».

Bi abisu dakartzkigu Jesusek. Bizi gaitzela beti erne eta izan gaitzela beraren zerbitzari leial. Lehenengoak ez du esan nahi, beti beldurrak airean, beti urduri egon behar dugunik. Mundu honetan erromes garelako jakinik bizitzea da kontua, azken bidaiari ekiteko maleta beti prest. Kontzientzia horrek ez digu galarazten bizitzaz gozatzea, baizik eta aurrean dugun gauza bakarra balitz bezala gozatera eragiten digu. Bigarrenak, berriz, zerbitzarienak alegia, Kristoren misioan zerbitzari garelako gogorazten digu, beti gainerakoen zerbitzari.

Diego Luis de San Vitores *dohatsua, apaiza*, eta
San Pedro Calungsod, *martiriak*.
Santa Ursula eta lagunak, *martiriak*.

[Paulo apostoluak Erromatarrei 6,12-18: *Hildakoen artetik bizira igaro direnen antzera, jarri zeuen burua Jaunaren zerbitzura. Sal 123: Jaunaren izena da gure laguntza.*]

† Jesu Kristoren Ebanjelioa San Lukasen liburutik 12,39-48.

Aldi hartan, Jesusek esan zien ikasleei: «Badakizue: etxe nagusiak baleki gaueko zein ordutan etorriko den lapurra, ez luke etxea zulatzen utziko. Zuek ere prest egon zaitezte, uste ez duzuen orduan etorriko baita Gizonaren Semea». Pedrok orduan: «Jauna, guretzat esan al duzu parabola hau ala guztientzat?» Jaunak erantzun: «Nor da etxezain zintzo eta zentzuduna, nagusiak bere zerbitzarien buru ipiniko duena, behar den orduan gari-neurria eman diezaien? Zorionekoa, nagusiak, etortzean, hori egiten aurkituko duen morroia! Benetan diotsuet: bere ondasun guztien morroi-buru ipiniko du. Baina morroi horrek bere baitan esaten badu: “Berandu dator gure nagusia”, eta neskame-morroiak jotzen hasten bada, eta jaten, edaten eta mozkortzen, uste ez duen egunean eta ez dakien orduan etorriko zaio nagusia, eta ebaki-ebaki egingo du, gaiztoak merezi bezala. Nagusiaren nahia jakin bai, baina hura egiteko prest ez dagoen morroiak, edota nagusiak nahi bezala egiten ez duenak, zigorrada asko hartuko du. Nagusiaren nahia ez dakienak, nahiz zigorra merezi duten okerrak egin, zigorrada gutxi hartuko du. Askok eman zaionari asko eskatuko zaio; askoren ardura eman zaionari gehiago eskatuko zaio».

Jaunaren enplegatutara, eta ez gainerakoen nagusi eta ez ezeren jabe. Daukaguna, gozamenerako bakarrik daukagu; ezin eraman dituzin eren berekin hilkutxan lurreko aberastasunak. Batzuek erantzukizun handiko postua ukan ohi dute, arrakasta izaten dute lanbidean,

Diego Luis de San Vitores *dohatsua, apaiza*, eta
San Pedro Calungsod, *martiriak*.

Santa Ursula eta lagunak, *martiriak*.

jendea ukaiten dute beren mende. Geure agindupean ukan ditugunei eman izan diegun tratuagatik juzgatuko gaituzte. Beste batzuek tarteko biziera bat izan ohi dute, mundu honetan ezertan nabarmendu gabe joan ohi dira. Asko eman zaionari –dio Jaunak–, hainbesterik izan ez duenari baino gehiago eskatuko zaio.

Nunilo (Novila) eta Alodia santuak, ahizpak, *birjinak eta martiriak (Iruñeko eta Tuterako elizbarrutietan).*

[Paulo apostoluak Erromatarrei 6,19-23: *Bekatuaren menpetik askaturik, Jainkoaren neskame-morroiei eginak izan zarete. Sal 1: Bai dohatsua, Jainkoagan itzarobidea duen gizakia.*]

† Jesu Kristoren Ebanjelioa San Lukasen liburutik 12,49-53.

Aldi hartan, Jesusek esan zien ikasleei: «Lurrean sua jartzera etorri naiz, eta nahiago nuke dagoeneko sutan balego!

Bataio bat hartu beharra dut, eta zer larria, hori bete artean! Lurrera bakea ekartzera etorri naizela uste al duzue? Ezetz diotsuet, baizik zatiketa. Hemendik aurrera, bost lagun bizi diren etxe batean, zatituak egongo dira: hiru biren aurka, eta bi hiruren aurka; aita semearen aurka, eta semea aitaren aurka; ama alabaren aurka, eta alaba amaren aurka; amaginarreba errainaren aurka, eta erraina amaginarrebaren aurka».

Bere suak mundu osoa sutan jarri ez duelako arranguratzen, kexatzen da Jesus. Ulertezina da gizon-emakumeen itsutasuna edo itsukeria. Gizakiek Ebanjelioaren mezuari aurre eman izana frog handia izan da Kristorentzat. Badaki nekaldia eta heriotza, odol «bataio» bat, jasan beharko dituela, eta larri dago ordua iristen ez delako. Alabaina, orduan ere gizakia ez gai izan da bere bihotza Erreinuari irekitzeko. Are okerragoa, adiskidetasun-iturburu izan ordez, zatiketaren kausa izango da Jesusen azken misterio handi hori, familiaren baitan berean.

Jauna, miresgarria da Aitari eta jasotako misioari agertu diezun leialtasuna. Eskerrak, Jauna, amore eman ez duzulako, etsi ez duzulako.

Urteko 29. astea.

San Joan Kapistrano-koa, *apaiza*.

[Paulo apostoluak Erromatarrei 7,18-25a: *Nork askatuko nau heriotza-gorputz honetatik? Sal 118: Erakuts niri, Jauna, zuk ezarriak.*]

† Jesu Kristoren Ebanjelioa San Lukasen liburutik 12,54-59.

Aldi hartan, Jesusek esan zion jendeari: «Hodeia sartaldetik altxatzen ikusten duzuenean, berehala esaten duzue: “Euria dator”, eta hala gertatzen da. Hegoak jotzen duenean, esaten duzue: “Sargori egingo du”, eta hala egiten du. Itxurazale maltzurak! Badakizue lurrrari eta zeruari antzematen, eta nolatan ez diozue antzematen oraingo garai honi? Zergatik ez duzue zeuen kabuz erabakitzen zer den zuzena? Zeure etsaiarekin agintarietara zoazelarik, egitzazu bidean eginahalak bakeak egiteko, epaileagana eraman ez zaitzan; epaileak ertzainaren esku utziko baitzaitu, eta ertzainak giltzapean sartuko. Hara nik esan: ez zara handik aterako azken txanpona ordaindu arte».

Oso argiak eta aztiak izaten gara bizitzarako baliagarri dena ikasteko, baina ez hainbeste «aldien ezaugarriak bereizteko», Vatikanoko II.ak eskatu zigun bezala. Aro bakoitzak eskatzen die fededunei kristautasuna garaiaren garaiko kulturari egokitzeko. Baina aski nagi agertu ohi gara edozein aldaketa egiteko. Asko zabaltzen dugu, egiazko arrazoirik gabe, geure fedean mugiezineko jotzen ditugun ohituren eta besteren mundua. Eta halakoak ditugu fruituak! Gero eta zabalagoa eta ugariagoa egin dugun tradizio hori kostala ala kostala defenditzeak basoa ikustea eragozten digu. Kristok bizirik jarraitzen du gure gizartean, baina ez gara gai hari antzemateko aldi berrietan. Senda iezaguzu, Jauna, geure itsukeria.

Urteko 29. astea.

San Antonio Maria Claret, *gotzaina*
eta fundatzailea (Klaretarrak).

[Paulo apostoluak **Erromatarrei 8,1-11**: *Jesus hildakoen arte-tik piztu zuenaren Espiritua zuengan bizi bedi. Sal 23: Hau da, Jauna, zure aurpegi bila dabilzanean taldea.*]

† Jesu Kristoren Ebanjelioa San Lukasen liburutik 13,1-9.

Aldi hartan, etorri zitzaizkion Jesusi batzuk, galilear batzuei gertatutakoaren berri ematera: Pilatok galilear haien odola beren opariekin nahastu omen zuela, alegia. Jesusek erantzun zien: «Uste al duzue, galilear haiek beste galilearrak baino bekategoriago zirela, horrelako azkena izan zutelako? Ezetz diotsuet, eta bihotz-berritzen ez bazarete, guztiok era berean galduko zarete. Eta Siloeko dorrea gainera erorita hil ziren hemezortzi haiek ere, uste al duzue, beste jerusalemdarrak baino errudunagoak zirela? Ezetz diotsuet, eta bihotz-berritzen ez bazarete, guztiok era berean galduko zarete». Eta parabola hau esan zien: «Pikondo bat zeukan gizon batek bere mahastian landatua. Piku bila etorri eta ez zuen aurkitu. Orduan esan zion mahastizainari: “Bada hiru urte, pikondo honetara piku bila natorrela, eta ez dut pikurik aurkitzen. Moztu ezazu. Zertako eduki lurra alferrik?” Mahastizainak, ordea, erantzun zion: “Jauna, uztazu aurtengoz; ingurua aitzurto eta ongarrituko dut; ea fruiturik ematen duen. Bestela, datorren urtean moztuko duzu”».

Hondamendiak ez dira Jainkoaren zigor, inoren bekatuengatik. Berezko fenomenoak dira, jende ona eta gaiztoa jo dezaketenak. Eguzkia eta euria bezala. Erantzukizun moraletik aparte ikusi nahi ditu Jesusek bizitzaren kontrako arriskuak. Baina bereizketa honetaz baliatu da gogorarazteko, azkenean Jainkoaren zuzentasuna nagusituko zaiola gaitz moralari. Alabaina, handia da Jainkoaren pazientzia, eta aukera eskaintzen dio bekatiari, fruiturik ematen ez zuen piku-arbola horri bezala. Eska diezaiogun Jaunari, ez dezagula utzi beraren grazia alferrik galtzen, fruitu-arbola agor izan ez gaitezen.

Urteko 30. astea.

San Krispin eta Krispiniano, *martiriak*
(*Zapatarien Zaindariak*).

§ Jeremias Profetaren liburutik 31,7-9.

Honela mintzo da Jauna: «Egin oihu pozaren pozez Jakobengatik, egin irrintzi, hiriburuarengatik: hots egin, goretsi eta esan: “Salbatu du Jaunak bere herria, Israelgo hondarra”. Begira, iparraldetik ekarriko zaituztet, eta lurraren azken mugetatik bilduko. Herri handi bat dator: horien artean badira itsuak eta herrenak, haurdunak eta haur-eginak. Negarrez joan ziren, pozik ekarriko ditut; ur handietara eramango ditut, oztoporik egingo ez duten bide zelaietatik; Aita izango naiz Israelentzat, eta Efraim izango da nire lehen- seme».

[Sal 125: *Gurekin handikiro jokatu da Jauna: Hau da poza daukaguna.*]

§ Hebrearrei egindako gutunetik 5,1-6.

Apaiz nagusia, gizonen artetik hartua, gizonen alde jarria da, Jaungoikoari dagozkionetan, bekatuengatik emariak eta opariak eskaintzeko. Ezjakin eta okertuez gupidatzeko gauza da, bera ere argalakeriaz inguratua dagoenez gero. Eta horregatik, herriarentzat bezala, bere buruarentzat ere eskaini behar ditu opariak bekatuen orde. Ez du inork hartzen beretzat maila hori, Jaungoikoak deiturik baizik, Aaronek bezala. Horrela Kristok ere: ez dio berak eman bere buruari apaiz nagusi maila, baizik hitz hauek esan zizkionak: «Nire Seme zara zu; nik zaitut gaur zu sortu», edo beste batean Liburu Santuak dioen bezala: «Apaiz zara zu beti-betiko, Melkisedeken sailean».

† Jesu Kristoren Ebanjelioa San Markosen liburutik 10,46-52.

Aldi hartan, Jesus ikasleekin eta jende-talde handi batekin Jerikotik ateratzean, Bartimeo itsua –Timeoren semea– eskean zegoen bide-ertzean, eserita, eta, Nazareteko Jesus zela entzun zuenean, deiadarka hasi zitzaion: «Jesus, Daviden Seme, erruki zakizkit!» As-

Urteko 30. astea.

San Krispin eta Krispiniano, *martiriak*
(*Zapatarien Zaindariak*).

kok haserre egiten zion isilarazteko. Hark, ordea, orduan eta deiadar handiagoa egiten zuen: «Daviden Seme, erruki zakizkit!» Jesusek gelditu eta esan zion: «Dei iezaiozue». Deitu zioten itsuari, esanez: «Izan bihotz, altxa, deika duzu eta». Hura, soingainekoa bota, bat-batean zutitu eta Jesusengana etorri zen. Jesusek esan zion: «Zer nahi duzu nik zuri egitea?» Itsuak erantzun: «Maisu, ikus dezadala berri-ro!» Jesusek esan zion: «Zoaz, zeure sinesteak sendatu zaitu». Eta berehala hasi zen ikusten, eta atzetik zihoakion bidean.

Batzuetan, Bartimeo bezala dakusat neure burua, bide-ertzean limosna eske. Neure bizitzan partaide izaten dudan jendeak kontsolatzen nau. Izen-deiturak ezartzen dizkiet lagun horiei, bai zer bait eman izan didatenei, bai kasurik egin gabe aurrera egin dutenei. Gogoan ditut orobat Jaunak eman zizkidan hainbat eta hainbat hitzordu, nik kasurik egin ez nienak: zenbat aukera galduak!

Itsu, pobre, premiatsu. Neure burua dakusat Bartimeo itsu horrengan, eta galdetzen dut: «nor da nire ondotik pasatzen ari den jaun hori, ez gaur bakarrik, baizik egunero». Eta norbaitek, karitatez, Jesus dela esaten dit. Orduan oihuka hasten naiz: «Jesus, erruki zaitetz nitaz!» Eta izaten da esaten didanik: «Isildu hadi, ez hadi nabarmen agertu! Ez al duk ikusten ezin diala kasu egin?» Eta nik, tematuki: «Jesus, erruki zaitetz nitaz!»

Eta hura, beti entzuteko prest erregutzen dionari, hurbildu eta esaten dit: «Zer nahi duzu egin diezazudan?» Ikusten zaitut eta ezin egin dut atzera. Jauzi bat egin, soingainekoa eta jasotako limosna utzi, eta zurekin noa.

Urteko 30. astea.

San Evaristo, 5. aita santua.

[Paulo apostoluak Erromatarrei 8,12-17: *Semetzako Espiritua hartu duzue, eta horrek hots eginarazten digu: «Abba! Aita!» Sal 67: Gure Jainkoa, Jainko salbatzailea da.*]

† Jesu Kristoren Ebanjelioa San Lukasen liburutik 13,10-17.

Aldi hartan, sinagoga batean irakasten ari zen larunbatez Jesus. Bazegoen han emakume bat, hemezortzi urte haietan espirituak gaixo zeukana; makurtua zegoen, eta ezin zen inola ere zuzendu. Jesusek ikusi, deitu eta esan zion: «Emakume, sendatua gelditzen zara zeure gaitzetik». Eta eskuak ezarri zizkion. Emakumea bat-batean zuzendu zen, eta Jainkoa goersten zuen. Sinagogako buruak, Jesusek larunbatez sendatu zuelako haserreturik, esan zion herriari: «Badituzue sei egun lan egiteko, etorri egun horietan senda zaitzaten, eta ez larunbatean». Jesusek, hari begira, esan zion: «Itxurazaleak! Zuek guztiok ez al dituzue larunbatez idia eta astoa ganbelatik askatzen, eta edanaraztera eramaten? Eta Satanasek hemezortzi urtetan loturik zeukan Abrahamen alaba hau, ez al zen bidezko, lokarri horretatik larunbatez askatzea?» Hitz horiekin lotsaturik geratu ziren haren etsaiak; herri guztia, berriz, pozik zegoen, Jesusek egiten zituen gauza harrigarriekin.

Hau da Sinagogako buruzagiaren lehen laidoa: Jesus bere lanbidea larunbatean ezin gauzatu duen sendagile edo petrikilo batekin konparatzea. Bigarrena, hau uste izatea izan da: emakume konkortua Jesusek senda dezan etorri dela Sinagogara. Hirugarrena, ez aitortu nahi izatea izan da Jesusek zinezko errukiz jokatu duela, emakumeak eskatu gabe, Jesusek hartu diola aurea emakumeari, sendatzeko. Eta, azkenik, ez ausartzea Jesus bera salatzeraz, eta modu orokorrean hitz egitea larunbatez sendatzen duen jendilajeaz. Jesusek, beste askotan bezala, argudio gezurtaezin batez erantzun dio: on egiteko ez dago jaiegunik.

[Paulo apostoluak Erromatarrei 8,18-25: Izadia bera ere zainzain dago, Jainkoaren seme-alaben agerkunde beteari itxaroten. Sal 125: Gurekin handikiro jokatu da Jauna.]

† Jesu Kristoren Ebanjelioa San Lukasen liburutik 13,18-21.

Aldi hartan, Jesus honela mintzatu zen: «Zeren antzekoa da Jainkoaren erreinua? Zeren irudiko egingo dut? Mostaza haziaren antzekoa da: gizon batek bere baratzean ereiten du, hazten da eta zuhaitz egiten, eta txoriek haren adarretan egiten dute habia». Esan zuen gainera: «Zeren irudiko egingo dut Jainkoaren erreinua? Orantza antzekoa da: emakume batek hartu, eta hiru lakari irinetan sartzen du, eta orantzak ore guztia harrotzen du».

Jainkoak beti hobetsi izan du txikia dena, ezdeusa dena, mesprextatua dena; konstante bat da hori Salbazioaren Historian. Ondo asko azpimarratzen du Paulo santuak hori bera: «Erreparatu zein izan zareten deituak. Munduko zoroak aukeratu ditu Jainkoak jakintsuak umilarazteko, ahulak ahaltsuak gainditzeko, bilauak eta mesprextatuak eta ezer ez direnak zerbait dena desegiteko» (ik. 1 Ko 1,26-27). Testuinguru honetan hobeki ulertzen dira parabola hauek: haziarena, mostazarena eta legamiarena. Jende xumearen eremua da Erreinua, jende pobretuarena, jende gaixoarena...

Urteko 30. astea.

San Simon eta San Judas, *apostoluak*.[Efesoarrei 2,19-22: *Apostoluen oinarri gainean eraikiak zarete.*Sal 18: *Lur guztira zabaltzen da haien hotsa.*]

Jesu Kristoren Ebanjelioa San Lukasen liburutik 6,12-19.

Egun haietako batean, Jesus mendira joan zen otoitz egitera, eta Jainkoari otoitzean igaro zuen gaua. Eguna argitu zuenean, ikasleei deitu eta haietako hamabi aukeratu zituen, eta apostolu izena eman zien: Simon –honi Pedro izena eman zion–, honen anaia Andres, Santiago, Joan, Felipe, Bartolome [Natanael], Mateo, Tomas, Santiago Alfeorena, Simon –Zelote zeritzana–, Judas Santiagorena eta Judas Iskariote –Jesusen saltzaile gertatu zena–.

Jesus, ikasleekin menditik jaitsi ondoren, zelaigune batean gelditu zen. Ikasleetariko asko harekin ziren; baita herriko jende-talde handia ere, Judea osotik, Jerusalemdik eta Tiro eta Sidongo itsasaldetik etorria, hari entzutera eta berak gaitzetatik senda zitzan. Espiritu gaiztoek oinazetuak sendaturik gelditzen ziren. Jende guztiak Jesus ukitu nahi zuen, denak sendatzen zituen halako indar bat baitzerion.

Ezer gutxi ezagutzen dugu, Jesusen ikasleen zerrendan, saltzailearen aurretik ageri diren bi apostolu hauez. Batak Simon zuen izena, Pedrok bezala. «Zelote» goitizena ezarri zioten; fanatiko eta zale gogotsu arteko zerbait esan nahi du goitizena. Besteak Iskarioteren izen bera du: Judas; esan ohi da Santiago baten semea edo anaia zela. Garrantzizkoena da, Jesusek aukeratu zituela Ebanjelioaren testigu eta mezulari izateko. Edozein kasutan, beste asko bezala, santu ezezagun eta anonimo dira. Eta zuk, sentitu al duzu sekula Jesusekin bizitzeko eta Berri Ona hots egiteko deia? Zer erantzun diozu? Eta berriro egingo balizu?

[Paulo apostoluak Erromatarrei 8,31b-39: Ezin izango gaitu ezerk aldendu Kristogan agertu den Jainkoaren maitasunik. Sal 108: Zeure maitasunaz onik atera nazazu, Jauna.]

Jesu Kristoren Ebanjelioa San Lukasen liburitik 13,31-35.

Egun hartan, fariseu batzuk joan zitzaizkion Jesusi eta esan zioten: «Zoaz, alde egizu hemendik, Herodes zu hil nahian dabil eta». Jesusek esan zien: «Joan eta esaiozue gizontto horri: Begira, gaur eta bihar sendatzen eta deabruak botatzen jarraitu behar dut, eta hirugarren egunean nire azkena izango da. Baina gaur, bihar eta etzi bideari jarraitu behar diot, ez baitaiteke profetarik Jerusalemekoa kanpora hil.

Jerusalem, Jerusalem, profetak hiltzen eta Jainkoak zuri bidaliak harrikatzen dituzuna! Zenbat aldiz ez ditut bildu nahi izan zure seme-alabak, oiloak bere txita-taldea hegalpean bezala, eta zuek ez duzue nahi izan.

Horra bada, hutsik geldituko zaizue etxea. Eta esaten dizuet, ez nauzuela ikusiko, hau esango duzuen garaia arte: *Bedeinkatua Jau-naren izenean datorrena!*»

Ez dakigu zer nahi zuten arriskuaren berri eman dioten fariseu hauek: Jesus babestu ala, hobeto, Galileatik urrunarazi. Jesusen erantzunari begira, ematen du asmo onez ari zirela; halere, Jesusek ez du utziko bere egitasmoa Herodesen beldurrez, baizik eta Jerusalemera igo beharra duelako, bere «azkenera iristeko», han bere bizia eta egintza burura eramateko. Beste behin, Israel herriaren bihotz-gogorkeriaz kezkatzen da Jesus, ez baitu onartu nahi agindutako mesiasztat, eta bere itsukeriarri eutsiko baitio. Eta ni, Jesusi uko egiten dioten horietakoa ote naiz?

Urteko 30. astea.

San Martzelo, *martiria*.Domingo Collins *dohatsua, erlijosoa*.

[Paulo apostoluak Erromatarrei 9,1-5: *Anatema izan nahi nuke nik, neure anai-arreben alde*. Sal 147: *Jerusalem, ospa ezazu Jauna*.]

† Jesu Kristoren Ebanjelioa San Lukasen liburutik 14,1-7.

Aldi hartan, larunbat batez, Jesus fariseu handiki baten etxean sartu zen bazkaltzera. Haiek zelatan zegozkion. Urak zituen gizon bat zegoen han, Jesusen aurrean. Jesusek lege-maisu eta fariseuei galdetu zien: «Zilegi al da larunbatez inor sendatzea, bai ala ez?»

Haiek isilik gelditu ziren. Orduan, Jesusek gaixoa eskutik hartu, sendatu eta bidali egin zuen. Gero, haiei esan zien: «Zuetako nork, semea nahiz idia putzura erortzen bazaio, ez du berehala ateratzen, larunbata izanagatik?»

Erantzun ezinik gelditu ziren.

Lehen kristau-elkarteetan aurkaritza eta ezin ulertuak sortu ziren judaismotik zetozenen eta paganismotik zetozenen artean: Moisesen legeko arauak betebeharrak ziren ala ez eztabaidatzen zuten. Ebanjelioetan behin baino gehiagotan ageri da nola hausten dituen Jesusek Torako (Moisesen Legeko) arauak, hiru puntutan nagusiki: errituzko garbitzeak, larunbateko atsedena gordetzea eta janari garbi / ez-garbien arazoa. Jesusen jarrera gai horretan, ematen du, eredu izan behar zukeela fededunentzat. Hala al da niretzat? Betetzaille eskrupuludun ote naiz? Ala bost axola zaizkit aginduak?

[Paulo apostoluak Erromatarrei 11,1-2.11.12.25-29: Juduek huts egin izana munduarentzat aberasbide gertatu bada, zenbatez aberasgarriago ez ote da izango Israel osoak salbamera iristea! Sal 93: Ez du zapuztuko Jaunak bere herria.]

Jesu Kristoren Ebanjelioa San Lukasen liburitik 14,1.7-11.

Behin batean, larunbatez, fariseu-buruetako baten etxera joan zen Jesus bazkaltzera, eta fariseuak zelatan zegozkion. Ohartu zen Jesus gonbidatuek mahaiko lehen jarlekuak hartzen zituztela, eta parabola hau esan zien: «Ezteietara gonbidatzen zaituztenean, ez jarri mahaiburuan, zu baino gonbidatu ospetsuagoren bat izan daiteke eta; hala balitz, biok gonbidatu zaituztenak etorri eta esango lizuke: “Utzi tokia beste honi”; orduan, azkeneko lekuan eseri beharko zenuke lotsa gorrian. Alderantziz, gonbidatzen zaituztenean, jarri azkeneko tokian, gonbidatu zaituenak, datorrenean, esan diezazun: “Adiskide, igo gorago”. Horrela, oso toki onean geldituko zara mahaikide guztien aurrean. Zeren eta bere burua goratzen duena beheratu egingo baitu Jainkoak, eta bere burua beheratzen duena, goratu».

Hantustea, harrokeria, handikeria, hipokresiarekin batean, modu berezian ziren gogaikarri Jesusentzat. Berak, edozein bat izateraino jaitsi zen hark, ezin jasan zuen norbaitek besteak baino handiagoa zela pentsatzea. Uko egin zion bigarren tentazioa, gaur egun oso gustukoa dugun hau izan zen: itxurazale izatea, ospeduna eta ezaguna izatea, ikuskari batean protagonista agertzea, gizartearen aurrean atentzioa deitzea, preziatua izatea. Jesusek aise gainditu zuen tentatzailea, gizadia bere onera ekartzeko, gauza ikusgarri eta miresgarriak egitera eragin zionean. Jainkoaren bideak umiltasuna eta umiliatua izatea ditu bere tonika. Prest al nago onartzeko?

«Ez zaude urruti Jainkoaren erreinutik»



AITA SANTUAREN ASMOAK

Orokorra: Ireki dezagun bihotza, gizon-emakume guztiekin harreman pertsonalak eta elkarrizketa egiteko, baita guk ez bezala pentsatzen dutenekin ere.

Ebanjelizazioaren alde: Elizako artzainak, artaldearekiko maitasun sakonez, guztien bidelagun izan daitezen, guztiei esperantzaz bizitzera eraginez.

AZAROA / ZEMENDIA

Urteko 31. astea.
SANTU GUZTIEN OROIPENA.

§ Apokalipsi liburutik 7,2-4.9-14.

Nik, Joaneke, beste aingeru bat ikusi nuen sortaldetik igotzen. Jaungoiko biziaren zigilua zeukan, eta oihu handiz hots egin zien itsasoa eta lurra zigortzeko zeuden lau aingeruei, esanez: «Ez zigortu lurrik, ez itsasorik, ez zuhaitzik, harik eta gure Jaungoikoaren zerbitzarietara ezaugarria bekokian ezarri arte». Eta entzun nuen ezaugarriaren kopurua: ehun eta berrogeita lau mila, Israelgo leinu guztietatik. Horren ondoren, talde handi bat ikusi nuen, inork ezin zenbatu ahalakoa, enda eta leinu, herri eta hizkuntza guztietakoa, aulkiaren eta Bildotsaren aurrean zutik, zuriz jantzitak, eta palma-adarrak eskuetan. Eta oihu handiz hots eginez, zioten: «Salbamena, aulkian eserita dagoen gure Jaungoikoarena da eta Bildotsarena». Aulkiaren, zaharren eta lau bizidunen inguruan zeuden aingeru guztiak ahuspez erori ziren aulkiaren aurrean, eta Jaungoikoa gurtu zuten, esanez: «Amen! Bedeinkapena, aintza eta jakinduria, esker ona eta ospea, ahalmena eta indarra gure Jaungoikoarenak dira, gizaldi eta gizaldietan. Amen!» Eta zaharretako batek esan zidan: «Nor dira eta nondik datoz zuriz jantzirik dauden hauek? Nik erantzun nion: «Hauek nekaldi handitik datozenak dira. Bildotsaren odoletan garbitu dituzte eta zuri-bera jantzitak».

[Sal 23: *Hau da, Jauna, zure aurpegi bila dabiltzanen taldea.*]

§ San Joan Apostoluaren 1. gutunetik 3,1-3.

Senide maiteok: Begira zenbaterainoko maitasuna agertu digun Aitak: Jaungoikoaren seme-alaba izena daramagu, baita izana ere. Hona zergatik munduak ez gaituen ezagutzen, Jainkoa ere ezagutu ez zuelako. Anai-arreba maiteok, orain Jaungoikoaren seme-alaba gara; gero izango garena, oraindik ez da ageri. Bada-

kigu, Jauna agertuko denean, haren antzeko izango garela, bera den bezalakoa ikusiko baitugu, harengan itxaropen hau duen guzti garbitu egiten da, hura garbia den bezala.

† Jesu Kristoren Ebanjelioa San Mateoren liburutik 5,1-12a.

Aldi hartan, jende-taldea ikusirik, mendira igo zen Jesus; eseri zenean, ikasleak inguratu zitzaizkion, eta berak honela irakasten zien: «Zorionekoak, gogoz behartsu direnak; / berena dute-eta zeruetako erreinua. / Zorionekoak otzanak; / berak izango dira-eta lurraren jabe. / Zorionekoak, negar egiten dutenak; / poztuak izango baitira. / Zorionekoak, zuzentasunaren gose eta egarri direnak; / aseak izango baitira. / Zorionekoak errukitsuak; / hauek iritsiko dute-eta errukia. / Zorionekoak, bihotzez garbi direnak; / hauek ikusiko dute-eta Jainkoa. / Zorionekoak bakegileak; / Jainkoaren seme eta alaba esango baitzaie. / Zorionekoak, zuzenagatik eraso jasango dutenak; / hauena da-eta zeruetako erreinua. / Zorionekoak zuek, nigatik biraoka eta erasoka erabiliko zaituztenean, eta gezurretan asma ahalak zuentzat esango dituztenean; poztu zaitzte eta alaitu, handia izango da-eta zuen saria zeruetan».

Santu guztien elkertasunean sinesten dugu, baina gero eta gutxiago jotzen dugu haiengana, eguneroko lan, premia eta gabeziatarako indar, laguntza eta arnasa eske. Batzuei iruditzen zaie debozio huts bat dela, estutasun zehatzetan laguntzen diguten «jainkotxoez» nahasturiko erlijiotasun herrikoia santuekiko debozio huts bat.

Alabaina, santuen elkertasunak ez du zerikusirik horrelako jokatibiderek; ostera, konbentzimendu sendo bat da: Jesu Kristo ez dela piztu bera bakarrik, baizik eta «infernuetara jaitsi dela» hildakoak berpiztera, eta, haiekin batean, «zeruko koru bat» baino zerbait ge-

**Urteko 31. astea.
SANTU GUZTIEN OROIPENA.**

hiago dena eratu duela. Biziak eta berpiztuak elkartzen dituen sareko kide dira santuak; Jainkoaren Erregetza gauza eta pertsona guztietara hedatzeko ahaleaginean ari dira. Pazko egunean eta gaurkoan berean, gustukoa izan ohi dut kontenplatzea, Jaun berpiztua garaile datorrela bere lagundi santuarekin, salbatu dituen guztiekin, gurekin solidarioki bat egiten duten horiekin. Kristo buru duen ongiaren aldeko taldea da santuena. Bihotz sendoko sentitu beharko genuke geure burua, hau da, Jainkoa guztiengan izan dadin, gurekin borrokan ari den zerutar oste handi honek adoreturik eta indarturik sentitu beharko genuke geure burua.

§ Job Profetaren liburutik 19,1.23-27a.

Jobek esan zuen: «Ai, idatziak balira nire hitzak! Ai, liburu batean jarriak baleude, burdinazko eztenez berunean eta harrian betiko ezarriak! Nik badakit, nire Salbatzailea bizi dela, eta azkenean zutituko dela lurraren gainean. Nire larrua galdu ondoren, haragirik gabe ikusiko dut Jainkoa. Neuk ikusiko dut, eta ez bestek».

§ Paulo apostoluak Filipoarrei 3,20-21.

Senideok: Guk zerua dugu geure herri, eta, itxaro, handik itxaroten dugu Salbatzailea, Jesu Kristo gure Jauna. Berak aldatuko du gure gorputz ezerez hau, bere gorputz aintzatsuaren antzeko eginez, gauza guztiak menperatzeko duen indarrez.

† Jesu Kristoren Ebanjelioa San Markosen liburutik 15,33-39; 16,1-6.

Eguerdian lurralde hura guztia ilunpean gelditu zen, arratsalde erdia arte. Eta arratsalde erdian Jesusek oihu handiz esan zuen: «Eloi, Eloi, lema sabaktani» –hau da: «Ene Jainko, ene Jainko, zergatik utzi nauzu eskutik?»—. Han zeuden batzuek, hau entzutean, zioten: «Eliasi deika ari da». Eta batek lasterka joan, belaki bat ozpinetan busti eta, kanabera-muturrean jarrita, edateko ematen zion, esanez: «Utziozue; ikus dezagun, ea etortzen zaion Elias, gurutzetik jaistera». Eta Jesusek, deiadar handi bat eginez, azken arnasa eman zuen. Jauretxeko oihala erdibi egin zen goitik beheraino. Haren aurrez aurre zegoen gudari-ehuntariak, berriz, era horretan hil zela ikustean, esan zuen: «Gizon hau, benetan, Jainkoaren Semea zen». Bazeuden han, urrutitik begira, emakume batzuk ere; haien artean, Maria Magdalena, Santiago gaztearen

Urteko 31. astea.

HILDAKO GUZTIEN OROIPENA.

eta Joserren ama Maria, eta Salome –Jesus Galilean ibili zenean, laguntzaile eta zerbitzari izaten zituenak– eta beste emakume asko, Harekin batean Jerusalemera igo zirenak. Ilunabarrean, Prestaera Eguna, larunbat-bezpera, zelako, etorri zen Arimateako Jose –Batzarreko gizon argia, Jainkoaren erreinua itxaroten zuena bera ere–, eta ausardiaz Pilatogana joan zen, Jesusen gorpua eskatzera. Harritu zen Pilato, ordurako hila zelako, eta, ehuntariari dei eginez, aspaldi hil al zen galdetu zion. Ehuntariaren erantzuna jakin zuenean, utzi zion gorpua Joseri. Honek, izara bat erosi eta, gurutzetik jaitsirik, izaran bildu zuen; harkaitz bizian zulatutako hilobi batean ipini eta, hilobiko sarreran, harri biribil bat ezarri. Maria Magdalena eta Joserren Maria begira zeuden non jartzen zuten.

Hildakoak ohoratzeko joera azaroaren batera igarotzen ari da, agian egun hori jai egiten dugulako. Eta azaroaren 2an hildakoen oroitzapena egiteko ohitura indarra galduz doa debozio herrikoian. Dena den, egun honetan hildako guztientzat erregutzen diogu Jau-nari; jakina, baita etxeko, adiskide, ezagun, lankide, aisialdiko kide, elkartekide, taldekideentzat ere. Halakoez gogoratze hori ahalegin bat da haietaz ez ahazteko; ustekabeen, joera baitugu, errukirik gabe, «fedean aurrea hartu izan diguten haiek», hainbeste zor diegun haiek alde batera uzteko. Halakoei, esker ona eta oroitzapena Jainkoaren aurrean.

**

ENE JAUNA
(*Dulce María Loynaz*)

Ene Jauna: Zuk eman zenizkidan begi hauek; esadazu nora behar ditudan itzuli gau luze honetan, nire begiok baino gehiago iraungo duen honetan.

Ene lehen fedearen errege zintudan hori: Zuk eman zenizkidan esku hauek; esadazu zer behar duten hartu edo zer utzi, nire zentzumenarentzat ez diren erromesaldi honetan, non dena baitut faltako eta dena baitut sobera izango.

Ene gozotasun latzaren gozotasuna: Zuk eman zenidan ahots hau basamortuan; esadazu zein den hitza isiltasun handia gainditzeko modukoa.

Ene buztinaren arnasa: Zuk eman zenizkidan oin hauek... Esadazu zergatik egin zenituen hainbeste bide, zu bakarrik izanik Bidea, eta Egia, eta Bizia.

Urteko 31. astea.

Martin Porres, *erlijiosoa*.Ruperto Mayer *dohatsua, apaiza*.

[Paulo apostoluak Erromatarrei 12,5-16a: *Atal bakoitza beste atal guztien zerbitzurako da. Sal 130: Zaindu ezazu nire bizia bakean zure baitan, Jauna.*]

† Jesu Kristoren Ebanjelioa San Lukasen liburutik 14,15-24.

Aldi hartan, Jesusekin mahaian zegoen batek esan zion: «Zorionekoa, Jainkoaren erreinuko mahaian jango duena». Jesusek erantzun zion: «Gizon batek otordu eder bat prestatu zuen, eta jendetza handia deitu. Otordu-garaia etorri zenean, morroia bidali zien deituei, berri ematera: “Zatozte, dena prest dago”. Baina haiek bata bestearen ondotik aitzakiak jartzen hasi ziren. Lehenengoak esan zuten: “Soro bat erosi dut, eta hura ikustera joan behar dut; barka iezadazu, arren”. Beste batek: “Bost idi-pare erosi ditut, eta haiek probatzera joan behar dut; barka iezadazu, arren”. Beste batek: “Andrea hartu dut, eta, jakina, ezin joan ninteko”. Itzuli zen morroia nagusiagana, eta dena adierazi zion. Haserretu zen etxeko jaunna, eta esan zion morroiari: “Zoaz berehala herriko enparantza eta kaleetara, eta ekar itzazu behartsu, elbarri, itsu eta herrenak”. Morroiak gero esan zion: “Jauna, egin dut agindu duzuna; baina ora-indik bada leku”. Nagusiak orduan: “Zoaz bideetara eta bidezidorretara, eta behartu itzazu sartzera, etxea bete diezadaten”. Benetan diotsuet: deitutako bakar batek ere ez du dastatuko nire otordua».

Erreinuaren seinale bihurtu zuen Jesusek elkarrekin egindako otordua. Horregatik egin zuen Jesusen mahaikide zen hark komentario hau, aintzaren jai-otorduan leku bat izan nahirik. Afari atsegina izan bide zen; izan ere, Jesusekin hain gustura sentitu zen, non modu iheskorrean bizi izan zuen hura, amairik gabeko betikotasun gertatzea nahi baitzuen.

«Jesusekin afaltzea», kristau guztien guraria da. Eukaristian «gose-pizgarriak» probatu izan ditugunok «jaki nagusia» antsiatzen dugu. Eska diezaiogun gaur Jaunari: Gorde iezaguzu leku bat zeure mahaian!

[Paulo apostoluak Erromatarrei 13,8-10: *Maitatzean datza Lege osoa betetzea. Sal 111: Zorionekoa errukitu eta ematen duen gizakia.*]

† Jesu Kristoren Ebanjelioa San Lukasen liburutik 14,25-33.

Aldi hartan, jende asko zihoan Jesusekin, eta haietara bihurturik, esan zien: «Norbaitek nirekin etorri nahi badu eta ez banau ni bere aita eta ama, bere emaztea, seme-alabak, anai-arrebak, eta bere burua baino maiteago, ez daiteke nire ikasle izan. Bere gurutzea hartu eta nirekin ez datorrena, ez daiteke nire ikasle izan.

Izan ere, zuetako norbaitek dorre bat egin nahi badu, ez al du lehenengo, eserita, zenbat eralgi beharko duen ikusten, bukatzeko adina ba ote duen? Oinarriak jarri eta gero, bukatu ezinean ikusten dutenek barre egin ez diezaioten, esanez: “Hona hemen etxegin-tzan hasi eta bukatu ezinik gelditu zen gizona”.

Edota errege batek, beste errege baten aurka gudu egitera ateratzean, ez al du aztertzen lehenengo, eserita, hoge mila gizonekin datorrenari, hamar milarekin ba ote diezaiokeen gogor egin? Eta ezin badu, hura urruti den bitartean, mandatariak bidaltzen dizkio, bakea eskatzera.

Horrela zuek ere: dituen guztiak uzten ez dituen, ez daiteke nire ikasle izan».

Jesusen hitz hauek ez dira ikasleentzat, baizik momentu hartan entzule zuen jendetza handiarentzat. Hauteskunde-kanpainako gaur egungo zuzendari batek esango lioke Jesusi, berari atxikitako jende-kopururik txikiena lortzeko hitzaldia egin duela. Jarraitzaile bila dabil eta ez dizkie ezkututzen egin beharko dituzten ukapenak. Ez, Jesusek ez du inor engainatu nahi, ez du nahi oker ulertzerik izan dadin. Eginkizun latza eta zaila da Erreinua, prestutasuna eta buru-eskaintza eskatzen ditu. Jesusen erronkaren aurrean, izena emateko prest al zaude? Ala uko egin behar al diozu?

[Paulo apostoluak Erromatarrei 14,7-12: *Nahiz bizitzan, nahiz heriotzan, Jaunarenak gara. Sal 26: Jaunaren ontasuna ikusi ustean nago bizien lurrean.*]

† Jesu Kristoren Ebanjelioa San Lukasen liburutik 15,1-10.

Aldi hartan, zerga-biltzaileak eta bekatariak pilaka hurbildu zitzaizkion Jesusi, entzutera. Eta fariseuak eta lege-maisuak marmarrean hasi ziren elkarrekin, esanez: «Honek ongi hartzen ditu bekatariak, eta jan ere egiten du haiekin». Orduan Jesusek parabola hau esan zien: «Zuetako batek ehun ardi izan eta bat galtzen badu, ez al da, laurogeita hemeretziak larrean utzirik, galdutakoaren bila joaten, aurkitu arte? Eta, aurkitzen duenean, lepoan hartzen du pozik, eta, etxera iristean, lagunei eta auzokoei deitu eta esaten die: “Poztu zaitezte nirekin! Aurkitu dut galdu zitzaidan ardia”. Hara nik esan: Poz handiagoa izango da zeruan, bihotz-berritzen den bekatari bakar batengatik, bihotz-berritu beharrik ez duten laurogeita hemeretzi zintzoengatik baino.

Eta emakume batek hamar drakma izan, eta bat galtzen badu, ez al du argia pizten, etxea garbitzen eta arduraz bilatzen, aurkitu arte? Eta aurkitzen duenean, lagunak eta auzokoak deitu eta esaten die: “Poztu zaitezte nirekin! Aurkitu dut galdu zitzaidan drakma”. Hara nik esan: Horrela poztuko dira Jainkoaren aingeruak bihotz-berritzen den bekatari bakar batengatik».

**

[**Jesuiten Jaia: Deuteronomio liburutik 30,11-14:** *Agindua zeugandik oso hurbil duzu; bete ezazu. Sal 15: Zu zaitut, Jauna, neure ondarea.*]

Jesu Kristoren Ebanjelioa San Joanen liburutik **12,23-26.**

Aldi hartan, Jesusek erantzun zien ikasleei: «Iritsi da Gizonaren Semearen aintza azalduko den ordua. Bene-benetan diotsuet: Gari-alea, lurrean sartu eta hiltzen ez bada, bera bakarrik gelditzen da; hiltzen bada, ordea, fruitu asko ematen du. Bere bizia maite duenak galdu egingo du; baina mundu honetan bere bizia gutxiesten duenak betiko bizirako gordeko du. Nire zerbitzari izan nahi duenak jarrai biezat eta, ni nagoen tokian, han izango da nire zerbitzaria ere. Nire zerbitzari dena Aitak ohoratu egingo du.

Jesuita santu guztien egun honetan, emazkiogun eskerrak Jainkoari, beren burua Kristoren misioari eskaini zioten geure lagun guztiengatik. Batzuk santu edo dohatsu aitortu ditu Elizak; baina asko eta asko dira aitorpen hori sekula lortuko ez dutenak. Iraganean eta gaur asko dira, San Ignazioren espirituari leial, jende-klase guztien lagun eta laguntzaile direnak, gizakoiago izan daitezen eta beren bizitzan poztuko dituen argia eta salbazioa Kristogan aurki dezaten. Zerbitzu hau beren odolaz ordaindu dutenen kopurua gero eta handiagoa da gure artean. Horrelako eskaintza bat egiteko gai izan ez garenon lotsarako eta eraginerako.

Urteko 31. astea.

Jesusen Lagundiko Hildako Guztiak.

San Severo, *martiria*.

[Paulo apostoluak Erromatarrei 15,14-21: *Jesu Kristoren zerbitzari naiz jentilentzat, haien eskaintza atsegingarri izan dadin. Sal 97:* *Agertu du Jaunak atzerritarren aurrean beragandiko garaipena.]*

Jesu Kristoren Ebanjelioa San Lukasen liburutik 16,1-8.

Aldi hartan, Jesusek esan zien ikasleei: «Gizon aberats batek etxezain bat zuen, eta hau ondasunak alferrik galtzen ari zitzaio-la salatu zioten. «Deitu zion eta esan: “Zer da zutaz entzun dudan hori? Emadazu etxezaintzaren kontu, kargutik bota egiten zaitut eta”. «Etxezainak, orduan, zioen bere baitan: “Zer egin behar dut orain, nagusiak kargua kentzen didanez gero? Aitzurrerako ez naiz gauza, eta eskerako lotsa naiz. Badakit zer egin, kargutik botatzen nauten honetan etxean nork hartu izan dezadan”.

«Deitu zituen bere nagusiaren zordunak banan-banan, eta lehenengoari galdetu zion: “Zenbat zor diozu nire nagusiar?” Hark erantzun: “Ehun upel olio”. Etxezainak esan zion: “Hona zure ordain-agiria; agudo, eseri eta idatzi berrogeita hamar”. «Gero, hurrengoari galdetu zion: “Zuk zenbat zor diozu?” Hark erantzun: “Ehun anega gari”. Eta besteak, orduan: “Hona zure ordain-agiria; idatzi laurogei”.

«Eta nagusiak txalotu egin zuen etxezain zuzengabe hura, zuhurki jokatu zuelako. Izan ere, mundukoak zuhurrago dira beren arteko arazoetan, argitakoak berenetan baino.

[Jesuiten jai: **Paulo apostoluak Erromatarrei 14,7-9:** *Nahiz bizi nahiz hil, Jaunarenak gara. Sal 116:* *Jaunaren aurrean ibiliko naiz, bizien lurraldean.]*

Jesu Kristoren Ebanjelioa San Joanen liburutik 6,37-40:

Aldi hartan esan zien Jesusek: «Aitak niri ematen dizkidan guztiak nigana hurbilduko dira eta nigana hurbiltzen denik ez dut

inola ere kanpora botako, ez bainaiz zerutik jaitsi neure nahia egitera, bidali nauenaren nahia egitera baizik.

Eta hauxe da bidali nauenaren nahia: berak eman dizkidan guztietatik, ez dezadala bat ere galdu, baizik eta piztu ditzadala azken egunean. Hauxe da nire Aitak nahi duena: Semea ikus eta harengan sinets dezanak betiko bizia izan dezala, eta neuk piztuko dut azken egunean».

Bizitzan eta heriotzan Jaunarenak gara, diosku San Paulok. Jesu Kristorenak izatea, berme bat da bizitza honetarako eta besterako. Jesuitaren ideala, kristau ororena bezala, «Jesusen jende» artekoa izatea da, haren jarraitzaileetakoa izatea. Gogo Jardunetan, behin eta berriz errepikatzen den eskaria da: eman diezagula Kristorekin osoenik identifikatzea eta aukera gaitzala beraren hurbilenetakoak izatea. Horregatik, seguru gaude lagun izango gaituela zeruko erreinuan ere. Ez da ustekeria, haren Bihotzean konfiantza izatea da.

Urteko 31. astea.

San Florentzio Irlandakoa, *gotzaina*.

[Paulo apostoluak Erromatarrei 16,3-9.16.22-27: *Agur egiozue elkarri, musu santua emanaz. Sal 144: Ene Jainko, ene Errege, be-deinkatuko dut zure izena beti.*]

† Jesu Kristoren Ebanjelioa San Lukasen liburutik 16,9-15.

Aldi hartan, Jesusek esan zien ikasleei: «Egitzazue adiskideak okerreko dirutik, dirurik gabe aurkitzen zaretenean, Jainkoak betiko etxean har zaitzaten. Gauza txikienetan leiala dena handian ere leiala da; txikienean zintzoa ez dena handian ere ez. Beraz, okerreko diruarekin leial izan ez bazarete, nork utzi zuen esku egiazko ondasunak? Eta besterenarekin ez bazarete leial izan, nork eman zuei zeuenak?

Ez daiteke zerbitzari bat bi nagusiren morroi izan. Izan ere, bata gorroto izango du, eta bestea maiteko, edota bati leial izango zaio, eta bestea ez du aintzat hartuko. Ezin zarete izan Jainkoaren eta diruaren morroi». Entzun zituzten gauza hauek fariseu dirugose batzuek, eta barre egin zioten. Jesusek esan zien: «Zeuen burua errugabe egiten duzue jendearen aurrean; baina Jainkoak ondo ezagutzen du zuen bihotza, eta zeuen burua gizakien aurrean handi egite horrek nazka ematen dio Jainkoari».

Mami handikoa da Jesusen galdera: diruagatik zeure burua saltzen baduzu, fidagarria izango al zara gainerako gauzetan? Konpromiso bat hartzeko orduan, erantzukizun bat hartzeko orduan, zer konfiantza merezi duzu? Zeure bizia irabaziaren eta probetxuarien mendeko egiten baduzu, ez esan Jesusen Jainkoagan, pobreen Jainkoagan sinesten duzula. Kristok azpimarratzen duen bezala, ezin izan zara bi nagusiren zerbitzari.

Fariseuek barre degiote Jesusi, diru-gosea kritikatzan duenean. Jesusek, berriz, erantzun gisa, esapide zorrotzaz gaitzetsi ditu: «Jainkoak gorroto du besteen kontrako harrokeria». Hantustea, mespretxua, gainerakoak barregarri uztea: Jainkoak ezin jasan ditu.

§ 1 Erregeak liburutik 17,10-16.

Egun haietan, jaiki zen Elias, eta Sarepta-ra joan zen. Hiriko atetara iritsi zenean, emakume alargun bat zebilen han, zotzak biltzen; Elias-ek deitu eta esan zion: «Ekatzu ontzian ur pixka bat edateko». Eta bila zihoala, atzetik oihu egin zion: «Ekatzu ogi-zati bat ere eskuan». Hark erantzun: «Hala Jauna, zure Jaungoikoa! Ez dut ogirik; eskutada bat irin besterik ez daukat katilu batean, eta olio pixka bat olio-ontzian; hain zuzen, oraintxe nindoan zotzak biltzera, niretzat eta neure semearentzat opila egiteko; hura jan, eta hil gaitzen». Eliasek esan zion: «Ez izan beldurrik; joan eta egizu esan duzuna; baina egizu lehenbizi niretzat sutopil txiki bat, eta ekariezadazu; zeuretzat eta zeure semearentzat gero egingo duzu. Hau baitio Jaunak, Israelgo Jaungoikoak: «Irinik ez da ahituko katiluan, ezta agortuko ere oliorik olio-ontzian, Jaunak lur gainera euria bidaliko duen eguna arte». Joan zen emakumea eta egin zuen Eliasek esana, eta jan zuten Eliasek eta ama-semeek, eta harez gero ez zen irinik ahitu katiluan, ezta oliorik ere agortu olio-ontzian, Eliasen ahoz Jaunak esan zuen bezala.

[Sal 145: *Goretsazu Jauna, ene barnea.*]

§ Hebrearrei egindako gutunetik 9,24-28.

Kristo ez zen sartu, giza eskuz egindako Santutegi batean – egiazkoaren antzera egindakoan –, baizik zeruan bertan, orain gure alde Jaungoikoaren aurrean bitarteko dugularik. Eta ez du bere burua askotan eskaintzen, apaiz nagusia besteren odolarekin santutegian urtero sartzan zen bezala; horretarako askotan hil beharko zuen, munduaren hasieratik; baina, orain, garaiak bete direnean, behin bakarrik agertu da, bere burua opari emanaz, be-

Urteko 32. astea.

San Godofredo Amienskoa, *gotzaina*.

katua ezerezteko. Eta gizon-emakumeentzat behin bakarrik hiltzea erabakia dagoen bezala eta gero auzia, era berean Kristok, askoren bekatuak kentzeko, behin bakarrik eman zuen bere burua opari; bigarren aldiz, bekatuarekin zerikusirik gabe agertuko zaie beraren zain daudenei, haiek salbatzeko.

† Jesu Kristoren Ebanjelioa San Markosen liburutik [12,38-44](#).

Aldi hartan, Jesusek, irakasten ari zela, esaten zien jendetaldeei: «Kontuz ibili lege-maisuekin! Jantzi ederrez ibili nahi izaten dute; enparantzetako agurrak, sinagogetan lehenengo aulkiak, eta afarietan lehenengo jarlekuak nahi izaten dituzte, eta, otoitz luzeren aitzakian, alargunen ondasunak irensten dituzte. Horrelakoen epaia zorrotzagoa izango da». Dirutegiko atabaka aurrean eseri eta Jesus jendeari begira zegoen, atabakara txanponak nola botatzen zituzten. Aberats askok ugari botatzen zuen. Etorri zen alargun behartsu bat, eta txanpon bi bota zituen. Ikasleei deitu eta esan zien: «Benetan diotsuet: alargun gaixo honek atabakan botatzen duten beste guztiak baino gehiago bota du. Beste guztiak gehiegi dutenetik eman baitute; honek, ordea, beharrezko zuenetik, bizitzeko zeukan guztia eman du».

Batzuei kostatu egiten zaie sobera dutena bera ere ematea. Bel-durra diote eskuzabalegi sentitzeari, eta xuhur izaten dira limosna egiten. Ondasun materialetan igeri dabiltzanei ez zaie burura etortzen ere berena omen dutena partekatzea: beren ahaleginaz edo asmame-naz omen dute lortu. Gehienara ere, jendaurreko arazoetan saiatzen dira eskuzabal agertzen: jendeak ikus dezan digitu ugariko txekeak egiten dituztela arazo handien mesedetan. Ongintzako egintzak babesten dituzte, zerga gutxiago ordaintzeko baliabide diren funda-

zioen bidez. Filantropo bezala ageri ohi dira horrela, eta ez plutokrata bezala.

Norberak behar duenetik ematea, zerbaiti uko egitea, beste baten gozamenerako: horixe da benetako karitatea, esan du Jaunak emakume alargun pobrea goratu duenean. Une batez norberaren bizipenean eta segurtasunean ez pentsatzea da karitatea, eta neurearen aurretik bestearena jartzea. Lagun hurkoari opa ez diodan gabezia neuk jasatea da. Gai ote naiz horretaraino? Ez al deritzot zorakeria hutsa? Hitz egizu Jesusekin horretaz, argi eta garbi.

Urteko 32. astea.

Letrango Eliza Sagaratzea.

[Ezekiel 47,1-2.8-9.12: *Ura ikusi nuen jauretzetik ateratzen, eta ur hori iritsi zitzaien guztiak, salbatu egin ziren. Sal 45: Ibai-besangek alaitzen dute Jainkoaren hiria, Goi-goikoaren bizileku guztiz santua. 1. Korintoarrei 3,9c.11.16-17: Jaungoikoaren etxe zarete.]*

† Jesu Kristoren Ebanjelioa San Joanen liburutik 2,13-22.

Aldi hartan, juduen Pazkoa hurbil zen, eta Jesus Jerusalemera igo zen. Jauretxean idi, ardi eta uso-saltzaileak aurkitu zituen, eta diru-tratulariak eserita. Zigor bat lokarriz egin eta jauretzetik bota zituen denak, ardi eta idiekin, diruak sakabanatuz eta mahaiak irauliz. Eta uso-saltzaileei esan zien: «Ken horiek hortik! Ez bihurtu azoka-etxe nire Aitaren etxea». Eta ikasleak, idatzirik dagoenaz gogoratu ziren: «Zure etxearekiko maiteminak jango nau». Orduan, juduek tartean sartu eta esan zioten: «Zer ezaugarri ematen diguzu, hori egiteko?» Eta Jesusek: «Xehatu ezazue jauretze hau, eta hiru egun barru jasoko dut». Juduek erantzun zioten: «Berrogeita sei urte behar izan ziren jauretze hau egiteko, eta zuk hiru egunean jaso?» Baina Jesusek bere gorputzaren jauretzea esan nahi zien. Hildakoen artetik berpiztu zenean, gogoratu ziren ikasleak honetaz, eta sinetsi zuten Liburu Santuak eta Jesusek esandako hitza.

Eliza batzuen sagarapenaren oroitzapena egin ohi dugu katolikook, dela halakoen berezitasunagatik (elizbarruti bakoitze-ko katedrala), dela halakoen esanahiagatik (Erromako basilikak; gaurkoa kasu). Aldi berean, ordea, gogorarazten digu, eraikin sagaratu horiek ez direla leku magikoak, baizik eta, bere fedea ospatzeko, batzarrak erabiltzen dituen batzar-leku direla. Argi asko dio hori gaurko bigarren irakurgaiak: «Jainkoaren tenplu zarete zuek».

Jainkoaren etxe izan zen Maria, bere sabelean Jesus onartu zue-
nean. Gu, berriz, jaunartzen dugun bakoitzean gara Jainkoaren etxe,
eta beti, Jainkoaren grazian bizi bagara, Espiritu Santuaren bizileku
baikara orduan. Emaiozu zeure buruari goi-goiko Jainkoaren ten-
pluak merezi duen tratua.

Urteko 32. astea.

San Leon Handia, 45. *aita santua eta eliz irakaslea.*San Andres Avelino, *apaiza.*

[Jakinduria liburutik 2,23–3-9: Zoroen begietan hilak zirela ematen zuten; egiaz, ordea, bakean dira. Sal 33: Bedeinka dezadan aldi oro Jauna.]

† Jesu Kristoren Ebanjelioa San Lukasen liburutik 17,7-10.

Aldi hartan, Jaunak esan zuen: «Egin dezagun, zuen morroia goldean edota artzaintzan ari dela; landatik etxera etortzean, nork esango dio: “Zatoz eta jar zaitetz berehala mahaian”? Ez ote dio beste hau esango: “Presta iezadazu afaria, jantzi gerrikoa eta zerbitza nazazu, nik jan eta edan arte; gero jango duzu eta edango zeuk”? Nagusiak zor al dio eskerrik morroiari agindu zaiona egin duelako? Gauza bera zuek ere; agindutako guztia egiten duzue-nean, esazue: “Morroi hutsalak gara; egin behar genuena egin dugu”».

Egizu ongia, izan zaitetz eskuzabal besteekin, izan zaitetz zerbitzari eta egon prest premian denari eskua luzatzeko. Baina ez egin, eskerrak eman diezazkizuten, zeure izena hobetzeko, besteek pertsona on eta arduratsutzat har zaitzaten. Dena begi-bistan duen Jainkoak eskertuko dizu. Baina ez ibili jendearen onespen edo txaloren bila, ez zuzenean, ez zeharka. Bestela, lagun hurkoari egindako mesedea edo zerbitzua izango da zure egintza, bai, baina ez zaitu aberastuko, zeure izena edo irudia hobetzeko egin baituzu.

[Jakinduria liburutik 6,2-12: *Entzun, erregeok, jakinduria ikas dezazuen. Sal 81: Jaiki, Jainkoa, lurra epaitzera.*]

† Jesu Kristoren Ebanjelioa San Lukasen liburutik 17,11-19.

Aldi hartan, Jesus Jerusalemera bidean zihoan, Samarian eta Galilean barna. Herrixka batean sartzerakoan, hamar legenardun atera zitzaizkion bidera eta, urruti gelditurik, deiadarka esaten zioten: «Jesus, Maisu, erruki zakizkigu!» Jesusek ikusi eta esan zien: «Zoazte, eta agertu apaizengana». Bidean zihoazela, garbi gelditu ziren. Haietako bat, bere burua sendaturik ikusi zuenean, itzuli zen, oihu handiz Jainkoa goستن zuela, eta Jesusen oinetan ahuspeztu eta eskerrak eman zizkion. Eta hau samariarra zen. Jesusek esan zuen: «Ez al dira hamarrak garbi gelditu? Non dira beste bederatzia? Ez al da izan atzerritar hau besterik, itzuli eta Jainkoa goratzeko?» Eta sendatuari esan zion: «Jaiki zaitez, eta zoaz. Zeure sinesmenak sendatu zaitu».

Esker ona ez du berezkoa pertsonak. Haur-ninia, guztiek beraren jiran bizi behar dutela uste izanez jaio ohi da: berari jaten emateko, bera garbitzeko edota nahi duenean lo egiten uzteko. Esker ona erakutsi egin behar izaten da, eta landu. Sarritan praktikatu ezean, pertsonak galdu egiten du bere ikusmiratik dena Jainkoaren eta besteen dohain dela. Jainkoari eta besteei askotan eman behar zaizkie eskerrak. Kasik gauza guztiengatik. Ez da ondo hezitako baten egin-tza bakarrik. Izatez, horixe da Jainkoagana garamatzan bide bakarra, jendeari begira bihotza irekitzen diguna. Izan zaitez esker oneko, baita neurri handiegian ere; ez zara sekula damutuko.

Urteko 32. astea.

San Josafat, *gotzaina eta martiria.*San Millan [Emiliano] Kukulakoa, *apaiza.*

[**Jakinduria liburutik 7,22–8,1:** *Betiko argiaren errainu distiratzai-lea da Jakinduria, eta Jainkoaren indarraren ispilu orbangabea. Sal 118: Betikoa da zure Hitza, Jauna.*]

† Jesu Kristoren Ebanjelioa San Lukasen liburutik 17,20-25.

Aldi hartan, fariseuek galdetu zioten Jesusi: «Noiz etorriko da Jainkoaren erreinua?» Jesusek erantzun zien: «Jainkoaren erreinua ez da etorriko aurrez ohartzeko eran; ez da esaterik izango: “Hona hemen”, edo “hara han”; zeuen barnean dago Jainkoaren erreinua!» Ikasleei, berriz, esan zien: «Etorriko da garaia, Gizonaren Semearekin egun bat bederen egin nahiko duzue, eta ezin izango duzue egin. Esango dizuete: “Hona hemen, hara han”. Ez joan, ez ibili haren bila. Tximistak zeru-alde batetik bestera argi egiten duen bezala, hala izango da Gizonaren Semea bere egunean. Baina lehenago neke asko ikusi behar ditu hark, gizaldi honen gaitzetsi egingo baitu».

Jesusek tentatzaileari nola uko egiten zion ikustean jakin genuen: tenpluaren teilatu-ertzetik bere burua botatzeko eskatu zion tentatzaileak, egintza miresgarri haren lekukoak Jainkoaren erreinurako irabazte aldera. Alabaina, Jainkoaren behin betiko garaipena ez da izango ondorio berezian jario handi bat, ezta zirku-festa bat ere. Isil-misilka iritsiko da eta publizitaterik gabe, Jesusen beraren erara, gizon-emakumeen bihotzean gauzatuko baita eta ez zeruko astroetan edota lurreko sumenditan. Ez egon kataklismorik edo gauza miresgarririk etorri zain. Ba al da gauza miresgarriagorik, harrizko bihotz bat haragizko bihurtua baino?

Urteko 32. astea.

San Estanislao Kotska, *erlijiosoa*.
San Leandro Sevillakoa, *gotzaina*.

[Jakinduria liburutik 13,1-9: *Izadia aztertzeke adina ikasi badeute, nolatan ez dute ezagutu lehenago izadiaren Jainkoa? Sal 18: Ortzia Jaunaren ospea du zabaltzen.*]

† Jesu Kristoren Ebanjelioa San Lukasen liburutik 17,26-37.

Aldi hartan, Jesusek esan zien ikasleei: «Noeren egunetan gertatu zena gertatuko da Gizonaren Semearen egunetan: jaten zuten eta edaten, eta ezkontzen ziren gizon-emakumeak, Noe kutxan sartu zen eguneraino; etorri zen uholdea eta guztiak galdu zituen. Gauza bera gertatu zen Loten egunetan ere: jan eta edan, erosi eta saldu, landareak sartu eta etxeak egin, ari ziren; baina Lot Sodomatik atera zen egunean, su eta sufre erauntsia jaitsi zen zerutik, eta guztiak galdu zituen. Horrela izango da Gizonaren Semea agertuko den egunean. Egun hartan etxe gainean dagoena, bere tresnak etxean dituela, ez bedi jaitsi etxean dauzkanak hartzera; halaber soroan ari dena, ez bedi atzera itzuli. Gogoan izan Loten emaztea. Bere bizia salbatu nahiz dabilenak galduko du, eta galtzen duenak berriro aurkituko. Nik diotsuet: gau hartan bi lagun egongo dira ohe berean: bata hartua izango da, eta bestea utzia; bi emakume elkarrekin ariko dira errotarrian: bata hartua izango da, eta bestea utzia». Ikasleek esan zioten: «Non, Jauna?» Eta Jesusek erantzun: «Gorputza non, arranoak hara bilduko dira».

Ikasleek uste zuten, Jesusen hitz hauek denbora asko baino lehen gauzatuko zirela. Horregatik, Jainkoaren halako auzi hura non gertatuko den jakin-mina dute. Era misteriozkoan erantzun die Jesussek; dena den, ebanjelioaren entzuleek Erroman gertatuko zela uste izango zuten, bekatuaren eta nahasmenduaren egoitzatzat baitzuten hura. Sodoma eta Gomorra bezala, etsenpluzkoa izango zen zigor baten hartzaile bihurtuko zela uste zuten.

Jauna, ez eman guri geure bekatuek merezi duten trataturik, baizik har ezazu neurritzat zeure onberatasuna. Zugan dut, ene Jainko, neure konfiantza.

Urteko 32. astea.

San Jose Pignatelli, *erlijioa (Jesusen Lagundia berrezarri zuena)*.

[Jakinduria liburutik 18,14-16; 19,6-9: *Bide zabala azaldu zen Itsaso Gorrian, eta, arkumeak bezala, saltoka zebilen han jendea. Sal 104: Ekarri gogora Jaunak egin dituen gauza mirezgarriak.*]

† Jesu Kristoren Ebanjelioa San Lukasen liburutik 18,1-8.

Aldi hartan, Jesusek parabola hau esan zien ikasleei, beti otoitz egin behar dela, eta ez dela etsi behar adierazteko: «Bazen herri batean epaile bat; ez zuen ez Jainkoaren beldurrik, ez gizon-emakumeen begirunerik. Herri hartan bertan bazen emakume alargun bat ere, eta han joaten zitzaion, esanez: “Egidazu zuzenbide nire etsaiaren aurka”. Eta luzaroan ez zion kasurik egin nahi izan. Baina gero, esan zuen berekiko: “Ez dut ez Jainkoaren beldurrik, ez gizon-emakumeen begirunerik; baina alargun hau aspergarri zait, eta egingo diot zuzenbide, azkenean begi-ondoko bat eman ez diezadan”». Jaunak esan zuen gainera: «Begira zer dioen epaile okerrak. Eta Jainkoak ez al die zuzenbide egingo gau eta egun otoitzean ari zaizkion bere aukeratuei? Luzapena emango al die? Hara nik esan: berandu gabe egingo die zuzenbide; baina Gizonaren Semeak, etorriko denean, aurkituko ote du horrelako sinesmenik lurrean?»

Emakume alargunak ez du etsi nahi, ez du amore eman nahi injustiziaren aurrean, eta epailearen ondoren dabil kalez kale eta plazaz plaza, hark behin eta berriz ukatzen dion epaiaren bila. «Eskratxe» bat ezarri dio emakumeak epaileari, jendaurreko eraso bat, zapaldu dioten eskubide bat lortzeko. Garai eta kultura hartarako, bidegabekeria baten aurka jaiki den heroina da. Epaileak, asperturik eta eskandalu baten beldur, amore eman behar izan du, eta zuzenbidea aitortu dio. Jainkoak, jakina, ez du epaile saldu honen inolako antzik. Ez ote die aitortuko zuzenbidea mundu honetako pobreentzat –hitzez eta egitez– zuzenbidea lehiakor eskatzen diotenei?

§ Danielen liburutik 12,1-3.

Egun haietan, ni, Daniel, negarrez nengoen, eta hitz hau aditu nuen Jaunagandik: «Egun haietan, jaikiko da Mikel goi-aingerua, zure herriko semeen zaintzailea. Larrialdi handia izango da, herriak izaten hasi zirenetik parekorik gabekoa. Baina, aldi hartan salbatuko da zure herria; liburuan idatziak dauden guztiak. Lurreko hautsean lo dauden asko esnatuko dira; batzuk betiko bizirako, besteak betiko lotsarako. Ortziaren distiraz distiratuko dute jakintsuek, eta askori zuzenbidea irakatsi ziotenek izarrek bezala argi egingo beti, gizaldiz gizaldi».

Sal 15: *Zaindu nazazu, Jauna, babes bila bainator zugana.]*

§ Hebrearrei egindako gutunetik 10,11-14.18.

Senideok: Beste apaiz guztiak, egunero ari dira beren apaizlanean, opari berak askotan eskaintzen, opari hauek bekatu rik inola kendu ezin dutelako. Kristo, ordea, bekatuengatik opari bakar bat eskaini eta gero, Jaungoikoaren eskuinaldean jarri zen behin betiko, eta itxoitzen dago, «bere etsaiak bere oinpeko eduki ditzen arte». Opari bakar baten bidez, santutasun betea ekarri die behin betiko santu egindakoei. Barkamena dagoenean, ez dago bekatuengatik opari-eskaintzarik.

† Jesu Kristoren Ebanjelioa San Markosen liburutik 13,24-32.

Aldi hartan, Jesusek esan zien ikasleei: «Egun haietan, larrialdiaren ondoren, eguzkia ilunduko da, eta ilargiak ez du argirik emango, izarrak zerutik eroriko dira, eta zeruetan diren indarrek dar-dar egingo dute. Orduan ikusiko dute Gizonaren Semea indartsu eta aintza handian etortzen hodei artean; bidaliko ditu bere aingeruak, eta lau haizeetatik bilduko bere aukeratuak, lurraren

Urteko 33. astea.

San Alberto Handia, *gotzaina eta eliz irakaslea.*

ertz batetik besteraino. Ikas ezazue pikondoaren parabolatik: adarrak samurtu eta hostoak lehertzen zaizkionean, badakizue uda laster dela. Gauza bera zuek ere: gauza hauek gertatzen ikusitakoan, jakizue gainean dela, ateetan.

Hara nik egia esan: Gizaldi hau ez da igaroko, hori guztia gertatu gabe. Zeru-lurrak igaroko dira; nire hitzak, ordea, ez dira igaroko. Egun eta ordu haien berririk ez du inork, ez aingeruek zeruan, ez Semeak, Aitak baizik».

Gaztelaniazko kantu herrikoi batek Jesusen esapide hau darabil lematzat: «Zerua eta lurra igaroko dira, nire hitzak ez dira igaroko». Ebanjelioa galkorra ez den konbentzimendua da: mundu hau eta historia hau baino harago iraungo du. Belaunaldiak badoaz eta fededunen kopurua ez da jaisten; hain juxtu, erreforma soziala baino, ongizate materiala baino, aintza iheskorra edo botere iheskorra baino hobea delako Berri Onak dakarren esperantza.

Ikusia dugu duela gutxi. Sobietar Errepublika Sozialisten Bata-suna-k (SESB) eta berari atxikitako estatuek guztiz egonkor zirela ematen zuten, irauteko moldatuak zirela. Baina, murru bat pitzatu zen Berlinen eta, dominoko fitxak bezala, lur jo zuen, odol eta su, ezarria zuten eta gizaki berri bat eta gizarte berri egin nahi izan zituen inperio hark. Handik laster egin zioten uko guztiek ametsezko nahikari hari.

Jesusen hitzek zutik jarraitzen dute eta esperantza dakarkigute, gozamena, ilusioa eta zentzu bat geure bizitzarako. Jainkoak maite eta adiskide gaituen sentimena dugu, berarekin, beragatik eta beragan sekula guztian bizitzeko deituak garen sentimena. Haren hitzak, benetan, ez dira igarotzen.

Santa Gertrudis, *birjina*. Santa Margarita Eskoziakoa, *erregina*. Roke Gonzalez, Alonso Rodriguez eta Juan del Castillo santuak, *apaizak eta martiriak*.

[1 Makabearrak 1,11-16.43-45.57-60.65-67: *Israelen gainera haserre ikaragarria etorri zen. Sal 118: Gorde nazazu bizirik, Jauna, eta gordeko ditut zure arauak..]*

† Jesu Kristoren Ebanjelioa San Lukasen liburutik 18,35-43.

Aldi hartan, Jesus Jerikora hurbildu zenean, itsu bat zegoen bide-ertzean, eserita, eskean. Jendetza igarotzen sumatu zuenean, zer zen galdetu zuen. Eta esan zioten: «Nazareteko Jesus doa». Itsuak, orduan, deiadar egin zion: «Jesus, Daviden Seme, erruki zakizkit!» Aurrean zihoazenek haserre egiten zioten isilarazteko. Hark, ordea, orduan eta deiadar handiagoa egiten zuen: «Daviden Seme, erruki zakizkit!» Gelditu zen Jesus, eta ekar ziezaiotela agindu zien. Hurreratu zenean, galdetu zion: «Zer nahi duzu nik zuri egitea?» Eta itsuak: «Jauna, ikus dezadala berriro!» Jesusek orduan: «Ikusazu, bada; zeure sinesteak sendatu zaitu». Berehala hasi zen ikusten, eta atzetik zihoakion, Jainkoa goretsiz. Eta herri guztiak ere, hori ikustean, goren zuen Jainkoa.

Jerikoko itsua fede zindo baten etsenplua da. Bere mugapenak gaintzeko gai da. Lehenik eta behin, bere itsutasuna gaintzeko gai. Bigarren, isiltzeko eta Maisua ez gogaitzeko eskatzen diotenen ahotsak gaintzeko gai. Aurpegia ikusi gabe ere, Mesiastzat (Daviden semetzat) aitortu du Jesus. Ondoren, Jauntzat (jainkozko titulua) hartuz dei egin dio, eskerrak eta aintza eman dizkio Jainkoari sendatu duelako, eta, dena alde batera utziz, Jesusekin doa bidelagun. Itsu eskale honek aurrea hartu die ikasleei fedean eta zirt eta zart egiten; izan ere, ikasleak nag-i-alfer zebiltzan Jesusen Jerusalemeko igoera atzeratu nahiz.

Urteko 33. astea.

Santa Elisabet Hungariakoa, *alarguna*.

[2. Makabearrak 6,18-31: *Jarraibide ederra utziko diet, horiek ere gure Legeagatik bizia gogatsu ematen ikas dezaten. Sal 3: Jauna dut nik euskarri.*]

† Jesu Kristoren Ebanjelioa San Lukasen liburutik 19,1-10.

Aldi hartan, sartu zen Jesus Jerikon, eta herrian barna zihoan. Bazen han Zakeo izeneko gizon bat, zerga-biltzaileen buru zena, eta aberatsa. Han zebilen, Jesus zein ote zen nola ikusiko; baina ezin zuen, jendetza handia baitzen; bera, berriz, txikia; eta, lasterka joanda, basapiku baten gainera igo zen, Jesus ikusteko, handik igaro behar baitzuen. Jesusek, toki hartara hurbildu zenean, begiak jaso eta esan zion: «Zakeo, jaitsi zaitez agudo, gaur zure etxean gelditu behar dut eta». Zakeo berehala jaitsi zen, eta oso pozik hartu zuen bere etxean. Eta ikusi zuten guztiak marmarka hasi ziren, gizon bekatari baten etxean sartu zelako. Zakeok, ordea, zutik jarri eta esan zion Jaunari: «Jauna, nire ondasunen erdiak behartsuentzat emango ditut, eta inori bidegabek ezker kendu badiot, lau halako bihurtuko diot». Jesusek esan zion: «Gaur salbamena sartu da etxe honetan; hau ere Abrahamen seme baita. Izan ere, Gizonaren Semea, galdua zegoena bilatzera eta salbatzera etorri da».

Hain aberatsa zelarik ere, ezin ikusi zuen Jesus Zakeok. Bere lotsa gairitu eta pikondo batera igo zen, ume koxkor bat bezala. Aski izan zen keinu hau, Jesusek bere izenaz dei egin eta bere gogo adierazteko: «Zure etxean hartu nahi dut ostatu». Jerikoko jende onak ez zuen hartu gustura Jesusen ateraldia. «Begira zeinekin doan! Non jarri den ostatur!» Alabaina, Zakeo bihotz-berritu egin da. Aski du Jesusen mahaian esertzea, bere bizitzari guztizko itzulia emateko. Galdua zegoenaren bila etorri da Jainkoa, salbatzeko... Esan nahi baita, nire bila, ni salbatzera etorri dela.

[2. Makabearrak 7,1.20-31: *Munduaren egileak itzuliko dizkizue arnasa eta bizia. Sal 16: Esnatzean zure aurpegiak naiz aseko, Jauna.*]

† Jesu Kristoren Ebanjelioa San Lukasen liburutik 19,11-28.

Aldi hartan, Jesusek, Jerusalemetik hurbil zegoelako eta entzuleek Jainkoaren erreinua laster agertuko zela uste zutelako, parabola hau esan zien: «Gizon handiki bat urrutiko lurralde batera joan zen, hango erreinuaren jabe egitera, gero itzultzeko. Bere hamar morroiei dei eginik, ontzako urre bana eman, eta esan zien: “Ekin irabazian ni etorri arte”. Herritarrek, ordea, begitan harturik zeukaten, eta mandatariak bidali zituzten beraren ondoren, esatera: “Ez dugu nahi hori gure errege”.

Erreinuaren jabe eginda itzuli zenean, deiarazi zituen dirua eman zien morroi haiek, bakoitzak zenbat irabazi zuen jakiteko. Etorri zen lehenengoa, eta esan zuen: “Jauna, zure ontzakoak hamar ontzako eman ditu”. Hark esan zion: “Ederki morroi zintzo! Gutxian zintzo agertu zarela, hamar hiriren agintea izango duzu”. Bigarrenak etorri eta esan zuen: “Jauna, zure ontzakoak bost ontzako eman ditu”. Eta honi ere esan zion: “Zuk ere bost hiriren agintea izango duzu”. Besteak etorri eta esan zion: “Jauna, hona hemen zure ontzakoak; zapian bildua eduki dut. Izan ere, beldur nintzen, gizon zorrotza baitzara; jarri ez duzuna jasotzen duzu, eta erein ez duzuna igitatzen”. Esan zion honi: “Morroi gaizto! Zeure ahotik galtzen zaitut. Bazenekien gizon zorrotza naizela, jarri gabetik jasotzen eta erein gabetik igitatzen dudala. Zergatik ez duzu, bada, diru-etxean jarri nire dirua, itzultitakoan irabaziekin jaso nezan?” Eta han zeudenei esan zien: “Ken iezaiozue ontzakoak, eta eman hamar dituenari”. Haiek esan zioten: “Jauna, lehen ere baditu hamar ontzako”. Hara nik esan: “Duenari emango zaio; ez duenari, berriz,

Urteko 33. astea.

San Pedroren eta San Pauloren elizak sagaratzea.
San Odon, *abadea*.

duen hura ere kenduko. Eta erregetzat nahi ez ninduten etsaiak eka-
rri hona eta hil itzazue nire aurrean”». Hitz hauek esanda, Jerusale-
meko bidean gora abiatu zen Jesus, denen aurretik.

Jesusek baretu du ikasleen jakin-mina; uste zuten berehalako
batean ekingo ziola mundua aldatzeari. Parabolako handikia, dirua
banatu ondoren, urrunera doa aldi baterako; menpekoei eskatu die,
egin dezatela tratu utzi dienarekin eta atera diezaiotela etekin on bat.
Itzuli denean, jada errege bezala, kargu hartu die zerbitzariei. Eta
gaitzetsi egiten ditu, bai bere etsaiak (bera errege izatearen kontra
agertu direnak), bai dirua etekinik gabe itzuli diona. Ebanjelariak dio,
Jesus, parabolaren segidan, Jerusalem aldera abiatu dela, bere taldea-
ren buru. Ez al dago argi?

**

FEREKA NAZAZUN

(*R. Tagore*)

Zugana nator, fereka nazazun
eguna hasi aurretik.
Zure begiak ezar daitezen
une batez nireen gainean.
Neure lanera joan nadin
jakinik lagun dudala, ene Adiskidea.
Ipin ezazu zeure musika nigan
zarataren basamortua zeharkatzen dudan bitartean!
Zure Maitasunaren distirak
musukatu ditzala nire pentsamenduen gailurrak
eta geldi dadila biziaren ibarrean,
han baita umotzen uzta.

Urteko 33. astea.

San Abdias, profeta.

San Agapito, martiria.

[1. Makabearrak 2,15-29: *Geure gurasoen ituna gordeko dugu.*
Sal 49: *Zuzen dabilenari diot Jainkoaren salbamera erakusten.*]

† Jesu Kristoren Ebanjelioa San Lukasen liburutik 19,41-44.

Aldi hartan, Jesus, Jerusalemera hurbildu eta hiria ikustean, negarrez hasi zen, eta esan zuen: «Zuk ere antzemango bazenio egun honetan bakerako bideari! Baina ez; ezkutuan dago zure begientzat. Etorriko zaizkizu egunak: lubakiz hesituko zaituzte etsaiek, erdian hartu eta estutuko zaituzte alde guztietatik, lurra-
ren kontra joka garbituko zaituzte zeu eta zure barruan bizi diren zure umeak, ez dizute harririk harri gainean utziko. Ez baitzuenen ezagutu nire etorreraren eguna».

Jesusek negar dagi Jerusalemez. Bere herriko semea zen, israel-darra; beraz, Tenplua eta haren egoitza zen hiri santua beneratzen zituen, Jainkoarekiko kultuaren leku berezi zelako, nahiz eta berak esana izan Aita «espirituz eta egiaz behar dela adoratu». Bere herri-
deen zoriaz du negar egiten, inolako begiramenik gabe erromatarrek gauzatuko duten hondamen basatiagatik. Hunkitu egin da, sufritzen duenagatik beti egin ohi duen bezala, sufritzen duena bekataria izan nahiz berari muzin egiten diona izan.

Jauna, egin dezadala nik, zurekin eta besteekin, baketuko nauen hura, ez dezadala negar egin beharrik izan neure erokeriengatik eta okerregatik.

Urteko 33. astea.

San Edmundo, *martiria*.

[1. Makabearrak 4,36-37.52-59: *Aldare berriaren sagaraztea ospatu zuten, eta poz handiz eskaini zuten erre-oparia. Salmoa: 1 Kronikak 29: Zure izen argitsua goresten dugu, Jauna.*]

† Jesu Kristoren Ebanjelioa San Lukasen liburutik 19,45-48.

Aldi hartan, Jesus jauretxean sarturik, han salerosketan ari zirenak botatzen hasi zen, esanez: «Idatzirik dago: “Nire etxea otoitz-etxe izango da”; zuek, ordea, lapur-zulo egin duzue». Eta egunero jauretxean irakasten ari ohi zen. Apaizburuak, lege-maisuak eta herriko zaharrak, ordea, hura erditik kendu nahiz zebil-tzan; baina ez zuten asmatzen zer egin; herri guztia zoraturik bai-tzegoen Jesusi entzuten.

Gure Eliza honek, bere historiako aldi batzuetan, gaitzespen bera merezi izango zuen: Tenplua gutxi batzuen probetxurako merka-tu bihurtu zutenei Jesusek agertu zien gaitzespen hura bera. Jabetza handiak, aberastasunak, boterea metatu zituen gure Eliza honek ere; diruaren truk salbazioa eskaintzeraino iritsi zen... Oraino ere, indar-rean dagoen gaitza da gure Eliza honetan. Bertan gora eta gora egi-tea aukeratu zuten batzuek; inork eta ezerk ez ditu geldiarazi. Lotsa ematen du pentsatzeak nolako miserian erori garen eta nolako mise-riari eman diogun ameto. Jainko Jauna, erruki zaitez gutaz; prostitui-tu egin dugu zure Eliza, ilundu egin dugu Ebanjelioaren argia, distira egin beharko zukeena gizon-emakumeak beregana erakartzeko.

[1. Makabearrak 6,1-13: *Jerusalemen egin nituen txarkeriengatik, atsekabe handiz noa hiltzera (Antioko erregea)*. Sal 9 A: *Poztuko naiz, Jauna, zure salbamenaz.*]

† Jesu Kristoren Ebanjelioa San Lukasen liburutik 20,27-40.

Aldi hartan, hurbildu ziren Jesusengana saduzear batzuk, berpizterik ez dela dioten horietakoak, eta galdetu zioten: «Maisu, Moisesek utzi zigun idatzirik: “Norbaiti anaia hiltzen bazaio seme-alabarik utzi gabe, har beza hildakoaren anaiak emazte hori, eta sor biezazkio ondorengoak bere anaiari”. Zazpi anaia ziren, bada. Ezkondu zen lehenengoa, eta seme- alabarik gabe hil zen; bigarrena eta hirugarrena alargunarekin ezkondu ziren, eta horrela zazpiak seme-alabarik gabe hil ziren. Azkenik, hil zen haien emaztea ere. Andre hori, hildakoen berpiztean, haietako zeinen emazte izango da? Zazpiek izan baitzuten emazte». Jesusek erantzun zien: «Mundu honetako gizon-emakumeak ezkontzen dira; baina beste munduan eta hildakoen berpiztean parte izatea mezezi dutenak ez dira ezkonduko; hil ere ezin hil dira, aingeruak bezala baitira, eta Jainkoaren seme-alaba, berpiztearen seme eta alaba direlako. Eta hildakoak berpizten direla, Moisesek berak adierazi zigun, sasiko hartan Jaunari, Abrahamen Jainko eta Isaaken Jainko eta Jakoberen Jainko deitzen zionean. Ez da, beraz, hildakoen Jainko, biziena baizik; harentzat bizirik baitaude guztiak». Orduan lege-maisu batzuek esan zuten: «Maisu, ederki mintzatu zara». Eta ez ziren ausartzen gehiago ezer galdetzen.

Jainkoarentzat denok gara bizidun. Pozgarria da jakitea, gurea ez dela hildakoen Jainkoa, baizik eta Bizia duela maite eta Bizia duela ematen. «Kentzen» digunean ere, hobeturik itzultzeko izaten

Urteko 33. astea.

Andre Maria [haurra] Tenpluan Aurkeztua.
San Gelasio 1.a, *aita santua*.

da. Arrazoi du Jesusek: Jainkoagan izango dugun geroko biziari lurreko begiez ez begiratzeko esan digu; joera baitugu uste izateko, berak hitzemandako bizi hura – biziki antsiatzen dugun hura– kategoria mugatu hutsez argitu litekeela. Ez dut zertan imajinatu nolakoa izango den bizi hura, zeren halako konfiantza dut Jainkoagan, non seguru bainago zoriontasun betea izango dudala. Jakina, ez merezi dudalako, baizik Kristok egin digulako hartarako bidea. Kristo da gure salbazioa.

Urteko 34. astea.
Jesu Kristo Jauna, diren guztien Erregea.
Santa Zezilia, birjina eta martiria.

§ Danielen liburutik 7,13-14.

Begira nengoela, gizonaren semea zirudien bat ikusi nuen, zeruetako hodeietan zetorrela. Gizon zaharrarengana hurbildu zen, eta haren aurrean aurkeztu. Agintaritza, ospea eta erregetza eman zitzaizkion, eta herri, herrialde eta hizkuntza guztiak zerbitzari zituen. Haren agintea, betiereko agintea da, inoiz ere amaituko ez dena, eta haren erregetzak ez du azkenik izango.

[Sal 92: *Errege da Jauna, jantzi da handikiro.*]

§ Apokalipsi liburutik 1,5-8.

Grazia zuei eta bakea, Jesu Kristo testigu zintzoaren izenean, hildakoen arteko lehen-semearen eta munduko erregeen nagusiaren izenean. Gu maite izan gaituenari eta, bere odolaz, gure bekatuetatik garbitu gaituenari, errege-leinu eta Jaungoiko bere Aitaren apaiz egin gaituenari: aintza eta agintea gizaldi eta gizaldietan. Amen. Begira, badator hodeietan; begi guztiek ikusiko dute, baita bera zulatu zutenek ere, eta harengatik negar egingo dute bular joka, lurreko herri guztiek. Bai. Amen. Hau dio Jainko Jaunak: ni naiz alfa eta omega; badena eta bazena eta badatorrena, ahalguztiduna.

† Jesu Kristoren Ebanjelioa San Joanen liburutik 18,33b-37.

Aldi hartan, Pilatok esan zion Jesusi: «Zu juduen errege al zara?» Jesusek erantzun: «Zeure kabuz galdetzen al didazu hori ala besteren batek esan dizu nitaz?» Pilatok: «Judua ote naiz, bada, ni? Zure herritarrek eta apaizburuek ekarri zaituzte nigana; zer egin duzu?» Jesusek: «Nire erregetza ez da mundu honetakoa. Mundu honetakoa izango balitz nire erregetza, nire zaintzaileek gogor egingo lukete ni juduen esku geldri ez nendin. Nire errege-

Urteko 34. astea.

Jesu Kristo Jauna, diren guztien Erregea.

Santa Zezilia, birjina eta martiria.

tza, ordea, ez da hemengoa». Pilatok: «Errege zara, beraz?» Jesussek erantzun zion: «Zeuk diozu: errege naiz. Horretarako jaioa naiz, eta horretarako etorria mundura: egiari aitormen egiteko. Egiarena denak entzuten du nire hitza».

Pilato eszeptiko bat zen. Ez zuen inolako usterik egiaz mintzo zitzaion Jesus ez. Dena den, hizkuntza honetaz baliatu da Jesus, bera errege dela baieztatzeko; ez duela erregetza horrek zerikusirik boterearekin eta ospearekin, baina bai gizakiaren eta kreaio osoaren azken egiarekin. Jesusen erregetzak maitasuna eta anai-arrebatasun orokorra du bere arma bakarra. Jainkoak familia bakar bat osa dezagun nahi du. Semea da Jesu Kristo; berari itsatsirik, Jainkoaren seme-alaba eta bere anai-arreba egiten gaitu.

Pilato ez dago gogoeta hauekin denbora galtzeko. Problema politiko bat du askatu beharrekoa, Erromaren kontra jaiki omen den galilear haren kontrako salaketa. Bost axola zaio beste guztia; ez zaio axola errugabe bat heriotzara galtzea ere, balizko gatazka baretzekotan.

Kristautasunaren mendeetan barna, errege bat izango balitz bezala irudikatu izan dute artistek Jesusen erregetza. Ezer desegokiagorik ez: zein arrazoi dute zetroak, munduaren esferak, koroak... «juduen errege» zigortu eta torturatu horrengan? Koroaren bat izatekotan, arantzazkoa. Gure hau, errege isekatua da. Hori al da adoratzeko duzuna? Horri al diozu jarraitzen?

San Klemente I.a, 4. aita-santua eta martiria.

San Kolunbano, abadea.

Miguel Agustin Pro dohatsua, apaiza eta martiria.

[Daniel 1,1-6.8-20: Ez zuen aurkitu Daniel, Ananias, Misael eta Azarias bezalakorik. Salmoa: Daniel 3: Bedeinkatua zu, Jauna, gure arbasoen Jainkoa.]

† Jesu Kristoren Ebanjelioa San Lukasen liburutik 21,1-4.

Aldi hartan, Jesusek, begiak altxatu eta aberats batzuk ikusi zituen dirua atabakara botatzen. Alargun behartsu bat ere ikusi zuen txanpon bi botatzen. Eta esan zuen: «Benetan diotsuet: alargun gaixo horrek beste guztiek baino gehiago bota du. Beste horiek gehiegi zutenetik eman baitute oparitako; alargun horrek, berriz, beharrezko zuenetik, bizitzeko zeukan guztia eman du».

Itun Zaharrean, era askotan eskatu ohi da umezurtzei eta alargunei laguntzeko. Beste behin, bere garaiko emakumeen ardura agertu du Jesusek; zehazki, emakume alargunen ardura. Naingoaren seme bakarra sendatu du, goratu egin du epaile zitalari jendaurrean temati gogor egiten dion alarguna eta, orain, Tenpluko diru-kutxan duentxoa eman duena. Eta Tenpluan otoitzean ari zen zerga-biltzaile bekataria onetsi duen bezala, orobat goratu du aberatsen gainetik emakume behartsu hau. Eskerrak, gure Jainkoa, mundua hankaz gora jartzeagatik, jende ahula eta txiki dena maite duzulako.

Urteko 34. astea.

San Andres Dung-Lac, apaiza, eta lagunak, martiriak.

[**Daniel 2,31-45:** *Errege horien garaian, erreinu bat ezarriko du zeruko Jainkoak: ez dute inoiz ere hondatuko; beste guztiak suntsituko ditu. Salmoa: Daniel 3,53: Goretzi eta ospatu gizaldietan.]*

† Jesu Kristoren Ebanjelioa San Lukasen liburutik 21,5-11.

Aldi hartan, norbaitzuek jauretxearen ederra goraipatzen zuten, harri ederrez eta eskaintza-gaiz apaindua ikusten zutelako. Orduan Jesusek esan zien: «Etorriko dira egunak zeinetan ikusten dituzuen hauetatik guztietatik ez baita harririk harri gainean geldituko; dena apurtuko dute». Haiak galdetu zioten: «Maisu, noiz gertatuko da hori? Zer izango da seinale hori gertatzera doala?» Jesusek erantzun zien: «Begira, ez zaitzatela inork lilura. Asko etorriko baitira nire izenean, “ni naiz” esaten, eta “laster da garaia”. Ez jarraitu horrelakoei. Borroka eta nahaspila-hotsak entzuten dituzuenen, ez ikaratu. Hauek gertatu behar dute lehendabizi; baina azkena ez da berehala izango». Esan zien gainera: «Herriak herrien aurka jaikiko dira, eta erreinuak erreinuen aurka; lurrikara izugarriak izango dira, baita izurriteak eta goseteak ere han eta hemen. Gauza beldurgarriak gertatuko dira eta ezaugarri handiak ikusiko zeruan».

Hainbat oharpen egin dizkigu Jaunak. Bata, ez gaitezela fida Jesusen izena erabili baina norberaren kaskoko doktrina defenditzen duenaz. Bestea, ez diezaiegula kasurik egin munduaren azkena etzitarako iragartzen duten aztiei. Hirugarrena, ez dezagula utzi izuak har gaitzan. Ikusiko dugu, bai, giza eskuz egindako izugarrikeriarik eta Naturak eragindako hondamendirik. Horietako ezer ez da Jesusen bigarren etorrera berehala izango den seinale. Hau da gauza argia: inperio batzuek lur jotzen dutela eta beste batzuk sortzen; alabaina, Jainkoaren erreinua haziz doa antzik ematen ez zaion moduan. Dena doa behera goiz edo berandu... Jainkoarena izan ezik.

[Daniel 5,1-6.13-14.16-17.23-28: *Giza esku baten hatzak agertu ziren idazten. Salmoa: Daniel 3,62: Eguzki eta ilargi, bedeinka ezazue Jauna.*]

† Jesu Kristoren Ebanjelioa San Lukasen liburutik 21,12-19.

Aldi hartan, Jesusek esan zien ikasleei: «Eskua erantsiko dizuete, erasoko, sinagogara eta kartzelara eramango, baita errege eta agintarien aurrera ere, nire izenagatik. Horiek guztiek nire testigu izateko aukera emango dizuete. Sartu ondo bihotzean, ez duzuela nola erantzungo burua hausten ibili beharrik. Nik emango baitizuet hizkera eta jakinduria, eta hizkera eta jakinduria horri ezin izango diote, ez erantzun, ez aurka egin zuen etsai guztiek. Gurasoek, senideek, ahaide eta adiskideek ere salatuko zaituzte, eta zuetako zenbait hilko zaituzte; guztiek gorroto izango zaituzte nire izenagatik, baina zuen buruko ile bat ere ez da galduko; zeuen iraupenez onik aterako duzue zeuen bizia».

Lehen kristau-elkarteek froga gogorra bizi behar izan zuten, Erromatar Inperioaren pean. Gerta ziren ezbehar guztien erantzukizuna egotzen zieten kristauei. Egiaz, ordea, Jesusen mezua zen, Estatu hari azpia jaten ari zitzaiona; izan ere, indarrean zirenak ez bezalako giza eta gizarte-harremanak aldarrikatzen zituen Jesusen mezuak. Tormentuak, hilketak, ondasunak kentzeak triskantza handia egin zuten kristauen artean. Alabaina, adore-ekintza handi bihurtu zen iraupena eta Jainkoarekiko konfiantza. Gaurko ebanjelioan ageri diren Jesusen hitz hauek izan dira, beti, kontsolamendu indar emaille, Erreinuaren auziagatik sufritu eta hil diren gure anai-arrebentzat. Har itzazu gogoan etsenplu horiek, Jaunari eskerrak emanaz.

Urteko 34. astea.

San Konrado, *gotzaina*.San Joan Berchmans, *erlijiosoa*.

[Daniel 6,11-27: Jainkoak bere aingerua bidali du, eta lehoien ahoa itxi. Salmoa: Daniel 3,64: Ihintz eta langar; bedeinka ezazue Jauna.]

† Jesu Kristoren Ebanjelioa San Lukasen liburutik 21,20-28.

Aldi hartan, Jesusek esan zien ikasleei: «Jerusalem gudarostez inguratua ikusiko duzuenean, jakin ezazue gainean duela bere hondamendia. Orduan, Judean daudenek ihes egin bezate mendietara; Jerusalem barnean daudenak bihoaz urruti, eta soroan direnak ez bitzez hirian sar. Zigor-egunak izango dira haiek, orduan beteko baita Liburu Santuan idatzirik dagoen guztia.

Dohakabeak egun haietan haurdun daudenak eta bularreko haurrak dituztenak! Estutasun gogorra izango baita lur honetan, eta haserre-zigorra herri honentzat. Ezpata-ahoz hilko dituzte eta nazio guztietara eramango gatibu; Jerusalem jentilek zapalduko dute, jentilentzat Jainkoak erabakitako garaia erabat bete arte.

Seinale handiak agertuko dira eguzkian, ilargian eta izarretan; lurlean, berriz, larri izango dira herriak, itsas orroaz eta olatuez izuturik. Eta munduari gainera datorkionaren ikaraz eta larriz, lur jota geldituko da jendea, ortzia dardarka ariko baita.

Orduan, *Gizonaren Semea hodei artean* ahalmen eta aintzaz berterik *etortzen* ikusiko dute. Hau guztia gertatzen hastean, izan bihotz eta altxatu burua, laster baituzue zeuen askapena».

Jainkoa beti presente da. Horregatik, gaurko ebanjelioko azken esaldia gure aldiko edozein eguni aplika dakioke. Jaiki zaitetz, beraz, zeure erorialditik, hondoratu nahi zaituen bekatutik, esperantza suntsitzen duen etsipenetik, zeure maitasuna izozten duen gogo-faltatik. Gora bihotza eta burua, ez ibili buru-makur, goibel edo apatiko; kanpora geroari, oraina ereden Jainkoari begiratzeko lotsa edo beldurra. Bota zeugandik urrun zurruntsen zaituen oro, poza zailtsen edo eragozten dizun guztia. Jaiki eta kanta alai. Atean duzu zeure askapena. Ireki ezazu!

[Daniel 7,2-17: Gizonaren semea zirudien bat ikusi nuen, zeruko hodeietan zetorrela. **Salmoa: Daniel: Goretsi eta ospatu gizardietan.**]

† Jesu Kristoren Ebanjelioa San Lukasen liburutik 21,29-33.

Jesusek irudi bat jarri zien: «Begira pikondoari edo beste edozein zuhaitzi: kimu berritzen hasi direla ikusi eta, besterik gabe, bada-kizue uda hurbil dela. Era berean, gauza horiek gertatzen ikustean, jakizue hurbil dela Jainkoaren erregetza.

Benetan diotsuet: Gizaldi honetakoak hil baino lehen gertatuko dira gauza guztiok.

Zeru-lurrak igaroko dira, baina nire hitzak ez dira bete gabe igaroko.

Askok dio: ez dut Jainkoa aurkitzen, neke zait haren aho-tsa entzutea, harekin aurrez aurre gertatzea. Baina ez, Jainkoa ez da absente; gertatzen da, ez dituzula zorrozten zeure zentzuak, etengabeko haren hurbiltasunean bera sumatzeko. Zeren Jainkoa zeure jira-biran dabil, zeugana hurbilduz, etengabe dei eta dei. Zer gertatzen den? Ez duzula aurkitzen eskale pobreagan, zure arreta bila dabilen adiskideagan, eguneroko zeure lanaren joan-etorrian pertsona maite batek samurtasunez eskaini nahi dizun keinuan. Musikan, ahotsen artean, airean, eurian edo dirdaitsu ageri den eguzkian. Ireki begiak eta begiratu...beste era batean, eta alde guztietan aurkituko duzu Jainko maitea.

Urteko 34. astea.Santa Teodora, *abadesa*.San Honesto Nîmeskoa, *apaiza*.

[**Daniel 7,15-27:** *Erregetza, aginpidea eta handitasuna Goi-goikoaren santuen herriari emango zaio. Salmoa: Daniel: Goretsi eta ospatu gizaldietan.*]

† Jesu Kristoren Ebanjelioa San Lukasen liburutik **21,34-36**.

Aldi hartan, Jesusek esan zien ikasleei: «Zabiltzate, bada, kontuz! Galdukeria, mozkorkeria eta bizitzako ardurak direla eta, ez bekizue gogo moteldu, egun hura ustekabeen gainera eror ez dakizuen, sarea bezala eroriko baita munduan bizi diren guztien gainera. Egon erne eta erregutu uneoro, gertatuko diren horiei guztiei ihes egiteko eta Gizonaren Semearen aurrean zutik irauteko kemena izan dezazuen».

Esna nazazu, Jauna, lo banago. Astindu nazazu nagiak bota ditzadan, beti bainabil alferrontzi lanerako. Nahiz hain ederra den gomendatu didazun egitekoa. Mundu zuzenago bat, anai-arreba artekoago bat, solidarioago bat egitea! Jendea gero eta gizakoia-go izan dadin, besteekiko irekiago, adiskidetzailleago, besteren eskubideentzat errespetu handiagoko, norberaren egitekoak betetzeko zaleago, gizadiaren joan-etorriez arduratsuago, injustizia eta abusu eta engainu ororen etsaiago. Neugandik behar dut hasi, neure burua behar dut jantzi, besteengana joan aurretik. Zure aurrean azti eta zutik nahi dut bizi!

Abendualdiko 1. astea.

San Zernin (Sazernin), *gotzaina eta martiria*.
Bernardo de Hoyos. *apaiza jesuita*.

§ Jeremias profetaren liburutik 33,14-16.

Jaunak dio: «Badator Israel herriari eta Juda herriari egin diedan promesa beteko dudan garaia. «Garai hartan, legezko ondorengoa ernearaziko diot Davidi: zuzenbidea eta justizia ezarriko ditu herrialdean. Garai hartan, Juda salbatua izango da, Jerusalem seguru biziko. «Jauna gure salbamera» emango diote izena».

[Salmoa 20: *Jauna, zugana jasotzen dut bihotza.*]

§ 1 Tesalonikarrei 3,12-4,2.

Senideok: Jaunak gero eta handiago egin dezala elkarrenganako eta guztienganako zuen maitasuna, guk zuei dizueguna handia den bezala. Sendo zaitzatela barrutik, Jesus gure Jauna bere santuekin agertuko den egunean santu eta akats gabe aurkez zaitezten gure Aita Jainkoaren aurrean.

Azkenik, senideok, otoi eta otoi, hau eskatzen dizuet Jesus Jau-naren izenean: Jainkoari atsegin emateko nola bizi guregandik ikasi zenutenez gero, saia zaitezte gero eta gehiago horrela bizitzen. Bada-kizue nolako irakaspenak eman genizkizuen Jaunaren izenean.

† Jesu Kristoren Ebanjelioa San Lukasen liburutik 21,25-28.34-36.

Aldi hartan, Jesusek esan zien ikasleei: «Seinale handiak ager-tuko dira eguzkian, ilargian eta izarretan; lurtean, berriz, larri izango dira herriak, itsas orroaz eta olatuez izuturik. Eta munduari gainera datorkionaren ikaraz eta larriz, lur jota geldituko da jendea, ortzia dardarka ariko baita.

Orduan, *Gizonaren Semea hodei artean* ahalmen eta aintzaz be-terik *etortzen* ikusiko dute. «Hau guztia gertatzen hastean, izan bi-hotz eta altxatu burua, laster baituzue zeuen askapena».

Abendualdiko 1. astea.San Zernin (Sazernin), *gotzaina eta martiria.*Bernardo de Hoyos. *apaiza jesuita.*

«Zabiltzate, bada, kontuz! Galdukeria, mozorkeria eta bizitzako ardurak direla eta, ez bekizue gogoia moteldu, egun hura ustekabean gainera eror ez dakizuen, sarea bezala eroriko baita munduan bizi diren guztien gainera. Egon erne eta erregutu uneoro, gertatuko diren horiei guztiei ihes egiteko eta Gizonaren Semearen aurrean zutik irauteko kemena izan dezazuen».

A bendualdia hasi dugu, zain eta esperantzaz bizitzeko aldia. Lau astez, Jesusen Jaiotzarako prestatuko gara. Gu salbatzera dator. Pozik onartuko dugu Berri On hau. Bizi gaitezen esna, harrera ona egiteko, atea zabal-zabalik, senargaiaren zain diren neskatak bezala. Lo hartzen badugu, kasurik egin gabe igaro daiteke Jauna edota kanpoan utz gaitzake.

Zain egote horrek, azken aldian Jesus itzuli zain egoteak bezala, ez du zerikusirik estutasunarekin, beldurrarekin, larriarekin; Jesusi uko egin diotenen –haren jarraitzaile direnak barne– jarrera dira horiek: irritsari, plazerari, eguneko nekeari menpera ditzaten utzi diete halakoek. Jesus fenomeno izugarri huez mintzo bada, ez da izan inor izutzeko, baizik gure iratzargailu izan daitezen, gure bizitza ahu-la dela eta ezin bizi garela geldo oroitarazteko.

Abendualdia azti bizitzeko garaia da, Jauna bilatzeari emanik bizitzeko garaia, ez bakarrik Andre Mariaren sabelean edo Betleemen, baita sufritzen ari den pertsona batengan ere, zuzengabekeria jasaten ari den eta gure laguntzaren premian den pertsonagan ere. Geure bihotzean jaioko da, gainerakoien premien bizileku bihurtzen badugu. Eguberri-kanta, orduan, geure barnean ariko da.

Abendualdiko 1. astea.
San Andres, apostolua.

[Paulo apostoluak erromatarrei 10,9-18: . *Esanetik dator sines-
 tea; mezua, berriz, Kristoren hitza da. Salmoa 18: Lur guztira za-
 baltzen da haien hotsa.*]

† Jesu Kristoren Ebanjelioa San Mateoren liburutik 4,18-22.

Aldi hartan, Jesusek, Galileako aintzira-bazterrean zehar zebile-
 la, bi anaia, Simon, Pedro deitua, eta Andres, ikusi zituen, sarea urera
 botatzen, arrantzaleak baitziren. Jesusek esan zien: «Zatozte nirekin
 eta giza arrantzale egingo zaituztet».

Haiek, besterik gabe, sareak utzi eta jarraitu egin zioten. Aurre-
 rago, beste bi anaia ikusi zituen, Santiago eta Joan, Zebedeoren se-
 meak, aitarekin ontzian sareak konpontzen. Eta dei egin zien. Haiek,
 ontzia eta aita utzirik, jarraitu egin zioten.

Atsekabe handia izango zuen Andresek, Jesusen hiru adiskide
 min haietako bat ez izateaz. Azken batean, Jesusek bi anaia-bikote
 hautatu zituen beraren jarraitzaile izateko. Lauretatik, bera bakarrik
 gelditu kanpoan. Ebanjelioan ageri diren beste ezaugarri batzuetatik,
 ez asko, atera dezakegu, arrantzale izateaz aparte, gizon onbera eta
 gogotsua izango zela Andres; Bataiatzailearen ikasleetakoa izan zela
 eta, Joanek iradokirik, Jesusen ondoren joatea erabaki zuela. Laure-
 tatik kanpo utzi izanagatik, inoiz kexurik agertu baldin bazuen, segu-
 ru egingo ziola Jesus Maisuak begiratu samur bat eta Andres pozik
 baino pozikago sentituko zela. Ezin egon gara guztiok lehen lerroan!

«Zutitu zaitetze eta jaso zeuen burua: gainean
duzue zeuen askatasuna»



AITA SANTUAREN ASMOAK

Orokorra: Guztiok esperimenta dezagun Jainkoaren errukia; ez da aspertzen inoiz ere barkatzen.

Ebanjelizazioaren alde: Familiek, sufritzen ari direnek bereziki, Jesusen jaiotzan esperantza seguru baten seinalea suma dezaten.

ABENDUA / GABONILA

San Leontzio, *gotzaina*.Edmundo Campion, Roberto Southwell, *apaizak*, eta lagunak, *martiriak*.

[Isaias 11, 1-10: *Haren gainean Jaunaren espiritua kokatuko da. Sal 71: Zuzentasuna garatuko da haren egunetan, eta bakea ugari betiko.*]

† Jesu Kristoren Ebanjelioa San Lukasen liburutik 10,21-24.

Aldi hartan, Jesusek Espiritu Santuaren poz-eraginez esan zuen: «Bedeinkatua zu, Aita, zeru-lurren Jauna, gauza hauek jakintsuei eta burutsuei gorde, eta jende xumeari irakatsi baitizkiozu. Bai, Aita, hala nahi izan duzu. Nire Aitak dena eman dit; inork ez du ezagutzen Semea, Aitak baizik; ezta Aita ere, Semeak baizik, eta Semeak agertu nahi izan dionak baizik». Eta ikasleengana itzulirik, esan zien haiei bakarrik: «Zorionekoak, zuek ikusten duzuen ikusten duten begiak. Hara nik esan: Profeta eta errege askok ikusi nahi izan zuten zuek ikusten duzuen, eta ez zuten ikusi; eta entzun, zuek entzuten duzuen, eta ez zuten entzun».

Gutako askok, geure fede-ibilbidean, apostoluen eta Jesusen garaikideen inbidia sentitu izan dugu noiz edo noiz, haiek Maisua ezagutzeko aukera izan zutelako. Iruditzen zaigu, orduan gauza errazagoa izango genuela hari jarraitu eta haren jarraitzaileen artekoak izatea. Gertatu izan denak, alabaina, kontrakoa adierazten du: Jesus ezagutu zuten gehienek sasi-profetatzat hartu zuten hura, Israelenen tarteka sortzen ziren sasi-profeta haietakotzat; agintari erlijiosok bakarrik eskaini zioten arreta-apur bat, Tenpluan zuten negozioa arriskuan jarri zienean. Jesusek Tomasi esana da: Zorionekoak, ikusi gabe sinesten dutenak!

[Isaias 25,6-10: *Jai-otordu bat emango die Jaunak herri guztiei eta xukatuko ditu aurpegi guztietako negar-malkoak.*
Sal 22: *Jaunaren etxean naiz biziko luzaroen luzaro.*]

† Jesu Kristoren Ebanjelioa San Mateoren liburutik 15,29-37.

Aldi hartan, Galileako itsas bazterretik, mendira igo zen Jesus, eta han eseri. Jende asko hurbildu zitzaion, herren, itsu, gor, besamotz eta beste gaixo asko eramanez; oinetan jartzen zizkieten, eta hark sendatu egiten zituen. Jendea harriturik zegoen, mutuak hizketan ikusirik, besamotzak besodun, herrenak ibiltzen, itsuak ikusten. Eta Israelgo Jainkoa goستن zuten. Jesusek bere ikasleei dei egin eta esan zien: «Erruki dut jende hau; hiru egun baitira nirekin dabiltzala, eta ez dute zer janik; ez ditut baraurik bidali nahi, bidean akitu ez daitezten». Ikasleek esan zioten: «Nondik sortu guk basamortu honetan, horrenbeste jende asetzeko hainbat ogi?» Jesusek esan zien: «Zenbat ogi dituzue?» Eta haiek erantzun: «Zazpi, eta arrain bakar batzuk». Jendea lurrean eserarazi zuen, hartu zituen zazpi ogiak eta arrainak eta, esker otoitza egin ondoren, zatitu zituen eta ikasleei eman zizkien, eta ikasleek jendeari. Jan zuten denek, ase ziren arte, eta gelditutako hondarrekin zazpi saski bete bildu zituzten.

Jendetza handia sendatu zuen Jesusek, eta eman zion jaten. Hurbiltzen zitzaizkion eta Jesusek sendatu zituenak zenbatu ditu Ebanjelariak: «herren, itsu, besamotz, mutu eta beste asko». Jendea hain lotua zegoen Jesusi, non batzuk, behin batean, hiru egunetaraino gelditu baitziren berearekin, ikusteko eta entzuteko. Jesusek errukia sentitu zuen haietaz, eta jaten emateko modua egin zuen. Jesusen irudi honek, sendagile eta janari, laburbiltzen du, hein handian, Jesusen egitekoa edo misioa: eroria altxatu, gaixoa sendatu, ahula indartu, etsia esperantzaz bete. Sentitzen al duzu, zeurekin hori egiten duela Jesusek?

Abendualdiko 1. astea.

San Frantzisko Xabierkoa, apaiza, jesuita.

[Abendualdiko egunekoa: Isaias 26,1-6: *Sar bedi herri zintzo eta leiala. Sal 117: Bedeinkatua Jaunaren izenean datorrena. San Mateo 7,21.24-27: Aitaren nahia egiten dutenak sartuko dira zeruetako erreinuan.*]

[Xabierko Frantzisko santuaren Meza: Sofonias 3,9-10.14-20: *Herriei ezpain garbiak emango dizkiet, denek Jaunari dei egin diezaioten. Sal 85: Egin dituzun atzerritar guztiak etorriko dira, Jauna, zu jaurestera.*]

† Jesu Kristoren Ebanjelioa San Mateoren liburutik 28,16-20.

Aldi hartan hamaika ikasleak Galileara joan ziren, Jesusek esandako mendira. Ikusi zutenean, gurtu egin zuten; batzuk, ordea, zailantzan zeuden. Jesus, hurbildurik, honela mintzatu zitzaien: Ahalmen osoa eman dit Jainkoak zeru-lurretan. Zoazte, bada, eta egin herri guztiak nire ikasle, Aitaren eta Semearen eta Espiritu Santuaren izenean bataiatuz eta nik agindu dizuedan guztia betetzen irakatsiz. Eta ni zeuekin izango nauzue egunero munduaren azkena arte.

San Ignaziori bereak eta bost kostatu zitzaion Xabierko Frantzisko Jesusen auzirako konkistatzea. Baina gure nafar borondate-tsuak Jainkoari «bai» esan zionetik, ez zuen Ignaziok hura bezala adiskiderik izan. Lagundian bere ondorengo burua hura izango zela pentsatzeraino. Horregatik, Ignaziok merezimendu handia agertu zuen, hura beragandik apartatu eta Indiara bidali zuenean. Jesu Kristorekiko maitasunak erabat hartua zuen jada Frantzisko, eta haren Erreinua zabaltzeko gogoak ez zion bakerik eman Ekialdean ibili zen urteetan; ezaguna zen munduaren azken muturreraino Ebanjelioa hots egiten jardun zuen. Emaguzu, Xabier, zeure gogo beroaren eta eskaintzaren zatitxo bat.

3

Osteguna
Eguena

ABENDUA / GABONILA

Abendualdiko 1. astea.
San Frantzisko Xabierkoa, *apaiza, jesuita.*



Abendualdiko 1. astea.San Joan Damaskokoa, *apaiza eta eliz irakaslea.*Santa Barbara, *birjina eta martiria.*

[Isaias 29,17-24: *Egun hartan ikusiko dute itsuen begiek. Sal 26: Jauna dut argi eta salbamen.*]

† Jesu Kristoren Ebanjelioa San Mateoren liburutik 9,27-31.

Aldi hartan, Jesus bidean zihoala, bi itsuk jarraitu zioten, oihuka: «Erruki zakizkigu, Daviden Seme!» Eta etxera iritsi zenean, hurbildu zitzaizkion, eta Jesusek esan zien: «Sinesten al duzue egin dezakedala hori?» Haiek erantzun: «Bai, Jauna». Orduan, begiak ukitu zizkien, esanez: «Gerta bekizue sinesten duzuen bezala». Eta ireki zitzaizkien begiak. Jesusek zorrotz agindu zien: «Begira, gero, ez dezala inork ere jakin». Baina haiek atera eta haren izena herrialde hartan guztian zabaldu zuten.

Sinesten al dut, Jauna, nire itsutasuna senda dezakezula? Itsutzat al dut neure burua, kasik ez baitzaitut ikusten, ez besteengan, ez nire ondotik pasatzen zarenean? Ausartzen al naiz errepikatzen ebanjelioko itsu hauen erregua: «Jainkoaren Semea, erruki zaitez nitaz»? Behin eta berriz hots egiten al diot Jesusi, lehenengoan kasurik ez didala egiten dirudielako? Egiaz nahi al dut bera ikusi eta hark nire bizitza eralda dezan? Orduan beste era batean ikusiko nuke mundua, Jesusek bezala: pobreek defendatzaile bat behar dutela, gaixoeak lagunartea, etorkinek onarpena, presoek askatasuna baztertuek gizarteratzea. Pentsa ezazu: agian ez duzu atsegin horrela ikustea eta nahiago duzu begiak itxi.

[Isaias 30,18-21.23-26: *Errukituko zaizu Jauna zeure deiaren hotsera. Sal 146: Zorionekoak, Jaunagan esperantza dutenak.*]

† Jesu Kristoren Ebanjelioa San Mateoren liburutik 9,35–10,1.6-8.

Aldi hartan, herriz herri eta auzorik auzo zebilen Jesus, hango sinagoetan irakasten, erreinuari buruzko Berri Ona hots egiten eta gaitz eta eritasun guztiak sendatzen. Jendetza ikustean, erruki izan zuen, nekaturia eta lur joa baitzegoen, artzainik gabeko ardiak bezala. Orduan, ikasleei esan zien: «Uzta ugaria da, baina langileak gutxi. Egin, beraz, otoitz uzta-jabeari, bidal ditzala langileak bere uztera».

Eta hamabi ikasleei dei egin eta ahalmena eman zien espiritu gaiztoak botatzeko eta gaitz eta eritasun guztiak sendatzeko. Hamabiok bidali zituen Jesusek, ohar hauek eginez: «Zoazte galduak dabilzan Israel herriko ardietara. Eta bidean zoaztela, hots egin hurbil dela zeruetako erreinua. Senda itzazue gaixoak, piztu hilak, garbitu lepradunak, bota deabruak; hutsean hartu duzue, eman hutsean».

Esker ona da gure fedearen ezaugarrietako bat. Esker oneko izan behar dugu Jainkoarekiko, dohain guztiengatik: bizia, familia, heziketa, fedea, adiskideak, ongia edo gaizkia, egin edo saihestu ahal izan ditugun gauzak... «Dena da Jainkoaren doako dohaina» delako esapide honek ondo asko adierazten du fededunak Jesusen Jainkoaz izan duen esperientzia. Horregatik, horrenbeste erregaluri emandako erantzuna hau izan daiteke soilik: doan hartu dudana doan ematea. Jainkoak unibertsoa gobernatzean agertzen digun doakotasunaren ondorioa da gure esker ona. Izan zaitez haren seme / alaba duin.

Abendualdiko 2. astea.San Nikolas, *gotzaina*.**§ Baruk Profetaren liburutik 5,1-9.**

Jerusalem, erantzi dolu eta atsekabetako soinekoa, jantzi betiko, Jainkoaren aintzaren ederra. Bildu zure gorputza Jainkoak ematen dizun zuzentasunaren soin-gainekoz, eta ezarri buruan betiereko aintzazko koroia. Agertuko baitie Jainkoak zure distira zerupean bizi diren guztiei. Jainkoak izen hau emango dizu behin betiko: «Bakea Zuzentasunean, Ospea Jainko-zaletasunean». Jaiki zaitez, Jerusalem, igo gainera; begira sortaldera eta ikus zeure semeak, sortaldetik sartalderaino Santuaren hitzak bilduak, eta pozturik, Jaungoikoa haietaz gogoratu delako. Oinez atera ziren, etsaiak eramanda; baina Jainkoak aintzatan ekartzen dizkizu, errege-gurdian bezala. Jainkoak erabaki du, mendi-goiz guztiak eta muinoak makurtzea, zulo-uneak betetzea, lurra berdintzeraino; Israel lasai etor dadin, Jaungoikoaren aintzak zuzendurik. Basoei eta usain oneko zuhaitzei Israeli itzala emateko agindu die. Pozetan eramango baitu Jaungoikoak Israel, bere aintzaren argiz, bere zintzotasunez eta errukiz.

[Sal 125: *Gurekin handikiro jokatu da Jauna: Hau da poza daukaguna!*]

§ Paulo apostoluak Filipoarrei 1,4-6.8-11.

Senideok: Zuentzat otoitz egiten dudanean, pozik eskatzen diot Jaungoikoari. Zuek, laguntzaile izan baitzaituztet Ebanjelioko eginkizunean, lehenengo egunetik orain arte. Badut uste, eginbide on hau zuengan hasi duenak, bukatuko duela Jesu Kristoren eguna arte. Testigu dut Jainkoa, zeinen kristau-maitasun handiz maite zaituztedan. Eta hau da nire otoitza: gero eta handiago eta sakon egin dadila zuen maitasun-elkartea, ezagutze sakon eta erabateko zentzumenean, onena aukera dezazuen; horrela, garbi-garbi eta

esankizunik gabe iritsiko zarete Kristoren egunera; zintzotasun-emaitez beterik, Kristo Jesusen bitartez Jainkoaren aintza eta gorespenerako.

† Jesu Kristoren Ebanjelioa San Lukasen liburutik 3,1-6.

Tiberio errege nagusi zelarik, haren erregetzaren hamabosgarren urtean, Pontzio Pilato Judeako agintari zela, eta Herodes Galilean errege-ordeko zegoelarik, eta haren anaia Filipo, Iturea eta Trakoni lurraldean errege-ordeko, eta Lisania Abilenen errege-ordeko, eta Anas eta Kaifas apaiz nagusi zirelarik, Jainkoaren hitza etorri zitzaion basamortuan Zakariasen seme Joani. Eta Jordan inguru guztian, bihotz-berritzeko bataioa hots egiten hasi zen, bekatuen barkamenerako, Isaias profetaren liburuan idatzirik dagoen bezala: «Mintzo bat oihuka ari da basamortuan: / Urra ezazue bidea Jaunarentzat, / zuzendu haren bidexkak; / gora daitezela haranak, / beheratu mendi eta muinoak; / berdindu daitezela malkarrak, / zelaitu lur maldak. / Eta ikusiko dute guztiek Jainkoaren salbamena».

Joan Bataiatzailea eta Isaias, Mariarekin eta Joserekin batean, proposatzen dizkigu Elizak, Abendualdian, Jesusen etorrerarako prestatzeko irudizat. Joanek bere aitzindari izena ohoratzen du. Itun Zaharreko azken profeta bezala sustatu zuen Jainkoak Joan, Jaunari bidea prestatzeko. Garai hartako bide publikoak eskasak ziren, eta narras zainduak. Horregatik, pertsonaia handi batek bere bisita iragartzen zuenean, hark egin behar zuen bidea egokitu egin ohi zuten. Joanek ere bidea urratu nahi izan dio Jesusi; Jesusek bezala, Joanek aldarrikatu du, ez dela zertan animaliak hil edo Tenpluari limosnarik eman, bekatuen barkamena lortzeko, baizik eta Jainkoa espirituz eta egiaz ohoratu behar dela, Jerusalemara joan beharrik gabe.

Abendualdiko 2. astea.San Nikolas, *gotzaina*.

Hau eta beste gauza asko hots egingo zuen Kristok, hitzez eta egintzez. Gaitz espiritualak eta fisikoak barkatzen eta sendatzen zituena Jesusek; aski zuen horretarako, jendeagan fede-apur bat ikustea Jainkoaren errukian eta ontasunean, seme-alaba bezala maite gaituela eta ez esklabo, maitasunez obeditu diezaiogun nahi duela eta ez ikaraz. Jainko gupidatsu eta ulertzaile hori izango da Andre Maria-gandik jaioko dena. Jainko hau al da Eguberritan espero duzuna?

Abendualdiko 2. astea.

San Anbrosio Milangoa, *gotzaina eta eliz irakaslea.*

[Isaias 35,1-10: *Jainkoa bera etorriko da, eta salbatuko zaituzte. Sal 84: Badator gure Jainkoa eta salbatuko gaitu.*]

† Jesu Kristoren Ebanjelioa San Lukasen liburutik 5,17-26.

Aldi hartan, Jesus irakasten ari zen. Han zeuden eseririk, Galileako eta Judeako auzoetatik eta Jerusalemdik etorritako fariseu eta lege-maisu batzuk. Eta jainkozko indarrak gaixoak sendatzera eragiten zion Jesusi. Etorri ziren gizon batzuk, perlesiadun bat esku-ohean zekartela, eta nola sartuko zebiltzan, gaixoa Jesusen aurrean ipini nahiz. Baina jendetzagatik ez zuten aurkitzen nondik sartu, eta etxe gainera igo, eta teila artetik eraitsi zuten erdira, esku-ohe eta guzti, Jesusen aurrera. Jesusek, haien sinesmena ikusirik, esan zuen: «Gizona, barkatuak daude zure bekatuak!» Lege-maisu eta fariseuek beren baitan zioten: «Nor dugu biraoka ari den hau? Nork barka ditzake bekatuak, Jainkoak baizik?» Baina Jesusek, haien burutapenak ezaguturik, esan zien: «Zer burutapen darabiltzazue bihotzean? Zer da errazago esaten: “Barkatzen zaizkizu bekatuak”, ala “jaiki eta zoaz?” Hara bada: jakin dezazuen Gizonaren Semeak baduela lurrean bekatuak barkatzeko eskubidea... –esan zion perlesiadunari–: “Zuri diotsut: jaiki zaitez, hartu esku-ohea, eta zoaz etxera”». Jaiki zen hura berehala guztien aurrean, hartu zuen etzanik zegoen esku-ohea, eta han joan zen bere etxera, Jainkoa gorensten. Guztiak harriturik gelditu ziren, eta Jainkoa gorensten zuten. Eta, beldurrez beterik, zioten: «Harritze-koak ikusi ditugu gaur».

Abendualdiko 2. astea.

San Ambrosio Milangoa, *gotzaina eta eliz irakaslea.*

Bekatari gaixo hau, etzana egon den ohatila hartu eta ate handitik irten da, guztiak mirespenez aho zabalik utziz. Etxera itzuli da, Jainkoa aintzatuz; pentsatzekoa da, Jesusengana airean eman duten familiarrekin eta adiskideekin batean joan dela. Eztabaidaren eta sendatzearen lekuko izan direnek ere Jainkoa goستن dute. Horrelakoak izan ohi dira Ebanjelioaren araberakoak diren egintzak: Jainkoa goستera eragiten dute, eta ez egintzak egin dituen bera, eguneroko bizitzaren apalik behekoenean Goi-goikoaren presentzia sumatzera. Esana zuen Jesusek: «Ikus ditzatela zuen egintza onak eta goستsi dezatela Jainkoa».

§ Hasiera liburutik 3,9-15.20.

Jaungoiko Jaunak, gizonari dei egin eta esan zion: “Non zara?” Eta hark erantzun: “Baratzean ibiltzen sumatu zaitut eta, larru-gorri nengoela, beldurrez, gorde egin naiz”. Jaunak orduan: “Eta nork esan dizu, larru-gorri zeundela? Jatea galarazi nizun zuhaitzetik jan al duzu?” Gizonak erantzun: “Lagun ipini didazun emakumeak eman dit hartatik, eta nik jan”. Orduan Jaungoiko Jaunak esan zion emakumeari: “Zer egin duzu?” Emakumeak erantzun: “Sugeak atzipetu nau, eta nik jan”. Orduan Jaungoiko Jaunak sugeari esan zion: “Hori egin duzulako, madarikatua izango zara abere guztien eta landako pizti guztien artean; sabel-gainean ibiliko zara arrastaka; zure bizitzako egun guztietan hautsa jango duzu. Haserrea sortuko dut zure eta emakumearen artean, zure jatorriaren eta harenaren artean; honek buruan emango dizu, zuk orpotik helduko diozunean”.

[Sal 97: *Kanta Jaunari kantu berri, egin baititu hainbat harri.*]

§ Paulo apostoluak Efesoarrei 1,3-6.11-12.

Bedeinkatua izan bedi Jaungoikoa, Jesu Kristo gure Jaunaren Aita, Espirituaren era guztietako bedeinkapenez, zeruan Kristorengan bedeinkatu gaituena. Harengan aukeratu baikintuen, mundua sortu baino lehen, bere aurrean, maitasunez, santu eta errugabe izan gaitzen. Aurrez aukeratu gintuen bere semeorde izateko, Jesu Kristoren bidez, bere nahiaren onberatasunez; bere seme maitearengan hain ugari eman digun graziaren aintzak bera gorespenez bete dezan. Kristorengan oinordeko gertatu gara gu ere; horretara deituak izan gara, gauza guztiak berak nahi bezala egiten dituenaren erabakiz. Eta Kristogan uste on izan genuenok, Jainkoaren aintzaren gorespen izango gara.

Abendualdiko 2. astea.**ANDRE MARIA SORTZETZ GARBIA.**

† Jesu Kristoren Ebanjelioa San Lukasen liburutik 1,26-38.

Aldi hartan, Gabriel aingerua bidali zuen Jainkoak, Nazaret deritzan Galileako herri batera, birjina batengana; Daviden etxeko Joserekin ezkontzeko hitzemanen zegoen birjina, eta Maria zuen izena. Aingeruak, haren etxean sarturik, esan zion; «Poztu zaitez, graziaz bete hori: Jauna zurekin». Ikaratu zen Maria, hitz haiek entzutean, eta pentsatzen jarri zen, zer ote zitekeen halako agur hura. Aingeruak, orduan: «Ez izan beldurrik, Maria; Jainkoaren ederra aurkitu duzu. Begira, sabelean sortu eta semea izango duzu, eta “Jesus” ezarriko diozu izena. Handia izango da; Goi-goikoaren Seme deituko dute, eta Jainko Jaunak haren aita Daviden errege aulkia emango dio; Jakoberen etxean errege izango da beti, eta haren erregetzak ez du azkenik izango». Mariak orduan aingeruari: «Nola izan daiteke hori? Nik ez baitut ezagutzen gizonik». Eta aingeruak: «Espiritu Santua jaitsiko da zugana, eta Goi-goikoaren indarrak bere itzalpean hartuko zaitu; horregatik, zugandik jaioko den Santua, Jainkoaren Seme deituko dute. Hara, zure ahaide Elisabet ere, bere zaharrear, haurdun dago, eta agorra omen zena seigarren hilabetearen aurkitzen da; Jainkoarentzat ez baita ezer ezinik». Mariak orduan: «Hona hemen ni, Jaunaren mirabea; gerta bekit, zuk diozun bezala». Orduan aingeruak utzi egin zuen.

Karlos III.a Espainiako erregeak (1716-1788) zin egin zuen Andre Maria Sortzez Garbiaren dogma defendituko zuela, bere menpekoen izenean. Eta gogorazteko, «Ave Maria guztiz garbia» agurra zabaldu zuten, «Sortzez Garbia» erantzunarekin batean. Gaur ere erabilia da aitortza-sakramentuan, bakarka ospatzen denean. Garai batean, usuago erabili ohi zen deiki hori. Esan daiteke, beraz, jai hau herri fededunak eraiki zuela, Jainkoaren Amari estimu handia ziolako. Sortzez Garbiaz pintura- eta eskultura-irudi asko egin izan dira. Ia beti, goi-goiko bezala irudikatzen dute, gainezkaldi mistikoan, begiak zeruan, hodei eta aingeru artean. Nik neuk nahiago dut irudikatu oinak lurrean dituela, ilargirik gabe eta orpo azpiko suge gaiztorik gabe. Hornidurarik gabe, tunika xume batekin, begiak ingurumenera begira, beraren laguntza, hitz edo zerbitzuaren premia dukeen jendeari begira. Andre gazte bat, biziaz blai eta bizi-emaile. Hain zuzen, Biziaren beraren ama izateko hautatu zuen Jainkoak. Harengana jotzen dut uste osoz, bere Semeaz hitz egin diezadan. Berak ere, ez du besterik nahi. Egizu zuk beste horrenbeste.

[Isaias 40,25-31: *Jainko ahalguztidunak ematen dio nekatuari adore. Sal 102: Ene anima, goretsazu Jauna!*]

† Jesu Kristoren Ebanjelioa San Mateoren liburutik **11,28-30.**

Aldi hartan, Jesusek esan zuen: «Zatozte nigana nekatuok, lanpetuok, eta nik arinduko zaituztet. Hartzazue nire uztarria eta ikas nigandik: bihozbera naiz eta apala, eta aurkituko duzue zeuen arimentzat atsedean. Nire uztarria leuna baita, eta nire zama, arina».

Jesusek esan zuen, bera zela «larunbataren nagusia». Zeharka, bere jainkotasuna aitortzea da hori. Jainkoak atsedean hartu zuen zazpigarren egunean; horregatik, Jaunaren eguna da. Batzuetan, Itun Zaharreko Jainkoaren eta Itun Berrikoaren artean distantzia handi bat jartzen dugu; nolana den, kasu honetan ez da hainbestekoa. Beritasun handia zen esatea: ez duela berak bakarrik atsedean hartzen, baizik eta besteek ere berarekin atsedean har dezaten nahi izan duela. Argi honen pean, hobeto ulertzen da gaurko ebanjelioa: zeuk ere, har ezazu atsedean Jesusen Jainkoagan eta Jainkoarekin!

[Isaias 41,13-20: *Ni neu nauzu lagun, Israelgo Santua. Sal 144: Gupidatsua da Jauna eta errukiorra, ezin haserretua eta guztiz onbera.*]

† Jesu Kristoren Ebanjelioa San Mateoren liburutik 11,11-15.

Aldi hartan Jesusek esan zion jendeari: «Egi-egiaz diotsuet: Ez da sortu amaren semerik, Joan Bataiatzailea baino handiago-rik. Hala ere, zeruetako Erreinuan txikiena, hura baino handiago da. Joan Bataiatzailearen egunetatik gaurdaino, zeruetako erreinua indarrez irabazten da, eta indar egiten dutenek hartzen dute. Profeta guztiek eta Legeak Joan Bataiatzailea etorri arte hots egin zuten profeta-hitza; hartu ontzat Joan, nahi baduzue; hori da etortzekoa zen Elias hura. Belarririk duenak, entzun dezala».

Jesusek, bere hitzekin, Israel zaharreko azken profeta ohoratu du. Agintari erlijioso eta zibilek egin ez zuten gauza da, herejetzat eta ahoberotzat hartu baitzuten haiek Joan Bataiatzailea. Berehala gehitu du Jesusek, Jainkoaren erreinua berritasun handi bat dela, Jainkoaz dugun irudia aldatzen duena. Zeruko Jauna lurrera jaitsi da eta bere aurpegia erakutsi digu: errukitsua, gupidatsua, aita batena. Itun Zaharreko edozein fededunek imajina zezakeen baino maitasun handiagoa digu. Arrazoi du Jesusek: sinesteko ahalegina egingo dutenak baka-rrik izan daitezke Erreinu horretako herritar.

Abendualdiko 2. astea.

San Damaso, 37. aita santua.

[Isaias 48,17-19: *Nire aginduak aintzakotzat hartuko bazenitu. Sal 1: Zure ondoren datorrenak izango du bizirako argia.*]

† Jesu Kristoren Ebanjelioa San Mateoren liburutik 11,16-19.

Aldi hartan, Jesusek esan zion jendeari: «Noren antzeko dela esango nuke gizaldi hau? Plazan eseririk dauden haurren antzekoa da; honela oihu egiten baitiete besteei: “Soinua jotzen dugu eta ez zarete dantzatzen, / hiletak jotzen ditugu / eta ez duzue dolurik egiten”. Izan ere, etorri zen Joan, eta ez zuelako, ez jaten, ez edaten, diote: “Deabrua du berekin”. Etorri zen Gizonaren Semea, jaten eta edaten duena, eta honela diote: “Horra tripazaina eta ardoedalea, zergalarien eta bekatarien adiskidea”. Baina, Jainkoaren jakinduriari arrazoi eman diote egiteek».

Paulok esaten die Erromatarrei (12,15): «Barre egizu barre dagienarekin, eta negar negar dagienarekin». Ematen du esapide hau beste pasarte honetan inspiratua dela, zeinetan Kristoren taldea salatzen baita, ez duela dantza egiten Jesusek berak jotzen duen doinura. Uko egin zioten Joan Bataiatzaileari, zorrotzea omen zelako; Jesusi, berriz, mahai zalea omen zelako. Sasi-aitzakia dira, bien mezua ez onartzeko, konbertsiorako eta Erreinuan sartzeko deia egiten dutenean.

Beti aurkitu ohi dugu zuribiderik, Jesusi jarraitzean jarrera errotiko bat ez hartzeko. Erdizka ibiltzea izaten dugu gustuko: «bai baino» delakoa, «hemen nauzu zure nahia egiteko» ordez.

[Sirak 48,1-4-9-11: *Berriz etorriko da Elias*. Sal 79: *Jainkoa, birbiztu gaitzazu; salba gaitezen, zeure begia leun ager ezazu.*]

† Jesu Kristoren Ebanjelioa San Mateoren liburutik 17,10-13.

Menditik jaistean, galdetu zioten ikasleek Jesusi: «Nola diote lege-maisuek, lehenbizi Eliasek etorri behar duela?» Jesusek erantzun zien: «Bai, Elias badator, eta eraberrituko ditu gauza guztiak. Gehiago diotsuet: Elias etorria da, eta ez dute ezagutu, eta nahi duten guztia egin diote. Era berean, Gizonaren Semeak ere horiengandik oinazeak jasango ditu». Orduan konturatu ziren, Joan Bataiatzaileaz mintzatu zitzaiea.

Joanentzat laudorio gehiago. Jesusek berak dakusa harengan, ez aitzindari bat bakarrik, baita berak (Jesusek) izango dituen bizitzaren eta heriotzaren aurrerapen ere. Profeten zoria da, Eliasena salbu, zeina Jainkoaren altzoan bizi dela sinesten baitzuten. Bestetik, Mesias mundu honetara etortzen Eliasek aurkeztu zuen iritzia desegin du Jesusek. Jesusek ez du inongo profetaren egiaztapen-beharrik, bera da beretzat aski. Aitaren Semea da bera, eta geure fedea eta atxikimendua eskatzen dizkigu. Bermatzaile bakarra, bera bidali zuen hura du.

Abendualdiko 3. astea.Santa Luzia, *birjina eta martiria.*San Eugenio, *martiria.*

§ Sofonias Profetaren liburutik 3,14-18a.

Egin poz-irrintzi, Siongo alaba! Egin oihu alai, Israel! Poz-tu zaitetz bihotz-bihotzez, Jerusalemgo alaba! Urratu du Jaunak zure kontrako erabakia, atzerarazi ditu zure etsaiak. Jauna izango da Israelgo errege zure erdian; ez duzu gehiago beldurrik izango. Egun hartan, esango zaio Jerusalem: «Ez izan beldurrik, Sion! Ez bitez erori zure eskuak! Jauna, zure Jaungoikoa, zure erdian dago, gudari salbatzaile! Pozaren pozez alaitzen da zuregatik; maite zaitu eta pozez jausika dabil, jai-egunez bezala».

[**Salmoa: Isaias 12:** *Goretsazue irrintzika, handi baita Israelgo Santua zure erdian.*]

§ Paulo apostoluak Filipoarrei 4,4-7.

Senideok: Zaudete beti pozik Jaunagan; berriro diotsuet, zaudete pozik. Ezaguna izan bedi gizon guztientzat zuen bihotz zabalak. Hurbil da Jauna. Ez eduki ezeren kezkarik; baizik eta beti eta beti zuen esker onezko otoitz eta eskarietan agertu zeuen eskabideak Jaungoikoari. Eta gogoeta guztiak baino handiagoa den Jaungoikoaren bakeak, gordeko ditu zuen bihotzak eta zuen gogapenak Kristo Jesusi lotuak.

† Jesu Kristoren Ebanjelioa San Lukasen liburutik 3,10-18.

Aldi hartan, galdetzen zion jendeak Joani: «Zer egin behar dugu?» Eta hark erantzun: «Bi soineko dituenak eman biezaio bat, ez duenari, eta jatekorik duenak, egin beza gauza bera». Etorri zitzaizkion zerga-biltzaile batzuk ere bataioa hartzera, eta galdetu zioten: «Maisu, zer egin behar dugu?» Eta hark esan zien: «Ez eskatu erabakia dagoena baino gehiago». Gudari batzuek galdetu zioten: «Eta guk, zer egin behar dugu?» Hark erantzun:

Abendualdiko 3. astea.

Santa Luzia, *birjina eta martiria*.San Eugenio, *martiria*.

«Ez behartu inor gogorkeriaz; ez ibili salaketan dirua ateratzeko; baizik eta etsi daukazuen irabaziarekin». Herria kezkatzen zegoen, eta bere baitan galdezka, Joan hura ez ote zen Kristo bera. Joanek erantzun zien guztiei: «Nik urez bataiatzen zaituztet; baina badator ni baino ahaltsuago dena, ni ez bainaiz inor haren oinetakoen lokarriak askatzeko. Hark Espiritu Santuaz eta suaz bataiatuko zaituzte. Eskuan dauka sardea, larraina garbitzeko eta garia mandiora biltzeko; lastoa, berriz, itzal ez daitekeen suan erreko du». Hauek eta beste gauza asko esanez, Berri Ona irakasten zion herriari.

Joan Bataiatzailea Jesusen isla bezala marrazten du Lukasek. Joan hori ere jende xumearekin ari da, eta beren ondasunak eta janaria partekatzeko esaten die; zerga-biltzaileekin ari da, eta ondradu izateko eskatzen die eta ez funtzionario ustel; soldaduekin ari da, eta berena ez dutena indarrez ez hartzeko esaten die. Hitz batean, apai-zek ez-duin eta lohitzat ematen duten jendeari hitz egiten die. Joanek, Jainkoak bezala, Legea betetzen omen dutelako harro ageri diren horiek baino maiteago du pobre eta gaizki ikusia den jende hori.

Gainera, Espiritu Santuaz eta suaz eman zaien bataio bat iragarri die Joanek; bere bataioak ez bezala, bekatuak barkatzeaz gain, espiritu berria ematen eta bizia aldarazten duen gogo beroa komunikatzen duen bataioa. Kristogan bataiatua dena Kristori itsasten zaio; hartara, beraren eguneroko bizitzako osagai bihurtzen dira berotasun ebanjelizatzailea eta bizi-koherentzia.

Eguberri aurreko egun hauetan, eska diezaiogun Jaunari, bidal diezagula Espiritu Santua, Maria bezala, bere itzalpean har gaitzan, horrela Jesusi gudan hazten utzi ahal izateko.

Abendualdiko 3. astea.

Gurutzeko San Joan, *apaiza eta eliz irakaslea.*

[Zenbakiak 24,2-7.15-17a: *Izar bat sortu da Jakoboen etxetik. Sal 24: Erakutsi niri, Jauna, zeure bideak.*]

† Jesu Kristoren Ebanjelioa San Mateoren liburutik **Mt 21, 23-27.**

Aldi hartan, Jesus tenplura etorri eta irakasten ari zela, apaizburuak eta herriko zaharrak hurbildu zitzaizkion, galdezka: «Zein aginpidez egiten duzu hori? Nork eman dizu aginpide hori?» Jesussek erantzun zien: «Nik ere gauza bat galdetuko dizuet; erantzuten badidazue, nik ere esango dizuet zein aginpidez egiten dudan hori. Joanek noren aginduz bataiatzen zuen: Jainkoaren aginduz ala gizakien aginduz?» Haiiek beren baitan zioten: «Jainkoaren aginduz ari zela esaten badugu, zergatik sinetsi ez genion esango digu. Eta gizakien aginduz ari zela esaten badiogu, berriz, jendearen beldur gara, guztiek profetatzat baitute Joan». Beraz, erantzun zioten Jesusi: «Ez dakigu». Jesussek, orduan, esan zien: «Nik ere ez dizuet, bada, esango zein aginpidez egiten ditudan gauza hauek».

Gaurko ebanjelioko Jesusen ateraldi hori ez da joko dialektiko bat, ezta purrustada bat ere, beraren galdekatzaileak isilarazteko. Izan ere, halaxe da: galdeketa. Agintariak galdetu diote, zein aginpide duen Tenpluan irakasten jarduteko. Uste dute, berek dutela erabakitzen zeinek irakatsi eta zeinek ez Tenplu barnean. Eta Jesussek, bere erantzunarekin, koloka jarri du apaizen eta zaharren aginpidea. Galdu egin dute aginpidea, zeren ez baitakite nola orientatu herria, Joan Bataiatzailearen kasuan gertatu denez. Jesus da Bizirako bidea erakusten digun Maisu bakarra. Zuk bakarrik dituzu betiko bizirako hitzak!

Abendualdiko 3. astea.

Santa Silvia, aitorlea.

San Valeriano, gotzaina.

[Sofonias 3,1-2.9-13: Behartsu guztiei agintzen zaie Mesiasengandiko salbamena. Sal 33: Dohakabeak oihu egin zuen, eta Jaunak entzun.]

† Jesu Kristoren Ebanjelioa San Mateoren liburutik Mt 21,28-32.

Aldi hartan, Jesusek esan zien apaizburu eta herriko zaharrei: «Zuek zer deritzozue? Gizon batek bi seme zituen, eta batarengana joan eta esan zion: “Seme, zoaz gaur mahastira, lanera”. Hark erantzun: “Ez dut nahi”. Baina gero damutu eta joan egin zen. Bestearengana ere joan eta gauza bera esan zion. Eta hark erantzun: “Banoa, jauna”; baina ez zen joan. Bietan zeinek egin zuen aitaren nahia?» «Lehenengoak», erantzun zioten.

Orduan, Jesusek esan zien: «Egiaz diotsuet: Zerga-biltzaileak eta emakume prostituituak zuek baino lehenago sartuko dira Jainkoaren erreinuan. Izan ere, etorri zitzaizuen Joan Bataiatzailea Jainkoaren nahiari dagokion jokabidea hots eginez, eta ez zenioten sinetsi; zerga-biltzaileek eta emakume prostituituek, berriz, sinetsi egin zioten. Zuek, ordea, ikusi eta gero ere, ez zineten bihotz-berritu, hari sines-teko».

Obrak dira amore. Bi semeen parabola honek adierazten digu, egintzak direla inporta duena. Desio onak ez dira ezertako: ekin egin behar zaio lanari eta bete gomendatu zaigun egitekoa. Jesusek agintariei aurpegiratzen die, gauza bat dutela esaten eta beste bat egiten. Entzuna zuten Joan Bataiatzailearen ahots profetikoa, baina kasurik egin ez. Gauza bera gertatzen da Jesusekin berarekin. Horregatik, emakume prostituituek eta zerga-biltzaileek aurrea hartu diete Erreinuari; izan ere, hauek abian jarri dira Jesusen ondoren. Eta zu, abiatu al zara ala nagikeriari emanik zabilta?

Abendualdiko 3. astea.

San Agrikola, *martiria*.Santa Adelaida, *enperadorea*.

[Isaias 45,6b-8.18.21b-25: *Ireki bedi lurra eta erne salbazioa!*
Sal 84: *Ihintz egizue goitik, zeruak, isur ezazue zuzenbidea, hodeiak!*]

† Jesu Kristoren Ebanjelioa San Lukasen liburutik Lk 7,19-23.

Aldi hartan, Joan Bataiatzaileak, bere ikasleetako biri dei egin eta Jaunagana bidali zituen galdetzeraz: «Zu al zara etortzekoa ala besteren baten zain egon behar dugu?» Joan ziren, bada, gizon haiek Jesusengana eta esan zioten: «Joan Bataiatzaileak zugana bidali gaitu galdetzeraz: “Zu al zara etortzekoa ala besteren baten zain egon behar dugu?”» Une hartantxe, gaitz, eritasun eta espiritu gaiztoak zituen jende asko sendatu zuen Jesusek, eta itsu askori ikusmena eman zion. Ondoren, mezulariei erantzun zien: «Zoazte eta esan Joani ikusi eta entzun duzuenaz: itsuek ikusten dute eta herrenak badabiltza, legerardunak garbi gelditzen dira eta gorrek entzuten dute, hilak pizten dira eta behartsuei Berri Ona hots egiten zaie. Eta zorionekoa nigatik erorbide hartzen ez duena».

Obrak dira amore, genion atzo. Joan Bataiatzaileak bidali dizkionei sendatze asko eginez erantzun die Jesusek. Bere eguneroko jarduera laburbiltzen du Joanentzat eman dien mezuak: gaixoak eta ezinduak sendatu, batzuek bizi duten bazterketa amaitu, pobreei Berri Ona hots egin. Eta beste zoriontasun bat eskainiz bukatu du Jesusek: zorionekoa, nigan estropezu egiten ez duena, hau da, zorionekoa, ni bete-betean onartzen nauena. Eta zu, horietakoa al zara ala ba al da Ebanjelioan behin eta berriz erorarazten zaituen zerbait? Egizu azterketa eta egiaztatu zer zaizun kontrako eztarritik sartzen. Mesedegarri dukezu zeure ahulgunea ezagutzea.

[**Hasiera 49,1-2.8-10:** *Errege-makila ez da Judagandik urrunduko. Sal 71:* *Zuzentasuna garatuko da haren egunetan, eta bakea ugari betikotasunean.*]

† Jesu Kristoren Ebanjelioa San Mateoren liburutik 1,1-17.

Abrahamen seme eta Daviden seme Jesu Kristoren jatorri-liburua. Abrahamek Isaak sortu zuen, Isaakek Jakob, Jakobek Juda eta haren senideak, Judak Tamarrengandik Fares eta Zara sortu zituen, Faresek Esrom, Esromek Aram, Aramek Aminadab, Aminadabek Naason, Naasonen Salmon, Salmonek Rahabengandik Booz sortu zuen, Boozek Rutengandik Obed, Obedek Jese, Jese David erregea. Davidek, Uriasen emazte izanagandik, Salomon sortu zuen, Salomonek Roboam, Roboamek Abia, Abiak Asaf, Asafek Josafat, Josafatek Joram, Joramek Ozias, Oziasek Joatam, Joatamek Akaz, Akazek Ezekias, Ezekiasen Manases, Manasek Amon, Amonen Josias, Josiasen, Babiloniako erbestealdian, Jekonias eta haren senideak sortu zituen. Eta Babiloniako erbestealdiaren ondoren, Jekoniasen Salatiel sortu zuen, Salatielek Zorobabel, Zorobabelek Abiud, Abiudek Eliakim, Eliakimek Azor, Azorrek Sadok, Sadokek Akim, Akimek Eliud, Eliudek Eleazar, Eleazarrek Matan, Matanek Jakob, Jakobek, berriz, Jose sortu zuen, Mariaren senarra, eta Mariagandik jaio zen Jesus, Kristo deritzana. Beraz, hamalau gizaldi izan ziren guztira Abrahamengandik Davidenganaino; hamalau gizaldi Davidengandik Babiloniako erbestealdiraino, eta hamalau gizaldi Babiloniako erbestealditik Kristoganaino.

Azarias, Ananias, Misael (Itun Zaharrekoak), *martiriak*.

San Juan de Mata, *apaiza*.

San Jose Manyanet.

Gu bezalako gizona da Jesus. Gure haragi eta odolekoa. Bere arbasoak ditu eta, gaurko ebanjelioko genealogia hau artifiziuala den arren, adierazi nahi du, beragan betetzen direla Israel herriak espero zuten Mesiasen ezaugarri guztiak. Bera da nazioek espero zutena; halere, bere arbasoen artean bada jende bekataririk, gizon eta emakume. Beste bat gehiago izan da Jesus, baina bekaturik gabea; guztiak salbatzera etorri da, bereziki Jainkoagandik urrunenak zirenak: behartsuak eta bekatariak. Hauetako zein sailetakoa naiz ni?

Abendualdiko 3. astea.

Itxaropenaren Andre Maria.

San Modesto, *patriarka, Jerusalemen berritzailea.*

[Jeremias 23,5-8: *Legezko muskil bat sortuko diot Davidi. Sal 71: Zuzentasuna garatuko da haren egunetan, eta bakea ugari betikotasunean.*]

† Jesu Kristoren Ebanjelioa San Mateoren liburutik 1,18-24.

Jesu Kristoren jaiotzea honela gertatu zen: Jesusen ama Maria, Joserekin ezkontzeko hitzemanan zegoela, elkarrekin bizi izan baino lehen, haurdun aurkitu zen Espiritu Santuaren egitez. Haren senar Josek, gizon zintzoa baitzen eta ez baitzuen bere emaztea salatu nahi, isilka utzi eta joatea erabaki zuen. Baina, asmo hori gogoan zerabilela, Jainkoaren aingerua ametsetan azaldu eta esan zion: «Daviden seme Jose: ez izan beldurrik, Maria, zeure emaztea, etxean hartzeko, sabelean daraman haurra Espiritu Santuagandik baitator. Semea izango du, eta zuk “Jesus” ezarriko diozu izena, Horrek salbatuko baitu bere herria bekatuetatik». Hau guztia gertatu zen, Jaunak profetaren ahoz esandakoa bete zedin: «Begira, birjinak sabelean sortu / eta semea izango du, / eta Emmanuel ezarriko diote izena, / hau da: “Jainkoa gurekin”». Josek, lotatik esnatu zenean, Jaunaren aingeruak agindu bezala egin zuen, eta bere etxean hartu zuen emaztea.

Jose zintzoari aldapa gora egin zitzaion noski emakume haurdun batekin (hala pentsatzen zuen berak) ezkontzea; baina askoz gogorragoa Jainkoak gomendatu zion misioa: bere semetzat hartu berea ez zuen bat eta Jainkoaren Semea bera hezi aitaordeko bezala. A, zer erantzukizuna! Komentariogile batzuek diote, Maria uzteko ideia Joseri, Jainkoak eskatu dion egitekoa betetzeko gai ez dela sentitze-tik etorri zaiola. Hala izan ala ez, Jose –Maria bezala– buru-belarri eskaini zitzaion bere egitekoari. Egizu gauza bera.

San Dario, *martiria*. Santa Protasia, *birjina*.San Urbano V.a, *200. aita santua*.San Anastasio I.a, *aita santua*.

[Epaileak 13,2-7.24-25a: *Aingeruak Samsonen jaiotza iragartzen du. Sal 70: Ahoa betea neukan zurekiko gorespenez, egun osoan zurekiko ederpenez.*]

† Jesu Kristoren Ebanjelioa San Lukasen liburutik 1,5-25.

Judeako Herodes erregearen egunetan, bazen Zakarias ize-neko apaiz bat, Abiaren sailekoa; Elisabet zuen emazte, Aaronen ondorengoa. Biak zintzoak ziren Jainkoaren aurrean; hutsegite-rik gabe bizi ziren Jaunaren lege eta agindu guztietan. Ez zuten haurrik, agorra baitzen Elisabet, eta biak urteetan aurreratuak. Zakarias, bere sailekoekin, Jainkoaren aurrean zerbitzu egiten ari zela, Jaunaren santutegian sartzea egokitu zitzaion, apaiz legeak agintzen zuen eran, intsentsua eskaintzera. Intsentsua eskaintze-rakoan herri osoa otoitzean ari zen atarian. Eta Jaunaren aingerua agertu zitzaion, zutik, intsentsu-aldarearen eskuinean. Hura ikus-tean, izutu zen Zakarias, eta beldurak hartu zuen. Aingeruak esan zion: «Ez izan beldurrik, Zakarias: entzuna izan da zure eskaria; zure emazte Elisabetek semea emango dizu, eta zuk “Joan” ezarriko diozu izena. Poz handia izango da zuretzat, eta haren jaiotzak jende asko poztuko du, handia izango baita Jaunaren aurrean; ez du edango ardorik, ez edari bizirik; gainera Espiritu Santuaz beteko da, amaren sabelean berean, eta israeldar asko bihurtuko da Jaunagana, bere Jainkoagana; Jaunaren aurretik ibiliko da, Eliasen espirituz eta indarrez, gurasoak seme-alabekin adiskide-tzen, bihurriei zintzoen sena ematen eta Jaunarentzat herri egokia prestatzen». Zakariasek esan zion aingeruari: «Nola jakin dezaket hori gertatuko dela? Ni zaharra bainaiz, eta nire emaztea ere urteetan aurreratu».

Aingeruak erantzun zion: «Ni Gabriel naiz, Jainkoaren aurrean zerbitzari nagoena; berak bidali nau zuri hitz egitera, berri

San Dario, *martiria*. Santa Protasia, *birjina*.San Urbano V.a, 200. *aita santua*.San Anastasio I.a, *aita santua*.

on hau emateko. Baina begira, mutu geldituko zara, hitzik egin ezinik, hauek gertatu artean, ez baitituzu sinetsi nire hitzak, bere garaian bete behar dutenak».

Bitartean, herria Zakariasen zain zegoen, harriturik, santutegian hainbeste luzatzen zuelako. Atera zenean, ezin zien hitzik egin, eta ohartu ziren ikuskariren bat izan zuela santutegian. Bera keinuka ari zitzaien, mutu jarraitzen baitzuen. Tenpluko bere zerbitzu-egunak bukatuta, etxera joan zen. Egun batzuen buruan, haren emazte Elisabet haurdun gelditu zen; bost hilabetez etxetik atera gabe egon zen, eta bere baitarako zioen: «Hara zer egin duen Jaunak nire alde, jendearen aurrean nuen lotsa kendu nahi izan duenean».

Zakarias eta Elisabet zintzoak dira, baina Jainkoak ez die eman seme-alabarik. Gauza lotsagarria da Zakariasentzat, jada adin handikoa; baita Elisabetentzat ere, ustezko agorrieria egozten baitiote. Ulertezin gertatzen da Jainkoa batzuetan, baina haren asmo-bidean zeregin erabakitzailea beteko du bikote honek, izango duten semeak bezala. Enbor zaharretik muskil bat jaioko da, eta zaharren azkena eta berriaren hasiera iragarriko ditu. Baina horretako, denbora beharko da. Jainkoak ez du presarik. Horregatik, askotan ezin ulertu ahal izaten diogu.

**

HARK GINTUEN HAUTATU

(Leo Rock, s.j.)

Jainkoak hautatu gintuen
batak besteari agertzeko
Jainkoaren maitasun-aurpegia.
Jainkoaren hiztegia gara;
hitz biziak
Jainkoaren ontasunari ahotsa emateko
geure ontasun propioaz,
ahotsa emateko Jainkoaren
gupidari, samurtasunari,
ardurari eta leialtasunari
geure propioez.

§ Mikeas Profetaren liburutik 5,1-5a.

Honela mintzo da Jauna. Zu, Efratako Betleem, Judako herrixketan txiki hori, zugandik jaioko da Israelgo agintaria. Aspaldikoa da haren sortzea, betiereko egunetakoa. Horregatik utzi egingo ditu Jaunak, amak haur egin dezan arte. Orduan haren senide-hondarrak Israelgo semeetara itzuliko dira. Zutituko da, eta Jaunaren indarrez larratuko ditu, Jaunaren, beren Jaungoikoaren izen handiz. Lasai biziko dira, handi agertuko baita lurraren mugetaraino, eta hura izango da gure bakea.

[Sal 79: *Jainkoa, birbiztu gaitzazu; salba gaitezen, zure begia leun ager ezazu.*]

§ Hebrearrei idazkitik 10,5-10.

Senideok: Kristok, munduan sartzerakoan, hau dio: «Oparirik eta eskaintzarik ez zenuen nahi izan, baina gorputza eman zenidan niri; erre-oparirik eta bekatuentzakorik ez zitzaizun atsegin. Orduan esan nuen nik, nitaz Liburuan idatzita dagoena: Hona hemen ni, Jainko, zure nahia egiteko». Lehendabizi esaten du: «Oparirik eta eskaintzarik, erre-oparirik eta bekatuentzakorik, ez zitzaizun atsegin izan», hauek legez eskaintzen badira ere. Gero dio: «Hona hemen ni, zure nahia egiteko». Lehendabizikoa kendu eta bigarrena jartzen du. Nahi horren indarrez santu eginak gara, Jesu Kristok behin betiko egin zuen bere gorputzaren opariagatik.

† Jesu Kristoren Ebanjelioa San Lukasen liburutik 1,39-45.

Aldi hartan, Maria jaiki eta bizi-bizi mendi aldera joan zen, Judeako herri batera; eta Zakariasenean sartu, eta Elisabeti agur egin zion. Elisabetek Mariaren agurra entzun zuen orduko, jauzi egin zion haurrak sabelean. Elisabet Espiritu Santuaz bete zen, eta

Abendualdiko 4. astea.

Domingo santua Silos-koa, *abadea*.

esan zuen oihu handiz: «Bedeinkatua zu emakumeen artean, eta bedeinkatua zure sabeleko fruitua. Nondik niri, nire Jaunaren ama nigana etortzea? Zure agurra nire belarrietara iritsi orduko, jauzi egin dit haurrak pozez sabelean. Zorionekoa zu, sinetsi duzulako, beteko baitu Jaunak esan dizuna!».

Sinesteko zoriona, zerbitzatzeko zoriona. Mariak ezin eutsi dio eta presaka ekin dio bideari; bere lehengusinari lagundu nahi dio haurdunaldiaren azken aldera. Erabat ahaztu da bere buruaz, Elisabeten ongizateaz arduratzeko, haren lehen haurdunaldian. Poz-eztanda izan da Elisabetekin topo egitea. Hau Espiritu Santuaz «bete zen», Gizakundea gauzatu zuen Espirituaz beraz. Mendekostearen aurrerapen da pasadizoa. Haurrak jauzi egin du amaren sabelean. Benetan. Eta Elisabet Jainkoak inspiraturik mintzo da, une horretatik aurrera bere-bere egin baitu Jainkoak.

Elisabeten hitzei harridura, miresmena darie, Maria zerbitzari etorri zaiolako, laguntzera. Halaber, baiespen-hitz izan dira Maria-rentzat, sinetsi duelako zorionsu deklaratu baitu... Biena da poza, eta Maria Jainkoari eskerrak ematen hasi da, ozenki, Jainkoak mai-teago duelako jende apala, pobrea eta xumea, ezdeus dena, botere-tsuak eta aberatsak nahasteko. Jainkoa jardunean ari da Historian, burruntzalia sartzen du hartan guri salbazioa ekartzeko. Zakariasen eta Elisabeten etxean entzun zen lehen eguberri-kanta.

Abendualdiko 4. astea.

San Pedro Canisio, *apaiza eta eliz irakaslea.*

[Kantarik Ederrena liburutik 2,8-14: *Hara non datorren, mendiz mendi lasterka, nire maitea. Sal 32: Poztu zaitezte, zintzoak, Jaunagan, kanta iezaiozue kantu berri.*]

† Jesu Kristoren Ebanjelioa San Lukasen liburutik 1,39-45.

Aldi hartan, Maria jaiki eta bizi-bizi mendi aldera joan zen, Judeako herri batera, eta, Zakariasen etxean sarturik, Elisabeti agur egin zion. Elisabeti, Mariaren agurra entzun zuen orduko, jauzi egin zion haurrak sabelean. Elisabet Espiritu Santuaz bete zen, eta esan zuen oihu handiz: «Bedeinkatua zu emakumeen artean, eta bedeinkatua zure sabeleko fruitua. Nor naiz ni, nire Jaunaren ama ni ikustera etortzeko? Zure agurra nire belarrietara iritsi orduko, jauzi egin dit haurrak pozez sabelean. Zorionekoa zu, Jaunak esan dizuna beteko dela sinetsi duzulako!»

Gabriel goiaingeruaren eta Elisabeten artean eratu zuten *Agur Mariaren* lehen zatia. Ahogoza ezazu gaur hartako hitz bakoitza, haien esanahia dastatuz, hausnartuz, Andre Maria zeure ondoan irudikatuz. Erregutu iezaiozu Mariari, lagundu zaitzala haren Semeari harrera egiteko hurbileko eguberritan. Bizi ditzazula jai hauek fedesperientzia bezala, eta ez ospakizun sozial huts bezala. Emazkiozu eskerrak Andre Mariari, Jainkoaren Semeari haragi-odolak emateko agertu duen prestutasunagatik, gizaki batek gauzatu duen misiorik ederrena eta, aldi berean, latzena onartu duelako.

[1. Samuel 1,24-28: *Anak eskerrak ematen ditu, bere semea-
ren jaiotzatik. Salmoa: 1 Sm 2: Jauzika daukat bihotza Jauna-
gan, neure Salbatzaileagan.*]

† Jesu Kristoren Ebanjelioa San Lukasen liburutik 1,46-56.

Aldi hartan, Mariak esan zuen: «Handiesten du nire arimak Jauna, / pozaren pozez daukat neure barrua; / Jainkoa baita nire salbamea, / ikusi baitu mirabe honen ezereztasuna. / Dohatsu deituko naute gaurdanik gizaldi guztiek, / handiak egin baitzikit Ahalguztidunak: / Santua da haren izena, / eta haren errukia gizaldiz gizaldi, / beldur diotenengana. / Bere besoaren indarra erabili du, / buruharroak suntsitu ditu; / bota ditu beren aulkitik handiak, / eta gora jaso ditu ezerezak; / ondasunez bete ditu gose zeudenak, / eta esku-hutsik bidali asko zutenak. / Bere gain hartu du Israel, bere morroia, / errukia gogora zaiola; / gure gurasoei hala zien hitzemaia, / Abrahami eta ondorengoei betiko esana». Hiru hilabete inguru egon zen Maria Elisabetekin, eta gero etxera joan zen.

*M*agnificat kanta –hala deitzen diogu Mariaren honi– Bibliako esaldiak eta esapideak jaso ditu; zehazki, Salmoetakoak. Ez da, beraz, konposizio original bat, baina bizi-bizi islatzen du Mariaren bihotz-jarrera, Jainkoaren ama izateko hautatua izan delako. Ez da pozten bere buruaz, baizik Jainkoak jende pobreaki erreparatu diolako, jende xume eta apalari. Gainera, beragan bete direlako Jainkoak patriarkei egindako promesak. Azkena eta hasiera da Maria. Zaharrenak egin du, Berri Ona hastear dago.

[Malaquias 3,1-4.23-24: *Elias profeta bidaltzen dizuet, Jau-naren eguna etorri baino lehen. Sal 24: Zutitu zaitzte eta jaso zeuen burua: hurbil da zuen askapena.*]

† Jesu Kristoren Ebanjelioa San Lukasen liburutik 1,57-66.

Haurra izateko denbora bete zitzaionean, Elisabetek semea izan zuen. Jakin zuten auzokoek eta ahaideek zein erruki handia izan zion Jaunak, eta zorionak ematen zizkioten.

Jaio eta zortzigarren egunera, haurra erdaintzera eramán zuten, eta aitaren izena jarri nahi zioten, Zakarias. Amak, ordea, esan zuen: «Ez! Joan izango du izena». Esan zioten: «Ez duzue zuen senitartean inor izen hori duenik».

Orduan, aitari keinuka galdetu zioten zein izen eman nahi zion haurrari. Eta hark oholtxo bat eskatu eta idatzi zuen: «“Joan” du bere izena». Denak harriturik gelditu ziren. Bat-batean mihia askatu zitzaion Zakariasi, eta hitz egiten hasi zen eta Jainkoa goستن.

Beldurak hartu zituen auzoko guztiak, eta Judeako mendialde guztian zabaldu zen gertatuaren berri. Entzuten zuten guztiak beren baitarako esaten zuten: «Zer izango ote da ume hau?» Zeren Jainkoaren eskua harekin baitzegoen.

Sortzetik beretik, «misio-gizona» da Joan Bataiatzailea, goiaingeruak beraren aitari Tenpluan iragarri zion misioa du. Ezaugarri hori dela-eta Joanen izenak ez du zerikusirik beraren arbasoekin, baizik Jainkoak gomendatu dion eginkizunarekin. Egia esateko, Joanen misioa, alde batetik, kristau ororena bera da. Ez gara jaio geure gurasoentzat eta geuretzat bakarrik, baizik besteentzat. Guztiok dugu munduan misio komun bat: mundua hobexeagoa uztea bertatik joango garenean. Bestetik, bakoitzak bere misio partikularra du. Zein da zurea? Ba al dakizu?

Abendualdiko 4. astea.
Eguberri-bezpera

Jesusen arbasoak: Adam, Abraham, Jakob. David...

[2. Samuel 7,1-5.8b-12.141.16: *Daviden erreinuak betiko iraungo du Jaunaren aurrean. Sal 88: Jauna, zure maitasuna abestuko dut beti eta beti.*]

† Jesu Kristoren Ebanjelioa San Lukasen liburutik 1,67-79.

Aldi hartan, Zakarias, Joan hauraren aita, Espiritu Santuaz beterik, profeta bezala mintzatu zen, esanez: «Bedeinkatua Jauna, Israelen Jainkoa, agertu eta bere herria askatu duena! Salbamen-indarra digu eman, bere morroi Daviden ondorengoen artean. Hala hitzeman zuen antzinatik bere profeta santuen ahoz: salbatuko gintuela gure etsaien menpetik, gorroto gaituzten guztien eskutik. Horrela agertu du gure gurasoenganako errukia, eta oroitu da bere itun santuaz, gure guraso Abrahami egindako zinaz: Berak emango zigula, etsaien eskutik askaturik, beldur gabe bera zerbitzatzea, santu eta zuzen beraren aurrean, geure bizitza guztian. Zuri, berriz, haurtxo horri, Goi-goikoaren profeta deituko dizute, Jaunaren aurpegi aurretik joango baitzara hari bidea prestatuz, erakustearren haren herriari salbamina, beren bekatuen barkamena. Gure Jainkoaren errai errukitsuengatik, agertuko zaigu goiz-argia zero goitik, ilunpean eta herio-itzalean daudenei argi egitera, gure oinok bake-bidean zuzentzera».

Zakariasen esker-kanta, Mariaren *Magnificat* bezala, poz- eta askapen-kanta da. Jainkoak ez ditu eskutik uzten bere egiazko fededunak, ezta pobreenak ere. Modu erabakitzailean parte hartzen du Historian, guztiak babesteko eta salbatzeko. Azken hitza ez du, ez gaitzak, ez zuzengabekeriak. Joanen eta Jesusen jaiotzak seinale biziak dira, Jainkoak parte hartzen duela adierazteko eta gizakiari laguntzen diola bere behin betiko askapenerako bidea aurkitzen. Gabon gau honetan jaioko da Haurra. Kanpora kateak! Gora askatasuna!

§ Isaias Profetaren liburutik 9,1-3.5-6.

Ilunpean zebilen herriak argi handi bat ikusi zuen; herioitzalean bizi zirenak distira batek argitu zituen. Gehitu zenuen poza eta handitu atsegina; pozetan dabilta zure aurrean, igitaiaroan izaten den pozez, harrapakinak banatzekoan izaten den atseginez. Puskatu baituzu haren uztarri astuna, haren bizkarmakila, eta zapaltzailearen zigorra, Madiango egun hartan bezala. Haur bat jaio zaigu, seme bat eman zaigu; aginpidea sorbaldan darama, eta haren izena: Aholku-emaile harrigarri, Jaungoiko indartsu, Betiko Aita, Bake-errege. Bere erregetza zabal dezan, amairik gabeko bakea ezarriz; Daviden aulkian eta bere herrian. Sendotu eta indartu dezan, zintzotasunez eta zuzentasunez, gaurdanik eta betidaino, Diren guztien Jaunaren maite-minak egingo du hau.

[Sal 95: *Salbatzaile bat jaio zaigu gaur: Mesias, Jauna.*]

§ Paulo apostoluak Titori 2,11-14.

Agertu zaigu Jaungoikoaren grazia, gizon-emakume guztion salbamenerako. Jainkorik gabeko bizitzari eta munduko grina txarrei uko egiten, eta neurritz, zuzentasunez, eta jainko-zaletasunez mundu honetan bizitzen ikusten ditugula; zorioneko itxaropenari begira, Jesu Kristo gure Salbatzaile eta Jaungoiko handiaren agertze ospetsua itxaroten dugula. Hark gugatik eman zuen bere burua, gu gaiztakeria guztietatik ateratzeko eta bere herri garbi eta egintza onen zale egiteko.

† Jesu Kristoren Ebanjelioa San Lukasen liburutik 2,1-14.

Egun haietan, mundu guztiaren errolda egiteko agindua atera zuen Augusto enperadoreak. Lehen errolda hau, Siriako gober-

Jaunaren Jaiotza (Eguberri).
GAUERDIA.
Betleemeko Andre Maria.

nadore Kirino zela egin zen. Eta denak izena ematera joan ziren, bakoitza bere herrira. Jose ere, Daviden etxekoa eta jatorrikoa izanik, Galileako Nazaretetik Judeara igo zen, Betleem deritzan Daviden herrira, han bere emazte Maria haurdunarekin izen ematera. Han zeudelarik, haurra izateko egunak bete zitzaizkion Mariari. Eta bere lehen-semblea izan zuen eta, oihaletan bildurik, ganbela batean etzan; ez baitzen ostatuan haientzat lekurik. Baziren inguru hartan artzain batzuk, mendian gaua igaroz, beren artaldeak txandaka zaintzen zituztenak. Honetan, Jainkoaren aingeru bat agertu zitzaien; Jainkoaren aintzak argiz inguratu zituen, eta beldurrak jota gelditu ziren. Aingeruak esan zien: «Ez izan beldurrik; begira, poz handi baten berri ona dakarkizuet, herri guztiarentzat izango dena: salbatzailea jaio zaizue gaur Daviden herrian: Mesias, Jauna. Honetan ezagutuko duzue: oihaletan bildurik eta ganbelan etzanik aurkituko duzue haurra». Eta bat-batean aingeruari zerutar talde bat bildu zitzaion, Jainkoa goersten zutela, esanez: «Aintza zeruetan Jainkoari, eta bakea lurrean haren gogoko gizon-emakumeei».

Imajina itzazu Mariaren babesik eza eta larria, kale gorrian haurgintza-minak hasi zaizkiola eta inon aterpeturik ez duela nabaritzean. Eta Joserren erreakzioa. Haitzulo-ukuilu batean babestu dira eta han, ganadu artean, jaio da Jesus, Mesias, munduaren Salbatzailea, nola gizon-emakume izan erakutsiko digun Gizona. Mundu honetako pobreak bizi diren –bizirauten duten– milioika gizakiren zoria bera partekatuz jaio da.

Imajina ezazu nola izango zen hura guztia. Ahalegindu zaitetz zeuru egiten Mariak eta Josek izango zituzten sentimendu haiek. Begiraiozu haurrari. Besteak bezalako ninia da. Bere lehen komunika-

zio-keinua negarra du. Haragi egin den Jainkoaren Hitza jaioberri baten lantua da.

Kontenpla ezazu pasadizoa. Erregutu izeaiozu Jainkoari, eman diezazula, zuk ere nahiago izatea xume, txiki, ahul dena. Haurtxo bat, denerako, gurasoen esku dago. Ahalguztiduna Joserren eta Mariaren esku dago; bi galilear hauek beren lehen semearen jaiotza ospatzen ari dira miseriazko giro batean, baina poz sakonean. Behartsu eta alai.

Eta hau guztia nigatik egin du Jainkoak.

[EGUBERRI EGUNEKO MEZA]

§ Isaias Profetaren liburutik 52,7-10.

Bai ederrak direla mendi gainetan, bakea hots egiten duen mezulariaren oinak! Berri Ona zabaltzen eta salbamena iragartzen dabilenarenak! Sioni «gure Jaungoikoa errege da» esaten dionarenak! Entzun: zure zaintzaileak oihuka ari dira, irrintzika, guztiak batera; aurrez aurre ikusten baitute Jauna, berriro Sionera datorrela. Ekin kantari, guztiok batera, Jerusalemgo horma zahar eroriok; poztu baitu Jaunak bere herria; eta berrerosi du Jerusalem. Herri guztien aurrean erakutsi du Jaunak bere beso santuaren indarra, eta lurbiraren bazter guztiak ikusiko dute gure Jaungoikoaren salbamena.

[Sal 97: *Ikusi dute lur-muga denek gure Jainkoagandiko garaipena.*]

§ Hebrearrei idazkitik 1,1-6.

Askotan eta era askotara hitz egin zien Jaungoikoak Profeten bidez aspalditik gure arbasoei; eta, azkenak diren egun hauetan, Semearen bidez hitz egin digu. Seme hau egin zuen gauza guztien

Jaunaren Jaiotza (Eguberri).
GAUERDIA.
Betleemeko Andre Maria.

oinordeko, eta beraren bidez egin zuen mundua ere. Bera da, Aita-
ren aintzaren argi distiratsu eta haren izatearen irudi. Berak eusten
die gauza guztiei bere hitz indartsuz. Eta bekatuen garbikuntza
egin ondoren, goienean Guztiz Handiaren eskuin-aldean jarri-
rik dago: zenbat eta aingeruek baino goragoko izena jaso duen,
hainbat eta haiek baino gorago jarria. Izan ere, zein aingeruri esan
dio inoiz: «Nire Seme zara zu; nik zaitut gaur zu sortu»? Eta beste
behin: «Aita izango nau hark ni, eta hura Seme izango dut nik»?
Eta beste behin, bere Semea munduan sartzerakoan, dio: «Gurtu
bezate bera Jaungoikoaren aingeru guztiek».

† Jesu Kristoren Ebanjelioa San Joanen liburutik 1,1-18.

Hasieran bazen Hitza; eta Hitza Jainkoarekin zen; eta Jainko
zen Hitza. Hitz hau hasieran Jainkoarekin zen. Dena Hitzaren bi-
dez egina da, eta egindakoetan ez da ezer hura gabe eginik. Ha-
rangan zen bizia. Eta bizia gizakien argia zen. Argiak ilunpean
argi egiten du; baina ilunak hura ez zuen onartu. Agertu zen gi-
zon bat, Jainkoak bidalia: Joan zuen izena. Aitormenerako etorria
zen: argiaren aitormen egitera, haren bidez guztiek sinets zezaten.
Hura ez zen argia, argiaren aitormen egin behar zuena baizik. Hi-
tza zen, mundura etorritako gizon oro argitzen duen egiazko argia.
Munduan zegoen, eta mundua haren bidez egina da; baina mun-
duak ez zuen ezagutu. Bereetara etorri zen, eta bereek ez zuten
onartu. Onartu zuten guztiei, berriz, Jainkoaren seme-alaba iza-
teko ahalbidea eman zien, haren izenean sinesten badute. Hauek
ez dira odoletik sortu, ez haragiaren nahieratik, ezta gizakien na-
hieratik ere, Jainkoagandik baizik. Eta Hitza haragi egin zen, eta
gure artean jarri zuen bizilekua eta geuk ikusi dugu haren aintza,
Aita-ren Seme bakarrari dagokion aintza, graziaz eta egiaz betea.
Joanek hartaz egin zuen aitormen, oihuka esanez: «Hau da, nik

esan nuen hura: Nire ondoren datorrena nire aurrean jarria izan da, ni baino lehenagokoa baitzen». Eta haren betearen betetik, grazia graziaren gain hartu dugu guztiok. Legea Moisesen bidez emana izan da; grazia eta egia, berriz, Jesu Kristoren bidez etorri dira. Jainkoa ez du inork, inoiz ikusi; Aitaren altzoan dagoen eta Jainkoa den Seme bakarrak eman digu haren berri.

Eskerrak, Jauna; ikusirik gizakia, bekatua dela medio, nolako zorakerian, indarkerian eta zatiketean erori den, gu guzcion errukia izan baituzu.

Eskerrak, Jauna; gure galdukeria ikusirik, zure mina ez baita izan keinu gupidatsu bat bakarrik, baizik eta gure egoerari erremedioa jartzea erabaki baituzu, zeure Semea gutako bat eginez, gure izaeraren alde ona eta txarra parteka ditzan, eta irakats diezagun nola bihurtu gu benetako pertsona.

Eskerrak, Jauna; Maria, Nazaretoko herritar xume hori, zeure lankide izatea lortu duzulako, eta geure amatzat eman diguzulako, gizadi osoaren amatzat.

Eskerrak, Jauna; pobre eta isil, atentzioa deitu gabe jaio nahi izan duzulako, guk ere senti genezan, zuri xume eta soil jarraitzera deitzen gaituzula.

Eskerrak, Jauna; Betleemeko haur txiki, gizadia argitzen duen egiazko Argia zarelako eta zure zoria partekatzeko hautatu gaituzulako.

Horrengatik guztiarengatik, zure ontasuna eta maitasuna aitorzen duten guztiekin bat eginik, Jesus haurra, eskerrak bihotz-bihotzez.

Jaunaren Jaiotza (Eguberri).
GAUERDIA.
Betleemeko Andre Maria.

**

BETLEEMEKO HAURRARI
(San Joan XXIII.a)

Betleemeko Haur zoragarria, egizu, murgil gaitezela arima guztiaz Eguberritako misterio sakon honetan. Ezar ezazu gizon-emakumeen bihotzean bila dabiltzan bake hori, batzuetan halako indarkeriaz bilatzen dutena, baina zuk bakarrik eman dezakezuna. Lagundu guztiei, beren burua hobeto ezagutu eta Aita bat beraren seme-alaba bezala bizi daitezen.

Ager iezaiezu, orobat, zeure edertasuna, zeure santutasuna, zeure garbitasuna. Iratzar guztien bihotzean maitasuna, esker ona zeure ontasun mugarik gabearentzat. Elkartu itzazu guztiak zeure maitasunean. Eta emaguzu guztioi zeure zerutar bakea.

SAN ESTEBAN, LEHEN MARTIRIA.

Santa Bizenta Lopez Bikuña, *fundatzailea*
(*Maria Sortzez Garbiaren Erlijiosak*).

§ Apostoluen Eginak liburutik 6,8-10; 7,54-60.

Egun haietan, Estebanek, graziaz eta indarrez beterik, mirari eta ezaugarri handiak egiten zituen herriaren aurrean. Askatuena deritzan Sinagogako batzuk, jatorriz Zirene, Alexandria, Zilizia eta Asiakoak zirenak, eztabaidan hasi ziren Estebanekin. Baina ezin erantzun zioten haren jakinduriari eta haren hitzaren indarrari. Haren hitzak entzunda, beren bihotzak amorrus lehertzen zitzaizkien, eta hortz-karraskaz zeuden haren kontra. Estebanek, berriz. Espiritu Santuaz beterik, zerura begiratu eta Jaungoikoaren aintza ikusi zuen, eta Jesus zutik Jaungoikoaren eskuinean. Eta esan zuen. «Horra, zerua zabalik ikusten dut, eta Gizonaren Semea zutik Jaungoikoaren eskuinean». Orduan, haiek, garrasika, beren belarriak itxi zituzten, eta denak batean gainera etorri zitzaizkion, herritik kanpora bota eta harrika eman zioten. Testiguen, Saulo zeritzan gazte baten oinetan utzi zituzten beren soin-gainekoak. Estebanek, harrika ari zitzaizkion bitartean, otoitz hau esaten zuen: «Jesus Jauna, har ezazu nire arnasa». Gero belaunikaturik, hots handiz esan zuen: «Jauna, ez ezarri horien gain bekatu hau». Eta hori esanda, azken-arnasa eman zuen. Saulok, berriz, ontzat ematen zuen Estebanen hiltzea.

[Sal 30: *Zure eskuetan uzten dut, Jauna, nire arnasa.*]

† Jesu Kristoren Ebanjelioa San Mateoren liburutik 10,17-22.

Aldi hartan, Jesusek esan zien apostoluei: «Kontuz ibili jendearekin; beren auzitegietara eramango zaituzte, eta zigorkatuko beren sinagogetan. Eta Nigatik, agintari eta erregeetara eramango zaituzte, haien eta atzerritarren aurrean aitormen egin dezazuen. Eramaten zaituztenean, ez ibili buru hausten, zer eta nola esango. Emango zaizue zer esana. Izan ere, zuek ez, baino zuen

SAN ESTEBAN, LEHEN MARTIRIA.

Santa Bizenta Lopez Bikuña, *fundatzailea*
(*Maria Sortzez Garbiaren Erlijiosak*).

Aitaren Espiritua izango da zuengan mintzatuko dena. Senideak senidea eramango du heriotzara, eta aitak semea, eta umeak gurasoen aurka altxatuko dira eta hil egingo dituzte. Nire izenagatik guztiak begitan hartuko zaituzte; baina azkeneraino irauten duena salbatuko da».

Ematen du, ez dela oso egokia Betleemeko portalearen ondoan lehen kristau-martiriaren jaia ipintzea. Dena den, horrekin adierazi nahi da, Jesus fedez aitortzeak arriskuan jartzen duela bizia. Esteban honi gertatu zaion bezala, Kristoren kontrako argudioak gezurtatu ondoren, ikusten ari dena agertzera ausartu baita; hain zuzen, Jesu Kristo Jainko Aitaren aintzan ikusten duela. Esan nahi baita, Maria-gandik jaio den haurra Unibertsoaren Jauna dela. Eguberritan haur txiki dakusagu. Baina gizatasun hasiberri horretan jainkotasunaren bete bizi da. Adora dezagun, beraz, ganbelako belar ondu gainean, geure Jainkoa eta geure Jauna.

§ Siraken liburutik 3,3-7.14-17a.

Goresgarriago egiten du Jaunak aita, seme-alabak baino, eta amari eskubidea ematen dio bere umeen gainean. Aita goresten duenak bere bekatuak ordaintzen ditu, eta ama goresten duenak ondasunak pilatzen. Aita goresten duenak poza izango du bere seme-alabetan, eta otoitz-egunean entzun egingo zaio. Aita goresten duena luzaro biziko da, eta Jaunak entzuten dio, amari atsegin ematen dionari. Ene seme, iraun zure aita goratzen, eta ez utzi bizi deino. Burua galtzen badu ere, izan zakizkio bihotz handiko, eta ez gutxietsi bizi zareino; aitari emandako laguntza ez da ahaztuko, bekaturen ordain izango duzu; zoritxar-egunean, gogoan hartuko dizu Jaunak.

[Sal 127: *Dohatsu, Jaunaren beldur dena, haren bideetan dabilena!*]

§ Paulo apostoluak Kolosarrei 3,12-21.

Senideok: Jantzi zaitetze bihotz errukitsuz, onberatasunez, apaltasunez, egokitasunez, eramapenez, Jaungoikoaren herri aukeratu, santu eta maitea zaretenez gero. Eramazue ondo elkar eta barkatu batak besteari, inork inorentzat ezer baleuka. Jaunak barkatu dizuen bezala, barka zuek ere. Horien guztien gainetik, ordea, izan ezazue maitasuna; hori baita lokarririk bikainena. Kristoren bakeak agindu beza zuen bihotzetan, bake horretara deituak zaretenez gero gorputz batean, eta izan esker onekoak. Oparo bizi bedi zuengan Kristoren hitza: jakinduriarik osoenean elkar argituz eta berotuz; salmoak, gorazarreak eta goi-arnasazko abestiak Jaungoikoari bihotzez eta esker onez kantari. Edozer esaten edo egiten duzuela, egizue dena Jesu Kristo Jaunaren izenean, beraren bidez Jaungoiko Aitari eskerrak eman.

FAMILIA SANTUA.

San Joan, *apostolua eta ebanjelaria*.

† Jesu Kristoren Ebanjelioa San Lukasen liburutik 2,41-52.

Jesusen gurasoak Jerusalemera joaten ziren urtero Pazko-jaietan. Jesusek hamabi urte bete zituenean, Jerusalemera igo ziren jaietara, ohitura zen bezala. Jaiegunak bukatu zirenean, etxera itzuli ziren; Jesus haurra, ordea, Jerusalemen gelditu zen, bere gurasoek ez zekitela. Eta lagunen artean zetorrelakoan, egun bateko bidea egin ondoren, haren bila hasi ziren taldeko ahaide eta ezagunen artean. Baina aurkitzen ez, eta Jerusalemera itzuli ziren haren bila. Hiru egunen buruan, jauretxean aurkitu zuten, lege-maisuen erdian eserita, haiei entzuten eta galdezka. Entzuten zioten guztiak txunditurik zeuden haren adimenarekin eta ematen zituen erantzunekin. Gurasoak, ikusi zutenean, harriturik gelditu ziren. Amak esan zion: «Seme, baina zergatik egin diguzu hori? Horra nolako atsekabez ibili garen aita eta biok zure bila!» Hark orduan: «Zergatik ibili zarete nire bila? Ez al zenekiten, nik neure Aitaren etxean egon behar nuela?» Haiek, ordea, ez zuten ulertu Jesusek esan nahi zuena. Jesus Nazaretera jaitsi zen haiekin, eta haien menpean jarraitu zuen. Haren amak bere bihotzean gordetzen zituen gauza hauek guztiak. Jesus, berriz, aurrera zihoan jakintzan, gorpuzkeran eta grazian, Jainkoaren eta gizakien begietan.

Nazareteko sukaldean giro ona arnasten zen. Seguru gaude. Jesusek hamabi urte bete zituenean etorri zen atsekabea; judu-legean adin nagusitasuna lortu ohi zen hamabi urteak betetzean. Jesusen adin nagusiko lehen Pazko horrek oroitzapen gogorra utzi zien gurasoei, semearen misioaz. Adierazi gabe Tenpluan gelditzea ez zen gaztetxo baten egintza tipikoa. Bihotz-zabaltasun baten isuritik jaio zen; historian barna, Erreinuagatik bidezko afektuei (norberaren familiari) uko egin dietenen kasua bera da: bizitza sagaratua, zelibatua, Elizari erabat emana bizitzea.

Nazareteko familia ezin izan da eredia kristau-familia batentzat (Nazaretekoa atipikoa zen: seme bakarra, aitaordea, harreman sexualik ez); Erreinuko familia da eredia, non denok anai-arreba baikara, Kristo delarik anaia nagusia eta Jainkoa delarik Aita / Ama; familia bat, zeinetatik inor ez baita, ez inork kanporatua, ez inor auto-kanporatua. Familia bat, zeinetan kide berezi baitira mundu honetako pobretuak eta premiadunak. Familia bat, zeinetan ezkongabeak eta ezkonduak baitira, laikoak eta liberatuak. Kide desberdinak, egiteko desberdinak dituztelarik, baina gorputz bat osatuz: Kristorena. Jainkoaren familia dira.

**

FAMILIA SANTUARI

(Frantzisko aita santuak)

Jesus, Maria eta Jose, / zuengan kontenplätzen dugu / benetako maitasunaren distira, / zuengana, fidaturik, goaz.

Nazareteko Familia Santua, / egin itzazu gure familiak ere / elkartasun-leku eta otoitz-afaltoki, / egiazko Ebanjelio-eskola / eta etxeke Eliza txiki.

Nazareteko Familia Santua, / ez dadila izan sekula gehiago familitan / indarkeriazko, temakeriazko eta zatiketazko pasadizorik; / zauritua edo eskandalizatua izan dena / izan dadila laster kontsolatua eta sendatua.

Nazareteko Familia Santua, / [Familiari buruzko Sinodoaren irakaspenek] / harraraz diezagutela guztioi kontzientzia / familiaren izaera sakratu eta hautsezinaz, / Jainkoaren asmoan duen edertasunaz.

Jesus, Maria eta Jose, / entzun, onar gure erregua.

Amen.

Haurtxo Errugabe Santuak, martiriak.

§ San Joan Apostoluaren 1. gutunetik 1,5-2,2.

Senide maiteok: Hau da, guk Jesu Kristori entzunik, zuei hots egiten dizuegun berria: Jaungoikoa argia dela, eta harengan ilunik batere ez dela. Harekin elkartasunean gaudela esan, eta ilunpean bagabiltza, gezurra diogu hitzez eta egintzaz. Baina hura argian dagoen bezala, gu ere argian bagabiltza, bata bestearekin elkartasunean gaude, eta haren Seme Jesusen odolak bekatu guztitik garbitzen gaitu. Bekaturik ez daukagula esaten badugu, geure burua engainatzen dugu, eta ez dago egiarik gugan. Gure bekatuak airtortzen baditugu, ordea, leiala eta zintzoa den hark barkatuko dizkigu bekatuak, eta gaiztakeria guztitik garbituko gaitu. Bekaturik ez dugula egin esaten badugu, gezurti egiten dugu Jainkoa eta haren hitza ez dago gugan. Ene semeok, bekaturik egin ez dezazuen idazten dizuet hau. Hala ere, norbaitek bekatu egiten badu, hor dugu geure bitarteko Aitaren aurrean Jesu Kristo, Zintzoa. Bera da gure bekatuen ordain-oparia, eta ez gure bekatuena bakarrik, baita mundu guztiko bekatuena ere.

[Sal 123: *Gure bizia hegaztia bezala doa ihesi ehiztarien sarretik.*]

† Jesu Kristoren Ebanjelioa San Mateoren liburutik 2,13-18.

Magoek alde egitean, Jaunaren aingerua agertu zitzaion Joseri, esanez: «Jaiki, hartu haurra eta ama, eta zoaz ihes Egiptora, eta egon han, nik esan arte; Herodes, haurra hil nahian ibiliko da eta». Jaiki zen Jose, hartu zituen haurra eta ama gauez, eta Egiptora joan zen eta han egon, Herodes hil zen arte; horrela bete zen profetaren ahoz Jaunak esandakoa: «Egiptotik dei egin nion neure semeari». Orduan, Herodes, Magoek iruzur egin ziotela ikusirik, biziro haserretu zen, eta Betleemen eta inguruetan bi urtez

beherako ume guztiak hiltzeko agindu zuen, Magoengandik ja-kindakotik adin hori gutxi gorabehera erabakiz. Orduan bete zen, Jeremias profetak esana: «Oihu bat entzun da Raman, / negar eta garrasi ugari: / Rakel da, bere umeengatik negarrez, / eta ez du poztu nahi, ez baitira bizi».

Milioika eta milioika dira helduarora iritsi ez diren haurrak, gaixotasuna dela bide, elikatze okerra dela bide, akidura edo indarkeria dela bide. Kontaezina da errugabeen kopurua, beren odolaz bes-teen delituak edota deliturik eza ordaindu dituztenena: soilki, aski izan da pertsona bat hiltzeko, beste etnia batekoa izatea, beste herri batekoa, beste generokoa, beste klase sozial batekoa, beste erlijio edo ideologia batekoa; batzuetan hiltzen ikusteko gustu hutsagatik edota halakoen gurasoei sufriarazteagatik. Halako izugarrikeria hori eta haurren kontra egina, jasanezin bihurtzen da bihotz erdi sentibera bantentzat. Erregutu diezaiogun gaur Jaunari, hasiberritan ebakiak izan diren bizitza horiengatik.

Eguberri ondoko 5. eguna.

Tomas Becket santua, *gotzaina eta martiria.*San David, *erregea.*

[1. Joan 2,3-11: *Bere senidea maite duena argian dago. Sal 95: Poztu bedi ortzia, alaitu lurra.*]

† Jesu Kristoren Ebanjelioa San Lukasen liburutik 2,22-35.

Mariarentzat, Moisesen Legearen arabera, garbikundeko egunak bete zirenean, gurasoek Jerusalemara eraman zuten Jesus, Jaunari aurkezteko, Jaunaren Legean idatzirik baitago: «Lehen seme oro Jaunari eskainia izango da», eta opari egiteko, Jaunaren Legeak agintzen duen eran: «Bi usapal edota bi usakume». Simeon izeneko gizon bat bizi zen orduan Jerusalemen, gizon zintzo eta jainkozalea, Israelen poza itxaron zuena, eta Espiritu Santua berekin zuena. Espiritu Santuak adierazi zion ez zuela heriotzarik ikusiko, Jaunaren Mesias ikusi arte. Eta Espiritu Santuak eraginda jaurettxera joan zen. Gurasoek Jesus eraman zutenean, Legeak agindua harekin betetzera, hartu zuen Simeonek haurra besoetan eta Jainkoa bedeinkatu zuen, esanez: «Orain utz dezakezu, Jauna, / morroi hau bakean joaten, / zeuk hitzeman bezala. / Ikusi baitute nire begiok zugandiko salbamena, / herri guztien aurrean ipini duzuna: / Atzerritarrak argitzeko argia, / eta zure herri Israelen edergarria». Haurraren aita-amak harrituta zeuden, haurrarenatik esaten zirenekin. Eta Simeonek bedeinkatu zituen, eta haurraren ama Mariari esan zion: «Begira, israeldar asko erortzeko eta beste asko altxatzeko ipinia dago hau, eta eztabaida sortuko duen ezaugarri izango da, horrela bihotz askotako asmoak argitan ager daitezten, eta zeuri ezpata batek alde zulatuko dizu arima».

Bizi oro, azken batean, Jainkoagandik dator. Israeldarrek lehen jaiioak, gizon eta animalia, eskaintzen zizkieten Jainkoari, eta uztaren hasikinak ematen. Eskerrak emateko modu bat zen, Jainkoaren dohain honengatik. Yahvek pertsonak hiltzen uzten ez zielako, animaliak hiltzen zituzten ordezko bezala. Behartsuek, Jesusen gurasoek

adibidez, tasarik txikiena ordaintzen zuten: uso-pare bat. Mariak eta Josek ere erritua bete nahi izan dute; izan ere, inor izatekotan, Jesus da dohain handia. Benetan, neurriz gainezka egin du Jainkoaren mai-tasunak eta eskuzabaltasunak bere Semea guri ematean. Emazkiozu eskerrak zeure Aitari Jesu Kristo erregalu neurrigabeko honengatik.

GIZAKUNDEA
(*Ignacio Iglesias, s.j.*)

Neure neurriko.

Ni neu bezala ahul, pobre eta bakarrik!

Hain nekatua, Jauna, eta hain mindua
gizon-emakumeen minez!

Hain gose zeure Aitaren nahiaz
eta hain egarri, Jauna, edan zaitzaten...

Zu, indarra eta egia zarena,

bizia eta bidea;

den guztiaren hizkuntzaz zara mintzo,
garen guztioz.

Egarria duzu asetzen, gurea eta landakoa,
gizon-emakumeen putzu ondoan eseririk.

Zeure sorbalda nekatua hurbildu duzu nire nekera
eta eskua didazu luzatu fedea koloka denean
eta hondoratzen ari naizela sentitzean.

Zu, jada dakizuna ari zara ikasten,

negar eta barre egiten duzu ikasten guk bezala.

Zu, Jainkoa; zu, gizona; zu, emakumea; zu, agurea,

zu, haurra eta gaztea; zu, zerbitzaria zeure gogoz,

azken zerbitzaria, guztien zerbitzaria...

Zu, gurea. Zu, gu!

Eguberri ondoko 6. eguna.

San Felix I.a, 26. aita santua.

[1 Joan 2,12-17: Jainkoaren gogoia egiten duena betiko da. Sal 95: Poztu bedi ortzia, alaitu lurra.]

† Jesu Kristoren Ebanjelioa San Lukasen liburutik 2,36 40.

Aldi hartan, bazen profetesatzaile bat ere, Ana zeritzana, Fanuelen alaba, Aserren jatorrikoa. Urteetan oso aurreratua zen; gaztetan ezkondu eta zazpi urtez senarrarekin bizi ondoren, alargun gelditu zen, eta bazituen laurogeita lau urte. Gau eta egun tenpluan egoten zen, barau eta otoitz, Jainkoa zerbitzatzen. Ordu hartan han gertatu zen, eta Jainkoa goستن eta haurraz mintzatzen hasi zitzaizen Jerusalem askatasunaren zain zeuden guztiei. Jesusen gurasoak, dena Jainkoaren legeak agintzen duen bezala bete ondoren, Galileara itzuli ziren, beren herri Nazaretera. Haurra hazten eta indartzen zihoan, ja-kinduriaz betetzen ari zen, eta Jainkoaren grazia berekin zuen.

Pentsatzen dugu, Kristok gurutzean salbatu duela gizadia edota, gure maisu izanik, bere jarreraz eta bere hitzez. Halaber salbatzen du Jesusek mundua laiko bezala, ezer harrigarririk egin gabe, bere bizitzako zatirik handiena Galileako herrirako bateko mundu txikiari atxikirik. Ez dira bokazio handiak eta txikiak. Nazareteko Jesusen bizitzak erakusten digu, noiznahi, nonahi eta era anonimoan atsegin dezakegula Jainkoa, berak bizitza normal eta arrunt hori eskatzen badigu. Horixe eskatu zion Jainkoak Jesusek lurrean egin zuen bizitza handiaren.

Eguberri ondoko 7. eguna.

San Silvestre I.a, *aita santua*.Santa Columba, *birjina eta martiria*.

[1 Joan 2,18-21: *Zuek Santuagandik hartu duzue oliadura, eta zuek guztiok dakizue hori. Sal 95: Poztu bedi ortzia, alaitu lurra.*]

† Jesu Kristoren Ebanjelioa San Joanen liburutik 1,1-18.

Hasieran bazen Hitza; eta Hitza Jainkoarekin zen, eta Jainko zen Hitza. Hitz hau hasieran Jainkoarekin zen. Dena Hitzaren bidez egina da, eta egindakoetan ez da ezer hura gabe eginik. Harrengan zen bizia. Eta bizia gizakien argia zen. Argiak ilunpean argi egiten du; baina ilunak hura ez zuen onartu. Agertu zen gizon bat, Jainkoak bidalia: Joan zuen izena. Aitormen egiteko etorria zen: argiaren aitormen egiteko, haren bidez guztiok sinets zezaten. Hura ez zen argia, argiaren aitormen egin behar zuena baizik. Hitza zen, mundura etorritako gizon oro argitzen duen egiazko argia. Munduan zegoen, eta mundua haren bidez egina da; baina munduak ez zuen ezagutu. Bereetara etorri zen, eta bereek ez zuten onartu. Onartu zuten guztiei, berriz, Jainkoaren seme-alaba izateko ahalbidea eman zien, haren izenean sinesten badute. Hauek ez dira odoletik sortu, ez haragiaren nahieratik, ezta gizakien nahieratik ere, Jainkoagandik baizik. Eta Hitza haragi egin zen, eta gure artean jarri zuen bizilekua eta geuk ikusi dugu haren aintza, Aitaren Seme bakarrari dagokion aintza, graziaz eta egiaz bete. Joanek hartaz egin zuen aitormen, oihuka esanez: «Hau da, nik esan nuen hura: Nire ondoren datorrena nire aurrean jarria izan da, ni baino lehenago baitzen». Eta haren betearen betetik, grazia graziaren gain hartu dugu guztiok. Legea Moisesen bidez emana izan da; grazia eta egia, berriz, Jesu Kristoren bidez etorri dira. Jainkoa ez du inork inoiz ikusi; Aitaren altzoan dagoen eta Jainkoa den Seme bakarrak eman digu haren berri.

Eguberri ondoko 7. eguna.San Silvestre I.a, *aita santua*.Santa Columba, *birjina eta martiria*.

Urteko azken egun hau une egokia izan daiteke alde onak eta txarrak ikusteko. Ez, noski, ekitaldi-kontuak ixten dituen batek bezala, baizik, Jainkoaren begiz, urtean bizi izan ditugun gertakari nagusienak, on ala txar, birbizitzeko. Neure ikuspegi hutsa den hori desegiten ahaleginduko naiz, eta, Jainkoaren argian, zein tranpatan erori naizen eta zeinetatik libratu naizen ikusiko dut. Eskerrak eman-go dizkiot hartu dudan horrenbeste dohainengatik, eta bere maitasuna eta laguntza eskatuko diot, hastear den urtean leialago izan nakion.

HAR EZAZU

(Mahatma Gandhi)

Hartzazu irribarre bat
eta emaiozu sekula izan ez duen bati.
Hartzazu eguzki-izpi bat
eta hegarazi ezazu gaua nagusi den hartara.
Aurki ezazu iturri bat
eta bainarazi ezazu han lokatzetan bizi dena.
Hartzazu malko bat
eta ipin ezazu sekula negarrik egin ez duen baten masailean.
Hartzazu adorea
eta ipin ezazu borroka zer den ez dakien baten bihotzean.
Aurki ezazu bizia
eta konta iezaiozu hura sumatzen ez dakien bati.
Hartzazu esperantza
eta bizi zaitetz haren argian.
Hartzazu ontasuna
eta emaiozu ematen ez dakienari.
Aurki ezazu maitasuna
eta emaiozu munduari ezagutzera.

OTOITZAK ETA DEBOZIOAK

Otoitzak

EGUNERO

GURUTZE SANTUAREN

† Gurutze santuaren seinaleagatik, gure etsaiengandik zaindu gaitzazu, Jauna, gure Jainkoa. Aitaren, eta Semearen, eta Espiritu Santuaren izenean. Amen.

GURE AITA

Gure Aita, zeruetan zarena:
santu izan bedi
zure izena,
etor bedi zure erreinua,
egin bedi zure nahia,
zeruan bezala lurrean ere.
Emaguzu gaur
egun honetako ogia;
barkatu gure zorrak,
guk ere geure zordunei
barkatzen diegunez gero;
eta ez gu tentaldira eraman,
baina atera gaitzazu gaitzetik.

AGUR MARIA

Agur, Maria,
graziaz betea:
Jauna da zurekin:
bedeinkatua zara zu
andre guztien artean,
eta bedeinkatua da
zure sabeleko fruitua Jesus.
Santa Maria,
Jaungoikoaren ama,
erregutu ezazu
gu bekatarion alde
orain eta
gure heriotzako orduan. Amen.

AINTZA AITARI

–Aintza Aitari, eta Semeari, eta Espiritu Santuari.
–Hasieran zen bezala, orain eta beti,
gizaldi eta gizaldietan. Amen.

ANGELUS (goizean, eguerdian eta arratsean)

–Jaunaren aingeruak Mariari adierazi zion.
–Eta Espiritu Santuaren egitez sortu zuen.
Agur, Maria, graziaz betea...
–Hona hemen ni, Jaunaren mirabea.
–Gerta bekit zuk diozun bezala.
Agur, Maria, graziaz betea...
–Eta Jainko Semea gizon egin zen.
–Eta gure artean bizi izan zen.
Agur, Maria, graziaz betea...
–Otoitz egizu gure alde, Jainkoaren Ama santu horrek.
–Jesu Kristo gure Jaunaren aginduak irabaz ditzagun.

Egin dezagun otoitz: Isur ezazu, Jauna, gure bihotzean zure grazia, eta, aingeruak esanik, zure Seme Jesu Kristo gizon egin dela jakin dugunok, egizu haren nekaldi eta gurutzearen bidez eta Andre Mariaren otoitzari esker, irits gaitzela piztueraren ospera. Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez. Amen.

REGINA COELI (Zeruko erregina) (Pazkoaldian)

- Zeruko erregina, poztu zaitetz, aleluia.
- Sabelean ekarri zenuena, aleluia.
- Piztu baita agindu bezala, aleluia.
- Otoitz egiozu gure alde Jainkoari, aleluia.
- Egizu gainez, Andre Maria, aleluia.
- Jauna egiaz piztu baita, aleluia.

Egin dezagun otoitz: Jesu Kristo gure Jauna, zure Semea, piztuz, mundua pozez bete duzun Jainkoa; egizu, arren, Andre Maria haren Amaren otoitzari esker, irits gaitzela betiko pozak gozatzera. Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez. Amen.

GOIZEAN

ESKERRAK EGUNSENTIAGATIK

Eskerrak, Jauna, egunsentiagatik;
eskerrak egun berriagatik;
eskerrak Eukaristiagatik;
eskerrak Andre Mariagatik.
Eta eskerrak gure erromesaldiko
ordu bakoitzagatik.
Eskerrak zure bakearen eta maitasunaren,
pozaren eta oinazearen
jainkozko dohainagatik,
zure bidelagun garenean.

EGUNAREN ESKAINTZA

Jainko, ene Aita,
eskaintzen dizkizut
neure lan-egun hau,
neure otoitzak, pentsamenduak,
sentimenduak eta desioak,
hitzak, egintzak,
pozaldiak eta sufrimenduak,
zure Seme Jesu Kristorekin bat eginik;
zuri bere burua eskaintzen jarraitzen baitu hark
Eukaristian munduaren salbaziorako.

Espiritu Santua,
Jesus gidatu zuena,
izan dadila nire gidari eta indar egun honetan,
ni zure maitasunaren lekuko izan nadin.

Mariarekin, Jaunaren eta Elizaren Amarekin,
bereziki erregutzen dizut
Aita Santuak eta gure gotzainek
hilabete honetako dituzten asmoentzat.

LANALDIAN

EGUNEROKO LANA (Tarteko ordua)

Eguneroko gure lana, Jauna,
santutu dezala zure maitasunak;
bihur ezazu haren nekea maitasun-poz,
emateko baitiguzu zuk eman.
Jasan beharra eta luzea da gure egitekoa
zain dagoen maitasunaren gau ilunean;
arimako apopilo eztia,
ahul dabilenari emaiozu zeure argia,

aringarri den zeure indarra.
Bideko geure geldialdi gozoan,
Jainkoari eskerrak emateko gogoa izan dezagun;
jainkozko dohainaren esperantza
azkenik gabe baitigu ematen;
horrela, dena baitezake harengan
berez ezer ez dezakeenak.
Amen.

MAHAIA BEDEINKATZEA

OTORDU AURRETIK

† Bedeinka gaitzazu, Jauna,
eta bedeinkatu hartzera goazen janari hauek,
zuk, guztiz onbera, emanak baitira.
Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez. Amen.
Betiko aintzaren Erregeak eman diezagula
zeruko mahaian otordu-kide izatea. Amen.

OTORDU ONDOREN

Eskerrak, Jauna,
zuk emanik,
hartu ditugun mesede guztiengatik.
Errege bizi baitzara gizaldiz gizaldi. Amen.

ARRATSEAN

ESKERRAK EGUNA BUKATZEAN

Eskerrak, Jauna, / eguna bukatzean / zuri eskertzeko aukera du-
gulako, / zure heriotzaren merezimenduak / eta Eukaristiako ogia
/ alaitasun betean / eta zurekiko elkertasunean bana bizi izan di-
tugulako; / fedea, maitasuna, esperantza / eta gure loa, / gorespen
apal bihurtzeko, / zure graziaren ontasun hau / bizi izan dugulako.

LO HARTU AURRETIK

Begiak, / ezpainak eta bihotza, / eguna bukatzean, / itxi aurretik,
/ gau on, Aita Jainkoa!

Eskerrak, zeure maitasunaz / eman dizkiguzun grazia guztien-
gatik; / asko badira gure zorrak, / mugarik gabea duzulako zeure
barkazioa.

Bihar, / zeure ondoan, / hobeto zerbitzatu nahi zaitugu. / Zure
hegalen pean, bana gure Aita, babestu gaitzazu. / Egon zaitez
gure ondoan, / eta bedeinka gaitzazu.

Begiak, / ezpainak eta bihotza, / eguna bukatzean, / itxi aurretik,
/ gau on, Aita Jainkoa!

ESPIRITU SANTUARI

ZATOZ, ESPIRITU SANTUA (deia)

–Zatoz, Espiritu Santua, bete zeure fededunon bihotza

–eta piztu gudan zeure maitasunaren sua.

–Bidal ezazu, Jauna, zeure Espiritua.

–Eta berritu lur-azala.

Egin dezagun otoitz: Jainko Aita, zeure fededunen bihotza Es-
piritu Santuaren argiaz argitu duzu; egizu, onar ditzagula haren
inspirazioak, beti on dena dastatzeko eta haren kontsolamenduz
gozatzeko. Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez. Amen.

VENI SANCTE SPIRITUS (Mendekosteko sekuentzia)

(Orixe, ukitu bakan batzuekin)

Zatoz, bai, Gogo Guren

eta bidal zerutik

zure argi izpia.

Zatoz, gaixoen Aita,

zatoz, dohain emaile,

zatoz, bihotzen argi.

Poz-emaile bikaina,
etxelagun atsegin,
sargorian haize fin.
Lan artean atsedan,
nekean aringarri,
malkoetan pozgarri.
Zure laguntza gabe
ez du pertsonak ezer,
ez du ezer on denik.
Garbi, zikin dagona,
busti, lehor dagona,
zauriak oro senda.
Zurrun dena bigundu,
makur dena zuzendu,
hotz dagona berotu.
Zugan usteon duten
zintzoei isuri
zazpi dohain zerutik.
Zintzo saria eman,
osasun hil artean,
poza betierean.
Amen.

VENI, CREATOR SPIRITUS (testu latinoan)

Veni, Creator Spiritus,
mentes tuorum visita.
Imple superna gratia
quae tu creasti pectora.
Qui diceris Paraclitus,
Altissimi donum Dei,
fons vivus, ignis, caritas,
et spiritalis unctio.

Tu septiformis munere,
digitus paternae dexterae,
tu rite promissum Patris,
sermone ditans guttura.
Accende lumen sensibus,
infunde amorem cordibus,
infirma nostri corporis,
virtute firmans perpeti.
Hostem repellas longius,
pacemque dones protinus,
ductore sic te praevio,
vitemus omne noxium.
Per te sciamus da Patrem,
noscamus atque Filium,
teque utriusque Spiritum
credamus omni tempore.
Deo Patri sit gloria,
et Filio qui a mortuis
surrexit, ac Paráclito
in saeculorum saecula. Amen.

VENI CREATOR SPIRITUS

ZATOA ZINTZOEN BARNERA

(Orixe ukitu bakan batzuekin)

Zatoz zintzoen barnera,
Gogo Guren sortarazle;
bete graziz bihotz hauek,
zu baitzaituzte egile.
Poz-emaile deritzozu,
Goiko Jaunaren dohain,
ur bizi, su, maitasun,
eta gantzu zerukoia.
Zazpi dohainen isurle,

Aitaren eskuin hatza,
apostoluei hitzeman,
haien ahoetan hitza.
Argi zaiguzu zentzua,
suaz sutu bihotza,
indar horretaz sendatu
argal daukagun gorputza.
Haiza gugandik etsaia
eman berehala bakea,
zu aurretik zaitugula,
urrun zaiguzu kaltea.
Erakuts eiguzu Aita,
harekin Semea ere;
bien Arnasa duguna
sinets zagun beti ere.
Aitari, ta hilengandik
berpiztu zen Semeari
eta Gogo Gurenari
edertasun orain, beti. Amen

EUKARISTIA

BEDEINKATUA JAINKOA (Eukaristia adoratzean)

Bedeinkatua Jainkoa.
Bedeinkatua haren izen santua.
Bedeinkatua Jesu Kristo, egiazko Jainkoa eta egiazko gizona.
Bedeinkatua Jesusen izena.
Bedeinkatua haren bihotz txit santua.
Bedeinkatua haren odol txit baliotsua.
Bedeinkatua Jesus aldareko sakramentu santuan.
Bedeinkatua Espiritu Santu kontsolatzailea.
Bedeinkatua Jainkoaren Ama, Maria txit santua.
Bedeinkatua haren sortze santu eta garbia.
Bedeinkatua haren zeruratze aintzatsua.

Bedeinkatua Maria birjina eta amaren izena.
Bedeinkatua San Jose, haren senar txit garbia.
Bedeinkatua Jainkoa bere aingeru eta santuengan.

Egin dezagun otoitz: Jesu Kristo gure Jauna, sakramentu miresgarri honetan zeure nekaldiaren oroitzapena utzi diguzu; arren erregutzen dizugu: beneratu ditzagula zure gorputz-odolen misterio santuak, zure salbamenaren fruituak geuregan etengabe sentitzeko moduan. Errege bizi baitzara gizaldi eta gizaldietan. Amen.

KOMUNIO ESPIRITUALA

Sinesten dut, Jesus,
presente zaudela aldareko sakramentu santuan.
Maite zaitut gauza guztien gainetik,
eta neure bihotzean hartu nahi zaitut.
Baina, une honetan ezin dudalarik hori egin,
zatoz espirituz nire bihotzera.
Ez utzi niri, ene Jesus, zugandik sekula apartatzen.

GURUTZE BIDEA

V/. Adoratzen zaitugu, Kristo, eta bedeinkatzen.
R/. *Zeure gurutze santuan mundua salbatu zenuelako.*
V/. *Egin dezagun otoitz:* Jesu Kristo gure Jauna! Gurutzea hartzera gonbidatu gaituzu, eta gure aurretik zoaz etsenplu emanaz; emazkiguzu zeure argia eta grazia: Gurutze-bide honetan zure urratsak gogoan hausnartzean, izan gaitezela gai eta izan dezagula gogo bizia zuri jarraitzeko.
Nazaretako Maria, Doloretako Ama izan zinen; inspiratu guri, Jainko den zeure Semeari bide honetan atsekabez jarraitzean izan zenituen maitasun-sentimenduak.
R/. *Amen.*

GELDIALDIAK

*Lehen geldialdia: Jesus hiltzera kondenatua.
(geldialdi bakoitzaren ondoren segidako hau errepikatzen da)
V/. Adoratzan zaitugu, Kristo, eta bedeinkatzen.
R/. Zeure gurutze santuan mundua salbatu zenuelako.*

*Bigarren geldialdia: Jesus gurutzera daramala.
Hirugarren geldialdia: Jesus erori lehen aldiz.
Laugarren geldialdia: Jesusek Amarekin topo.
Bosgarren geldialdia: Zirenearrak Jesusi lagundu.
Seigarren geldialdia: Veronikak Jesusi aurpegia xukatu.
Zazpigarren geldialdia: Jesus erori bigarren aldiz.
Zortzigarren geldialdia: Jesus eta Jerusalemgo emakumeak.
Bederatzigarren geldialdia: Jesus erori hirugarren aldiz.
Hamargarren geldialdia: Jesus erantzi eta biluztu.
Hamaikagarren geldialdia: Jesus gurutzean josi.
Hamabigarren geldialdia: Jesus gurutzean hil.
Hamahirugarren geldialdia: Jesus gurutzetik jaitsi.
Hamalaugarren geldialdia: Jesus hilobian.
Hamabosgarren geldialdia: Jesus berpiztu.*

V/. *Egin dezagun otoitz:* Begiratu, Aita, begi onez zeure seme-ala-ba hauei; Jesu Kristo gure Jaunak ez zuen dudarik izan, gu guztiongatik gurutzeko heriotzara joateko; egizu: haren nekaldiaz eta gurutzeaz gogoeta egin ondoren, parte har dezagula harekin batean haren Piztueraren aintzan. Jesu Kristo gure Jaunaren birtartez eskatzen dizugu, Errege bizi baita zurekin gizaldiz gizaldi.
R/. *Amen.*

ANDRE MARIARI

SALVEA

Agur, erregina, ama errukiorra,
gure bizi, gozo eta itxaropena, agur!

Zuri deiez gaude Evaren ume erbestetuok;
zuri aiezka, antsiatz eta negarrez
negar-herri honetan.

Ea, bada, itzul itzazu gugana
zeure begi errukitsu horiek,
eta erbeste honen ondoren
erakutsiezaguzu Jesus,
zure sabeleko Seme bedeinkatu hori.

O bihozbera! O errukiorra!

O Maria Birjina gozoa!

–Otoitz egizu gure alde, Jainkoaren Ama santua.

–Jesu Kristo gure Jaunaren promesak iristeko gai izan gaitezen.

ZURE BABESERA GATOAZ (Sub tuum praesidium)

Zure babesera gatoz ihesi,
Jainkoaren Ama;
gure otoitzei ez eman esker txarrik
behar ordu estuan;
arrisku guztietatik
onez atera gaitzazu,
Birjina eder eta bedeinkatua.

BEDEINKATUA ZU AMA TXIT GARBIA

Bedeinkatua zu Ama txit garbia / eta izan halakoa betikotasun
osoan, / Jainkoa bera baitago txoratzen / zuri, graziaz hain eder,
begira.

Zuri, zeruko printzesa, / Andre Maria santua, / eskaintzen dizki-
zut gaurdanik / arima, bizia eta bihotza.

Begira niri errukitsu, / ez ni eskutik utzi, Ama maitea.

ARROSARIO SANTUA

POZEZKO MISTERIOAK (*astelehena eta larunbata*)

1. Jainkoaren Semea gizon egina.
2. Andre Mariak bisita Elisabet lehengusinari.
3. Jainkoaren Semea jaio.
4. Jesus Haurra Tenpluan aurkeztu.
5. Jesus Haurra galdu eta Tenpluan aurkitu.

DOLORETAKO MISTERIOAK (*asteartea eta ostirala*)

1. Jesusen otoitza Getsemaniko baratzean.
2. Jesus zigortua.
3. Jesusen arantzazko koroia.
4. Jesus gurutzea lepoan duela.
5. Jauna gurutzean hil.

AINZAZKO MISTERIOAK (*asteazkena eta igandea*)

1. Jesus Jauna piztu.
2. Jesus Jauna zerura igo.
3. Espiritu Santua jaitsi.
4. Andre Maria zeruratu.
5. Andre Maria koroatu.

MISTERIO ARGITSUAK (*osteguna*)

1. Jesus bataiatua Jordan ibaian.
2. Jesus agertu Kanako ezteietan.
3. Erreinua hots egin, bihotz-berritzeko deia eginez.
4. Jesus antzaldatu.
5. Jesusek Eukaristia eratu.

OTOITZA MISTERIO BAKOITZAREN ONDOREN

Andre Maria, graziazko Ama, errukizko Ama onbera,
zaindu gu geure etsaietatik, eta babestu orain eta geure herio-
tzako orduan. Amen.

ANDRE MARIAREN LETANIAK

Erruki, Jauna. *Erruki, Jauna.*
Kristo, erruki. *Kristo, erruki.*
Erruki, Jauna. *Erruki, Jauna.*
Kristo, entzun guri. *Kristo, entzun guri.*
Kristo, aditu guri. *Kristo, aditu guri.*
Zeruko Aita Jainkoa. *Erruki gutaz.*
Jainko Semea, munduaren Salbatzailea. *Erruki gutaz.*
Jainko Espiritu Santua. *Erruki gutaz.*
Hirutasun Santua, Jainko bakarra. *Erruki gutaz.*
Andre Maria Santua. *Otoitz gure alde.*
Jainkoaren Ama Santua. *Otoitz gure alde.*
Kristoren Ama. *Otoitz gure alde.*
Elizaren Ama. *Otoitz gure alde.*
Ama txit garbia. *Otoitz gure alde.*
Salbatzailearen Ama. *Otoitz gure alde.*
Jainkoari eskaintzearen eredia. *Otoitz gure alde.*
Elkartasun Berriaren Kutxa. *Otoitz gure alde.*
Zerura jasotako erregina. *Otoitz gure alde.*
Arrosario Santuaren erregina. *Otoitz gure alde.*

Jesusen Lagundiaren erregina. *Otoitz gure alde.*
Maria, fededun handia. *Otoitz gure alde.*
Maria, Hitzaren entzule fededuna. *Otoitz gure alde.*
Maria, Jaunaren Hitzaren gordetzailea. *Otoitz gure alde.*
Maria, Hitzaren hausnartzaile handia. *Otoitz gure alde.*
Maria, Jesusen jarraitzaile leial eta iraunkorra. *Otoitz gure alde.*
Jesusen mezuarekin bat egin duzun Maria. *Otoitz gure alde.*
Maria, Jainkoaren herriko lagun alaia. *Otoitz gure alde.*
Maria, gizadi berriaren eredia. *Otoitz gure alde.*
Maria, ama doloretakoa. *Otoitz gure alde.*
Maria, esker onekoa. *Otoitz gure alde.*
Maria, bisitari fina. *Otoitz gure alde.*
Maria, eztei-lagun aztia. *Otoitz gure alde.*

JAINKOAREN BILDOTSA

–Jainkoaren Bildotsa, Zuk kentzen duzu munduko bekatua.
– *Barkatu, Jauna.*
–Jainkoaren Bildotsa, Zuk kentzen duzu munduko bekatua.
– *Entzun, Jauna.*
–Jainkoaren Bildotsa, Zuk kentzen duzu munduko bekatua.
– *Erruki, Jauna.*

–Otoitz egizu gure alde Jainkoaren Ama santu horrek.
–Jesu Kristo gure Jaunaren promesak eskuratu ditzagun.
Egin dezagun otoitz. Jainko Jauna, pozez bete zenuen mundua
Jesu Kristo zeure Seme eta gure Jauna piztean; mesedez, haren
eta gure Ama Maria Birjinaren otoitzari esker, libra gaitzazu
mundu honetako tristuratik eta emaguzu zeruko poza. Jesu Kristo
gure Jaunaren bitartez. Amen.

KANTAK ETA GORAZARREAK**MAGNIFICAT** (Lukas 1,46-55)

Pozaren pozez daukat neure barruna,
Jainkoa baita nire salbamena.

Handiesten du nire arimak Jauna, *
pozaren pozez daukat nire barruna;
Jainkoa baita nire salbamena, *
ikusi baitu mirabe honen ezereztasuna.

Dohatsu deituko naute gaurdanik gizaldi guztiek, *
handiak egin baitizkit Ahalguztidunak:
Santua da haren izena, *
eta haren errukia gizaldiz gizaldi, '
beldur diotenengana.

Bere besoaren indarra erabili du, *
buru arroak suntsitu ditu;
bota ditu beren aulkitik handizkiak * '
eta gora jaso ditu ezerezak;
ondasunez bete ditu gose zeudenak * '
eta esku hutsik bidali asko zutenak.

Bere gain hartu du Israel, bere morroia, *
errukia gogora zaiola;
gure gurasoei hala zien hitzeman, *
Abrahami eta ondorengoei betiko esana.

BENEDICTUS (Lukas 1,68-79)

Bedeinkatua Jauna, Israelen Jainkoa,
agertu eta bere herria askatu duena!
Salbamen-indarra digu eman,
bere morroi Daviden ondorengoan artean.

Hala hitzemanen zuen antzinatek
bere profeta santuen ahoz:
salbatuko gintuela gure etsaien menpetik,
gorroto gaituzten guztien eskutik.
Horrela agertu du gure gurasoenganako errukia,
eta oroitu da bere itun santuaz,
gure guraso Abrahami egindako zin-hitzaz:
Berak emango zigula,
etsaien eskutik askaturik,
beldur gabe bera zerbitzatzea,
santu eta zuzen izanez haren aurrean,
geure bizitza guztian.
Zuri, berriz, haurtxo horri,
Goi-goikoaren profeta deituko dizute,
Jaunaren aurpegi aurretik joango baitzara
hari bidea prestatuz,
erakustearren haren herriari salbamena,
beren bekatuen barkamena.
Gure Jainkoaren errai errukitsuengatik,
agertuko zaigu goiz-argia zeru goitik,
ilunpean eta herio-itzalean daudenei argi egitera,
gure oinok bake-bidean zuzentzera».

NUNC DIMITTIS (Lukas 2,29-32)

Orain utz dezakezu, Jauna,
zeure morroi hau bakean hiltzen,
zeuk hitzeman bezala.
Ikusi dute nire begiok zugandiko salbamena,
herri guztien aurrean zuk aurkeztua:
Nazioak argitzeko argia
eta zure herri Israelen ospea».

BEDEINKATUA JAINKO AITA (2 korintoarrei 1,3-4)

Bedeinkatua Jainkoa,
Jesu Kristo gure Jaunaren Aita,
Aita errukitsu
eta kontsolamendu ororen iturri den Jainkoa!
Berak ematen digu adore atsekabe guztietan,
guk ere besteak edozein atsekabetan
adoretu ahal ditzagun,
geuk Jainkoagandik hartzen dugun adoreaz.

BEDEINKATUA IZAN BEDI JAINKOA (Efesoarrei 1,1-10)

Bedeinkatua izan bedi Jainkoa,
Jesu Kristo gure Jaunaren Aita,
Espirituaren era guztietako bedeinkapenez
zeruan Kristogan bedeinkatu gaituena.
Beragan aukeratu gintuen,
mundua sortu baino lehen,
haren aurrean, maitasunez,
santu eta errugabe izan gaitezen.
Aurrez aukeratu gintuen bere seme-alabaorde izateko,
Jesu Kristoren bidez,
bere nahiaren onberatasunez,
bere Seme maiteagan
hain ugari eman digun graziaren aintzak
bera gorespenez bete dezan.
Seme honengan, honen odolaz, dugu erospena,
eta bekatuen barkamena;
halakoa izan da haren grazi aberastasuna.
Oparo isuri baitigu bere grazia
ezaguera osoz eta jakinduriaz:
bere nahiaren misterioa ezagutarazi digu,
bere onginahiaz erabakita zuena,
garaia zetorkeanean beteko zuena:

Zeruko eta lurreko gauza guztiak
Kristogan bilduko dituela,
berau buru dela.

BELAUNIKO AITAREN AURREAN (Efesoarrei 3,14-19)

Belauniko jartzen naiz Aitaren aurrean,
bai zeruan eta bai lurrean
familia ooren sorburu denaren aurrean,
eta hau eskatzen diot:
bere aintzaren aberastasunari dagokionez,
sendo zaitzatela bere Espirituaren indarrez,
barrutik bizi zaitezten;
bizi dadila Kristo zuen bihotzetan
sinesmenaren bidez
eta izan dadila maitasuna
zuen bizitzaren erro eta oinarri.
Horrela ulertu ahal izango duzue,
fededun guztiekin batera,
zein zabal eta luze, garai eta sakon den
Kristoren maitasuna;
ezagutuko duzue
jakintza ooren gainetik dagoen maitasun hori;
eta horrela,
Jainko izatearen betetasunaz beteko zarete.

JAINKOAREN IZAERA BEREKO IZANIK (Filipoarrei 2,6-11)

Hark, Jainkoaren izaera bereko izanik,
ez zion gogor eutsi Jainkoarekin berdin izateari;
bestela baizik, bere izaeraz hustu egin zen
morroi-izaera hartuz,
eta beste edozein bezala azalduz.
Eta, gizon bezala agerturik,
apaldu egin zuen bere burua,

menpeko eginez heriotzaraino,
gurutzeko heriotzaraino.
Horregatik, Jainkoak goratu egin zuen
eta izen guztien gaineko izena eman zion,
Jesusen izenera,
guztien belaunak makur daitezen,
zeruan, lurrean eta lurpean,
eta mihi guztiak aitor dezaten:
Jesu Kristo, Jauna da,
Aita Jainkoaren aintzarako

POZEZ BETERIK ESKERRAK JAINKO AITARI (Kolosarrei 1,12-20)

Pozez beterik, eskerrak Jainko Aitari,
bere herri santuarentzat prestaturik dituen ondasunetan,
argiaren erreinuan parte izateko
gai egin gaituenari.
Berak atera gaitu ilunaren menpetik
eta bere Seme maitearen erreinura aldatu;
honengan dugu askapena,
bekatuen barkamena.
Jainko ikusezinaren irudi da Jesu Kristo,
sorkari guztietan lehensemea.
Honen bidez baitira eginak gauza guztiak,
zeru-lurretakoak, ageri direnak eta ez direnak:
Aulki, Jaun, Nagusi eta Agintedunak;
gauza guztiak honen bidez
eta honentzat dira eginak.
Diren guztiak baino lehenago da hau,
eta guztiak honengan diraute.
Hau da gorputzaren buru ere,
Elizaren buru, alegia.
Hau da hasiera, hilen arteko lehensemea,
diren guztietan berau izan dadin lehenengoa.

Jainkoaren gogoko izan baita
betearen betea honengan egotea,
eta, honen bidez,
gauza guztiak berarekin adiskidetzea;
honen gurutzeko odolaz bakeak eginik,
zeru-lurretan diren guztiekin.

BADUGU LAGUNTZAILEA AITAREN AURREAN

(1 Joan 1,8–2,2.6)

Bekaturik ez dugula esaten badugu,
geure burua engainatzen dugu,
eta egia ez dago gure baitan.
Geure bekatuak aitortzen baditugu, ordea,
leiala eta zuzena den Jainkoak
bekatuak barkatu
eta gaiztakeria orotatik garbituko gaitu.
Seme-alabok,
bekaturik egin ez dezazuen idazten dizuet hau.
Baina, norbaitek bekatu egiten badu,
badugu Laguntzailea Aitaren aurrean:
zuzena den Jesu Kristo.
Honek bere burua eskaini zuen gure bekatuak barkatzeko,
eta ez gureak bakarrik,
baita mundu osoarenak ere.
Jainkoarekin bat eginda dagoela dioenak
Jesusek jokatu zuen bezala jokatu behar du.

SALMOAK

JAUNA DUT ARTZAIN (Sal 23. [22])

1 Jauna dut artzain, ez naiz ezeren beharrean; *
2 larre gurietan etzanarazten nau,
ur-bazter lasaira eramaten *

3 eta indarrak dizkit berritzen;
 bide segurutik narama, *
 bere izenari ohore eginez. //
 4 Ibar beltz ilunean banabil ere, *
 ez naiz gaitzaren beldur,
 Zu nirekin baitzaude; *
 zure artzain-makilak lasaitzen nau. //
 5 Mahaia atontzen didazu *
 etsaien begi-bistan;
 olio gantzutzen didazu burua, *
 gainezka dut edontzia. //
 6 Zoriona eta maitasuna ditut lagun, *
 bizitzako egun guztietan,
 eta Jaunaren etxean biziko naiz *
 amaigabeko egunetan. //

ERRUKI NITAZ, ENE JAINKO (Sal 51. [50])

3 Erruki nitaz, ene Jainko, zeure maitasunaz, *
 suntsitu nire hobena zeure neurrigabeko gupidaz.
 4 Garbi nazazu zeharo neure errutik, *
 garbitu neure bekatutik. //
 5 Aitortzen dut, bai, neure hobena, *
 begi aurrean dut etengabe neure bekatua.
 6 Zure aurka, zure aurka bakarrik, egin dut bekatu, *
 zure begietan oker dena egin dut. //
 Horregatik, arrazoi izango duzu salatzean, *
 errugabe izango zara epaia ematean.
 7 Hara, errudun jaio nintzen, *
 bekatari ninduen amak sortu. //
 8 Zuk, ordea, bihotz leiala duzu atsegin, *
 barru-barruan jakinduria didazu irakasten.
 9 Kendu nire bekatua isipuz, eta garbi geldituko naiz, *
 garbi nazazu, eta elurra baino zuriago bihurtuko naiz. //

- 10 Sentiarazi niri poza eta alaitasuna, *
susperdu zeuk jo zenuen gizaki hau.
- 11 Aldendu aurpegi hori nire bekatutik, *
suntsitu nire erru guztiak. //
- 12 Ene Jainko, sortu bihotz garbia nigan, *
berritu arnasa sendoa nire barnean.
- 13 Ez nazazu bota zeure aurretik, *
ez kendu niri zeure arnasa santua. //
- 14 Poztu nazazu berriro zeure salbamenaz, *
sendo nazazu zeure arnasa oparoaz.
- 15 Erakutsiko dizkiet gaiztoei zure bideak, *
eta Zugana bihurtuko dira bekatariak. //
- 16 Libra nazazu herio-zigorretik, Jainko, †
ene Jainko salbatzailea, *
eta poz-oihuz ospatuko du nire mihiak zure salbazioa. //
- 17 Ireki, Jauna, nire ezpainak, *
eta nire ahoak iragarriko du zure gorespena.
- 18 Sakrifizioak ez dituzu atsegin; *
erre-oparia eskainiko banizu, ez zenuke onartuko. //
- 19 Damuz hautsiriko espiritua da *
Jainkoak nahi duen sakrifizioa;
zuk ez duzu gutxiesten, ene Jainko, *
bihotz hautsia eta umildua. //
- 20 Ager zaitez, Jauna, onbera Sionekin, *
berreraiki Jerusalemgo harresiak.
- 21 Orduan onartuko dituzu legezko sakrifizioak,
eskaintzak eta erre-opariak; *
orduan eskainiko dituzte zure aldarean zekorrak. //

BEDEINKA BEZA NIRE ARIMAK JAUNA (Sal 103. [102])

- 1 Bedeinka beza nire arimak Jauna, *
nire barren osoak haren izen santua.
- 2 Bedeinka beza nire arimak Jauna, *
ez bedi ahaztu haren mesedeaz. //

- 3 Erru guztiak dizkizu barkatzen, *
gaitz guztiak sendatzen;
- 4 zure bizia hilobitik askatzen du, *
maitasunez eta errukiz koroatzen zaitu;
- 5 ondasunez asetzen du zure bizitza, *
arranoaren antzera berritzen da zure gaztetasuna. //
- 6 Jaunak justizia egiten du, *
zapaldu guztien eskubideak defendatzen ditu.
- 7 Bere egitasmoak agertu zizkion Moisesi, *
bere egintza handiak israeldarrei. //
- 8 Bihozbera eta errukiorra da Jauna, *
haserre-gaitza eta onginahiz betea.
- 9 Ez da etengabe auzitan ari, *
ez du haserrea betiko gordetzen.
- 10 Ez gaitu erabiltzen gure bekatuek merezi bezala, *
ez digu ordaintzen geure erruen arabera. //
- 11 Nola zerua lurraren gainean garai, *
hala haren maitasuna begirune diotenenentzat handi;
- 12 nola ekialdea mendebaldetik urrun, *
hala ditu hark gure hobenak gugandik urruntzen. //
- 13 Nola aita seme-alabentzat errukior, *
hala Jauna begirune diotenenentzat gupidatsu;
- 14 ongi baitaki zerez garen eginak, *
gogoan du hautsa garela gu. //
- 15 Gizakia! Haren egunak belarraren pareko,*
zelaiko lorea bezala da loratzen
- 16 eta, haizeak ukitu orduko, berehala galtzen, *
zegoen tokian aztarnarik utzi gabe. //
- 17 Jaunaren maitasuna, berriz, betidanik betidaino *
begirune diotenenentzat,
haren salbamen-asmoak belaunez belaun dirau †
- 18 haren ituna gordetzen dutenenentzat, *
legeak gogoan hartu eta betetzen dituztenentzat. //
- 19 Jaunak zeruan ezarri du tronua, *
haren errege-aginteak dena du menpean.

20 Bedeinka ezazue Jauna, haren aingeruok, *
entzun bezain laster †
haren esana egiten duzuen izaki indartsuok. //
21 Bedeinka Jauna, haren gudari-talde guztiok, *
haren nahia egiten duzuen zerbitzariok.
22 Bedeinka Jauna, haren sorkari guztiok, †
menpeko dituen toki guztietan. *
Bedeinka beza nire arimak Jauna! //

GOAZEN JAUNAREN ETXERA! (Sal 122. [121])

1 Hura poza nirea, esan zidatenean: *
«Goazen Jaunaren etxera!»
2 Hona orain nire oinak *
zure ateetan, Jerusalem. //
3 Jerusalem, hiri bezala ongi eraikia, *
bere baitan tinko bildua!
4 Hara igotzen dira leinuak, Jaunaren leinuak, *
Israelen lege denez, Jaunaren izena gorestera.
5 Han daude ezarriak auzi-mahaiak, *
Daviden jauregiko mahaiak. //
6 Eskatu bakea Jerusalemertzat, *
bizi bitez lasai maite zaituztenak.
7 Izan bedi bakea zure harresien barruan, *
lasaitasuna zure jauregietan. //
8 Neure senide eta lagunen izenean ere, *
hau diot: «Bakea zurekin!»
9 Jaunaren, gure Jainkoaren, etxeagatik, *
zoriona eskatzen dut zuretzat. //

DE PROFUNDIS (Barren-barrendik dei) (Sal 130. [129])

1 Barren-barrendik dei egiten dizut, Jauna; *
2 entzun, Jauna, nire mintzoa!
Beude erne zure belarriak *
nire erregu-oihura. //

3 Erruak kontuan badituzu, Jauna, *
 nork iraun zutik, ene Jauna?
 4 Baina zuri barkamena dagokizu, *
 zuganako begirunean bizi gaitezen. //
 5 Jaunaren zain nago, zain dago nire barrena, *
 haren hitza dut itxaro;
 6 nire barrena Jaunaren irrikaz dago, *
 gauzaina egunsentiaren irrikaz baino gehiago. //
 Gauzainak egunsentia bezala, *
 7 itxaron beza Israelek Jaunagan,
 Jaunarena baita maitasuna, *
 harena askapen betea.
 8 Hark askatuko du Israel *
 bere erru guztietatik. //

ZUK AZTERTZEN NAUZU ETA EZAGUTZEN (Sal 139. [138])

1 Jauna, zuk aztertzen nauzu eta ezagutzen, *
 2 badakizu noiz esertzen naizen eta noiz jaikitzen.
 Urrundik sumatzen dituzu nire asmoak; †
 3 ohartzen zara noiz nabilen eta noiz natzan, *
 zehatz ezagutzen dituzu nire ibilbide guztiak. //
 4 Nire hitza mihira baino lehenago, *
 zuk, Jauna, ezagutzen duzu zeharo.
 5 Atze eta aurre, inguratzen nauzu, *
 ganean jarria didazu eskua.
 6 Miragarria da zure ezagutza, nitaz gaindikoa, *
 garaiegia nik atzemateko! //
 7 Nora joan naiteke zure arnasatik urruti? *
 Nora ihes egin zure aurretik?
 8 Zerura igota ere, zu han, *
 Herio-leizera jaitzita ere, zu bertan. //
 9 Nahiz argiaren sorlekurantz hegatu, *
 nahiz mendebaldeko itsas mugetan kokatu,

- 10 han ere zure ezkerre gainean izango dut, *
zure eskuinak helduko dit. //
- 11 Nahiz eta nik esan: «Ilunpeak estaliko ahal nau, *
bihurtuko ahal zait inguruan egun argia gau»,
12 ilunpea bera ez da ilun zuretzat, †
gaua bera eguna bezain argi, *
ilunpea eta argia zuretzat berdin. //
- 13 Zuk eratu didazu barrena, *
amaren sabelean eho nauzu.
- 14 Eskerrak zuri, harrigarriro egin nauzulako, *
miresgarriak dira zure egintzak! //
- Barru-barruraino ezagutzen ninduzun, *
- 15 nire hezur-mamiak ez ziren zuretzat ezkutu,
isilpean eratzen ari nintzela, *
lurraren barrenean ehunduz nindoala. //
- 16 Zure begiek nire bizitzako uneak ikusten zituzten, *
idatzirik zeuden denak zure liburuan;
eratuak zenituen nire egunak, *
bat bakarra ere izaten hasi baino lehen. //
- 17 Ene Jainko, bai bikainak niretzat zure asmoak, *
bai neurrigabea haien kopurua!
- 18 Kontatzen hasten banaiz, hondarra baino ugariago dira. *
Esnatzen naiz, eta oraindik zurekin nago. //
- 19 Ene Jainko, gaiztoa hilko bazenu! *
Urrun nigandik odolzaleak!
- 20 Maltzurkeriaz mintzo dira zutaz *
eta zure aurka alferrik altxatzen. //
- 21 Gorroto dizutenei, Jauna, nola ez nik gorroto izan? *
Kontra altxatzen zaizkizunak, nola ez nik higuin izan?
- 22 Gorroto biziz izan ditut gorroto, *
nire etsai dira bihurtu. //
- 23 Oi Jainko, azter nazazu eta ezagutu nire bihotza, *
proba nazazu eta ezagutu nire kezka.
- 24 Ikusi galbidetik ote nabilen, *
eta gidatu ni betiko bidetik. //

IGNAZIOTAR ESPIRITUALITATEA


orrialdea

Bandera bien solasa (GJ 147)	114
Bigarren asteko eskaria (GJ 104)	65
Eguneroko azterketa (GJ 43)	28
Eskaria Errege betikoari (GJ 91)	64
Gauza guztien betiko Jauna (GJ 98)	91
Hartu, Jauna, eta onartu (GJ 234)	86
Hirugarren asteko eskaria (GJ 203)	95
Kristoren arima	421
Loiolako semea gure zaindaria	384
Maitasuna lortzeko kontenplazioa (GJ 233)	104
Prestatzeko otoitza (GJ 46)	83
Zer egin dut Kristogatik (GJ 53)	131

BESTE HAINBAT OITOIZ

Adiskidetzeta	334
Agur, Maria	414
Aparta ezazu nigandik	148
Argi eta bide	179
Begiratu izarrari	518
Betleemeko Haurrari	629
Bizia dakarren janaria	395
Bizitza eralgi	73
Bost zauriei	438
Deia	337
Egin nazazu, Jauna, zutaz zoriontsu	71
Egunez egun	405
Egunon, Jauna!	304
Ene Jauna	548
Ez utzi gu maitatzeari	214
Familia Santuari	634

Fereka nazazu	571
Gizakundea	638
Gogora zaitez	233
Gorde iezadazu haur bihotz bat	129
Har ezazu	641
Har nazazu, Jauna, indarrez	444
Hark gintuen hautatu	617
Irakats iezadazu entzuten	50
Itxarongo dut	455
Izan atsedena bakean	375
Janari da nire gorputza	191
Jarraituko dizugu, Jauna	103
Jaunaren deia	97
Jesu Kristo ene Jauna	316
Kristo gurutzekoari	134
Kristoganako maitasunez	141
Loiolako semea gure zaindaria	384
Maitasun egintza	182
Maitasunaren bihozkadak	323
Maitemindu zaitez	285
Nire gogoa dagoenetik	423
Niretzat, Kristo da bizia	169
Zer dut nik?	289
Zeurea nauzu	225
Zu bakarrik, Jesus	152
Zuk nahi duzuna	68
Zuk nauzu salbatzen	475
Zure eskuetan jartzen naiz	154
Zure gosea	392
Zure gurutzean	409
Zure premia dut	478



JESUSEN LAGUNDIKO EGUTEGI BEREZIA

URTARRILA

- 3 JESUSEN IZEN GUZTIZ SANTUA, Jesusen Lagundiko Goiburua.
- 19 Joan Ogilvie, Esteban Pongrác, Meltxor Grodziecki apaizak, eta Markos Krizevci, Esztergom-eko kalonjea, santuak; Ignazio de Azevedo, apaiza eta lagunak, dohatsuak; Santiago Salès, apaiza eta Gilermo Saultemouche, erlijio-soa, martiriak.

OTSAILA

- 4 San Joan Brito, apaiza; Rodolfo Acquaviva, apaiza, eta lagunak, martiriak.
- 6 Paulo Miki, erlijio-soa, eta lagunak, santuak; dohatsuak: Karlos Spinola, Sebastian Kimura, apaizak, eta lagunak, martiriak.
- 15 San Klaudio de la Colombière, apaiza.

MARTXOA

- 19 SAN JOSE ANDRE MARIAREN SENARRA, Jesusen Lagundiko Zaindaria.

APIRILA

- 22 ANDRE MARIA SANTUA, Jesusen Lagundiaren ama.
- 27 San Pedro Kanisio, apaiza eta Eliz Irakaslea.

MAIATZA

- 4 San Jose Maria Rubio, apaiza.
- 16 San Andres Bobola, apaiza eta martiria.
- 24 Stradako Andre Maria (Madonna della Strada).

EKAINA

- 8 Santiago Berthieu santua, apaiza eta martiria.
- 9 San Jose Antxietakoa, apaiza.
- 21 San Luis Gonzaga, erlijiosoa.

UZTAILA

- 2 Bernardino Realino, Joan Frantzisko Régis eta Frantzisko de Geronimo, santuak; dohatsuak: Julian Maunoir eta Antonio Balducci, apaizak.
- 9 Leon Ignazio Mangin, apaiza, Maria Zhu Wu eta lagunak, santuak eta martiriak.
- 31 LOIOLAKO SAN IGNAZIOA, apaiza eta Jesusen Lagundiaren fundatzailea.

ABUZTUA

- 2 San Pedro Fabro, apaiza.
- 18 San Alberto Hurtado Cruchaga, apaiza.

IRAILA

- 2 Dohatsuak: Santiago Bonnaud, apaiza, eta lagunak; Jose Imbert eta Joan Nikolas Cordier, apaizak; Tomas Sitjar, apaiza, eta lagunak, martiriak.

- 9 San Pedro Claver, apaiza.
- 10 Frantzisko Garate dohatsua, erlijiosoa.
- 17 San Roberto Belarmino, gotzaina eta eliz irakaslea.

URRIA

- 3 San Frantzisko Borjakoa, apaiza.
- 12 Joan Beyzym dohatsua, apaiza.
- 19 Santuak: Joan de Brébeuf, Isaak Jogues, apaizak, eta lagunak, martiriak.
- 21 Diego Luis de San Vitores dohatsua, apaiza, eta San Pedro Calungsod, martiriak.
- 30 Domingo Collins dohatsua, erlijiosoa.
- 31 San Alonso Rodriguez, erlijiosoa.

AZAROA

- 3 Ruperto Mayer dohatsua, apaiza.
- 5 JESUSEN LAGUNDIKO SANTU GUZTIAK.
- 6 (Oroitzapena) Jesusen Lagundiko Hildako Guztiak.
- 13 San Estanislao Kostka, erlijiosoa.
- 14 San Jose Pignatelli, apaiza.
- 16 Roke Gonzalez, Alonso Rodriguez eta Joan del Castillo santuak, apaizak eta martiriak.
- 23 Migel Agustin Pro dohatsua, apaiza eta martiria.
- 26 San Joan Berchmans, erlijiosoa.
- 29 Bernardo Frantzisko de Hoyos, apaiza.

ABENDUA

- 1 Edmundo Campion, Roberto Soutwell, apaizak, eta lagunak, santuak eta martiriak.
- 3 SAN FRANTZISKO XABIERKOA, apaiza.

